BIDEZ

GURE HERRIKO GAUZAK
COSAS DE NUESTRO PAIS

JUAN SAN MARTIN



JUAN SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATE

Nació en Eibar (Guipúzcoa), en 1922.

Escritor infatigable que ha colaborado en las principales publicaciones culturales del país.

Miembro de la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia, de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País y del Grupo Etniker.

Ha traducido al vascuence obras de S. Espriu, B. Brecht y M. Ghelderode. Y es autor de las obras:

En vascuence:

Juan Antonio Mogel, bere bizitza ta lanak. Zarautz, 1959.

Zirikadak. Zarautz, 1960.

Eztenkadak. Zarautz, 1965.

Uhin berri (1964-1969). Poesia berriaren bilduma). Donostia, 1969.

Euskeraren inguruan (Euskal Elerti 69 bilduman agertutako saiaera). Bilbo-Donostia, 1969.

Hegatsez (Hitz-lauzko bilduma. S. Basauriren laguntzarekin). Zarautz, 1971.

Euskal Artea (Lur eta gizon, Euskal Herria bilduman). Oñati, 1974.

Gogoz. Donostia, 1978.

Literaturaren inguruan. Donostia, 1980.

En castellano:

Estudio etnográfico del Valle Urraul Alto (Con la colaboración de L. P. Peña Santiago). San Sebastián, 1966.

Escritores euskéricos. Bilbao, 1968.

Elgueta con Anguiozar y Ubera. San Sebastián, 1975.

Eibar (Capítulo General Monográfico de Eibar en el **Diccionario Enciclopédico Vasco** de la Editorial Auñamendi, vol. X, págs. 180-272). San Sebastián, 1979.

UDALA - EIBARKO - EGO IBARRA

BIDEZ

GURE HERRIKO GAUZAK

(Cosas de nuestro País)

© Copyrigth Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa
Editorial n.º Registro 936 C.E.C.A.
ISBN: 84-7231-582-7
Depósito Legal: D.L. 300/80 - S.S.
Imprime: EMAN S. A. Industrias Gráficas - C. Mundaiz, 14 - S. S.

JUAN SAN MARTIN

BIDEZ

GURE HERRIKO GAUZAK

(Cosas de nuestro País)

Ediciones de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa

1981

HITZAURREA

«Gogoz (Cosas de nuestro país)» deiturako Documentu bildumaren 16. zenbakiak, 1978 urtean Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak argitaratua, gipuzkoar egunkarietan, etnografia, historia, arte, musika, literatura, hizkuntza eta beste zenbait gai sorta zabal bat biltzen zuen.

«Gogoz» liburuaren egilea Juan San Martin izan zen. Eibartarra dugu bera, duela 48 urtea jaioa. Kultur eremuan langile trebea, nahiz euskaraz eta nahiz erdaraz idazle ospetsua eta Euskaltzainkide.

Gaur, berriro ere Juan San Martin bere lanaren fruitua eskainiz datorkigu: ibiltari geldigorra, han-hemendik gure lurraldearen zenbait gertakizun, biografi, monumentu, ohitura... etab. garbi eta erraz jakinarazten digu.

Eta berriro ere etnografia, historia, artea, musika, hizkuntza, literatura, omenaldia, humorea eta zenbait gauza eskaintzen zaigu bigarren lan sorta honetan, «saski-nahaski» atsegin bat osatuz, «Bidez (Cosas de nuestra tierra)» izeneko liburuan.

Egilearen asmoa eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren Kultur politika, helburu berdinean elkartu dira. Gipuzkoako kredito eta aurrezki lehen Erakundearen helburua, hain zuzen, ezaguera eta berri zabaltzea denez gero, gure lurraldearen ezaguera lortzeko tresna egoki bat zabaldu nahi du, hartaz kezkaturik direnen artean.

Lan hau, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren bezeroei esker argitaratua izan da; baita egileak, gipuzkoarra izanik, pairatsuki, iraupenez eta arreta handiz, gure lurraldeari dagokion zenbait ikuspegi bildu duelako ere.

PROLOGO

El número 16 de la Colección Documento, bajo el título de «Gogoz (Cosas de nuestro país)» y editado por la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa el año 1978, daba a conocer una serie larga de artículos que, publicados en la prensa guipuzcoana, hacían referencia a la etnografía, la historia, el arte, la música, la literatura, la lengua, el recuerdo y la miscelánea.

El autor de «Gogoz» fue Juan San Martín. Eibarrés, de 48 años, colaborador en las tareas de promoción cultural, escritor dilatado en euskera y en castellano y miembro de la Real Academia de la Lengua Vasca.

Hoy vuelve Juan San Martín a ofrecernos el resultado de su trabajo, la claridad de sus ideas, el esfuerzo del viajero incansable, para conocer, recoger y describir acontecimientos, biografías, monumentos, costumbres, etc., de nuestra tierra.

Nuevamente la etnografía, la historia, el arte, la música, la lengua, la literatura, el homenaje, el humor y la miscelánea integran y componen esta segunda serie de trabajos que se presenta bajo el título: «Bidez (Cosas de nuestra tierra)».

Son las cosas de nuestra tierra las que ocupan y preocupan a Juan San Martín, que quiere convertirse, y de hecho lo es, en portavoz de lo que aquí pasa y de lo que aquí hay, para que los guipuzcoanos conozcan más a su tierra.

Este objetivo de dar a conocer que tiene el autor en su protagonismo cultural y literario coincide con uno de los objetivos de la política cultural de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Dar a conocer es meta permanente para la primera entidad de crédito y ahorro de Guipúzcoa y por ello editamos esta obra, con la ilusionada esperanza de que pueda servir como instrumento útil a los que desean conocer cosas de nuestra tierra.

El trabajo se ha hecho posible porque los guipuzcoa-

nos son los clientes de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa y porque el autor, que también es guipuzcoano, ha recogido con paciencia, constancia y esmero diferentes aspectos de nuestra tierra.

Eskaintza:

Zuri, Unai;
saio laburron bidez,
gure herrianganako
maitasuna erakutsiz.

J. S. M.

AURKEZPENA

Irakurle: Hara hemen berriz ere, ekinaren bidez, Gure herriko gauzak *adieraziz osatu ahal izan dudan liburua. Bertan biltzen diren artikulu guziak dira lehen Donostiako* Hoja del Lunes*-ean bi urteren buruan astero argitaratu nituenen bilduma, gaietan sailkaturik.*

Beraz, eskuetan duzun liburu hau, Gogoz*-en jarraipena da eta berari egin nion aurkezpen harek honentzat ere berdin balio du. Honegatik, orduan esanari ezer guti gehitu nezaioke.*

Gure gauzak ezagutaraztea du helburu. Bizitza hontan, ezegutzen ez dena, eztago maitatzerik, eta maitatzen ez denak ez du etorkizunik. Badakigu gure herriarentzat denbora zailak direla hauek. Baina, herri tipi batentzat noiz ez dira denbora zailak?

Hiru urte hauetan gora-behera handiak eta aldakuntza asko ezagutu ditu gure herriak, baina oraindik ez aski arbasoen kultur ondasuna eskolen bidez normalki ezagutarazteko, ezta ere herriaren zerbitzuko erakundeak beren azpiegituraz behar bezala lanean jartzeko. Eta, herri guziak bezala, gureak ere, iraungo badu berrikuntzen beharra ere badu, gure Lizardik gogozko zuen erara: «... nai aunat ere noranaikoa: yakite-egoek igoa; soña zaar, berri gogoa».

Gure hizkuntzaren egoera inoiz baino larriagoa da. Euskarak ezin du itxaro denbora hobeeri begira. Aspaldi denik hil edo biziko auzian sartua da eta presa du beharrezko osagarriz hornitzeko.

Hala ere, zentzuz jokatzen ikasten badugu, herri honen nortasunaren alde, uka ezinezko ekintza handien aurrez aurre gaudela esan behar. Nere aldetik, euskaldunon jarreraz kontseilurik eman behar banu, honako hau zabalduko nuke gure herriaren lau haizetara: hizkuntza eta kultura, edozein talderen gainetik; zeren, buruz jokatu beharra bai dugu, giza balioak lehenik direla, idekitasunez eta gogoz, bidez, landuz... Herri bat birreraiki dezagun. Inoiz ere ez ahaztu herriagatik hiltzea baino ederragoa dela herriagatik bizitzea.

Egileak

Eibar, 1981eko urtarrilaren 30ean.

PRESENTACION

Lector: He aquí de nuevo lo que he podido juntar para un nuevo libro descriptivo de Cosas de nuestro país, *como fruto de una labor persistente. Los artículos aquí reunidos vieron la luz semanalmente en el transcurso de dos años consecutivos en la* Hoja del Lunes *de San Sebastián y que ahora van agrupados por materias.*

El libro que tienes en tus manos es la continuación de Gogoz *y la presentación que hice al mismo es igualmente válida para éste. Por ello, poco puedo añadir a lo ya dicho en su día.*

Describir aspectos y cosas del país es el único fin que persigue. En esta vida, sin conocer no se puede amar y lo que no se ama carece de porvenir. Sabemos que los tiempos son difíciles para nuestro pueblo. Pero, ¿cuándo no son difíciles los tiempos para un pueblo pequeño?

Durante los tres últimos años nuestro pueblo ha conocido muchas convulsiones y transformaciones, pero aún no los suficientes para introducir el legado de nuestra cultura tradicional en las escuelas, ni para formar las infraestructuras necesarias para poner los organismos al servicio del pueblo, y que si ha de perdurar requiere modernización, a la manera que aspiraba el poeta Lizardi: «...quiérote también para todo; que las alas del saber te eleven; viejo el cuerpo, nuevo el espíritu».

La situación de nuestra lengua es más angustiosa que nunca. El vascuence no puede esperar a épocas mejores. Lleva ya tiempo en trance de vida o muerte y necesita remedios urgentes.

No podemos negar que nos hallamos frente a grandes posibilidades para las realizaciones hacia la recuperación de la identidad de este pueblo. Sepamos aprovechar al máximo. Si por mi parte tuviera que adoptar una postura para aconsejar, proclamaría a los cuatro vientos: que la lengua y cultura precedan a los partidismos; que hemos de obrar juiciosamente, anteponiendo los valores humanos, con un concepto aperturista, con férrea voluntad para avanzar laborando. Estamos en la era de la reconstrucción de un pueblo y jamás hay que olvidar que vivir para un pueblo es más hermoso que morir para el mismo.

El autor

Eibar, 30 de enero de 1981.

AURKIBIDEA

Hitzaurrea 7
Prólogo 8
Aurkezpena 12
Presentación 13

I

ETNOGRAFIAZ - De Etnografía

1. Eguzkia gurtzea 21
2. Poetaren sua Donibanez 25
3. Gure herriko gabon kantak 30
4. XVIII. Mendeko gabon kantak euskal literaturan 35
5. Aratostiak 43
6. Ixu - eguna 48
7. Atarrabi apezaren ingurua 51
8. Dantzak 56
9. Euskaldunen jazkerak 61
10. Euskal-Herriko zeramika erakusketaz eta ikerketaz 67
11. Jan-edan zahar eta berriak folklore bidez eta umorez ... 71

II

HISTORIAZ - De Historia

12. Orreagako gudua 79
13. Eibar. Erdi-aroko agiriak 81
14. En torno a las «Juntas Generales» 89
11. Lord Carnarvon eta Euskal-Herriko Foruak 93
16. Afrikako gerra 97
17. Aberri Eguna 102
18. Gernika 104
19. Mendarok herri izan nahia 109

III

ARTEAZ - De Arte

20. Haitzuloetako pinturak. Munduko arterik zaharrena galzorian 117
21. Santiago bidea 122
22. Erromaniko arkitekturaz 126
23. Irudigintza Erromanikoan 131
24. Erromaniko artea Gipuzkoan 137
25. Eibarko San Andres 141

26. Elgetako irudi etzanak 146
27. Pizkunde artearen ageri ez ezagun bat. Martirien erretaula Plaentzian 149
28. Silvestre Perez eta Neoklasiko arkitektura 154
29. Zuloagaren gaztaroko irudiak 158
30. J. Olabe pintorearen ehungarren urteburuan 164
31. Arrue anaiak 169
32. Zubiaurretarrak 174
33. José María Uzelay 179
34. Basterretxearen irudiak 183
35. F. Beorlegi, I. Larrañaga eta D. Txopitea artistak Eibarren 187
36. J. M. Telleria-ren artegintza 190
37. J. L. Goenaga 193
38. Herri arteari buruzko liburu bat 196
39. Zeramika berritze 200

IV

MUSIKAZ - De Música

40. Organo musikaldi IV. astea 207
41. Hilarion Eslava-ren oroitzapenez 210
42. Euskal musika erakunde baten inguruan 214

V

HIZKUNTZA ETA LIAERATURAZ - De Lengua y Literatura

43. Iztueta erromantikoa (1) 221
44. Iztueta erromantikoa (2) 225
45. Toribio Iriondo elgoibartarra; «Ongi zerutik» eliz kantaren egilea 229
46. Jan-edanen inguruan 234
47. Euskal klasikoak plazaratzen 239
48. W. Shakespeare euskaraz 244
49. Vicente Alexandre eta 27garreneko belaunaldiaren eraginez. 247
50. G. Arestiren poemak 250
51. Usteak uste direnean 254
52. Maitasunetik lizuntasunera 258
53. Euskal poesia bere bidean 262
54. Haurrentzako ipui eta irakur gaiak 266
55. Euskal-literatura bere barnetik ikertuaz 269
56. Gure literatura bere barrutik ezagutu beharra 274

57. Universitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea 278
58. Herria astekariaren larogetahamar urteburuan 282
59. «Jakin» bere arloan. Jose Luis Ugarteburu Arrieta-ren oroitzapenez 286
60. 1976. urteko euskarazko liburuak 291
61. 1977. urteko euskarazko liburuak 297
62. Elebitasuna delata 301
63. Kale izenak euskaraz 305
64. Donostiaren Parte Zaharreko kale izenak 310
65. Euskal liburu eta disken azoka, Durangon 315
66. Liburu zuria 320
67. Liburuzaleak eta iker lanak 323
68. Lehendakari euskalduna delata 328
69. Euskararen bizi nahia eta bizi beharra. Gure hizkuntza autonomi-estatutoen aurrez aurre 332
70. Bai, euskarari! 336
71. Ahaldena, onaren urrengoa da 341
72. Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra 345
73. H letraren arazoa Gipuzkoarren artean 350

VI

OROITZAPENEZ - En recuerdo

74. Fr. Juan Mateo Zabalaren bigarren ehunurteurrena 359
75. Agustin Pascual Iturriaga (1778-1851) 362
76. Pierre Broussain zenaren omenez 365
77. Piarres Lhandaren mendeurrenean 369
78. K. Enbeita «Urretxindorra» 372
79. Eugeniusz Frankowski eta euskal etnografia 377
80. I. López Mendizabalen emaitza 383
81. Salbatore Mitxelena, aberri minak eragindako poeta 387
82. Rodolfo Bozas-Urrutia 391
83. M. Arozamena bertsolaria 395
84. Santi Arizmendiren oroiz 398
85. Jose Maria Donosti. Oroitzapenezko lerroak 403

VII

OROTARIK - Varios

86. Jose Miel Barandiaran 409
87. Norbert Tauer-ekin 412
88. N. Tauer-i galdezka 416
89. Piarres Lafitte poligrafoa 420

90. Jokin Zaitegiren kemena (I) 424
91. Jokin Zaitegiren kemena (II) 429
92. Mattin bertsolaria 433
93. Etxahun-Iruri khantan 438
94. Zuberoa gaindi 442
95. Sagardoa 447
96. Euskal izenak auzitan 452
97. Gogoeta batzuk 457

VIII

UMOREZ - De Humor

98. Irakurle batekin gatz-ozpinduzko alkarrizketan 465
99. Nahi ez duguna falta denean 468
100. Letra gozoak dorrepeko asto janari 472
101. Umore beltzetik 476
102. Usteak 481

I

ETNOGRAFIAZ

De Etnografía

EGUZKIA GURTZEA

Eguzkia gurtzeko ohitura aintzin aitzinako denboretatik gure egunok arte iraun du euskaldunon artean. Arkeolojia aldetik begiratuko bagenuke, gutien gutienez Neolitoz garaitik datorkigu ohitura hau. Eguzkiak argia eta beroarekin bizitza ematen digu, eta natura hutsaren gora beherekin bilakatu zen aintzinako gizonak eguzkia gurtzea gauzarik bidezkoena zela esango genuke.

Aintzinako euskaldunek bitan banatzen zuten urtea: Uda eta negua. Hola aitortzen zigun Azkue berak *Euskalerriaren Yakintza*-ren lehen tomoko 68. orrialdean. Eta, obra beraren 158/160 orrialdeetan aurkituko ditugu eguzki gurtzearea agiriak, goizean irteran edo naiz arratsaldez ezkutatzean. Gorbea ostean gordetzean: «Gaur kontsolau nozu, eguzkia; biar bere etorri zakidaz kontsolau naitean.» Edo beste honako hauek, Diman: «Eguzkia joan da bere amagana biar etorriko da denbora ona bada»; eta Azpilkuetan egunsentiz: «Ongi etorri, iduzki xuri.»

Eguzkia, iduzkia, iruzkia..., ezagutzen da euskalkirik euskalki, baina bere sustrai zaharra Zuberoan oraindik erabiltzen duten «ekhia»n aurkituko dugu. Eta hontatik hartzen du bere izena hil honek ere, Ifarraldeko euskalki batzuetan, Ekaina. Eguzkia goren aurkitzen den hila. Eta hil honetan izango dira eguzki jaiak ospatzeak ere, Euskal-Herrian ez ezik mundu guzian ere zabaldua den ohitura.

Eguzki gurtze hoiek jentil otoitzak ziren noski, Luzaiden «atsuen otoitzak» eta «otoitz ttipiak» bezala ezagutzen direnak. Jose Maria Satrustegik jaso zituen hoietarik anitz eta Euskaltzaindiko sarrera hitzalditzat *Luzaideko Otoitz ttipiak* hartu zituen (ikus, «Egan», 1964, 1-6 zenb., 19/30 orr.). «Herri bat zer den ongi ezagutzeko, zer izana den jakin behar litzake lehenik; edo nolakatu dugun denborarekin», esango digu Satrustegik bere hitzaldiaren haseran, eta adibide askoren berri agertu zigun, ber berak zuzenki jasoak. Kontatzaileetariko batek honela aitortu zion: «Iruzkia ateratzian zeinatu eta esku-zabalari musu emanez potta igortzen dakogu.»

Aita Donostiak ere antzeko gaia erabili zuen 1956an Euskaltzaindiko solas-aldi batean, «Euskal-Erriko otoitzak» izenez (ikus,

«Egan», 1956, 2. zenb., 34/52 orr.). Bertan zionez, Zuberoan oraindik ere saten omen da «Ekhi saindua».

Nafarroako Larraunen honako otoitz hau aurkitu zuen:

Agur, eguzki ederra,
Jetxirik zerutik lurrera,
Illuna desterratzera
Ta gu argitten paratzera.

Eta Luzaiden bertan esaldi polit honi atxeman zion Aita Donostiak: «O Iruzki saindia, emakiguzu illeko ta biziko argia». Lekeition, haurtxoei, San Juan goizean goiz jaikitzeko esaten omen zien: eguzkia dantzan agertzen zelako. Eta Baxenabarreko Banka deritzan herritxoan jaso zuen otoitza ere oso polita da: «Adio Iguzki saintua, bihar arte; bihar xauri (atoz) egun bezala».

J. M. Barandiaranen bilketetan beste argibide asko bilatu genezazke gai honi buruz. Ikus bere *Obras completas*-en lehen tomoan 75, 271 eta 383. orrialdeetan. Lehen partean, Euskal-Herriko Mitologian eguzkiak duen hedadura agertuko digu. Deitu ere, «Eguzkibegi» eta «Jainkoaren begi» deitua da Ataunen eta Berastegin. Eta San Juan jaiekin duen loturaz zenbait argitasun ematen digu. Aipatutako obra honen barnean dugu *La religión des anciens basques,* eta bertan ikusten denez, inoiz emakumezko amonaren izena hartzen du; Elosutik Plaentziara bitartean Muskurutxuko mendietan jaso zuenez:

Euzki amandria
Badoia amangana,
Biar etorriko da,
Denbora ona bada.

«Amandria» ,ilargiari deitzea, maizago ezagutzen dena da. Lan berean eta erakutsi dugunaren ondorean agertzen den bezala:

—Illargi amandrea,
Zeruan ze berri?
—Zeruan berri onak
Oraiñ eta beti.

Ilunabarrean · Al atardecer

Ataunen eta Ormaiztegin haurrek esan ohi dutenez. Baina, arestian adiarazi dugunez, «Ilargi amadrea»renak oso zabalduak dira Euskal-Herri guzian.

Bietan argia da pertsona izena hartzen duena. Honegatik, Ondarruko kopla bat honela hasten da: «Zeu zara Santa Klara, euskeraz argia...» Eta Mañari partean esaten dutenez, eguzkiaren ama dela Andre Mari, izen honekin Ama Birjina adiaraziz. Baina behar bada, lehen lehenago, Andre Mari mitologiako Marirekin nahastu zen, Nafarroa eta Gipuzkoako zenbait herritan agertzen den bezala (J. M. Barandiaran, *Obras completas*, I, 383/384 orr.). Eta inoiz santa eta bedeinkatua aurkituko dugu. Adibidez, Errigoitin esan ohi da: «Eguzki santu bedeinkatue, zoaz zeure amagana».

Erlijio berriagoak zaharragoetarik beti hartzen dute zenbait ideia, gauza eta sineskera, eguzkia gurtze honetan ikus genezakean bezala, eta Ekaineko San Juan suak zaharrenetarikoak di-

tugu, gure egunotara arte irauduenetarik behinik pehin.

* * *

De entre las reminiscencias de primitivas creencias, los dichos, ritos y fragmentos de oraciones en torno al astro solar serán sin duda las más antiguas de las que se pueden hallar en nuestro país.

Los vascos antiguos, y aún hoy podemos deducir de la manera de designar los equinocios, que dividían el año en dos estaciones: verano *(uda)* e invierno *(negu)*. El mes de junio es cuando el sol alcanza su cota más alta y por esto en algunos dialectos se le ha venido llamando Ekaina (sol alto). Y las hogueras de San Juan están estrechamente relacionadas con las fiestas conmemorativas del ciclo solar.

Entre otros autores, J. Vinson, R. M. de Azkue, D. Donostia, J. M. Satrustegui y sobre todo J. M. de Barandiarán han recopilado importante material de estas creencias que se pierden en la noche de los tiempos.

En algunas regiones de Vasconia, aún hoy, al ponerse el sol, le dirigen un saludo, que el mismo varía en cada lugar: «La abuela Sol va hacia su madre»; «Sol santa, bendita, vete hacia tu madre», y otras fórmulas similares. En Mañaria, al ponerse el sol, le saludan diciendo *agur* (adiós); de lo contrario el sol, dicen, se retira llorando donde está su madre que allí creen que es la Virgen María o Andra Mari, nombre que también designa al numen Mari, Tierra personificada, según ciertos relatos de Goyerri y de la montaña de Navarra. (J. M. de Barandiarán, *Obras completas*, I, pp. 75, 271 y 383).

Nuestro pueblo, al mantener su lengua, con la misma ha mantenido también estas muestras de primitivas creencias adheridas al viejo idioma.

1977 - VI - 20

POETAREN SUA DONIBANEZ

Iragan maiatzean Bergaran izan genuen bilera batean, gezurra badirudi ere, «Irakurtzen ari naizen azken poesiaz» deitu txosten bat Gandiagak aurkeztu zigunean, egungo munduan euskarak hain beharrezko dituen hitz berriez ari zen, hizkuntza zaharrari bizi berria eman lezaken hitz berriez, zientzia eta teknologiazko hitzez, baina Mitxelenak poetaren beharra nabaritu zion.

Hara hor, poeta mundu berriago baten beharrezko iduritzen zaigun hizkuntzaren eske eta hizkuntzalaria poesiaz ase ezinik. Poesiak emango omen dio euskarari behar duen «tornuya».

Etzun arrazoiaren faltarik, zeren gure herriaren gogoa kanta zaharrek eta belaunaldi berrikoek piztu bai dute. Gandiagaren liburu hirukoitza hor dugu lekuko, paperetan, disketan eta herriaren ahoan: *Elorri* (1962), *Hiru gizon bakarka* (1974), *Uda batez Madrilen* (1977). Liburu hauek ezagutzen ez dituzten edozein gaztetan entzuten dira bertako poemak kanta bihurturik.

Poeta berak, gehienetan edo kasik beti, herriaren inguruan nabaritzen duen giroan aurkitzen du non bazka. Inoiz, gainera, giro zaharra berritu nahi du edo lehenari zentzu berria eman nahi dio. Hau izan da Bitoriano Gandiagak aurtengo San Juan bezperan Eibarren izan dugun ezkontza batean agertu duena ere:

Udaburuaren aintza, (bis)
gaueko su-ospakuntza;
Ekainak hogei ta hiru,
Iñaki-Rosen ezkontza; (bis)
gaueko su-ospakuntza.

Metatan dago egurra (bis)
zindoa bezain samurra.
Piztuko duen suari
eskeintzen diot agurra, (bis)
zindoa bezain samurra.

Gauaren atetan sua, (bis)
sentipen zaharren zeinua;
Iñaki-Rosen gogoak
apropos aukeratua, (bis)
sentipen zaharren zeinua.

Lehen hiru bertso hauen ondotik beste hiru dira, azkenarekin honela bukatzen dela:

Hau da San Juan bezpera! (bis)
Ohituraren arabera,
gauari bere sua ta
ezkonberriei tobera, (bis)
ohituraren arabera.

Egun hortan, Gandiagak, Azitaingo elizatxoan F. Bergara jaunari ezkontzako mezan laguntzean ere, poeta gogoa agertu zuen Testamentu Berriko zati hautatuak irakurtzean, maitasun suaren lagungarri. Eta gauza polita izan zen otordu ostean frailea koblakari. Eibartar adarjotzaile batek esanarren, «Honek frailionek jaukaz koplak», han ez zen inor larritu, ezta Gandiaga bera ere, zeren aspalditik ohitua bait da Plaentzia eta Eibar aldeko hitz-joko zirigarriz. Bestela ez zeukan Arteta inguruko San Andresen kapeillau izaterik. Hare, gehiago, hemen ezta Jordanik eta ibilian ibiliz bertakoz kutsatu ere bai. Bestela nondik sortu honako bertso hauek?

11. *Plaentzian ibaia,*
Eibarren San Juan (bis)
desenpleo-antzean
ez ote daguan
darabilt buruan;
Plaentzian ibaia
Eibarren San Juan.

12. *Jordanik ez ibairik*
ez baita Eibarren, (bis)

San Juan Eibarrera
nola etorri zen?
Ez dut konprenitzen,
Jordanik ez ibairik
ez baita Eibarren.

Eta arrazoia du, zeren aurpegia garbitzeko ere Plaentziako ura behar izaten bai dugu eibartarrok.

Baina batez ere, Gandiagak, eztai hauetan erakutsi diguna, zera izan da, poeta herrikoiaren ahalmena, ohitura zaharretako irudien bidez jendearen gogoetara joaz. Eta udaburuan Donibanek badu oraindik orain ere beste jai askok ez duten zerbait eta poetak hor aurkitu zuen bere gaia, bere egurra, herriagan su berria piztuko duena. Honegatik, ekainaren hogetiruan guziok jarri ginduzen kantari, panderojotzaileen koplaz. Lehen saila sei bertsokoa zen eta bigarrena hamaseikoa.

Poeta sentikorrak gogo zahar berritua zekarren. Ekainean Donibanez eguzkia garai denean oraindik orain ere ospaketarik anitz izaten da gure herrietan, eta lehen lehenean zer izan zaitekean bilduak ditugun materialetatik ohartu gindezke. Gai hontaz argitasun eta iturri asko emanak ditut neronen artikuluetan eta ikus *Gogoz* liburuaren 42/60 orrialdeetan.

Sustrai zaharreko sinboloz baliatu nahi duen poetarentzat etorria bezain premiatsua da ekarria, eta bere etorriaz ageri onak emana den Gandiagak, hauetan erakusten digunez, ekarri ona du:

3. *Naturak aintza dio*
landaren indarrez (bis)
eguzkiaren jaia
ospatu beharrez
Sanjuan egunez
naturak aintza dio
landareen indarrez.

4. *Goizetik eguzkia*
Sanjuanez dantzan (bis)
jendeak plazarako

animua plazarako
aurrelari gisan
goizetik eguzkia
Sanjuanez dantzan.

5. *Sanjuan egunsentiz*
ez nuen nik hotzik; (bis)
belardiko intzetan
busti nintzen pozik,
gustora biluzik.
Sanjuan egunsentiz
ez nuen nik hotzik.

6. *San Juani egina*
nion nik eskaintza (bis)
bezperan sua eta
bihamunez intza;
bete nion hitza.
San Juani egina
nion nik eskaintza.

7. *Kosmetiko jatorra*
—merkea untura— (bis)
azala gozatzeko
—hala da ohitura—
Sanjuango ura.
Kosmetiko jatorra
merkea untura.

Ikus dezakegunez, poetak bertso gutxitan ematen ditu eguzkiaren ospatzezko ohiturak, asaba zaharren mezua gorde dezagun geroan. Izatearen kezka, gogoaren mina eta naturaren misterioa, elkarrekin dira udaburuan, eguzkia garai denean. Eta, pozarekin nahasturik poetaren malura:

15. *Eguzkiak argia,*
San Juanek ura; (bis)

halere sendagaitza
gizonen malura.
Ez dio ardura!
Eguzkiak argia,
San Juanek ura.

* * *

En los simbolismos se han mostrado verdaderos maestros los poetas de Aránzazu, tal como he mostrado repetidas veces, así en el prólogo al libro de poesía *Hitz berdeak*, de José Azurmendi, como en los artículos que he dedicado en estas mismas páginas a V. Gandiaga en «Poeta iratzartua» (29-7-74) y «Salbatore Mitxelena, aberriminak eragindako poeta» (14-11-1977).

La víspera de San Juan coincidí en la boda de unos amigos en Azitain de Eibar, donde el poeta Fr. Victoriano Gandiaga cooperó en los oficios con don Félix Vergara. Tras la comida, en el restaurante del lugar, Fr. Gandiaga, que tiene buena veda de San Francisco de Asís, cantó dos poemas compuestos a la manera de las antiguas coplas, porque a su ser místico nada le quita su buen humorismo. Así, valiéndose de los símbolos utilizados en las viejas tradiciones del país en torno al solsticio de verano y en las propias bodas: toberas, fuego, agua..., que son aún de uso en el país, el poeta empleó como ingredientes de sus composiciones, por motivos de la celebración y por la época, cuya descripción se hace en el texto en vascuence. Además, teniendo en cuenta el lugar, intercaló algunas estrofas picarescas y satíricas a la usanza de Placencia y Eibar, y en alguna otra dejando entrever la angustia existencial ante el misterio de la propia naturaleza.

Gandiaga, que es un poeta extraordinario, penetró fácilmente en las fibras sensibles de los allí presentes. Su maestría como poeta testimonian su manera de utilizar los símbolos y su rico lenguaje lo utiliza incrustando formas populares.

1978 - VI - 26

GURE HERRIKO GABON KANTAK

Orain bi urte, garai honetan, «Herriaren Gabon kantak» izenez Debarruaren behe parteko Gabon kanteri buruzko artikulu bat eskaini nuen, Elgoibar, Plaentzia eta Mutrikuko zenbait kanta adiaraziaz. Ikus *Gogoz*, 32-37 orrialdeak. Gaurkoan, orduan esan genuenari jarraituz, gure folklore ugariaz ahalik onduen balia gaitezan, berdintasun aspergarrietatik ihesi, tokian tokikoa aprobetxatzearen alde jardungo gara.

Euskal-Herriaren alde guzietan aurkitu genezazke bertako eta inguruko Gabon kantak, eta hauetaz baliatzen ikasi beharra dugu. Ondo da auzotik hartzea ere; baina Gabon kanta jatorrak aurkitzeko ez dugu auzora joan beharrik. Euskal-Herriko alderdi guztietan aurkitu genezazke ber-bertako herri kanta zaharrak, eta hoiek biltzea da euskaltzale baten lanetariko bat. Memoria argidun zaharrengana joaz edo bilketaz aritu zirenen lanetara joaz. Azkue, A. Donostia, M. Lekuona eta beste zenbaitek argitaratu zituzten bilduma ederrak hor dira, eta paperean idatziak baino askozaz hobeto legozke herriaren ahoetan; baina, onoiz esana dudan bezala, baita ere zorionak emanez erabiltzen diren «christma» direlako txarteletan. Euskal-Herria, gauza honetarako, harrobi ederra bai dugu.

Gure haurtzaroko Eibarren, Gabon astean sartzen ginanerako hasten ginen mutikoak errepika harekin:

Gabon Gabonete
errez errezete
Jesus jaio da ta
jo daigun krixkete.

Eta Gabon egunez ez zen besterik etzuten, ume guztiok ibiltzen ginen kalez kale, errepika honekin edo eskean irtetzen zirenei entzuten genizkien beste haiekin:

Agillando, agillando,
bizkaitarra (k) Durango(n);

aingeruak gara,
zerutik gatoz,
boltzia badogu,
eskian gatoz.

Eibarren ere izango ziren ber bertako kanta zaharrak, baina ahoz heldu zaizkigunetatik haurrak kantatzen zituztenez oroitzen gara; besterik ez. Baina gauzak aztertzeari ematen badiogu, nork jakin zer aurkitu genezakean? Azken urteotan hamazortzigarren mendeko Gabon kanta idatziak hor-hemen aurkitu bai dira. Eta oraindik posible izango da beste anitz aurkitzea, bai paper zaharretan eta bai ahozkoetan.

Aspaldi hasi nintzen Eibarko kanta zaharrak biltzen, baina gure bilaketak apalak izan dira eta Gabon kantarik urri ez ezik, kasik baterez. Arestian aipatu ditudan bi bertsoak eta beste zenbaiten aztarnak. Behar bada, interesgarriena, «Ator, ator»en bariante bat izango da.

Eibartarren «Gabon-abestia» izenez, Aita Donostiaren artxiboan aurkitu nuen (Ref. CM: 27, daroa fitxa ezaugarritzat). Kanta hau Juanito Gisasola eibartar musikariak bialdua zen, gure mende honen lehen partean. A. Donostiaren artxiboaren arduradun den Aita Jorge de Reizu-ri esker lortu nuen eta, musika ta guzti, Eibarko Club Deportivo-ko «Kezka» aldizkarian argitaratu nuen (Febrero, 1976, zenbakiaren 48. orrialdean). Bere letra ez da hain txukuna, besterik zen Azkuek Otxandion jaso zuen «Ator, ator...», baina kantaren zabalkundearen lekuko eta kidekoen osagarri, gure folklorean kontuan izatea merezi du. Hara hemen bere letra:

Arzak, arzak mutill pitxer erdi ardau
guazen polliki polliki etxera
Gabon gaba zelebratzera (igarotzera)
aitaren da amaren onduan
ikusiko dek ama barrez da
aita ere bai txit kontentuz.
Baita nik ere zelango tragua (txurruta)
lelengo esan da Jesus...
lelengo esan da Jesus...

Bixigu erriaren azurra ondo txupatuko (garbituko) dogu.
Eragixok mutill, eragixok mutill
aurreko danbolin orri
gaztañak erre artian
gaztañak erre artian
tirrin-tarran, tirrin-tarran
plin, plaun, plust!
Pasau (euki) deigun Gabon gaba kontentuz...
pasau deigun Gabon gaba kontentuz.

Urte barria heltzeaz, gure umezaroan, jentil kutsuzko bertso batekin agurtzen genduen berriaren sarrera eta zaharraren bukaera; ez zen umerik kalez kale honako bertso hau kantatzen ez zuenik:

Urte barri eguna
ezta egun txarra;
kortara jausi jaku
gure sapai zarra.

Azken lerroan, lehen lehenago, badirudi «sapai zarra»ren ordez «zagi zaharra» esaten zela, gure zaharrak horrela aitortzen dutenez. Oroi Arabako zenbait herritan zagi zaharrak erretzen dituztela Eguberrietan. Zegaman ostera, zagi erretze hau Ekaineko Donibanez egiten dute, eta hemendik ikus genezake eguzki aldien gora eta behera egitearen urte mugeri eta honekin suari loturik dagoela. Beraz, sineskera zaharreri lotua.

Gabon egunez «Agillando» (Aginaldo) kantatuz diru eta janari batzen egiten zen bezala, Urteberriz ere antzerako eskariz irtetzen ziren haur taldeak, baina hau, batez ere nekazari munduko mutikoek egiten zuten baserririk baserri eskean ibiliaz:

Urtebarri, barri,
txarri belarri,
daukanak eztaukanari
zaria bete madari.

Kartxela mendia neguan (Erronkari). El monte Kartxela en invierno (Roncal)

Batzuk, madariren ordez, gari.

Lehenagoko kanta osatuagoan zati edo ondakiñak dira nonbait. Herriz herri guziak bildu ahal balira azterketarako argi gehiago izango genuke.

Eguberrien amaieran ere erabiltzen dira beste zenbait kanta. Eibarren ezagutzen genuen bakarra, nere oroipenez, beste honako hau zen, Erregenak heltzeaz:

Erregen, Erregen,
Mari montaña,
zazpi intxaur ta
iru gaztaña.

Hemen ere, behar bada, Kristau eta jentil sineskerak nahasturik dabiltza. Bestela nekez da Erregen egunean «Mari montaña»ri aipamen berezi hori, mitolojiako Mari izan ezik. Intxaur eta gaztainen aipamenak, eskarizko kantaren adiarazpena egiten digu, naiz eta gure denboran hortara erabilia ez izan.

Dena dela, herri guzietan bada oraindik zer bildu, eta kanta bilduok merezi dute, tokian tokiko, Eguberrietako txarteletan erabiltzea. Eguberrieri dagokien eran, zer nahi, hura aurkitu ezinik ez bait da. Honako ohitura honek herri literaturaren bilketak bizkortuko lituzke.

* * *

En estas mismas columnas y por estas mismas fechas, hace dos años, expuse la neceidad y conveniencia de recopilar y utilizar las canciones alusivas a las Pascuas de Navidad de cada localidad, ya que la riqueza folklórica del país nos puede aportar abundante material para poder imprimir en cada lugar sus tarjetas de Navidad. En muchos, incluso con ilustraciones de los retablos del mismo pueblo que guardan interesantes escenas relacionadas con el nacimiento y los primeros días de la vida de Jesús. Y que conviene difundir su uso sin recurrir a las formas extrañas que se nos van imponiendo a través de los medios de comunicación que obedecen a distinta cultura. Que, aunque en el fondo la cuestión viene a ser la misma, cada lugar guarda sus propias peculiaridades que no se deben menospreciar.

Los cancioneros populares de Azkue, P. Donostia, M. Lekuona, etc., son un arsenal de canciones de Navidad y Año Nuevo, que no se han explotado en la medida que se merecen. Pero, además, en cada municipio se pueden recoger aún si sabemos recurrir a los ancianos o si se hurga en algunos archivos.

En el aludido artículo, de hace ahora dos años, expuse mues-

tras de canciones de la cuenca baja del Deva; concretamente de Elgóibar, Placencia y Motrico. Y, en esta ocasión, al objeto de mostrar la posibilidad de unos resultados locales, recurro única y exclusivamente al folklore eibarrés, mucho más pobre que los citados pueblos en lo que se refiere a Navidad, pero lo suficiente para demostrar lo que aún queda por recoger.

En el texto en euskara se transcriben canciones y estrofas que son fragmentos de otras, con sus correspondientes comentarios. Alusivas todas ellas a Navidad, Año Nuevo y Reyes. Algunas son únicamente variantes de otras muy conocidas y difundidas en el país, pero otras, menos o nada conocidas, y en su conjunto, además de un interés local, constituyen una aportación para la reconstrucción general del cancionero popular.

1977 - XII - 19

XVIII. MENDEKO GABON KANTAK EUSKAL LITERATURAN

Azken bolada honetan XVIII. mendeko Gabon kanta berriak aurkitu dira euskal literatura idatziaren aberasgarri. Bestalde, lehendik ezagutzen zirenetaz ere argitasun gehiago dugu, egin diren azterketeri esker.

Guztiok dakigunez, Olentzarorenak izango ditugu Eguberrietako kantarik zaharrenak, jentil garaian errotzen direnezkero. Baina euskal literatura idatzia, XVI eta XVII. mendeetan landu zen Ifar Euskal-Herrian eta Gabon kantadun lehen liburua Joannes Etxeberrik 1630ean argitaratu zuen *Noelak* deritzana dugu, eta bertan jasorik daudenetako zenbait, oraindik orain ere, herriak ahoz aho ekarri ditu gure egunokarte. Egia esan, *Noelak* liburua zenbait aldiz argitaratua izan zen.

Mugazemendik, Hego Euskal-Herrian, eliz liburuxka bat edo beste utzirik, egiazko literatura ekintza ez zen hasi XVIII. mendera arte, eta lehen ekintza hontan aurkitzen dugun gairik bereziena Gabon kantak dira. Hauetako ezagunenak era berezian agertzeko eginak ziren gainera: antzerkiz publikoari adirazteko.

Lehen lehena 1759an Arrasaten aurkeztua izan zen, esku-izkribu ber berak dionez. Gabonetako ikuskizun hau Pedro Inazio Barrutia Aramaioko seme eta Mondragoeko eskribau zenak idatzia. Erarik herrikoienez egina da, bere azken zati honetan ikus genezakeanez:

Gaur dala Gabon gaba,
Gaur dala Gabon,
Gaur egiten jaku
Jangoikoa gizon.
Ots begi danbolinak,
Lutua ken bidi,
Fiesta degiogun
Infante oni.
Zerureanik dator
Gure artera,
Erratuai bidia
Erakustera.
Emaitera dator
Milla barri on;
Gaur egiten jaku
Jangoikoa gizon.
Ezta besteren eske;
Biotzak bakarrik
Beretzat gura ditu,
Beste bagarik.
Kunplidu egiozu
Jaun oni naia;
Beroni sal erozuz
Biotz guztia,
Ordeaz bera zeuri
Dakizun emon;
Gaur egiten jaku
Jangoikoa gizon.

Koruaren azken kanta da hau, baina tarteka kopla zaharretan egindako bertsoak dira politenetakoak. Pertsonaje zelebrerik ere

bada bertan eta Grazioso deritzan batenak umore gardenez beterik daude, «Lian lan bere...» errepikaz kantatzen dituenak batez ere.

Bizi bizia eta entretenigarria da antzerki hau, Belen Arrasatetik hurbil jartzen duelarik eta bertako herritarrak Jaiotzaren inguruan kantari direla, eztanpa politik anitz bada.

Frinzisko Xabier Maria Munibek, Peñafloridako kondeak, Sor Luisa izenordetzat harturik argitaratu zuen 1762an, Azkoitian bertan, «Gabon sariak» izeneko antzirudia. Bere obra jakitunago batena da. Segidilla eta aria politak ditu, bainak bertako koplak ez dira txarragoak. Egileak hitzaurrean agertzen duenez, Martin Beltz izeneko batek lagundu zion bere bertsogintzan. Barrutia baino gehiago lotzen da Bibliako pasarteeri, baina Mundragoekoak irudimen berezia nabari du.

Hara hemen Muniberen kopla jostailuetako baten zatia:

Ezagun du munduak
Jesus jaio dena;
Ain dago mudatua,
Ez dirudi lena;
Len guzia zan pena,
Negar, naigabeak,
Ta oraiñ atsegiñ, gusto,
Algara, parreak.

Sor Luisaren izenpean nor gordetzen zenaren zalantzak gure egunok arte iraun dute. Jose Manterolak Munibe Peñafloridako kondearenak ziren ustea zuen, «El borracho burlado»ren egile berarena. Azkenik, J. I. Talletxea Idigoras-ek uxatu zituen azken zalantzak, Amigos del País-ko Boletinean eta *Papeles viejos* liburuan argitaratu zituen ageri zehatzekin. Ikus bere argitasunak *Literaturaren inguruan* liburuaren 57-67 orrialdeetan.

Antzerki eraz agertzeko egindako bi lanok, Larramendi, Kardaberaz, Mendiburu eta Ubillos idazleen lanekin batean, Hego Euskal-Herriko literatura landuaren hastapenetakoak izan ziren.

Gabon kantetan lehenagokoak ditugu Gernikako De la Gandara deiturako batenak, Telletxea Idigoras berak Larramendiren

paperetan aurkituak, eta geroago, osatuago eta zaharragoak J. A. Arana Martijak aurkitutako izkrizuetakoak. Ikus, 1757ko kanta hauek «Euskera» aldizkarian argitaratuak (Euskera, XXI, 1976, 89/98 oriraldeetan). Guziak, zein baino zein politagoak, elkarrengandik aski bereziak dira.

Baina, bada besterik ere. Denok dakigu Hemeretzigarren mendearen lehen partean Bilbon bertan urtero Gabon kantak egiteko ohitura zela eta hoietako asko egin zituztela Bizenta Mogel eta Paulo Ulibarrik, honen gutunetan eta L. Akesolok egindako azterketetan ikus dezakegunez.

Hoien biltze eta atontze lanak ere egiteke ditugu. Literatura alorrean ere, gogoa duenak badu non landu. Zeren biltze eta klasifikatze lan hori ere egin beharrezkoa bait da, eta hori egiten ez den artean euskal kulturarekin zordun izango gara, bai literaturaren mailan eta bai linguistikarenean.

Hamazortzigarren mende hartan, Gernikako De la Gandara-renak baino lehenagokoak dira Bilbon bertan San Franzisko komentuan kantatzeko eginak, 1755ean Fr. Martin Oarabeitiak, komentu hartako organista eta kapera maisu zenak musikaz jarriak. Euskarazko Gabon kanta haiek, behar bada, «villacinco» bezala ezagutzen diren zaharrenak izango dira. Orri soil batean inprimatu ziren eta Juan Ramon Urkixok denbora asko ez dela birargitaratu du.

Ageri denez, garai haietan aski zabaldua zen Gabon kantak egiteko ohitura. Joannes Etxeberri Ziburukoaren ondorean, mugazemendik lehen lehena behar bada, ezagutzen dituguetatik, Donostian bertan 1691an Nikolas Zubiak argitaratu zuen «Doctrina christiana» hartan jaso zirenak izanen dira noski. Zortzi bertso haietako estanpa polit bat, hau da:

Donzella eder batek
Belengo errian
Seña Iiesu Christo
Dauko sabelean.

Eguzki dibinala
Gaberdi batean

Etorri zan lurrera
Gizonen soñean.

Eta artzainen elkarrizketa honekin bukatzen da:

—Matxinikito!
—Zer diok, Txeru?
—Atzorik ona,
Ze barri dogu?

—Barri dogu ze
Angeru milla
Gure menditik
Igaro dira.

* * *

En el País Vasco, donde abundan las canciones populares navideñas, cada municipio cuenta con sus propias originales o con sus peculiaridades en las variantes. Sería de buen gusto aprovechar éstas para imprimir los christmas, que cada vez tienen mayor aceptación para felicitar las Pascuas de Navidad y saludar el nuevo año, en lugar de utilizar textos exóticos o extraños al país, como se viene haciendo generalmente.

Sabido es que el primer movimiento literario en vascuence surgió allende de la frontera, en el país vasco de Francia, durante el Renacimiento, y el primer libro de canciones de Navidad es *Noelak*, de J. Etcheverry, de Ciboure. Pero a esta parte, prescindiendo de la literatura oral, la primera canción escrita es quizás aquella que incluye Nicolás Zubía en el apéndices a su doctrina publicada en San Sebastián en 1691, y que está en dialecto occidental o vizcaíno.

Durante el siglo XVIII comienza en esta parte a desarrollarse la literatura escrita y, justamente, los villancicos y actos representativos de Navidad están presentes en estos inicios.

Conocemos el villancico de Bilbao, de 1755, al que Fray Martín Oarabeitia le compuso la melodía. Recientemente, J. A. Arana

Martija (ved *Euskera*, XXI, 1976), descubrió las canciones de De la Gándara de Guernica, más antiguas y completas que las descubiertas por Tellechea Idígoras entre los papeles de Larramendi.

«Gabon sariak» del Conde de Peñaflorida, bajo el seudónimo de Sor Luisa, con canciones para una representación de Navidad, publicadas en 1762. Esta con el Acto para la Nochebuena, obra teatral de P. Barrutia, que fue presentada en Mondragón en 1759, son junto con *Noelak* las obras más importantes de nuestra literatura en tema navideña. Entre las mismas, la obra de Barrutia es muy particular; una pieza que no tiene desperdicio, por sus valores humorísticos, por el montaje de superposición de lugar y tiempo que le dan viveza a las escenas y por lo que aporta sobre fetichismo y otros conceptos populares de la época.

En el texto en vascuence figuran algunas muestras de las aludidas canciones.

1977 - XII - 26

SAN BLASKO OPILLAK

Otsailaren hiruan, San Blas egunez, opil bedeinkatze ohitura aski zabaldua dago. Egia esan, Santu honen inguruan bestelako ohiturarik ere bada, baina Euskal Herrian, bereziki janariak bedeinkatzea ohi da. Nafarroan gatza, zaia, ogia, lukaikak... eta beste jaki batzuk eramaten dira elizara. Gatz bedeinkatua abereentzat gordetzen da eta gainerako jakihok etxerako. Gipuzkoan, jeneralki, ogia, artoa eta beste janari batzuk bedeinkatzen dira, urtearen barna eztarriko gaitzez diren oiloeri emateko.

Zuberoan, zenbait sineste zaharren artean, San Bladi, artzaina zen ustea dute; artzain bati Ama Birjiña arantza gainean agertu zitzaion eta apezari eta apezpikuari toki hartan kapera bat eraikitzeko eskaria egin zezala agindu zion. Azkuek jasotako sineskera honek badu zer ikusirik Arantzazuko Andra Mariaren kondairarekin.

Lanak uztea da San Bladi egunez aurkitzen ditugun ohituren

arteko. Baina Bizkai-Gipuzkoako mugen inguruko herrietan eta Goiherrietan oso zabaldua da opillak bedeinkatzea. Eibarren bertan, gure haurtzaroan ez ezik, oraindik orain ere indar handia du ohitura honek.

F. Carreras y Candi-k 1931-33. urteetan hiru tomotan argitaratu zuen ohitureri buruz *Folklore y costumbres de España* delako obra, hirugarrengoaren 619garren orrialdean Eibarko argazki bat dakar, dudarik gabe I. Ojanguren zenak aterea, San Blas agunez San Andres parrokiatik opillez irtetzean. Elkar lanean egindako obra honek Valerio Serra y Boldú-rena du erlijio ohitureri buruz dakarren kapitulua. Bertan dakarrenez, San Blas edo San Bladi, eztarriko eta anas-bideko gaitzak sendatzen laguntzen duena da, alde askotan ohitura denez. Eta uste hau izan da Eibar eta inguruetan ere. San Blasko opillak eztula sendatzen laguntzen du eta opilla bera bedeinkatzera eramaten den oihala, eztulik denean lepoan (saman) jartzeko gordetzen zen. Zenbait etxetan oraindik ere hola egiten da.

Ohitura hau aintzinakoa dugu. Zaharregandik jaso nuenez, lehen lehenago Santa Ines ermitan gordetzen zen San Blas irudia eta hara joaten ziren opillak bedeinkatzera. Gerra aurretik ezagutu nuen Santa Ines ermita, Isasiko jauregiaren baratz gurenean (baratzak zuen hesiaren kanpokaldetik), jauregi honen eta Kaskarrengua baserriaren bitartean, baina ordurako ez zen egiten han ezertariko elizkizunik. Ohitura San Andres parrokiara igaroa zen eta hona joaten ginen, opillak ez ezik, naranjak ere eramaten genituen. Maiz, zalantza larrian irtetzen ginen, bedeinkazio orduan opillak eta naranjak ahalik goren altxatzen genituenarren ia ur-bedeinkatu tantarik heldu zaigun ala ez. Haurrok uste bai genuen beharrezkoa zela urak ikutzea.

Opillak eta naranjak zamauz edo esku-zapi batean bildurik eramaten genituen. Baziren opillaren gainean, oihal barnetik zintak jartzen zituenak ere. Zinta horiek eztulik zenean lepoa biltzeko izaten zen. San Blas egunez, goizetik eskoletan jai egiten zen eta haurrok ur-bitsetan pasatzen genuen.

Opillak, hasiera batean, artoirinez eginak izango ziren, noski; baina guk lehen lehen ezagutu genituenak bi eratakoak ziren: irin fiñez, inoiz esne txorrozta bat orea gertatzean, azukre pizkat

ere bai, eta egosterakoan azukrea gainean bota (sagar zatiak, okaranpasak eta mahaspasak jartzen zituenak ere baziren) eta era honetara azala gozatzen zen; beste erakoa da orain ezagutzen dugun bakarra, irin, esne ta arraultza gorringoz oreatu, anis tanta batzuk, eta erdizka egosirik dagoanean labatik atera eta ur, zuringo eta azukrez gertatzen den orea gainean jarriaz berriz labaratu. Bigarren era hau, esan dugunez, gure egunotan egiten dena da. Gu haurrak ginela etxe aberatsetakoak edo ekonomiaz hobeto bizi ziren familietakoak bakarrik egiten zuten oraingo opil hau; pobreok ogi gozatu hura izaten genuen. Egia esan, oraingo erako opillak gozotegi edo konfiterietan erosten ziren orduan, baina egiteko errezeta eta etxeetako labak hedatuaz eta hobetuaz joan diren neurriak aldatu zen opil fiñagoak solik egiteko ohitura. Hala ere, gaur egun, lehengo opil haiek gogokoago, nituela iduritzen zait. Haiek okindegietan egiten ziren eta gozotegietakoak baino askoz merkeagoak izaten ziren.

Gaztainerre eta Ixu egunakin batean Eibarrek bere ohitura jatorrenetakoa du San Blas. Eta hauei buruzko berriak ederki jasoak ditu L. P. Peña Santiago adiskideak *Fiestas tradicionales y romerías de Guipúzcoa* deritzan liburuan.

* * *

Serra y Boldú, en su descripción sobre costumbres religiosas, en torno a la tradición de San Blas expuso que este santo era venerado popularmente como abogado contra los males de la garganta y del aparato respiratorio. Que en muchas ciudades y pueblos se llevaban a la iglesia pasteles, panecillos, etc., para ser bendecidos. Prácticas similares y otras variantes se recogen en el tomo primero de *Eukalerriaren Yakintza* (página 291) de R. M. de Azkue.

En Eibar está muy arraigada la tradición de llevar a bendecir a la iglesia las tortas que se preparan ex profesamente para ese día, 3 de febrero. Esta costumbre, antiguamente, se llevaba a cabo en la ermita de Santa Inés, donde se veneraba una imagen de San Blas, pero con el tiempo se trasladó a la parroquia de San Andrés Apóstol.

En nuestra niñez, además de las tortas, se llevaban también naranjas, pero este uso se ha abandonado. Entonces también se hacían en las panaderías de la localidad otro tipo de tortas, consistentes en panes y panecillos hechos de fina harina y con azúcar y frutas secas en la corteza superior.

También se conocían las tortas actuales, que generalmente se hacían en las pastelerías y se consumían en familias mejor acomodadas. Estas tortas son un componente de harina con azúcar, leche y yema de huevos. Una vez cocida, se baña la superficie con un batido preparado a base de azúcar y clara de huevo con un poquitín de agua, que es cocida a su vez. Su receta, así como las particularidades de esta tradición se recogen en la obra *Fiestas tradicionales y romerías de Guipúzcoa* de Peña Santiago.

Antaño, las servilletas que se usaban para envolver las tortas que se llevaban a bendecir,se guardaban para envolver el cuello en caso de tos, así mismo el hilo o cinta que se ponía encima de la torta.

Esta costumbre está aún muy en uso en los pueblos limítrofes de Guipúzcoa y Vizcaya.

1977 - I - 31

ARATOSTIAK

Deba-arru gehienean Aratostiak deitzen dira Bizkaiko herrietan Aratuste diranak. Euskal Herririk gehienean Ihauteri edo Iñauteri.

Azkuek bere hiztegian dakarrenez, Aratustiak, haragi uzteak dira; baina nere iritzian, guk erabiltzen dugun eraz oinarritzen bagara, Aratostiak, haragi osteak (haragi jateen ondorena; hau da, baraua). Dena dela, era bietatik ere ideia berera joten dugu: latinezko «carnestolendas» dira.

Hemen ez naiz hasiko Aratostiak zer diren adiarazten; horren xehetasunak J. Caro Barojak eman zituen *El Carnaval* (Taurus. Madrid, 1965) deritzan estudio hartan. Gure Euskal Herri honi

dagokion aldetik J. Garmendia Larrañagak eman zigun *Iñauteria. El Carnaval vasco* (S.G.E.P., S. A. Donostia, 1973) eta zehaztasunak nahi dituenak horietara jo beharko du.

Ihauteriak, beste gabe, ez da erraz ulertzeko gauza zeren Ihauteri edo Aratosteak, azken baten, inguru zabalago bati lotzen dira, J. M. Satrustegik J. Garmendiaren liburu horri egin zion hitzaurrean agertu zuen bezala eta gero *Solsticio de invierno* (Col. Diario de Navarra. Iruña, 1974) deritzan liburuan lasaiago adiaraziko zigun bezala.

Baina esan dudan bezala, ez naiz arituko Aratostien sustraieri buruz, baizik hauek gure herrian zer izan zirenari baino.

Gerra ondoren barau egunak bai, honek ezagutu genduzen, baina barau aurretik egiten ziran jaialdi eta mozorroz jazteak ez. Baina denboraren zehar, zertarakoa den gizona, hartarako grinak agertzen ditu. Aratostiak debekatu ziren, baina urteko beste jai batzuk Aratoste bihurtu dira. Orain, Eibarren, San Juan egunez irtetzen diren konparsak —kontsejuak sarituak gainera—, lehenago Aratostietako gauza zen. Gainera, agiten ziren konparsak ba zuten jatortasun berezi bat, batez ere kuadrillakoek beren artean ateratako bertsoak kantatzen zituztenean. Urrengo, kanpoko modaren haize giroak ekartzen zuenetik ere bai. Donostiako kalderaginena ere hala izan zen. Aintzinago, zaharrak diotenez, sardinaren ehortze hiletak ere bai. Hau, bizpahiru urte San Juanetan egin zen azkenengo aldiz, bertako ohitura zahar bat berritzea balitz bezala, baina Goya-ren pinturetan bestelakorik azaltzen da.

Gauzak zelan aldatzen eta itzuragabeko bihurtzea diren agiri agirian jarri izan digu Eibarren azken urte hoietan inoiz egin izan den danborradak. Danborradak, Donostian badu bere jatortasunezko giroa, Iruñan San Ferminak duten bezala. Baina zenbait herritan, danborrada edo San Ferminen antzera jokatu nahirik itxurarik gabeko ihauteri egunez bihurtzen dute beren herriko jai nagusia. Garai bakoitzeko jaiaren sustraietara joko bagenu, jai bakoitzak jatorriz izan duen iturri gardenetara joko genuke. Baina hainbestekorik eskatu gabe ere, garaian garaikoari dagokionez, jai bakoitza bere giroz ospatuaz, ihauteriak ihauterietarako gordetzen ikasiko genuke. Hau da, Aratostiak Aratostietara-

ko, udarako abarketak eta negurako zapatak diren bezela. Lehen gure herri guzietan Ihauteriak ospatzen baziren, orain zergatik ez? Sasoian gerezak bezala, ihauteriak ere beren bete beharra dute gure gizartean. Honegatik, nere esku balego, urtero konparsen sariketa antolatuko nuke. Eta, gau berean, baita ere mozorro edo koko jantziena. Honela, Eibarren behintzat, nere haurtzaroan ezagutu nituen jai alai haien oroitza berrituko nuke gure herriaren pozgarri.

Zaharragoen artean oroitzapen biziak gordetzen dira, guk hondarretan ezagutu genituenak baino atseginagoak.

«Ardurabakuak» zeritzan kuadrilak 1930ean eratu zuen konparsa izango da nere lehen oroitza, hain ongi gogoratzen ez banaiz ere. Gainera, orduan kantatu zituzten hamabi bertsoak bildurik *Eztenkadak* liburuan argitaratu nituen. Hasierako bertsoak hau zion:

Kanta berri batzuek
dituguz atara,
aitzen emoten gatoz
herri honetara;
Arioplanuan juateko
asmuetan gara,
bihar urtetzen dogu
Ameriketara.

Garai haretan oraindik egazkinen hastapenetan geunden eta «Ardurabakuen» jira ez zen txantxetakoa, kainaberazko armazoiz eta oihal zuriz egindako aireplanu hura kalez kale erakutsi ondorena Ameriketara irtengo zirela herriari azalduz. Ez hori bakarrik, handik Ifar-hizoztegira ere bai; han zer aurkituko zutenaren berriak ezaguturik gainera:

Polo Norten ei dagoz
hain paraje baltzak,
harako egin dituguz
apraposko galtzak;

eskuetan harturik
galtzairuzko lantzak:
ez gaitezan han galdu
hotzak edo artzak.

Eskatzeko ere modu politak zituzten; hara hemen azken bigarren bertsoa:

Aparatugiñan eiñ dogu
urte bian lana,
hortan gastatu dogu
geure diru dana;
oin berriz biderako
bihar dogu jana,
horregatik eskatzen dogu
errialtxo bana.

Doinu eta bertso asmatzen denak parte hartzen bazuten ere, Itsaso eta Beltxi izaten ziren buru. Itsasoren inguruan egiten zirenak zortzikoaren doinuz izaten ziren eta bilduak ditudan doinu hoietan bada zenbait oraingo bertsolarien artean ezagutzen ez denik ere. Beltxik ordea, inoiz zortzikoaren doinuz egiten bazituen ere, urrengo, garai batean modan jarri ziren habanerak ere enplegatzen zituen.

Armaginen konparsak bi kanta erabili zituen, bata habaneraz eta ez dut izan bertso guziak biltzerik. Inork balezki pozik hartuko nituzke. Zortzikoz atera zutena ere oso polita izan zen. Eta hau laster argitaratuko da Club Deportivo-ak egiten duen aldizkarian. Ikus *Kezka*, 1976. urteko zenbakiaren 22-23. orrialdeetan.

Ohiturazko legeak gordetzeko, konparsak kalez kale biltzen zuten diruz bazkari bat egiten zuten eta sobratzen zena herriko hospitalerako izaten zen.

Herri batek hola jokatu behar du bere kulturagintzan, lehengo ohitureri irauneraziz eta bere giroan egungoa itsatsiz. Hala bete zuten gure gurasoak urtero kanta berriak eta doinuberriak plazaratuz. Eta, herri bat, gauzen sorkunderako ahalmenak indartuz nobleagotzen da. Eta nork daki Aratostiak piztutzeaz San Juanak

ere neurri hobe batean berriz San Juan bihurtuko ez diren?

* * *

Los carnavales de algunos pueblos, y entre éstos los de la cuenca del Deva, no debieron tener el arraigo o la fuerza popular que contaban los de Tolosa y pueblos de la montaña de Navarra. Pues de lo contrario se hubieran salvado de las prohibiciones que vinieron en postguerra.

Pero como al hombre le es difícil resistir a los impulsos de la propia naturaleza, tal vez por esto, en muchos pueblos las fiestas patronales o tradicionales que tuvieron otro sentido se han ido convirtiendo en auténtico Carnaval pagano. Muchas veces he pensado que puede ser por la falta del indicado día en el calendario, o derivado de una mala pantomima a imitación de otras fiestas. Por ejemplo, de la castiza tamborrada donostiarra y de los sanfermines de Pamplona, que tienen solera propia, se hacen malas imitaciones. Pues de por sí las imitaciones generalmente suelen ser malas. Y, por esto, tal vez será necesario devolver los carnavales para acabar con tanta charanga de mal gusto y tan fuera de lugar en las fiestas patronales.

El Carnaval que conocimos en el Eibar de nuestra niñez, al conjunto de los tres días le llamábamos *Aratostiak* (Carnestolendas), y en su forma castiza consistía en comparsas y baile de máscaras. Las comparsas actuaban por la mañana, recorriendo las calles con algún motivo, casi siempre original, y cantando canciones alusivas al tema representado. Eran caciones compuestas por el grupo, en el cual siempre había algún aficionado a componer los versos. Itsaso y Beltxi eran dos elementos populares que intervenían en los arreglos de estas canciones. Una muestra de las mismas son los versos que reproduzco. Las comparsas postulaban por las calles, y con los beneficios hacían una comida y el resto lo entregaban al Asilo-Hospital. A veces, durante el baile que se organizaba en el frontón Astelena al caer la tarde, solía haber concursos de disfraces. Era un día alegre y jovial.

1977 - II - 7

IXU-EGUNA

«Ixu-eguna» deitzen diogu Eibarren berbizkunde egunari. Larunbat santu egunez sua eta ura bedeinkatzeak egiten bai dira, urtetik urtera galduaz badator ere, eta hemendik du izen hori.

Urte mugetan, ekainean Donibane edo San Juan bespera gauan eta Eguberrietan oso ezagunak ditugu suaren ospaketak, Donibane egunsentian eta Urte-berriz urarenak ohi diren bezala. Badirudi eguzki gurtzearen urte mugetatik aldatuak direla, edo aintzina aintzainatik horrela datorrela.

Artzaintza munduan, Neolitos garai beretik, badirudi bi urte muga besterik ez zirela ezagutzen: Udara eta Negua. Bertatik sortu ziren udaberri eta udazken edo udagoiena, nekazaritzaren munduak ekarri zuen urte mugaketan. Arrazoi honegatik, daitakeena da zenbait ohitura ere, lehenagoko bi urte mugaketa hartatik beste bietara zabaltzea. Edo, nork daki mendi goietako larradietatik behekaldeetako lur edo herrietara eta hoietatik berriz goietara unaiak eta artzaiak aldatzen ziren garaietatik ez ote datorren urtea lautan zatitzea? Dena dela, aintzinago bi zati baizik ez zirela, argi dago. Baita ere, bi zati hoietan suaren eta uraren ospaketak indartsuago eta hedatuago aurkitzen direla.

Udaberriz eta udagoienez, ospaketa hoiek urriago aurkitzen ditugu, eta harrigarria bada ere, XVI. menderako industria indartua zen Eibar bezalako herri batean ohitura hoiek nabarmengarri gorde izan dira. Udagoienez Gaztaiñerre deritzan egunez eta udaberriz «Ixu» partitzez.

Azterketa batek laster eramango gaitu ohiturok beste zenbait tokitan ere aurkitzera, zeren udaberriko su ospaketa besterik ez baita Valencia-ko Falla famatua. Lantzeko ihauterietan Miel-Otxin erretzea eta Erronkariko Su-berria. James George Frazer-ek *La Rama Dorada*-n (1890) dakarrenez, Alemanian ere oso ezagunak ziren su-berri hoiek.

Su eta urak, beren sustraiz, purifikazioa sinbolizatzen dute eta aintzinakoentzat oso garrantzitsuak ziren. Sakratuak; noski. Hoien ohiturazko indarra elizak ere onartu beharra izan zuen, Erronkariko azken euskaldunegandik jaso nuen harek aitortzen duen bezala:

Su-berri
Ur-benedikatu
Meza andira
Bezpetra
Maitrinetra
Akudatzera
Mundu guzia
Su-berri xerka.

Euskal-Herriaren beste muturrean agertzen zaigun adibide hau dugu lehenago hedatuagoa zenaren agiririk onena. Bizkai-Gipuzkoetako mugaren inguruko herri askotan gorde da ohitura zahar hau, eta adibidetzat Eibarkoari lotuko natzaio, gure haurtzaroan ezagutu genuena adiaraziz.

Baina, aldez aurretik esan dezadan Luis Pedro Peña Santiagok oso ongi jasoa duela *Fiestas tradicionales y romerías de Guipúzcoa* (1973) deritzan liburuaren 137/138 orrialdeetan.

Ixua deitzen diogu egun hortarako ilintia gertatzeko erabiltzen den materialari. Pago enborreko une eiharretatik ateratzen genuen, esponja gisara jarritako parte zuri biguna, eta esku-leku edo kirten aukerakoa egiten genion labanez eta zatitxoak poltsikoan gordetzeko. Goizian goiz jaikita, zazpiretatik zortziretara bitartean ematen ziguten elizan su bedeinkatua. Honetarako brasa gertatua izaten zen elizan. Lehen lehenago Isasiko elizan izaten zen eta gero San Andres parrokian. Ilinta pizturik, besoa jiraka eramaten genuen haizea hartuz itzali ez zedin eta etxeetan patrikako ixu puxkak ematen genituen, ahoz puts eginaz pizturik. Esaten zenez, «ixu-bedeinkatuz» behar zen etxeetan eguneko sua piztea, etxearen ondasunez. Eskupekoz ordaintzen ziguten etxeetan. Hauzoko eta ahaidekoen artean zabaltzen genuen gehiena, eta inoiz beste inor aurreratzen zenean, bazutela, eta eskupekorik gabe irtetzen ginen. Urrengo, pertsona oso ezagunak edo ahaidekoak zirenean, beste inor aurreratzen bazen ere eskupekoz eta eskerrikaskoz irtetzen ginen. Taldetxoak eginaz ibiltzen ginen eta jakiten genduen nondik nora ibili. Bagenituen bezero antzerako etxe hartuak eta taldeak elkar errespetatzen ginen. Baita ere ezagutzen genituen joaten ziren guzientzat saria edo eskupe-

koa izanten zuten famili elizkoiak. Hoientzat ez zen ohitura merkea izaten, zeren Eibar erdiko mutikoak agertzen bai zitzaizkien. Eibar erdi diot hain zuzen ere, Eibar erdi bai zen goitarren bezerutza eta beste erdi behetarrena. Ez zen deskuidatuko behetarrik goian sartzen, ez eta ere goitarrik behean. Hoiek koto nagusi jakinak izaten ziren, eta intzinako hiritarrak eta burgotarrak (edo errebaltarrak) elkarregandik berezirik jarraituko zuten ohitura orokorretan ere.

Goizeko bederatzi t'erdiak edo gehien ere hamarretarako, berriz jotzen genuen elizara. Su bedeinkatuaren ordua bukatua zen eta ur-bedeinkatuakin hasi behar ginen. Mutikook botilla bana ur hartzen genuen eta txolot txikitxo batekin etxez etxe lehen su bedeinkatua bezala partitzen genuen ur bedeinkatua.

* * *

En las comarcas lindantes de Guipúzcoa y Vizcaya, la mañana del Sábado Santo se practicaban, y en algunos municipios aún se sigue practicando, la vieja tradición ritual del fuego bendito, que en Eibar llamábamos «Ixu-eguna». Dicha costumbre está recogida en la obra *Fiestas tradicionales y romerías de Guipúzcoa* por L. P. Peña Santiago, páginas 137 y 138. El fuego bendecido en el pórtico de la iglesia, los niños recogen en tizones preparados con madera de haya seca y esponjosa y recorren las calles aventando el tizón para que no se apague y llevar el fuego bendito a los hogares.

Los ritos del fuego de los solsticios, más veladamente, vuelven a aparecer en los equinoccios con «Gaztaiñerre» en otoño e «Ixu-eguna» en primavera, en la referida comarca. Pero tal vez tenga alguna relación con la quema de Miel Otxin en el Carnaval de Lanz, las Fallas valencianas y los ritos que se conocen en Alemania.

Lo curioso del «Ixu-eguna» de Eibar es que a continuación del reparto del fuego bendito sigue el de agua bendita. De alguna manera guarda relación con el recital sobre el fuego nuevo que recogí en el valle de Roncal (Navarra) y que di a conocer en «Fragmentos de canciones del "uskara" roncalés» en Cuadernos

de Etnología y Etnografía de Nevarra, número 22.

En el artículo en vascuence se detalla la manera de llevar a cabo este rito cuyas raíces se fundan en los ritos de protección y purificación.

1978 - III - 27

ATARRABI APEZAREN INGURUA

A. Julian Alustiza «Aztiri» delako jaunak aspaldiko urteetatik ohituak gaitu euskarazko aldizkarietan gauza jakingarri anitzen argitasunak eskaintzeaz, bai olerkiz eta bai hitz-lauz. Olerki bereziak eskaini badizkigu ere, berezi eta zehatzak izaten dira bere hitz-lauzkoak, gure jakintza eta gure literaturaren aberasgarri, eta hizkuntza txukun eta zaindu batean emanak gainera.

Bere azken lanetako bat «Atarrabi apeza eta Pedro de Atarrabia» deritzana dugu, «Aranzazu» aldizkarian argitaratua lehen aldiz, une berean Euskaltzaindiko batzarrean txostentzat irakurria eta gero «Euskera» (XXI, 1976, 108-111orr.) aldizkariko lanetan argitaratua.

1974an Aita Sagüés Azkona-k Petri de Atarrabia nafar frantziskotarrak XIV. mendearen lehen partean irakaskintzarako idatzi zituen eskuizkribuak argitaratu zituen. Pedro de Atarrabia frantziskotar ospetsua Iruña ondoko Villavako Atarrabia auzoan jaio omen zen XIII. mendearen erdialdera. Parisko Unibertsitatean ikasketan egin zituela uste da eta 1317tik 1320ra bitartean Aragoi Probintziko Frantziskotarren Nagusi bezala ezagutu zen; Nafarroako erresuma ere Aragoiko Probintziaren barrutiko zen garai hartan. Geroago ere bere esku izan zuen nagusitza hori, eta behar bada Barcelona-ko Unibertsitatean maisu aulkia izango zuen. Bere bizitzako azken hogei urteetan, berriz, Nafarroa zaharrean bizi izandu zen, bertako erregeen zerbitsu berezi eta pisu handikoetan sartuta. 1346 edo 1347an hil zen seguru aski.

Jakitunik ez da itzalik gabe, eta zenbat eta jakitunagoa orduan eta itzal handiagoa. Uste honek ez dakit zer ikusirik izango duen

gure folklorean zenbait aldiz agertzen zaigun sineskerarekin: ikasiei itzala lapurtzeaz. Dena dela, A. Alustizaren begi zoliak galdetzen digu ia Erdi-Aroko Atarrabia ospetsuak zer ikusirik ote duen mitologiako Atarrabirekin.

Atarrabi, Atarrabio edo Arruit, don Juan, Mikelats eta Axular hor ditugu kondaira zahar baten inguruko. Axular, *Gero*-ren egileari buruz J. Vinson-ek *Bibliographie de la langue Basque* (1891) liburuan eman zituen zenbait ohar. Hordutik, kondaira hortako pertsonaietarik bat hezur ta haragi historian ezagutzen zen bati atxekirik gelditu zen. Baina besteen berririk ez genuen. Orain, arrazoi berarekin, Pedro de Atarrabia jakitun ospetsuari atxeki genezake. Are gehiago, etnologia ikerketan jarraitzen den erregelari begiratzen baldin badiogu, agiri idatzietan lehen idatziak aintzinatasunak berakin duen bezala, kondairan ere lehen lehengo pertsonaiari erantsi behar zaio jatortasuna. Honegatik ez da batere harritzekoa lehendik Atarrabiari jarria gero Axularri atxekitzea.

Itzala lapurtzearen kondairaren lehen agiri idatzia, J. M. Barandiaranek bere *Obras completas*-en II. tomoko 445. orrialdean aditzera ematen duenez, Gaspar Garcerán de Pinos-en *Cartapacio* batean agertzen da, 1600garren urtean. Bertan esaten denez, Salamanca-ko harpe batean egiten ziren aztigaiak eta han bertan maisu egiten zuen deabruak itzal gabe utzi zuen ihesari eman zion ikaslea.

Urrengo, Barandiaranek, aipatutako lehen tomoaren 439. orrialdean dakarrenez, Marimundukoren semeen kondairarekin nahasten dira Atarrabi, Axular eta Mikelats deritzen diren pertsonaje mitolojikoak. 439garren orrialdetik 445ra bidartean aurkituko ditugu zenbait adibide eta kondairok jaso ziren tokiak. Baita ere, begiratu J. M. Barandiaranen *Obras completas*, VI. tomoko 191etik 213.era eta 443tik 456 orrialderarte. Kondairaren argudiorik hedatuena kontatzen digu A. Alustizak, bere agerpen horretan:

Atarrabi Sarako leze batean bilatzen dugu gure folklore zaharrean, beste bi anairekin: Arruit eta don Juan; Axularren izena ere azaltzen da batzuetan Arruit-en ordez.

Deabruak eskolatu omen zituen. Ederki eskolatu ere. Baina lezetik atera baino lehen, han bertan, eta deabruaren meneko gel-

ditu beharra zuen norbaitek. Eta ez zegoen ihes egiterik, deabrua beti gainean eta galdezka zutelako:

—Atarrabi, nun haiz?, galdetzen omen zuen deabruak, Elduaien aldetik kontatzen zutenez.

—Hemen nago, erantzun behar zuen beti.

Baina Atarrabi hau arrunt abila omen zen eta bere zapelari mintzarazten erakutsi omen zion.

Eta behin deabrua solasean, bestaldera begira zegoelarik, utzi txapelaren gain deabruari ihardespenak ematea eta hirurak atera omen ziren lezetik.

Deabrua ohartu omen zen; baina orduko urrun joanak izaki. Deabruak tiratu omen zien burdin-gantxo bat atzetik eta Atarrabiri zapata takoina eta itzala kendu.

Geroztik, zapata takoina emanarren, beti faltatzen omen zitzaion itzala.

Gero hirurak apez egin omen ziren. Eta abildade apartekoak omen zituzten hirurek. Baina Atarrabiri itzala falta beti.

Denborarekin zahartu zen apez hori. Eta hiltzeko bildur omen zen, deabruak itzala ostu zionetik beretzat beti izateko bait zeukan bera. Mezako konsagraziokoan bakarrik etortzen omen zitzaion itzala. Eta esan omen zion sakristauari hiltzeko bera, meza denboran, komuniatuta berehala. Sakristaua bildurtu omen zen lehendabiziko egunean, eta ez omen zuen hil. Baina Atarrabik hiltzeko eta hiltzeko, esan omen zion; eta biahamunean hil omen zuen.

Eta Atarrabi honek esan omen zion sakristauari, hil ondoan haren bihotza aga baten puntan emateko. Beleak eramaten bazuen bihotz hura, infernuan izango zela; pikak eramaten bazuen purgatorioan izango zela, eta mezak egiteko. Eta usoak eramaten bazuen, zeruan izango zela.

Egin omen zuten Atarrabioren esana. Bela etorri, inguruka inguruka ibili, baina ez eraman. Pika etorri, ibili hura ere inguruka, ukitu ere bai; baina ez eraman. Usoa etorri, eta harek eraman Atarrabioren bihotza. Atarrabio orain zeruan dago.

Horrela jasotzen du «Aztiri»k J. M. Barandiaranen *Obras completas* tomo II, 439-440 orrialdeetatik itzulia. Beraz, gure mitolojiako Atarrabik eta Erdi-Aroko Pedro de Atarrabiak ba ote dute

elkarrekin ikustekorik? Axularrena jakinaz gero baietz dirudi. Axular bere ospe eta itzalarekin bezala, hau baino lehen Atarrabia kokatu zela kondairan, hala dirudi eta hala esango genuke. Dena dela, Axularren garaian antzerako kondaira Salamanca-ko leze batean jasoa bada, honen garairako hedadura zabala zuela esan behar, eta lehenagokoa izatera oroi aintzinagoko pertsonaia dugula Atarrabia ospetsua.

Bestalde, kondairok bata bestearekin erraz nahastutzen dira. Barandiaranek jasotakoetan hala nabari da eta baita Azkuek eta bestek jasotakoetan ere. Honen *Euskalerriaren Yakintza*-ren bigarren tomoan bada holakorik ere. 69. orrialdean dator Atarrabio, Larraunen jasoa eta kondairaren azken partean Calzada-ko Santo Domingo-ren kondairarekin nahasten dena. Eta 241. orrialdean Martin Abade, Mondragoen jasotako ipui hartan ostera Txerren deabruak itzala ostutzetik aparte Ihizari beltzaren kondaira ezagunarekin nahastutzen da. Eta Atarrabio ibili zen eskola infernutiarra Azkuek jasotako beste ipui batean ere agertzen da, II. tomo beraren 104garren orrialdean, «Beste munduko senarra» deritzana. Eta inoiz argi gehiago gehitu ahal duenak hoiek ere kontuan izan beharko ditu. Baitare ikustekoa da bi gizon ospetusei buruz Barandiaranek *Obras completas*, t. I, 43 eta 44 dakarren guztia.

* * *

Entre las leyendas vascas existe una en la que al numen o personaje principal de la narración, con reputación de sabio, a quien el diablo le roba su sombra y la preocupación del personaje en recuperarla, puesto que sin ella se vería condenado a los infiernos. Este personaje, generalmente se llama Atarrabi o Atarrabio. Varias versiones hallaremos en los tomos primero y segundo de las *Obras completas* de J. M. de Barandiarán. En las que a veces se atribuye a Axular, el autor de *Gero*, en lugar de Atarrabio.

J. Vinson en su *Bibliographie* recoge esta leyenda del autor de *Gero:* El diablo había fundado en una gruta de Salamanca una escuela en la que bastaban los estudios de un año para adquirir

los conocimientos necesarios a un doctor en teología. Por este trabajo el diablo retenía al último de los estudiantes que el último día del año de estudios salían uno a uno de la gruta en fila india. Pero ocurrió que un estudiante travieso halló medio de engañar al diablo. Pidió y obtuvo sin gran trabajo que le dejaran ser el último de la fila, pero suplicó que para salir se esperara la hora del mediodía. Llegada la hora y colocado Satanás a la entrada de la gruta, cada uno de los que iban saliendo le decía: «Toma al que viene detrás». Cuando llegó el turno del último, repetió osadamente la fórmula y el diablo se precipitó en seguida sobre la sombra del joven que el sol del mediodía proyectaba tiesa sobre la pared de la gruta y que tomó por uno de sus discípulos. El joven presbítero se escapó, pero quedó toda su vida sin sombra. Se dice que el feliz vencedor del demonio fue Axular.

En las versiones recogidas por Barandiarán y Azkue se cuentan las peripecias para recobrar la sombra.

Lo curioso del caso es la atribución de la leyenda a un personaje histórico, como es el autor de *Gero*, y de su época consta en un *Cartapacio* de 1600, de Gaspar Garcerán de Pinos, citado por Menéndez y Pelayo, que tales prácticas y el hurtar la sombra se llavaban a cabo en una cueva de Salamanca donde el diablo tenía su escuela de artes mágicas.

Ahora, al exhumar los manuscritos medievales del sabio «doctor fundatus» Pedro de Atarrabia, nacido a mediados del siglo XIII en Villava de Navarra, con estudios en París y desempeñando altos cargos en los reinos de Aragón y Navarra, que el R. P. Sagüés Azcona ha dado a la luz en 1974 a expensas del Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Fr. Julián de Alústiza sugiere la posibilidad de la suplantación de personajes. (Ved «Euskera», XXI, 1976).

Es frecuente aplicar leyendas a personas conocidas históricamente, porque lógicamente pueden dar más veracidad al asunto, y de ello se valen los narradores. Y por la misma razón los conceptos se pueden traspasar de un personaje a otro de época más allegada o de la área en donde se cuente. Ello hace que nada tenga de extraño, sino todo lo contrario, que la fuente de esta leyenda se sitúe aún más allá de la descripción de G. Garcerán

del Pino e incluso del sabio Atarrabia. El caso no deja de ser curioso y el tema requiere mayor acopio de materiales que ayuden la investigación.

1977 - VI - 27

DANTZAK

Edozein herritan, bertako etnia ezagutzeko, garrantzi handia dute dantzak. Hauen ederra, dantzari bakoitzaren mugimenduetan eta talde moltzoren koreografian datza. Herri baten dantza eren ugaritasuna bera ere aberasgarritzat joten da. Dantzak, musika, musikagailu, jantzi, ospakuntza, kanta eta abar, bere inguru dute. Beraz, dantzaren balioa ezta dantza soiletik bakarrik begiratzekoa, inguru bat osagarri duenez. Gainera, dantzak eurak ere, erlijio ospaketaz, ohorezko erreberentziaz, herri jaietan, ezkontzetan, ihauterietan... seriozki edo alaitasunez, gizonak lanetik kanporako jolasetan behar du bizitza beraren lagungarri.

Dantzen aldetik ospe handia du Euskal-Herriak. Baina, horrez gainera, herbeste eta etxean bertan, hain zabaldua izan den euskal literaturarik eza bera gezurtatzen du dantzak. Ez zenbait dantza kantatuaz direlako, ez; baizik, Iztuetak gai hontaz utzi zizkigun bi liburuegatik areago. Folkloreak oraindik izen hau hartzeke zuela, dantza bilketan oraindik kasik inor aritu ez zen garaian, gure Iztuetak bi liburu idatzi zizkigun, bata dantzaz eta bestea dantzen doinuez, joan zen mendearen lehen parte hartan. Gainera, dantzak, kantekin batean, gure doinu zaharren eusle izan dira eta Euskal-Herriaren musika jatorra inork ez du ukatzen.

Hau hola delarik, aspalditik behar genituen bertako dantzen bildumak; baina, zoritxarrez, Aita Donostia, Veyrin, G. Barandiaran eta guti batzuk besterik ez dira arduratu euskal dantzetaz. Urte asko ez dela, Dantzari zeritzan aldizkari bat sortu zen, baina ez du izan bizitza luzerik. Bere kideko zen Txistulari zeritzanak ere bildu zituen, doinuak behinikpehin.

Orain, urte askoko frututzat eta izerdi askoren ekintzaz, hara

XVIII. mendeko grabadu batean hara aurrezku dantza Arrateko zelaian. Grabadu hau Donostiako San Telmo Museoan gordetzen da.

hemen non argitaratu den «Dantzak» deritzan liburu ederra. Bai, ederra benetan, baldin ederrik bada. Honako liburu honen egilea Juan Antonio Urbeltz da, eta argitaratzailea, urtero holako liburu bakanen bat eskaintzen digun Lankide Aurrezkia.

Liburu eder hau, marrazkiz eta argazkiz ongi bornitua, edertasun oparotsu baten jabe da. Argazki asko kolorez ditu gainera. Sarreratzat hiru aurkezpen daramazki: Luis Iriondo, Ninette de Valois eta Lucile Armstrog-renak. Babes hoberik ezin zaiteken.

Aurkezpenok eta egilearen sarrera bera euskara-erdaraz daude. Gainerakoa erdaraz, tarteka zenbait esaldi eta kanta zahar euskarazko dituela.

Hara zer dion L. Iriondok bere aurkezpen horren zati batean: «Munduak dantzarako dugun iaiotasunaz, beste arte expresiobidez baino gehiago ezagutzen gaituela argi dago. Eta honenbestez, gure dantzaren unibertsaltasuna beste arte alor guztien gainetik dagoela aitor genezake. Bestalde, Europako beste folkloreak begiratzen hasi orduko, Euskal Dantzaren edertasun-berezitasunaz ohartuko gara. Gure dantzaren koreografia-eboluzioa, pauso eta salto nahastatuen konplexotasuna, plastikazko zenbait konposamenen dotorezia galanta, eta gorputz-expresio bereziak, beste herrialdeetako dantza folklorikoetatik erabat bereizten du gure dantza. Batez ere, estetika eta formari dagokionez».

Baina, esan dezagun, J. A. Urbeltz, Argia dantza taldearen zuzendariak, bildu ez ezik ikertu ere sakon ikertu dituela Euskal-Herriko dantzak, bere liburu bikaina lekuko. Gure dantzak ezagutuaz eta liburu honen haurrean, gai hauetan hain jakitun den Ninette de Valois andereak, bere idazki ohoregarrian hara zer dion: «zihur baino zihurrago naiz, liburu berri honek zoko ilun asko desestaliko duela, eta Ballet klasikoaren aurrerabidean Euskal Dantzak izan duen eragina behin betiko argituko dela.»

Ondorean, oso ongi dio L. Armstrong andereak, herri bat bere sustraietan onarritzen denez, beharrezkoa zaigula sustrai hoiek ezagutzea.

Egileak, sarreran, dantza mota bakoitzaren klasifikazioa egiten du, lehenengo euskaraz eta gero erdaraz. Ondorean, hauen koreografia, adibideekin eta marrazki eta argazkien laguntzaz. Era berean, maiz, doinuen pentagramak ere agertzen ditu. Azkenik, musikagailuak. Bukaeran folklore atlasa, Bibliografia eta aurkibide eta oharrak.

Bertako argazkiak, gehienak kolorez, Egiguren anaiak atereak eta maketagintza beren ardurapean eginaz osatzen dute liburua. Argazkiok, Egigurentarrei dagokioen bezala, kolorez era eztitsuan eta irudiak lausotuaz emanak dira. Hauek, lan eder hau hobeto burutzeko, arte balioz hornitzen dute lan orokorra, patxarazko album bat osatuaz.

Liernian, 1960an, dantza ezkontza batean

Iztuetaren *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira,* 1824. urtean argitaratua, euskal literaturaren barnean liburu bitxia baldin bada, Urbeltzen hau ere gauza bitxi bat bezala gelditukо zaigu gure historiarako. Honi esker agertzen zaizkigu edonorren eskuetara eta begietara gure dantzen edertasuna bere funtsez adiarazia, eta ondoko anitz urtean liburu honen beharrean aurkituko dira Euskal-Herriko folklorea sakon azagutu nahi dutenek.

Bijoaz gure zorionak liburuaren egileari eta bertan parte hartu duten guziei.

* * *

Nos era conocidísima la famosa frase de Voltaire: «... peuples qui demeuremt ou plutôt qui sautent au pied des Pyrénées et qu'on apelle Vasques ou Vascons», recordado principalmente por viajero y folkloristas extranjeros, pero a pesar de la fama de

bailarines, no han abundado estudiosos de la coreografía. Larramendi dio interesantes referencias sobre nuestros bailes, pero se debe a Iztueta el honor de las primeras recopilaciones coreográficas, en una obra escrita en vascuence y publicada en 1824. Desde entonces habían de transcurrir muchísimos años hasta que otros hombres se interesaran por esta especialidad. Y, ahora, la obra recién publicada de José Antonio Urbeltz, director del grupo Argia.

Esta obra titulada «Dantzak», volumen de 275 páginas en formato de 29 x 23 centímetros, por el contenido de texto e ilustraciones, viene a ser un libro preciadísimo.

Obra editada por la Caja Laboral Popular, confeccionada por un equipo de especialistas bajo la coordinación de Juan José Berasategui, con fotografías y diseño de los hermanos Eguiguren.

Lleva tres presentaciones. La primera de ellas se debe a la pluma de Luis Iriondo, principal promotor de la edición, quien recuerda la aludida frase de Voltaire y hace una historia de la edición y describe la importancia de los bailes vascos; le siguen unas breves pero sustanciosas líneas de Ninette de Valois, más una presentación más extensa de Lucile Armstrong que como folklorista enjuicia los valores de los bailes de nuestra tierra.

Dice Armstrong en su encabezamiento: «Una flor no puede crecer sin raíces; una casa sin cimientos se derrumba con el primer temporal. En este mismo orden, un Pueblo se desmoraliza y desintegra si queda aislado de sus raíces». Para continuar describiéndonos la importancia del folklore, que en definitiva es la recopilación de la sabiduría popular.

En una amplia introducción, Urbeltz describe su plan de trabajo, en vascuence y en castellano. Selección y descripción de las danzas, etc., y a lo largo de la obra recogerá detalladamente todos los aspectos coreográficos, a veces con melodías y generalmente con dibujos y fotografías. Fotografías de los hermanos Eguiguren que son unas verdaderas obras de arte. Como apéndice, va un atlas folklórico, para terminar con una rica bibliografía e índices a la obra.

Artísticamente es un libro monumental, tanto por la presentación como por su contenido, y documentalmente, bastará con

afirmar, que, será en lo sucesivo de consulta indispensable para todos cuantos pretendan estudiar el folklore vasco.

1978 - VII - 17

EUSKALDUNEN JAZKERAK

Askok uste izan dute joan zen mendearen azkenaldian edo oraingoaren hasieran euskaldunak erabili zituzten jantziak betikoak ez baziren ere aspaldi aspaldikoak eta jatorrenak zirela. Horregatik, zenbait folkloretan, Olentzero, Santa Agata koruak, erromeriak eta euskal girodun jaialdietan era jatorrez jantzi behar dela, eta askoren ustezko era jator hori gure aiton-amonen jantziak besterik ez dira. Eta hauek ere baserritarrenak. Maiz, konturatu gabe, garai hartan ere, kaletarrak bestela jazten zirela edo aiton-amona haien gurasoak aspaldiagoko jazkerak zituztela. Beraz, jantzian jatortasuna mugatu ezinezkoa dugu. Garaian garaikoa.

Hala erakusten digu Maria Elena Arizmendiren *Vascos y Trajes* deritzan obra ederrak.

Aspaldi esandakoari eutsiko diogu. Holako lanak, lan monografikoak, orain Maria Elena Arizmendi andereak eskaini digun bezalakoak behar beharrezkoak ditugu historian zehar gure herriak bere bizibidezko kulturan erabili dituen formak ezagutzeko. Jazkera, berogarriaren praktikotasunetik aparte estetika era bat da, gizonaren gogoaren bidez bere psikologiari loturik dagoena. Herri bat hobeto ezagutzen laguntzen diguna.

Orain arte, nik neuk, euskal jazkereri buruz lan orokorrik bat besterik ez nuen ezagutzen, gerra aurretik B. Estornés Lasak egina. Honez gainera, zenbait jantziri buruzko lan soilak bagenituen, T. Aranzadi, M. Angiozar eta beste batzuri esker. Paulo Tillac-ek ere abarkari buruzko lan eder bat argitaratu zuen Eusko Jakintza aldizkarian (VIII, 1953-57), Maria Elenaren bibliografian agertzen ez dena. Holako lan anitzetan aurkitzen den huts une bera aurkitzen dugu *Vascos y Trajes* lanean ere, euskal

literaturan agertzen denarena. Harrigarria da euskal literatura bere barnetik zein guti ezagutzen den, edozein lanetan nabarmen ikusten denez. Eta euskal literaturan zerbait irakurri dugunok nola ahaztu Txomin Agirreren *Garoa* eleberrian ezkontza gertatzeko gurasoak darabilten elkarrizketa? Han aurkitzen ditugu mende honen hastapeneko ohiturekin batean ezkontza arrioa preparatzeko behar ziren tresna eta jantziak ere. Orixek berak *Euskaldunak* poemaren XIII. kapituluan ere badu gauza jakingarririk, baina oraindik haruntzago joaten bagara, Hiribarrenen poematik, 1853an argitaratuan, adibidez, 171garren orrialdeko bertso bat har dezagun:

Errientak herritan jaun batzuk baitire,
Hobeki apaindurik ezbaita batere,
Galtza eta maipolis lerdenak soinetan,
Jaunskil aldagarritan besta egunean,
Lepoan mokasena, jabotan urrea,
Beti ungi dirdiran buruko ilea.

Eta holakorik anitz bada Hiribarrenen *Euskaldunak* poemaren barna. «Kriketak» eta «Gizonak» direlako parteetan ere bada jazkereri buruzkorik.

Hutsune bera ageri da Obra eder honi J. Caro Barojak egiten dion hitzaurrean ere. Herbesteetako literaturetan agertzen denaren zenbait berri ematen dituelarik, bertako hizkuntzaz ezer idatzi ez balitz bezala.

Maria Elena Arizmendik, lehendik lan asko egina du euskal dantzeri buruz, eta obra honetan ere bere zaletasun honen joera nabari du. Proporzioz folkloreko jazkera gehiago biltzen bait du, gainerakoak baino. Esate baterako, artzainen jantziak edo Mogelek *Peru Abarka* liburuan aipatzen dituen olagizonenak (Legazpiko Mirandolan daudenak Mogelen lan hortatik atereak dira). Caro Baroja hitzaurregileak aipatzen dituen «liñuaren penak» ere Mogelen obran jasoak daude. Hirietako artesanoenak beste gauza bat lirake. Plazentzia eta Eibarko armerian gure egunok arte iraun dute armaginen jantziak, gremio bakoitzak mota berezidun tunikak zituztela.

Holako detaile tipiak aparte, Arizmendi anderearen lan handia bere nortasunez zutitzen da, garairik garai eta erarik orokorrenean euskaldunen jazkerak historian zehar zer izan diren adiarazteko. Gainera, obra eder honen alde hoberako, jantzietatik aparteko berri jakingarri asko biltzen dira bertan, edozein historiagile edo edozein gaitaz jardungorenaren probetxugarriz. Lana, kronologiaz ordenaturik dator, bi tomo handitan eta ehundakak irudiak, beltxuriz edo kolorez. Eta hauetako asko lehen aldiz argitaratzen direnak, egile berberak han-hemengo artxibo, museo, bibliotekak arakatu ondorean lortu dituenak. Horrez gainera, beste anitz edergarri ditu, kolorez, obra honetarako bereziki eginak, Gaspar Montes Iturrioz eta Jose Carlos Iribarrenek eginak. Bigarren honek testuetatik eta beste irudi batzutatik hornituak.

Pundu batzuk, badira ordea, hobeto itsatsirik utzi beharrezkoak; adibidez, gure historia aintzinean, harpeetan eta jeltilarrietan, aurkitu diren jostorratzak eta botoiak orduko nolabaiteko jantzien berri ematen digutenak, Donostiako San Telmon eta Bilboko Historiko-Arkeologiko museoetan asko dira horietakoak. Orduan ere, jantziak larru soila bakarri ez zirela esango genuke, edo gutienez larruzkoak ere josiak eta lotu-askaturako botoiez hornituak. Artzaingoan batek badaki noiztikakoak izanen diren artilezko puntugintzako lanak, beren soineko berogarriak egiteko. Gero,Erdi Aroan, Nafarroako erromaniko eta gotikoaren irudietan bada jazkera ugariagorik Maria Elenak bere obran parte honi ematen diona askozaz ere handiagoa eta ugariagoa egiteko. Jantzietan, Parisko Bibliotekatik ateratako kolekzioak dira noski liburuko jantzirik ikusgarrienak, lehen tomoaren 64/71 orrialdeetan, eta era berean Weiditz-en dibujoetakoak, 89/98 orrialdeetan. Gero, hemendik pasatzen ziren bidailari arrotzak mendez mende eman zituzten berriak ere oso kontuan izatekoak dira.

Agiriak atera dituen iturriak, toki izenak, pertsona izenak, jantziak eta bere zenbait parteren hiztegia, bibliografia orokorra eta abar, dokumentu anitz biltzen du bigarren tomoaren azken partean, beste zernahitarako ere baliagarria dena. Museoen artean ez du aipatzen Lurdesko gaztelukoa, eta hemen ere bada euskaldunen jantzi, tresna, etxe, liburu eta abar, holako obra baterako

Erronkariak gazteen jai eguneko jantzia

hain aipagarriak diren materialak. Gainera, katalogo bat ere bada, M. Le Bondidier (museo honen sortzailearen alaba) zenaren irudiz eta G. Balencie-ren testuz, *Catalogue Illustré de Musée Pyrénéen du Château-fort de Lourdes*, Instituto de Estudios Pirenaicos-ek 1953an Zaragozan argitaratua. Horrez gainera, Pirineoko etnografiaz, R. Violant y Simorra-k liburu eder bat argitaratu zuen 1949an, eta hemen ere agertzen dira euskaldunen ohitura eta jazkerak, fotografia cderrez agertuaz. Baina, bibliografia aipatzean, gaur egun, oinarri oinarrizkoa dugu Auñamendi argitaldaria egiten ari den *Diccionario Enciclopédico Vasco*. Argitaldariaren Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco sailean datorrena. Adar-formadun burusapineri dagokionez ere gauza bera esango genuke, C. Manso de Zúñiga jaunak gai hortaz berri asko emanak dituela.

Gure mende honen hasieran Sorolla, Zubiaurre eta beste zenbait pintorek utzi zizkiguten irudien bidezko jantziak kontuan

izan ditu, baina Arruetarrak, Tellaetxek, Artetak, K. Maeztuk, Martínez Ortiz de Zaratek, eta abar, edo lehenagoko Regoyos, A. M. Lekuona, Bringas artistak hainbat eta hainbat lan egin zituzten bertako jende jatorra eta bertako ohiturak oihaletara eramaten, eta hoienik urri jaso duela iduritzen zaigu.

Lana ondo osatua dela, ezin uka; baina hala ere, guk osatuago ikusi nahi.

Hutsune hoiek salatzeak ez du Arizmendi anderearen lan bikaina gutiesten, ez; ez dio ezer kentzen, zeren holako lehen obra osatu batean, ezer harrigarri bada, hainbeste material bildu ahal izateak harritzen gaitu. Obra oso ona da, ez bakarrik ilustrazioz aberats datorrelako, baizik material asko ta asko lehen aldiz argitaratzen direlako.

Gure zorionik kartsuenak merezi ditu egileak.

* * *

Siempre han sido de digna consideración los trabajos monográficos en temas del país, y en esta materia es de esperar la buena acogida que ha de merecer la obra *Vascos y Trajes*, de María Elena de Arizmendi, en dos volúmenes, que constituyen un arsenal documental, gráfico y escrito, con otras tantas referencias bibliográficas. Lleva la obra un sabio prólogo de Julio Caro Baroja. En la obra, la autora va describiendo la indumentaria de los vascos desde la prehistoria hasta nuestro siglo. En la parte final de la obra, la autora que durante años se ha preocupado de las danzas, aporta la gran variedad vestimental de la coreografía vasca de toda la geografía. Pero sobre todo, como bien apunta Caro Baroja en su prólogo, destacan en la obra los vestidos usados a finales del siglo XV y primeros del XVI. También son de gran interés los dibujos de Weiditz que en ella se reproducen.

La misma literatura éuskara es un campo aún inexplotado en lo que ella puede aportar a la etnografía. La novela costumbrista *Garoa* (1912) aporta un pasaje interesante sobre el ajuar de la boda, así como Orixe en su poema. Pero aún resulta más interesante por su mayor antigüedad, por ejemplo, el poema de

Hiribarren *Eskaldunak* y la obra de tipo enciclopédico *Peru Abarka* de Moguel. En cuanto a los trajes de finales del diecinueve y primeros del veinte, hay una gran riqueza ilustrativa en las obras de nuestros pintores, desde Antonio María Lecuona hasta Nicolás Martínez Ortiz de Zárate, sin olvidar a los Arrúe, Tellaeche y Arteta, y de cuyo material se ha valido muy poco.

Lo dicho en nada desmerece la obra. Además de ser el primer gran corpus sobre el traje, nos muestra un contenido inestimable para los estudios folklóricos e históricos.

También es preciso decir que ha de romper muchos falsos criterios, como el considerar de verdadero traje castizo la indumentaria rústica de los abuelos de primeros de siglo, o de considerar a los mismos como únicas prendas autóctonas, sin que hayan sufrido influencias extrañas, cuando en realidad las culturas se sirven mutuamente de préstamos entre pueblos. De ahí que la autora llega a certeras conclusiones, al manifestar que «ha sido juicio errado creer en aislamiento del país, poco probable dado su enclave geográfico y las características temperamentales de los vascos. Ignoro dónde surgió tal idea de incomunicación. Pero ha permanecido fija en muchas mentes. Es hora de desterrarla por sentido común, sin más». Todo lo que hay de original en nuestro pueblo vasco —donde el idioma, el conjunto etnográfico y el derecho foral son los valores más autóctonos e importantes y que merecen una consideración especial—, no son más que peculiaridades, la mayor de las veces muy cambiantes, adaptaciones propias formadas en nuestro grupo étnico de todo aquello que hemos asimilado de una cultura general del occidente europeo. Y con razón acabará diciendo que «el secreto de la vitalidad de los seres humanos y de los pueblos en general reside no sólo en la capacidad de su aptitud de evolución y renovación. sobre todo, en la permanencia del empuje necesario para no cejar en el empeño de ascender a un nivel humano y espiritual superior».

1977 - I - 10

EUSKAL-HERRIKO ZERAMIKA ERAKUSKETAZ ETA IKERKETAZ

Gaur zortzi ideki zen Donostiako San Telmo Museoan Euskal-Herriko zeramika erakusketa. Bertan, era guzietako lurrontziak bildu dira eta egunotan iker lanetarako gaitzat erabiliko dira.

Herri artea oraindik ez dugu behar bezain ongi ezagutzen eta ez dugu ezagutzerik ere bere alderdi guzietatik izan ezik. Euskal-Herriko etnografia lanetan gutien ikertu den gaietakoa dugu zeramika. Eta, baxera edo lurrontzigintza, bere konplexitateagatik, eskulanik aberatsenetakoa dugu. Aski dugu esatea, ofizioa ikasiko bada, tornuzko buztin-lantzeak berak bakarri eskatzen dituela lau edo bost urteko ariketak.

Gaira sartu baino lehen pundu batzuk argitu behar ditut: lehen lehenik, portzelana aldebatera uzten dugula. Hau, kaolin materiaz XVIII. mendetik egin den era berriago batean oinarritzen bait da, eta bestelako lurrontzigintza, buztin-lantzez egina, milaka urteetatik mendez mende heldu zaizkigun herritar langintzen artekoa da. Eneolitos garaiko treguharrietan aurkitzen dira. lurrontziak. Gure herrian, arkeologian aspalditik arduratu ziren ikertzeaz, baina ez ordea gure mendeko baxeraginen lanetaz. Hala ere, aitortu beharrezkoa zait 1930. urtean Eusko-Ikaskuntzak Bergaran egin zituen Biltzar haietan, gaien helburu nagusitzat Herri-artea zenez, han bertan jarri zutela Arabaqo Ullibarri-Ganboako ontzigile bat lanean eta baita lehen erakusketa bat agertu ere; bestalde, hitzaldietan erabili ziren gaien artean P. M. Artiñano zenak ikutu zuen zeramika.

Hala ere, Euskal-Herriko zeramika soilik eta zehatz ez da estudiatu Leandro Silván-en *Cerámica Navarra* (1973) argitaratu arte (liburu honi artikulu bat eskaini nion *HOJA DEL LUNES*-ko orrialde hauetan, 1974ko ekainaren 17koan). Lan honetan, arkeologiatik hasi eta historian zehar, zeramika bere erarik orokorrenez aztertzen du. Honen ondotik dator igazko urtean Auñamendi argitaldariak Diccionario Enciclopédico Vasco delakoaren «Cerámica» hitzean dakarren lan ederra, Enrike Ibabek egina. Lan hauetan hartu du gorputza kasik galdutzat joten genuen herri

artearen espezialitate honek, eta aurrerantzean ezer egin nahi duenak lan hoiek oinarritzat hartu beharko ditu.

Donostiako San Telmo Museoan jarri den zeramika erakusketa, Euskal-Herrikoez hornitzen dena, era guzietako eta toki guzietako materialez osatua da. Hil hontan E.K.N.-ko Kultur Kontseilaritzak eratu dituen hitzaldi, elkarrizketa eta ikerketak hortan oinarrituko dira, gai hau sakonago aztertzen, eta bertatik arte sortzaile berria nola bideratu.

Askoren galdera izan da, ia Euskal-Herriko lurrontzigintza honek ezelako berezitasunik ote duen. Eta, gure iduriz, berezitasun handiak ditu, eta gainera aberatsa da; oso aberatsa formen ugaritasunez.

Lehenengo bereizkuntza, materia beretik dator, tokian tokiko buztinez eginak direlako eta tokian tokiko premiak beharturik landuak direlako. Hasteko, diferentziarik garrantzitsuena, buztin gorriz egindako ontziak berniz zuriz estaltzeak. Talavera, Manises eta gainerakoetan, «majorikaren» gisa, ontzi zuriak buztin zuriz eta berniz zuriz eginak. Gurean ordea, guztin gorrizkoak berniz zuriz jantziak.

Baina, otoi, gurean ere toki guzietan ez da gauza bera, zeren buztin gorrizkoak berniz zuriz Arabako ifarraldean, Bizkaian eta Gipuzkoan. Arabako ifarralde hortan. baita ere berniz gorriz egin izan dira. Inoiz ontziaren barnekaldea zuriz eta kanpokaldea gorriz ere bai, Nafarroako Lizarran egin ohi ziren zenbait baxera bezala. Eta, hegoaldera, bai Araban bertan eta are gehiago Nafarroan, buzkin gorrizko baxerak berniz gorrixkarekin estaliak.

Materia, esan dugunez, toki bakoitzean bertan eskuratzen denez baliatzen ziren eta leku bakoitzeko premia bereziak formaz ez ezik baita bateria erabiltzeko erak ere kondizionatzen ditu. Euskal-Herriko ifarraldean, giro hotzetan, ura erabiltzeko ontziak ere bernizez estaltzen dira. Ifar Euskal-Herrian ezik. Hemen azala leuntzez inpermeabilizatzen bai zuten. Hau esateaz, pegarra (cántaro) delakoaz ari naiz. Etxe barneetan ur korrienterik ez zen garai haietan ura edukitzeko izaten zen ontzi hau. Bernizik gabe edo azala leundu gabe, poroetatik umedadea irtetzen zaio kanpokaldera eta ontziaren azalean, haizeari ikutzean eta kanpoko beroaz, umedade hori lurrin bihurtzen da eta lurrintzeak hotza ema-

Euskal--Herriko ollerien agiriz Donostiako San Telmon egin zen erakusketa (1978)

ten dio, ura fresko gordeaz. Baina berez giro hotza den tokietan ez du horren premiarik eta urik galdu ez dezan azala bernizez estaltzen zaio, naiz pegarra edo naiz pixter.

Materiako bereinzkuntza hoiez aparte, lurrontziak anitz gauzatarako erabili dira eta maizenik erabilkerak berak eskatu dio hartarako forma berezia edo aukerakoa izatea. Inoiz, lehenagoko artzaien zurezko ontzien formeri jarraituz ere bai. Honegatik, ezer ederrik baldin badu, Euskal-Herriko lurrontziak, formen ugaritasunezko aberastasuna du.

Ugaritasun horren barnean bertan, zenbait ontzi oso bereziak ditugu. Esate baterako, aipatu dugun pegarra bera, alde batera tutua eta bestaldera kirtena duela, bere kalabaza formaz, Bizkaitik Lapurdira aldatuaz doana, hemen formaren estilo askozaz finago dela. Lapurdin, materialak buztin zuriagoan dira maizenik —kare gehiagoz nonbait— eta pareta meheago lortzen dute ontzi handiak arinagoak izateko.

Irunberrin (Lumbier, Nafarroa), adibidez, bertako kantaroak, bernizik gabe eta porodunak izateaz gainera, ahoa eta ipurdia estuak dituzte, haize eta lur beroarekin ahalik gutien ikutzeko. Honegatik eta arestian adiarazi dugun lurrintzeagatik gordetzen da ura fresko. Honako premia hauek behartzen dute tokian tokiko bereiztasunak gordetzea.

Pegarrak, pitxerrak, katiluak, lukainka gordetzeko ontziak, neurriak... hoiek ematen diote Euskal-Herriko baxereri nortasun bereizgarria.

Egia esan, harremanen bidezko aldakuntzak nabari dituzten baxerarik ere ez da falta, ez formaz eta ez ere buztin-lantzez; baina, hala ere, nortasun handia gordetzen dute Euskal-Herrikoak.

Edonongo herri arteak, hiru gauza ditu bere inguruaren oinarritzat: zertako, materia, teknika. Ikerketa orduan gogoan hartu beharrezkoak direnak. Horrekin batean, klasifikatzeko orduan: forma, noizkoa, tokia eta jatorria edo kidetasunak.

Ontzia zertarako den kontuan izanik, formen armonia soil edo xinpleetan gauzen egitura aurkitzean datza herri artearen ederra eta nortasunezko balioa. Eskultura erako silueta on batek apaingarri guziak baino gehiago balio du. Estiloak berez duen ederra, inoiz, dibujoz hornitzeak ondatu lezake. Berez ederra denak ez baitu gainerako apaingarrien beharrik. Honegatik, irakurle, Euskal-Herriko zeramikan pintura eta kolorerik eza nabarituko duzu, baina oroitu zaitez, ontzien erabilkerarako, formaren bila ibili zela hemengo artista eta hor eman zuela bere estetikazko ustea.

Euskal-Herriko zeramikak ondo betetzen ditu baldintza hoiek, eta gauza bakoitza bere funtsioari loturik, gainerako apaingarririk gabe, forma beraren aburua soilik hobeto baliatzearren eginak dira horrela.

* * *

Asistimos estos días a la exposición de cerámica popular vasca en el Museo de San Telmo de San Sebastián, asimismo al ciclo de conferencias, mesas redondas y reuniones de trabajo sobre el tema, bajo la organización de la Consejería de Cultura del

Consejo General Vasco.

La cerámica popular del país, considerada en el V Congreso de Estudios Vascos, en 1930, aparte de las piezas arqueológicas no ha contado con monografías básicas sobre el tema hasta los recientes trabajos de Leandro Silván (su obra la comenté en estas mismas columnas de la *HOJA DEL LUNES*, 17-6-1974) y Enrique Ibabe.

La cerámica vasca, que prácticamente se ha extinguido entre las décadas del cuarenta y cincuenta, tenía en nuestro suelo pecularidades muy propias y a la vez variadas en su fabricación, condicionadas fundamentalmente por el destino, la materia y la técnica, para las diversas vasijas, que es donde reside el desarrollo conceptual del artista plástico.

Destacan las piezas de la zona cantábrica por los barnizados blancos sobre recipientes modelados en barro rojo.

La ornamentación ha sido casi nula, pero la variada riqueza de las formas sobresale extraordinariamente. Las piezas, modeladas con sencillez y belleza de líneas, hacen que en sus formas radique la armonía de la belleza artística.

Indudablemente, tampoco faltan productos de préstamo y cruzamiento. Aún así, mantienen características propias.

La selección es buena, pero aún se puede precisar más, y en las jornadas próximas se ha de intentar en ampliar y mejorar la catalogación, en base a tipología, cronología, ubicación geográfica y genealogía; con la ayuda de expertos en la materia y los propios alfareros que hoy viven y mejor conocen los pequeños detalles en las distintas tendencias de cada alfar.

1978 - VII - 10

JAN-EDAN ZAHAR ETA BERRIAK, FOLKLORE BIDEZ ETA UMOREZ

Denok onartzen dugu euskal folklorean denik aberatseneta-koa herritar musika dela, baina denak ez dira konturatzen doinu

askoren iraupena dantzeri eta batez ere kanteri esker heldu zaigula, eta era orokorrezko ikerketak egingo badira, musikari dagokionez, nahi ta nahiezkoa da kantak eta dantzak aztertzea, folklorea folklorekeri hutsean gelditu ez dadin.

Esaera zahar batek dionez, «norbere burua ezagutzea da jakitzea». Gaur oraindik bizirik dugun gizarte bizierarik zaharrena artzaingoa dugu eta daitekeana da honen inguruan folklorerik zaharrenak aurkitzea. Lehenguneko artikuluan, jan-edaneri buruz, itsasaldeko herrietan jartzen genituen gure jakirik ederrenak, eta ugarienak ere bai noski. Arrantzak ere, bere zenbait partetan Harri-aroko jatorriak ditu, egungo teknikak arrantza bera aldatua badu ere. Arrainak hor daude orain milakak urteak egin zituzten pinturetan, Aia-Orio aldeko Altxerriko harpean bezala. Baina folklore zaharrekorik artzaingoan aberastasun gehiago aurkitzen dugu. Eta, honen adibide batzuk emango ditugu.

Artzai janarietako postrea zen noski Gipuzkoan berriki hain hedatua jarri den mamia. Behar bada, mamia baino egokiagoa zen «gaztanbera» edo «gatzatua» deritzea. Mamia, esnearenaz gainera beste gauza anitzena ere bada, haragi edo ogiarena adibidez. Gainera, A. Arrue zenak «Egan» (1966. urteko 126/127 orrialdean) aldizkarian bestelako iritzia agertu bazuen ere, «mamia» (gaztelerazko «miga»tik aparte), egosi gabeko esneakin egiten dena da, gaztak egitekoa, Nafarroako Larraun eta Basaburuan ederki bereizten dutenez, eta «gaztanbera» esne egosiakin postretarako gertatzen dena. Beraz, maila desberdinekoak dira, biak erdarazko «cuajada» baldin badira ere.

Gainera, «mamia», esan gura honek ez du zahar itxurarik. Kiputzak behintzat ezin dute aurkitu agiri zaharretan, beste euskalkietakoak berenean gaztanbera eta gatzatua bilatzen duten bezala. Handiena da, gipuzkoarren eraginez beste hizkuntzetakoak ere, hobe beharrez edo, «mamia» hartzen ari direla. Ez dakigu zerbaitik, baina sarri kanpotik datorrenari abegi hobea egiten zaio.

Lerin-go konde beamondarrak, Gaztelaniako errege katolikoak kristau bezala jokatzen ez zuen garai hartan, eta hauen laguntzarekin. Nafarroari bere eskubideak galerazi zizkion denborakoa dugu «Beretxerretzen kantoria». Beraz, ez da atzo goizekoa. Eta,

kanta zahar honetan hara nola aipatzen den gaztanbera:

Haltzak ez du bihotzik,
ez gaztanberak hezurrik.
Enian uste erraiten ziela
aitunen semek gezurrik.

Horrela hasten bai da laumendez zehar guregana heldu den kopla zaharraren lehen bertsoa.

Era berean, eta mende bat lehenago noski, E. Garibay zenak jaso zuenez, Bizkai aldean jaso zen oiñaz eta ganboar denborako kanta baten zatia, Leintz eta Oinati bitarteko mendietan izan zuten borrokaldia aipatzen duena, hau da, Urrexolako gudua, gatzatua edo gatzayoa aipatzen duena:

Gaiza zenduan lenizanok
Urruxolako lekayoa.
Sendo zenduan odolori
biurtu jatzu gazayoa.

Hots! Gogoan izan Erdi-arakoak direla kanta hauek, gure literaturaren hastapenetakoak.

Zalantzarik gabe, lehen lehenik artzai janaria zen, Austriako artzainen artean yogurt zen bezala. Hau, gaztanbera gisa gertatzean fermentazioz egiten dute eta honegatik izan du mundu guzian harrera, urdailerako nekerik ez izateaz, erraz lixiritu eta alimentuz aberats delako.

Dena dela, gaztanbera edo gatzatuaren ordez mamia baderitza ere, akaitarena baino egokiako dago, noski. Honen historioa barregarria baita. Azkue zenak Donestiriko zenbait atso aurkitu omen zituen «aketa» hartzen. Donestiritarren «aketta», bertako argotean, kafea pattarrarekin nahasturik zen (Eibarko zaharrak «konpuestua» esan ohi zutena). Azkuek, hartzen zeudenei galde egin zien, zelan deitzen zioten, eta «Aketta» erantzun zuten. Eta, kafe hutsa zen ustean jaso zuen bere hiztegirako. Baina urteak igaroz, nork esan, Azkuek egin zuen huts haretatik horrenbeste hizbide etorri behar zenik? Azkuek uste gabean egin zuen hutsa,



Olaberriako mahaia

nork esan askorentzat «zuzena» eta defendigarria izan behar zenik? Euskerarik ez dakiten «ultra vasquista» horiek ere, «kafe hutsa» eskatzeko, hobe beharrez, «akaita bakarra» (café solo) deritzeraino.

Holmer sueziar hizkuntzalaria etorri zen batean, uste izan zuen bilaketa harrigarria egin zuela, mundu guziak «kafe» sustraiz esaten ziotenari euskaldunok «aketa» esaten geniola konturatu zenean, eta arduratsu joan zen A. Villasanteri galdezka. Eta, eskerrak gainera katua erbi ordez emango ez zuenagana joan zelako, beste batek badaki nolako agiriak eramango zituen Baltiko aldera.

Behin «akaita» ontzak emanik, badakizute ba, «akeita»rekin kopa eta purua erabiltzea ez zela hain itxurazkoa eta hain purua eta euskararentzat beste nolabait eratu behar, gauzeri bere itxura amango bazaio. Eibar inguruetan edontziari «txolota» deitzen diogula jakinik eta tipiagotuz «txola» denez, oso ongi «kopa»ren

ordez. Gernikaldean urkuldutako artaburuari, txorokillari, «txokorra» deritzaionez, bere itxuragatik ez zetoren gaizki «puru» ordez. Ederto ba, akerkeri biribil biribila. Oso ongi antolatzen dakizkigu behar ez diren gauzak: «Akaita, txola ta txokorra»; berdin balira «akerra, txala ta txekorra». Adarra joteko zer hoberik adarduna baino?

Orain, hutsezko hitzak gorde nahirik borroka, jatorrak milaka galzorian ditugun bitartean. Baina, umorez hartu beharrezkoak dira gauza hauek.

* * *

En el número anterior tratamos sobre gastronomía del país en general y de la bibliografía en vascuence sobre el tema. En los comentarios sobre el arte culinario ensalzamos casi exclusivamente la cocina costera o marinera. Esta puede ser la más primitiva y la mejor y más variada en el país, con su origen en épocas prehistóricas. El hombre de Altxerri que vivía de caza y pesca, en los muros de la cueva dibujó algunas muestras de su yantar.

Al estadio pastoril pertenecen algunos alimentos primitivos. En los cantares medievales de Mondragón se recomienda manzanas asadas y vino tinto para las parturientas y en el del encuentro de oñacinos y gamboínos en el collado de Urrejola se menciona la cuajada. No con el nombre que se ha industrializado en Guipúzcoa, sino en la forma vizcaína de «gatzatua» (o «gatzayoa»), que coincide con el navarro y suletino «gaztanbera», pues «mamia» responde a otra cosa. Hoy tenemos para testimoniar su antigüedad el cantar de Bereterreche.

Entre los nombres que han alcanzado cierta generalización a partir de un gran error está el café. Pues el café importado desde América y extendido por todo el continente europeo al igual que otros muchos productos ultramarinos, fue recogido por Azkue como «aketta» en St-Esteben. Pero lo que en aquel pueblecito del Pays d'Arberoue denominaban «aketta» no era solamente café, sino una mezcla de café y coñac que en el argot local llamaban de ese modo. Se pudo comprobar el error, pero

hoy cualquiera se mete a convencer de lo contrario a los que se creen «puristas». Más nos vale tolerar con un poco de humor de sobremesa y a poder ser acompañado de copa y puro, aunque uno no sea fumador y sí abstemio.

1977 - VIII - 8

II
HISTORIAZ
De Historia

ORREAGAKO GUDUA

Bihar bertan beteko dira mila ta berrehun urte Orreagan Karl Handiaren gudarosteen atzemuturra eraso zutela. Han orduan gertatu zenaren urteburua ospatzeko zenbait oroigarri eta jaialdi eratu dira aste honetarako Orreagan eta Auritzen. Besteak beste, Orreagako guduari buruz zuberotarrek eratu duten «Ibaineta» deitu pasturala ere agertzekotan da.

Gudu harek bere garaian hots handia izan bazuen ere, ondoko urte eta mendeetan gehituaz eta handituaz etorri zen. Kondaira izugarria zabaldu bai zen Europan zehar. Kondaira hortatik ditu bere hastapenak frantsez literaturak, *Chanson de Roland* delakoa XI. mendean hedatzeaz. Zein eta gaztelar literatura *Cantar de mío Cid* delakotik XII. mendean sasi zen bezala.

Gudua bera, 778. urteko abuztuaren 15ean izan zen. Historiagileak era askotara kontatu dute, batzuk euskaldunengan jartzen dute Karl Handiaren gudaroste taldearen aurka aritu zirenek, baina beste batzuk musulmanak euskaldunen laguntzaz. Egia esan, gudua gertatu zenetik laurehun urtera indartu zen poema hartzen dute askok oinarritzat, eta hortik datoz hutsak. Historia azterketan sustraietara jotzen ez dutenek beti sortuko dituzte holako nahasmenduak. A. Sorbet, R. Winston eta beste zenbait atzerritar historiagilek ondo agertua dutenez, pundu hontan aurkitzen den egia bakarra Eginhard, Karl Handiaren idazkari ber-berak kroniketan aitortzen duena da, eta ez geroztik ahoz-aho etorri zaiguna. Kondairak berez izaten bai dute gauzak harrigarriago agitea eta gudua bera izan zen baino handiago egin bazuten, etsaiak ere gehitu beharra izan zuten, musulmanak sartuaz eta euskaldunak bigarren mailako utziaz.

Pundu hau zuritu ondorean, gai hontaz, nere aldetik ez dut ezer berri agertzerik, eta lehen esanetatik jarraitu beharra dut. Hala ere, egunotan kazetak maiz aritu dira Orreagako guduari buruz, baina nik ez diek esan berrieri jarraituko, ez. Nahiago dut lehenago hotzean idatzi zuten historiagileen ingurutik abiatu, Orreagan zer gertatu zen adiarazteko. Poemaren jatorria eta guna aztertzeko on da R. Menéndez Pidal-en *La Chanson de Roland y el neotradicionalismo*» (Madrid, 1959) delako liburu mardul eta



Erroland (Roland) adarrez dei egiten (eskubian), gudarozteak biltzeko Iruñako harresian. XIV. mendeko miniatura, Italian (Biblioteca Marciana, Venecia: Cod. Fr. XXI, coll. 257 fol. 107 v.)

bikaina, baina literaturari lar lotzen delarik, historian ditu nahasmenduak. Honegatik, nahiago dut Karl Handia *(Charlemagne)* estudiatu duten lanetan oinarritzen den biografia bat hartu, era berean alde-kontrako ez diren atzerritarrena, adibidez Richard Winston-ena eta bertatik jarraitu Orreagan 778an gertatua.

Baina, baita ere gogoratu beharrezkoa iduritzen zait duela pare bat urte Gordailu argitaldariak eman zuen *Orreagako gudua,* Jesus Mari Arrietak oso ongi euskaraz idatzia. Handik hartu bai dut gaurko artikuluaren izenburua, eta handik bertatik ondoko esaldi batzuk ere.

Karl Handiak hainbat jende eta herrialderen gain agintea hedatu eta erakutsi ahal izan zuen, non Aita Sainduak 800. urtean Kristiandadeko enperadore izendatu eta koroatua izan zen. Urte batzuk lehenago gertatu zen Orreagako gudua, euskaldunegandik zigorra hartu zuena, eta Santiago bideko erromesek Europan zehar zabaldu zuten Karl Handiaren hondamendi hau, belaunik belaun ahoz aho zabaltzeaz, gertatua zen baino handiagoa eta harrigarriagoa eginaz; bereziki, Erdi-aroko koblakarien irudimenez. Denborarekin eraso ikaragarritzat hartu zuen jendeak eta hain gudu handitik euskaldunak garaile ateratzea ezinezkotzat joaz, musulmanak sartu zituzten, partaide ez ezik, burutzat; eta euskaldunak hauen laguntzaile soilak bihurtu ziren koblakarien ahoetan. Baina Orreagan gertatua besterik zen eta R. Winston-i jarraituko diogu, arrazoi bidetik egiaren alde zintzo jokatzeko. *Charlemagne*-ren biografo honek iturri onetatik hartu bai zituen bere agiriak, eta hara nola jasotzen dituen orduko gertakariak.

VIII.mendean, Omeya-tarren dinastiak Damaskotik ehun urteren buruan eraman zuen Islam guziaren burutza eta Abbas-tarren ondokoak buruzagitzaz jabetzeaz, musulmanok elkarren artean haserre omen ziren. Omeya-tarrak persegitu zituzten, hartzen zutena hartzen zuten lekuan hilaz. Abd-er-Rahman, Omeya -tarra izan zen hilketa hartatik ihesi sarkaldera etorri zena eta Córdoba-ko emir bezala gelditu zena; aintzinako musulman haien dinastiari zintzo jarraitzen ziotenen buruzagi. Baziren batzuk, ordea, bere menpeko jarri baino lehen kristauekin aliatu nahiago zutenek. Honela ba, Barcelona-n gobernari zen Suleimán-ibn-al

Arabi zenak Karl Handiari laguntza eskatu zion.

Karl-i gogozko zitzaion Espainiako kristauak musulmanen menpetik ateratzeko aukera, gurasoengandik sarrazenoen aurrako grina zetorkionez. Honetarako, gudarosteak gertatu zituen, frankoen artean inoiz ezagutu ez ziren bezalakoak. Bere soldaduz gainera, burgundiar, erromatar, babariar eta godo. Bi multzo handi eratu zituen eta 778. urteko udararen hasieran Pirineoak igaro zituen. Multzo batak Lerida aldetik eta besteak Euskal-Herriko Luzaidetik.

Baina bere asmo harek lehendabiziko unetik aurkitu zituen eragospenak. Nafarroako lurretan, euskaldun kristauek, Karl Handia ongi-etorriz hartu beharrean, euskaldunok beren independentizaren alde agertu ziren musulmanekin harreman onak gordeaz. Bestalde, Suleimán-ek bere agindua ez zuen bete, Ebro ibaiaren eskualde osokoegandik eskaintzen zion laguntzaz eta Zaragozako hiria errenditzeaz, frankoen esku uzteko. Karl ezin izan zen Ebrotik igaro, eta erretiratu egin zen, agiriak argi agertzen ez duten arrazoiegatik. Batzuen ustez, sajoniarrak bere erresumetara sartuko ziren beldurrez, eta besteen ustez saldukeria batera zeramatela pentsatu zuelako. Baina, dena dela, Espainia-kristindaderako jabetzeko asmoa alde batera utzi zuen.

Itzultzean, Ibañetako menditartean izan zuen borroka, historiako gudurik aipatuenetako bat bihurtuko zen. Erretiratzean, abuztuaren lehen partean, gudarosteak Iruñan gelditu ziren eta Karl Handiak bertako kristau hiritarrak zigortu zituen, hiriko harresiak arrautsiaz. Baina, hemendik Frantsiara itzultzean, Donibane Garaziko bidea hartu zuen, eta Orreagatik gorako oihanetan euskaldunak zain zeuden, ordaina eman nahirik. Gudarosteen multzo nagusiari Ibañeta igarotzen utzi zioten, behin Luzaidera jaitsiz gero, ezingo bait zion atzeko multzoari lagundu. Oso maltzur portatu ziren euskaldunak, atzeko multzoa soil solik hartu eta erasoaz garaipena lortzeko. Errolan (Roland) buruzagi famatuarekin batean han erori ziren Eggihard erregeren buruzagaiteko bat, Antselmo jauregiko kondea, eta beste. Karl Handiaren laguntza etorri orduko, gau ilunaren babespean, oihan itzaltsuetatik ihesik galdu omen ziren euskaldunak.

Hala dakar Karl Handiaren biografoak.

Gertatuaren inguruak ondoko urteetan herriaren eta koblakarien irudimenetatik gehitu ziren. Aldakuntzarik ere ezta falta eta kondairak sortutako poemetan, euskaldunak musulman bihurtzen direla dio. Karl Espainiara itzuli zela eta bengantzaz milaka sineskabeak hil zituela. Baina Karl inoiz ez zen berriz itzuli Espainiara. Urte batzuk geroago bere jeneralak igorri zituen Pirineoaz bestaldera, eta urte askoko borroka ondorean Penintsulako luralde zati batekin jabetu zen, Pirineo eta Ebro bitartean, Barcelona aldetik Euskal-Herrira, Marka Hispanika aipatua mugatzat hartzeko.

Anitz kantategi apokrifo sortu zen Orreagako gudua bide eta Errolanen hilketaz. Azkenik euskaraz ere bai, Astobizkarko kanta deritzana. Aintzinakotzat agertua izanarren, badakigu joan zen mendean erromantiko giroaren eraginez piztuta sortu zela.

* * *

Mañana se cumplirán mil doscientos años de la batalla de Roncesvalles, y entre otras celebraciones se representará la pastoral (teatro popular suletino) «Ibañeta», que recoge aquella gesta bélica, en conmemoración de la victoria de los vascos sobre el cuerpo de ejército que cuidaba la retaguardia de la retirada de Carlomagno.

Una fuerte escaramuza que con el tiempo fue adquiriendo la importancia de una gran batalla en toda Europa occidental a través de las leyendas difundidas por los peregrinos de Santiago. Códices medievales con iluminaciones, relieves en piedra, vidrieras... han ilustrado la renombrada batalla. Pero la única verdad en torno al hecho de Roncesvalles, como explica muy bien el biógrafo Richard Winston, es la que recogió el cronista Eginhard, secretario del propio Carlomagno.

Siendo esta fuente el testimonio más seguro, a él hemos recurrido para la confección del artículo.

En la España musulmana del siglo VIII hubo desavenencias entre los mismos sarracenos y fueron estas las circunstancias por la que el gobernante de Barcelona Suleimán-ibn-al Arabi, prefirió aliarse a los cristianos antes de someterse al emirato cordobés y

solicitó la ayuda de Carlomagno para derrotar al último de la odiada dinastía de los Omeyas.

A Carlos le atrajo la perspectiva de librar a los cristianos de España del yugo musulmán. Estaba convencido de que la población cristiana de la Península, subyugada por los musulmanes hacía poco más de sesenta años, se levantaría en armas y se uniría al ejército de los invasores.

A finales de la primavera de 778, reunió un gran ejército y cruzó los Pirineos por el este y oeste. Sin embargo, tropezó con inesperadas dificultades desde el principio: «Los cristianos vascos de Navarra, en vez de dar la bienvenida a Carlos, lucharon para defender su independencia», nos dirá Winston. Que, además, querían mantener sus buenas relaciones con los sarracenos. Por otra parte, Suleimán había sobreestimado su propia fuerza, y fue incapaz de de tomar la ciudad de Zaragoza para los francos, como había prometido. Carlomagno no pudo avanzar más allá del Ebro y tuvo que retirarse por razones que los anales ocultan.

Durante la retirada, las tropas de los francos se detuvieron en Pamplona, donde Carlos castigó a sus habitantes cristianos destruyendo las murallas de la ciudad. Después continuó su marcha para atravesar los Pirineos hacia San Juan de Pie de Puerto. Pero los vascos situados en Roscesvalles tomaron venganza. Escondidos en la fragosidad de los bosques esperaron a que el grueso del ejército pasara por Ibañeta hacia los estrechos desfiladeros de Valcarlos. El día 15 de agosto del año 778 atacaron la retaguardia de Carlomagno que se movía con dificultad por su pesado armamento. Así es como Eginhard se explica el hecho: «En la batalla que siguió, los vascones mataron hasta el último hombre del enemigo. Entonces se apoderaron del equipaje y, protegidos por la oscuridad de la noche, huyeron con gran rapidez en distintas direcciones... En esta batalla murieron Eggihardo, senescal del rey; Anselmo, conde de palacio; Hruodlan (Roland), guardián de la frontera bretona, y muchos más».

Fue una derrota de los francos, y el biógrafo de Carlomagno no se la inventó, nos dirá Richard Winston. Sin embargo, las dramáticas circunstancias de la batalla encendieron la imagina-

ción del vulgo. Aparecieron romances y legendarios relatos que iban y venían acerca de aquel episodio en bocas de los peregrinos, que el nombre de Roldán (Roland) se hizo familiar a todos los habitantes de Europa. Durante los tres siglos siguientes los relatos fueron reunidos por los trovadores en *La Chanon de Roland*, una de las glorias de la literatura medieval y primicias de la literatura francesa. Aunque, en el poema, los vascos aparecen convertidos en sarracenos, respondiendo a un orgullo histórico hacia Roldán.

1978 - VIII - 14

EIBAR. ERDI-AROKO AGIRIAK

Aurtengo udaran, Eibarko udaletxeko artxiboan aurkitu nuen Erdi-aroko kantategiaren orri baten berri eman nuen. Aurkimen hau ez zen oraingoa. Duela bizpahiru urte, herriko ordenantza zaharrak ikertzen ibili nintzanean, hamazortzigarren mendeko esku-izkribu batzuk kantategi zahar baten larruzko orriz enkuadernaturik zeudela ohartu nintzen. Bere anotazioak monogramaz (lerro batean) eta letra tipoa frantsez gotikoa. Urte batzuk igaro dira San Andresko parrokiako koruan antzerako baten orri erdia aurkitu nuenetik eta elkarren arteko konparaketak egiteko asmoz utzi nuen.

Udaletxeko orriaren neurria 49 x 36 zentimetrokoa da, eta parrokiakoaren esku beretik irtena dela esango nuke. Are gehiago, bai larruaren itxuraz, bai neurriz, letraz eta gainerako xehetasunez, kantategi ber beraren orriak direla dirudi, eta biak gerrate inguruan galdu zen kantategi ber beraren orriak direla dirudi, eta biak gerrate inguruan galdu zen kantategi baten zatiak. Bere berriak, ikus R.S.B. Amigos del Pais-ko Boletin-ean, XXVI (1970) urteko 490/93 orrialdeetan.

Oraingo zati hau osoagoa denez, ikerketarako aukera hobeak ematen dizkigu. Alde batetik, lehen uste genuen akitano kutsu hura oraindik nabarmenago agertzen zaigu. Letra, frantsez gotikoa zaharra du, lerro bakarrean anotatuaz gainera, eta Nafarroan

XIV. mendearen lehen partetik erabili zen «*minima*» delakorik ezta agertzen. Gregoriano musikaz dago, latinez idatzia eta gaitzat Andra Mariaren goresmenezko kanta.

Baina ez uste izan kantategiaren zati hau gure herriko Erdi-aroko agiri soil eta harrigarri bat denik. Aurkitze hau, aspalditik bilduaż nentorren agiri zaharren aberasgaritzat jo dezakegu.

Aipatutako boletin hortan, 1961ean, Unzuetatarren leinua oinazterren ahaide nagusien artean aztertzeaz eman nituen Eibarren albiste zaharrak eta geroago, 1969an, herriko erromaniko artearenak. Geroztik, materialak bilduz eta aztertuz jarraitu dudanez —1975/76 urteetako San Juan jaietako programetan ikus dezakegunez—, orain guzien berri laburrak aurkeztea merezi du.

Eibarren izena agiri idatziz lehen aldiz J. Iñiguez de Ibarguenen *Crónica* famatu hartan agertzen da: Ziortzan zaldun batzuk batu omen ziren 1193. urtean Don Celinos Nafarroako erregeen ahaide hurbila Eibarko Untzuetako alaba batekin ezkontzera etorri zenean eta txala egiteko zeuden hogetalau behi eskaini omen zituen Ziortzako elizarentzat. Gainera, bertan azaltzen denez, orduan berritu omen zuten Untzueta jauregia. Beraz, ageri denez, 1193. urtea baino lehenagokoa zen etxe hau.

Hamairugarren mendean berri gehiago aurkituko dugu. 1267-an, Alfonso el Sabio gaztelako erregeak Eibarko San Andres elizaren maiordomo izendatu zuen Juan López de Gamboa, Elgoibarko Olasoko jauna eta ganboarren buruzagi zena.

Untzuetatarrak oiñaztarrak izatez, elkarren etsai amorratuak ziren, beti etengabeko guduetan ari zirenak. Honegatik, esan beharrik ez dago, Eibarko eliza ganboarren esku uzteaz zer iskanbila sortuko zen. Dena dela, hamar urte geroago, 1277an, gaztelako errege ber berak hesia jarri zion Untzuetako dorre-etxeari. Hala ere, apenaz humildu ziren Untzuetarrak, eta ondorengo erregeak ere, Alfonso horren seme zen Sancho «el Bravo»k Diego López de Salcedo bidali zuen bere gudarosteekin Eibarko dorre-etxe bera errenditu zedin.

Azken gertakizun honen berri Erregeen koroniketan ematen da, eta bai lehena eta bai bigarrena Lope García Salazarkoaren *Las Bienandanzas e Fortunas* deritzan esku-izkribuetan.

Eibar hiri-bildu izendatu zen 1346an, eta, geroztik, XIV. men-



Erdi-aroko kantategi baten orri hau XVIII. mendeko esku-izkribu batzuk estaltzeko azaltzan jarria

dean zehar berriak ugarituz datoz. Aipagarriak dira «Carta-puebla» bera, 1390. urtean Akondiako kantak sortu zituen gudu hura eta beste zenbait berri.

XII eta XIII. mendeetako berriak edukitzeaz, jakinekoa zen bestelako aztarnak ere izatea. 1927an E. Urroz parroko zenak Azitaingo koruko horman harrizko Kristo gurutzatua aurkitu zuen eta handik parrokiara eraman eta gerra ostean galdu zen. Esan dugunez, XIII. mendekoak dira San Andres elizaren lehen aipamenezko agiriak. Honegatik, oraingo eliza baino lehen ba zen beste bat eta garaiagatik, erromanikoa zitekean. Eta, behar bada, gelditzen zaigun agiri bakarra, San Pedroren harrizko imajina erromanikoa da, eleizaren ekaldeko ateburuan gordetzen dena. Arestian aipatu bezala, R.S.B.A.P.-ko Boletinean agertu nituen berriok. Ikus XXV (1969) urteko zenbakian.

XIV. mendeko agiriak ugari dira, eta, era berean, gotiko aztarnak ere ugariago. Gerratean hainbeste gauzaren artean galdu

zen, sakristia erretzean, Aita Lizarraldeak katalogatua zen Andra Mari irudi polit bat. Katalogatzailearen iduriz, Arratekoa bera baino zaharragoa. Arrateko Andra Mari XIV. mendearen lehen partekoa da, eta Arrateko elizaren ekalde partea ere gotiko egiturazkoa. Zozolan Sienako Santa Katalinaren harrizko imajina, Arraten gordetzen den San Laurente zurean polikromatua ere bai. Aginagako San Migel Arkanjeluaren elizan dugu beste Andra Mari eder bat, XV. mendekoa. Irudi hoiez gainera aipagarria da Isasi kaleko laugarrenean Jesus monogramazko ateburukoa, San Andres-en gurutzarekin. Eibar zaharraren agiri bikaina dugu.

Kantategiaren aztarna honekin aski material aurkitzen dugu Erdi-aroko Eibar zerbait ezagutzera hurbiltzeko. Behinik behin, hamalaugarren mendeko hiri bildua eremu soilean egina ez zela adieraziko digute.

* * *

Hace unos tres años, cuando indagaba sobre las ordenanzas municipales en el archivo de Eibar, hallé un legajo con cubierta de pergamino avitelado. Se trataba de unos manuscritos del siglo XVIII encuadernados con una hoja de un cantoral medieval, y de una medida total de 49 x 36 cms. Su particularidad consiste en su notación a una sola línea y el tipo de letra gótica francesa; pero, además, no figura la nota mínima que se introdujo para mediados del siglo XIV en Navarra con el *Ars nova*. Lo que hace pensar que la hoja pertenece a un códice del siglo XIII o principios del XIV. Sus características, en cuestión, coinciden con la hoja que hace unos años descubrí en el archivo del coro parroquial de San Andrés y que muy probablemente pertenecieron al cantoral desaparecido en la última contienda y cuyas referencias se detallaron en la «Crónica» del IV Congreso Nacional de Música Sagrada celebrado en Vitoria en 1928, donde se expuso el cantoral de Eibar, que llamó la atención de los entendidos, junto con otros ejemplares procedentes de los grandes monasterios. En su día, en el Boletín de la R.S.V. de Amigos del País, XXVI (1970), pp. 490/3, di una reseña explicativa. El nuevo hallazgo ayudará en la investigación que tiende a confirmar su origen o

influencia aquitana, con música gregoriana y tiene como tema la exaltación de la Virgen.

La época de la hoja hallada se remonta a la de las primeras noticias de la parroquia eibarresa. La que en 1267 Alfonso el Sabio —precisamente el autor de las «Cantigas»—, hizo merced del patronato a favor de Juan L. de Gamboa, señor de Olaso de Elgóibar y cabeza del bando gamboino y enemigo del solar eibarrés de los Unzueta, parientes mayores del bando oñacino. Epoca en que las cosas no debieron marchar bien, puesto que a los diez años el rey en persona puso cerco a la casa-torre de Unzueta en Azitain.

La primera noticia de Eibar es aún bastante anterior y en la misma se dice que la casa de Unzueta se reedificó en 1193.

Las noticias del siglo XIV ya son más abundantes, con la fundación de villa cercada, la «Carta-puebla», la batalla de Akondia y su cantar, etc.

A aquel Eibar medieval pertenecen el San Pedro románico que hoy se conserva como único testimonio en su estilo artístico, ya que desapareció el crucifijo de piedra que E. Urroz descubriera en Azitain, y las dos hojas del cantoral. Mas, del período gótico, de los siglos XIV y XV, son las imágenes de Arrate, Aginaga y Zozola. En las bases del edificio Unzueta se pueden observar las de la casa-torre primitiva, y en el número 4 de Isasi un anagrama de Jesús con aspas de San Andrés, clave de la puerta de algún antiguo edificio gótico.

Estos materiales, estudiados en su conjunto, nos aproximan a un mejor conocimiento de la historia local en el medioevo.

1978 - XI - 27

EN TORNO A LAS «JUNTAS GENERALES»

Ha habido y hay ideas muy equívocas respecto a los fueros, tal como puntualiza Federico Zavala en la obra *De los Fueros a los Estatutos*. Por una parte la idea de un privilegio, que se ha

convertido en un tópico, y por otra el rechazo por puro anacronísmo.

Así como ha sido estudiado por sociólogos y economistas, y reconocido por los historiadores, lo que supuso para el desarrollo comercial e industrial de Inglaterra la aceptación de «Habeas Corpus» (1679) cuyo valor jurídico liberó al ciudadano inglés para ejercer su iniciativa privada, fuente del progreso de aquella nación, no se han hecho estudios paralelos sobre los fueros vascos que eran anteriores y en los que se fundó todo el progreso comercial, agrícola e industrial, en una tierra pobre de recursos.

De ahí, que al tratar sobre Juntas Generales parezca también anacronismo o agua pasada. Cuando en realidad, es la única parte de nuestra historia en la que el pueblo ha sido el único soberano.

Guipúzcoa se adhirió al rey de Castilla (al rey, y no al pueblo de Castilla) condicionado a la aceptación de su sistema tradicional de gobernar por el Fuero. Y las Juntas Generales representaban plena soberanía popular, aun en aquella época en que Europa estaba dominada por el feudalismo.

El Fuero guipuzcoano estaba basado en usos y costumbres de los habitantes del lugar desde tiempo inmemorial. Cuyas particularidades más destacadas eran el reconocimiento de la nobleza universal y la soberanía del propio pueblo con poder legislativo en el concejo municipal, para efectos locales, y en la elección de sus representantes, llamados Procuradores, para las Juntas Generales.

Sobre las Ordenanzas municipales, por las que se regían los municipios, estaba el Fuero general de la provincia y todo el poder legislativo del mismo recaía en las Juntas Generales, a donde asistía un Corregidor en representación del rey, y su cometido se limitava a hacer cumplir las leyes forales e informar al rey de los acuerdos tomados. A la Diputación foral correspondía el poder ejecutivo.

Ese poder supremo de la provincia, data cuando menos de la Edad Media, y su periodicidad aparece señalada desde el siglo XV. Ya nos señaló Carmelo de Echegaray lo que a este respecto se lee en el libro de los *Fueros* (título IV, capítulo primero): «cos-

tumbre antiquísima (y de cuyo principio no hay noticia) es la de las Juntas generales de la Provinvia, en las cuales congregándose todos los Caballeros Procuradores de las poblaciones, Alcaldías y Valles de ella, con especiales poderes de los Concejos, se ha atendido siempre al mayor servicio de Dios y del Rey Nuestro Señor, y a la conservación de la República con policía, equidad y justicia».

Hasta el siglo XVII las Juntas se reunían dos veces al año, pero luego vinieron a reunirse una vez al año. Hoy, de tener que llevar a efecto, podían ser reuniones mensuales. Antiguamente, la dificultad en los medios de traslado obligaba a despachar todos los asuntos en un sólo desplazamiento, y las juntas duraban varios días; por ejemplo, a finales del siglo XV, hasta veinticinco días consecutivos. Para casos urgentes se recurría a las Juntas particulares, que se convocaban en cualquier época del año, si era necesario.

Los lugares de reunión, primeramente, eran dieciocho, que iban turnando cada año. Los acuerdos de las Asambleas se adoptaban por el número de *fuegos* (que se basaban en hogares o familias), y no por votos personales. Los procuradores, como queda dicho, eran designados por los ayuntamientos respectivos. Los pequeños municipios podían agruparse a formar una Alcaldía común y elegir un procurador en común. Para ser procurador se exigía la calidad de arraigo y dignidad, y, naturalmente, ser elegido por la mayoría del pueblo o de los pueblos agrupados.

Los poderes dados a los procuradores no debían contener mandato imperativo, ni ser limitados, ni contener cláusula de sustitución. Los poderes, el primer día de la Junta, se entregarían al secretario y no podían los apoderados, sin contravención del Fuero, hacer la menor consulta a los pueblos sobre los negocios sometidos a la resolución de la Asamblea. Estaba terminantemente prohibido a los Procuradores todo cohecho, y vedado también que agenciasen otros negocios que los de sus respectivos concejos. Acerca de estos particulares son severísimas las Ordenanzas de 1529.

Las mismas Ordenanzas prescribían que ningún procurador de los que formasen la Junta de Guipúzcoa, pudiera ser fiador

del Corregidor al tiempo de recibirle, ni tampoco de juez o merino mayor, para los casos de residencia al cesar en sus cargos.

Es hasta sorprendente con qué precisión se sabía llevar la gestión que el pueblo encomendaba a su presentante.

El hecho natural de un pueblo, así como su lengua y sus leyes, no son negociables a nivel político, y es preciso orientarlos por cauces institucionales si hemos de ir hacia una convivencia.

No hay duda, de que junto al idioma vasco, el sistema foral ha sido el fenómeno extraordinario que ha caracterizado al pueblo vasco. Por esto, con razón afirma Adrián Celaya: «acaso más sorprendente que esta pervivencia del idioma, sea el hecho insólito de que un pueblo rústico, aldeano, con una cultura incipiente, haya sido capaz de elaborar en plena Edad Media o en los albores de la Moderna, un sistema de leyes tan distinto de los coetáneos, tan avanzado y progresivo, que podría aun hoy servir de modelo y hacer reflexionar a quienes encuentran dificultades para reconocer al hombre, a todo hombre, su auténtica dignidad.»

Muchas de las leyes acogidas en el texto de los *Fueros* hoy no tienen sentido, pero otras sí. Las propias Juntas Generales no podrían funcionar como entonces. Todo ello exige una revisión general para una actualización. Además, ni antes estaba toda la ley codificada, y prueba de ello constituye la hermosa obra de Alvaro Navajas Laporte, *La ordenación consuetudinaria del caserío en Guipúzcoa.*

Lo que no se puede negar y que podía entrar en vigor, dada la orientación decisiva hacia una democracia, es la soberanía popular como base de la formación de las Juntas Generales, y es donde deberían trabajar las diversas tendencias políticas para neutralizar la acción en pro del desarrollo general en los intereses de un pueblo.

Las leyes forales, en su *Nueva recopilación,* han tenido varias ediciones y que hoy están a la venta; pero quizás de ellas poco podemos sacar los no iniciados en asuntos jurídicos y, para una recta información, conviene recurrir a los diversos tratados de foralidad. Además de las mencionadas obras de F. Zavala y A. Celaya, contamos con la de Cillán Apalategui. Pero la obra máxima, para la interpretación del derecho foral guipuzcoano, quizás cons-

tituya el *Compendio de las Instituciones Forales de Guipúzcoa*, de Carmelo de Echegaray. Vizcaya, por su parte, cuenta con la extraordinaria obra de Gregorio Monreal, *Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya.*

La vía foral, con sus Juntas Generales, puede ser la vía de solución al problema vasco, si se pone buena voluntad y mucha sinceridad por parte de todos.

1977 - III - 7

LORD CARNARVON ETA EUSKAL-HERRIKO FORUAK

Maiz idatzi da forueri buruz bere funtsean zer direnik jakin gabe, edo egungo egoerari eta bakoitzaren politikazko joeragatik bere funtsa alderantziz agertzera behartuz. Holako kasoetan egia ahalik zihurren jakitzea nahi baldin bada, bertako interesetatik landa tratatzen duten autoreetara jotzea dugu onen onena. Eta hala dugu Carnarvon-go kondea, foruen galera zekarren Cadiz-ko konstituzioaren erabagien ondotik (1812) Espainia eta Portugaleko lurraldeak zehar ibili zena bertako historia arakatuz eta ikertuz, bertako egoeraz jaketzeko.

Lord Carnarvon-ek bi ostera egin zituen Iberiako peninsulan zehar, bigarrena 1827an, eta bere oroitzapen eta azterketak idatzirik utzi zituen. Egia esan, Carnarvon, noblezazko familian sortua zen eta Eton-en eta Oxford-en estudioak egina. Estudioak bukatu ondoren Afrika ifarraldetik, Espainiatik, Portugal-dik eta Grezia-tik ibilaldiak egina, garai haretako munduz eta kulturaz ondo hornitua eta gizon zentzunduna. Eta aburu zuzenak emateko jakintza haina zentzuna behar da. Lord Carnarvon bi hoien jabe zela iduritzen zaigu. Hala ere, ez dugu esan nahi berak esandako guzia bat batean eta besterik gabe irentsi behar dugunik, ez; bakoitzak eskubide osoa du bere iritzia lortzeko. Baina bai beharrezkoa zaigu, nahasmenduetatik hat, gai bakoitzean jakitun direnei entzun beharra, irakurri beharra. Holako bidea hartzea norperaren onerako baita; eta, Carnarvon-en iritziak, gure foru

Mikeleteak Gipuzkoan

zaharreri buruz, ezagutu beharrezkoak dira foruetaz jardun nahi badugu.

Bere liburua, Iberian zehar egin zituen ibileren egunerokoa da. Zehatz izkribatutako egunerokao. Iberiako nazioak maite zituen eta karlisten aldekoa zen. Honegatik edo, liburuaren azken partean Euskal-Herriko forueri buruz ari·da. Foruak, historia eta euskaldunen ohiturak adiarazten ditu.

Erreginaren jeneralek, euskaldunak egiten zioten eten gabeko borrokarekin nekaturik, foruak errespetatzea agindu omen zuten, aldez aurretik jakinean zirelarik gobernuak ez zuela onartuko eta fouak galduko zirela.

Foruak ez omen ziren zaharrez gastatuak eta baztertu beharrezkoak bihurtu, ez. Gaur, ordea, hauteskundeen aurrean, zenbait alderdi ezkertiarrek mespresiatuak izan dira, berriagoa den autonomia eskaintzean. Euskal-Herriko esan zahar batek dio: ahal

dena, itsasoko arrainik hoberena. Eta esaerari erantzunez, har dezagun ahal dena; baina ez uste izan autonomia denik hoberena. Honen eskubideak laburragoak bai dira, baina konpon bide baterako amor eman beharrezkoak. Atakagaitz hontatik nolabait irten beharrean gara, gizonek gizonei amor eman beharrean. Hau izango da gaurko arrazoia, baina ez foruak txarrago bezala baztertu behar direlako. Herriak, foruekin, bere jabetasun osoa zuen, autonomiak eskaintzen ez duen haina.

Beraz, garbi dago, hobeagoaren trukez txarragoa eskaintzen digutenek ezjakin batzuk direla edo bestela gure herriaren aurka daudela. Ez bait dut pentsatzerik nahi gezurretan ari zaizkigutenik.

Carnarvon-ek zionez, euskaldun bakoitzaren etxea gaztelua izan zen; ez zen majistradurik bortxatuko zuenik, ez irikiko zuen agindurik, ezta ere ezin zitekean armarik edo bestelako zerbaitegatik aldez aurretik Batzarraren aurrekaldera eraman eta bere hutsak legearen aurrean salatu gabe.

Beste inongo gizonak ez omen zuten holako eskubiderik, agintariak indarrez behartu gabe, «Habeas corpus» berak baino eskubide handiagoak ematen zizkiela euskaldunei foruak. Eta, gainera, britaniarren eskubide horiek baino lehenagokoak zituztela euskaldunak berenak. Hau ezta guti ingles batek aitortzeko.

Holako esaldiak ditu Carnarvon-go kondearen liburuak. Bere ustez, euskaldunon foruak suizarren kantoietakoak baino libertate handiagokoak dira edo ziren. Honegatik, Euskal-Herria defenditu beharrezkoa zen. Eta foruak debekatu edo kendu zituzten agintariek salatzen zituen, behin eta berriz, gizonaren libertateak ukatzea zenez. Orduan, tiraniaren aurka sartzen da, naiz tirania hau agintari despota bategandik etorri eta naiz demokraziaren izenean etorri.

Liburu honek, irakurgai bezala, goitik hasi ta behera, dena du probetxugarria. Bada bertan zer ikasirik, ikasi nahi duenarantzat, eta ikasi beharrik ere badute foruetaz mintzatu nahi dutenek.

Bere alde eta kontra esandakoak bildu zituen Manuel Irujok *Inglaterra y los vascos* (Buenos Aires, 1945) liburuan. Baina nik, hemengo berriak Taurus-ko argitalpenetik jasoak ditut. Conde de Carvarvon, *Viajes por la Península Ibérica. Taurus Edicio-*

nes, S. A. Madrid, 1967.

* * *

Muchos políticos de nuestros días están exponiendo opiniones muy confusas o muy contradictorias al comparar los fueros con la autonomía, como si un asunto posterior cronológicamente ha de ser siempre más justo para lo actual. No vale tampoco discutir con los que no tratan de informarse.

Sin duda, tampoco las partes interesadas (nativos del país en este caso) son las más idóneas a aclarar dudas, y es conveniente recurrir a los que los asuntos hayan contemplado desde otra perspectiva que no sea la nuestra. Lord Carnarvon, hombre erudito y juicioso, escribió en 1827 sus memorias o diarios de viaje por la Península. Este hombre de grandes conocimientos escribió durante la primera guerra carlista: «Cuando los generales de la reina, agotados por la indomable oposición del pueblo vasco, garantizaron fraudulentamente sus derechos y privilegios, a sabiendas de que esa garantía no sería confirmada por el Gobierno»; esos privilegios o fueros «no estaban gastados por el tiempo ni habían dejado de ser respetados, honrados u obedecidos, ni tampoco habían conservado el nombre después de haber perdido el espíritu de auténtica libertad, pues el hogar del vasco seguía siendo su castillo, en el más estricto sentido de la palabra; no había magistrado que pudiera violarlo ni orden que pudiera abrirlo o confiscar sus armas o su caballo; el vasco no podía ser detenido por deudas o sujeto a prisión por cualquier pretexto sin permitírsele antes comparecer ante el viejo árbol de Guernica, donde se le explicaba la acusación y era allí mismo o convocado a juicio o puesto en libertad bajo fianza, según las pruebas aducidas contra él o la naturaleza de la acusación». Estos derechos le parecían a Carnarvon «la mejor salvaguardia contra el abuso del poder, más favorable al individuo que nuestro querido *Habeas corpus* y los vascos los disfrutaban antes de que existiesen las famosas garantías de la libertad británica».

Pero todavía irá más allá al manifestar: «Hasta la subida al poder de la reina, las provincias vascas eran más libres que

el más libre de los cantones suizos, su tierra y sus fueros eran dignos de ser defendidos, no sólo contra el tirano despótico, sino también contra el tirano democrático; los vascos son los tiroleses de España y, permítaseme añadir, la flor de Europa».

Quizás sean excesivas las declaraciones de Lord Carnarvon, pero sus juicios son considerables. Y sí estaba más informado que muchos políticos de hoy que presumen de vanguardistas y como tales anteponen la autonomía al fuero.

1977 - V - 23

AFRIKAKO GERRA

Antonio Zabalak maiz eskaintzen dizkigu bertsolarien liburu ezagugarriak Auspoa liburutegiaren bidez. Gai baten inguruzko azken bilduma «Afrika'ko gerra» deritzana dugu; eta bertsoez gainera agiri asko ematen ditu Afrikako lehenbiziko gerra hartaz. Lehenengo gerra hura 1859-1860 urteetan izan zen. Karlisten gerrate bien bitartean.

Bertso paper bilketa toki askotatik egin du A. Zabalak, baina batez ere Chicako-ko *New Library-n* L. L. Bonaparte-ren agirien artean gordetzen zirenetatik. Frai Jose Antonio Uriartek bialtzen zizkion Bonaparte printzeari. Uriarte praile frantziskotarrak ber berak gerra honi buruz jarritako bertsoak ere argitaratzen ditu.

Historian beti iduritu zaigu ilun samarra gerra hura, bai gerra egiteko arrazoien aldetik eta bai «Tercios Vascongados» zirelako haiek parte hartzeaz ere. Gipuzkoak 1.136 mutil prestatu behar izan zituan, eta antzera Arabak eta Bizkaiak.

Gerra hura Leopoldo O'Donnell jeneralak hala nahi izan zuelako gertatu omen zen, politika alderdiak zerabilkiten nahaspila baretu eta espainiarrak abertzaletasunez berotu eta batu zitezen. Artean, Ministroen kontsejuko lehendakari eta gerrako ministro bai zen D'Donnell bera. Honegatik, Ceuta-ko gobernadorea moroak zirikatzen jarri zuen, mugak hiritik harat eramanez.

Bildu beharrezko soldadu kopurua, lehenengo borondatez joan

nahi zutenei dei eginaz eta falta zirenak, kopurua bete arte, hogeitik hogetahamar urtera bitarteko gizonezko ezkongabeen artean zozketa eginaz, eta suertez irtetzen zirenak beren ordezko bat diruz eros zitekeen.

Gerra pizteaz, Gipuzkoan erregeren korrejidore zen Manuel Somoza-k deia egin zuen, arenga itxurazko hitzaldi batean esanez: «La guerra, contra los bárbaros del Riff, tan popular en España, tiene las simpatías del mundo civilizado, y la Diputación general, en su previsión y patriotismo, no se ha considerado dispensa de acudir a vuestro ilustrado criterio en demanda de auxilios para desagraviar el orgullo nacional. De vosotros pende ahora el fallo, que tanto puede influir en las glorias y en el porvenir de Guipúzcoa».

Beti bezala, handi itxurako hitz arinak ugari, herriari burua berotzeko. Baina, azken hitzak ongi irakurtzen baditugu, foruen auzia bitarteko zegoela laster ohartuko gara; liburuko beste ageri askotan eta bertsoetan nabari den bezala:

Obligazioz da eta
joan bear gerrara,
lege maitegarriak
gordeko badira;
Tanjerren ipiñirik
español bandera,
denbora labur barru
etxerako gera.

Alegia, gerrara joatea beharrezkoa zela, eta hori foruak gordetzearren.

Izan ere, Bergarako besarkada ezkeroztik, foruak erdi kolokan zeuden. Egileak ongi dion bezala, ikus, adibidez, Pablo Gorosabelek zer dion, bere «Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa» liburuan, «El estado de la cuestión foral» deritzan atalean.

Horregatik, hemengo Diputazioak, beste edozeinek hainbat lagundu nahi zuten gerra hartan; eta euskal probintziak beste guziak bezain abertzale zirela agertu.

Hasiera hasierako bertso berak ere hara zer dion:

Adierazo nai det
izketa klaroan
euskera ta fueroak
noiztik nola diran;
aspalditik nedukan
jarria buruan
Iputzen onerako
egingo ote nuan.

Bertso horien egileak ez dakigu nor ziren. Baina Aita Uriartek 1859ko abenduaren 21ean Bonaparte-ri bidalietan Elgoibarko erementari zen Etxaniz deiturako batenak dira, eta hara zer dion zazpigarren bertsoan:

Iru probintziako
Diputaziuak
orain artu dituzte
beren mediuak:
iru milla mutil da
gaiñera diruak
gerra orretarako
dirade ainduak.

Liburu erdialdera arteko bertsoak aski berdintsuak dira. Propagandaren giroak eraginik, moroen kontra, Espainia eta kristautasuna eta gure probintzien etorkizunaren alde. Ordurako, Nafarroa bere «Ley Paccionada» (1841) zelako foru eskubideaz jabetu zen eta horregatik ziren hiru probintziak bakarrik.

Arestian esan dugun bezala, bertsorik gehienak ez dakigu norenak diren, beste batzuk ordea. Altzoko Imaz, Zubiria, Elgoibarko Etxaniz, Durangoko Pantxillon zirelakoen izenak daramazkite; eta baita ere badira gizon eskolatuenak: Aita Uriarte, Eusebio Maria Azkue, Ibazeta markiñarra eta abar.

Zizurkilgo mutil batenak dira bertsorik hunkigarrienetakoak. Gerratik libratzeko, begia jota zuen auzoko neska batekin ezkontzea nahi izan zuen, baina etxekoek errain diruduna nahi zuten eta ez zuten semearen andregai hori onartu. Eta horregatik

kantatzen ditu bere bihotzeko nahigabeak:

Morerira juan da
gerran biet asi,
enpleo txarrerako
ez ninduten azi.
Zer egingo det bada?
Il artian bizi!
Adios, aita ta ama
ta Mikela Iñazi!

Adios, nere aita,
agur, nere ama,
eskergabetasunak
soldadu narama;
adios bada, nere
biotzeko dama,
bizi banaiz bueltan
banator zugana.

Hemen ere pobre zirenak txarrago agertu ziren, herriaren engainagarri asmatutako gerra honetan. Gainera, zertarako genituen lur haiek? Hainbeste odol ixuriaz hartutako lurrok, gero, bat batean eta probetxurik gabe, hor utzi behar izan ditugu. Ez dut uste mundu zibilizatuaren sinpatia handirik irabazi dugunik, Somoza korrejidoreak gipuzkoarrei esan bezala.

Gainera, hara joan ziren soldaduetatik, balaz baino gehiago hil ziren koleraz. Ongi etorria emateko asmatu ziren bertsoak hala aitortzen dute:

Mutill oietatikan
batzuek dira ill,
kolerak eta balak
die kalte egin.
Bizirik datozenak
ez dute izango min,

emen dira jarriko
sano eta berdin.

• • •

Antonio Zavala continúa con su labor callada, paciente y eficaz, cubriendo con sus publicaciones aspectos de la historia y de la literatura popular vasca.

Su última aportación es una antología de la primera de las guerras de Africa (1859-1860), manipulada por O'Donnell para apaciguar otros problemas de política interior y fomentar el patriotismo.

La obra de los bersolaris de la época nos muestra visiblemente el sentir popular. Los *Tercios vascongados,* bajo el lema «Irurac-bat», se fomentaron con la idea de favorecer la defensa de la cuestión foral, entonces en litigio, como dejan ver algunos documentos de esta obra «Afrika'ko gerra», así como el sentir popular a través de los versos. Navarra quedó apartada de la cuestión por la «Ley Paccionada» de 1841.

Lo bueno de esta obra es el cúmulo de documentos que aporta para cotejar con los «bertso paperak», para su clara interpretación. Y estas hojas impresas en verso, la mayoría proceden de la colección de L. L. Bonapate que se conservan en *New Library,* de Chicago, de donde el autor ha obtenido microfilmadas.

A. Zavala proyecta hacer antologías similares de las guerras con Francia, la de carlistas y liberales, la de Cuba y la segunda de Africa en 1914. Pues para ello ha logrado reunir en su archivo muchos miles de «bertso paperak» y «bolanderak» (hojas impresas en verso) que circularon en aquella época y que hoy constituyen verdaderas crónicas del pasado y a la vez valora y enriquece la literatura popular vasca.

1977 - XI - 21

ABERRI EGUNA

Aberri eguna euskaldunon sinbolu indartsu bat bihurtu zaigu. Gaur egun Euskal-Herriko abertzaleen anaitasunezko egun berezia dugu Aberri eguna. Bere izatez ez da ohitura zaharrekoa, zeren 1932. urtean sortu bai zen.

Ikurriña bera ere sinbolu soil bat besterik ez da, baina gure herriaren alde daudenen gogoetan zenbat eta zenbat sentipen eta oroitzapen ez ote ditu gordetzen sinbolu honek? Jokin Zaitegiren *Berriz ere goldaketan* deritzan liburuan «Euskal-ikurrinari» eskainitako olerki epikoa bere larogetahamasei betso mardul eta tinkoak lasai eta pentsakor irakurriaz bakarrik konturatu gindezke sinbolu honek bere inguru eta babesean duenarekin. Hasiera batean beste zerbait bazen ere (Bizkaiko bandera, adibidez), orain Euskal-Herri guzia bere jatorrizko nortasunetan gogoz bildu nahi duen indarraren sinbolu da, eta gure mende honetako gizaldiak ezagutu dituzten askatasunezko borroka bizien agergarria.

Lehen abertzale alderdiaren sorreraren urre eztaiak ospatzez asmatu zen Aberri eguna, eta lehen lehena 1932ko martxoaren 27an Berbizkunde egunez zelebratu zen Bilbon, Jesusen-bihotzaren monumentu ingurutik Sabin-etxeara arte. Garai hartako egunkariak diotenez, 70.000 pertsonak parte hartu zuten.

Bezpera gauan Euskal-Herriko mendi gailurretan suak piztu ziren, aintzina batzarretarako deietan ohi zen bezala, eta egunsentiarekin jendea uholdez bildu zen Bilboko kaleetan. Milatik gora ziren manifestazio haren aurrean joan ziren dantzariak, bide nagusia bete-betean.

Itsasoa ez zen bare, baina, halaz ere, itsasoz ere joan ziren. Honegatik, ospetsua egin zen Bermeoko arrantzale zaharraren irtera hura: «Itto edo Bilbora».

Egunaren oroiz liburu eder bat ere publikatu zen. Artikuluak, olerkiak, agurrezko eskaintzak ohar laburrak, e. a. biltzen zituen liburua. Horrez gainera Sabino Aranaren biografia labur bat eta berak sortu zuen mugimenduaren lehen berrogetahamar urteetako historia eta Aberri eguneko kronika jasotzen zituen. Edergarriz oso apain argitaratutako liburua. Martínez Ortiz de Zárate

eta Kintanak egin zituzten muralak eta beste zenbait edergarrien artean bertan argitaratu ziren. Guziz, hirurogeiren batek kolaboratu zuten. Gaur ere oraindik garrantzitsuak iduritzen zaizkigu «Precursión» eta beste zenbait lan. Montzon, orduan ere, idearik oinarrizkoenetan tinko, abertzaleei euskara ikastera dei eginez. Eta, Adolfo de Larrañagaren testoa gaur gaurkoa iduritzen zaigu orain dela berrogetahamar urte gertatua bazen ere.

Liburu harteko eskaintza asko hitz hutsak besterik ez ziren, une bateko emozioaren berotasunez idatziak. Lanak erdaraz eta euskaraz zeuden. Euskara urriago, eta gainera, asko ta asko negargarri idatziak eta izkribu batzuetatik besteetara desberdintasun handiak nabari zirela. Zein urruti zegoen euskararen batasuna! Baina lan politak ere idatzi ziren eta hoietakoa dugu, esate baterako, Lizardirena.

Abertzaletasunaren itzarkundetzat egutegiko Pizkunde eguna hautatu zuten, baina dei egiteak, esan dugun bezala, aintzinako batzarretarako deiak bezalatsu, mendi gailurretan suak piztuaz. Behar bada sinbolu zaharragoetan ere ohartuak ziren, Larunbat Santu egunean herri askotan oraindik ere ohitzen den su-bedinkatuan. Horrez gainera, esango genuke, baita ere bazela *Amaia* eleberri erromantikoaren eragina, ilargi betearen gauarekin bateraturik. Dena dela, sigilu zaharrean sofistikaturik irten zela Aberri eguna; hala esango genuke. Eta nork daki horregatik ez ote zen hain gogozko hartu? Harrera ona izan zuen eta jarraipen hobeak ezagutu zituen gudatera arte. Geroztik ere, debekatzaileak beti larri ibili dira gogo horrek bere barnetik daraman sua itzali nahirik. Baina, alperrik. Eta, datorren igandez, hil honen hamarean, Gasteizek ezagutuko du Aberri egunaren nortasuna. Hala bedi.

* * *

El Aberri eguna (Día de la patria) no es de tradición muy antigua, pero en nuestros días pertenece ya a las páginas de la historia contemporánea. Se creó en 1932 para conmemorar las Bodas de Oro del nacionalismo vasco y la primera celebración tuvo lugar el día 27 de marzo de dicho año, coincidiendo con la Pascua

de Resurrección.

J. A. Aguirre dedicó un extenso comentario en uno de los capítulos de su obra *Entre la libertad y la revolución.* Y la efemérides de aquella jornada fueron recogidas en una obra que lleva por título «Aberri eguña» (Berbizkunde igandia, 1932). En la obra se recogen aportaciones diversas, desiguales en valor y contenido, artículos, poesías, saludos, etc. Biografía del fundador del Partido Nacionalista Vasco, precursión y albores del movimiento nacionalista y crónica general de aquella memorable jornada. Aportaciones en castellano y vascuence. Destacan algunos artículos como el del poeta Lizardi, y otros muchos son muy actuales en su contenido, y de entre estos mismos seleccionaríamos los de T. de Monzón y Adolfo de Larrañaga. Un libro ricamente ilustrado con los murales que para el acto fueron preparados por Martínez Ortiz y Quintana.

La víspera de aquel Aberri eguna se encendieron hogueras en las principales cumbres del País Vasco; con el alba comenzó la gran marcha sobre Bilbao, donde se congregaron más de 70.000 personas. Desde la Avenida, bajo el monumento al Sagrado Corazón, hasta Sabin-Etxea. Más de mil danzaris desfilaron abriendo la marcha de la inmensa comitiva.

Aberri eguna, al igual que la Ikurriña, se han convertido en símbolos de amplia repercusión en el País Vasco, de cuya fe se dará testimonio en Vitoria el próximo día 10.

1977 - IV - 4

GERNIKA

Gure mende hontako historiak ezagutu dituen hilketa lotsagarrien hasiera zen hura. Suzko bola bat erori zen zerutik eta Bizkaian jo zuen Gernikako hiria.

Etzi beteko dira berrogeta bat urte. 1937ko apirilaren 26ko arratsalde batean zen, zeruaren isila urratuz berrogetakak egazkinak agertu zirena. Egun batzuk lehenago Durango bonbardeatu

zuten haiek bezalakoak ziren, baina askoz gehiago. Mutikoak ginen, baina hala ere ongi ezagutzen genituen Heinkel eta Junker haiek, multzoka zeruen jaun eta jabe agertzen zirenak, eta aguro hasten ginen ezkutulekuen bila. Esan beharra dut zazpi hilabetez Eibarko mendietan zela gerrako frentea eta familia Arratiako Arantzazun ginela Apirileko egun hartan, goiz baketsua igaro ondorean, arratsaldeko lehen orduetan hainbeste egazkin batera ikustea ez zen gauza normala. Durango berriz sutu behar zuten ustean igo ginen aurreko mendi muino batera. Ordurako, egazkinak urrutiratuak ziren. Zornotza baino haruntzago agian, Gernika edo Bermio aldian. Apenaz entzuten genuen bonben hotsik, baina han ari ziren inguru batean jiraka eta Heinkel-ak elkarren ondotik zerrendan jarriaz goitik beheruntza zuzenean abiatzen ziren. Ikasiak ginen hoien ametraillatzeko eraz eta ohartzen ginen parean gertatuko ziren jende errukarriaz. Nonbait, kargak hustutzean itzuli ziren, baina zein ez zen gure harridura egazkin haiek aldetzeaz beste hainbeste gurutzatu zirela zeruan toki berera joaz? Ilunabarrean, muinotik behera gentozela, zerua gorri ikusten zen erreketaren lekuko. Geroztik, gure buruetatik ez da joan arrats hartako oroitzapenik.

Gabean irratiz eta biharamunean egunkarien bidez jakin genituen Gernikako hilketa eta erreketaren berriak. Izugarriak benetan, astelenero egiten zen azoka eguna zenez. Bestalde, euskaldunon bihotzak ikutu bai zituen hiri beneragarri hortan izateaz. Nonbait, Iparragirreren igarkizun hartatik ez hain urrun:

Arbola botatzia
dutela pentsatu
Euskalerri guzian
denak badakigu.

Handik hilabete batzuetara Frantsiara itsasoz gindoiazela Cervera zeritzan kruzeroak bidean hartu eta Ferrol-era behartu ginuzen. Ferrol-go Naval-ean zenbait egun igaro beharrean aurkitu ginen eta han lanean ari zen euskaldun batekin hartu genuen ezaguera. Egun batez, Gernikan zer gertatu zen galde egitera ausartu zen. Baina, gure ahoak mutu. Gurasoak ongi erakutsi

ziguten Gernikaz ezer ez esatea; bagenekin arrizkugarria zela. Hala ere, bizpahiru egunen ondotik eta fruitu ederrik erregalatzen zigun euskaldun hura zergatik ez atera bere kezka hartatik? Egun batean, kamiona baten barnean eserita, ipi-apa kontatu nion nere begiak ikusia eta egunkariak eman zituzten berriak, baita ere Gernikan han bertan bonbardeopean aurkitu zirenei entzuna, eta hauetariko batzuk nola ezagutu nituen. Une batean, jaun hari begira gelditu nintzen. Matrailetatik behera malkoak ixuri zitzaizkion, negarrari emana zen... Gu, bi lehengusu ginen eta triste jarri ginen gizon bat horrela negarrez ikusi beharrez. Gero kontatu zigunez, gernikarra zen eta bonbardeo hartan senitartekoak galdu zituen. Nazionalen prentsak, gorriak erre zutela esaten omen zuen, baina berak ez zuela holakorik sinestu, inork ez duelako erretzen bere haur eta gurasorik.

Geroztik, Gernikaz hitz egitean eta hontaz irakurtzean, Arantzazuko muinotik ikusia eta Ferrol-en ezagutu nuen euskalduna ditut gogoan.

Gezurrik ugari ibili da Gernikan gertatuaz, baina Picasso bezalako artista baten sentipenak ez ditu estaliko kazetari saldu batzuen esanak eta militarraren ezpatak ezin ditu ebaki egiaren lekuko direnen mihi guziak. Eta, behar bada, Hugh Thomas-en liburua izan daitake hauzi honi buruz egin denik neutralena, Espainiako gerra guziarena den bezala. Ikus lehen argitalpenaren 51. kapituluan. Bestalde, argitara berri da Herbert R. Soutworth-en obraren gaztelerazko lehen argitalpena (1).

Adolf Galland generalaren memorietako VI. kapituluan aitortzen du Gernika alemanak bonbardeatu zutela. Gudarosteei bidea mozteko zubi bat etetzea omen zen beren asmoa, Gernikatik Errenderia auzora bitartean dagoena, baina haizeak hiri aldera zijoazenez, keeak hiria estali zuela eta huts hortatik gertatu zela hilketa hura. Nuremberg-en Goering-ek bere buruagan hartu zuen lehen salakuntza Gernika izan zenez Galland-ek ezin zezakean aipatu gabe utzi. Esaten ez duena, zera da, Goering-ek berak aitortu behar izan zuela hiri bat desegitzeko lehen saioa izan zela Gernika (3). Eta, bere gogoko haizeetatik ke estaltzaileak eramatea nahi izan zuena Galland bera izan zen. Goitik behera zuzenean jendea ametraillatzera jaitsitzen ziren Heinkel haientzat ez bai-

zen keerik.

Coventry, Dresden, Hiroshima..., beren erreketaz eta hilketaz behar bada ez ziren ezagutuko Gernikakoaren ondoren nazio artean justizia zintzo eraman bazen. Gizonaren eskubideak haintzat hartu gabe jokatzeak, arrazoiaren eta etikaren neurri guziat eten zituen eta gero etorri ziren ondorengoak. Diktadura nahi zutenek, gizonen ideiak zanpatzeko, herriak ere barreiatu beharrez aurkitu ziren, andere eta ume, ezer errezpetatu gabe, indarkeriaren teknikak haurren heriotzaraino eramanez. Lotsatu ez ziren kriminalak gezurrez estali nahi zuten; baina keeak suntsitu ziren eta egiak agerian daude. Zerbituko al digute ikaskizuntzat? Haintzat hartzeko gauza gogoangarriak benetan Albert Camus zenak Gabrial Marcel-i 1948. urteko abenduko hilean *Combat* aldizkarian egin zion gutunean jarraiak (1). Ikaspiderik etzaigu falta.

Gainera, Gernika bera hortarako hautatzea izan zen gizatxarren gorroto grinetatik irten lezakean gaitzaren irainik handiena. Zeren, Euskal-Herriko eskualde bakoitza bere batzar tokiak izan ditu foruen garaian eta hauetatik aipagarriena Gernika bai zen, tokirik zehrrera, forurik bereziena eta erregeak eurak ere zin egitera behartu zituena. Iparragirreren ahotik ez ezik Tirso de Molina, William Wordsworth eta beste anitz poetak aintzinatik kantatu zuten libertatearen sinbolo den arbolaren hiria baita, eta horrenbeste bazekiten hausteko agindua eman zutenek.

Askoren gogozkoa ez bada ere, izan denagatik eta historian hala gertatuagatik, Gernikak sinbolo bat izaten jarraituko du, askatasunaren eta herri eskubideen sinboloa.

* * *

(1) Hugh Thomas, «La guerra civil española» (París, 1962), págs. 351 y 352. Herbert R. Southworth, «La destrucción de Guernica» (París, 1977).
(2) General Adolf Galland, «Memorias» (Barcelona, 1955), pág. 53.
(3) Juan de Iturralde, «El catolicismo y la cruzada de Franco», tomo III (Toulouse, 1965), pág. 196.
(4) Albert Camus, «La sangre de la libertad» (Buenos Aires, 1958), pág. 98.

De una u otra manera, a los que vivimos durante la infancia la guerra en Vizcaya se nos quedó muy grabado el bombardeo de Guernica.

Tragedia plasmada en la obra de Picasso, y que Hugh Thomas, uno de los autores más imparciales sobre la guerra civil española, ha escrito con realismo y objetividad en el capítulo 51 de su bien documentada obra. En una población de 7.000 habitantes, la tarde del 26 de abril de 1937, el centro de la ciudad quedó completamente destruido y envuelto en llamas. Mil seiscientas cincuenta y cuatro personas resultaron muertas y 889 heridas.

El entonces coronel Adolf Galland, que se hizo cargo de la jefatura de la Legión Cóndor inmediatamente después del suceso de Guernica, cuenta en sus memorias lo ocurrido. Que siendo el objetivo destruir un puente, por mala visibilidad sufrió considerables daños la ciudad de Guernica. Sin embargo, cuando Goering compadeció en el tribunal de Nuremberg en 1946 tuvo que admitir que Guernica sirvió como un terreno de pruebas. Y en el fondo de la cuestión queda el inicio de las horrorosas matanzas de la indefensa población civil por parte de ambos bandos en la segunda guerra mundial. La crueldad fue tan grande que terminada la horrenda guerra mundial y aun transcurridos once años, la honrada pluma de Camus, en *Combat* de diciembre de 1948, en defensa de su obra *Estado de sitio,* en respuesta a G. Marcel, seguiría preguntándose: «¿Por qué Guernica, Gabriel Marcel? ¿Por qué esa cita en que, por primera vez, ante un mundo todavía adormecido en su comodidad y su miserable moral, Hitler, Mussolini y Franco han mostrado a unos niños lo que era la técnica totalitaria? Sí, ¿por qué esa cita que también a nosotros concernía? Por vez primera, los hombres de mi edad daban, en la historia, con la injusticia triunfante. La sangre de la inocencia corría entonces en medio de un gran palabreo farisaico que por cierto aún dura».

Un crimen que no fue denunciado por todos y con la energía que ello requería, motivaría a que le siguieran otras barbaridades como las de Coventry, Dresde, Hiroshima y un etcétera bien largo y bien triste, vergonzoso para la historia de la humanidad.

Además, en nuestro caso, se trataba del lugar sagrado como

símbolo de las libertades vascas y aun universales, cantado por poetas desde Tirso de Molina y William Wordsworth hasta nuestro Iparraguirre que su canto vino a convertirse en himno nacional.

Por todas estas concurrencias, aunque pese a muchos, Guernica seguirá siendo un símbolo de las libertades dentro de la historia de la Humanidad.

1978 - IV - 24

MENDAROK HERRI IZAN NAHIA

Aspalditik agertzen du Mendarok herri izan nahia. Arrazoian faltarik ez du. Inguru batean bizilagun asko izateak berakin eskatzen du gobernatze antolakizuna eta Mendarok, gobernatzeko, udaletxea urruti izatetik aparte, zoritxarrez, bat baino gehiago ditu. Eta, holakoetan, herri guziaren onerako erabaki orokorra hartu behar den bakoitzean, batak arre!, eta besteak iso!, inora ezean gelditzeko modurik egokiena izaten da.

Mendaron kalez kale ibiltzea aski da bertako gobernurik ezakin ohartzeko. Konponketak, zuzenketak, garbiketak, zainetak, Mendarok guziak ditu beharrezkoak eta horiek bideratzeko aldaba edo kabua urruti jo beharra duenez, nonbait, ezta entzuten. Edo alde batekoak ez entzunarena egiten dute, bestaldekoentzat joko zuten ustean. Dena dela, hor dugu Debarruaren behe partean prolema bizi bizi bat, eta ez txikia.

P. M. Urruzunok aurkitzen zuen Paradisu hura geroago eta urrutiago dugu:

Mendaro dezu ama
ta jaioterria,
arkaitz baten azpitik
berriz jatorria:
iru zulotatikan
dator iturria,

Plinio berak digu
ematen berria.
Nork daki zoriona
gizonak nun duan!
Beti dago txit giro
zure ur onduan;
udaran presko presko
ta epeltxo neguan,
Kilimonen parerik
ez dago munduan.

Orain ere hor dago Kilimon, beti hil eta emon. Baina barruko arazoak konpondu ezinez, geroago eta lotsagarriago. Honegatik, ezta batere harritzekoa Mendaroren herri izan nahia.

Mendarok hiru auzo ditu, eta ez bi, askok uste duten bezala. Alzola eta Sasiolarekin ditu bere mugak, eta hiru auzoak Deba ibaiak eta Kilimon errekak banatzen dituzte: Deba ibaiaren ezkerraldetik Aizpilgoeta, eta eskubialdetik Mendarozabal (edo Trinidad de Mendarozabal) Kilimon errekaren ezkerretik eta Garagartza eskubitik.

Elgoibarko «Carta Puebla» delakoan aipatzen da Mendaro, 1346. urtean. Behar bada hau da Mendaroren agiririk zaharrena. Hobeto esan, herri gutun hortan Sarasua (oraingo Saratzu baserria) eta Lezaranzu (gaurko Lizarantzu) mugetako toki izen bezala aurkitzen dira Mutrikuko partean Mendaro-Azpilgoeta auzoan. Amberes-en 1584an argitaratu zen mapa hartan, Mendaro izenez Deba ibiaiaren alderdi biak agertzen dira.

Aizpilgoetako auzoa Mutrikukoa, Mendarozabal-Trinidad partea Elgoibarkoa eta Garagartza Debakoa izan dira historian zehar.

Pablo Gorosabel historiagilea 1868an hil zen eta bukatuta utzi zuen «Noticia de las Cosas Memorables de Guipúzcoa» delako obra, 1899-1901 urtetan Tolosako E. López-enean argitaratuko zena. Probintziako historia estudiatzeko hain premiazkoa den obra honetan, III. liburuaren III. kapituluan ematen ditu Mendaroko berriak. Orduan zen bazela, hiru auzo, bakoitzak bere kontsejua herri desberdineri loturik, baina elkarrekiko izkribu agiria zutelarik eta auzo bakoitzak alkate-ordezkoa zuela.

Hain elkarren hurbilak ziren hiru auzotxoak, bakoitzak kontsejuz herri desberdinera jo beharrak, eragozpen handiak sortzen zituen, bai herrientzat eta bai auzoentzat. Honegatik, Debako herriak bere partea zuen Garagartza, prolema hoiegatik, 1882. urtean utzi zuen. Orduan, Trinitate parteko Mendarozabalekin bat egin zuen eta geroztik Garagartza ere Elgoibarrena da.

Debak erakutsi zuen borondate ona Elgoibarrek eta Mutrikuk ere erakusten baldin badute, laster Mendaro herri bihurtuko zaigu. Hortarako arrazoiak eta merezimenduak ere aspalditik ditu berakin.

Oraintsu inkesta bat ere egina da auzotarren artean. Hiru aukera zeuden: Auzoak elkartuz Elgoibarrera sartzeko; elkartu eta Mutrikuren barruan sartu; eta elkarturik Mendaro askatu bat osatu. Dirudienez, % 90 baino gehiagok Mendaro herri berri bat izatea nahi du. Siadeco ari da jasotako datu horiek aztertzen.

Guk, kanpotik begiratuarren, bertako prolemak hurbildik ezagutzen ditugunez. ez dugu inolazko zalantzarik. Geografiaz dagoen tokian dagoelarik, dituen juridiko arazoak dituelarik eta bi herriren arteen inorena izatekotan biak bere nahiko dutelarik, berez nahikoa nortasun duen toki horrek herri osatu eta libre bat behar luke izan. Eta, joan zen mendearen azken partean, 1882garren urtean, biztanlerik gehien zuen auzoa Debak libre utzi bazuen, orain zergatik ez Elgoibar eta Mutrikuk?

Bakoitzari berea, eskubidezko legea.

* * *

Hace muchos años que Mendaro trata de ser un pueblo independiente. Mendaro en sí constituían tres barrios, y no dos, separados por el río Deva y por el regato Kilimón. Así lo describe Pablo de Gorosábel en la obra titulada «Noticia de las Cosas Memorables de Guipúzcoa», libro III, capítulo III:

El valle de Mendaro, situado entre el lugar de Alzola y el punto de Sasiola, entre las dos márgenes del río Deva, se compone de tres poblaciones diferentes, que corresponden a otras tantas jurisdicciones civiles. La primera, compuesta de las barriadas Azpilgoeta y Plaza, pertenece al término municipal de la villa

de Motrico, ocupando la ribera izquierda de aquel río. Corresponde la segunda a la jurisdicción de la villa de Elgóibar, bajo la denominación de Mendarozábal (hoy más conocido por Trinidad, con sus caseríos dispersos), cuyas casas se hallan situadas a ambas orillas del mismo río. La tercera aldea de este valle es la denominada Garagarza, que ocupa la derecha de éste al pie del monte de Santa Cruz (separada de Mendarozábal por el regato Kilimón), y pertenece (pertenecía) al término de la villa de Deva. Habiendo la proximidad de las tres aldeas dado lugar a algunas cuestiones sobre el ejercicio de la autoridad de sus respectivos Alcaldes, las villas de que dependen tienen otorgadas sobre este particular las correspondientes escrituras de concordia, cuya relación no considero necesaria en este lugar (decía entonces Gorozábal, pero hoy sí resultan necesarias esas escrituras de concordia tan olvidadas para el buen gobierno de estos barrios). En este valle hubo antiguamente Alcaldes llamados del fuero de las ferrerías. Su jurisdicción se extendía a conocer de las causas pertenecientes a los ferrones, carboneros, conductores de carbón, vena y fierro, a las que ocurriesen entre los arrendatarios de las ferrerías, ferrones y demás braceros; a los hurtos de fierro y vena cometidos en las ferrerías, etcétera. Hoy sólo tiene cada aldea un Alcalde pedáneo dependiente del principal de su respectiva jurisdicción.

De forma similar a la descrita por Gorosábel ha venido funcionando hasta nuestros días. Con la diferencia de que Deva cediera de su parte el principal barrio que era Garagarza respecto al número de habitantes. Desde entonces funcionando unidos Garagarza y Trinidad de Mendarozábal perteneciendo a Elgóibar. Demográficamente quintuplicado y siendo cada día más acuciantes las necesidades de gobierno propio, los mendaroarras trabajan para lograr su justa independencia.

En una encuesta realizada por Siadeco, para una consulta popular, de formar un solo bloque perteneciente a un solo municipio o formar su propio Ayuntamiento, parece ser que más del 90% de los habitantes han optado en pro de esta última solución. Próximamente se darán a luz pública los resultados de la consulta.

Nosotros deseamos que los mendaroarras sean dueños de su propio destino.

1977 - IX - 5

III
ARTEAZ
De Arte

III
ARTEAZ
De Arte

HAITZULOETAKO PINTURAK
Munduko arterik zaharrena galzorian

Akitaniatik Asturiasera bitarteko lurraldean, Euskalerria bere bihotzean duela, eta Pirineoz barna Garona-goira arteko haitzuloetan aurkitzen dira munduko artegintzarik zaharrenaren ageriak: Paleolitos edo Harri-Aroa deritzan denboretako pinturak.

Atlantika Pirineoa du ardatz lehen gizonen kultur ageri honek. Ihiza, arrantza eta frutuak biltzea bizibidetzat zuten gizon haiek, gure inguru hontako lurraldean hedatua zuten gizarte hartan, orainarte aurkitu denaren arabera, gizonak bere gogozko ekintzak lehen aldiz agertu zituen. Hezurretan marra soil batzuk egiten hasiak ziren Muster aldian irudi ahul batzuk lortu artean, eta hemendik berehala jo zuen haitzuloetako hormetan ikatzezko edergarriak egitera. Madalen aldia deritzanaren erdialdetik goraka etorri zen edergintzaren abiadura, abereen odol eta koipez zenbait kolore mota lortuaz. Batez beste, hamalutik hogei mila urtera dituzte pintura hoiek.

Aztigaitzat erabiliak izanen dira noski, baina ez dago dudarik gizonak Arte-mina agertu zuela. Pintura hauek monumentu miragarriak ditugu.

Beti giro berdintsuan eta ilunpean egoteak iraunarazi ditu aintzinako denbora haietatik gure egunok arte. Baina azken urte hauetan turismoa gehituaz doa haitzuloetako arteak ikustera, eta tenperatura aldatzeaz gainera argia daramate eta landare tipien bizitza sortua da harpe hoietan. Horrez gainera, gizonen arnasa-lurrunarekin anhidrido karbonikoa hartzen dute karaitzezko hormak karbonato kalzikoz bihurturik pinturen gainetik azala eginaz. Denok dira pinturen kaltean eta Europako haitzulorik gehienak itxiaz datoz. Arte hau herriaren ondasuna ez ezik gure gizartearen haina gerokoena ere bada. Bestalde, zientziak goraka datozen neurrian, geroago hobeto estudiatuko diren usteaz errezpetatu beharra dugu, ahalik eta hobekien errezpetatu ere.

Altamiran sartzeko neurri gogorrak jarri dituzte, eta hala ere ez zaigu aski iduritzen. Altamirako haitzulokoak galduko ez badira itxi beharko dira, Frantsian gehienekin egin den bezala.

Gaitz berdea deritza turismoarekin sortu den gaitz horri, eta

gure herrian denboraz neurriak hartzeko asmoz argitaratu zuen L. A. Aranberrik ekainaren 26ko «Deia» egunkarian informatze zabal bat Gaitz berdea delako hau, lehen aldiz Lascaux-en estudiatu zen, baina egungo zientziak oraindik ez du aurkitu gaitz hori menderatzeko modurik. Ikerketa guziak etsipenezkoak izan ziren. Itxiko ote ziren hotsak zabaldu zirenean, urte berean bisitatu nuen Lascaux. Amesetan ere ez nuen espero holako pintura ederrak ikusterik. Baina, urrengo urtean, 1964an, behin betiko itxi zen. Hobeto esan, itxi beharra izan zen, egunetik egunera galtzen ari zelako. Geroztik bide bera eraman dute Frantsiako beste haitzulo askok.

Pirineo-Atlantikaren ardatz honen erdian Euskalerria dagoenez, hemen ere bada holako pinturarik, askozaz beranduago aurkituak izan baziren ere. 1916tik Santimamiñekoak ezagutzen dira eta denborarekin beste batzuk ere aurkitu dira. Isturitzekoa 1895erako aurkitu zen, baina hemen ezta pinturarik, grabaduak baizik; eta grabaduetatik aparte, behar bada hemen urkitu zen azternategirik aberatsena, tresneria ez ezik hezurrezko eskultura politak ere irten zuten lurpe hortatik. Gaur egun, Isturitzeko Otsozelaia eta Kortezubiko Santimamiñe, biak daude publikoari idekiak, elektrika argiz jarriak eta udara guzietan milak pertsonak igarotzen dira bietatik. Otsozelaiak, bere sarreran, museo bat du bertan aurkitutako gauzaz beterik; Santimamiñekoak ere behar zuen holako zerbait, baina hemengo ederrena pinturak ikusi ahal izatean datza.

Hara hemen pinturadun leze zuloak Euskalerrian:

Santimamiñe (Kortezubi. Bizkaia). 1916an Jose F. de Bengoetxea izeneko gaztetxo batek aurkitu zituen, saguzaharren bila ziharduala, eta 1918an hasi ziren bertako azterketak T. Aranzadi, J. M. Barandiaran eta E. Egurenen esku. Pintura guziak ikatzez eginak dira; gehienak bisontak, baina hoiez gainera basauntzak, hartza, behorra eta abar. Turismorako gertatzean kontu guti izan zuten eta elektrika jartzean bizpahiru pintura galdu ziren. Gainerakoak, itxuraz, egoera onean daude, baina beldurtzekoa da igandero handik pasatzen den jendetzarekin galzorian ez ote diren. Gernikatik laster dago eta kasik ber bertaraino berebilez joaten da.

Jose Migel Barandiaran jauna Santimamiñeko pinturen aurrez-aurre, 1960. urtean.

Etxeberri (Gaméra-Zihiga. Zuberoa). Etxeberri edo Etxeberriko-karbia bezala ezagutzen da. 1950ean aurkituak, Boucher eta Rekart jaunek. Oso ahul kontserbatu dira. Hertsirik dago.

Sasixiloaga (Zühára. Zuberoa). M. Boucher ber berak aurkituak 1950. urtean. Hau ere itxita dago. Etxeberrikoan antzera daude, bustitasunez ahulduak eta galtzeko arriskoan.

Altxerri (Aia. Gipuzkoa). 1962an F. Aranzadi, J. Migliaccio eta J. K. Bikuña donostiar gazteak aurkituak. Oso aberatsa irudiz, baina beretariko asko erdi galdurik daude. Harpe bustia da eta nekezagoa pinturak gorde ahal izateko. Bertako aztarnategia oraindik ez da ikertu eta publikoarentzat inoiz ezta ireki. J. M. Barandiaran, J. Altuna, J. M. Apellaniz jaunek «Munibe» aldizkariko bi lan luzetan estudiatuak dituzte bertako pinturak, lehen partean deskubritu zituzten gazte haien laguntzaz.

Ekain (Deba. Gipuzkoa). 1969an A. Albizuri eta R. Rezabalek aurkitua. J. M. Barandiaran eta J. Altunak estudiatua. Europan

ezagutzen den zaldi talderik ederrenetakoa da bertako hormetakoa. Ondo gordetzen dira, haitzuloa aski legorra denez, baina bertako zehar zuloak tipiak dira eta ez dute publikoarentzat egokitasunik. Itxia dago.

Arenaza (Galdamiz-ko San Pedro. Bizkaia). 1973. urtean P. M. Gorrotxategik eta bere semeak aurkitu zuten. Pintura guti ditu baina teknikaz oso bereziak eta gainera kolorez. Ikerlanetarako bakarrik utzia da, eta inoiz ez da ireki publikoarentzat.

Sei haitzulo horietatik aparte badira beste asko lehen gizonen azternategiak aurkitu direnak, eta beretako batzuk, pinturarik ez, baina hormetako grabaduak dituztenak, labarrian edo buztinean eginak: Otsozelaia (Isturitze. Baxenabarre), Berroberria (Urdazubi. Nafarroa), Uriogaina (Sara. Lapurdi), Faardiko-harria (Sara. Lapurdi), Goikolaua (Berritua. Bizkaia) eta Venta La Perra (Karranza. Bizkaia). Era horretako grabaduak, pinturaz gainera, beste honako hauetan ere aurkitu dira: Etxeberri, Sasixiloa, Altxerri eta Ekainen.

Aaipatutakoez gainera, Baxenabarreko Donamarthirin Haristoy deritzan haitzuloan, hartzen atzapar markaz gainera gizonen esku markak ere aurkitzen dira, buztinezko hormetan.

Ondasun hau, gurea haina gereko gizarteena denez eta ikerketarako gorde beharrez, zaindu beharra dugu, ahalik onduen har dezaten ondoko mendeetan ere. Hauek behintzat ez ahal dira helduko Altamiraren une larrira. Inoiz publikoarentzat irekitzen badira ere, behar diren garantiekin jarririk izan daitezela.

* * *

Las medidas tomadas para la regulación de visitantes en la cueva de Altamira ha dado mucho que pensar sobre otras cuevas donde se conservan pinturas rupestres. En las pinturas de Altamira se ha experimentado una sensible pérdida en muy pocos años, y no es únicamente el mal verde que se declaró en Lascaux (Dordoña) que en 1964 le llevaron al cierre total, sino que además la costra que se les está formando del vaho producido por los visitantes, ponen a Altamira en pésimas condiciones y sin posible solución por el momento.

El hecho es que las cuevas más importantes, poseedoras de pinturas parietales, se están cerrando ante el peligro de desaparecer.

En el País Vasco existen seis cuevas con pinturas rupestres: Santimamiñe y Arenaza, en Vizcaya; Altxerri y Ekain, en Guipúzcoa, más Etxeberri y Sasixiloa, en Zuberoa. De las mismas únicamente está abierta al público la de Santimamiñe, que por las características de la caverna y tipo de pintura son las que mejor pueden resistir a las alteraciones de luz y temperatura, y aún así pueden ser alteradas por el anhídrido carbónico emanado por los visitantes a las húmedas paredes calcáreas. Las demás cuevas nunca se han abierto al público, y creemos que el estado de algunas pinturas en color y las características de las galerías donde se encuentran no reúnen las garantías necesarias para la conservación.

Existen otras cuevas donde se han descubierto dibujos grabados en los muros: Otsozelaia de Isturitz en Baja-Navarra, Berroberia en Navarra, Uriogaina y Faardiko-harria de Laburdi y Goikolau y Venta La Perra, en Vizcaya. De las mismas, la de Isturitz está explotada para el turismo, con un museo de materiales allí descubiertos a la entrada de la gruta.

Si no se descubren soluciones para la conservación de pinturas, las cuevas donde se hallan éstas estarán condenadas al cierre. Reservando para los estudios y para legar a la posteridad. Siendo las pinturas rupestres el primer testimonio de las artes del hombre, constituye un patrimonio que pertenece tanto a nuestra generación como a las venideras y es justo que se tomen las medidas necesarias para la conservación, por muy drásticas que éstas resulten.

1977 - VII - 11

SANTIAGO BIDEA

Europako mendebalde hontan eta Karlomagnoren denboran, Alfonso II.a (789-842) Asturiasen errege zela, ahoz zabaldu zen Santiagoren kondaira. Iria Flavia (oraingo Padrón den tokian) galaiko bazter hartan Santiago Nagusiak lurra hartu zuela Espainiako partean Ebangelioa predikatzeko; eta urte batzuk igaroaz berriz Judeara joan zela, bere martiri heriotza han izango zuen Apostolua.

Kondaira hola zabalduaz hedatu zen. Eta, Coimbra-ko Maurizio apezpikuak Lur Santuetatik Santiago Tipiaren burua ekarri omen zuen, Nagusiarena zen ustean eta Compostelan ehortzi. Beste kondaira batean esaten denez, bere ikasle eta jarraitzaileek maisuaren gorputza itsasoz ekarri zuten Compostela-ra.

Dena dela, sinesmenaren mirariz, Compostela ospatsua bihurtu zen, eta lehendik Jerusalenera eta Erromara bezala, erromes bidea sortu zen.

Lehen inguru bateko kondaira zen hura geroago eta indartsuago zabaltzen ari zen. Clavijo-ko borroka hartan (844. urtean) zaldun zuri bat bezala agertu omen zen, ezpataz armaturik moroen aurka, eta hemendik sortu zen «mata moros», Espainiatik arabeak bota artean patroi eta gidari bezala hautatuko zen santua.

XI. menderako ezagutzen zen Lapurdi, Gipuzkoa eta Bizkaitik zehar Santiagorako erromes bidea, Lakarrak eta Bottineau-k beren lanetan aipatzen duten bezala. Itsas-hegaleko bide hau, behar bada, Orreaga eta Somport-etik Astorga-ra zijoan zabalagoa eta aipatuagoa baino lehenagokoa zen noski. bertako trokarteak bidea nekezagoa egiten bazuten ere. Eta Nafarroako Santxo III.-aren denboran, arabeak hegoaldera botatzen ideki zen aintzinago erromatarrak markatu zutenaren ondotik Pirineotik Astorga-rakoa, eta itsas-hegalekoa bigarren mailako bidetzat gelditukо zen.

Bidasoaren ertzean Zubernoako ostatu ezaguna zen Hendaian bertan. Handik Oria ibai ertzera joten zuten, bertatik goraka Zegamako partean San Adriango haitzuloa hartzeko eta handik Arabako lautara; edo itsas-hegaletik jarraituaz, Zumaiako Santiagotik Itziarrera eta handik Astigarribiara —oroi, Astigarribian ba-

dela erromaniko-aintzineko horma gordetzen duen elizatxo bat—, bertatik Arno mendiaren gaindi edo Deba ibaiatik gora Bizkaiko lurretatik zehar jarraitzeko. Bide honetatik Ziortza zen beste toki ezagun bat.

Santiago bidean zehar aurkitzen diren santu izenez anitz eliza ditugu Bizkai-Gipuzkoetan, eta erromesentzat ez ziren lur ezezagunak. Hala ere, denak ez ziren ongi hartuak izaten. Hoietako bat zen XII. mendeko Aimery Picaud frantseza, euskaldunengandik hain oroitzapen txarrak eraman zituena. Hark esana, basatiak eta lapurrak ginela. Bere izkribuan euskarazko hitz hauek ere jaso zituen: Urzia (Jainkotzat), Andre Mari, Iaun-done Iakue (Santiagotzat, oraindik Ifarraldean erabiltzen duten bezala), belatarra (elizgizon), jauna, apeza, andrea, erregia, ogi, ardau, aragi, arraiñ, gari, urik (hau atzizkiz doa), elizera (hau ere atzizkiz), etxea.

Beste batzuk ordea, zori hobeagorik izango zuten. Gipuzkoako herri kanta batek hala adiarazten digu:

Pelegrinuak datoz
Santiagotikan,
atea ireki beza
ikustiagatikan.

Txomin, jo zak tronpeta.
Patxi, non duk konketa?
Berdina baldin bazegok
ekarri beteta.

Hamalau hilabete
bidean oin-hutsik,
ez dakargu gurekin
miseria baizik.

Zorioneko etxe
bilatu duguna,
Jainkoak eman deiela
denai osasuna.

Agur etxeko denak
eta ondo bizi,
aurrera goaz geure
traste zahar ta guzi.

Erromes bideari esker, Europako mendebalde guzian, mugen gaindi hedatzen du Kristau arte orokorra: erromanikoa. Monumentu handi eta tipiak harbide inguruetan eraikiaz.

Santiagorako erromes bide honek XII. mendetik XVI.era bitartean ezagutuko zituen bere aldirik kartsuenak, baina hemeretzigarrenean ere iraungo zuen. Etxahunek bere buruari jarri zizkion penitentzia haietan ere aipatzen digu Erromara eta Santiagoa erromes egin zituen ibilaldiak, Barkoxeko eliza deritzanean, 1859. urteko bertso polit haietan hara nola dakarren:

Izan nüzü Loretan,
Jakan eta Erruman,
Aita Saintiren meza entzün kardinalen kunpañan:
Arropak txar nütian eta ihurk etzeitan deüs erran.

(Loreman, Santiagon eta Erroman izana nauzu, Aita Santuaren meza entzun dut kardenalen konpainian: Soineko txarrak nituen baina inork ez zidan deus esan.)

* * *

En la época de Carlomagno y reinando en Asturias Alfonso II el Casto, entre los cristianos comenzó a correr la leyenda de Santiago el Mayor. Según aquellas narraciones maravillosas, que paulatinamente fueron propagándose y abultándose, el Apóstol, tras abandonar Oriente, había desembarcado en Iria Flavia (el actual pueblo de Padrón, Galicia) y evangelizado a España por espacio de varios años, tras lo cual retornó a Judea, donde sufrió martirio y muerte. Sus discípulos tomaron el cuerpo del Santo y lo embarcaron consigo en Jafa, y, después de una travesía milagrosa, ganaron Iria Flavia. Según otras narraciones, fue el obispo Mauricio de Coimbra quien trajo desde Tierra Santa la cabeza de

Santiago el Menor o Alfeo, para depositar en Compostela, como si perteneciera al Mayor.

El caso es que las peregrinaciones a la tumba del Apóstol se hicieron tan importantes como las que la Cristiandad las hacía a Roma y Jerusalén, a las tumbras de San Pedro y Jesús.

Durante el siglo XI fue importante la ruta peregrina de la costa que entraba desde Hendaya, donde se ha conocido el Hospital de peregrinos de Zubernoa, y cruzando Guipúzcoa por las orillas del Oria hacia arriba, por San Adrián de Cegama pasaba a Alava, o bien continuando por la costa de Vizcaya para dirigirse a tierra astur. Cuando Sancho III el Mayor de Navarra despejó de árabes el Norte de España, la ruta principal se estableció junto a la primitiva romana que desde Somport y Roncesvalles se dirigía a Astorga, como camino menos tortuoso. Y la ruta costera quedó desplazada a las secundarias.

La tradición daba fe de que en la batalla de Clavijo, el año 844, apareció el Santo bajo la forma de un jinete de blancura deslumbrante y armado de una espada con la que arremetía contra los moros. De ahí el «Santiago mata moros» se convirtió en patrón y jefe espiritual de la Reconquista.

En el Códice Calixtino, el peregrino francés Aimery Picaud dejó constancia de los malos tratos recibidos por los vascos, y el mismo recoge varios vocablos en vascuence: *Urci,* Dios; *Andre Mari,* Madre de Dios; *Iaundone Iacue,* Santiago; *belatarra,* clérigo; *apeza, apaiza,* sacerdote; *erregia,* rey; *jauna,* señor; *andrea,* señora; *echea,* casa; *ogui,* pan; *ardau,* vino; *aragui,* carne, *arraiñ,* pescado; *gari,* trigo; más, *uric,* agua y *elizara,* iglesia, que van sufijados. Y que no deja de ser un interesante vocabulario del siglo XII.

Más afortunados se considerarían los peregrinos de la canción popular que transcribo.

El camino de Santiago contribuyó a estrechar los lazos culturales de Occidente, y sobre todo en la propagación de la fe cristiana y de los estilos artísticos románico y gótico.

1977 - VII - 25

ERROMANIKO ARKITEKTURAZ

Leireko monastegia Nafarroako erregeen hasiera hasieratik beren historiari loturik aurkitzen dugu, eta bere lehen berriak 848. urtekoak dira. Eliz-zoladuraren azpian erromanikoa baino lehenagoko aztarnak bilatu dira. Baina orain ezagutzen dugun eliza, arkitekturaz bi alditan egina izanarren, guzia erromanikoa da. Gainera, bere lehen partea, Nafarroan erromaniko arkitekturaz ezagutzen den monumenturik zaharrena. Bere elizpea, kripta delakoa, eta elizaren burualdea 1057. urtean Konsagratuak dira. Honegatik, Kataluinako San Pedro de Roda aparte utzirik, Penintsulako erromanikorik zaharrena dugu, Jaka-ko katedrala, León-go San Isidoro eta Santiago bera baino lehenagokoa. Iruñako katedral zaharra galdu zen, bertako kapitelak hiriko museoan gordetzen dira eta Compostela-ko katedralgintzan lan egin zuen Estebe maisuaren eskua ageri da.

Erromanikoa baino lehenagoko parteak dituzte, adibidez, Errioxako San Milan Kogollakoak; baita ere Gipuzkoan bertan Astigarribiako elizaren burualdeko horma zaharra bere bi leihorekin, Baionako apezpiku zen Beñat Astaratzek 1108an konsagratua izan zena; Aralargo San Migelen ere, zoladurapean karolingio erako aztarnak bilatu ziren; eta 1975ean Arabako Zalduendon aurkitu zen ermita visigotikoa dela esan dezakegu.

Erdi-aroko ekonomia laborantzaren inguruan zegoen. Honegatik, erromaniko monumentu handiak Nafarroako eta Arabako lur zabal eta aberatsetan aurkituko ditugu, nekazaritzak tokirik aberatsenak zituen inguruan, erregeak eta monastegiak ere toki bera hartu zuten bizilekutzak.

Monumentu handiak ez ezik eliza tipiagoak ere harlanduz eginak ziren. Oihan handiak ziren lekuetan zurezkoak ere izango ziren, Bizkaian Elexabeitiakoa bezala, baina horietakoak gerrateetako erreketetan eta materialen ahuleziaz denborarekin galdu ziren, noski. Gipuzkoan, ate, leiho, bataioponte eta abar, hor ditugu izan ziren elizen agiritzat. Eta monumentu handirik ez zen arrazoiak bertako lurraren pobretasunean aurkitu beharko ditugu.

Erromanikoaren aintzinean elizak oso tipiak ziren. Batez ere

hilobiak gordetzeko eginak. Mezak ematea elizaurreetan egingo zuen seguruenik, René Crozet-en ustez. Mezak ez ezik herrietako aintzinako biltzarrak ere hor zuten beren tokia.

Erromaniko arkitekturak bilatu zuen hormak sendotuaz eta sabaiak kainoi eraz elizak egiteaz, hauek zabalagoak eta batez ere luzeagoak egiteko modua. Teknikaren aurrerapen honek elizak handitzea zekarren, eta elizak handitzeak, berakin, Liturgia guzia barrukaldean egitea. Santiago bideak fedea gehiago zabaltzeaz eta arabeen aurkako giroa indartzeaz elizak ugaritu ziren.

Bizanzio eta Erromako artegintza eta arkitektura zaharragoak ere zer ikusirik izan zuten erromanikoaren sorreran, aintzinagoko arkitekturak kopiatzeaz eta baita inoiz lehengo materialez baliatuaz langintza berrietan aritzeaz. Artegintza honen eragina Europako mendebaldean hedatu zen gehienik, herri erromanizatuetan, eta honegatik hartu zuen, geroko mendeetan, erromaniko izena.

Euskal-Herriko Ifar-ekialdeko erromanikoa frantsez joeraz kutsatua da. Arabakoak ordea nafar eta gaztelar arteko nahastea du. Bizkaikoak, Gaya Nuño-ren iritziz, XII. mendearen erdialdera arte Irlanda eta Normandia aldeko joera zuen, itsasozko har-emanegatik, baina hamabigarren mende horren bigarren partetik Araba eta Gaztelakoaren influentziak agertzen ditu. Hala ere, inguru bakoitzean bertako herritar artearen berezitasunak ditu. Indar handiz eta bateratsu hedatu zen erromanikoa Santiago bidearen zehar, eta aski artista eta arkitekto ez zenez, arte honek markatu zituen arau nagusien ildotik herritar artistak parte hartu zuten eta hemendik du tokian tokiko joerak izatea.

Hara zertan diren erromaniko arkitekturaren elementu nagusiak:

Eliz zolak rektangular izatez, Artaizkoa bezala, adibidez, edo latin gurutzez, Armentiakoa bezala. Zuloitarte batekoak dira gehienak, baina eliz-nagusi eta monastegietan badira hirukoak ere, Lizarrako San Pedro, Aibar eta Leireko parte zaharrak diren bezala. Azkenengo honetan, Leiren, parte zaharra hirukoa da eta berriena batekoa. Elizburuak ekialdera begira izaten dituzte eta maizenik bularrez (absidez). Simetria zaleak dira eta horrez gainera alturaz, luzez eta zabalez proportzioak ondo gordetzen dituztenak.

Leireko elizburua

Eliz sabaiak kainoi eraz. Hau da, ezker-eskubiko hormetatik sabai arkudun jarraikakoa, arku biribilez itxia. Eliza luzeak direnean, hor-emenka, uztaiak dituzte, Estibaliz, Sangozako San Adrian eta Katalainen bezala, sabaiaren gogorgarri. Elizburu aldean elizpe edo kripta dutenek ere badira. Leire bera, San Martin Unx-koa eta Orisoain adibidez. Hau izaten da elizaren parterik zaharrena eta inoiz obrak jarraitu ez zirelako besterik egin gabe utzi zelako edo geroagoko berritzeekin aldatu zelako, kripta

bakarrik gordetzen da, Gallipienzon bezala.

Arkitekturaren zolak beti beti ez du gordetzen rektangulo hori, ez eta ere Immissa gurutza. Bada bestelakorik ere, Mauleko San Bladi, erromesen hospital ospetsuak bere zolatzat gurutza griegoaren forma du, bizantinoak bezala, eta Eunatekoak eta Torres del Río-koak zortzikantoidunak dira. Azken hau faroduna da, ehorzketak egiteko egina. Eta, ez Eunatekoa eta ez Torres del Río-koa, ez dira tenplarioak eginak, askok uste hori izan badute ere, J. E. Uranga eta F. Iñiguez Almech jaunek beren estudioan diotenez.

Aterpeak eta kalostreak dituztenean, hauek arkuz eginak dira; Larunbe, Eusa, Eunateko arkupeak adibide; edo San Pedro Lizarrakoa, Iranzu eta Tudelako kalostreak. Dorrerik gehienak kuadraduak dira, Leire eta Armentiakoak bezala; baina baita ere badira kanpantorretzat espadaña dutenek ere, Estibaliz eta Katalaingoaren antzera.

Arte hau Kristau munduan bat batean zabaldu zenez, arestian aipatu dugun bezala, arkitekto, hargin eta eskultore asko eskatzen zuen. Lantegiak non nahi zabaldu ziren eta eskulanaren eskasiaz denetarik sartu zen elizagintzara. Herritarrak, tokian tokiko, bertako arte joerak sartu zituzten, batez ere apaingarrietan, eta honek ematen dio erromanikoari erresuma bakoitzean bertako berezitasunak izatea. Arte bera orokorrez unibertsala izanik ere, errege bakoitzaren inguruan edo erlijiozko ordena edo elkarterik indartsuenen inguruan, hauen zuzendaritzak markatzen zituen joerak hartuaz.

Gure partean, eta hala Pirineo guzian, XII. mendearen erdialdera arte harrera guti izan zuen apaingarritzat pertsona irudiak egiteak. Bizanzio-ko krisialdiak gainditu ondorean ere, oraindik harrera guti zuten imajinak gure inguruetan, eta paleo-kristauen erazko sigilu edo sinboloak eginaz jarraitzen zuten. Baina XII.aren erdialdetik geroago eta ugariago sartu zen irudigintza. Garai honek beronekin ekarri zuen Andra Mariren goraipena eta gurtzea.

* * *

El País Vasco afloró a la historia al amparo del reinado Vas-

cón pamplonés, antes de que tomara Navarra su actual nombre, en torno a su corte y a las órdenes monásticas se desarrolló la arquitectura románica. El Monasterio de Leyre, por ejemplo, estuvo estrechamente ligado a la corona de Pamplona en sus primeros períodos, y los reyes pusieron especial interés en este templo. Aunque sus primeras noticias datan del año 848, sabemos que la parte más primitiva de la arquitectura de San Salvador de Leyre son su cripta y la cabecera trazada en tres naves. La parte más moderna, también románica, es de una sola nave y bajo su pavimento se halló la planta de la iglesia prerrománica. La parte primitiva, cripta y testera, fue consagrada en 1057. Es el primero de los grandes monumentos románicos de la Península, exceptuando San Pedro de Roda en Cataluña. Es anterior a la catedral de Jaca, a San Isidoro de León, a San Martín de Frómista y a la misma catedral de Santiago de Compostela.

El arte románico se desarrolló durante el período de preponderancia de la economía agraria, y es natural que los grandes monumentos estén ubicados en aquellas zonas de esplendor económico. Así como los propios reyes y las principales órdenes religiosas eligieran estos lugares para su asiento. Guipúzcoa y Vizcaya no estuvieron exentas de esta corriente artística en las iglesias rurales, como queda testimoniado por puertas, ventanas, pilas bautismales, etc., tenemos referencias en 28 templos guipuzcoanos, aparte de cuatro referencias escritas del siglo XI y más de una decena de los siglos XII y XIII. Y Vizcaya cuenta con dos templos enteros: San Pelayo y San Miguel de Zumechaga en Baquio.

Fue tan rápida la difusión del románico y tal la demanda en la erección de iglesias a lo largo del camino de Santiago que se exigía la intervención de manobreros y artesanos de los pueblos y éstos a su vez incorporaron elementos del arte popular. Detalle este por el que el estilo general quedase influenciado por las escuelas y talleres de tendencia popular, dándole el sello peculiar de cada lugar.

Con la introducción de la nueva técnica arquitectónica, fortaleciendo los muros y construyendo bóvedas de cañón, los rituales pasaron al interior del templo que hasta entonces servía para

enterramientos, el culto se hizo más ostentoso y se extendió la advocación de Nuestra Señora, tan generalizada en nuestros días.

1977 - VIII - 15

IRUDIGINTZA ERROMANIKOAN

Erromaniko arteak berakin ekarri zituen ekintza berezien artean, arkitekturarekin batean, irudigintza izan zen.

Erdi-aroaren behe parteko garai ilunak atzean utzi zituan erromaniko artegintzak eta irudiak jartzeko ohitura sartu zuen kristuaen artean. Eliberriko Kontsilio famatu hartan, IV. mendean, irudigintzaren aurkako erabakien arauak markatu ziren eta Erdi-aroaren goi partera arte eskulturak krisi batean zeuden. Ludovico Pio-ren garaian, esate baterako, Lyon-go artzapezpiku zen Abogardo-k, bere kezkak agertu zituen, fededunak munduko bizitza hontan pertsonaje sakratuen irudiak ikustea kaltegarrizkoa ez ote zen. Eta, X. mendean oraidik ere, Flodoardo-k, jentilen aztarnatzat salatzen zituen harrizko irudiak. Eta XII. mendea etorriko zen irudiak normalki erabiltzeko.

Denborarekin nola aldatzen diren usteak. Lehenago ikonoklastak baziren ere, geroko ikonolatria ongi ezagutu dugu.

Ez da erraza jakiten non hasi ziren lehen lehenik elizetan irudiak jartzen —erromaniko arteaz ari garela—; baina, behar bada italiarrak iratzartu ziren Bizanzio-ko eraginez eta Erromako arte zaharrarekin kutsaturik. Dena dela, arrakasta handia izan zuen Europa guzian. XI. mendean Europako mendebaldean zabaldu zen. Erroma eta Santiago-rako erromes bideak zer ikustekorik izan zuten irudigintzaren zabalkunde hortan. Gure inguruan, Kukullako Donemiliagan aurkituko ditugu lehen aztarnak, marfillezko kutxatilla batean.

Erromaniko artearen lehen partean, landarak, lorak, lerroak, izarrak eta abar, ugari erabiltzen ziren elizen arkitekturaren apaingarri, baina irudirik apenaz erabili zen. Euskal-Herrian bertan, Arabako Zalduendoko ermita visigotikoan teilatu hegale-

tako ukondoetan aurkituko ditugu jentil erako irudiak. Baita ere lehen aipatu dugun Donemiliagako bordoinburu batean.

Kontuan izan behar dugu gainera, maiz, kristau elizak dauden toki berean jentil garaiko aztarnategiak ere aurkitzen direla, Irungo San Elenan, Aralargo San Migelen, eta abar. Sineskera zaharren tokietan elizak eraiki zirenaren lekuko ditugu.

Artearen historian oso inportantea izan da erromanikoa. Era askotako giro berri bat sortu zen Europako mendebaldean eta eskulturak egiteko ohitura berbiztu zen. Gainera, hainbeste hargin eta irudigile beharrez, herritarrak parte hartu zuten eta herritarren esku-lanak eta beren arte aburuak ageri dira. Honegatik, erromanikoak, estilo jeneral baten barnean tokian tokiko joerak ditu.

Arestian esan dugunez, XII. menderako hasten zaigu irudigintza oso indartsu. Arkitekturari itsatsia agertuko zaigu, baina gogoan hartzekoak ditugu bataio-ponteak, aldareak, eta hilobiak. Haina, batez ere, arkitekturaren apaingarritzat aurkituko ditugu. Lehen lehenik, ateburuetan Kristoren monogramak eta bordoinburuak landaraz eta geometriaz soilik eta ondorean pertsonak, abereak, mamuak... Zaletasun hau gehituala, irudien nortasuna nabaritu zen, beren estilo berezi batekin.

Eskuizkribuak, marfilezko gauzak, telak eta holako gauza erabilgarrieri esker, horiek pitxitzat edo edergarritzat erabiltzen zirenez, laster zabaldu zen moda Europa guzian, ekialdetik kristau artea alde guzietara hedatu bai zen.

Denborarekin, Kristo gurutzatuak eta Mariaren irudiak, soil soilik ere erabiliko ziren. Honela, eskulturak, hutsik, balio berezia hartuko zuten. Hala ere, erromanikoan, irudiok elizen edergarritzat ziren. Bordoinburuak, ataurreak, leihoak eta abar, apaintzeko. Inoiz, ataurreetan erlijioaren historiazko gaiak, irakasteko edo adiarazteko jarriak. Kristo Majestatea buru dela, eta batzutan apostoluak inguruko dituela, azken judizioko eguna izaten zen gairik zaleena.

Estilo berezia dute erromaniko irudiok, gorputz gogor tentetuak, soinekoen tolesdurak simetriaz gordeaz, buru handidunak, begiak almendra antzera, ileak lerroz lerro zuzenean edo naiz uhinduraz espiralean bukatzeko. Estilotik erraz atzematen zaie



Sangotzako elizaren ataria

irudi bereizgarri hoiei.

XII.aren bukaerarako, irudiok luzatuz zetozten, eta inoiz bordoinak ere irudiz egingo dira, Borgoña, Saint-Denis eta Chartres-tik hasi eta Nafarroako Sangotzan eta Arabako Lasarten aurkituko ditugu. Era hau, gero, gotikoan nabarmen ugarituko zen.

Arkitekturaren formeri loturik ziren harriak lantzen zituzten irudigintzan eta zerbait kondizionaturik edo beharturik agertze horrengatik garaiko artea espazioei zegokionez edo horien betegarrizko ere bazen, eta izate honek ere bere nortasuna ematen diote. Arrazoi honegatik, Iruñako katedral zaharreko kalostrearen bordoinburuak gaur egun Nafarroako museoak duen erakarpenik liluragarrienetakoak dira.

Irudien gaitzat ordea, Testamendu zahar eta berriko pasarteez gainera bada bestelakorik ere. Euskal-Herriko eliza erromanikoetan, bertako eta herbestetik sartutako mitologia gaiak maiz aurkituko ditugu, lamiak, mustroak, maskaradunak, abereak eta abar. Oroi ebanjelisten tetramorfotzat erabiltzen direnak ere jatorri mitikoa dutela, haurra, arranoa, leoia eta zezena, Mesopotamiako sargoniden jauregiko leoi hegaldunak lautan banaturik denez.

Ogibideak dira beste gai polit bat, Sangotzako Santa Marian hain aberats agertzen zaiguna. Garai hartako bizitza eren lekukotasunak ere maiz aurkituko ditugu. Baina musikariekin ere ezin ahaztu, hauen bidez musikagailuak ere hor aurkituko ditugunez. Armentia, Angillo, Tuesta-ko eleizetan, Araban, badira zenbait musikari. Zuberoko Santa-Engrazin ere bai. Baina erromaniko guzian bezala, Nafarroan dugu aberastasunik handiena. Unkastillo, Uxue, Katalain, Artaiz eta beste zenbaiten oroitzen naiz badirela musikariak, baina hauen arteko berezienak Etxanoko soinujole errenak dira. Hauek erakusten bai digute XII. menderako errenak kalez kale musika joaz ateratzen zutela beren bizibidea.

Hamabigarren mende hortatik hasi eta gotikoaren bukaerara arte, Euskal Herriko artegintzan, herri artean, eman diren nortasundun irudiak Andra Mariak izan dira, asko, onak eta bereziak. Kristo gurutzatuak ostera, erromanikokorik urri dugu, baina gotikoan ugari.

Arte tipiak deritzatenetan ere bada material onik. Behar bada,

guzietan berezienak, Aralargo San Migelen dagoen esmaltezko aldaraurrea, Nafarroako museoan gordeetzen den Leireko kutxatilla, Orreagako Ebangelio liburuaren azala, Artaxonako esmaltedun Andra Maria, Monjardingo gurutza, Lizarrako bakulua eta abar. Eta hauek lantzeko erabili ziren teknikak beste mundu aparteko bat dira.

Erromanikoak emaitza ederrik ekarri zigun geroko artegintzentzat.

* * *

En el arte románico destacan particularmente su arquitectura de nuevos logros y su escultura que va pareja a otras formas menos usadas o que han llegado disminuidos hasta nosotros, como son la pintura mural. los mosaicos, las vidrieras y artes menores, marfiles y esmaltes. Es de suponer que de las últimas haya habido pérdidas considerables, por tratarse de piezas portátiles.

Los oscuros siglos del bajo medioevo tuvieron prácticamente desterradas todo tipo de imágenes. Es conocida la reacción antiicónica del Concilio de Eliberri, en el siglo IV. Asimismo, en tiempos de Ludovico Pío, Agobardo, arzobispo de Lyon, se inquietaba porque los fieles pudieran contemplar, durante su vida terrestre, los personajes sagrados que, según él, estaban reservados para la vida eterna. En el siglo X aún se denunciaban las esculturas en piedra como vestigio de paganismo.

El gran impulso de creación arquitectónica se inicia a finales de la época carolingia y tuvo que traer consigo, necesariamente, una importante demanda de obras escultóricas destinadas a la ornamentación monumental. Como el hecho reviste un carácter general, es difícil atribuir a tal o cual región un papel preponderante. No obstante, Italia y Francia destacan de sobremanera, y su herencia del arte bizantino y del antiguo romano es un hecho evidente.

Aquella demanda de canteros y manobreros favoreció a la intervención de la mano de obra local y en consecuencia las artes populares están presentes en la imaginería y otros motivos or-

namentales.

En el siglo XIX, conforme se va avanzando, van introduciéndose las esculturas adaptadas a algunas partes de la arquitectura. Paulatinamente se van creando portadas monumentales, donde la escultura es su principal ornamento. Muy entrado el siglo XII, la escultura viene a convertirse en un elemento de valor unitario e independiente. Además, la expansión y valoración de la obra escultórica al igual que en la antigua Grecia, trajo consigo la utilización de la estatua-columna (o columna-estatua) que aparece en algunas grandes catedrales de Francia y asimismo nos presentan la iglesia de Sangüesa, en Navarra, y Lasarte, en Alava.

El país vasco, pobre en Cristos crucificados del románico, sin embargo, es rico en Andra Maris con unas características de estilo muy propio del lugar, y son piezas que revisten un gran interés como obras escultóricas. Pero, además, la mitología. los animales simbólicos, y otras figuras populares poseen un especial atractivo en los asuntos que los artistas plasmaron en los templos. Los oficios de la época están muy bien representados en la aludida fachada de Sangüesa, y los músicos cojos de Echano, en Navarra, son quizás piezas únicas en su género.

La escultura románica conserva su peculiar estilo de imágenes rígidas, vestimentas con pliegues simétricos y otras características comunes a todo aquel movimiento artístico, que por la intervención popular adquiere particularidades propias en cada lugar o áreas de influencia.

Pero tampoco hemos de olvidar entre las artes menores el frontal esmaltado de San Miguel de Aralar, la arqueta de marfil procedentes de Leyre en el Museo de Navarra, el evangelario de Roncesvalles, la estatua con esmaltes de Ntra. Sra de Jerusalén en Artajona, la cruz de Monjardín, el báculo de Estella, etc.

1978 - II - 6

ERROMANIKO ARTEA GIPUZKOAN

Aspalditik sartua zen kritikaren hauzian Gipuzkoako erromaniko artea, baina azken urte hauetako azterketen eta lekukoen niko artea, baina azken urte hauetako azterketan eta lekukoen ondoren lehenagoko zalantzak erori dira. Gaur ordea, inork ezin lezake dudarik jarri.

Erein editorialak argitara berri duen *Cultura Vasca* deritzan obraren bigarren tomoak Manuel Lekuonaren lan interesgarri bat dakar Euskal-Herriko Erdi-aroko arteaz, eta teoriazko argitasunen ondorean adibide eta lekukotasunik aski ematen du Gipuzkoako erromaniko arteari buruz, 244/253 orrialdeetan. Lehen ere lan ederrik emana zen Lekuona jauna gai honi buruz, Egan aldizkarian (1957, 1958 eta 1960. urteetan). Bestalde. L. Peña Basurto eta neronek R.S.B. Amigos del País-eko boletinean eman genituen beste zenbait berri azken urteotan idoro dituguneri buruz.

Gaur inork ezin lezake zalantzarik jarri Gipuzkoako erromanikoaz, eliza osorik gorde ez bada ere; agirien lekukotasunak garbi asko uzten digu gure probintzia honen geografia guzian aztarnak aurkitu ditugunez.

J. A. Gaya Nuño zenak *El románico en la provincia de Vizcaya* (Madrid, 1944) argitaratu zuenetik, Gipuzkoako azterketak bizkortu zituen, eta bere argibideak lagungarri izan ziren geroztiko aurkikuntzetan. Hori gainera, Gaya Nuño-k aipatzeke utzi zituela Bizkaiko Barrika, Arzentales, Maruri, Sondika, Bolibar, Markina-Etxebarri, Berriz, Arantzazu eta Eleixabeitiako agiriak, geroago J. de Ybarra zenak *Catálogo de Monumentos de Vizcaya* delakoan jasoko zituenak, eta horiez gainera neronek Ermuan aurkitu nuen bataio pontea, orain Gerediaga Elkartekoek Astolako etxean gordetzen dutena.

M. Lekuonaren lan eder horrek bultzaturik, gaur berriz ere Gipuzkoako parteari deritzan gogoetak nakar, eta birrikuste bat eginen dut, zerrendazko aipamena besterik ez bada ere, argitasunen eta aurkikuntzen lagungarri izan dadin.

Gipuzkoan parterik aberatsena Leintz harana dugu. zalantzarik gabe. Leinzko erromanikoaz lehendik idatzia nuen *Hoja del*

Lunes honetan, 1976ko urrilaren 18an. Ikus *Gogoz*, bere 185-189 orrialdeetan, eta gaurkoan Leintz alde batera utzirik arituko gara.

Altzoazpiko Salbatore parrokia den tokian bazen lehenago Olazabal zeritzan monastegi tipi bat 1023an San Juan de la Peña-ra eman zena. Oraintsu, M. Lekuonak bere lanean dionez, monastegiaren zola aurkitu omen da. Salbatore izeneko eleizetan Arriaran (Itxasoko hauzoa) delakoa bazen 1300. urteko agirietan eta gaur oraindik bada Salbatore-zaarra deritzan baserria.

XI. mendeko agiriak dituzte Zegamako Santatri (oraingo San Adrián) Donostiak eta Bergarako San Migelek. Donostiaren «Done» santu hitza bera zahartasunaren agiria baita, zeren «Saint», «Santi», «San» formak Santiago erromes bideak ekarri bai zituen frankoen influentziaz XI-XII mende ingurutik hasita.

Erromaniko aintzineko agiritzat hor dugu Astigarribiako (Mutriku) San Andres, ekialdeko horma guzia, bere bi leihokin, mozarabe tankera du, eta batzuen ustez visigotiko izan daiteke. Lehenago ere esana dugunez, Astigarribia ikertzean ezin dugu edo ez dugu ahaztu behar Ziortza, Zengoitako San Juan eta Argiñeta ere badirela Bizkai partean, Astigarribiatik ez hain urruti eta guziak aintzinagoko Karistio herrialdeen barruan.

Bizkaian hiru ermita erromaniko gordetzen dira oraindik: Bakion San Pelayo eta San Migel Zumetxagakoa eta Paduran (Arrigorriaga) San Pedro Abrisketakoa. Azken honek visigotiko taxura du eta aurrerantzean egingo diren ikerketetan konparaketak egiteko orduan gogoan hartu beharrezkoa izango zaigu. Pundu honetan, oroi idoro berria dugula Arabako Zalduendon San Julian Astreakoa visigotiko bezala, lehen erromanikotzat katalogatua zena. Hau ere, Gipuzkoatik hurbil dagoenez, kontuan izatekoa dugu.

Gipuzkoan bertan, egia esan, ez dugu erromaniko egiturazko eliza osorik. baina bai lehen zirenen aztarnak probintziaren geografia guzian beren agiriak ditugularik. Erromaniko elizak nekazaritzaren ekonomia gailen zen garaian eraiki ziren eta gure probintzian ez zen Nafarroan, Araban eta Meseetan ziren bezalako lur aberatsik. Honegatik, hemen, eliza tipiak ziren. Eta, seguru asko, Arratiako Elexabeitiakoa den bezala, zurezkoak izango ziren eta denborarekin desenginduak. Europa erdialdean visigoti-

koarekin horixe gertatu bai zen. Bestalde, Pizkunde garaian, XV. mendearen azken partetik hasita, Bizkai-Gipuzkoetan ola-zaharrak eta merkatalgoa ugaritzeaz, gure herriak jendez gehitu ziren, diruz ere gehitu zen eta hemengo ibar meharretan ohi den bezala, lehengoaren gainean edo, hobeto esan, lehengoa botata eliza berriak eraiki ziren. Pizkunde garaiko arteak —gotiko bukaeratik hasita esango genuke— eragin handia eta ugaritasuna nabari bai ditu gure herrian.

Berrikuntzetan lehengorik aprobetxatu zuten lekuetan agertzen zaizkigu erromaniko agiriak: irudi, ate, leiho, ponte eta abar.

Irudien artetik aipagarriena Irungo Junkalgo Andra Maria dugu noski. Eta, bere ondoren, Andra Mari bezala, Ugartekoa (Amezketa) eta Itziargoa. Hoiez gainera Eibarren bertan dugu San Pedro-ren irudi bat harrizkoa. Aizkorriko ermitan zegoen Kristo gurutzatua, orain Zegaman gordetzen dena (bere kopia baita orain Aizkorriko ermitan jarria dena). Beste Kristo gurutzatu bat, XIII. mendearen azken partekoa behar bada, Zerainen, lehen esmalteak izan zituen lorratzak nabari dituena.

Idoro berria dugu, erromaniko bezala, Amezketako San Martin, izen bereko ermitan.

Ate erromanikoak Abalzisketan, Albizturgo Santa Marina Argisaingoan, Amezketako Ugarten, Azkoitiko hilerrian urbedeinkatu ontzia apaingarri ederra duela, Berastegin, Berrobin, Elduaienen, Gabirian (hemen ere urbedeinkatu ontzia ere bai), Ernaniko San Agustin komentukoa, Itxasokoa barnean batai pontea duela, Pasai San Pedroko hilerrikoa, Tolosako San Estebangoa gaur Santa Maria parrokian bataiategitzat jarria dena, Urnietakoa eta hoiez bainera Idiazabal eta Zumarragako Antiguakoak erromaniko-gotiko transiziokotzat jo genezazke.

Gainera, Idiazabalen bertan bada bataio ponte bat, eta ezagutzen ditugun ponte erromanikoen artean Ormaiztegikoa dugu guzietan bereziena, batez ere aintzinagoko sinboloak dituenez.

Gabiriako urbedeinkatu ontzia, bere bordoinarekin, apaingarririk ez badu ere erromaniko klasikoa da. Azkoitiko hilerrian aurkitzen den urbedeinkatu ontzia ordea, kapitel erromaniko bat aprobetxatuz egina da. Eta, era berean, Zegamako hilerrian dagoena lehenagoko San Bartolome Andueza parrokia zenaren

arraztoa omen da, eta dituen edergarriak Arakilgo Huarteko Zamartze eliza erromanikoarenakin kidetasuna du.

Igeldeko elizan bertan badira bi leiho. Baita ere Zumaiako Santiagok, orain Zuloagaren museotzat dagoenak, leiho erromanikoa du. Eta, arestian aipatu dugunez, aztarna guzi hauei Leintz haranekoak gehitu beharra dugu. Beraz, gaur egun inork ezingo du zalantzarik jarri Gipuzkoako erromanikoaz.

* * *

El interesante trabajo presentado por don Manuel Lecuona sobre el arte medieval en el País Vasco, que le sirvió de conferencia-lección en los cursos de cultura vasca en E.U.T.G. de San Sebastián en 1977 y que ha sido publicado en el tomo segundo *Cultura Vasca,* me da pie para volver sobre el tema al que en su día presté mis modestas aportaciones. En estas mismas columnas me ocupé en octubre de 1976 sobre el románico en el Valle de Léniz y hoy repaso someramente las muestras del resto de la provincia. En realidad, muestras que son únicamente restos de los templos que existieron, porque en Guipúzcoa no se conserva ninguna iglesia completa, pero sí puertas, ventanas, pilas bautismales, capiteles convertidos en aguabenditeras, dos crucifijos y cinco imágenes, aparte de otras noticias documentales.

Hoy por hoy, destacan tres Andra Maris, tres preciosas tallas en madera policromada. La más antigua sin duda es la de Juncal de Irún, y le siguen la de Ugarte (en Amézqueta) y la de Icíar. En época, el San Pedro Apóstol tallado en piedra y que se conserva en la parroquia San Andrés de Eibar, se puede colocar junto a la imagen de Irún. Hay otra imagen, un San Martín, no ha mucho descubierto en la ermita de este nombre en Amézqueta.

Los crucifijos de Aizkorri (que actualmente se guardan en Cegama) y el de Cerain, si comparamos con otros de igual estilo existentes en Alava y Navarra, tendríamos que catalogar en el románico tardío.

Respecto a las puertas románicas, además de ser las muestras más abundantes, sus estilos varían desde las formas más

primitivas, como la de Ugarte, de Amézqueta, hasta la de Idiazábal que se sitúa en el período de transición del románico al gótico. Y a las siete puertas existentes en el Valle de Léniz con Mondragón inclusive (pues no hay que olvidar que primitivamente radicó en esta villa el Arciprestazgo de dicho valle), habría que añadir con las de Ugarte e Idiazábal las de Abalcisqueta, Azcoitia, Berástegui, Berrobi, Elduayen, Gaviria, Hernani, Ichaso, Pasajes San Pedro, San Esteban de Tolosa, Santa Marina de Arguisain y la de Urnieta. También abundan las pilas bautismales románicas y de entre las mismas destacan, por su ornamentación, las de Ormáiztegui e Idiazábal. Amén de otras ventanas, molduras, frisos, etc., que testimonian el arraigo del arte románico en la provincia. Pues no olvidemos la existencia de un muro con dos ventanas totalmente prerrománicas en Astigarribia de Motrico.

1978 - IV - 3

EIBARKO SAN ANDRES

M. A. Arrazolak ongi erakutsi zigun Gipuzkoan zein aberatsa zen Pizkunde garaiko artea, hiru tomo marduletan agertu zigun *El Renacimiento en Guipúzcoa* (Donostia, 1967-1969) delako obran. Garai eta estilo horretako arte balioetariko bat Eibarko San Andres parrokian gordetzen dugu.

San Andres parrokia honen lehen agiria 1267koa dugu; baina gaur ez dugu ezer Erdi-aroko eliza harenik, San Pedro-ren irudi erromaniko bat izan ezik. Gaur egun ezagutzen dugun eliza hau 1547an ideki zen, bere lehen partean behintzat, zeren geroztik handitzezko gehigarriak izan bai zituen.

Oraingo elizaren eraikitze egituretan bi garaitako desberdintasunak nabari dira: bata XVI. mendearen lehen partean eraiki zena eta bestea XVII.aren aldakuntzazko handitu beharrarena.

Iduritzen zaigunez, apenaz aztertu da elizan ditugun lekukotasunak agiriekin zehatz begiraturik. M. A. Arrazola izan da onduen atertu duena, baina hala ere bere adiarazpeneri zenbait ohar gei

tuko nizkioke. Ditugun ageri bakarrak, aski soilak, Gregorio Mujikak dakarzki bere *Monografía Histórica de la villa de Eibar* deritzan liburuaren 116/119 orrialdeetan. Agiriok diotenez jabeturik, honako oharrok egingo dizkiot elizaren arkitekturari dagokion aldetik.

Hamaseigarren mendearen lehen parte hortakoa, ekialde partekoa da, orain korua dagoena. Eliz zoladuraren kurutzara artekoa, baina ez zola gurutzatzen den parte bera. Honen lekukotasunak leiho eta gainerako edergarrietan nabari dira, baina baita ere hau dalako elizaren kanpokaldetik guziz harladuzkoa, eta gainerako ez. Parte zahar hau elizburutzat egina zen bere lehen asmo hartan, eta guzia dugu XVI. mendearen lehen partekoa, euskal gotikoa deritzaion hortakoa; hiru zuloitarteak sabaiak altura berean dituztela. Egitura hau eliza gurutzatzen den toki beretik aldatzen da.

Elizaren parte honetan gordetzen ditu Eibarko San Andresek bere arte baliorik berezienak. Bordoin handiak ditu, korintio erako kapitelez, eta bertatik sabai adarrak irtenaz, eta adar horietatik sortzen diren sabai-uztaiak gurutzatzen diren giltzarrietan medaila apainak dituztela. Alde honetan ditu eleizak ojiba formadun lehioak, eta hauetatik batean oraindik orain ere hamaseigarreneko berinadura (vidriera) gordetzen da. Baina, horrez gainera, hegoaldera bukatu gabe gelditu zen eliz atari nagusiaren arrastoa ageri da, barrukaldetik bataiategia dagoen leku berean. Atari honen barrukaldeko edergarriak apobetxaturik jarri zen bertan bataiategia eta elizaren ifarraldera plateresko estilodun atea. Arkitekturaren parte hau, agiri zaharretan agertzen denez, Gabriel Ubilla eta Martin Inarrak egina da, 1532tik 1540ra bitartean. Nonbait, hemen gelditu zen eliza zeharo bukatzeke. Bere egituraz, hiru zuloitarteduna. Atari nagusia bukatu gaberik, hegoaldera begira, eta ifarrera orain ezagutzen dugun plateresko estilodun ataria. Atari hau, eliza handiagotzean hertsi zen, 1656an, eta urte guti direla berriz ireki zen, elizaren kalostrea eta sakristia berria eraiki zutenean.

Eliza mendebaldera handitzea XVII. mendearen lehen partean egin zen. Handitze honetan, nonbait, ez zen jarraitu lehengo asmo bera. Loidi deiturako batek tajuraz berritu zuen, zola-guru-



Eibarko elizaren egitura. Beltzez dagoena XVI. mendearen lehen partean eraikia eta, zuriz, XVII. mendean gehitua

tzea idekiaz eta itxura aldatuaz. Hernando Loidi hau 1603an hil zen, eta bere ondoren lanekin jabetu ziren Migel Garaizabal eta Juan Agirrek ere beste zenbait aldakuntza egin zituzten.

Orduan aldatu zuten Araoztarren erretaula orain dagoen tokira. Esan dugunez, lehen lehenean orain korua dagoen tokia zen elizburua eta bertan zegoen erretaula bukatugabea. Trento-ko kontsilio aurretik hola eskatzen bai zen, elizburua ekialdera begira jartzea, eta hau dugu beste lekukotasun bat gehiago, Trento-ko batzarren aurretiko ideien egituraz egina zela, eta gero ez zela norma hori jarraitu. Horrez gainera, mendebal alde honetan ditu elizak harlandurik gabeko hormak, baina denen gainez, nabarmenen agertzen zaiguna, arkitektura estiloa aldatzea da. Sabaiak, egituraz hala eskaturik, lehengoari hurbildik jarraituko dio, baina bordoin edo pilare handiak neurri berdinekoak izanarren, hoien bordoinarriburuak (kapitelak) toskano estilozkoak dira; baina, horrez gainera zuloitarteak ez dute jarraipenik, zola

gurutzez idekitzen delarik eta bestaldera sabaiak eroritzen direnez, Herreraren erak hartuaz, zeharo bestelako bihurtuz. Erdiko zuloitarteak bakarrik jarraituko du atzekoaren altura.

San Andres-go erretaula nagusia Andres Araozek hasi zuen 1567. Lana poliki eraman zuen, denbora berean beste lan asko hartuak zeuzkan, eta 1580garren urte inguruan hil zenean, bukatugabe utzi zuen. Juan Araoz bere semeak jarraitu zion lanari, baina honek aitak bete gabe utzi zituen konpromisu askori erantzun behar zion nonbait eta 1606an hil zenerako erretaularen lehen parteko bi gorputzak eta apez-eserlekua doi doi bukatu zituen. Erretaula hontan erabili zituzten gaiak Testamentu zahar eta berrian oinarritzen dira. Intxaur zurez egindako lana, pintatu gabe dago, eta zenbait kritikoren ustez Gipuzkoako erretauletatik onenetako bat da, Pizkunde garaikoen artean.

San Andres-en bertan, irudiz hornitutako ohol handi bat dago aldaratzat. Kristoren ehortzea agertzen du. Pizkundearen hasierakoa da. Guk beti toki horretan ezagutu dugu, baina zaharrak diotenez Santa Ines ermita zaharretik ekarria omen da. Erretaula zaharren baten zatia da, noski.

Pizkunde garaiko edertasun guziok osatzeko, 1590ean Bravante-tik ekarritako bi fazistole daude, brontzezko arrano irudiz eginak.

• • •

El Renacimiento fue muy próspero en nuestra provincia; de una riqueza extraordinaria en comparación a cualquier otra época, como se aprecia en la magna obra de María Asunción Arrázola. Y Eibar guarda una muestra notable de ese arte renacentista en su parroquia de San Andrés Apóstol.

La primera noticia documental de la parroquia de San Andrés de Eibar se remonta al año de 1267; pero de aquel templo medieval no queda nada, salvo la imagen románica de San Pedro, que será probablemente el único vestigio, ya que el templo actual se abrió al culto en 1547.

En la construcción que hoy conocemos aparecen dos partes arquitectónicas de dos épocas bien definidas: Una, la que se

construyó en la primera mitad del siglo XVI; y la otra, de principios del XVII, con serias modificaciones sobre el primer trazado.

La parte correspondiente al siglo XVI es la mitad oriental, trazada para ser destinada a cabecera de la iglesia, tipo de construcción llamado gótico vasco, de tres naves con las tres bóvedas a la misma altura. En esta parte arquitectónica conserva el templo eibarrés sus más interesantes valores artísticos. Es la parte donde las gigantescas columnas llevan capiteles de orden corintio, de donde arrancan las palmeras que forman las altas bóvedas de estructura gótica, con medallones en claves de sus nervaduras; en dicha parte conserva, además de la única vidriera renacentista, la inacabada portada meridional destinada en principio para ser la puerta principal y que hoy por su interior, con su riqueza ornamental, sirve de batisterio, y en el muro septentrional la bonita puerta plateresca. En toda esta obra consta documentalmente la intervención de los manobreros Gabriel de Ubilla y Martín de Inarra, desde 1532 hasta 1540. La bella puerta plateresca fue tapiada durante las obras de ampliación del templo, en 1656, y vuelta a abrir en época reciente al construir el claustro y la sacristía actuales.

Bien por motivo de ampliación o porque aquellas obras no quedaran totalmente acabadas, se llevaron a efecto serias modificaciones a la hora de ampliar, en lo que respecta al trazado general, al incluir el crucero, planta en cruz. Primeramente intervino Hernando de Loidi, fallecido en 1603, y con ligeras modificaciones sobre su trazado le siguieron Miguel de Garaizábal y Juan de Aguirre.

Entonces se pasó el retablo inacabado de los Araoz al lado Oeste, donde se halla actualmente. Se observará que esta parte occidental del templo no es enteramente de piedra sillar y que las gigantescas columnas de ella, en crucero y cabecera, son rematadas con capiteles de tipo toscano, y asimismo los medallones de las bóvedas son menos suntuosos, y las naves laterales se rebajan con influencias herrerianas. Esta mitad del templo varía mucho de la otra mitad antes descrita y se aprecian claras influencias barrocas.

El retablo mayor lo empezó Andrés de Araoz en 1567, y a su

muerte, acaecida hacia 1580, le sustituyó su hijo Juan que falleció en 1606 dejando la obra inconclusa. Siendo de los Araoz los dos primeros cuerpos del retablo y el banco presbiterial. Retablo inspirado en motivos bíblicos. Está sin estofado, y según algunos críticos es uno de los mejores de Guipúzcoa.

Estas hermosas muestras renacentistas son enriquecidas con la tabla en altorrelieve que representa en Entierro del Señor que sirve de altar y dos facistoles en forma de águilas de bronce traídos de Bravante en 1590.

1977 - XI - 28

ELGETAKO IRUDI ETZANAK

Irudidun hobiak oso guti dira Gipuzkoan, San Telmon dauden Idiakeztarregandik aparte, hemen bertan Gabiriatarren laudak. Debako elizan irulearena bezala ezagutzen dena, Usurbilgo eta Oihartzungo elizpeetan ere aurkitzen dira holako hilobiak, baina guzietan ederrenak Elgetan daude, lauda ez ezik, irudi etzanez.

Elgetako irudi etzanak, arte aldetik balio handiko eskulturak dira. Baina, hala ere, ez dute merezi duten hainako begiramendurik. Sakristi zaharra kentzean elizari gehiegi hurbiltzen zaion etxe handi itxusi bat eraiki dute. Itxusia benetan, hiri barruko armonia guzia austen duelako. Etxe honek elizaren ifarraldeko atea zeharo itota utzi du. Horrez gainera, ate berari ez zaio eman soluzio egokirik eta hor daude estatua etzanez hain ederrak diren bi hobiak ikusmen egokirik gabe. Holako axolakabekeriekin noizbait eta nolabait bukatu beharra dugu.

Hamabost eta hamaseigarren mendeko hilobiak dira, irudi etzanez, beren oinetan leoiak dituztela. Zaharrena, azken parteko gotikoa, 1473koa, gaur Elgetako parrokiak duen agiririk zaharrena dugu, Uriarteko Andra Mariren elizatik ekarritako imajinak ezik.

Gauza bitxiengandik maiz sortzen dira harrigarrizko kondai-

rak, eta honela gertatu da Elgetako irudi etzanekin ere. J. M. Barandiaran-ek 1921ean Elgetan jasotako sineskeren artean honako kondaira hau agertzen da: Irudi etzanok erromatarrak direla eta beroiek eraiki zutela Elgetako eliza, leoien laguntzaz Abadiñoko harrobi batetik harriak garraiatuz. Ikus egile honen *Obras Completas* (Bilbao. 1973), II. tomoaren 210/212 orrialdeak.

Baina, hara hemen hilobion xehetasunak:

Zeharrena, esan bezala, 1473koa da. Gotiko estiloz alabastroz egina eta bertan datzana Otxoa Donor Olaegikoa. Gorputz hilaren eskultura burkoz etzana, garai hartan handikiak zeramaten jazkeraz. Oinetan, leoi bat, aho zabalik, Otxoa jaunak eskutik daraman dardoa hartuaz. Gotiko letradun idazki luze bat daroa, M. A. Arrazolak *El Renacimiento en Guipúzcoa* delako obraren II. tomoko 135. orrialdean ematen duena. Gainera, III. tomoko 88. orrialdean hobiaren argazkia dakar.

Pertsonaje hontaz ilobiak jartzen duena besterik ez dakigu, Santxa Izagirre zuen bere emaztea. Biak egin zituen eskaintzak Elgetako elizaren alde, baina eztu aipatzen ez ogibiderik eta ez kargurik.

Oso ondo landutako irudia da, gotikoaren bukaerako hau.

Bigarren hobia, Ibarra Inkisitorearena da. Pizkunde garaikoa, 1563an egina. Marmol zurian egina. Baina, biak antzerakoak izanarren, ezta Otxoaren alabastrozkoa bezain ederra. Inkisitore jauna, nobeta eta togarekin, eskuetan liburua duela eta errosario handi bat gorputzean behera. Bere burua, Otxoarena bezala, burko apainetan jarria: bere oinetan leoia du eta bere ondoan balantza, justiziaren sinbolutzat. Hau ere ondo egindako irudia da, gehiegizko apaindurarik gabea.

Bertan datza Martín Sáez de Ibarra, elgetarra, Nafarroago erresuman «Inquisidor Apostólico» izana.

Hau ere M. A. Arrazolak argazkiz dakar bere obraren hirugarren tomoan. Eta, bai bata, zein bestea, neronek berriz adiaraziak Elgetaz egin nuen monografian, arte kapituluan eta seme ospetsuen artean Ibarra eta Olaegi deituretan.

Euskal-Herrietan holakorik urri denez eta urriago Gipuzkoan, pena da eskultura etzan hoiek dauden bezala adukitzea. Burubide hobea merezi dute.

Elizaren barnean. hegoaldeko horman, sakristiarako atea dagoen leku berean, Santiagoren erretaula ederraren ondoan zuten aintzina beren lekua. Horma honetan dauden Pizkunde garaiko bi arkuak hilobi honentzat eginak ziren noski eta orain ere hemen toki egokiagoa eman lezaieke. Hontarako. Apaiztegitik sakristiara ate berri bat idekitzea nahikoa litzake, nonbait lehen izan zuen bezala. Aldakuntza honekin, iduritzen zaigu, elizak berak irabaziko lukela eta are gehiago irudi etzandun hobi eder hauek. Berentzako aukeran egindako arkupe hoiek baino leku hoberik nekez lortu genezake.

Elgetako herriak, alkate gazte eta apaiz berriaren kemenez, hauzalanean berritu du Salbatore eta laster San Roke ere berritzeko asmoetan dira. Ekintza txalogarri honen jarraipenez, poztuko ginake hemen eskatzen dugun aldakuntza hau ere beren lepora hartuko balute. Ez baita lan handia. Elizaren ifarraldeko ateari sarrera lasaiagotu lezaioke eta Gipuzkoan diren irudi etzandun hilobirik ederrenak ongi merezia duten tokia irabazi.

• • •

La parroquia de Elgueta posee dos de los poquísimos sepulcros con estatuas yacentes que conserva Guipúzcoa. Tras las últimas obras en dicha parroquia, quitaron la vieja sacristía, donde se albergaban, para levantar una horrenda casa (horrenda por su altura, color y ubicación dentro del conjunto del casco de la villa). Los mencionados sepulcros han quedado prácticamente a la intemperie y sin perspectiva alguna.

Ambos sepulcros, que constituyen dos piezas importantes del patrimonio artístico de la provincia, opinamos que son merecedores de un destino más digno para poder apreciarlos bien, y llamamos la atención para que el pueblo de Elgueta y la Diócesis se preocupen en destinarles un lugar mejor, que bien puede ser el originario, dentro del templo, bajo los arcos renacentistas que por uno de ellos tiene acceso la sacristía, pues para ella se puede abrir una nueva puerta desde el presbiterio. De este modo formaría un ángulo artísticamente favorable junto al precioso retablo renacentista de Santiago.

La importancia de estos sepulcros está muy bien confirmada en la obra *El Renacimiento en Guipúzcoa,* de María Asunción de Arrázola.

El primero es un sepulcro de alabastro, gótico tardío, fechado en 1473, donde yace Ochoa Donor-d-Olaegui. La figura del difunto descansa en dos grandes almohadones, viste a la usanza de la época y conforme a su categoría de «grande e vasallo del rey». A sus pies, un león, con sus fauces abiertas, recibe en ellas el extremo de la lanza que Ochoa lleva en sus manos. Tiene una inscripción en caracteres góticos, con una sencilla moldura sobre ella.

El segundo es de mármol blanco, renacentista, fechado en 1563, donde yace el licenciado Martín Sáez de Ibarra, Inquisidor Apostólico del reino de Navarra, entroncado a la casa Jaolaza (Jalotza). La escultura yacente figura vestida con bonete y toga, lleva en la mano un libro y un gran rosario que cae sobre el cuerpo. Apoya la cabeza en almohadones ornamentados. Un león se posa a sus pies; junto a él, la balanza, como atributo de la justicia.

Las inscripciones de ambos sepulcros se transcriben en la citada obra de M. A. Arrázola y están reproducidas en la monografía del que suscribe, *Elgueta con Anguiozar y Ubera,* en el capítulo de hijos ilustres, mas con algunas descripciones donde se relata el patrimonio artístico.

Cada pieza de arte necesita un marco adecuado para poder apreciarla como se merece, y este es el caso de los sepulcros con estatuas yacentes de Elgueta.

1978 - VIII - 21

PIZKUNDE ARTEAREN AGERI EZ EZAGUN BAT
Martirien erretaula Plaentzian

Gure auzoko Plaentzian bada San Emeterio eta San Zeledonio martirien ermita bat, gaur San Marzial izenez ezagunagoa

dena. Ermita honek badu gauza bitxirik, baina guzien artean edo guzien gainetik XVI. mendearen lehen parteko erretaula polit bat, Pizkunde garaiko artetzat oraindik katalogatu gabea.

María Asunción Arrazola-ri gauza gutik ihes egin zion *El Renacimiento en Guipúzcoa* deritzan lan ederretik, eta Angiozarko San Migel parrokiaz aparte, Soraluzeko ermita hontan gordetzen den erretaula polita. Hobeto esan, polita bezain berezia. Aspaldi begia joa nengoen eta noizbat lantxoren bat argitaratzeko asmoz. Eta bertan oraintsu gertatu denak bizkortu nau lerro hauek idaztera.

Plaentzian, dirudianez, bertako parrokiaren elizpea, barroko garaiko herritar arteaz apaindutako zuralanduzko egituraz, 1666an egina da, eta esku onetan erori da gaur egun eskatzen duen konponketarako, baina ez ordea San Marzialgo erretaula. Hemen, inguruko baserritar bezeroek, asmorik onenez baina berenkautara, bertako erretaula hau pintatu dute. Zer, eta plateresko estilodun erretala pilokromatua goitik hasi ta behera pintatu. Gizajoak...! Orain, erretaula baliotsu hori egokituko bada, lan ederra ipini digute.

Esan bezala, erretaula hau, platereskoa da izatez, XVI. mendearen lehen partekoa. Flamendar joerazkoa. Baina, egia esan, aitortu beharrezkoa zaigu Gasteizko Ayalatarren lantegietan, XVI. mende hartan, holako lanak egiten zirela eta daitakeena bertakoa izatea. Dena dela, hobeto begiratu beharrezkoa deritzagu, gurasotasunik eman baino lehen.

Erretaulak gorputz bat soil soilik du, bi nitxorekin, eta hauetan San Emeterio eta San Zeledonio, beren buruak lepotik atereak eta eskuetan harturik. Tailu onez eginikako imaginak dira. Erretaularen bi alderdietan bordoin landuak, plateresko artean ohi zen bezala, eta gainekaldean zerua, Jainkoa aingeru artean agertzen delarik. Baina beste gauza berezirik ere badu ermita honek. Bere elizburuaren aldea flamendar arkitekturaren egiturazko sabaia. Geroztik egina ote? Dena dela, gauza harrigarria da, zeren ez bai dut Euskal-Heriran beste horrelakorik ezagutzen.

Martirien ermita honetan, hoiez gainera, beste irudi batzuk ere badaude, baina ez dira estilo berekoak eta ez gara hasiko

Plaentziako Ernizketan Martirien erretaula, XVI. mendearen lehen partekoa

hauek adiarazten. Hobe dugu, oraingoz, ermitaren izen aldakuntzaz eta Martirien jatorriaz zerbait argitzea.

Nonbait, beranduagoko irudi baten deboziotik etorri zaio izen aldaketa Plaentziako ermita honi. Sebastian Insaustik Kalahorratik Gasteizera apezpikutegia igarotzeaz egin zuen inbentario lanean dakarrenez, *Las Parroquias de Guipúzcoa en 1862* deritzana, Soraluzeko ermiten artean Emeterio eta Zeledonio santuena dakar, baina ez San Marzialik. Hala ere, Luis Murugarrenek argita-

ratutako agerietan, hiru urte geroago jartzen du San Marzialen lehen aipamena, 1865ean. Dirudianez, inguru horretatik hasi zen ermitaren izen aldaketa. Txomin Irigoyen-ek 1934an *Anuario de Eusko-Folklore*-n argitaratu zuen lanean, Martiriak eta San Marzial, biak agertzen dira, bi ermita desberdin balira bezala, eta Ramiro Larrañagak ematen digu bat besterik ez denaren argia, *Placencia de las Armas* deritzan monografian.

Zahartasunari begira, zalantzarik gabe, Emeterio eta Zeledonio santu martiriak ditu ermitak bere jatorrizkoak. San Marzial geroztik erantsia da.

Santu hoiek aintzinako denboretan debozio handiagoa eta hedatuagoa izan zuten nonbait, eta ezta mira erestekoa. IV. mendenan Diokleziano inperioaren garaian Kalahorran bertan hil zituzten eta Euskal-Herriak Kristautzearekin izan zituen lehen izpiak ziren. Labayru-ren *Historia General del Señorío de Vizcaya*-ren lehen tomoaren 121-126 orrialdeetan ematen ditu argitasunak, eta baita ere J. González Etxegarayk *Orígenes del Cristianismo en Cantabria*-ren 17-23 orrialdeetan. Gainera, Labayru-k, aipatutako liburu horrek 200. orrialdean dakarrenez, aintzina, Leinzko Arziprestadutzak patroitzak eduki zituen santu hauek.

Azkoitian bada Martirien ermita bat, baina Deba arruan bertan badira beste bi, biak Plaentziatik aski hurbil. Bata muga mugan, Osintxun, eta bestea Uberan. Osintxun dauden irudiak neoklasikoak dira, baina Uberakoak herritar gotikoak dira. Imajina tipiak, politak, Plaentziako hauek baino zaharragoak. Elgetaz egin nuen monografia hartan eman nuen beren berri.

Erretaula polit hau Gipuzkoako Pizkunde garaiko artearen katalogaziora eraman beharrezkoa da, ohore guzien jabe delarik honako erretaula bitxi hau. Hala iduritzen zaigu.

* * *

Quiero llamar la atención del pequeño retablo plateresco de la ermita de los Santos Mártires de Placencia. Ermita que hoy se conoce por San Marcial.

Muy pocas cosas se le escaparon en su catalogación y estudio de *El Renacimiento en Guipúzcoa* a María Asunción Arrázola. Su

meritoria obra no podemos ensalzar en la medida que se merece, pero sí podemos decir que es lo más serio y completo que se ha hecho sobre arte en nuestra provincia. De entre las obras renacentistas omitidas en su estudio, además del templo de San Miguel Arcángel de Anguiozar, cuya descripción hice en la monografía sobre Elgueta y ulteriormente en el libro *Gogoz*, hoy quiero señalar este retablo de los Santos Mártires de Placencia.

Hace unos cuatro o cinco años que visité por vez primera la ermita que hoy se conoce por San Marcial y reparé de la existencia del pequeño retablo plateresco. Pensé ocuparme de él en algún escrito, pero el tiempo pasa velozmente y el retablito en cuestión vuelve a mi mente al conocer las obras de restauración del atrio barroco con estructura y tallas populares de la parroquia de Placencia. Y he de decir que no ha tenido la misma suerte de caer en buenas manos el citado retablo de los Santos Mártires, que hace unos meses fue repintado por los vecinos parroquianos de San Marcial.

Se trata nada menos que de un retablo plateresco, de la primera mitad del siglo XVI, muy digno de ser incorporado al catálogo guipuzcoano del Arte del Renacimiento. He aquí su traza: de un solo cuerpo, con dos calles, tallado y policromado (como queda dicho, recientemente repintado). En sus hornacinas rectangulares San Emeterio y San Celedonio. Una jamba decorada en el centro separa los dos nichos de los mártires decapitados, esculturas de pie, casi de tamaño natural, sosteniendo en sus manos las cabezas. Columnas jónicas a ambos extremos del retablo, con fustes estriados y con el tercio inferior decorado. En el ático figura un altorrelieve del Señor, a medio cuerpo, rodeado por cuatro ángeles celestiales.

La misma cabecera de la ermita está curiosamente decorada, con bóveda y frontal simulando una estructura arquitectónica flamenca. No conozco otro caso igual. Todo el ambiente denota influencia flamenca.

1978 - VIII - 7

SILVESTRE PEREZ ETA NEOKLASIKO ARKITEKTURA

Hamazortzigarren mendearen lehen partean, noraezean zihar-duten hemengo arkitektoak. Argien mendeko ideia berritzeak krisi aldia sortu bai zuen.

Franzisko Ibero azpeitiarra, 1689tik hasita, Loiolako elizagintzan ari zen Fontana italiarraren plano eta arauen arabera. Geroago bere herriko elizaren ataria egingo zuen Ventura Rodríguez-en projektuari jarraituz. Donostiako Santa Marian P. Lizardi eta M. Salazarrekin batean ikusiko zen; baina, Elgoibarko udaletxean agertu zuen bere nortasuna. Gero, hemen bertan, bere seme Inaziorekin batean eraiki zuen Elgoibarko San Bartolome elizaren dorrea eta beste. Denbora berean, arkitekto euskaldunen artean, Beasaingo Karreteratarrak ziren entzutetsuenak, eta hoien agiritzat hor ditugu Oinati eta Arrasateko udaletxeak, Eskoriaza, Orendain eta San Pedro Pasaiako elizak, eta abar. Eta hoien antzera ari ziren gainerako arkitektoek ere.

Krisi aldi hartan agertu zen Ventura Rodríguez, Churriguera-tarregandik aski aparte ari zela. Honenak dira Iruñako katedralaren aurrekaldea, Donostiako Santa Mariako Dolorosaren aldara eta Azpeitiko elizaren ataria (Iberok egingo zuena) eta beste zenbait. Baina Ventura Rodríguez berak ere ez zuen guztiz baztertu barroko kutsua. Honek baino ideia aurreratuagoak zituen Diego de Villanueva-k. Donostiako Santa Mariako elizaren aldara nagusia eta Santa Barbara aldara egin zituen honek, 1754. urtean idea berritzezko liburu bat argitaratu zuen eta anaiaren bideak markatu. Bere anaia hau, Joan zeritzana, Erromara ikasketak osatzera joan zen eta handik itzultzean, Castañeda-rekin batean, Blondel-en ideien zabaltzaile izan zen.

Ordurako Frantsian, Italian eta Inglaterran Neoklasiko arkitekturaren aburuak oso helduak aurkitzen ziren. Arrazoi hutsezko ideia hotzez burutuak eta laster hemen hedatuko zirenak. Aintzinako monumentu klasiko zahar hoietara jo zuten barroko apaingarri gehiegizkoez asperturik. Teoria zaharrak hautsi eta uste berriak sortu.

Honela ideki zuen bere bidea Neoklasikoak, eta estilo berriaren gailurrean aurkituko dugu Silvestre Pérez, Euskal-Herrian lan



Mutrikuko elizaren aurrekaldea Silvestre Pérez-en proiektoan

garrantzitsuak utziko zituena.

Silvetre Pérez, Zaragozako probintzian sortu zen, Epila herrian, 1767. urtean. Bere lehen ikastaroak Ventura Rodríguez-ekin egin zituen, gero Erroman jarraitzeko, monumentu zaharregandik aparte Peyre estudiatu zuen eta Frantsiako Akademiakoen joera berria, eta amazortzigarren mendearen azkenaldera itzuli zen, 1798an. Ordukoa dugu Mutrikuko elizaren proiektoa. Geroago, erreketa baten ondorioz, Tolosako Santa Mariako eliza konpontzeaz eta bertako aldara nagusia egiteaz arduratu zen. 1807an Bilboko Bake-Portuaren proiektoa egin zuen eta urte berean, Alexo Miranda-rekin, Bermioko eliza eraiki.

Hori izan zen Euskal-Herriko lehen ekintza. 1810. urtean Madrid-eko udalak bertako arkitekto izendatu zuen. Baina ez zen izan luzaroko. Handik bi urtera, Frantsiaren aldeko zaletasunez kutsaturik zela salatua izan zen eta hiru urtez deserriturik aurkitu zuen bere burua.

Itzultzean, abegi ona izan zuen gure herrian eta hemen aritu zen lanean 1815.etik 1821.era arte. Bitarte hontakoak ditugu Gasteizko Taetroa eta Franziskotarren komentua; Bilboko zenbait etxe eta Hospitala. Gainera, Bilboko Plaza Berriaren poiektoa egin zuen eta Durango eta Bakiorako elizak. 1818an Donostiako udalak bertako arkitekto izendatu zuen eta Alhondiga eta udaletxe berria egin zituen. Beraz, gaur Konstituzioko plazan (edo hobeto esan Plaza Berrian) dagon kontsejo zaharra berak eraikia da. Gainerakoan, plaza hau, bere arkupedun etxeekin, Pedro Manuel Ugartemendiak eraikia da.

1821. urtean itzuli zen Madrid-era, Erret Teatroaren ikergo batzordea osatzera eta hartaz zer egin erabakitzera. Espainiako hiri nagusi hontan hil zen 1825. urtean.

Hain obra handiak utzi zizkigun ilustrazioko arkitekto honek ez du izan behar haiako begiramendurik eta kasik ez-ezaguntzat igaroa zen, baina Karlos Sambricio-k egin dio ondo merezia zuen estudio eder bati eta lan honen argitaratzaile egin duen Donostiako arkitekto kolejioari esker, bere oroitzapen ona betirako gelditzen zaigu. Edergarriz aberats datorren liburu hontan argi ageri da Aragoiko seme honen nortasuna eta gure herriaren aurrerapenez egin zuen lan zintzoa, Neoklasiko estiloan eredu jartzekoak ditugu.

* * *

Hacia mediados del siglo XVIII se produjo una fuerte crisis en conceptos artísticos, promovida por las ideas renovadoras del ilustracionismo. Se avanza hacia la arquitectura de las ruinas. Es decir, hacia el retorno al mundo clásico de la antigüedad, que se va imponiendo principalmente en Francia, Italia e Inglaterra.

En España, entre otros, Ventura Rodríguez se inclina a la nueva corriente sin acabar de desprenderse del todo de las influencias barrocas. Por otra parte, Juan de Villanueva (formado antes de ir a Roma por su hermano Diego), junto con Castañeda, difunden decididamente las ideas de Blondel, y al mismo tiempo otras personas que aceptaron las teorías de nuevo sentido del historicismo clasicista como Arnal, educado en Francia, y otros



Mutrikuko eliza. Silvestre Pérez-en proiektoa luzetara ebakita

como Casanova, Machuca, Haan, etc. De ese modo sale triunfante el Neoclásico. Pero el proceso fue culminado por otras figuras como Silvestre Pérez, Juan Antonio Cuervo, Pedro Manuel Ugartemendía, Calles, etc.

La arquitectura neoclásica dejó honda huella en nuestro país, que además de las obras de Ventura Rodríguez y Diego de Villanueva, cuenta con las de nuestros paisanos Ugartemendía, Ibero, Carrera, etc. Pero sobre todo con la obra del aragonés Silvestre Pérez, a quien C. Sambricio le ha dedicado un buen estudio, publicado por el Colegio de Arquitectos Vasco-Navarro (Delegación de Guipúzcoa).

S. Pérez (1767-1825), a su regreso de Italia, en 1798, proyectó la parroquia de Motrico, y en 1805 el retablo de la Iglesia de Santa María de Tolosa. Sufrió exilio por «afrancesado», en 1812, y desde su vuelta, entre los años 1815-1821, trabajó en nuestro país, donde es autor del convento de San Francisco y el Teatro de

Vitoria; de la Plaza Nueva, hospital y casas (en las calles Santa María y Ribera) en Bilbao, y al ser nombrado arquitecto municipal de San Sebastián, proyectó la Casa Consistorial (cuya plaza porticada fue completada por Ugartemendía) y la Alhóndiga.

Sus trabajos son hoy el exponente de la arquitectura neoclásica.

1978 - X - 23

ZULOAGAREN GAZTAROKO IRUDIAK

Bilboko Artes Gráficas Grijelmo, S. A., inprimategia, azken urte hauetan, artisten marrazkiz egutegiak argitaratzeari emana da eta aurtengoa Inazio Zuloagari eskainia dator. Era txukunean argitaratutako bost marrazki paregabeak osatzen dute egutegi hau. Testu orri bat ere badu, bi artikulurekin, E. Lafuente Ferrari-k gazteleraz eta idazten duen honena euskaraz. Gainera, barrenean letra txikiagoz itzulpenak datoz.

E. Lafuente Ferrari-k bere artikuluaren hasieran dion bezala, garrantzi handikoak dira, edozein artistaren obra estudiatzeko, bere marrazkiak, naiz egintza jatorrak izan, esku heziketaz eginak edo solas gisa sortuak izan. Ongi dionez, bere pinturagintzaren argitasunerako dira.

Horrez gainera, neretzat, artistaren sorterrikoa naizenezkero, bestelako ezagugarririk ere aurkitu dut. Irudi hoiek Inazio Zuloaga gazte erromantikoaren oroitzapena dakarte. Eibartik mundu zabalera irten baino lehenagoko oroitzak. Behar bada ordurako urruti minak ikutua zen gazte ameslariarenak. Baina artista izan nahizko borroka hartako zirriborro batzuk baino zerbait gehiago diren marrazkiak. Hasierako lan hauek gazte kezkatiaren gogo agergarri dira. Urkizuko iturria (1888) pintatu zuenetik bere barnez zenbat eta zenbat borroka ez ote zuen eraman bere aita Plazido lantegian (1895) egitea burutu zuen arte. Bere barnetik artista kementsu hura egosten ari zen garaikoak dira, joan zen mendearen azkenaldikoak.

Garai haretan Eibarrek zer hautatu askorik ez bazuen ere, bere gogoak zerbait nabarigarri aurkitu zezakean lekura eraman zuen; marrazki horiek agerrarazten digutenez, herriko bazter polit eta etxerik ederrenak begiz joak bai zituen.

Hor agertzen diren bost marrazkietatik bi Eibar bertakoak dira, beste bat Elgoibarkoa eta gainerakoak ere oraindik Eibarren gurasoekin bizi zen garaikoak. Gehienok inoiz argitaratu gabeak. Donostiako San Telmo Museoan jarri zen azken erakusketan, 1976an, han agertu ziren inoiz argitaratu gabeko marrazki batzuk eta beren artean bi Eibarkotzat ezagutu nituen. Hauetako bat dator orain egutegi honetan. Bestea, Azitaingo bista bat zen, ermitarekin, atzekaldean Untzueta jauregiaren goi partea ikusten zela. Eibarrek ezagutu dituen aldakuntzekin ezta erraz aintzina hartako paisajeak igartzea, eta Zuloagaren lanetan gehiago ere izango dira gure herri hau lehen lehenago zelakoa zenaren lekukotasuna gordeko dutenek.

Joan zen mendearen bukaeran, egon seguru, lan asko egingo zuela hemen bertan, hain langilea zenez. Aurrean aipatu ditugun Urkizuko iturria eta bere aita Plazidoren bitarte hartakoak ditugu Azitaingo marrazkia, Arrateko itsuaren erretratoa, Untzagako Torre zaharra, Zezenak Eibarren eta Eibar bera Isasi gainetik ikusita, eta beste zenbait. Guziok arduratsu bildu behar genduzke, gazte trebearen arte lanez gainera, gure herriaren aldaketak jakitzeko ere balio dute-ta.

Baina, luzapenik gabe, Grijelmonekoak argitaratu duten egutegikoak adiaraziko ditut:

Lehenik, egutegi azalean, Elgoibarko San Bartolome zaharra, Olasoko muinoan, lehenagoko eliza zenaren gotiko agiri bakarra, Gipuzkoako herri honen hilerriko ate eta kaperatzat bihurtua. Artista bere lanari gogoz helduaz aurrera abiatu zen garaikoa dugu. Ageri denez, modernismo korrentaren erak kutsatua zen ordurako gure artista gaztea. Itxura denez, bere lanetan aurrera zijoala ere, inoiz, gaztaroko oroitzak eramango zuten bere sorterri inguruan lehendik maite zituen toki berezi horietara. Gainera azido-urezko teknikak benderatzeko zituen ahalmenak erakusten ditu hemen. Gaur egun, Olasoko San Bartolomeko atari gotiko hau monumentutzat deklaratua da.

Barnean, lehen orrian, joan zen mendearen bukaerako Eibar, armaginen herria, Isasi gainetik ikusia. San Andres parrokiaren ingurua eta Untzaga aldea oraindik Ego errekak ebakirik, plaza egin baino lehenagokoa. Lehen partean aurrez dauden irudiak aski lausoturik eta bozeto eraz, inguru guzia girotzeko apaingarri eginak dira, lan orokorraren alaigarri. Artistak, hiriaren eliz inguruan biltzen ditu indarrik gehienak, berak geroagoko agerpen batean adiaraziko zuen araura: bi tanketara jokatuz, hirugarren bat bereizteko eran. Hau da, gainerako guzia sakrifikatuz parterik garrantzizkoena bereizteko. Konposizioan bertan ere kontu handia agertzen du, irudiak behetik goruntz marraz dituela eta argi eta ilunen oreka zeharretara jarriaz, ilunak erdi aldera eramanez. Joan zen mendearen azkenaldikoa da. Marrazki hau, jauregi zaharrarekin batean, bertako aintzinakoena da.

Ondorean, Untzagako torre zaharraren ataria, Pizkunde garaiko jauregiaren arkitekturaren agiria, gure mende hau hasteaz eratsi zutena. Zalantzarik gabe, gure artistaren begi zoliaren atseginezkoa zen hau, geroago Zezenak Eibarren (*Corrida de toros en Eibar*, 1899) deritzan orio-pinturazko laukian erabiliko zuena. 1901an erabaki zen torre zahar hau botatzea, Udaletxe berriaren aurrekaldean plaza zabaltzeko. Marrazki hau era zapalez egina da, baina adi jartzen baldin bagara, laster ohartuko gara hemen ere gaztetxo kezkatiaren konposizio arduratsua nabari zaigula. Holako jauregi baten ataurreak ezin zuen eman era zapala baizik eta geometriaz jokatzen jakin zuen artistak. Lerroz lerro hartu zuen, lur eta atariaren ezkerretik neurri berdineko une argiagoa utziaz. Atea alde batera jartze honekin etxeak berez duen simetria austea lortu zuen, eta emakumezko irudiekin batean lan guziari bere era zuhurrez bizitasun gehiago emateko.

Laugarrena, beste grabadu polit bat, azido-urez oso ondo landua. Itsas-moilea da. Etxeen arkitekturaren itxuraz Euskal-Herriko itsas-hegalekoa dirudi (1); baina bertako jendeen jantziak era desberdinezkoak dira, bertakoez gainera, Gaztela eta Aragoikoek ohi zituzten soinekoak agertzen bai dira. Zezenak Eibarren zeritzan lauki hartan bezala, uste dugu, hemen ere, artistaren irudipen edo asmoz bere gutiziazko bihozkadak direla. Gainera, bertan agertzen den zaldunaren irudia *La víctima de la fiesta* gaitzat

I. Zuloagaren aguafuertea. Plentzia-Soraluzeko etxeak. Ibaiaren ordez itsas-moilea eta arrotz jantzidun jendea

erabili zuena da eta *Corrida en Sepúlveda* delakoan ere berriz agertzen dena.

Azkenik, segoviarraren erretratoa. Osaba Daniel zeramikaginaren bidez Gaztelarekin izan zuen lehen harremanen oroitzapenak dakarzkigu. E. Lafuente Ferrari-k artistari buruz egin zuen biografiazko liburuaren lehen argitalpenean dator, 1896-97kotzat. Gaztelako lurrak ez ezik bertako jendeak liluraturik hain gogotsu pintatzen hasi zen garai hartakoa dugu. Ikatzez egina, marrazkigile onaren dohainak agertzen dituena. Aurpegia kolorezko pundu batzukin agertzen zaigu, marrazkiaren pizgarri, pastelezko ikutuak eginaz.

Marrazki horiek artistaren gaztaroko dohainen adiarazgarri dira, munduan hain ospetsua egin baino lehenagokoak, lehen urratsak, pintatzaile izan nahiarekin borrokan ari zenekoak. Marrazki helduak hala ere, Zuloagatarrak etxetik zekarten ohizko

eskola nabarmen agertzen dutela.

* * *

Es una idea muy acertada la puesta en práctica estos últimos años por las Artes Gráficas Grijelmo, S. A. de Bilbao, la de ir publicando en sus calendarios los dibujos de destacados artistas. Años pasados vieron la luz obras de Iturrino, Ricardo Baroja, Goya, etc. y el presente está dedicado a I. Zuloaga. Presentando dibujos de su juventud, de finales del pasado siglo. Dos aguafuertes y tres dibujos, con comentarios de E. Lafuente Ferrari y el que suscribe, en castellano y vascuence. Preceden a la época de su fama, pero que lejos de ser tanteos informes en su carrera artística, marcan un camino firme hacia sus propósitos. Además, son trabajos que van impregnados de ilusiones y aspiraciones juveniles del que presentía su derrotero hacia lejanos fines. Son el exponente de sus inquietudes de la edad romántica en aquel trayecto que marcan sus conocidas obras La fuente de Urquizu de Eibar (1888), de cuando tuvo que luchar en su intimidad con el color y la forma, hasta gestar el proceso del retrato de su padre Plácido en el taller (1895).

El referido calendario presenta los siguientes grabados y dibujos:

En la cubierta un aguafuerte de San Bartolomé de Olaso, de Elgóibar, puerta gótica del primitivo templo que vino a convertirse en puerta y capilla del cementerio de dicha villa guipuzcoana.

Le sigue una lámina con el dibujo del Eibar de finales de siglo. Un paisaje visto desde el alto de Isasi, con la parte de Unzaga de cuando el río Ego surcaba por su orilla, de antes de convertirse en plaza, y, naturalmente, antes de construir el Ayuntamiento actual, y con la parroquia de San Andrés al fondo.

La tercera de las láminas es un dibujo al carbón, y representa la portada del viejo palacio Torre de Unzaga, de Eibar. Palacio renacentista que fue derruido al comenzar el siglo para condicionar la plaza actual. Este palacio le sirvió de fondo para su obra al óleo Corrida de toros en Eibar (1899).

En la cuarta lámina, reproducción de un grabado al aguafuer-

te, muy bien trabajada en esta faceta poco conocida de Zuloaga, se presenta un puerto marino, que la arquitectura de los edificios le denuncia como rincón de la costa vasca, aunque los atavios de sus imágenes no correspondan al lugar (2).

Y, por último, el retrato del segoviano que nos trae el recuerdo de una de las primeras muestras de sus contactos con Castilla, concretamente con Segovia, donde a la sazón destacaba como ceramista su tío Daniel.

Estos grabados y dibujos muestran las tempranas dotes personales del artista en época anterior a su fama universal, en su etapa inicial, en su lucha para ser pintor. Y son el exponente de un dibujante maduro, donde se deja entrever el magisterio de dibujo de tradición familiar en los Zuloaga.

1978 - II - 13

(1) Itsas-moiletzat egina dena, nere adiskide Ramiro Larrañagak ezagutu du eta artikulu baten bidez aditzera emana du Soraluzeko Baltegieta kaleko Iturburuko etxeak direla. Ikusten denez, pundu hontan, Zuloagaren fantasia guk uste baino urrutiago joan zen.

(2) Mi amigo Ramiro Larrañaga ha identificado las casas de este grabado que. según el, son las del paraje llamado Iturburu, en la calle de Baltegieta de la villa de Placencia de las Armas. Lo que nos hace ver que la fantasía de Zuloaga, en este caso, fue mucho más allá de lo que nos imaginábamos. (Ved su artículo «Un grabado enigmático de Zuloga» en La Voz de España del 6 de enero de 1979).

J. OLABE pintorearen ehungarren urteburuan

San Andres jaiekin Eibarren egin denik onena kultura gaiak eratzea izan da, eta hauetan hamairu urte daramazki arte erakusketa bereziak antolatuz. Aurten, filateliazko erakuste bereziaz gainera, arte mailako erakusketan Jazinto Olabe zenaren txanda tokatu zaigu, bere jaiotzaren ehunurte-burua denez.

M. Flores Kaperotxipik «Arte Vasco» (Buenos Aires, 1954) liburu atsegin hartan zionez, J. Olabe eibartar artista honek goragoko mailak merezi zituen, hain ona izanik hain guti ezagutua zenez. Eta Eibarrek inorekin zorrik bazuen, Olabe pintorearekin izan du, hainbeste grabadugile eta diseñugileren maisu bikaina zen aldetik Eibarko industriaren aurrerapenak berakin zer ikusia duelako. Eta, aurten hala bete du aspaldiko zorra, berebiziko erakusketa ederra eratuaz.

Azaroaren 29an ireki zen erakusketa hau, udaletxeko kultur gelan, abenduaren 15era arte iraungo duena. Eibarko artista elkarteak jarria da eta hemendik Donostiara eramatekotan dira. Honela, Donostiak era izango du artista hau ezagutzeko aukera. Egia esan, 1948an jarri zuen artista berak Donostiako Udaletxeko geletan eta Carlos Ribera zenaren goresmenak jaso zituen. Baina, hala ere, ez du izan merezi zuen hainako aipamenik.

Jazinto Olabek bederatzi urte zituelarik, bere familiarekin Argentina-ra joan beharra izan zuen eta han bere haurtzaroko urteak igarotzean agertu zuen dibujurako zaletasuna. Bere lehengusina Mariari hamabi urte besterik ez zituenean egin zion erretratua agertzen zaigu mutiko bizkorraren lekuko. Krnensek deiturako hugriar bat izan zuen dibujuko lehen irakaslea. Hamazazpi urtekin itzuli zen Eibarrera eta handik lasterrera sartu zen Madrid-eko San Fernando eskolan. Eta hemen ezagutu zituen garai hartako maisu handiak ziren Moreno Carbonero, Anglada Camarasa, Eduardo Chicharro eta beste. Ikasleen artean bere kideko zituen Arrue eta Zubiaurretarrak, baita ere Arteta bera, Olaberen dibujugintza hain estimuan zuena.

Madrid-ik berriz Eibarrera itzuli zenean, herria maite zuelako eta humilla izateaz gainera aski barnekoia zelako, hemen bertan gelditu zen eta hemen bertan burutu zuen bere pintura lana.

Lanik gehiena erretratugintzari emana izan zuen. Tarteka bestelako gai batzuk ere erabili zituen, batez ere euskal etniari lotuak. Lanik bikainenak ordea, bere gisa estudioz lantzen zituen buruak ditugu noski; orain jarria den erakusketa hontan «Estudio» izenez daudenak, Miren Ojanguren eta Eduardo Iraegi tartean direla, edo Takio bera. Hauek, bere gogoz modelotzat kalean hautatzen zituenen buruak dira. Hoiek duten bizitasuna eta koloreen armonia bera paregabeak dira. Hoietan, gainera, pintzelak ere solteago zeramazkin, eta ez besteetan solte ez zeramalako, horixe bai ezetz, zeren Olabe ezertan maisu bazen, pintzelak dibujuak zeritzanari erarik solteenean eramaten bai zituen bere dohainak.

Hasiera batean, naturala den bezala, San Fernando eskolako kutsu handia zeraman, baina lehen lehenetik agertzen zuen berekiko nortasuna. Ez zen erraz konformatzen zena eta bere bereak hobetuaz jarraitu zuen. Artista guziak bezala, Olabek ere aldakuntzak ditu urteen joanean. Erretratugintzako mailarik altuneak hartu zituen Mateo Orbearena egin zuenerako. Behar bada hau izango da erretraturik onena edo onenetako bat. Gerratea baino lehentxoagokoa nonbait. Hau da, 1930. urte ingurukoa. Ordurako bazituen Ama ona deritzana bezalako obra landuak, klasiko eraz burutuak (1901 urtean egina). Gaietan argitsuago nabari zen, eta erretratuetan inguruak iluntzea oso berea zuen.

Gerratean gauzak aldatzen ditu, baina baita gizonen uste eta jokaeretan ere izaten du bere eragina. Eragin hau, zalantzarik gabe, handia izan zen Olabegan ere. Txirio-kalean zuen bere estudioa gerrarekin guztia erre bai zen. Bertan galdu zituen pintore honek anitz lan. Urte batzuetan apenaz hartu zituen pintzelak, eta emaitzarik gabeko une luze hori ere ez zen alperrikakoa izan. Bere barnean izan zituen nolabaiteko etendurak, nolabaiteko etsipenak, baina berriz ere desegitze haietatik altxatuaz ekin zion gogo berri baten bultzadaz. Era berritzearen lekuko, hor dugu Indalezio Ojangureni egin zion erretratua, 1945ekoa. Argi berria dakar. Zepiak ez ditu utziko, kolore hauek izango ditu inguruaren nagusi; baina, behar bada, lehen aldiz ekarriko zituen bazterrak zerbait ubelez nahasturik agertzea, geroagoko erretratuetan maizago eta indartsuago agertuko diren ubelak. Eta, adinez au-



I. Ojanguren fotografo ospetsuaren erretratoa, J. Olabek oriopinturaz egina

rrera, kolore biziagoak, argiagoak, alaiagoak zituen gogoko.

Pintzelak argitzeaz, neurri berean, ajola gutiago jartzen zuen dibujoaz, baina bai arduratsu begiratuko zuen lauki bakoitzaren egitura, konposizioa, masaren oreka ondo gordeaz armonia orokorra zainduaz. Era hortatik kutsatu zen «fauves» joeraz, eta bere azken lanak era hontatik joango ziren: Granujia (hala esaten zaio Eibarren «rapazuelo»ri), Famili gaztea eta Erromeriatik bidez bide deritzatenak lekuko.

Katalogatze zehatz bat urtez urte egin ahal balitz, interesgarria litzake artistaren eboluzioa aztertzeko. Ohar hoiek izan bitez azterketa lagungarri.

Gure artistok, zoritxarrez, ez dute aski kritika beren barne gogoen eta sentipenen ezagutzarako. Dena dela, bere berri gehiago jakin nahi duenak, jakin beza, Biblioteca: Pintores y Escultores Vascos delako sailean VII. liburuko 67 zenbakia J. Olaberi eskainia dela.

* * *

Estos últimos años, concretamente desde 1964, la fiesta patronal de San Andrés en Eibar se caracteriza por sus manifestaciones culturales, siendo la principal actividad las extraordinarias exposiciones que se vienen celebrando.

Eibar tenía contraída una gran deuda con el pintor Jacinto Olave que al frente de su academia de dibujo tanto contribuyó en la formación de profesiones industriales. Y el presente año, al cumplirse el centenario de su nacimiento, la Asociación Artística Eibarresa ha organizado una exposición antológica del pintor en la sala de cultura del ayuntamiento eibarrés, inaugurada la víspera de San Andrés y que permanecerá abierta al público hasta el día 15 de diciembre, y que luego se trasladará a San Sebastián.

En esta exposición se muestra un dibujo al carbón, retrato de su prima María, realizado cuando el artista tenía tan sólo doce años y sirve de testimonio de su precoz inclinación a las artes.

Ingresó en la Escuela de Bellas Artes de San Fernando, donde conoció a los grandes maestros de la época: Moreno Carbonero,

Anglada Camarasa, Eduardo Chicharro, y otros. Teniendo como condiscípulos a los Arrúe, Zubiaurre y el propio Arteta.

A su regreso de Madrid se instaló en Eibar con su propio estudio y como profesor de la academia municipal de dibujo.

Destacó como retratista, aunque en ocasiones abordaría temas de etnia vasca. Sus trabajos más extraordinarios son los estudios de cabezas, el que figura en dicha exposición con ese título, Miren Ojanguren, Eduardo Iraegui y Takio, por ejemplo. Para la mayoría de estas realizaciones se sirvió de modelos que el propio pintor elegía en la calle. La viveza expresiva y la armonización cromática de estos estudios constituye quizás lo más extraordinario en el conjunto de su obra.

Supo imprimir sello propio en coloridos acertados, con delicadeza, sin disonancias, con predominio de sepias, carmines violáceos en veladuras, usando poco las tierras y mucho los colores minerales. Hallaremos un color muy peculiar en sus violetas, amarillos y carmines, llevados al lienzo con extremada sensibilidad.

Como todo artista, Olave también tuvo su propia evolución, y aquellas influencias académicas de los años primeros se fueron disipando en el transcurso de los años, inclinándose en los últimos años de su vida por el influjo «fauves» de la escuela parisina. En él, hay una primera etapa desde los ortodoxos cánones de San Fernando, con La Buena Madre, hasta el retrato de Mateo Orbea, probablemente realizado hacia los años treinta. El trauma de la guerra civil, con la pérdida de su estudio que fue pasto de las llamas con parte de su obra, le condiciona la primera gran transformación. Y sus pinceles se iluminan con acentos amarillos, con impregnaciones verdosas y violáceas, como testimonia el retrato de Indalecio Ojanguren (1945). Al que le seguirán Consuelito, el retrato de su esposa, El piropo y alguno de sus autorretratos marcan esta transición para desembocar en su etapa final con acentuaciones de influjo fauvista: Regreso del mercado y Leda (que no se han expuesto en ésta), Rapazuelo, Regreso de la romería, La joven familia, etc.

Para sentar las bases de un digno estudio de este artista convendría determinar cronológicamente su obra. Se comprenderían

mejor sus íntimas preocupaciones en la trayectoria de su evolución. Donde finalmente se observa una despreocupación por el dibujo acabado, pero manteniendo pulcra y perfecta la composición de sus obras, consciente de los valores en el equilibrio de masas, y una alegría desbordante hacia los colores luminosos. Sin duda una transformación profundamente meditada por el artista.

1977 - XII - 5

ARRUE ANAIAK

Iragan otsailean bete ziren ehun urte Arrue anaietatik nagusiena Abandon (orain Bilbo barneko dena) sortu zenetik. Alberto, 1878ko otsailaren 3an jaio bai zen. Euskal-pinturaren eskola hartako maisuetako bat zenez, zordun agertzen nintzen ongi merezia zuen artikulu bat egiteko. Asmoak asmo, nere zorra bete baino lehen bere anai gaztearen hil berria heldu zait. Rikardo, egun guti dela hil bai da Caracas-en.

Arrue anaiak lau ziren, eta ez hiru, Joakin Adán-ek uste zuen bezala. Laurak artistak, Parisko inpresionisten estilo ondotik ari zirenak. Alberto eta Josek, beren lehen ikastaroak Antonio M.ª Lekuonarekin egin zituzten, gero Parisen osatzeko, eta hoiek beren aldetik Ramiro eta Rikardo anai gazteagoen maisu izan ziren. Postinpresionisten giro inguru hartan, lau anaiok elkarregandik desberdinak ziren, bakoitzak bere pertsonalitate berezia gordeaz. Izan ere, hala gertatu zen gure mende honen lehen parteko pinturagintzako mugimendu hartan. Akademietan ohi ziren era berdintsu eta aspergarriak utziaz, artista bakoitzak bere libertatea hartu zuen, bakoitzaren adibide berezietatik jardunaz.

Alberto zen pinturan mailarin altuenak hartu zituena. Urdinak, berdeak, gorriak... kolore biziak zituen gogoko, eta oso ongi eramaten zekien bere oihaletara, garbi eta ongi ordenaturik. Euskaldun gizartea erabili zuen gaietan eta erretratugintzan oso ona zen. Arabako Museoan dagoen Arraindunarena eta bere anai Joseren emaztearena eta Juan de la Encina-rena ditugu lekuko.

T. Meaberena gordetzen zen Eibarko «Casa del Pueblo» zelakoan. Oso erretratu ona. Baina gerratean ez dakigu zer burubide eraman zuen. Geroztik ez dakigu lauki horren berririk. J. M. Uzelay arduratu zen bere bila, baina alperrik. Alberto, anaien artean onenetakoa izateaz gainera euskal-pinturaren eskola hartako garrantzitsuenetako bat ere bazela esan genezake.

Jose ordea, zeharo beste era batekoa zen. Kolorez argia, irudiak marra ilunez zehatz markatuaz pintatzen zuena. Albertok etnia gaiak erabili bazituen, Josek folklorea zuen maite. Erromeriak, jolasak, azokak, kirolak..., erarik umoretsuenean agertuz, maiz barregarrikeriak eta inoiz arlotekeriak. Kolorezko argitasunak ekialde urritietako artegintzakoen kidekoak hartu bazituen ere, gaien aldetik flamendarren joera zuen. Bere lanak ikusteaz nori ez zaio bururatzen Brueghel, Teniers edo Steen-en oroitza? Gaiak arlotetzat jo direlako edo, nere ustez, iduritzen zait ez duela izan merezi duen hainako begiramenik.

Ramiro Arrue moteltxoagoa zen. Gazterik joan zen Donibane Lohizunera eta Euskal-Herriko ifarraldean egin zuen lanik gehiena. I. Zuloaga eta Pako Durriorekin oso adiskide zen. Gaztetxotatik hasi zen goi mailako fama hartzen eta Durrio ahalegindu zen hain adiskide zuen Gauguin-en pinturagintza sakon ezagutu zezan, baina ez zuen bide hori hartu. Ez bai zen erraza Ramiro Ziburu, Donibane eta inguru hoietatik ateratzea. Hemen ordurako hedaturik zen Paris-ko estiloen era haiek laket zitzaizkion eta hemendik landuz jardun zuen. Kolore sepiak eta urdinarreak maizenik erabiltzen zituen. Lauki batzuk Seurat-en teknika eraz egin zituen, puntilleozko pintzeladaz eta kolorez aberats. Mugazandiko paisajeak, laboraritza eta arrantza lanak eta dantzak erabili zituen gairik nagusienetakotzat.

Eta, orain hil den Rikardok, lau anaien artetik kolorerik bizienak erabili zituen bere pinturagintzan, zeren «fauves» joera laket zitzaionez, hori, musker, urdin, gorri, guziak erarik gordinenean erabiltzen zituen. Nork esan zuen Euskal-Herriko pintoreak kromatikaz oso pobreak direla? Rikardogan ezin behintzat holakorik esan. Bizkai-gipuzkoetako herriak eta jendeak pintatu zituen, batez ere itsas-hegalekoak, eta hoiekin batean Paris-ko zenbait bazter.

Rikardo, ofizioa ongi zekien artista genduen eta pinturaz gainera zeramika eta esmalteak ere egin zituen. Arte tipietarako joera honek ospetsua egin zuen. Gure artean galdurik zen arterik zaharrenetako zen zeramikaren berbizkundea opa zuen, eta bestalde, baita ere, esmaltez Limoges-ko denbora oroigarriak nolabahit berriz piztearen nahia agertu, arte tipi hoien bidez. Gerrak uxaturik munduz mundu irten zen eta Ameriketan aurkitu zuen bere babesa. Azken berrogei urtean Caracas-ko Escuela de Artes Plásticas-en irakasle izan da, 1942rako han sortu zuen Venezuela-ko lehen esmaltegintzazko eskola. Nekeza izango zaigu gerrarekin zer galera izan dugun igartzea. Gure herriak hain beharrezko zituen eskolak herbesteraturik, zurtz gelditu ginen. Etxean hain beharrezko genituen kultur gaiak, gure herkideok, munduz mundu zabalduz aritu ziren. Euskal-pinturaren eskola, askorentzat hain diskutigarri izan dena, 1937an sakabanatzeaz betiko etenda gelditu zen.

Jarraipenik gabe gelditu ziren ikaskuntza haiek ordeak, gure egunotan aurkitu dute hain beharrezko zen erantzuna, eta mugimendu orokor baten barnean, artista bakoitzak bere askatasuna galdu gabe datoz egungo artista berriak, gure mendearen lehen parteko haien gogo berakin, bakoitzak bere barne-gogoak aske, lau anai Arruetarrak bakoitzak bere aldetik aurkitu zuen libertate zentzu berakin. Hau egiztatzeko, ikus Bilboko Patronato Pro-Arte de Bilbao, «Proa» elkarteak argitaratu berri duen «Euskadi Margolaritzan», 1978, deritzan liburua, gaur eguneko hirurogetahiru artistaren lanak osatzen dutena, eta bere sarreratzat Jon Eluak jarri duen poesiak berdin balio du gure hizkuntzarentzat eta gure artistentzat:

Ez ezazu utz
zure ordez
inori hitzik egiten.

Ez eta
beste batzuk
nahi dutena
esate araztea.

Mintza eta azal
askatasunez
zaren bezalaxe.

Zure etxea zabal
gizon zintzo eta
langileari,
errespeta ditzan
eta babesa maitatu.

* * *

El pasado febrero se cumplía el centenario del nacimiento de Alberto Arrúe, el mayor de los hermanos artistas, que eran cuatro y no tres como erróneamente se suponía Joaquín Adán. Deuda contraída la mía, la de traer a esta columna la personalidad de Alberto. Pero antes de cumplir mi propósito me llega la noticia del fallecimiento del último de los hermanos Arrúe; pues Ricardo acaba de morir en Caracas a la edad de 88 años.

Alberto, José, Ramiro y Ricardo eran cuatro personalidades muy importantes de aquel movimiento pictórico que se desarrolló en el país desde finales del pasado siglo hasta la última guerra civil que le dejó desmembrado por diversos países de los dos continentes.

Los cuatro hermanos habían nacido en Abando (Bilbao). Alberto, quizás el más destacado de todos, estudió primero en la escuela de Antonio María Lecuona, tolosano que estableció su academia de arte en Bilbao. Pero le ayudaron a desentrañar los secretos del oficio los ya consagrados artistas Guinea y Aramburu. A continuación pasó por la Escuela de San Fernando de Madrid, para educarse bajo la experta dirección de Moreno Carbonero, y luego marchó a París como otros paisanos suyos de la época. Prendió por las líneas postimpresionistas, desarrolló su obra con temas etnográficos vascos preferentemente, pero también destacó como buen retratista.

José, su hermano inmediato, recibió enseñanzas bastante paralelas a Alberto. Sin embargo, realizó una obra bien distinta.

Su ejecutoria, diáfana, sin atmósfera alguna, se asemeja a la pintura oriental, pero su temática humorística recuerda a los viejos flamencos.

La pintura de Ramiro es más acartonada que la de sus hermanos, verdes y sepias predominan en sus lienzos, y los asuntos que trata son por lo general paisajes laburdinos —pues vivió la mayor parte de su vida en San Juan de Luz—, faenas del campo y de pesca y bailes.

Ramiro y Ricardo recibieron sus primeras enseñanzas artísticas de sus hermanos mayores Alberto y José, pero todos pasaron por las escuelas de Bilbao y París, donde desarrollaron sus libres criterios para ir forjándose cada uno a su manera, como era esencial característica de aquel movimiento de artistas vascos de la primera mitad de nuestro siglo.

Ricardo, que acaba de fallecer, tenía inclinación por la cromática «fauves», pero además, desarrolló en las llamadas artes menores la cerámica y los esmaltes. Exiliado en Venezuela, siendo profesor de la Escuela de Artes Plásticas de Caracas, creó en aquel país la primera escuela de esmaltadores.

Los hermanos Arrúe han sido el exponente más claro del sentido de la libre expresión del aludido movimiento de pintores vascos, que conscientemente supieron realizarse con plena libertad individual. Tarea ésta incomprendida en su época y que hoy se considera primordial en el desarrollo de las artes plásticas. Por esto, el Patronato Pro-Arte de Bilbao, «Proa», ha sabido presentar su hermoso álbum antológico de obras recientes de pintores del país, «Euskadi en la Pintura», 1978, con la acertada poesía de Jon Elua:

No consientas
que otros
hablen por ti.

Ni te hagan hablar
lo que otros
quieren que digas.

Habla y expresate
con libertad,
tal como eres.

Abiertos tus lares
al hombre
honesto y laborioso,
que respeta tu casa
y aprecie tu hospitalidad.

1978 - III - 20

ZUBIAURRETARRAK

Gure mende honen lehen parteko pintatzaileen mugimendu eraginkorraren barnean sartu beharrezkoak ditugu Zubiaurre anaiak ere. Valentin Madrid-en sortu zen, bere aita Garaitarra erregeren Korteko musikaria bai zen, zenbait opera eta sinfoniaren egiela. Beste ania, Ramon, Garain bertan sortua. Baina bi anaiok han eta hemen bizi izan ziren.

Sortzetikako gor-mutuak ziren biak. Hontan oinarriturik esan zituen J. Ortega y Gasset zenak berebiziko astakeri handi haiek; «Ser vasco es, sin más, una renuncia nativa a la expresión verbal. El misterioso pueblo vascongado posee un idioma elemental que apenas sirve para nombrar las cosas materiales y es por completo inepto para expresar la fluencia figuitiva de la vida interior». Gure hizkuntza hain elementala izanik ez dakit zergatik kostatzen zaien erdaldunei euskara ikastea. Elementalak erraza behar luke izan. Baina, behar bada Ortega y Gasset-ek etzekien, horixe bai etzekiela, 1571-rako Testamentu Berria euskaratua zela, eta hortarako gauza materialetatik haragoko abstraziozko hizkuntza bat ere behar zela, eta abstraziozko hizkuntza hori, J. M. Barandiaranen bilketa lanetako herri literaturan ere aurkituko dugula. Baina, hau jakitzeko ere, euskal kultur gaiak euskaraz irakurri behar. Hau da, euskaraz jakin behar. Eta, nola daiteke euskararik jakin

gabe hau epaitzea? Ah! Holakorik anitz egin digute bertako eta herbesteko erdaldun jakitunek.

Banco de Bilbao-k Bilbon bertan noizikpehinean eskaintzen duen Euskal-Herriko pintatzaileen erakusketen artean, egunotan, Zubiaurretarrena jarri du. Eta, erakusketa hauetan ohi duen bezala, liburuxka bat ere argitaratu du, M. Llano Gorostizaren aurkezpenez.

Valentin Zubiaurre (1879-1963) Madrid-en bertan lehen arte ikastaroak egina zen, gero Italia, Frantsia, Belgika eta Holanda-n zehar museoak eta anitz kolezio ikusiaz gogoz hornitzeko. Ikastaro eta ibilaldi hauetan lagunkide izan zuen bere anaia Ramon (1882-1969).

Lehen akademi kutsu hura laster utzi zuten biak, estilo berezi bati oratuaz jarraitzeko. Laster jabetu ziren gogozko estilo berezi horrekin eta geroztik hil arteraino era berean pintatzen jarraitu zuten. Urteetan era berdintsuko lanez arituz. Hala ere, lan guziak

ez zituzten maila berean burutu. Badira nahikoa gora behera gaiak hautatzean eta laukiak lantzean. Herrietako jende apalak zituen maite eta hauek ziren oihaletara eramango zituzten gaiak, herria bere bizibideetan, jaietan, ohiturak oro bilduaz. Irudiak oso geldi jaso zituzten oihaletara, hortarako bereziki aurrean jarriak zeuden bezala, zutik edo eserita, ezertariko mugimenturik gabe, lehengo familiak fotografiatzeko jartzen ziren bezala.

Euskal-Herriko gaiak erabili zituzten gehien bat, nekazari eta arrantzaleak bertako paisaje meharretan. Baita ere, Segovia aldekorik asko dute, eta Ramonek Holandakoak ere bai.

Inpresionisten ondotikako kromatikaz aski ongi baliatu ziren eta beren koloreak biziak dira; hau da, koloretsuak, kontrasteak bizi agertuz, bai kolorez eta bai irudiak paisaje barnean ebakitzeaz

Valentinen laukiak landuagoak dira, koloreak ere kontu gehiagoz armonisatuak, eta batez ere bere lanetan anaia baino berdintsuagoa da. Ramon ordea, desberdinagoa, gora behera handiagoak nabari dituena, fauve koloreetara maizago jotzen duena; Adibidez, Holandan pintatuak nabarmen ageri dute kromatika hori. Biak ziren etnia baten inguruko sinbologia oro bildu nahirik pintatzen zutenek, batez ere Ramon. Honek, gehienetan zama gehiegiz kargatzen zituen bere lanak, ontziz eta paisajes, dantzariz eta jendez bete beterik.

Era askotako ontziak jasotzen dituzte, batez ere lurrontziak, zeramikazkoak. Euskal-Herrian Talavera-koak erabiliko ziren, noski, eta hauekin batean bertakoak. Aspaldi uste nuen bere kuadru hoiek ez ote ziren izango Euskal-Herriko zeramikaren agiri bakartzat gelditukо; baina, zorionez, Enrike Ibabek bere gisa anitz urtean bildu duen lan isilaren fruitutzat lan eta erakusketa ederrak agertu dizkigu. Hemendik aurrera badakigu nora jo, Zubiaurretarren laukietatik aparte.

Euskaldun jende jatorra pintatzeko joera hau ez zen jende burgesaren eskariak betetzeko egina, batzuk uste duten bezala, ez. Orduan horrela pintatzen zuten artistak, gaur abstraktoz pintatzen dutenek bezala, ez ziren ongi begiratuak edo ez behintzat jendearen gustokoak. Orduan oraindik erromantikoen erak eta historia gaiak maiteago zituzten dirudunek, eta artistak, oraingo aurrerazaleek bezala, ez ziren ongi ikusiak. Zubiaurretarrak, au-

rrerazaletzat zeuden, inoiz naif joerak azalduaz, Ramon-en lanetan bezala. Gainera, behar bada bestek baino errespetu gehiago izan baldin bazuten, ez dugu ahaztu behar beren arreba R. Gutiérrez Abascal (Juan de la Encina) kritikoarekin ezkondua zela. Bera bai zen Zubiaurre anaiak koloreeri ematen zekien trasparentzia haregatik honako hau esan zuena; «Más que pinturas, son hermosas vidrieras a pleno sol».

Dena dela, Iturrino, Arruetarrak, Barrueta, Etxebarria, Arteta eta beste zenbaitekin batean, gai eta pintatzeko eragatik, Bilbo inguruan mende honen hastapenetan loratu zen mugimenduaren barnean sartu beharrezkoak ditugu Zubiaurretarrak ere.

* * *

Estos últimos años el Banco de Bilbao nos está brindando exposiciones pictóricas con obras de autores que formaron aquel

importante movimiento de comienzos de nuestro siglo, con su epicentro en el propio Bilbao. Esta vez se expone la obra artística de los hermanos Zubiaurre. Presentando un librito ilustrado a color con prólogo de M. Llano Gorostiza.

Los hermanos Zubiaurre, Valentín y Ramón, ambos eran sordomudos, hijos de un músico y compositor de la Corte, autor de óperas y sinfonías. Esta mudez de los Zubiaurre fue motivo para que José Ortega y Gasset pontificara, sin mayor conocimiento de causa: «Ser vasco es, sin más, una renuncia nativa a la expresión verbal», y otros disparates que resultan mayúsculos viniendo de un hombre de su talla. Si el vascuence fuese una lengua elemental, hoy no tendríamos los problemas que nos plantea su aprendizaje, ni sin su abstracción le hubiera sido posible a Leizarraga vertir la Biblia en pleno siglo XVI. Huelga decir que la sordera y el idioma no impiden desarrollar las artes plásticas y no quisiera pecar con perogrulladas.

Los dos hermanos desarrollaron temas costumbristas, y no precisamente por imposición de los compradores, puesto que no les fue posible la venta de igual estilo y temática hasta haber alcanzado cierta fama. Aunque tuvieron principios académicos muy brillantes y lindantes a lo clásico, se lanzaron a la búsqueda de un estilo propio y limitándose a él desarrollaron toda la obra a lo largo de sus vidas. Siguiendo el mismo repertorio temático, subrayando una y otra vez los mismos tipos populares, por lo general vascos, alternando con otros lienzos de segovianos y otras regiones castellanas. En Ramón, que se observan influencias fauves, se recogen asimismo tipos holandeses.

Ambos se caracterizan por la viveza de color y la rigidez de las figuras, y sus obras resultan graciosamente ingenuas, y a la vez de gran sinceridad. Tal vez radique ahí el éxito que alcanzaron.

1978 - V - 8

JOSE MARIA UZELAY

Busturiko Txirapozukoak izan ziran XVIII. Mendearen azkenaldera San Mames portzelana fabrika sortu eta aurrera eroan ebenak. Staffordshire-ko jatorria eta antza baeuken be, Penintsulan egin ziran portzelenarik onenetarikoak ziran Busturiakoak. Honegatik, Txirapozutarrak baeuken aspaldi aspalditik arteetarako joera eta Josemari Uzelay, 1903an Bermion jaio bazan be, Txirapozutarra zan amaren aldetik eta arte zaletasun giroan etorri zan mundura, gurasoegandik hainbeste portzelana, pintura lauki eta esku-izkribu zahar jaso ebazanez. Gaur bertan, Txirapozun bizi da Uzelay eta han gordetzen ditu belaunaldiz jaso dituan arte ondasunak eta agiri zaharrak.

Josemari Uzelayren gurasoak inginiero karrera erakustea nahi eben, baina semeak gaztetxotatik erakutsi eban arteetarako joera. Honegatik, gaztetxo zala eroan eben Txirapozura, uri handietatik urrinduaz arte zaletasunetik alde eragingo eutsen usteaz. Baina, Busturiako Txirapozu bera, neoklasiko etxe handi eta ederra, arte-zale batentzat «arte-pozu» atsegina zan, bere grina edo joeretatik aldendu beharrean lehen baino gehiago pozuratzeko. Eta, holako zerbait gertatu jakon Josemari Uzelayri be. Ez zegoan barruan eroian arte garra itzaltzerik. Ume umetatik arteetarako iratzartu zanak pizturik zeroian gar hori eta, urteak aurrera, gurasoak ez eben euki beste erremediorik semea bere gogozko edo berezko bidean libre itxi baino.

Hogei urtegaz Paris-era joan zan, eta han, G. Urrutia eta J. Aranoa bizkaitarregaz bateaen, Pantxo Cossío-regaz lan-gela ber bera erabiliaz, han ihardun zan pintura ikasketetan. Ondorean, bere lanean eten bagerik jarraitu dau eta frutu ugari emona da.

Aurtengo udabarrian, Kultur Kontseinaritzan arteari buruz egin behar izan neban lehen lenatariko bat, gerra ondoren Bermioko Batzokitik hango Ertzilla-torrera eroan eben Uzelayren obra handi bat berriz Batzokira itzultzeko jestioak egitea izan zan. Eta igaro dogun azaroaren 24an, Bilboko Galeria Artetan, bere lanen erakusketa antologiazkoa idekieran euskaraz eta erdaraz agurrezko berba batzuk egin nebazan Josemariren ohorez. Orduan esan nebanetik zerbait hemen barriz gogoratu gura dot.

Joan zan mendean Regoyos, Guiart eta Guinea-rekin hasita, Antonio Maria Lekuonak Bilbon eukan pintura eskolaren inguruan artelarien iraultza piztu zan, eta Euskal Herriko pintoreak laga eben Madrid-eko San Fernando Akademiako bidea eta Paris-era jo eben. Ondoko aldakuntzetan Paris-ko estilo barriak izango ziren hemengo artisten iturri. Eta, gure mende honen lehen parte haretan ikaragarrizko mogimentua sortu zan Euskal Herriko artegintzan, batez be Bilbo inguru honetan.

Arte honen berezitasunak inpresionismo eta postinpresionismo giroak berakin ekarren argi, kolore eta teknika barriak zituan ezaugarri, eta hemen, hemengo semeak, bertako gaiak, gai herrikoiak oinarri. Hortik sortu zan Euskal Herriko Artisten Elkartea, Bilbon bertan, eta horren inguruan Euskal Pinturaren Eskola deritzaiona. Eskola hau hain diskutigarria bihurtu bazan be, inork ezin lei ukatu bere nortasuna eta bere egitekoa. Eskola honetara errenditu zan D. Vázquez Díaz bera be eta hemendik eroan ebazan haize barriak Madrid-era. Ekintza horretatik aldi barri bat sortu zan pinturagintzarentzat. Bilbon eta Bilbotik sortua eta zabaldua, horren eraginetik Donostian Martiarenaren eskola, Nafarroan Zigarena eta Araban Maezturena (Lizarran urte askoan jardun bazan be, Arabako eraginak berari zor eutsan gehien). Eragin guzti horren pintorerik berezienetakoa eta famatuena Aurelio Arteta izan zan, baina aurrelarienetan Iturrino zan buruetako bat. Regoyos-ek inpresionismoa ekarri eban lez, Iturrinok «fauvismo»arekin era barrituaz. Arrue anaiak, Zubiaurre anaiak eta beste pintore aipagarri asko sortu ziren mugimendu haren inguruan. Guziak joera barrietatik zetozen, kolorez eta gaiez ber bertako joerak sortuaz. Baziran gaiaren aldetik gehiago arduratu ziranak, beste batzuk pintatzeko eraz gehiago arduratu ziran lez.

Pintatzeko eraz gehiago arduratu ziranen artean, fauvismoaren eraginetik abiatu ziranak ditugu. Bide hau lehenengo hartu ebana Iturrino izan zan. Izan be, Henri Matisse-ren laguna izan zan. Bere ondotik, kolorez eta pintatzeko eraz arduratsu etorri ziranak J. Etxebarría, J. Tellaetxea eta J. M. Uzelay.

Euskal Pinturaren Eskola haretakoek, libertade handiaregaz jokatu eben eta bakotxak bere joera berezia landu eban, bere go-

gotik zetorkiona eginaz. Honegatik, lehen batian fauvismoaren joeratik abiatu ziranak be, oinarri horretatik hasita bere bidea jarraitu eban, bakotxat bere nortasuna landuaz eta zainduaz, eta hemen dare Eskola horren balioak.

Uzelayk pintura argiak erabiltzen ditu, «luminoso» esaten diran horretakoak, beste inork baino lehen, berde, urdin, bioleta, gorri eta orizkarak berezko argia sortuaz. Marroi eta sepiak asko erabiltzen ditu. Hau da bere joeretako bat. Baina, arabeskoaren erritmoak maite ditu eta lauki beteak egiten ditu. Argia, bizia, atmosferarik gabekoa. Irudiak estilizatuak ditu eta lan guztiaren konponketan holako surrealismo kutsu bat nabari da. Baina, surrealismotik baino urrago dago, hiperrealismotik. Hau da, errealismo berri bat, gaur egun modan dagoana, baina Uzelay berrogetakak urteak aurreratu zana. Bestalde, dibujo ona dauka, berezkoa, eta berez erritmoak bilatzen dakian eskuz egina. Paris-en ikasketetan egin ebazan lanak kendu ezkero, hasiera hasieratik ikusi geinke holako joera berezi bat. Irudimena eta eskua alkarri bat eginaz daroiaz eta kasik igarri barik be betiko joeretatik jardungo da. Hirurogetamar urte igarota be gaztaroan hartu ebazan joeretatik iraunez. Hola ikusten dira bere lanak Bilbon ideki daben erakusketa eder honetan.

Paris-tik itzultzean, gerra aurretxoan, lan asko egin eban gure herrian. Bilbon Arte Ederretako maisu izan zan Julian Tellaetxe bere lagun maiteagaz batean, eta gerratean biak izan ziran, Euskadiko gobernuak izendaturik, arte zaintze eta gordetzen arduratu ziranak. Gainera, kargu horretan zirala, Picasso-ri «Gernika» laukiaren enkargua euron bidez egin jakon.

Gerra ostean herbesteratua izan zan eta Inglaterran lan asko egin eban. «Caronia» itsasontzia edergarriz hornitzetik Wiebridge-ko High Pine Club apaintzera arte. M. Flores Kaperotxipi eta M. Madariagak euren liburuetan dakarrenez, «Queen Mary» itsasontzirako be edergarriak egin ei ebazan.

Handik itzultzean, 1950. urtean ideki eban lehen erakusketa Bilbon bertan, Galeria Arte dalakoan. Geroago «Bilbao» petrolio itsasontziaren edergarriak egin ebasan. Ordurako, baita be, Pio Baroja-ren «El País Vasco»-ren lehen argitalpenaren dibujoak.

Euskal Pinturaren Eskola deitu zan mugimenduaren azken le-

kukoa dogu. Euskal Herriaren historia guztian ezagutu dan eskolarik handiena eta iraultzaileena; gerrak desagin ebana. Espainiako Akademiaren bide itxieri uko eginaz era barriak ekarri zituena, artista bakotxaren libertadea erakutsi ebana. Honegatik, asko zor deutsegu, eta Josemari Uzelay mogimendu haren azken lekukoa dogunez, herri guztiaren omenaldia merezi dau.

Bere obra hor dogu, libertade zentzuaren seinalagarri. Ikus eta gogoetara itzuli, Josemarik ondo merezia dauka ta. Berak, bere askatasunean, gauzak ez ditu pintatzen ikusten dituan lez, baina bai sentitzen dituan lez. Hala da bere izatea, jatorra ta zintzoa.

* * *

El día 24 de noviembre, un grupo de amigos nos reunimos en la Galería Arteta, de Bilbao, para rendir homenaje íntimo al último de los representantes de la tan debatida escuela vasca de pintura que afloró a primeros de nuestro siglo en el entorno de la capital vizcaína. Un modesto homenaje para el gran pintor José María Ucelay.

Ucelay nació en Bermeo en 1903, pero vivió desde niño en la hermosa mansión de Txirapozu en Busturia. A la edad de veinte años marchó a París a estudiar pintura con sus paisanos G. Urrutia y J. Aranoa, y compartió su taller con Pancho Cossío. A su regreso al país, desde 1933, realizó importantes obras, con muchísimas exposiciones. En 1936, siendo a la sazón profesor de la Escuela de Bellas Artes de Bilbao, junto con Julián Tellaeche, fue el encargado de la vigilancia y recuperación de arte durante la guerra. El fue uno de los que intervino en el encargo de la obra «Guernica» a Picasso.

Estuvo exilado en Inglaterra, donde decoró el trasatlántico «Caronia» (según M. Flores Kaperotxipi y L. Madariaga también el «Queen Mary») y realizó los murales de High Pine Club, de Wiedbridge.

Regresó en 1949 y al siguiente año expuso en Galería Arte de Bilbao. Y, entre otros trabajos importantes, en 1960 hizo las decoraciones para la cámara regia del petrolero «Bilbao».

Dentro de la escuela vasca, con los estilos importados de

París, hubo dos grandes corrientes que todos tenían bastante en común: el empleo de materia y luz; que unos se distinguían por su temática del país y otros por sus matices pictóricos. A éste pertenecían entre otros Iturrino, Echevarría, Telleche y Ucelay, quienes se distinguían en su matiz más que en el asunto.

Su pintura, muy personal, tendente al surrealismo, influenciado en el color por la corriente fauvista, pero que en el fondo ha sido él un adelanto del hiperrealismo.

Muy acertado ha sido el juicio de Benjamín Palencia en la presentación del catálogo de esta exposición, al manifestar: «A José María Ucelay le alcanza el mérito de ser un renovador capacitado y decidido. Por su inspiración y el quehacer personalísimo de su obra, le ha valido ser considerado el precursor del realismo, que ha llegado a formar escuela en el estado español, casi cuarenta años después de que Ucelay lo iniciara».

1978 - XII - 2

BASTERRETXEAREN IRUDIAK

Begien aurrean daukat Nestor Basterretxearen liburu ederra. Txukun argitaratutako liburua. Artista baten obra agertzeko erarik aukerakoenean.

Luze haina zabal hogetahamabost zentimetruko neurria du eta ehun ta hogetiru orrialde. Testu guti, baina aski. Kolorez eta beltxuriz, artistaren irudiz argazki bete beteak, argiz ongi jarriak obra hobeto ikusten laguntzen dutela.

Dituen testu laburrak bost hizkuntzatan datoz. Aurkezpen labur bat du atarikotzat. Eta Kosmogonia saileko irudiak ditu lehen lehenik. Honegatik, Kosmogoniako irudi hoiek ulertu eta sentitu nahi baldin baditugu, ene ustez, 124. orrialdean datorren oharra irakurriaz gero lanok ikustea hobeto iduritzen zait. Hemen dakarrenez artistaren etorriaren jatorrizko iturrien berriak.

Euskal-Herriko mitologia zaharrean oinarritzen da Besterretxearen Kosmogonia, herriaren sustrai sakon adiarazgarrienetan

murgilduaz irudi unkigarrien bilaketan, gorderik dauden gogomenak aditzera emateko. Abstrakzioz, egituren neurrian biltzen dira Nestorren emaitzak. Gogamenezko mundu hura bermamitu nahian dabil. Gure lehenak, aintzinako mitologiak, gaurtik gerora begira jarraipenezko zentzua izan dezan, herri batek berean beretik geroa aurkitu ahal izateko. Lehenak sortu zuen metafisikaz jabeturik. Izadi Amarekin, sorginkerizko ospakizunekin, eguneroko lan eta heriotzaz; ahoz aho etxetiko ondore berotik guregaino heldu den kosmogonia, dramatikoki eta bortizki sortutako mundu bat bezala agertzen zaigularik. Hala aitortuko digu egileak berak.

Ideia hoiek eraman zuten artista bere bidean, irudimenari amain emanik, barnetikako etorriari gogoa idekirik, eta hara hor bere fruitu umatuak. Nornahiri sentiarazteko eran. Hauek lasai ikustean nere bihotzak ere izan du zirrararik aski. Bai, Nestor; artearen alorrean beharrezko den euskal nortasunaren agerkai bezala dira zure lan hauek, herria sentitu duenagandik herria sentiarazteko. Eta, bat nator zurekin: ezinbestekoz eta hil-biziko guztion kultur-politik berpiztearen garai honetan, Artearekiko aitorpen-indarraren sentimendu garbiz ari zeranez lanean —era egokian jardun ere—, argi berrien eta gogo-aberasgarriaren behin-behingo tresna bait da Artea.

Eskaintza ederra zurea. Guziok holako jokabideak hartzen baldin baditugu, oraindik garaiz helduko gara gure herria altxatzeko. Gogoaren pizkundeak ondotik dakar gainerakoa.

Kosmogonia saila da liburuaren laurdena baino gehiago: Akelarre, Intxixu, Idittu, Ehiztaria, Illargi-Amandre, Hamalau-zanko, Majue, Aker-beltz, Mairuak, Torto, Ostadar, Argizaiolak, Triku-harri, Bost-haizeak, Gaueko, Eate, Mari, hor daude liburuaren lehen partean, gehienontzat ia hain ezagunak egin ziren irudiak. Ondorean langintza horietarako erabili zituen zenbait zirriborro, artistaren gogoetaren adiarazgarri. Baina baita ere Illargi-Amandrearen irudiaz baliaturik egin zituen «collages» haiek 36/37 orrialdeetan datozenak. Bilaketa lan hoietatik sortu zituen Mamuek ematen die sail honi bukaera.

Erdi aldean itsasgizon eta arrantzale euskaldunen gorazarrezko monumentua, Branka bultu saila, eta euskal sineskera zaha-

rren oroitzaz Eguzki-lore saila dakarzki. Lau orrialdetan, kolorez.

Hilarrien saila dator urrengo. Euskal-Herrian hain bertako egin ziren hilarri biribiletan oinarriturik. Hilekiko itxurapenaren irudi zaharrak, ezaugarri berriz deseinaturik, herriari berriro eskuratzeko asmoz eginak. Lanabes, erlijiozko sigilu, izen-deitura eta abar, irarriz agertzen ziren gehienetan; baina, inoiz, baita ere, sigilu abstraktoz, eta hoietara jo du Basterretxeak ere. Heriotza bera bezala, misterioz inguraturik.

Liburuaren barna, sail bakoitzaren etenduran gainerako berezigarriak dakarzki, eta Hondarribiako Illurmendieta baserriak ere bere lekua du, zeren baserri hontan bai du Nestorrek bere lantegia. Eta bere ondotik, J. M. Barandiaran, J. Oteitza, K. Mitxelena, J. M. Moreno Galván, B. de Otero, G. Celaya, P. Manterola eta J. Plazaolaren aburu labur batzuk agertzen dira.

Egileak toki agerietan dituen lanak beste sail bat osatzen dute. Hauen artean Iztuetari monumentua, itsasoan hildakoei eta abar. Guzien artean, behar bada berezienetakoa, Arabako Lasarte herriko eliza erromanikoan apaindu zuen aldareaurrea.

Azkenik, egilearen antologia, 1945etik gure egunok arte ekarri duen eboluzioaren muestratzat. Oso beharrezkoa holako liburu batean bere artegintzako gogoetak ezautzeko.

Nestor Basterretxeak sorketa hartu zuen artegintzaren helburutzat, eta gure herriko sineskera eta ohitura zaharrak gaitzat. Oain hor ditugu gizon honen irudimenetik sortu diren lanak, lehenean oinarriturik gerora begira nortasunezko gogoetan iraun dezaten.

* * *

Una obra magníficamente presentada constituye el álbum dedicado a la última producción del distinguido escultor Néstor Basterrechea.

Una introducción del autor y breves párrafos y varios comentarios, puestos en cinco idiomas, son los únicos textos de la obra profusamente ilustrada con fotografías en color y blanco y negro. Se concede lugar prioritario a las realizaciones llevadas desde hace más de cuatro años, bajo el compromiso de «una la-

bor de introversión en las raíces más profundas y sugerentes de nuestro pueblo, para interpretar con imágenes tangibles —con esculturas significantes— las ideas implícitas en nuestros primeros gestos de tribu, que en un milagro de supervivencia iban a concretarse en la realidad de nuestro singular pueblo vasco». El autor manifesta su empeño de recrear aquel universo mental de nuestra peculiar y remota mitología, que dio origen a una metafísica primaria, con la presencia conminatoria de unos dioses tutelares, las indomables fuerzas cósmicas, la Madre Naturaleza, las celebraciones mágicas, las labores cotidianas y la muerte; cosmogonía que ha acudido hasta nosotros desde la herencia familiar y cálida de la tradición oral, para revelársenos con un mundo dramático y vigorosamente nacido. De estos conceptos surge la obra de Basterrechea. Toda una galería que rememora nuestras divinidades mitológicas.

La primera parte está dedicada a la cosmogonía vasca y las diversas formas derivadas del mismo concepto. Las estelas funerarias inspiradas en viejas estelas discoideas completan otro importante capítulo de esta obra. Y tras el intercapítulo, donde se muestra estudio y taller del caserío Illurmendieta, de Fuenterrabía, vienen las monumentales esculturas expuestas en lugares públicos del país, donde se aprecia la variada realización del autor y su recia personalidad como gran artista. Y, para completar la obra, una antología del artista con muestras desde 1945 hasta nuestros días, como un amplio panorama de su evolución artística.

La obra reafirma en gran medida las proposiciones hechas en aquel manifiesto de 1966, que a Basterrechea le contaba entre sus firmantes. La obra expresa la admirable constante mantenida por su autor en pro de una línea artística creacionista, basada en inspiraciones del fondo de nuestra cultura popular. Obra bien ejecutada, con asuntos que harán meditar a las nuevas generaciones.

1978 - III - 6

F. BEORLEGI, I. LARRAÑAGA ETA D. TXOPITEA ARTISTAK EIBARREN

Uste gabean, baina atseginez beterik ikusi ditugu Beorlegi, Larrañaga eta Txopitearen erakusketak aurtengo Eguberrietan. Hirurok, bakoitza bere aldetik agertu zaizkigu Eibarko saloirik ederrenetan. Hoien obrak ikusirik, egitan, Gorutz taldea osatzen duten artistok gorantza ari direla esan behar.

Lehenengoak, Fernando Beorlegik, Udaletxeko kultur gelan jarriak ditu bere azken orio-pinturazko lanak. Lan hoiek, gaiaren aldetik, bizitzaren zentzugabeko izatean, absurdoan, oinarritzen dira eta mozorro itxurazko gizon eta abereak gauzekin nahasian jartzen ditu. Inoiz ez dakizu non den gizona, abere gorputzean. Irrizko ziri-sartzea ote? Batzutan, makina, abere eta naturaren artean ez dakizu gizakumea non den edo noiz den. Zaldien manifestapenaren aurka sartu da zezena, makinaren zatiak osatuko dute gizona, aurpegi hustudun irudiak dira eskale; eta maiz, bizitza oro ihauteri da, eta maskaradun mamuak ez dakizu noiz diren abere edo noiz gizon.

Izatearen usteak hortik daroaz egileak. Materiaren aldetik, beti bezala, F. Beorlegik, pintatzaile eskolatuaren ekintzatik daroaz bere laukiak. Hein batean, flamendar pintatzaile zaharren oroitza dakar, baina Goya eta Gutiérrez Solanarekin ere ezin ahaztu. Gainera, aguafuertezko grabadu batzuk ere aurkeztu ditu, dibuju betegarri baten bidez Goyaren teknikak berritzen dituena.

Gelaren erdian, esan beharrean gara, Marino Plaza —hau ere Gorutz artista taldekoa baita— zeramikaginaren lurrezko eskultur eder bat jarri duela.

Eibarren Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak duen gelan ordea, Iñaki Larrañagak jarri ditu bere azken ekintzaren lanak. Abstraziorik handienetakoak dira. Azken aldi hontan, lauki zuriak sigiluzko marraz erabilia da, eta hemen datza berriz ere adiarazpen berdintsuz. Barnegogozko zerbaiten eraginetik aurkeztu nahi duenaren agiriak dira. Eta, oraingo erakusketa honetan, badirudi zehetasun gehiagoz nabari dela, eta obra konprenitu ahal izateko, gomitazko txartelean artista berak argitaratu duen poesia irakurri beharra dugu:

Nere aitari
haren afusilamenduaren
40. urtemugan
eta
edozein biktimari
edozein lekutan
edozein kausagatik.

Berez garbia den kosmosa gizonak lordindu du, orbandu du, eta bere lorratzak hor ditugu lekuko, kósmos zuri gardenaren zabalean, lorratz beltzak, zikinak, lekuko direla.

Edo ez ote dira, natur izate garbian gizonak uzten dituen lorratz zikinok salatu beharrezkoak? Ezin uka ikusle bakoitzaren gogoetarako eginak ez direnik, eta barne ilunagoen argi bila bultzatzen du gure gogoa. Oraingo hontan hemendik abiatu zaigu gure artista, gogoeta aztertzearen hildotik.

Materia soiltzat paper zuriak ditu, lauki zuriz ongi hornituak, apain eta txukun agertzeko, baina gizonaren lorratz zikinak hor daude, inoiz baino nabarmenago, bakoitzak bere gogoetan ihardun dezan.

Gorutz taldeko artistarik gazteena den Daniel Txopiteak Lankide Aurrezkiko gelan jarri du bere lanaren erakusketa. Azken boladan aztigaiak eta hauen inguruko begizkotasunak eta abar erabiliak zituen, euskal mitologian oinarriturik. Baina, oraingo honetan, euskal jantziak eta zurezko egiturak hartu ditu bere oihaletarako. Gazte honek, beti bezala, era berezian hartu ere. Pertsonajeak kanpotiko jantzi hutsezkoak direnez, azalezko itxuraz apaindutakoak, baina barnetik hutsak. Kosmos zabalaren eremuetan aurkitzen diren gogo hustuak salatzen dituelarik. Pertsonek ez dute gogozko betegarririk eta azal huts dabiltza bizitzako bideetatik, trapuzkoak balira bezala.

Materia erabiltzeko eraz, inoiz tarteak ebakirik edo zatiturik eta hurrengo, beste lauki batzutan, inguruari loturik kolore orokorrean girotuz. Zer esanik ere ez, pinturaren teknikak ongi menderatzen dakiela eta bai egituraz eta bai kromatikaz, maisu dela.

Dibuju batzuk ere aurkezten ditu, bost serigrafia, bakoitzetik

500 alekoa. Beltzuriz eginak dira, ekialde urrutikoak ohi duten teknikaz eginak, oihalak moldez harturik.

Erregenak arte irekita izango diren hiru erakusketa hoiek merezigarriak dira. Gure egunotako artista aurrera zaleen artean toki berezia merezi dutenetakoak baitira Gorutz taldekoak. Hauek ikusteko, Eibarrek merezi du bisita bat.

* * *

Es admirable el conjunto de la obra que el grupo Gorutz expone simultáneamente en tres salones de Eibar.

En la sala de cultura del Ayuntamiento, F. Beorlegui explaya un mundo fantástico y a la vez absurdo, donde el hombre se confunde con los animales y las cosas. Toda la existencia de misántropos sarcásticos donde la vida parece un eterno carnaval, con seres enmascarados, desfigurados como espantajos en su angustia eixstencial o en una ridícula sátira. Con ejecución impecable en composición y temática.

Presenta además una serie de aguafuertes con técnicas que rememoran al mismo Goya. Donde también se muestran las planchas grabadas en cobre, en las que el visitante puede apreciar el trabajo del artista.

Dentro de la misma sala, Marino Plaza, el ceramista que compone el cuarto miembro del grupo Gorutz, muestra una figura escultórica de mujer desnuda.

I. Larrañaga, a su vez, expone en la sala de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián cuadros blancos, limpiamente presentados en sí, pero con manchones en sus espacios. Sugerentes de todo un claro cosmos salpicado por la acción del hombre, como nos hará pensar en la poesía de presentación:

a mi padre
en el 40 aniversario
de su fusilamiento
y
a cualquier víctima
en cualquier lugar
por cualquier causa.

Esta dedicatoria la vemos estrechamente relacionada con la muestra plástica del artista.

A su vez, Daniel Chopitea expone en las salas de la Caja Laboral Popular. Pintor que de sus simpologías del mundo étnico vasco ha derivado hacia bultos arropados que cubren un vacío interior, y que a veces figuran espantajos con apariencias externas y sin alma propia. Quizás simbolicen la existencia humana, respondiendo a una vida sin sentido.

El que siempre se ha preocupado por la línea estructural, en algunas de estas obras, bien como fondo o bien como armazón a modo de maniquíes, pone de manifiesto estructuras que en algunas de sus últimas producciones son el propio asunto o tema central. La materia, rica en policromía, está tratada a la perfección. En su mayoría con la figura cortada y en alguna armoniosamente engamada.

Presenta, además, una colección seriográfica obtenida por procedimientos de tejido a la manera oriental.

Es admirable el progreso de su propia superación en el grupo de artistas Gorutz. Consideramos que queda bien justificada una visita a la villa armera para contemplar la obra de estos artistas.

1978 - I - 2

J. M. TELLERIA-ren artegintza

Gure mende honetan gizarte arazoak artegintza gaietara eramatea, zenbait kritikorentzat, lehenagoko etnografia gaiak erabiltzea zenez, pekatu zen. Nik ez dut holakorik uste eta denak dute tokia bakoitzak bere lekuan. Banco Bilbao-k Artetari eskainitako liburuan salakuntza hori egiten du Llano Gorostizak, pekatu balitz bezala. Baina Artetaren lanak etnografia eta gizarte gaiak noiz eta noraino diren diskutigarria izateaz aparte, miseria eta behartsuak soilik ezin ditugu hartu gizarte arazo bezala. Langileriaren mundua manifestatzeko, beste era batzuk ere badaude eta toki zabalago honetan jarri behar dugu Arteta, Euskal Herri-

ko langintzak eta langileen bizitzak oihaletara hain zoragarri eramaten jakin zuen Arteta.

Baina, bizitzaren eboluzioan, belaunaldi bakoitzak bere teknika edo ikuspegi berriak eman beharra du. Honegatik, gaur, ez dago Artetaren eraz pintatu beharrik; haren denbora joan zen eta denbora berriak era berriak eskatzen ditu, artegintza sorketari lotzen baldin badiogu. Eta hau hola den agiri ederra adiarazten digu Joxe Mari Telleria segurar gazteak Donostiako Galeria Estudio delakoan jarri duen erakusketaz. Orain aurkezten digun azken serie hontan Ihauteriak ditu gaitzat. Ez da pinturan lehen aldiz erabili den gaia, baina gizaldi bakoitzak bere erara erabili du. Adibidez, hor dugu Bruegehel XVI. mendean, baina bestelako teknika eta kromatika erabiliko zigun Gutierrez Solana-k gure mende honen lehen partean; beraz, ez da inor harritzekoa eta bai artista txalotzekoa, tratamendu berri batekin gai bera plazaratzeaz.

Historiak eta etnografiak erakusten digu mendeak zehar ere munduan gauza berri guti dugula, teknikatik apartekorik. Eta Euskal Herriko Ihauteriak ere bere lekua behar zuten gure artisten lanetan.

Etnografia gaia, bai. Baina oraindik bizirik den etnografiatik hartu ditu Telleriak bere gaiak. Izan ere, artistak kronikagile izan litezke, edo izan behar dute.

Galzorian badaude ere, oraindik aurkitzen dugun bizitzatik ari zaigu. Joxe Marik, bere lehen aldian, 1960-70 urteetan, Lurra erabili zuen bere serietzat eta 1975-76an «Atzo», uzten ari garen bizimoldeetako lanetan oinarriturik ibili zen. Orain, bere azken lanez, hemen dugu Lantzeko Ihauteria.

Bitartean beste lan polit bat ere burutu zigun, 1976an Jakin-ek eman zuen Axularren *Gero* liburuaren seigarren argitalpenari dibujo txukunak egiteaz. Liburuaren edergarri hoietan alperkeria du bere gaitzat. Badirudi gure zenbait ahuleziari erantzunezkoa dela. Ez alperrak garelako, baizik gure herriko giroan pentsamendu eta artegintzan aritu izan direnek, maiz, maizegi, alper fama izan dutelako. Axularrek kultur jakintzatik eta Txirritak herri eskolatik lan handi eta ederrak eskaini zizkiguten, baina hala ere, alperrerian bizi ziren ustean anitz badira.

Telleriaren lanak ezagutzen dituena erraz ohartuko da gaztetxotan hartu zituen bide zehatzak jarraitzen dituela, ber berak egun batean hautatu zuen eraz.

Irudiak, maizago desiruduituak, urdin, muzker, malba, narrez, gogortasunik gabe, bortxa gabe, koloreok islaz isla elkar gaineratuaz, urdina gailen dela, irudien argiekin eta ondoko sakonez jokatzen du. Inoiz, itxura batean, fotogramak edo argazkigintzako negatiboak balira bezala. Tarteka jartzen dakien kromatika beladurak irudi antzeko guzia baliagarriago egiten dute.

Era honekin, Telleriak, bere taxura berezi bat lortu du. Kolore eta teknika horren bidez euskal etnografian murgildu zelarik, galduaz doazen bizikerak bere plastikaren bidez jasoaz. Lan garrantzitsua berea.

Ihauterietako zomorro irudi hoiei oso ongi datorkio Telleriaren pintatzeko era, aurpegiz gorde-estalizko irudiok argiz alderantzizko ondoren bikainak lortzen bai ditu.

Gainera, Ihauteriak ere, Euskal Herri guzian direnik berezienak hautatu ditu, Lantzekoak. Joxe Marik ohituak gaituen eraz, urdina ugariago dela, hor azaltzen zaizkigu Miel Otxin, Zaldiko, Ziripot, txatxoak eta perratzaileak, pertsonaia misteriotsuak, gaur ulertu ezinezkoak, baina aintzinako sineskeraren hondarren lekuko direnak.

Erakusketarako atera dituzten orrietan Edorta Kortadiren idazki bat dugu, Telleriaren lanak irakurtzen edo ikusten laguntuko digun oharrez. Garaian idatzi duenaren bukaeran oso ongi adiarazten digu bere asmoa: «Artearen funtziorik garrantzizkoenetariko bat, honetan datza: gizarte erlazioak argitaratzean, hori dela bide gizonari errealitatea moldeberritzen laguntzen diolarik».

* * *

José María Tellería expone en Galería Estudio de San Sebastián su última serie de óleos. Tellería que desde muy joven sigue una trayectoria bien definida en cuanto a estilo y técnica, y que ha sabido mostrarnos temas monográficos del país, esta vez recoge en sus lienzos toda la trama del Carnaval de Lanz.

El Carnaval ha sido motivo pictórico de grandes artistas, en-

tre otros se sintieron apasionados por el tema Brueghel, Goya y Gutiérrez Solana. Cada cual había dado una perspectiva propia desde su época y latitud. Pero el carnaval vasco no había tenido artistas que lo interpretaran con todo un conjunto de obras sobre dicho motivo, y es Tellería quien ha sabido interpretar con sus modernos y ricos pinceles. Sus colores y sus formas figurativas destacan a un artista de recia personalidad.

Es a la vez un artista que testimonia los valores étnicos puros y vigentes aún, pero que han entrado en fase de extinción.

Edorta Cortadi le presenta con datos para una lectura interpretativa, y al final hace un brevísimo resumen de la historia artística de Tellería.

El artista plástico, una vez roturado el campo del paisaje (serie Lurra. 1960-70), va poco a poco adentrándose en las viejas entrañas del ser humano: el trabajo (serie Atzo. 1975-76), la fiesta (serie Ihauteria. 1977) al mismo tiempo que utiliza un lenguaje iconológico tomado de los más modernos máss-media. Como puede apreciarse: dialéctica a todos los niveles: formal e ideológicó. La propuesta de lectura ofrecida por Tellería está ahí. Ahora el lector tiene que hacer la suya.

1977 - II - 28

J. L. GOENAGA

Aspalditik ezagutzen nituen Donostiako Aurrera jatetxean ipintzen zituzten laukiak. Natur usaia zekarten jatetxe honen geletara, landaren giroa, udaberri edo naiz udazkeneko belarren koloreak giro baretsuan edo haizeak mugiturik, ihesik doazen lainoak, lurraren hezea eta bere babespeko mila egoera desberdin eta bizi mota, abar eta orbel bustiak edo hauek sutan kixkaltzen. Guzi hauek nabari zituen bertako hormetan zintzilika zeuden oihal abstraktoetan mendizale honek.

Duela pare bat urte, pintatzeko era horren gailurrera heldua zen lan hoien egile zen artista: Juan Luis Goenaga.

Han jakin nuen lan hoiek burutzen zituenak bere plastikagintza Ernio mendiren babesean dagoen Alkizan kokatua zela, bakardadeetako eremitari bezala. Izan ere, natur bizitzarik gardenenaren taupotsak nabari ziren lan haietan.

Egun batean Alkizaraino heldu nintzen, artista bere giroan ezagutu nahirik. Inguruak ikusi nituen, baina elkarrizketarik ez nuen lortu. Ez baita gauza erraza Juan Luis-ekin mintzatzea. Zubiaurretarrak berez ziren mutuak, baina Goenaga naturarekin soilik mintzo da; gizonentzat mutu balitz bezala. Neri ordea, beren obrak gogozkoak zaizkidan artistak beren lan tokietan bisitatzea eta bertako giroaz jabetuaz elkarrizketak edukitzea gustatzen zait. Alkizan ordea, huts egin nuen.

Hala ere, aurtengo udaran elkarrekin egin genuen bidaia luze batean aste osoz zenbait elkarrizketetan parte hartzeko aukera izan nuen; eta nik uste baino hiztunagoa zela ohartu nintzen. Jakina; ez ni hainakoa. Lagun on bat aurkitu nuen eta solas ederrik bete genuen.

Naturaren aurrez aurre egindako gogoetatik sortzen da Juan Luis Goenagaren obra. Bestalde, ofizioa ongi dakiena da.

Juan Luis, oraindik oso gaztea da; Donostian jaio zen 1950. urteko urtarrilaren 9an. Haurtzarotik zekarren arterako grina eta hamazazpi urtekin hasi zen pintatzen. Lehen aldi hartan irudiz, baina gero abstraktora jo zuen, 1969an Alkizara joan zenetik.

Alkizan bertan, naturarekingo harremanez biziago eta aberatsago itzuliko ziren bere paletako koloreak: okrezko lur koloreak, urdin eta musker ilunak eta hotzak, edo naiz gorrizkara bero gorriak, gama edo tono inguru bateratuan erabiliko ditu. Naturan aurkitzen ez duena, baserrietan aurkituko du. Hormetako harriak, zura zaharrak, habeak, emango diote gainerako koloreak eta taxurak hornitzeko haina.

Baina, abstrakzio hoiek burutzean, duela bi urte, bide berriak urratzeari eman zion. Naturan edo etxeko xoko ilunetan irudi lausoak agertuz. Irudi hauek, inoiz ihauterietako mozorroen gisakoak eta urrengo Etako gudariak antzera. Hori bai, kolore okre ilun bateratuak eta pinturagintza beraren testura oso ondo gordeaz.

Udaran, Polonia-ko gure bidaia hartan urduri zebilen gure

mutil hau. Bere barnean egosten zetorren eraberritzeko gogoeta burutu zuen nonbait eta lanerako gogo bizia sortu zitzaion. Inoiz, damu zen Alkizatik irten beharra ere. Hau dela ta, bidaia lagun ginen J. Elua ta biok oso kezkatuak geunden, ia artista honen pintzeletatik oihaletara zer sorketa berri irten behar zen. Eta, hala gertatu ere. Artistaren aldi berri bat da udatik honakoa. Hil honen lehenengotik Bilboko Bellas Artes museoan idekia duena.

Aldi berri hontako gaiak joera erotikoak dituzte. Irudiak ez dira orain hain lausoak, kolore biziak maizago ditu, eta akelarre kutsua nabari da non-nahi.

Irudi hoien giroa, bere ritmo ta guzi, Rubens-en joeretatik doa, Tintoretto-kin ahaztu gabe eta Greco-ren formekin nahasturik. Inoiz irudi barregarriak ere bai, baina urrengo Saturno izugarri itsusia aho zabalik. Aintzinako irudiak oraingo fantasia eta aztizaleen kutsapenezko eleberrietako literaturatik irtenak. Gauza harrigarririk ez zaio falta. Denetatik sail bereziena, neska-mutil zalantzazkoak beren egoera keinu eta mugimenduekin.

Aberatsa da artista honek bere barnean daroan mugarik gabeko gogoeta ahalmena. Bestela isila baldin bada, artezko mintzaira aberatsa du.

• • •

Juan Luis Goenaga, joven pintor donostiarra, próximo a cumplir los 29 años, cuya producción pictórica he seguido con interés desde hace unos años a través de lo que él iba exponiendo en el Restaurante Aurrerá de la calle Urbieta, siempre consideré por la singularidad en los asuntos y materia. Del figurativo expresionista pasó a una abstracción basada o inspirada en la naturaleza: hierbas, aire, tierra, fuego..., en sus diversos aspectos y estados de las distintas épocas del año. Al culminar aquella serie, hace un par de años, pasó a la de los encapuchados, con siluetas de figuras difuminadas o semidifuminadas en el fondo de los lienzos.

Para Juan Luis es importante la solución de las composiciones bien equilibradas engamar en tonalidades uni-predominantes sobre un fondo oscuro y que generalmente discurren en verdes,

azules, ocres o sienas.

El presente año su producción creativa ha derivado a figuras mágicas, eróticas, con gestos y posturas grotescas asociables al carnaval vasco o italiano. La línea ondulante de sus trazos recuerdan las figuras rítmicas de un Rubens o un Tintoretto. En esta ocasión utiliza colores más vivos, añadiendo los claros sobres los fondos más oscuros. Y en su temática predominan impresionantes seres dionisíacos y andróginos, llevado a los lienzos con soltura y valentía, y manteniendo los valores del tratamiento de la materia, con las texturas que siempre le han caracterizado a Goenaga.

Una pequeña muestra de sus períodos precedentes y la producción última, realizada desde el verano del presente año, expone con gran éxito en el Museo de Bellas Artes de Bilbao durante todo el mes de diciembre. Y, según noticias, la misma exposición pasará en el mes de enero a las salas del Museo San Telmo de San Sebastián.

1978 - XII - 18

HERRI ARTEARI BURUZKO LIBURU BAT

Duela zortzi urte argitaratu zuen Luis Pedro Peña Santiagok *Arte Popular Vasco* deritzan liburua. Orduan uste genuen bezala, harrera ona izan zuen publikoaren aurrean, aspaldiko urteetan antzerako libururik aukitzen ez zenez. Harrera on hau egiztatzera datorkigu obra honen laugarren argitalpena.

Laugarren argitalpen hau aurpegi berriarekin agertzen zaigu. Testua lehen lehena du, Julio Caro Barojaren sarrera hitzez gehitua, baina edergarriak, Lugea-ren dibuju hautatu batzuk aparte, fotografia bikainez hornituak datoz. Txertoa editorialaren sail berri baten hastapena denez, neurri handiago batean dator, 29 x 23 zentimetroz, «Illargi Amandrea» deituaz, N. Basterretxearen siguluz eta gure mitologian oinarriturik. Ongi etorria izan bedi, bai sail berri hau eta bai birargitaratze hau.

J. Caro Barojak bere sarrera hitzetan ongi dion bezala, gai hontaz ezagutzen den bibliografia laburra hitzaurrean jasotzen denez, hortaz ez dago ezer gehiago esaterik, baina bai esan dezakegu, Luis Pedro-ren liburu honetan lehen eskutik jasotako material berri asko aurkituko dugula.

Gárai bakoitzeko arte estiloak, gutiago edo gehiago, bere eragina izan dute gure herrian. Erromanikoak, gotikoak, pizkundeak, barrokoak, denak izan dute edo denetatik hartu du zenbait influentzia, baina etilo guziei eman dio joera berezi bat herri arteak. Zeharo autoktonoa den arterik ez dago, ez hemen eta ez Europako beste herrietan ere. Denak dute elkarrekin zer ikusia, eta herri batzuk beste batzuk baino gehiago agertzen dute berekiko bereizkuntza hori. Gainera, nortasuna ematen dien bereizkuntza hauek ere aldakorrak dira, gure herrian hilarriak, argizaiolak eta zenbait irudik duen bezala, beste herri batzuetan beste gauza batzuk dira bertako nortasuna agertzen duten gauzak. Eta, fenomenu hau, hasi jantzietatik eta altzarietatik ohituretara arte hola aurkituko dugu.

Musika, literatura, dantza eta jolasak ere sartzen dira herri artean, baina Peña Santiagok bere liburuan jasotzen dituenak plastika arteak dira: irudi, pintura, dibuju, altzari, ontzi eta arkitektura batez ere. Beste gaietaz idatzi diren liburuen berri, lehen argitalpenari neronek gertatu nion hitzaurrean ematen dut, beren espezialitatez gai aparteko batean sartzen direnez. Era berean, orain berriz argitaratzen duen hitzaurre horretan, plastika arteaz orainarte eginak ziren lanik berezienen berri ere ematen nuen, eta obra berriz argitaratzean oso pozik ikusiko genuen lan haietako zenbait gauzaz gehitua argitaratu balu. Herri arteaz lan osatuago baten premia larria aurkitzen bai dugu.

Lehen argitalpenaren geroztik argitaratu diren iker lanak ere badute gehigarrizko materialik, eta hauen artean berezienak noski zeramikaren estudioak, Leandro Silván-en *Cerámica navarra* (1973) eta Enrike Ibabek zeramikaz Auñamendi algitaldariaren *Diccionario Enciclopédico Vasco*-ren VII. tomoan (1976) argitaratu duen lan ederrean oinarriturik. Dena dela liburuan, laugarren argitalpen honen era berria lehengoa baino askozaz txukunagoa dugu. Eta, orduan bezala, plastika arteaz gainera ohituraz-



Gipuzkoako Goiherriko argizaiolak

ko berri jakingarriak ere eskaintzen dizkigu, batez ere Etxea deritzan lehen kapituluan. Lehen kapitulu hortan, torre zahar, jauregi, udaletxe, baserri, eta hoien inguruko diren ate, leiho, tximinia, ontzi eta abar. Bigarren kapituluan nekazaritzako eta artzaintzako tresneria, lanabes eta beste zenbait gauza. Hirugarrenean arkitektura, eliza, ermita eta hauen ingurua, irudi eta argizaioletatik hilarriak arte. Laugarrenean, grafia eta dibujoak beren sinbolojia guziarekin.

Edonorrentzat premiazko obra gure herria sakonago ezagutzeko. Gainera, aurkezpena egiten dion Caro Barojak ongi dion bezala, tipolojia muga zehazdun zenbait uste autsiko dituena, zeren Atlantiko alderdiko etxeak eurak Mediterraneo alderdikoekin bereizten direnez. Baina, baita ere bada bien artean beste mota bateko arkitektura, erdialdekoa, L. Urabayenek bere lanetan erakutsi zigun bezala. Eta, etxea bezala aldatzen dira beste zenbait gauza, ohiturak eurak bezala.

Gauza jakingarririk aunitz badu liburu honek. Eta oraingoan aberats dator, argazki ederrez beterik, hauetako asko kolorez, eta Graficas Valverde, S. A.-k hain ongi inprimatzen dakien eran. Baita ere esan beharra dut, egungo liburu salneurriak beldurgarriak direla eta ez dela batere harritzekoa oraingo edizio hau ere hola izatea. Hala ere, merezi duen obra da. Lehengo argitalpena dutenentzat ere interesgarria deritzagu, grafika parte guzia berria duenezkero. Oraingo argazkiak gure herri artearen ikuspegi berri bat ematen bai digute.

* * *

Nos encontramos ante una nueva edición de la obra *Arte Popular Vasco* de Luis Pedro Peña Santiago. Que es la cuarta desde aquella de 1969, pero bajo un nuevo formato e ilustrada con artísticas fotografías, muchas de las mismas en color. El texto no ha sufrido variación, cuando en realidad lo podía haber enriquecido, cuando menos con las últimas aportaciones sobre la cerámica popular debidas a L. Silván y E. Ibabe. Lo que sí aporta es una presentación de Julio Caro Baroja, con sabias puntualizaciones sobre nuestro arte popular.

La obra se centra principalmente en las artes plásticas, sin tocar a otros aspectos folklóricos como son la música, la literatura y las danzas.

El que suscribe le hizo un prólogo a la primera edición en sólo un día, precipitadamente, porque la obra estaba ya preparada en imprenta y fue idea de última hora el prologar. El prólogo que se ha publicado en las cuatro ediciones no lo hubiera alterado en lo que se refiere al contenido ideológico argumental, pero sí en la forma, y hubiera ampliado algunas descripciones que no quedaron tan claras. La misma frase de Telesforo Aranzadi salió de aquella manera de mi memoria, sin tiempo para confrontar su exactitud; pero tanto el autor como el prologuista, nada tienen que reprocharse. Las cosas no nos salen del todo perfectas a los hombres de acción. Por esto, volveré a repetir aquella frase de Aranzadi, pero esta vez de manera exacta: «Habrá otros que puedan hacer estas cosas, pero nosotros las hacemos». Y es precisa-

mente por esto el riesgo que afrontamos a las imperfecciones. Pero volviendo a la obra en sí, no necesita de justificaciones de esta índole, pues las cuatro ediciones consecutivas demuestran de por sí el éxito de la misma.

La obra trata de la casa y la iglesia y de todo lo concerniente a las mismas (arquitectura, mobiliario, herrajes, ermitas, estelas discoidales, argizaiolas, ornamentación, grafía, etc.), que constituyen la aportación de la labor desarrollada en largos años.

Pero una vez más queremos aclarar este concepto: que no existe un arte popular estrictamente autóctono; pues, cuando se dice arte popular de un pueblo determinado, se alude a un conjunto de peculiaridades en el arte popular, que son los que dan carácter propio en la vida tradicional de ese pueblo.

Esta obra artísticamente presentada ha de tener aceptación en el público tanto o más que las tres ediciones precedentes.

1977 - III - 21

ZERAMIKA BERRITZE

Plastika arteetan bagoaz zeramikari behar zuen tokia emanaz. Izan ere, zeramika mundu apartekoa da artegintzen barnean, historia eta ekintza zabala duena. Gure herrian bertan, treguharrien garaitik honera, era askotara agertu zaiguna.

Uztailaren hiruan Donostiako San Telmo Museoan ideki zen euskal-zeramikaren erakusketa, milatik gora ontzi biltzen dituena, herritar artegintza honen aberastasunaren adiarazgarri. Eta ondoko hitzaldi, mahi inguru eta ikerketa jakingarriak aipamen berezirik merezi dute. E. Ibabe, L. Silván, J. Garmendia Larrañaga, P. Sancristoval eta neronek emanak ditugu zenbait mintzaldi. Gaia alde askotatik ikutu da eta gure herriaren artegintzetan ahaztu samar zegoen zeramikak, aurrerantzean begiramen gehiago izango du.

Baina, begiramen hau ez bakarrik ikerketa eta jakintza mailetan soilik, baizik hoien ondorioz bizibide berri bat sortuko

zaien uste osoa dugu.

Berbizte honek ordea, aintzitik, gutienez bi bide markatzen dizkigu: usuario zaharretatik egungo beharrak eta gogoak beteko dituena eta teknika zaharretan oinarriturik sorkunde berri batera eramango gaituena.

Periko Sacristoval adiskideak oso ongi agertu zigun bere mintzaldiaren bidez zer eta zelan atera genezaken gure ohizko lurrontziginengandik. Euskal-Herrian hogeiren bat bizi dira ofizio hontan aritu zirenak, batzuk aski gazteak, eta, hauek maisu harturik, lantegi berri bat eraikiz lana bera egokiago eratuaz: buztina atera eta gertatzea alde batetik, ontzigintza eta labeetan egostea bestetik eta salketaren ardura askenik, hiru zatitan edo partetan antolaturik eramanez. Zenbait ontzik oraindik duten funtsioa kontuan harturik eta beste zenbaitek apaingarritzat soilik, argi dago bizibidea duela jatorrizko baxeraginak. Holan erakusten dute Europan zehar eta Espainian bertan langintza hauetan ari diren lantegiak.

Eskolarik sortzekotan, usario zaharreko ontzigintzan oinarrituko litzake ofizioaren ikasketa. Honen ondotik, edo honen inguruan, arte orokorrezko irakasketak emango lirake, nahi duenak sorketa berrietan saioak eginaz abia dezan.

Gezurra badirudi ere, sorkunde berrietara joko duen artezko zeramika bera bizitzeko eta indartzeko, beharrezko zaigu ohitura zaharreko ontzigileak salbatzea, plastika arte berriak gurasotzat har dezaten, bertako era jatorrak gauza berrietan iraungo badute. Honela ezik ez baitu era berriak bertako nortasunik.

Besteak beste, Lastur, Loiola, Laukiniz, Iruña, Donezaharre..., hor ditugu zeramikaz bide berriak ideki nahirik. J. L. Zumetak Usurbilgo frontoi ostean eta Pasaiako kaiean egindako muralak ere hor ditugu lekuko. Bada gizonik eta kemenik era berrizko eskolak bideratzeko eta indartzeko. Honegatik, beharrezkoa zaigu lehengoa, jatorrizkoa, zabaltzea, ezer jatorrik irtengo bada. Era biak elkarren lagungarri dira.

Hontaz, adibide bikaina dugu hil honen 26an Marino Plaza adiskideak Donostiako Aurreski Kutxa Munizipaleak ideki duen erakusketa. Bertan agertzen dituen zeramikazko piezak adibide ederra dira plastikazko sorkunde berri bati begira gure artistak

zer egin dezaketenez ohartzeko. Marinok badu Euskal-Herriko alfareria zaharrarekin zer ikusirik, zeren ontzigin zaharrak bezala baliatzen baita buztinlangintzan, ezertariko apainketarik gabe diseinu soilez gauzaren ederra agertuz. Formari heltzen dio soil soilik, buztinak estetikarako duen ahalmenaren balio hutsa hartuaz. Marinoren eskuetatik, buztinezko peila bakoitzetik baxera edo irudi berri bat sortzen da. Pieza bakoitzari bere bizitza propioa erantsiaz. Gainera, gauzarik gehienak, edertasun berriaren bilaketaz, bernizez edertzen ditu, bakoitzari kolorezko joera bereziak emanez. Honegatik, ez dute bestelako apainketen beharrik.

Besteak beste, izan ditugun hitzaldi, mahai inguru eta elkarrizketen bidez, aski garbi gelditu zaigu gure lurrontzigile zaharrez baliaturik lantegi berri bat sortzea, jatorrizko zeramikagintza bizirik hobeto iker dezakegunez, eta bere inguruan sorketazko eskola berri bat, estetika berriez arduratuko dena, baina era berean baita ere beste iker sail bat kimikaren alderdia estudiatuko duena. Hemendik sortu genezake zerbait berri, bere nortasuna izango duena, industria beraren lagungarri izan daitakena eta era berean gure herritikako emaitza bat, mundu zabalean kultur gaiak harremanezkoak direnez, emaile izan gaitean beti zordun izan gabe.

* * *

De las conferencias, mesas redondas, demostraciones prácticas, etc., en torno a la exposición de cerámica popular vasca abierta al público en el Museo San Telmo de San Sebastián, se van perfilando interesantes conclusiones para el conocimiento de esta faceta de arte popular tan olvidada en nuestro pueblo.

Como todo arte popular, existe o existía una intercomunicación estética entre el artesano ejecutor y el pueblo receptor, una intercomunicación de sentimiento estético que iba a partir del artista creador que depuraba las líneas del diseño en razón a la función y el gusto de la forma hasta alcanzar la aceptación del propio pueblo, circula toda una corriente espiritual a través de esas líneas del modelado por las que el artesano y pueblo llegan a una estrecha comunicación e identificación.

A través de dichas conferencias y diálogos entre especialistas de la cerámica, artistas plásticos, etnógrafos y público asistente, se han ido perfilando unos criterios cuyas conclusiones se estudiarán mañana mismo en una reunión de trabajo.

Está muy claro de que a la cerámica popular no se le han arrancado todos sus secretos y que un museo de muestras no sería suficiente para un estudio exhaustivo en la materia. Para ahondar los estudios convendría la creación de un nuevo taller de alfarería con los artesanos que hoy viven, para investigar sobre la artesanía viva. A partir de ella, crear una escuela paralela para la búsqueda de nuevas formas estéticas, sin olvidar las investigaciones químicas para ir mejorando los productos.

Tampoco hemos de olvidar que valorar lo autóctono no significa encerrarse en él. Los valores culturales siempre han servido de préstamo entre los pueblos y nuestra comunidad colectiva debe aportar de su propia experiencia creativa, no en la misma medida que recibe, puesto que toda comunidad recibe más del conjunto de las comunidades. Y, en este punto, recordemos a nuestro primer etnógrafo Telesforo de Aranzadi, quien afirmó que el país vasco no es ningún cuerpo extraño en el occidente de Europa.

1978 - VII - 31

IV
MUSIKAZ
De Música

ORGANO MUSIKALDI IV. ASTEA

Gaur bertan bukatuko da Iruñan Organo musikaldiaren IV Astea. Kultur Kontseilaritzak eta Diputazioek eratua, Donostian bertan hasi zen hil honen 19an.

Kontzertu emaileen artean M. Torrent Serra, P. Ortiz de Jocano, E. Elizondo, J. M. Azcue, Aginagalde, M. T. Martínez Carbonell, A. Martínez Solaesa, L. Taberna eta M. Vega izan dira partaide, Donostian, Gasteizen, Durangon, Bilbon, Arzeniegan, Lesakan, Tolosan eta Iruñan, ordena berean.

Ekintza eder hau gure herriaren kultur bizitzaren lagungarri da, zeren, herri baten kultura, era askotako ekintzak osatzen eta girotzen dute, baina gureak bere ohitura zaharretako berezitasunetan musika du nortasuna ematen diona, eta musikaren barnean nahikoa ahazturik eduki dugun organoa.

Irailaren azkenean eta urriaren lehenengoan Portugalko Coimbra-n Louis Jambou musikologo frantsesak agertu duenez, euskaldunak izan omen ziren XVI. mendetik XVIII.era bitartean Penintsula guziko eragile, bai organogintzan, eta baita musikagailu hau joten eta beronendako doinuak sortzen. Honela agertu zigun Deia-n (1978-10-19) J. M. Mendizabal kazetariak.

Jambou-k agertu zituen agiriak, kazetari honek aipatzen ez badu ere, Aita Donostiak bere «Música y músicos en el País Vasco»-n eta J. A. Arana Martijak «Música Vasca»-n agertzen dituztenak dira. Baina, nonbait, orain ere kanpotarrek esan beharra izan dugu etxean enteratuko bagara.

Karmelo Etxegarayk aspaldi esan zuen arte eta artistei buruzko ikerketen premia handia genuela ondoriozko aburuak azaldu ahal izateko. Baina, bereziki, euskaldunaren musikarako dohain eta grina azpimarkatzen zituen. Geroztik, ez dugu gehiegirik aztertu gure historian, baina ikertu den guti horrek musikaren aldetik eman dizkigu frutu bereziak, eta hemendik jaso ditugu Jambou-ren laudorioak.

Erdi-aroan, nekazaritzaren ekonomia gainerako bizibideen gainetik agertzen zelarik eta Nafarroako erregetza bere lur zabalen jabe, han loratu zen musika kultur mailetan gora. Erregetza honek Akitaniakin izan zuen loturak berak ere badu honetan zer

ikusirik. Iruñan, IX. menderako polifonia sartua zen ustea da, Leodegundia-ren eztai-kantak lekuko. Gero, hamaikatik hamabigarren mendera bitartean liturgiako musika hedatu zen Euskal-Herri guzian. Toki askotan aurkitu dira aintzina hartako kodize zaharrak *in campo aperto* esan ohi den bezala larruan idatziak, diogun hau egiztatzeko. Eta jakina da, Nafarroan, XV. menderako organoak ere bazirela. Higinio Anglés jakitunaren «Historia de la música medieval en Navarra» deritzan liburu ederra dugu agiririk bikainena. Liburu hau, egilea hil ondorean argitaratu zuen «Príncipe de Viana» Mintegiak (Iruña, 1970).

Baina organo kontu hontan Pizkunde garaian gailendu zen Euskal-Herria, Gipuzkoa eta Bizkaia ere, ola-zaharren eraginez ekonomiazko aurrerapena zutela. Joanes Antxieta (1461-1523) azpeitiarra izan zen lehen maisuetako bat. Beregandik hurbil, tokiz eta adinez, Gonzalo M. Bizkargi (1460-1530) azkoitiarra, musika irakaskintzaz eta teoriaz bi liburu idatzi zituena.

J. A. Arana Martijaren liburura jotzen badugu, arestian aipatutako «Música Vasca» (Donostia, 1976) delakoaren 84-90. orrialdeetara. Hor aurkituko ditugu gure organogile eta organo-jotzaile anitz.

Arantzazuko lehen organoa 1622an egin zuen J. B. Telleriagandik hasi eta urtez ezagutzen diren organisten zerrenda luzearen zehar, bada hor gure geografiako izen-deitura eta tokirik aski. XVII. mendearen erdi aldean 8 organogin Euskal-Herriko ezagutzen dira ofizio honetan eten gabeko lanean.

XVIII. menderako euskaldunen fama oso zabaldua zen, batez ere Espainia aldian.

Gure ikertzaileak gauza askokin ahaztu samar ibili dira eta orain tsukoak ditugu A. Donostia, H. Anglés eta J. A. Arana eta beste zenbaiten lanak. Oraindik gehiago ikertu beharrean aurkitzen gara. Besteak beste, Juan Andres Lonbide elgetarra gogoratu nahi dut, Bilboko Santiago eta Joanes saindua (Santos Juanes deritzana) elizetan organista eta irakasle zena XVIII. mendearen erdialdean, «El Arte del organista» liburuaren egilea, 1772an Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País elkarterako, bertako bazkide zenez, sei sonata idatzi zituena, baina gaur egun ezagutzen ez direnak. Era hontara, zenbat eta zenbat gauza ez ote ditu-

gu galduak edo ahantziak?

Hemeretzigarren mendean, denok dakigunez, gerrateak txirotu zuten gure herria, eta honek ekarri zigun atzerakada. Era berean, gure organogileak atzeratuak eta urrituak gelditu ziren nonbait eta ordutik «Cavaillé et Coll»-en berriagoak sartu ziren.

Gai hontaz garrantzi handikoa da Aita Donostiak idatzi zigun «Música de tecla en el País Vasco. Siglo XVIII» deritzan liburua, eta gizon honek musika ikerketaz —musika biltze eta sortzez aparte— egin zuen lana ez zen makala. Donostiar musikari honek maite zuen organo musika, baina berak ikasi nahi eta apenaz aurkitu zuen maisu egokirik. Hala ere, lehenagoko maisu zahar haiek hartu zituen eredu, eta haien laguntzaz eta Charles Tournemire-kin izan zituen harremanez ikasi zuen; hala dio Aita Jorge Riezuk gai hontaz A. Donostiak egin zituen lanak biltzen dituen liburuaren hitzaurrean (ikus, «Obras musicales del Padre Donostia. Organo». Lekaroz, 1975).

Ongi da herbestekoek gure historiaz edo gure kulturaz besteekin konparaketak egitea, baina ikerketak guk geuk egin beharrezkoak dituko, besteei begira ahozabalik egon gabe. Arantzazuko musika artxiboa, hain aberatsa izanik ere, zehaztasunez estudiatu gabea dugu. Eta herriz herri abiatzen bagara nork daki zer aurkitu genezakean. Errenderiako Eresbil-ek urte gutxitan egin duen iker lana txalogarria ez ezik eredugarria dugu eta urte gutiren buruan milakak partiturak bildu eta klasifikatu ditu, sail eder bat organorakoak. Bide honetatik, aberastu dezakegu gure musikaren historia eta espezialitate honen jakintzarekin berriak sortzeko eragina.

* * *

Hoy, en la iglesia de San Lorenzo de Pamplona, termina el ciclo de la IV Semana de órgano, que ha venido organizándose bajo los auspicios de la Consejería de Cultura del C.G.V. y las Diputaciones vascas. Han intervenido los concertistas M. Torrent Serra, P. Ortiz de Jocano, E. Elizondo, J. M. Azcue Aguinagalde, M. T. Martínez Carbonell, A. Martínez Solaesa, L. Taberna y M. Vega, con actuaciones en San Sebastián, Vitoria, Durango, Bil-

bao, Arceniaga, Lesaca, Tolosa y Pamplona, respectivamente, ejecutando obras de diversos autores.

Los periodistas del país, resaltaron la ponencia del musicólogo francés Louis Jambou en los encuentros de música antigua ibérica, celebrados en Coimbra (Portugal) los días 31 de septiembre y 1 de octubre, quien manifestó la importancia decisiva de los organeros vascos de los siglos XVI, XVII y XVIII. Siempre resulta importante la opinión de un extranjero sobre cualquier aspecto cultural nuestro, porque la dimensión requiere ser vista desde otro ángulo que no sea el propio, máxime si se trata de una autoridad en la materia, como en el caso presente.

En contrapartida, he de manifestar que algunos periodistas acaban de descubrir el Mediterráneo, porque las declaraciones del musicólogo francés, en todo caso, constituyen una ratificación de cuanto estaba recogido en las páginas de la obra «Música Vasca» de J. A. Arana Martija.

Consta que a mediados del siglo XVII, trabajaban 8 organeros vascos, con sus correspondientes ayudantes, construyendo estos instrumentos a pleno rendimiento, dentro y fuera del país.

El Padre Donostia, que a sus dotes de compositor y recopilador de música popular unía el de investigador nato, fue quien exhumó muchísimos documentos de música de tecla, perdidos en los archivos. Si a ello unimos los estudios efectuados por Higinio Anglés sobre música medieval, pronto nos percataremos de la larga tradición musical de nuestro pueblo. Lo que no es muy fácil de averiguar es, si entre los vascos hay predisposición para la música, o si ha sido su cultivo lo que ha influido en esa predisposición.

1978 - X - 30

HILARION ESLAVA-ren oroitzapenez

Aurten, *Musikaste 78* delakoaren ospaketa, Hilarion Eslava-ren oroitzapenez izango da. Errenderiako elkarteak azken urte

hauetan hain egoki eratzen duen Musikaste deitu ekintzak urtero izanen du agerpen bereziren bat, eta aurtengoa, esan bezala, Eslava musikalari nafarrari eskainia izanen da bere heriotzaren ehunurteburua denez.

Hitzaldi, kantaldi, sinfonia..., orotarik izanen da errenteriarrak eratu duten programan. Gaurtik hasi eta aste guzian barna, bertako eta herbestekoekin horniturik. Musikazaleek izanen dute gozamena.

Oroitza ere galdua dugun musikarien artekoa dugu Hilarion Eslava ere. Nik neuk ere oso guti nekien jaun honi buruzkorik. Gure euskal literaturak ordea, bere urritasunean ere, badu liburu berezirik eta hauen artekotzat joko nuke Eslava-ren nortasuna erakutsi zidan liburua. Hainbeste lan polit egin zigun idazle eta musikari zen A. Emiliano Barandiaran karmeldarraren *Euskal Musikalari bikainak* deritzanan ari naiz. Liburu honetan, A. Barandiaranek, Euskal-Herriko hamabi musikalariren bizitza eta lanak jasotzen ditu, eta beretatik lehenengoa dugu H. Eslava zena. Eta bere eskutik joango naiz nafar jator honen berriak emanaz.

Burladako Benitorena etxean sortu zen Hilarion 1807ko urriaren 21ean eta Madrid-en hil zen 1878ko uztailaren 23an. Adinean sartuaz musika arlo guziak urratuko zituen gizon ospetsu hau, bere haurtzaroan artzain ibilia omen zen.

Zortzi urterako sartu zen Iruñako Katedralean ikasketak egitera eta Mateo Jiménez-ekin egin zituen lehen ikaskuntzak; laster agertu omen zuen musikarako dohaina eta gaztetxotatik hasi omen zen musikagintzan eta organoa eta bioliña joten. A. Barandiaranek dionez, bere zoritxarrez, musika-aro oso eskasean bizitzea gertatu zitzaion eta garai hartako musikalarien akatsak ere beregan agertzen ditu, giroaren kutsapenez.

Lehenengo karlisten gerrateak hartu zuen bere ikastaro garaian eta ikasketak utziaz alde egin beharrean aurkitu zen. Iruñari jarri zioten hesia bukatzeaz, berriz ere jarraitu zituen ikasketak. Orduan idatzi zituen zenbait musika eta beren artean aski ospetsu egingo zion Motete bat, zortzi abots, orkezta eta organuz.

Gero, zazpi hilabetez Kalahorran osatu zituen musika ikazketak eta handik El Burgo de Osma-ra joan zen eta oposizio bidez bertako katedraleko kapera maisu egin zen. Handik bi urtera,

Euskal-Herriko Pirineoan. Hiru Erregen Mahaia, Auñamenditik

1830ean, Madrid-en erregeren kaperarako oposizioak egin zituen eta bigarrengo gelditu zen. Beste bi urtera Sevilla-ra jo zuen eta hango maisu hautatua izan zen. Han bertan, 1832an apaiz egin zen. Geroztik anitz sari eramen zituen eta gizon ospetsua egin zen, erregeren kaperako maisutzara helduaz. Eta, honegatik hain zuzen, garai haietan monarkiak izan zituen krisialdi eta eragozpen guziak sufritu beharra ere izan zuen; batez ere erregina deserritu zutenetik Alfonso XII. etorri arte, 1868tik 1873.aren ingurura arte. Gainera, garai honetarako osasunez ere oso makal agertzen bai zen.

Kargurik eta ohorerik ez zitzaion faltatu, baina diruz urri ibili zen nonbait eta operak ere idatzi beharrean aurkitu zen. Berak sortutako musikarik aipagarriena edo ospetsuena 1835eko Aste Santurako egin zuen Miserere izanen da zalantzarik gabe. Sevilla-ko katedralean ordurartekoak baztertu zituen soinu honek eta mende oso bat baino gehiagoan kantatuz iraun zuen.

Bere lanik gehientsuenak eliz-musikak izan ziren, «Tratado de la Melodía» deritzan lan bat ere idatzi zuen, eta ondoko anitz urteetan berak markatutako bideetatik ibili zen Espainiako musika sagaratua.

Bere lana oparotsua izan bazen ere, ondoko urteetan kritika gogorrak jasan beharra ere izan du. Baina gu ez gara epaiketan sartuko, musikaz jantziagoak direnentzat uztea nahiago dugu.

Aita Emilianok aitortzen duenez, Gaiarre kantariaren lehen urratsak H. Eslava-k gidatu zituen, bai Burladan ezagutu zuenean eta bai erronkariar kantariak Madrid-era jo zuenean. Eta Gaiarrek zenbait aldiz kantatu omen zuen Eslava-ren Miserere famatua.

1873an Real Academia de Bellas Artes de San Fernando-n musika saila jarri zenean, izendatu zituzten hamabi akademikoen arteko izan zen H. Eslava, E. Arrieta eta J. Gelbentzu nafarrekin batean eta Valentin M.ª Zubiaurre bizkaitarra ere tarteko zelarik.

Gure goresmenak holako musikagile baten ohorez aste hontako jaialdiak eratu dizkiguten Eresbil elkarteko errenderiarrei *Musikaste 78* hontan.

* * *

En el centenario del fallecimiento del músico navarro Hilarión Eslava, la entidad renteriana Eresvil dedica su ciclo anual de música, denominado *Musikaste 78*, a este prestigioso paisano de Burlada.

El nutrido programa de coloquios en torno a la vida y obra de Hilarión, conciertos de órgano, música de cámara y diversos conciertos realzarán la memoria del discutido músico. Los actos comenzarán hoy mismo en la sala capitular del Ayuntamiento renteriano con una mesa redonda donde intervendrán destacados musicológos. Y,en días sucesivos no faltarán conciertos donde se interpretarán obras de diversos autores, entre los que figurarán algunas del propio Hilarión Eslava,. Además de la música clásica vasca, se interpretarán obras de vanguardia de autores del país, para clausurar el día 20, sábado, con obras del homenajeado Hilarión Eslava.

Eslava nació en Burlada (Navarra) en 1807 y falleció en Madrid en 1878. Sus primeros estudios musicales los hizo en la catedral de Pamplona, para proseguir en Calahorra, de donde se presentó a las oposiciones de El Burgo de Osma, para ganar el magisterio de capilla de la catedral. En 1832 era maestro de capilla en Sevilla, donde se ordenó sacerdote. En 1832 compone y estrena su famoso Miserere para la Semana Santa sevillana, que desbanca a los anteriores y se canta anualmente durante más de un siglo en la catedral. Compuso algunas óperas y escribe algunos tratados de música, y en 1847 pasa a ser Maestro Director de la Real Capilla, por jubilación de Mariano Rodríguez de Ledesma. Recibió otros títulos, pero a pesar de su renombre y gloria, se produjeron acontecimientos políticos que le privaron de sus rentas y tuvo que recurrir al teatro lírico. Esta fue la causa de que escribiese óperas. Con Alfonso XII, en 1875, fue restaurada la Capilla Real y Eslava recuperó su título.

Además, Eslava cuenta en su haber el dirigir los primeros pasos del cantante Julián Gayarre.

Se puede considerar de digno reconocimiento al autor navarro, este merecido homenaje que le rinde *Musikaste 78.*

1978 - V - 15

EUSKAL MUSIKA ERAKUNDE BATEN INGURUAN

Euskal kulturak duen ajeetariko bat, hainbesteren artean, musikak behar duen erakunde eragilearena da. Musika, edonon eta edonoiz sartzen zaiguna da, eta honegatik doa gurekin, goazen lekuan goazela, lau haizetara eriden dugu eta gogoaren barneraino sartu arte jarraituko digu. Norbera jabetzeke, igarri gabe, kutsaturik uzten gaitu maiz entzuten dugun soinuak.

Musikak gure gogoa igarri gabean kutsatzeko ahalmena duenez, era berean gure barnearen hunkigarri denez, garrantzi handikoa zaigu bere eragina. Baita ere, beharrezkoa zaigu gai hontaz jakitun ez garenontzat nolabaiteko bideratze bat, zabalkundeak

ahalik eta egokien eramateko. Gustoak gusto, emaitzaren araberak zer ikusi handia bai du.

Gure herria, historian, bertan sortutakotik edo kanpotik hartutakotik gogoz hornitu da. Inoiz, herbestekoek, musikazale fama eman digute, baina eskoletan ez erakusteak gure sentipen ahalmenak ahulduaz datoz eta beharrezkoa zaigu gai hontaz ekintza berpiztea.

Edozein erakunde mugiarazteko, gaiari dagokion gizon zaletuak behar dira lehenbizi, diru laguntza bera baino lehenago. Dirua berriz itzuliko duten entrepresak edo industriak mugitzeko gizonak agertzen direnean, hauek erraz aurkitzen dute beharrezko diru laguntza kreditu baten bidez, dirua geituaz itzultzekoa denez. Baina kulturak ez du diruzko errentarik, bai ordea gogoarentzako errenta, eta ukatu ezinezkoa zaigu gogoaren errentak herriaren osasuna dakarrela, eta osasunak baino gehiago ez du ezer balio. Honegatik, politika on batek kultur gaiak bultzatzen ere gastatu beharra du, eta gure herriaren egoera honetan premia larrian gaude.

Besteak beste, azken urte hauetan errenderiarrak irakaspen ederrik eman digute musika kontuan, Andra Mari koruaren ingurutik sortu zen ekintzaz. Musikaste izan zen lehen antolakizuna eta ondorean, duela bizpahiru urte, Eresbil.

Eresbil, euskal musikagileen bildumaz artxibo handi bat osatzen ari diren elkargo hau zer den, oso ederki agertu digu José Luis Ansorenak, M. Lekuonaren omenezko idazki-bildumaren hirugarren tomoan. Lehen bi urteetan 15.000 doinuren partiturak bildu zituen. Hauetan milarenbat deitura agertzen dira.

Era guzietako doinu hauetan biltzen dira: a) garai guzietako musikagileenak; b) musika agertzen duten idazleenak; c) Euskal Herriarekin zer ikusi duten herbesteko musikagileenak. Gero, musikak eurak, sailketa berezirik gordetzen dira.

Hain egoki fitxaturik jarri duen artxibo hau, Eresbilek, Euskal Herri guziaren zerbitzuan jartzen du, eta posible zaigu edonorren eta edonoizko partitura edo berriak fotokopiaturik edo serokopiaturik lortzea. Honetarako, aurkibidezko zerrenda orokor bat multikopiaz eterea dute, XIV. mendetik hasita gure garaira artekoena.

Lehenagoko berririk ere badugu, baina, dirudianez, oraingoz beste iturri batzutatik lortu beharra izango dela, bereziki Higinio Anglés-en lanetan, «Historia de la música medieval en Navarra»-tik hasita. Baina historia zehar hemengo musikaren berri jakitzeko lanik egokiena J. A. Arana Martijaren «Música vasca» dugu, 1976an Musikastek bere ekintzen artean aurkeztua.

H. Anglés zena aipatzean, bere heriotzaren ondorean «Príncipe de Viana» Mintegiak 1973an argitaratu zuen «Las canciones del rey Teobaldo» liburuak aipamena merezi du. Alfonso X.aren «Cantigas» haiek baino lehentxoagokoak izatez aparte, Nafarroako erregeen kortean zer nolako musikak eta kantak erabiltzen zirenaren ezaugarri bai dugu.

Asmo handiak dituzte Errenderiko Andra Mari Koraleko eta koralaren inguruan biltzen diren gizonak. Asmo handiak eta onak, baina laguntzarik urri. Errenderiko Udalak laguntzen ditu, baina beste laguntzarik apenaz dute, Eresbilen zerbitzuak Euskal Herria ez ezik edonongoeri eskainiaz izanarren. Gure kultur erakundeak laguntze eta indartze orduan, inoiz edo behin bertako poltikoak kulturaz ere arduratzen direnean, musikari dagokion arloan gogoan izan beharko ditu Andra Mari koralarekin batean Musikaste eta Eresbil. Gai bati buruz ezer berririk sortzea baino hobea eta errazagoa bait da lehen duguna bultzatzea, batez ere langintzak era onez eramaten dakitenean, errenderiarrok erakutsi diguten bezala.

Gainera, beren asmoen arteko, Euskal Herriko musika artxiboak antolatzea eta behar bezala fitxak eratzea ere Eresbilen barne jarri dute. Jarri ez ezik, baita lanari ekin ere. Gure herrian garrantzi handikoak diren bi musika artxibo jarri dituzte ordenan, Norberto Almandoz-ena eta Arantzazukoa. Hemendik aurrera, gai hoietan ikertzaile direnak aukera hobeak izango dituzte beren lanak aurrera eramateko. Lehen, holako aukerarik, Lekarotzen Aita Donostiaren artxiboan edo bakarrik genuen, A. Jorge Riezuri esker. Orain, Eresbilen ekintzak aukerak ugarituko dizkigu. Baina, betor lehenbait lehen holako plangintza batek beharrezko duen laguntza ofiziala, herri zibilizatu normal batean ohi den bezala.

Musikastek 1973tik hain bikain eratzen dituen asterokoak os-

pe handia hartu badute ere, denborarekin emaitza hoberik ekar leiguke Eresbilek.

Idea arrazoitsuak agertu zituen Musikastek bere helburuetan, eta kemena ere agertzen du helburuok aurrera eramateko. Hala bedi. Izan ere, herri bateko musika, mundu osoko musika aberastasunaren atala da. Baina hori tokian tokiko musika haintzat hartuz bakarrik burutu daiteke.

* * *

La música de un pueblo está integrada por las obras de sus compositores, la versión que de ellas hacen los intérpretes y la expresión de su música popular. Así reza el ideario de Musikaste de Rentería.

Los componentes de la Coral Andra Mari de Rentería, después de haber creado en 1973 las semanas musicales de Musikaste, con enorme interés y espíritu de sacrificio han sabido potencializar otras actividades que han de trascender en nuestra historia contemporánea. Han transcurrido tres años desde la fundación de Eresbil (Archivo de Compositores Vascos), y hoy disponen de un fichero que abarca a un millar de compositores vascos, con más de quince mil partituras. Mantienen, además, estrecha relación con distintos archivos, y han participado en la ordenación y catalogación de otros archivos, como el de Norberto Almandoz y del Santuario de Aránzazu, por ejemplo. Y han establecido intercambio de materiales entre los mismos y otros de fuera y dentro del país.

De este modo, Eresbil, ofrece un archivo abierto al público, para prestar sus servicios. El material existente tiene diversas posibilidades de utilización: a) Estudio directo sobre las partituras y escritos en el local del archivo, sito en Rentería; b) Fotocopias de cuanto pueda interesar; c) Consultas al archivero de Eresbil sobre la diversidad de materiales y autores.

Los proyectos de Eresbil por la cultura musical van aún mucho más allá. Los miembros de la Coral Andra Mari, llevan relacionado y unido a sus actividades, Archivo musical, Curso Monográfico, Musikaste, Museo, Sala de Grabación, etc. Cuentan con

la inestimable colaboración del Ayuntamiento de Rentería, pero le es insuficiente para acelerar sobre los tan loables proyectos.

1978 - I - 16

V

HIZKUNTZA ETA LITERATURAZ

De Lengua y Literatura

IZTUETA ERROMANTIKOA (I)

Gure herri hontan, gauzak zehatz aztertu baino lehen eritziak agertzen oso zaleak gara. Honegatik, hor nonbait eta noizbait, era berritzeetan beti berandu ibili garela esan dutelako, uste osoa jarri dugu hortan. Berandu kristautu, berandu kulturaz jabetu, berandu hartu estilo berriztatzeak, berandu zibilizatu, berandu iratzartu..., dena berandu. Baina puntu bakoitza aztertzen badugu, ustea erdi ustela bihurtuko zaigu, eta Enziklopediak harpidedun geienak Penintsula aldean non zituen galdetzen baldin badugu: «Hiño! hori bai». Baina horrek bedorren inguruan zekarren Argien edo Argitasunaren mende hura. Beraz, hor beintzat ez hain atzeratuak. Erromantizismoa aztertzean ordea, berriz ere zalantzaz jarriko gara. Izatez, hau ezta Argien garaia, baina oraintsu nere eskuetara erori den liburu batek emango dit argia, Iztuetaren poesiak eskaintzen dizkigunez. Lehen lehenik ere adierazia nuen Iztueta folklore lanez erromantikoen artean aintzindarietan jartzekoa zela, Penintsulan behinik-pehin beste inor baino lehen hortan aritu zenez. Aritu ere, metodologia baten bidez aritu zen eta ezaugarri hori ezta lortzen beste gabe, heldutasunetik baizik.

Parte bakoitzari bere egia zor diogunez, berriz ere txalotu beharrean aurkitzen naiz Kardaberaz taldeak liburugintzan ematen ari dena. Azken boladako liburuetan Jose Garmendia Arruabarrena-ren «Iztueta'ren olerkiak» deritzana da. Eta olerki hoiek ditugu giputz jatorraren erromantikotasunaren lekuko.

Duela hamar urte argitara eman zigun Jose Garmendia berak «Obras inéditas de Iztueta» zeritzan liburu polita, Euskal-Herriko erromantizismoaren haserak ezagutzeko lagungarri dena. Txaho, Lapitze, Iparragirre eta Bilintx erromantikoen gailurrean jartzekoak baldin badira ere, ez ahaztu Etxahun zaharra, Barkoxekoa, eta Paulo Astarloa bera ere erromantikoak zirela, Europan zetorren giroak eraginik eta ez askok uste bezain berandu. «Gogoz»-en 244 orrialdean erabiltzen dut gai hau, baina oraindik gehiago sakondu beharra dugu. Dena dela, ohar hauek gogoan hartu beharko ditu gure literaturaren mugimenduak estudiatu nahi dituenak, eta ez arin arin gauzak esan, betiko topiko usteletan

eroriaz.

Herri batek, edozertariko mugimendu bat bideratu eta indartzeko behar beharrezkoak ditu bere instituzio jatorrak edukitzea, zeren hauek elkarretaratzen bai dute gizarte ororen loturazko elkartzea eta eskolaren bidez informatzen zabalkundea. Guri, behar bada, hau falta izan zaigu eta bakoitzak bere aldetik ahal izan duen erara bete izan ditu gizarte harremanok. Euskal kultur munduan, garai bakoitzean, bakoitza bere aldetik ahal bezala ibili dela esan dezakegu. Baina Jose Paulo Ulibarriren «Gutunliburua» irakurtzen baldin badugu, eta beste erromantiko bat dugu hau, laster ohartuko gara orduko euskaltzaleen artean, politiko eta kultur gizonen artean, inork uste baino harreman handiagoa zutela.

Erromantikoak seinalagarri dute herri poesia baliatzea (hitz-neurtuak esango zuen Iztuetak), aberria eta natura maitatzea, eta maitagarri dituzten gauza hauek kementsu gorestea. Etxahun alde batetik eta Iztueta bestetik, bakoitzak berari zegokion aldetik baliatu zuen bertsolaritza eta ordutikakoak ditugu arlo hontako lehen albisteak. Orduan agertzen zaigu lehen aldiz bertsolaritza aintzakotzat hartzea. Gainera, Iztuetak herri poesi horretatik hartuko zituen bere hitz-neurtuetarako arauak. Hara hemen arau eta idea beraren bidez erromantikotasunaren seinalagarri den bertso, bat adibidez:

Zure hizkuntz gozo ta
ohitura eztiak,
gordetzen dizkitzute
seme jakintiak:
galtzera utzi gabe
zearo guztiak,
hoen beharra badu
gure probintziak.

Gipuzkoako foruen atsegin leloak deitu bertsoetatik hartua da.

J. Garmendiak lan ederra bete du Iztuetaren hitz-neurtu guziak liburu batean biltzeaz. Lehen, hain sakabanaturik ziren olerkiotatik ez bai zen hain erraza behar bezalako abururik

ematea.

«Gipuzkoako probintziaren kondaira edo historia», 1847an argitaratu zen, egile zen Iztueta hil eta handik bi urtera. Hau berau liburu aberkoia dugu; aberkoitasunak eraginez egin bai zituen lehenago argitaratutako dantza eta doinuen liburuak ere. Neurri handi batean probintzian mugatzen du bere abertzaletasun hori, ikuspegi zabalago baten faltaz, eta hau ezta batere harritzekoa gure egun hoietan oraindik askorentzat hola delarik. Euskararen batasuean ezik beste gauza askotan ere nabari zaigu. Honegatik, ez harritu Iztuetak hortan galga estuak baldin bazituen.

Iztuetagan erromantiko jarrera nabarmen agertzen zaigu, oraindik orain ere gure herrian bertan nabari den erromantikotasuna, ase nahi eta ase ezinezko sentipenen egarriz. Behin baino gehiagotan esana dudan bezala, honegatik dute Iparragirren kantak oraindik ere gaurkotasuna. Iztuetarenak holako entzuterik izan ez badute, behar bada karlisten gerrate haietan erabili zirenak itzalperatu zituztelako da, baina ez guztiz. Bere gogoaren izpiritua, bere herriaganako ideiak, neurri handi batean bizirik daude. Esate baterako, har dezagun «Gipuzkoako dantzak» (1824) liburuaren bukaeraz eta euskararen gorazarrez egin zituen bertso haiek, «Euskerarekin euskaldunen atsegin-leloak» deitua J. Garmendiak 141. orrialdean jasotzen duena eta irakur dezagun Z. Andonegi mutrikuarraren «Aitorren hizkuntz zaharra», gure inguru hauetan hain sentipenez kantatzen dena, eta laster konturatuko gara Andonegik gure garai honetan gertatuak Iztuetaren bertso haietan dituela bere sustraiak. Elkarren parean aztertzen baditugu, ideia ez ezik, esaldi osoak, neurria bera eta poesiaren lotura orokorra Iztuetarenak dira. Hor ikus dezakegu, urteak igaro eta ura bere bidetik. Z. Andonegik, hitzak gaurkotzetik aparte aldakuntza guti egin zituen. Baina, honegatik ez uste Andonegirena plajiotzat har dezakegunik. Lehena gaurkotze hori maiz erabili da edonongo literaturan.

Erromantikoak dira, bestalde, Iztuetaren amodiozko hitz-neurtuak ere, eta hauetan eredugarri: Kontzeziri eta Amodioa zer dan. Amodioaren sublimatzea, goitiar jartzea, erromantikotasunaren seinaleak dira.

Jose Garmendiaren liburu honen ederra hor dago, lehen his-

toriaz eta folkloreaz hobeto ezagutzen genuen Iztueta orain poesiagintzan izan zuen dohaina ezagutaraztean.

Argitara berri den liburu honek Manuel Lekuonaren hitz-aurrea daroa. Hitzaurre jakingarria, arretaz irakurtzea merezi duena, zeren hemen ere Iztuetaren erromantikotasunaren adibideak agertzen bai dira; poesiaren guna, bere eragatik, euskal kantategi zaharrean eta bertsolaritzan ohi zen usario jatorretan oinarritzen baita. Hala erakusten digu Lekuonak.

Holako liburu batek gure laudoriorik onenak merezi ditu.

Gaurko artikulu hontan, liburu honetan oinarriturik, poesia erromantikoaren lekukotasunak soil soilik agertu nahi izan ditut. Honetarako, liburu hau, agiri bikaina denez. Urrengoan Hitz-laxo edo prosazko lekukotasunak agertuko ditugu, literaturan ez ezik dantzen bidezko ekintzan eta bilketan agertu zuenagatik. Eta hortik ikusiko dugu erromantikoen mugimendu hura ez zela hain berandu heldu gure Euskal Herrira.

Europako kultur mugimenduak gure literaturan izan duten eraginez tratatzen dut *Literaturaren inguruan* (1980) deritzan liburuaren lehen partean.

* * *

Entre nosotros está muy difundida la idea de que los distintos movimientos culturales nos han llegado tarde. Esta creencia se ha generalizado de tal manera, que ha deformado muchos aspectos de nuestra verdadera historia. Por esto, a veces, si analizamos las cosas, hallaremos contradicciones o pruebas que demuestran todo lo contrario.

Por ejemplo, si preguntamos cuántos suscritores tuvo la Enciclopedia en la Península y dónde se ubicaban éstos, nos sorprenderá conocer lo contrario a esa creencia general tan difundida. Es un hecho significativo, y tal vez la respuesta exacta la encontraremos en la «Historia de los Eterodoxos» de Menéndez y Pelayo.

El presente artículo, que tiene bastante que ver con la precedente exposición, analiza los aspectos poéticos de Iztueta, que junto con Pierre Topet, «Etxahun», fue uno de los precursores

del movimiento romántico a primeros del siglo pasado.

La reciente publicación de las poesías completas de Iztueta por José Garmendia Arruabarrena, nos permite situar al ilustre folklorísta y poeta zaldibiarra como a un adelantado del romanticismo del país, cuyos principales signos consistían en la exaltación libre de la fantasía y de los valores tradicionales, de la poesía popular, el mito de la antigüedad, sublimación patriótica, etcétera —influidos por el idealismo y como reacción a la cultura racionalista de la Ilustración— y que están presentes en toda la obra de Iztueta, tanto en verso como en prosa. Y que este sentir no era un caso aislado en Iztueta, como puede ser en Etxahun, está demostrado en el libro epistolar «Gutunliburua» del alavés Ulibarri.

El libro viene prologado por Manuel Lecuona, gran autoridad en la materia de la poesía popular, quien viene a demostrarnos el enraizamiento estructural de la poesía de Iztueta con la tradición popular del cancionero y bersolarismo.

1978 - X - 9

IZTUETA ERROMANTIKOA (II)

Iragan asteko artikuluan Juan Inazio Iztueta zaldibiarraren erromantikotasuna adierazi nuen, Jose Garmendiak argitaratu duen «Iztueta'ren olerkiak» liburuan oinarriturik. Argi dago erromantiko garaiko giroak piztu zuela Iztuetagan idealismo suharra. Europako kultur korrontak hemen bertako ekintzeri loturik ikertzean kontutan hartu beharrezkoa dugu.

Jose Garmendiaren bildumak honako aukera hau begien aurrean jarri badigu ere, herri xehearen kulturazko lanak hor zituen gure Iztuetak bere dantza, soinu zahar eta hitz-neurtu direlako bildumetan.

Erromantikotasunaren erakusgarri ditugu Iztuetak folklore arloan egin zituen bilketak. Honen berri eman nuen duela hamar urte, Iztuetaren sorturtearen berrehungarrena betetzeaz. J. Gar-

mendiak bere liburu horren bibliografian aipatzen dituen lanak (ikus, 182-183 orr.), eta ordukoari ildoz jarraituko natzaio.

Erromantizismoak berakin zekarren herriaren kultura baliatzea eta sistematikoki biltzea, eta Iztueta beste inor baino lehen ohartu zen hortaz eta bere lanari ekin zion. Garibai ea Oihenartek lehenago bildu zituzten zenbait herri kanta, Larramendiren «Coreografía» eta Mogelen «Peru Abarka»-k ohitura eta bizibideak, baina hoietan oraindik ez zen nabari erromantikoen kultur berritze mugimendua, bai ordea biltzaile eta sortzaile agertuko zen zaldibiar kementsuagan.

Thomas Percy-k piztu zuen Bretainia Handian herri kantak ez ezik ipui, ohitura, dantza eta abar jasotzeko gogoa, «Reliques of Ancient English Poetry» (1765) bilduma argitaratzeaz, eta laster zabaldu zen Europa erdialdera. William John Thoms-ek «Folklore» hitza sortu orduko (1846an izan zen), Iztuetak eginak zituen bere lanak. Izan ere, 1767an Zaldibian jaio zen euskal idazle hau 1845. urtean hil bai zen.

Zalantzarik gabe. Iztueta, erromantiko mugimendu harek bultzaturik egin zuen bere lana. Bestela ulerkaitza iduritzen zaigu historiako une berean ekintza hortara jotea. Lanerako erabili zuen metodologia eta bere izatezko poeta mindua ditugu lekuko.

Gainera, erromantikoa izateaz beste, folklore bilketan beste inor baino lehen aritu zen Penintsula partean. Bere lana euskaraz eman zuenez, historiagintzan jardun diren erdaldunak oraindik ez dira ohartu, eta oraindik orain ere R. Serra i Pagés eta J. T. Fernandes Braga, bata katalana eta bestea portugesa, jartzen dituzte lehen folklore biltzailetzat.

Iztuetaren bildumazko lehen liburua «Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira» izan zen, 1824an Donostian bertan argitaratua. Handik bi urtera eman zuen argitara «Gipuzkoako soiñu zahar eta hitz-neurtu»ena. Agintari eta elizaren aldetik kritika gogorrak jaso zituen, baina horraitiok, A. Pascual Iturriaga apez ernaniarra izan zuen bere alde.

Baina berak hasi zuen lan harek jarraitzaileak izan zituen, bertako seme eta herbestetik etorriekin. Xaho, Borrow, Fr. Michel eta Sallaberry. Eta erromantiko mugimenduaren gailurrean Jose Manterola bere «Cancionero Vasco» (1877-1878) sortarekin.

Musika eta dantzak hainako aberatsa edo aberatsagoa dugu ahozko literatura, kanta zaharrak bereziki. Biltzailerik ere izan dugu ondoko urteetan eta estudio sakonik ere egina da.

Folklore bilketaz eta poesiaz aparte, Gipuzkoako historia bat ere idatzi zuen, 1847. urtean Donostian argitaratua. Hastapenetan zenbait kondaira faltsu agertzen ditu, erromantiko giroak berakin zituenak noski. Baina ez zen joan Xaho bezain urruti. Honek sortu bai zuen Aitorren kondaira, Aitor euskaldunon sorrerako aitatzat jarriaz. Iztuetaren historiaren bigarren parte guzia eta hirugarrenaren zati bat, 25. orrialdetik 255.era bitartean probintziako bizitza eta ohiturak jasotzen ditu, etnografiarako berri baliagarriak, eta hau berau ere garaiko erromantikotasunaren lekuko dugu: artzantza, nekazaritza, ola zahar, kofradi erakudeak, estadistikak eta abar, lehen aldiz bertsolarien berriak ematera arte.

Liburuak idaztearekin bakarrik ez zen konformatu eta ber berak antolatutako dantza taldea ere bazuen. Heriotzako orduan ere bere mutilak (dantzariak) ondo portatu ote ziren kezkaturik omen zen.

Sorterriaren alderako idealak tinko eraman zituen, Iztuetak, hilarteraino.

Erromantikoen mugimendua ez zen berandu heldu, baina bai ordea berandura arte iraun. Gure herriak garaiz asetu ez zituen gogoaren eragina ote? Hala dirudi.

Iztuetaren idazkera ezta eredutzat hartzekoa, idazkera bizkorra izanagatik ere. Jose Garmendiaren bildumari esker, poesian lehen baino maila altuagoan jartzea merezi du, erromantikoen atarian ipiniaz. Bestalde, hitz-lauz idatzi zuenak gauzak adierazteko erabilkeraren balioa du. Hizkuntza praktiko baten bilaketazkoa da.

Iztueta autodidakta zen, ez ordea ikasi gabea, bai bere kabuz ikasia. Izan ere, berak erabili zituen gaiak ez bai ziren inon irakasten, eta hezkuntza nagusietan ari zirenek ez zuten herri xehearen kulturarik haintzat hartzen. Larramendi bezalakoren batek berekikoetan zerbait egitetik aparte, herri jakintza ez zen gai orduko ikastetxetan.

Ohitura zaharrez arduratu zen Estébanez Calderón-ekin eta Tolosako (Toulouse) Unibertsitatean irakasle zen Lécluse-kin izan

zituen harremanak ditugu Iztuetak eskuartean zeramazkien lan eta kezken adierazgarriak, berekiko hezikera, formazioa, neke askoren ondorioz zuela ikus dezakegu. Bere ondotik etorri zirenak, arestian aipatu ditudanak, biderik erdi egina aurkitu zuten. Baina, hala ere, Iztuetaren obra guzia oraindik ez dela zehatz aztertu, eta J. Garmendiak eta bestek, azken urteotan egin dituzten ikerketak argi urratse handiagoa dakarkigutela esan genezake.

* * *

Por su poesía idealista se le identifica a Juan Ignacio Iztueta en el umbral del movimiento romántico, y a la vez coincide como precursor del folklore vasco. Si bien, antes que él, Garibay, Oihenart, Larramendi y Moguel recopilaron diversos aspectos de las tradiciones populares y algunas canciones antiguas, fue Iztueta quien primero se dedicó a recoger sistemáticamente.

Hoy, es preciso reconsiderar el valor positivo que encierran las obras de Iztueta, principalmente para los estudios etnográficos y etnológicos. El fue el iniciador consciente de esta disciplina que un año después de su fallecimiento le bautizarían «Folklore», en un estudio publicado por William John Thoms, en «The Atheneum» de Londres en 1846, para poder distinguir de la ciencia arqueológica.

Influido por las nuevas corrientes europeas, pues de otra manera no se concibe esa cita cronológica en la historia, Iztueta se consagró en dicha disciplina. El era un autodidacta, pero téngase en cuenta que en su época no se impartían enseñanzas folklóricas y su mérito aún era mayor porque tuvo que estudiar sin ayuda de nadie y lograr crear una escuela. El preparó al maestro José Antonio Olano, fallecido en 1879, cuyos discípulos fueron a su vez Justo Irastorza y Lorenzo Pujana. Este fue el maestro de danza de la Academia de Danzas de San Sebastián, fundada en 1928.

Iztueta gozó de gran prestigio en el país. Sus recopilaciones folklóricas las escribió en vascuence, publicando una obra sobre danzas en 1824 y sobre melodías y poesía en 1826. A él le cabe el honor de adelantarse en dichos trabajos a R. Serra i Pagés y J. T. Fernandes Braga, catalán y portugués respectivamente, a

quienes se les considera iniciadores de estos temas en la Península según la obra en tres tomos «Folklore y costumbres de España» (Barcelona, 1931) de varios autores bajo la dirección de F. Carrera y Candi.

Pero Iztueta sí tuvo relaciones epistolares con personalidades del mundo cultural del país en aquella época, mas otros foráneos interesados en estos temas, como el profesor de Toulouse Lécluse y Estébanez Calderón, por ejemplo.

Su historia de Guipúzcoa, escrita con gran fervor patriótico, tal vez es más interesante por la información etnográfica que aporta en ella, prácticamente desde la página 25 hasta la 255.

Para todos quienes quieran estudiar la literatura, música y danzas populares del país, las obras de Iztueta son indispensables.

1978 - X - 16

Gai hotaz ikus «Iztueta, el precursor del folklore Vasco», La Gran Enciclopedia Vasca, tomo II, pág. 428. Bilbao, 1967.

TORIBIO IRIONDO ELGOIBARTARRA; «OGI ZERUTIK» ELIZ KANTAREN EGILEA

Toribio Iriondo Sasiain, inoiz izenordez «Irisasi» erabili zuena, bere bi deituren lehen parteak bat eginaz, euskal idazle guti ezaguna dugu. Guti ezaguna diot, bere izena zenbait lanetan aipatuarren bere lanik gehienak ez bai ziren ezagutzen. Lan sakabanatuok, inoiz izenordez eta urrengo ezertariko izenik gabe argitara emanak.

Urtetxoak dira Aita Frai Jose Antonio Ugarteren lan batetik ohartu nintzena Jaunartzeko erabiltzen den «Ogi zerutik» eliz-kanta polita T. Iriondorena zela, bai bertsoak eta bai musika ere. Liturji Batzordeak 1972an argitaratu zuen *Gora Jainkoa!* deritzan liburuan oraindik herri-kantatzat ikusteak harritu ninduen

eta bai hori eta bai beste zenbait eliz-kantari bere jabetasuna emateko ikerketa bati ekin nion, zenbait agiri bilduaz.

Egia esan, «Ogi zerutik» gaur egun herri-kanta ez denik ezin dugu esan. Erabilerak berak aitortzen digu. Baina herri-kantak, noizbait beren egileak izan zituzten, hoien izenen arraztoa galdurik eta maiz ahoz-aho zenbait era aldaturik heldu bazaizkigu ere. Nere azterketa haien frututzat aurkeztu nuen Euskaltzaindiko batzar batean, duela bi urte, Toribio Iriondo eta bere idazlaneri buruzko txostena, orain «Euskera» XXI (1976) aldizkariaren 115/122 orrialdeetan argitaratua dena. Bertan ematen ditudan xehetasunetan ez naiz sartuko, baizik nor zen eta zer lan egin zuenaren berri azal azaletik emango dut, egile honen berria zabaltzeko. Zehaztasun gehiago nahi duenak «Euskera» hortan ematen ditudan iturrietara jo beharko du.

Bataio agiriak dionez, Toribio Franzisko Iriondo Sasiain Elgoibarren jaio zen 1848ko apirilaren 16an. Apaiz egin zen eta bere apaizgoaren lehen partean Oriako Alegin egon zen. Garai hartakoak ditu bere lehen lanak, Tolosako Pedro Gurrutxagaren moldiztegian argitaratuak. Lehen lehena, *Jesus eta Mariaren billeracoentzat itz neurtuac*, Patrizio Orkaiztegirekin elkar lanean egina zen, 1881ean argitaratua eta G. Sorarrainen Katalogoan agertzen dena. Beste eliz liburuxka batzuk argitaratu zituen, inprimategi berean, 1889tik 1904ra bitartean, batzuk bere izenez eta beste batzuk izenik gabe, eta hauetakoa dugu *Misio Santuetaraco* 1893an argitaratu zuena, eta hemen eman zuen, nik dakidanez, lehen aldiz arestian aipatu dudan «Ogi zerutik».

Kanta osoak hamabi bertso eta errepika ditu. Aspalditik lau erabiltzen ziren eta azkenaldi hontan hiru besterik ez. Bizkaierara ere itzuli zen. A. Kandido Basaberen *Eleiz-liburuchua*-ren 1912ko argitalpenaren 173. orrialdean agertzen zaigu bizkaieraz.

T. Iriondoren beste eliz-kanta batzuk ere antzerako harrera izan zuten. Esate baterako, hala dira «Billerako alabak», «Agur erregiña», «Andre guztien artean bedeinkatuena» eta abar. Azken hau *El Libro de la Virgen* deritzan libururako hautatua izan zen. Liburu hau gazteleraz, katalanez, galegoz, portugaleraz eta euskarazko Andra Mari poesien antologia da, 1963an Madrid-en argitaratua.

SACRAMENTU CHIT SANTUBARI

ISTRIBILLOA. CORO.

ADAGIO

O gi ze rutik E to rri

ya Zu ze ra gu re Poz guz ti ya

RELIGIOSO DUO.

ALDIYAC

Bildots san tu ba A ra E men

mundu ko Gai tzak Ken tze a rren Sa gra ri

yo an Non da go en Lu rra ze ru az

Bat e gi ten Lu rra ze ru az Bat e gi ten

Ogi zerutik elizkantaren lehen argitalpena

Frai Jose Antonio Ugarte frantzizkotarrak 1900. urtean misioetarako argitaratu zuen liburuan «Ogi zerutik» kanta bertan sartzeko baimena eskatu zion Toribio Iriondori eta honegatik dakigu egilea nor zen. Orain, hau jakinik, laster konturatzen gara Andra Mariari egindako kanta haiek eta «Ogi zerutik» molde berekoak direla, bai euskararen aldetik eta bai poesiagintzaren aldetik. Gainera, kantok, aipatu ditugun lehen liburuxka hoietan elkarrekin agertzen dira.

Nik euskaraz irakurri nuen lehen liburua ez bazen, lehenengoetariko bat izan zen P. M. Urruzunoren *Ipuiak*, Iruñan 1930ean argitaratua. Liburu honek, bere sarreratzat, 1920, Pedro Migel Urruzunoren apaizgoaren urre-eztaietan, Toribiok eskaintzaz egin zizkion bertsoak dakarzki. Bertso hoiek egitetik bi urtera hil zen Elgoibarren bertan, 1922ko irailaren 19an.

Euskal idazle honek, bazuen Urruzunok eta beste askok haina meritu euskal literaturaren historietan eta bildumetan ez ezik baita elgoibartar ospetsuen artean sartzeko ere, baina bere apalasunak eraman zuen ixilpean izkutatzera.

B. Estornés Lasak eta A. Onaidiak aipatzen dute beren historietan, baina lanik gehienak ezagutu gabe ta holako kanten egilea zenik ere ohartu gabe. J. Bilbaoren Bibliografiaren laugarren tomoko 422. orrialdean aipatzen dira lan guti batzuk, bi liburuxkarenak eta 1881etik 1912ra bitartean «Euskal Erria» aldizkarian eman zituen lanena. Nere txostenean ere nekez bilduko nituen bere izkribu guziak, baina liburu eder bat hornitezeko haina lanen berri ematen dut.

Baina hori ez da guzia. Toribio Iriondo elgoibartarra Azkueren laguntzaileetariko bat ere izan zen, kantak eta ipuiak biltzen. Gehienak Elgoibarren bertan jasoak. Hala dira Azkueren *Cancionero popular vasco* tomoetan agertzen diren honako hauek: «Oy, bart!», «Aldapeko sagarraren...». «Logura naiz ta logale», «Gazte zoroaren...» eta «Peru gurea Londresen» hasten direnak. Horiez gainera, beste honako ipui hauek: «Alostorrea» eta «Zegamako bilindrinak», *Euskalerriaren Yakintza*-ren bigarren tomoan datozenak. Hoieri gehitu behar zaie beste ipui polit hau ere, «Billa joan eta gabe etorri», J. Bilbaok aipatutako obra beraren 423. orrialdean aipatzen duena, «Irisasi»rena bezala.

Lantxo honekin Toribio Iriondo ilunpetik ateratzen ahalegindu gara, aurrerantzean merezi duen tokia izan dezan, eta elgoibartarrentzat ohore izango da bere lan eta oroitza gogoangarria. Bakoitzari berea zor zaio.

* * *

Estaba pasando inapercibidamente el autor de la canción popular religiosa «Ogi zerutik», cuya pista me dio una obra del Padre franciscano Fray José Antonio Ugarte, publicada en 1900, quien pidió permiso a su autor el elgoibarrés Toribio Iriondo para la publicación en su libro, donde hizo constar la identidad del autor de la letra y música. La investigación que llevé a cabo, de este escritor éuskaro tan poco conocido, me dio como resultado la localización de la primera edición del librito en el que figura la mencionada canción, que salió a la luz en la imprenta de Gurruchaga de Tolosa en 1893, sin nombre de autor; además de otros libritos religiosos, comprobé que era autor de canciones y cuentos que fue publicando principalmente en la revista «Euskal Erria» entre los años 1881 y 1912, algunos bajo el seudónimo «Irisasi». Y que aparte de sus propias creaciones contribuyó recogiendo canciones y cuentos populares para R. M. de Azkue, tal como éste hizo constar en su *Cancionero popular vasco* y *Euskalerriaren Yakintza.*

T. Iriondo nació en Elgóibar el año 1848, vivió en Alegría de Oria en su primera época de sacerdote y más tarde en su villa natal, hasta su fallecimiento en 1922. Era muy amigo de P. M. Urruzuno, a quien compuso unos versos muy emotivos con ocasión de sus bodas de oro sacerdotales en 1920, y que habían de servir como introducción al primer libro de recopilación de sus cuentos humorísticos. La información detallada ha sido publicada en «Euskera» XXI (1976), páginas 115/122.

Dice mucho en favor de la calidad de la obra poética-religiosa de T. Iriondo el que su poema a la Virgen fuera seleccionado para formar *El Libro de la Virgen.* Antología Mariana Hispana e Iberoamericana de poesía y de pintura: Poesías castellanas, cata-

lanas, gallegas, vascas y portuguesas (Madrid, 1963).

1977 - VI - 6

JAN-EDANEN INGURUAN

Amaika aldiz entzun eta irakurri dugu, jan-edanetarako zaletasun eragabea dugula euskaldunok. Alegia, gehienok, tripazai eta Txanton Piperri batzuk baizik ez gerala. Inolaz ere, ahoberokeriak dira esamesa hauek. Baina, sua dagoan lekutik irteten bait-da kea, eta gerta liteke, apika, gure salo-edale-ospe gaizto honek irozkarrien batzuk izatea.

Hala zion Antonio Arrue adiskide zenak «Egan» aldizkarian Jan-edanak zeritzan sailari ekin zionean, 1954. urtean. Ordutik 1976an hil arte gogotik jarraitu zion sail horri.

Behar bada euskaldunak gustoetarako duen ahalmenaren neurrian aurkitu beharko dugu gure tripazai arrazoia. Baina P.T.C. analisi teknikoak urri ditugu eta aldez aurreko iritziak ematea ez zaigu gogoko.

Dena dela, gure sukaldariak maneatzen dituzten janariak fama zabala dute. Donostian inon baino janari egokiagoak aurkituko ditugu, baina herriz herri ere bada non aukera, batez ere itsas-hegaleko herrietan. Hita-ko Artzipresteak «*Libro del Buen Amor*»-en (1389an) goraipatu zituen Bermeoko bisiguak. Nik ez dakit orduko bisigu haiek nolakoak izango ziren, baina nere adiskide Barry Moy inglesa eta Biktor Kesber holandarra nekez ahantziko dira Oriko Xixarionean jan zuten bisigu erreaz. Geroztik, Stafford-etik datozten inglesegandik makinabat dei izan dut, Mr. Moy-ren gomendioz, bisigu erreen herria non den galdezka.

Idatzi ere, asko idatzi da Euskal-Herriko sukaldaritzaz. Hontaz A. Arrue zenak, ber berak eman zizkigun nahikoa berri, aipatu dudan lehen lan hartan. Gai hontaz nik neuk oso guti dakit, baina Arrue zenak 1954an jartzen zuen zerrenda luzeari, beste honako hauen lanak gehituko nizkioke: J. M. Busca Isusi, Adriana de Juaristi, J. Castillo eta A. M. Calera behinik-pehin. Bestalde,

Cofradía Vasca de Gastronomía delako Boletinak maiztasun gehia go behar zuen, gure herrietan aurkitzen dena bilduaz eta argitaratuaz jarraitzeko.

Gauza batek harritu ninduen A. Arrueren lan hartan, gazteleraz hainbeste sukaldari liburu argitaratua delarik, euskaraz bat besterik ez zela ezagutzen: «COCINAN ICASTECO LIBURUA chit bearra famili gucietan. Lendabicicoa euskeraz». Tolosako Eusebio Lopezenean argitaratua, 1889an. Hirurogeta hamarren bat jaki-prestaera dakarzki.

Baina, euskaraz idatzitako bakarra ote zen? Ez. Ez bakarra, ez eta ere lehenbizikoa. Euskal literatura aski urria delarik ere, bere historian holakorik maiz gertatu zaigu, lehendik ez zen ustean.

Jo dezagun lehenbiziko hori baino aintzinagokora, eta hogetabost urte lehenago, beraz, ez ahaztutzeko haina urte, beste honako hau aurkituko dugu: «ESCUALDUN COCINERA, ceinarekin nornahic cocina ona errechki eguin baiteçake». Baionako Cluzeau-renean argitaratua, 1864an.

Horra euskal-literaturan sarri gertatzen zaiguna, elkarren berririk gabe lan berdinean aritzea. Horrela gogoratzen dut hamar urte etorriko direla gasteiztar batek Biblia itzultzeaz egin zigun galdeaz. Haren ustez, edonongo hizkuntzak, bere literaturaren nortasunerako behar beharrezkoa zuen Testamentu Zaharra eta Berria itzultzea. Arrazoian faltarik ez zuen, baina zer izango zen haren harridura Leizarragak itzulia 1571rako argitaratua zela Testamentu Berria eta Duvoisin kapitainak euskaraturako Biblia Saindu osoa L. L. Bonapartek argitaratu zuela 1859. urtean. Horrez gainera, geroztiko beste zenbait aukeraren artean aurkitu zezakeala oraindik salgai bere hiritar zen Olabideren «Itun Zaar eta Berria», P. Etxeberriak 1958an argitara emana.

Egia esan, holako anekdoten historia ere biltzekoa litzake.

Gainera, sukaldaritzaz, joan zen mendeko bi liburuak aparte, ba zen euskaraz besterik ere. Hau ere harrigarri bada ere, Euskaltzaindiak bere sorreran jarri zuen lehen literatura sariketa Gastronomia gaiez izan zen eta gure egunotan ohorezko dugun Julene Azpeitia andrakumeak irabazi zuen, «Osasuna merketza ta yanaritzaz» liburutxoarekin, eta 1920. urtean Euskaltzaindiak be-



Untzillatx, Atxartetik. Abadiano (Bizkaia)

rak argitaratu zuen. Beraz, hor ziren, baten ordez hiru.

1957an, A. Arrue ber berak emango zigun, bere Jan-edanak sailean, honako berri hau: «Baionako *"Gazte"* deritzan aldizkari ernegarriak, azkeneko zenbakietan atal berri bat dakar. Sukalde-gaieri dagokiona. Ta gure atal honen izena ber-bera darama: *Jan-edanak*. Har beza bere zuzendariak gure agur maitekor bat.»

Bestalde, Donostiako Gordailuk, Irakasle Elkartearen eraginez gertatu dituen Ikastola Liturutegiaren Natur zientzia sailean 1975ean, «Edariak» eta «Janariak» ditu bere 4 eta 5 zenbakia daramaten liburuxkak. Jan-edan gaietan kontuan hartzekoak dira hauek ere.

Gai hau, euskaldun etxe guzietan beharrezko da eta liburugintzarako badugu Euskal-Herrian bertan nekez bukatuko den harrobi ederra. Zergatik ez landu? Arrue zenak 1954/1975 hogeitabat urtean «Egan» aldizkarian eman zuen Jan-edanak zeritzan sail beretik liburu ederra osatu dezake, bere kontaera humoretsu eta gatz-ozpinduaz, eta ahal delarik jakien zerrenda bat aurkibidetzat duela. Holako liburuen premia larrian gaude.

* * *

Se han escrito muchos tratados y manuales en torno a la cocina vasca. Su fama nos viene desde antiquísimo y el mismo Arcipreste de Hita en su «Libro del Buen Amor» (1389) elogiaba los besugos de Bermeo. Y las escelencias de este pescado las podemos saborear en nuestros días, mejor que en ninguna parte, en el pueblo pesquero de Orio. El amigo Gabriel Celaya, como hombre de buen gusto, sabe de las suculencias de nuestra cocina tan ponderada en su última obra «Buenos días, buenas noches», pero hasta con su buen decir le costará describir los besugos a la parrilla de los oriotarras.

Las propagandas turísticas de la provincia, tengo la impresión, de que no han sabido aprovechar en la medida que se merece su capacidad culinaria. Es verdad que mucho se ha escrito, pero tal vez ni se tiene suficiente información de los que se ha escrito ni entre los propios especialistas a temas de gastronomía. Nustro amigo Antonio Arrúe, que en paz descanse, mantuvo in-

interrumpidamente una sección de gastronomía en la revista euskara «Egan», desde 1954 hasta 1975. En su primer trabajo dio una información general de la bibliografía existente sobre el tema, con la referencia de un solo libro de cocina escrito en vascuence. Pero que yo sepa, existían dos manuales de cocina publicados en vascuence en el siglo pasado, el primero vio la luz en la imprenta de Cluzeau de Bayona en 1864, y el segundo en E. López de Tolosa en 1889.

Aunque parezca paradójico, el primer concurso literario convocado por la Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia, fue sobre tema gastronómico, y resultó ser ganador, nada menos que la escritora y actual miembro de honor, Juliana de Azpeitia, y la obra titulada «Osasuna merketza ta yanaritzaz» (sobre la salud y la economía alimenticia) fue publicada por la propia Academia el año 1920.

Aun así, es lamentable que en literatura en vascuence no se haya prodigado mucho más este tema. La revista «Gazte» de Bayona mantuvo una sección de *Jan-edanak* desde 1957. La editora Donostiarra «Gordailu», especializada en temas para ikastolas, en 1975 dio a la luz dos opúsculos: *Edariak* (bebidas) y *Janariak* (alimentos).

Pero la obra importante y de extraordinario valor literario, rica en información e intercalada con abundantes anécdotas, constituiría la recopilación completa de los artículos publicados en la revista «Egan» a lo largo de ventiún años por Antonio Arrúe. Un índice de materias mejoraría su manejo como manual de cocina, a la vez la elegante pluma del fallecido académico ofrecería una lectura muy amena hasta para el profano en temas de gastronomía.

La deseada recopilación ha llegado a publicarse bajo el título *Jan edanak,* precisamente por la C.A.P. en esta misma colección «Documento» en 1979, con un apéndice de conferencias en castellano sobre el mismo tema de gastronomía vasca.

1977 - VIII - 1

EUSKAL KLASIKOAK PLAZARATZEN

Euskaltzaindiak aspaldiko asmoa du euskal literaturako autore zaharren obrak argitaratzea eta laster astekotan da, «Bai euskarari» kanpainako diru laguntzari esker. Bere asmoa ezta klasiko izena erabiltzea, euskal literaturaren lekukoak baizik, eta argitaratzeko hitzaurrez eta oharrez egingo ditu, Akademia bati dagokionez. Honegatik, lan hau, hastetik burutzera luze joango da.

Euskal literatura zaharraren zabalkundea behar beharrezkoa dugu, autore zaharrak ezagutzetik literaturaren erak bizkortzeko eta hobetzeko behinikpehin.

Arlo honetan, Etxepare, Axular, Ohienart, Tartas, Kardaberaz, Munibe, Barrutia, Mogel, Iztueta, Iturriaga, Hiribarren, Duvoisin, Daskonagerre, Soroa eta beste zenbaiten lanak argitaratu dira azken urteotan, baina ez zen aski han-hemenka argitaletxeak bat edo beste autore zaharren lanak argitara ematea; alde hontatik agertzen den premia betetzeko zerbait gehiago behar zen, eta hara hemen non datorkigun Hordago. Sail berezi batean hamalau autoreren hamazazpi liburu argitaratu bai ditu.

Ekintza hau aurrera eramaten lanak izango ditu Hordago argitaldariak eta euskal irakurle guzion laguntza edo harpidetza beharko du, bide jator hontatik jarrai dezan. (Helbidea: Hordago, S. A. - Plaza de Gipuzkoa, 11 - 1.º Donostia).

Argitalpen hauek ez daramate ez hitzaurre eta ez ezertariko oharrik. Langintza hau Euskaltzaindiarentzat uztekotan edo nonbait. Eskuartean hain beharrezkoa genuen materiala soil soilik uztera dator, lehen edizioetako batetik faksimilez eginaz.

Hara hemen orainarte argitaratutako liburuak:

Lehen zenbakia Ziburuko Joanes Etxeberriren «Manual Devotionezcoa». Bigarren argitalpenetik faksimilez aterea. Hau da, 1669kotik eta ez 1627kotik. Garbiago ematearren edo lehenengoaren testu garbi eta osorik aurkitu ezagatik nonbait. Euskara aldetik lapurtar ederrean badago ere, garai hartako gizarte giroa ezagutzeko liburu interesgarria da.

Bigarena, Frai Bartolomeren «Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba», bizkaierarik jatorrenean idatzitako liburua, dantzak moralez epaitu nahirik hauen berriak

ematen dizkiguna.

Frai Juan Antonio Ubillosen «Cristau dotriñ berri-ecarlea», XVIII. mendeko gipuzkoar idazle hau, bere garaiko euskararen lekuko dugu, bere H ta guzi. Baina giputz euskalkiaren idazle eredugarria joan zen mendearen lehen parteko Agirre Asteasukoa dugu noski eta honen «Eracusaldiac» deitu obraren hiru tomoak ere bigarren aldiz argia ikustera heldu dira.

Kempis euskaratua, «Jesu-Christoren imitacionea», 1718an Xurio hil zelarik, idatzia utzi zuen lan hau eta Bordelen argitaratu zen 1720an, eta geroztik argitaraldi asko ezagutu ditu. Lehen lehengo Arambillaga eta Pouvreau-ek itzulia zuten Kempis, baina Xuriorena jotzen da itzulpenik hoberenentzat. Izan ere, ezta alperrik lapurtar euskalkiaren idazlerik bikainenetakoa.

M. de Royaumont-ek frantzezez jarritako «Testamentu zaharreco eta berrico historioa», Bernard Larregik euskaratua eta 1775ean argitaratua, ez zen erraz eskuratzeko liburua, ez horixe. Oraingoz Testamentu zaharra bakarrik publikatzen da. Nonbait, Lardizabal gipuzkoarra hemen oinarritu zen berea egitean. Bibliazalerik anitz bada, bibliofilo bere zentzu jatorra harturik jarraitzen dutenen artean, eta hauentzat, euskaltzaleentzat haina ez bada ere, liburu presiagarriak dira argitaratu dituen bi tomoak.

L. L. Bonapartek, harrigarria baderitzagu ere ,euskalkien berriemaileen artean, gipuzkerarako ere bizkaitar bat hautatu zuen: Aita Fr. Jose Antonio Uriarte, Biblia osoa gipuzkeraz jarri ziona. Gero, argitaratze orduan, Duvoisin-ek lapurteraz itzulia guzia argitaratu zuen, baina Uriartenetik Genesis, Exodo eta Levitico soilik, Londresen 1859an egin zuen argitalpenak 249 ale bakarrik zituen eta beste argitalpenik ez du ezagutu gaur arte.

Añibarro bizkaitarraren «Escu-liburua» dugu beste liburu bitxi bat. Baina, bitxienetakoa Frantzizko Lapitzeren «Bi saindu hescualdunen bizia», eleberri gisa egina. Erromantikoen garaikoa baita, Eta kontaera bikaina du, estilistika aldetik asko balio duena. Hau bai dela aisa irakurtzekoa.

Pascual Iturriagak 1842an, euskaraz eta erdaraz, eskoletarako argitaratu zituen elkarrizketak, L. L. Bonaparte printzearen eskariz, Uriarte, Duvoisin eta Intxauspek, bakoitzak bere euskaldira aldatu eta guzia argitaratu zuen Londresen 1857an, eta Euskal

LABORANTZAKO

LIBURUA,

EDO

BI AITA SEMEREN

SOLASAK LABORANTZAREN GAINEAN.

BAYONAN,

ANDRE LAMAIGNEREN MOLDIZTEGIAN.

Pont - Mayuko karrikan 39 numeroan.

1858.

J. Duvoisin kapitainak idatzi zuen liburua

-Esnaleak G. Mujikaren zuzendaritzapean eta Jolasak izenez 1814 an berriz argitaratu zuen, lau euskalkiz eta erdarazko itzulpenik gabe. Duela urte guti Auspoa liburutegiak berriz argitaratua, lehen lehenian oinarriturik eta Gregorio Mujikak eman zion tituluz. Orain berriz, printzearen Londresko argitalpena eskaintzen zaigu.

Bestalde, baita ere, Goihetxeren «Fableac edo aleguiac» eta Kardaberazen «Liburu ederra» J. P. Duvoisinek Lapurdiko euskarara itzulia. Baita ere lapurtar honen «Laborantzako liburua», gaiaren aldetik hain interesgarria dena, orduko nekazarien lanabes, teknika eta uztak ezagutzeko.

Eta, azkenik, Martin Duhalderen «Meditasioneak geipremiatsuen gainean» deritzana. Ale honek, lehen orrialdeetako batean J. P. Ulibarriren autografoa daroa. 1809an argitaratu zen liburu honek, euskara aberatsa edukitzeaz gainera, ortografiazko abantaila batzuk ditu *gi* eta *ge*, *gui* eta *gue*-ren ordez erabiltzean eta hasieretan *c*-ren ordez *z*. Horrezgainera *k* erabiltzen du gogortasun beharrez, baina hau XVII. mendearen lehen parteko Joanes Etxeberri Ziburukoaren liburuetan ere agertzen zaigu. K letrak Kardaberaz izan zuen etsai, gaur Kardaberaz taldekoak H-rena diren bezala.

Liburu hauek edonorren eskuetan jartzeak ames bat dirudi. Geroan etorriko dira azterketazko estudioak, baina orain hor ditugu, faksimilez soil soilik, literatura zaharra ezagutu nahi dutenentzat.

Argitaletxe honek bai jo digula bene benetan, Hordago!

Bat batean hamalau titulu argitaratzea, hauxe bai ez dela izan «debile principivm», eta, ondoren poliki bederen jarraitzen baldin badu, «melior fortvna seqvatur» gabe ere konformatu gindezke. Poliki poliki autore zaharretatik ehunen bat liburu argitaratzeko bidea egingo balu, bestelako giroa sortuko lukete gure literaturaren alderako. Honetarako, guzion harpidetza behar luke.

Oraingoz, Hordago-ren frutua, hor dago.

* * *

Ha sido una agradable sorpresa para todo euskarólogo la nue-

va colección «Euskal klasikoak», clásicos de la literatura vasca, que acaba de lanzar a la venta los primeros catorce títulos la nueva editora donostiarra Hordago. Obras en facsímil de las primeras ediciones. Bien presentadas, sin prólogo, ni introducción, ni nota alguna. Simplemente tal como en su día viera la luz cada una de ellas.

La Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia tiene proyectado y de hecho está ya trabajando para dar a la luz algunas de las principales obras antiguas, que ella con más propiedad titula «testimonios de la literatura», y no clásicos. Hay obras que merecen la categoría de clásicos, pero hay otras que no, y que sin embargo son dignas de tener en cuenta por su valor lingüístico o por el contenido temático. Las obras seleccionadas por la Academia saldrán con sendos estudios críticos. Pero la finalidad de Hordago no ha sido ésa, sino la de poner a disposición del lector euskaldun y de los estudiosos de la lengua, cada vez más numerosos, un material imprescindible y de difícil acceso, en ocasiones hasta imposible de localizar. Las obras hasta ahora presentadas son de autores de entre los siglos diecisiete y diecinueve: J. Etcheverry de Ciboure, Fr. Bartolomé, Ubillos, Aguirre de Asteasu, Chourio, Larreguy, Uriarte, Añibarro, Lapitze, Iturriaga, Goyhetche, Cardaveraz, Duvoisin y Duhalde.

Este esfuerzo editorial es un ¡Hórdago! a la grande. Y es conveniente la ayuda del lector euskaldun consciente de lo que esto supone, para que la empresa prosiga. Pues para un conocimiento regular de nuestra literatura del pasado, considero que nos son necesarias más de un centenar de obras reeditadas y de venta al público de obras de la línea de selección que ha tomado Hordago. Su difusión, en buen grado, favorecerá los estudios que tiene ya emprendidos Euskaltzaindia y dará nueva luz a libros hoy de difícil alcance en bibliotecas y archivos a veces lejos de nuestro país.

1978 - IX - 18

W. SHAKESPEARE EUSKARAZ

Euskaltzaleon mundua inork uste duen baino harrigarriagoa da. Gure artetik sortu izan dira txingurriak bezala isilean lan eta lan egin dutenak, aspertu gabeko ekintzan, ari eta ari, etsipendurik gabe. Askok eta askok gure hizkuntzaren hil ala bizia eztabaidatu duten artean eta beste askok euskarak ezertarako balio ote duen zalantza erabili duten artean, gela sokoetan seriozko lanari loturik jardun diren gizonak. Aritu ere, ez aste soil batzutan edo zenbait urtean, ez. Baizik anitz urtez edo bizi guzian. Asko izan bait dira euskararekin bizi guzirako konprometiturik eten gabeko langintzan aritu izan direnak. Gaur, horietariko etsenplu bat agerraraziko dugu. Adibide txalogarri bat, hizkuntzaren etorkizunezko ihardunetara jo gabe, euskarak bizitzeko behar dituen tresnak gertatuz. Bai. Holakorik badugu, eta holakoen artean langilerik bitxienak munduko literaturatik klasikorik berezienak euskaratzen ari direnak ditugu. Hauen artean ezin ahaz Benito Larrakoetxea arratiarra.

B. Larrakoetxeak urte askotako lana eraman du bere ardurapean William Shakespeare-ren antzerki lan guziak euskaratzen. Gure artean, holako lanak, argitaratzeka ere bere lanak ematen ditu eta Kardaberaz taldekoek zintzo burutu dute egintza hau, 1974tik 1976ra bitartean guziak argitaratzeaz.

Aintzinako klasikoetatik J. Zaitegik itzuli zituen Sopokel-enak eta Platon-enak bukatzen ari da; Virgilio-renak argitaratu zituen S. Onaindiak; Ovidio ostera, A. Ibiñagabetiak (azken bi hauek elkarren artean egin zituzten zati batzuk). Pizkunde garaitik honerakoen itzulpenak maizago egin dira, eta hauen artekoak ditugu Shakespeare-ren lanak.

Nik dakidanez, Toribio Altzaga izango zen Shakespeare-ren antzerkia itzuli zuenetatik lehenengoa. Hark euskaratu bai zuen *Macbeth*. Bingen Ametzaga izan zen, euskaldun berria izanarren, holako itzulpeneri zeharo lotu zena, eta itzuli ez ezik Buenos Aires-ko Ekin argitaratzaileak 1952an publikatu zuen *Hamlet*. Herbesteraturik eta gazterik hil zen euskaltzale borrokatu hau. Gazterik kultur lanerako, zeren 68 urte zituen eta euskara samur idaztera heldu bai zen. Bere hilburukoan *Macbeth, Julio Zesar*

eta *Udako gau bateko ametsa* eskuizkribuz euskaraturik utzi zituen. Bere euskara, kultur euskara zen; Azkueren teoriako gipuzkera osatutik aski hurbila eta gaur batasun biderantza ari direnetatik ez hain urruti. Inglesetik zuzenean itzuliak ziren. Ondo itzuliak, baina behar bada herri euskararen esaldi eta esaeraz urri. Itzultzaileak berak ere horrela aitortzen zidan elkarrekin izan genituen gutunen bidez.

Azken parte hau ez dagokio B. Larrakoetxeari. Honek, beronen neologismo ta guzi ere, arratiar kutsurik ez du ezkutatzen. Baina, ezta behar ere. zeren honek ematen bai dio bere idazkeraren gatza. Larrakoetxearen itzulpenean jatortasuna nabari da, hizkuntza erabiltzeko bizitasuna, eta hala behar ere antzerkien elkarrizketak kementsuak izango badira. Bere euskara, behar bada, gaurko euskara estandarizatutik zerbait urruti dago; baina bere barnetik daraman giharra ukatu ezinezkoa da. Inoiz somatzen da lehenagoko garbizaletasunaren kutsapenez hitz jatorragoak erabiltzera ez dela ausartzen. Jatorragoak esan nahi dut, edonondik hartua izanarren aspalditik euskarak bereganatuak dituenak. Eta, inoiz, hoiei ihesi galtzen du esaldiaren edo esanahiaren indarra. Baina, eskerrak bere barnetik daroan arratiar jatortasunari, aski ongi irtetzen daki olako itzulpenak berez dituzten korapillo larrietatik.

Honako itzulpen hauek eta nere joera ezagutzen duten gipuzkoar asko behar bada harrituko dira, hemen diodanagatik. Baina, hala da. Hala ere, neretzat gogozkoa izateak ez du esan nahi guzientzat berdin izan daitakeanik. Bakoitzak bere arrazoiak ditu, eta nik nereak.

Alde batetik Shakespeare beti izan dut gogoko eta bestetik haurtzaroan Arartian bizia naiz. Gerratean. Eta, han, bertako hizkerak hartu nituen. Gero, euskaltzaleturik, euskarazko liburuak irakurtzeari heldu nionean, eskuetara zetorkidan guzia irentsiz, a! zelako poza eraman nuen Legoaldik itzulitako *Grimm anayen ipuñak* irakurtzean. Nork esango zidan neri Grimm anaiak arratiar euskaraz irakurri behar nituenik? Eta, Legoaldiren izenpean, Alejandro Larrakoetxea, Benitoren anaia gordetzen zen. Orain, anaiagan, hark idazten duenaren era edo joera nabari dute beti gogoko izan dudan ingles idazlearen lanak.

B. Larrakotxeak itzulitako lanok bost liburu marduletan argitaratu dira: lehen bietan komedia guziak; hiru eta lau zenbakiak, egintzak, liburu batean datoz; eta bost eta seigarrenean odol-antzerkiak jasotzen dira.

Lanok, behar bada, euskara batuan hobe zirela? Hola izango da; baina hoiek hor daude inori zorrik ez diotela, urte askotako lanaren ekintzaz buruturik, eta azken batean hori da balio duena.

Bertako hiru antzerki aspaldi argitaratuak zituen egile honek. Esate baterako: *Macbeth* (1957), *Lear Errege* (1958) eta *Ekatxa* (1959) Euzko-gogoa aldizkarian agertuak, liburu bezala ere eman ziren.

Baina, geroztik, itzulpen lanok hor gelditu ziren loak harturik. Holako lanekin badakigu zer gertatzen den argitaratu ezik: galzorian jartzea.

Itzultzailea, bere garaiko gizona da, aspaldi adinean sartua, eta ez zaigu iduritzen holako lana urteak zehar eraman duen bati egungo joeretara makurtuarazterik. Bere lanari aspaldiko aburuz lotu zenak eta asmoak burutzera heldu, gure errespetuak irabaziak ditu. Egin duena gure literaturaren aberasgarri izango da eta gure literaturaren almazenean ezta ezer sobra.

Holako gizonak nekez ematen dira. Hogeigarren mende honetan, aintzinako kronika-gile haien bokaziorik urri da. Hoietakoa dugu, besteak beste, B. Larrakoetxea. Gizon txalogarriak. Garai bakoitzeko ezbehar guzien gainetik, gela zokoko isilean lan eta lan urteak zehar aritu direnak, gure hizkuntza idatziaren materialak prestatzen, ukorik egin gabe eta etsipenik hartu gabe. Gizon eredugarriak zuek, euskaragatik inork ezer guti emango zuen garai haietan zuen barne gogotik BAI EUSKARARI esanaz, tinko, bidez bide aritu zinenok. Orain, zuoi esker, gizaldi berriak oihukatzen du: BAI EUSKARARI.

* * *

Es asombroso que, mientras unos discutían la suerte de la lengua, si ésta puede morir o subsistir y otros discutían si el idioma éuskaro vale la pena mantener, unos pocos se dedicaban encerrados en sus mesas de trabajo dedicados a traducir las princi-

pales obras de la literatura clásica para que la vieja lengua dispusiera del material necesario para su desarrollo cultural.

Este es el caso, entre otros, de los trabajos realizados por A. Ibiñagabeitia, S. Onaindía y J. Zaitegui que vertieron al vascuence las obras clásicas de la antigüedad: Sófocles, Platón, Virgilio, Ovidio, etc. Pero la lista de los traductores de los autores modernos, desde el Renacimiento a nuestros días, aún es mucho mayor y entre éstos destaca Benito Larracoechea, que con su constancia de años, ha conseguido poner en euskera la obra teatral completa de W. Shakespeare. Entre 1957 y 1959 publicó en «Eozko-gogoa» las obras «Macbeth», «El rey Lear» y «La tempestad», y ahora han visto la luz las tragedias y comedias completas en cinco tomos que ha ido publicando el grupo Kardaberaz.

Su vascuence es básicamente de la variedad arratiana del dialecto vizcaíno, que puede resultar un tanto difícil para un guipuzcoano, pero es el resultado de la actitud tomada hace muchos años al comprometerse de por vida a dedicar todas sus horas libres a la traducción de un autor importante y, que para abordar su labor, no podía esperar a las normativas que luego vendrían. Por esto la labor de Larracoechea es merecedora de nuestro reconocimiento y admiración.

El es, entre otros, un adelantado, contra viento y marea, de los que hicieron suyo el clamor de BAI EUSKARARI (Sí al euskara) que hoy sale a la calle.

1978 - VI - 12

VICENTE ALEIXANDRE ETA
27garreneko belaunaldiaren eraginez

Pozgarria iduritu zaigu aurtengo Nobel saria Vicente Aleixandre-ri ematea, batez ere, saritzearen muinean, 27garreneko belaunaldi edo gizaldiaz gogoratuaz eman dutenez. Suezia-ko Akademiak bere politika jokatu du hemen, Espainia egoera berri baten aurrean ikusirik. Guk nahiago genuen sari hau lehenago etorri ba-

zen, bidezkoagoa ez ezik justuagoa ere izango zen... eta sueziar Akademiagandik joko garbiagoa ikusiko zen. Baina, hala ere, betor ordu onean.

Vicente Aleixandre Sevilla-n jaio zen, 1898an, baina bere haurtzarorik gehiena Málaga-n iragan zuen, eta hiri eta itsas-hegal honek bere poesian zer ikusi haudia du. Poesiarako etorriaren eta adiarazpenaren indarrak nabari ditu Aleixandre-ren obrak; kosmosarekiko elkartasuna lehen batean eta gizartearena gero, inguru hoien muinetik aritu da urteen buruan.

1928. urtea daroa bere lehen liburuak, *Ambito* deritzanak. Geroztik eten gabeko lana eraman du. 1960an, Madrid-eko Aguilar argital-etxeak eman zuen poesia guzien bilduma bat, Carlos Bousoño-ren hitzaurrez. Baina, nire ustez ez da ezagunegia izan, 27-garreneko beste asko bezala.

Izan ere, belaunaldi honen itzali nahia gogorra izan da. Baina, hala ere, ondo zabaldua jarri da bere eragina. Gaztelerazko literatura, lehen lehenago poesiaz hain aberatsa zena, urte askoan moteltasunean erorita egotetik salbatu zuen belaunaldi honek. Orain, beren eraginari esker, berriz ere poesia irakurtzen zen, konsideratzen zen, eta ez da guti. Ondorenez belaunaldi berriak, etorriko ziren. Eta euskal poesian ere igarri zen beren eragina.

27garreneko belaunaldi hontatik entzutetsuena Federico García Lorca zen, euren artetik bizkorrenetakoa, bai ideia berriak ekartzez eta baita ere irudimenez, bera eraman zuen heriotzak ere fama zabaldu zion. Aleixandre berak hala esango zuen ehortze honegatik:

¡Ah, ciegos hombres que banales marcháis
pisando un pecho! ¡Ah, ciegos, delirantes que un día
segasteis una vida poderosa! ¡Ah, espumas
instantáneas, ah, humanos sin mañana, ah, olvido!
¡Ah, corazón constante que, inmortal tú, retumbas!

Federico-z gainera beste izen batzuk ere hornitzen zuten talde eraginkor hura; hitzekin jolasean ari balira bezala literaturaren alorra eraberritu zutenen arteko: Jorge Guillén, Emilio Prados, Gerardo Diego, Rafael Alberti, Dámaso Alonso batibat, baita ere

barnean sartuaz taldeko zaharrena zen Pedro Salinas eta gazteena zen Luis Cernuda. Eta, azken gudatean, Federico García Lorca-k pagurik txarrena eraman bazuen ere, batzuk presondegia irabazi zuten eta gehienak herbesteetan barreiaturik ikusi ziren. Aleixandre-k Pedro Salinas-en heriotzari eskainitako poesian hala aitortu zuen: Denak irten ziren, denak batean une berean, bide desberdinetarako.

Baina batzuk ez ziren inoiz itzuliko. Herbesteko lurretan utzi zituzten beren hezurrak.

Belaunaldi hau, sinbolismo eren ondorenetatik errealitateari aurpegia emanaz lirika berria sortu zuen. Beren eraginaren kutsapenak gazteleratik harat ere joan ziren. Euskal literaturara ere bai zerbait. Bizkaitarretan Lauaxeta eta Sabin Muniategi ditugu lekuko. Baina, egia esan, Lauaxetak beste iturri batzuk ere bazituen. Izan ere, Lauaxeta, euskal poesia eraberritzearen zale zenez Europako korrenta berrietatik ibilia zen, Mallarmé-ren ondorengoetatik, Valéry-rengandik Ugaretti-ra arte behinikpehin, eta 27.-eko belaunaldikoak ere hortik ibiliak ziren, naiz eta ere, beren aitabitxiak Antonio Machado eta Juan Ramón Jiménez izan. Rubén Darío-netik ere zerbait bazuten eta behar bada Unamunorenik ere bai.

Aleixandre-ren Nobel saria 27.eko guzien ohorerako heldu da, guzien ohorerako baina Vicente Aleixandre ber berari ezer kentzeke.

Poeta honek, bere estudioak Deretxoa eta Komertzioa izan zituen eta gai hontan irakasle izana. 1934an orduan ezagutzen zen Literaturazko saririk handiena hartu zuen, *La destrucción o el amor* liburuagatik. 1950ean Real Academia Española-ko numeroko izendapena hartu zuen.

Hitz-lauzko liburuak ere idatziak ditu: *Mis encuentros, Nuevos encuentros* eta abar. Baina bere dohainik berezienak poesiaz agertu ditu. Arestian aipatutako *Poesías completas* (1960) delakotik aparte, nik dakidanik, *Poemas de la consumación* (1968) edo izanen da.

• • •

Trato sobre el recién galardonado con el Premio Nobel de Literatura 1977, Vicente Aleixandre, de la llamada Generación del 27 y la repercusión de esta generación en el mundo literario.

Vicente Aleixandre, miembro de la Real Academia Española, nació en Sevilla el año de 1898, y pasó casi toda su infancia en Málaga, ciudad y litoral mediterrános que tanto habían de influir en su poesía. En la gran generación lírica española del 27, Aleixandre se caracteriza por la grandeza de su concepción y la energía de su expresión, dentro de la vastedad y unidad de su mundo poético. Conciencia y sentimiento de solidaridad es el núcleo generador de su obra. Solidaridad con el cosmos en la parte primera; con el vivir humano, en el sector final.

Cuando la poesía se hallaba bastante decadente en España, la semilla de Antonio Machado y Juan Ramón Jiménez brotó en Pedro Salinas, Jorge Guillén, Federico García Lorca, Dámaso Alonso, Gerardo Diego, Rafael Alberti, Luis Cernuda y el propio Vicente Aleixandre, que marcan nuevos derroteros y se les conoce como la Generación del 27.

Los mismos influyeron al afán creacionista en generaciones venideras. Influencia que repercutió hasta más allá de las fronteras de la legua. Incluso en los poetas vizcaínos, de expresión éuskara, como Lauaxeta y S. Muniategui que a la vez iban mezclados en las corrientes espaciosas marcadas por Mallarmé hasta Valéry y Ugaretti.

Ha sido una sorpresa agradable el Premio Nobel en una persona de la Generación del 27, máxime cuando al saber que la Academia sueca, in mente, ha querido reconocer a toda la Generación del 27.

1977 - X - 17

G. ARESTIREN POEMAK

Azken hilabete hontan asko idatzi da Arestiz. Bi liburu handitan bere poemak argitaratzeaz, gure poeta diskutigarri baina han-

di honen hotsa zabaldu da Euskal Herrietan. Ez nuke esango denak ez direla izan bere obraren ongarri, baina, zalantzarik gabe, gure poeta hau lehen baino zutituago, lerdenago eta sakonago jarri da.

Kriselu argitaldariak berebiziko merituak irabazi ditu «Obra guztiak» izango den lanaren bi tomo mardulen bidez Gabriel Aresti zenaren poemarik gehienak argitaratzeaz. Poemarik gehienak, eta ez denak. Hasierako oharrean esaten denez, «garai zoriontsuagoen zai» gelditu dire beste zenbait poema; zentsuragatik nonbait. Baina horren beldurrik gabe argitaratzekoak ziren «Euzko-gogoa»ren lehen partean idatzi zituenetako asko, eta Europako literaturan moda azkarrez igaro zen absurdoz duela hamabiren bat urte egin zituen haiek ere bai. Ez dakit non izango diren ber berak irakurtzeko utzi zizkidan haietakoak. Garai hartako modaren saio bat zen, «Harri eta Herri»gandik laster idatzi zuena. Askoren poeta madarikatua bazen ere, garai hartan hura argitaratzera heldu bazen madarikatuagoa bihurtuko zen, bere buruaren kaldean.

Dena dela, argitaratu diren bi tomo hauetan agertzen da bere poemagintzaren mamia.

Ibon Sarasolaren hitzaurreak irakurleari argi asko ematen dio G. Arestiren poemak ulertzeko. Jon Juristiren ondoko hitza bera ere interesgarria da.

Hiritar poesiagintzan, hala gizarte hauziaz, Lauaxetak beste inork baino lehen idatzi zuen euskal literaturan. Baina hala ere, Aresti altxatzen zaigu era horren pioner. Lauaxetak, euskal literatura garaiko modetara eramateko era askotako saiaerak egin zituen, baina Arestik gogotik ekin zion bere barne muinetatik sentitzen zuenez, sufritzen zuenez.

G. Arestik, «Maldan behera» (1959) baino lehen ekin zion bere bide berezi bati. Bere izate-gogoak markatu zion olerkari bidea, eta inguruan sumatzen zuen girotik bere barne kezkatian egosirik irauliaz jardun zen. Holako gogoak bultzaturik zetorrenak adiarazpen tresnak hartu zituen eta lanerako jakintzaz hornitu zen. Ez zen bat batean sortutako poeta. Eta «Euzko-gogoa»ko Godalet-dantza (1954), bere hizlaxozko oharrez hor dugu lekuko, gure poetaren egunsentian. Shakespeare-ren hamalaukoak emango

zion bertsoak taxuratzeko irakaspena, Krutwig-ek kultur euskararen egarria piztuko zion eta J. Mirandek hizkuntza libreagoarekin hitzen balioa agertu.

I. Sarasolak argitasun anitz eman badigu ere, sakonago aztertu nahi duenak, Godalet-dantza deitu iturburuetara jo beharko du.

Gabriel ez dakit zerk eraman zuen bere poesi tresnatzat euskara hartzera. Gazteleraz errazago zuen, gurasoegandikako hizkuntza zuenez. Baina hau argitzeko ere kaku anitz badugu bere poemagintaren barna. Mespresiaturik, bazterturik, marjinaturik dagoenaren alde maiz, maizegi edo kazik beti, agertuko zaigu. Marjinazio horrekin bat eginik aurkituko dugu, bere buru marjinatuaz oinaze mingotsak leporatuaz. Gure herri honen egoera lazgarriaren bidegurutzean noraezean, eta era berean gure gizon izatearen esistentzia larriaren aurrean. Gainera, ber berak zionez, «Bilbao deritzan infernu honetan...». Prolema larrietatik irten ezinik. Izatea bera ere aski problematikoa aurkitzen zuelarik, ez da gauza erraza irten biderik aurkitzea. Holakoa zuen poetak izatearen malura. Besterik eskatzea, alperrikakoa zen.

Ibonek, bere hitzaurre jakingarri hortan, gizandien eroritze eta ehortzez Arestik zeraman larri-mina agertuko digu «Maldan behera»ri egiten dizkion aburuz. Gero, baita ere, bide urratze haiek utzirik eta gizon zapalduekin bere burua bat eginik, justiziaren aldeko borrokara jotzen, hizkuntza gihartsu eta zuzenago batekin. Bertako esaldi eta humanismoak, 1963an, benetan liluratu ninduan, eta «Maldan behera» deritzanari ezer kentzeke, «Harri eta Herri» goraipatu nuen eta dut. Nik orduan esan nuenaren haina Mikel Lasak bere iritzietan agertuko zuenagatik. Honegatik gaur, euskara edozeinentzako tresna dugu. Honekin ez dut esan nahi gizon bakar baten eragina zenik eta gizon hori G. Aresti zenik. Baizik, giro baten inguruko seme eta inguru horren adierazpengarriena berau delako.

G. Aresti poeta handiaren bi era nagusiak ordea, hor aurkitu genezazke, «Maldan berera» eta «Harri eta Herri» liburuetan. Hala ere, gainerako guzia ez da baztergarri, ezta gutiagorik ere. Ondorengoak bigarrenaren jarraipenez datoz, eta azken poemetan, «Azken Harria» deritzanetan, gora behera handiak nabarituko ditugu, maizegi minkor eta irainkor. Hilobira eramango zuen

gaixoaldiaren lekuko.

Batzuegandik entzuna dut bere poemagintzaren topea jo zuela. Nik ez dut holakorik uste. Oraindik gazte zen, sortzaile ahalmenen jabe gainera, eta denborarekin aurkituko zuen bide berririk ekintza berri baten barna, beste poeta askorekin gertatu izan den bezala. Hori bai, aitortu beharrezkoa deritzat, bere azken poemak ez zirela 1958/1964 urteetan egin zituenen mailakoak.

Arestiren poesiak askok uste baino erresuma zabalagoak hartzen ditu, gizonaren esistentziaren larriminezko kezkatik gizarte auziak zehar gizon apal eta langileriaren eskubideen borrokara artekoak. Izatearen gogoetazkoak ez dute izan gizarte borrokakoak hainako harrerarik, gizonok barne-gogoetazko saioeri gutiegi emanak garenez, baina Aresti sakonki aztertu nahi duenak bi eratako munduok gogoan izan beharko ditu. Sarasolak aski ongi erakutsi digu hau, eta oraindik ere zirrikitu asko, ilunbeetan ere argi mehar asko eta sigilurik ere anitz dugu Arestiren poemetan zehar.

Berekiko kontradizioak izango zituen, baina besteentzat ere kontradiziorik aski utzi du. Poeta euskalduna erdaraz isilpeko paperen bidez salatzen zuten «abertzale» haietaz hobe dut hitzik ez egin. Baina bai aitortu behar dut kanta-berrigintza bere poesiak bultzatu zutela. Baina kanta berrietan ere, maiz, borrokazko kantak soilik hartzen dituztela, bestelakorik ez balu bezala. Eskergarria da G. Arestiren omenez Oskorrik atera duen LP diska, doinuz oso ongi jantzia eta N. de Felipek ederki kantatua. Baina hemen ere joera batekoak soilik hautatu dituzte.

Kontradizioak berriz, gure herrian bizirik dauden errealitatea besterik ez dira. Har poetaren muinetik, azaleko gauzak alboratuaz.

* * *

De nuevo está siendo muy comentada la obra poética de Gabriel Aresti, a raiz de la publicación de los dos primeros tomos de sus «Obras completas».

Con un extraordinario prólogo de I. Sarasola, los dos tomos abarcan la casi totalidad de la obra poética, que se ha dado a la

luz en binlingüe por la editorial Kriselu de San Sebastián. La mayoría de las traducciones al castellano son del propio autor, malogrado en la plenitud de su carrera literaria, y otras se deben a Jon Juaristi, que además se ocupó del epílogo.

De la publicación se deduce la variedad y amplitud de estilo y temática de la obra del poeta, desde la angustia existencial a la lucha de clases, desarrolló toda una línea de poesía social y urbana, sujeta a las inquietudes cotidianas de la problemática vasca. Las contradicciones existentes en la obra, tanto en lo existencial como en lo social, no son ni más ni menos que las contradicciones derivadas de la propia realidad existente en nuestro país.

1977 - II - 14

USTEAK USTE DIRENEAN

Usteak uste direnean azterketa eskatzen dute, eta urrutitik eta era askotara badatoz argi asko eskatzen dute egiaren barnea ikus ahal izteko. Epe labur batean bi aldiz aurkitu dut noizpehinka erabiltzen den leloa eta argi zirriztu bat eman nahi nuke honako uste hauei buruz: Euskara garbia eta euskaldunaren mututasuna.

Hil honen 13ko «El Diario Vasco»n Elías Ruiz Ceberio-ren artikulu polit bat irakurri nuen G. Arestiren poesiari buruz. Euskal literaturara lordinkeriak agertzeaz ari zen eta aspaldiko uste haiek berritzen edo gogoratzen zituen. Menéndez y Pelayo-k Samaniegori buruz esan zuen «la honrada poesía vascongada» Ruiz Ceberio ber-berak baztertzen du geroztik argitaratu ziren maitasun alegiak lekuko. Migel Unamunok ere, uste berekoa zenez, euskal poesiak beharrezko zuela «deshonrarla». Esan nahi horrekin hizkuntza gordina erabiltzea adiarazi nahi zen, naiz birao edo naiz lizun, erabili beharrak hala eskatzen baldin bazuen.

Egia da Arestik hizkuntza gordina erabili zuela, lordinaren beldurrik gabea, eta indartsu erabili ere. Baina baita ere egia da

Unamunok, inoiz euskaraz idatzi bazuen ere, ez Etxepare eta ez Etxahun ez zituela irakurri, ez eta ere herri literatura ezagutu. Bestela ezinezkoa zuen esaldi hoiek beste gabe erabiltzea.

Bestalde, «resucitar un megatorio es más fácil que resucitar el vascuence como lengua histórica y de cultura» esateaz, nonbait ahaztu zen latinari gertatuaz eta joan zen mendearen erdialdetik Europan hainbeste hizkuntzak izan zuten berpizkundeaz.

Baina harrigarriagorik eta ilunagorik bada. Tirso de Molina-k idatzi zuen gure leporako: «Corto en palabras, pero en obras largo», gure esaera zaharraren kideko, «hitzetan lander, eginetan eder». Baina esan nahi honen alderdiak ez dira berdinak.

Mikel Zaratek berriro gogoratu digu *Euskal Literatura* deritzan liburuaren hitzaurrean Ortega y Gasset-ek Zubiaurretarrei buruz ari zelarik esan zuena: «Ser vasco es, sin más, una renuncia nativa a la expresión verbal». Mikel Zarate, Lizardi, Mitxelena, Intxausti... eta bere bertsoak lagun, esaldi hoien aurrez aurre jartzen da edo jarkitzen da.

Guk, gure apaltasunetik, badakigu gizon handiak ere epelkeriak eta txotxolokeriak esaten dituztela. Gainera, askoz txarragoak dira aintzinagoko esaldi ilunagoetatik nolabait hartuak baldin badira. Nolabait hartuak diot, zeren aintzinagokoak nola eta zergatik erabili zuten aztertu beharra bai dugu.

Cervantes-ek, esate baterako, Antso Azpeitiakoa (Quij., I, 8) jartzen du gaztelera traketsez mintzatzen, bere humorea galdu gabe, antzerako humorez agertuko du *La Gran Sultana-n* ere Cadí eta Madrigal-en arteko elkarrizketa, honek, adarrajoaz, elefante bati euskaraz («En vizcaína») irakasten ari zela, esaten dionean. Baina Cervantes gizon zuhurra zen eta ez zen lerratuko beste «jakitun» horiek bezala. Bazekien hizkuntza bakoitzak zer balio zuen mintzatzen zen herriarentzat. Eta, bere denboran, kultur mailetan oraindik hain beharrezko uste zen latin giroari erantzunez esango du: «Homero no escribió en latín, porque era griego; ni Virgilio escribió en griego, porque era latino. En resolución: todos los poetas antiguos escribieron en la lengua que mamaron en la leche, y no fueron a buscar las extranjeras para declarar la alteza de sus conceptos; y siendo esto así, razón sería se extendiese esta costumbre por todas las naciones, y que no se deses-

timase el poeta alemán porque escribe en su lengua, ni el castellano, ni aun el vizcaíno que escribe en la suya» (Quij., II, 16).

Orotarik esana da gure hizkuntzaren inguruan, bai ohorez eta bai irainez. Baina herriaren nortasunari eutsi nahi diogunok jaramon gutiago egitea komeni zaigu. Hobeagoa eta txarragoaren gainetik, geurea dugu, eta geurea dugun aldetik herri nortasunaren galga markatzen diguna.

Euskaldunaren mututasuna eta mintzatzeko trakestasuna, aintzinako haientzat, aski argi dago gazteleraz mintzatzerakoan zela eta ez euskaraz mintzatzean. Askoren harridura, aitonen semeak Gorteetan erabiltzen ez zen mintzairaz jardutzea zen, eta hainbeste izkribadu gora behera, Gorteko mintzairak hain gaizki jardutzea. Eta, garai hartan, kultur hizkuntza, Gorteko hizkuntza zen. Honegatik, Camoes-ek ere aitortuko zuen jatorri noblezakoa baina arrazoi lehunik gabea, erromantzez aritzean behinik behin:

A gente Biscainha, que carece
De polidas razões, e que as injúrias
Muito mal dos estranhos compadece.

Esaera lehunik gabeko bizkaitar gentea ginen; arrotz, arrotzentzat.

Baita ere, garai hartan, maiz esaten zen gure hizkuntzak ez zuela bertsogintzarako dohainik, kontsonanteak urri zituelako, baina gure egunotan harritzen dire gure bertsolariak bat batekoan nola ari diren bertsogintzan, puntuak osatzeko eragozpenik gabe.

Lehengo uste haiek behar bezala ulertzeka, hara hor oraingo «jakitunak» nola erortzen diren arinkerietan. Baina, euskaldunok, bai orduan eta bai orain, erraz uler genezakean bezala, erdaraz ongi mintzatzen ez baginen ere, horrek ez du esan nahi euskaraz ongi mintzatzerik ez dugunik; Cervantes-ek Kixotearen bigarren partean ongi zion bezala, bakoitzak berean egiten du onduen.

Azken batean, esaera lehunak ez ezik, lizunak eta zikinak ere edozein hizkuntzak erabiltzen ditu. Pentsaerak eta sentipenak eskatuala hornitu beharra bai du literaturak, eta hala aitortzen zi-

gun Piarres Lafitte berak «Gazte bati, Literaturaz» egin gutunean (*Hegatsez*, Hitz-lauzko bilduma, 1971).

Arrazoi bideko kritikak gailentzen diren Europan ordua dugu ganorarik gabeko usteak baztertzekoa, eta hontarako zentzunez jokatu beharra dugu, bai etxekoek eta bai kanpokoek.

* * *

Días pasados nos recordaba Elías Ruiz Ceberio, a través de un artículo que comentaba la poesía de Gabriel Aresti, aquellas frases de Menéndez y Pelayo y de Miguel de Unamuno acerca de la «honrada poesía vascongada» y la necesidad que veía el segundo en «deshonrarla». Don Miguel no leyó a Detchepare ni a Etchahun, y desconocía la literatura popular vasca. Pues de lo contrario hubiera encontrado una buena muestra en contradicción a lo que afirmaba.

Esas creencias han mantenido los que han visto desde fuera nuestra lengua y nuestra literatura, pero no pueden pensar lo mismo los que hayan leído el «Esbozo crítico, con textos de Literatura éuscara profana» (1965), del Dr. Angel Irigaray.

Por otra parte, hay quien piensa aún en aquella disparatada frase de Ortega y Gasset, que el «Ser vasco es, sin más, una renuncia nativa a la expresión verbal».

Otra cosa es lo que opinaron los clásicos castellanos y no castellanos, como Camões, por ejemplo, quien en el canto IV de su *Os Lusíadas* emite la idea de que la gente vizcaína «carece de polidas razões». Es válida para los euskaldunes al expresar en otras lenguas, como bien claramente observaremos al analizar los textos de Cervantes, quien solicita a los «vizcaínos» que hagan poesía en su propia lengua.

Está claro que los clásicos juzgaban la falta de expresividad de los vascos desde otro ángulo, conscientes en la dificultad que entrañaba una segunda lengua; pero éste no es el caso de los contemporáneos, nuestro Unamuno inclusive, que no ahondaron el asunto e interpretaron superficialmente cuanto dijeron los clásicos.

Algo de esto ocurre también a cuantos abrigan la creencia

de que en vascuence casi es imposible emitir blasfemias. Pero los que se internan en la propia lengua se convencerán de que en la misma, al igual que en otras, el hombre encontrará cuanto necesite para expresar sus pensamientos y sus sentimientos, como cosa muy natural.

1977 - IV - 18

MAITASUNETIK LIZUNTASUNERA

Joan zen asteko artikuluan agertzen nuen bezala, anitz dire oraindik euskal literaturan birao eta zikinkeriarik ez den ustean. Informaziorik ezak zabaldu ditu holako usteak. Badakigu euskal literatura elizkoiak gehiago landu dutela, baina bestelakorik ere bada, Irigarayk «Esbozo bio-bibliográfico de Literatura éuskara profana. (Del siglo XV al XX)», deitu lanean adiarazi zigun bezala. Ikus «Príncipe de Viana» aldizkariaren 98/99 zenbakia (1965). Baina horiez gainera bada porno erakorik ere.

Adibidez, euskaraz inprimatu zen lehen liburu berean, 1945ean, Etxeparek emakumezkoaren maitasuna kantatzen duelarik, bertso eder asko eskaini zizkigun. «Emazten fabore» deritzan poesiaren azkenaldean honako bertso hauek agertu zituen:

Munduan ezta gauzarik hain eder ez plazentik,
Nola emaztia gizonaren petik buluzkorririk;
Beso biak zabaldurik dago errendaturik,
Gizon horrek dagiela hartaz nahi duenik.

Io badeza dardoaz ere gorputzaren erditik,
Ainguriak bano oboro ez larrake gaizkirik;
Bana dardoa ematurik, zauri ere sendoturik,
Bere graziaz ezartein'tu elgarreki baketurik.

Etxepare apaiza, zen, Hita-ko Arziprestea bezala, Trentoko Kontsilio aurretikoa eta gai horiek libreago erabiltzeko eskubi-

dea izan zutenetakoa. Baina geroztik ere gordinkeriarik aski idatzi da euskal literaturan. Gordinkeriak ez ezik baita zikinkeriak ere. Eta, hontan, Etxahun ez dugu izan bakarra.

Gure egunotan J. Mirandek «Igela» aldizkarian idatziak oso ausartak izan ziren, eta bere eleberria, *Haur besoetakoa* euskaraz ezagutzen den lizuzena noski. Baina Mirande aparteko kaso bat zela aitortu behar dugu, eta honegatik hain zuzen, ez zen gure artean ongi ikusia. Eta, Miranderen baitan Paris-korik haina Zuberoako kutsurik bazela esango genuke. Xaribari eta Xikitoak hangoak bai dire, eta bertako molde joera dute *Orhoituz* poema liburuko askok. Eta herri kanta horietan maitasunari buruzkoa maizenik eztiki erabiltzen bada ere, inoiz gordintasunik ere etzaie falta. Hara hemen Zuberoako bi bertso:

Neskatila ejerrak abisa zitaie
Gaiazko bidajiak lanjerus dirade:
Zizañak sabelpetik lotzen bazaitzie
Bedatsian bidaküriak jelkiren zaitzie.

Ikusten dudanian maitearen aztala
jartzen zait büztana adarra bezala,
ondula lodi da, moskula gorri da,
Inbeia dü ziloa satorrak bezala.

Euskal-Herriaren beste muturrean, Bizkaiko panderojotzaileak erabiltzen dituzte era horietako bertsoak. Hoiegandik entzunak guk geuk ere mutikotatik ezagutzen ditugu holakoak:

Iñork eskatzen ez ta eskaintzeko lotsa,
alperrik galtzen dauka bere santu motza.
Ai, oi, ai! bere santu motza.

Mari tranposa Mendigoittiko,
badozu milla grazia;
mutil gaztiak engaiñatutzen
gaztetatikan hasia.

Eibarko neskatillak
titi biribillak;
handik beheratxuago,
saiatu mutillak.

Hoiek gainera nahikoa lehunak dira. Gordinagoak eta lizunagoak ere badira. Baina komuneko gauza zikinak jan-gelara eta senar-emazte gelakoak plazara ateratzea ezta itxura. Honegatik lotsatzen gara lizunagoak hemen agertzera; itsusi baita. Hemendik ulertuko du irakurleak gu holakoen lotsaz bagara, ez dela harrigarria kanta zaharren bilketan aritu izan direnak ere holako ahalkeak izan diteztela. Hare gehiago biltzailerik handienak apaizak izan direnezkero. Gainera, kontatzaileak ere, hoiei zien errespetuagatik isilarazi izan ditu era horietakoak.

Hemen, gaurkoan, askoren usteen kontra lekukotasunaren adibidezko muestra batzuk bildu ditugu. Hala ere, esan beharra dut, pikarezka lehunagoa maizago erabili izan dela. Gauzak bere gordintasunean agertu gabe, esan nahiaz adiaraziz. Esate baterako, honako beste bertso honen antzerakoak:

Urkiola gaiñeko
paguan azpian,
akordatzen al zara
zer egin genduan?

Edo beste honako hauen erakoak:

Ederra zaran bezain
baziña sekreta;
sarriago joko nuke
leihoko krisketa.

Arrosaren pareko
kolorearekin,
zeiñek ete dauko
fortuna zurekin.

Estilo horietan intentzio hutsak airean uzten dira, nahi duenak nahi duen eran har dezan. Eta hoietakoak ugari aurkitzen dira gure herri literaturan. Ez dira izango gure literaturaren agergarririk hoberena, baina hoiek ere hor daude, beste edozein herrik bezala, Unamuno, Ortega y Gasset eta orainagoko batzuen usteak ustel direla salatzeko haina.

* * *

Continuando a cuanto expuse en mi artículo anterior y al objeto de desterrar las falsas suposiciones en el sentido de que en vascuence no es posible emitir obscenidades y al mismo tiempo demostrar la existencia de una literatura, tanto en la culta como en la popular, de materiales impuros, en «deshonra», que van más allá del género picaresco, en lo obsceno y hasta en lo pornográfico, y que por lo visto tan necesario consideró don Miguel de Unamuno, pero que sin duda él ignoró.

Entre las buenas muestras contamos con el primer libro impreso en euskera, en 1545, por Detchepare, en el que pueden leer las alabanzas a la mujer, describiendo incluso los placeres de la manera más cruda que uno se pueda imaginar.

De entre los contemporáneos son otra buena muestra las obras de Jon Mirande. Pero mucho más aún encontraremos en la literatura popular, de la que transcribo una pequeña muestra de los puntos extremos de la geografía vascófona, de Soule y de Vizcaya. Y que no he querido ir más allá por respeto al público lector.

En fin, entre la serie de disparates emitidos en torno al vascuence está también el de no disponer de suficientes consonancias para el desarrollo de la poesía, cuando hoy resulta ser una de las pocas lenguas del mundo en la que se puedan improvisar los versos, cuyo exponente son los bertsolaris.

1977 - IV - 25

EUSKAL POESIA BERE BIDEAN

Uhin-berri-kin egin nuen aurkezpenaren ondotik, poesiaz guti ahalegindu banaiz ere, euskal poesia bere bidetik ari da. Azken urte hoietan, behar bada, beste jenero batzuk gehiako landu dira, baina ez poesia saila lantzen ez delako, ezta gutiagorik ere.

J. A. Arzek aurpegi berri bat erakutsi gizun, laino guzien azpitik eta sasi guzien gainetik, liburuak plastika arteen mailara eramaz; X. Letek bere bigarren liburua poesiaz naro eta edergarriz orniturik; Irun sarikoak aski propaganda izaten dute beren zabalkunderako, baina beste anitz gelditzen dira nahikoa zabalkunde gabe. Honegatik, batzukin ahantziko banaiz ere, euskal poesiaren emaitzak zertan direnari buruz zerbait esan nahi nuke. Sail hau beti izan dut gogoko eta irtetzen diren liburu guziak, erosi ez ezik irakurri ere egiten ditut. Baina astekari hontan aipamenezko artikuluak B. Gandiagaren *Hiru gizon bakarka* eta J. Mirandaren *Orhoituz*-i soilik eskaini nizkien. Biak, bakoitza berean oso bereziak izan direnez.

Euskal poesiak, landuagoa den neurrian, bide nekezagoak ditu ezer bereizgarririk azaltzeko. Hala ere, gaur egun, poesiaren alorra zabalagoa da, orokorragoa, era askotakoa. Era ugariago hoiek edertzen eta aberasten dute egungo literatura.

Joseba Zulaikaren *Adanen poema amaigabea*-ri, amaigabea den aldetik jarraipena eskatuko genioke, «mundu berri baten argia sumatu zuen» ez, alor berri hortan jorratuaz bederen, baina jarrai. Ekinarekin burutuz lortzen bai da egina.

Noizbait sariketa batean aurkezturik ezagutu nuen *Hego haizearen konpasean* ere, maiz gertatzen zaigun bezala, sentitzen nuen sari gabe gelditzeaz hor bazterren batean galduko ote zen. Lan onak bat baino gehiago agertzen direnean holako arriskoak izaten bai dira, eta hain zuen era atsegina eta hain euskara fina honako liburu honek, poz handia eraman nuen argitaraturik, plazaraturik ikusteaz. Orduan jakin nuen Mikel Arregi zela bere egilea.

Hitzak ebakitzean, Luis Mari Mujika, bide berriak urratsen dator. Lehendik ere, ezertan meriturik bazuen L. M. Mujikak euskarari bere erabiltze askeago baten hegaztada ematea izan zen.

Hau, aitortu beharrezkoa dugu. Urteak joanaz konturatzen gara sozial gai soilak era monolitikoegira garemazela eta *Bide giroak* lehenagoko poesiaren eta geroko joeraren aurrean irekitasuna agertzen zuela. Gaur, irekitasun horri esker, esan dugun orokortasunaren jabe da gure literatura, bere gazi-geza dariola.

Gorka Trintxerperen Ezten gorriak behar zuenak, *Gorriak* bezala ikusi zuen munduko argia. Eta artegintzaren aldetik kolore askotakoa du bere barnea. Aurretiko liburuak, *Zorion baten zainak* etzuen izan holako zorionik, zeren zentsura garaiak berakin eraman bai zuen hobira. Bai lehengoan eta bai beste honetan, euskal poesian hain guti eta kasik batere landu gabea den surrealitatez ere jardun zaigu.

Itsaso ahantzia-n ere, Koldo Izagirrek, hemeretzigarren mendetik gure garaira arte aurkitzen den tristura bera adiarazten digu. Era berriak dakarzkigu, hau ezin uka. Poetak inork ez bestean sentitzen du gure nahigabea eta gure egon ezina, urduri nabari ere, eta itsasotik edo itsas-giroz jasotzen duen oihartzuna, bere lausoan, poema luze baten tristura da; bizi nahiaren epikak eragina. Maiteminduetan ere esistentziaren larri mina dario.

Aurtengo urtean sartzen garelarik Durangoko Leopoldo Zugazak sail berri bat eskaitzen digu, «Irrisko xorta». Liburu ondo taxutuak poesia irakurgarriago agertzeko eraz. Lehen zenbakia Manu Ertzilla-rena dugu, *Hitzik anitz idatzi dut* deritzana. Ez da izanen beste mundukoa, baina bai poesia bizia. Egileak bere alorretik eskaintzen digu. Baina, hemen ere, behin eta berriz, tristurazko kezka bera ageri da. Izan nahi eta izan ezina: «beti usoak aidean eta guk zerurik ez». Baina holako poetak iratzartzen laguntzen duten artean beti izango dugu holako esperantza bat urrutiko lausoan. Dudarik gabe, herri bat gara martxan.

Emakumezkoen hutsuena Amaia Lasaren presentziak hausten du. Lekukotasun hau izango ahal da emakumezko ekintza girotzeko. Aspaldiko Bizenta Mogel, zahartzaroan sartuak diren Tene Mujika eta Julene Azpeitia eta geroxeagoko Mayi Ariztia eta M. J. Minaberry izan ditugu zuzpertzaile. Baina gure Ikastoletan hainbeste andereño delarik harritzekoa iduritzen zaigu idazle gehiago ez irtetzea. Eta hain beharrezkoa zaigu emakumezkoak ere literaturan parte hartzea.

Amaia Lasak, bere anai Mikelekin batean osatu zuen liburu hartan erakutsi zigun poeta dohaina, *Poema bilduma* zeritzan hartan kaiuak eman zion etorriak mugitu zuen nonbait eta oraindainoko kemena izan du. Arantxa Urretavizcaya gaztetxoagandik ere horrenbeste eskero genuen, batez ere *San Pedro bezperaren ondokoak* deritzan poema eder eta goxoa irakurriz gero (poema hau *Euskal Literatura 72* bilduman argitaratu zuen), baina, zoritxarrez, ezta hala izan.

Gaur, poesia alorrean agertzen zaigun emakumezko bakarra Amaia Lasa dugu, berrido *Hitz nahastuak* deritzan liburu ederra eskaini diguna. «Irrisko xorta»-ren bigarren alea dugu berau. Jean Cocteau-ren hitz hoiekin hasten du bere liburua: «Nik ez dakit zertarako balio duen poesiak; nik dakidana, poesiarik gabe ezin nintekeela bizi». Noizbait nonbait hontaz kutsatu ginenok, izan ere, musika bezain beharrezkoa dugu poesia. Hau gabe, gure bizitzak zentzuaren parte handi bat galduko luke.

Sarrera gisa Rosa Luxembourg-en presondegiko gutun batzuk dakarzki. Liburuan zehar, lehenagoko poema hartan bezala: «Kaiuak, lasunak, heuren begi borobil erdi hilekin begira ari dira» sinbolu maiteak behin eta berriz agertuz. Azken partean hitz-lauzko kondairak biltzen ditu. Liburu guzia aise irakurtzeko eraz dago. Sinboluen arteko, behar bada gure herriaren izatea ere agertu nahi digu poetak: «Bizi izateko harria aukeratu duzun belar ausarta», bide dela. Eta, barnetikako nahiaren eraginez hor dugu gogoa:

Lur estu
amets zabal,
handituz
zabaldu zoaz.
Bizi izateaz
ametsa
lorturik.

* * *

Siempre he dedicado una especial atención al género de la

poesía en vascuence, sobre todo al movimiento de posguerra, y siento mucho el no haber prestado más comentarios a los libros de poesía a medida que van publicándose. Pero es que uno no puede dar más de sí. Es una pena, porque los medios de difusión tampoco les dedicarán espacio, tal como acostumbran con los libros escritos en castellano. De esta falta de difusión únicamente se salvan, en alguna medida, las obras premiadas en los concursos literarios. Pero, como digo, no ocurre así con los libros que dan a la luz las modestas casas editoras en vascuence. A obras como las de Gandiaga y Mirande les dediqué artículos por lo que estos autores representan en las nuevas corrientes de posguerra, con la consiguiente aportación a la renovación. Pero hay otros autores, de las últimas hornadas, que apenas son conocidos aunque merezca digna promoción. Autores jóvenes cuyas obras merecen ser estudiadas y tratadas extensamente, pero que exigen también una dedicación de tiempo que yo, por hoy, no dispongo. Razón por la cual hago un breve repaso de la última producción, dejando al margen las obras premiadas y centrándome más en estos autores menos conocidos: J. Zulaika, M. Arregi, L. M. Mujika, G. Trintxerpe, K. Izagirre, M. Ertzilla y Amaya Lasa. Todos ellos autores de libros de poesía de buena calidad, que además de su nivel ofrecen en conjunto un sabor agridulce que por su variedad vienen a enriquecer la poesía éuskara. En estas obras, en general, como en casi toda la poesía vasca desde el romanticismo hasta nuestros días, se observa acusadamente una constante de lánguida tristeza. Como una respuesta vital a la problemática que vive y sufre el poeta junto al destino que le deparó la historia a su pueblo y a la lengua en la que se expresa. Pero también es cierto que en la mayoría de ellos se vislumbra una fe esperanzadora en los valores humanos hacia una sociedad más justa. De todas formas, la poesía vasca actual es inquietante y por esto no dejo de leer lo que se viene produciendo como libro de poesía. Si algo merece la pena en la literatura creacionista en vascuence, ésta, es la poesía.

1977 - V - 9

HAURRENTZAKO IPUI ETA IRAKUR GAIAK

Euskara putzu sakon eta ilun bat zen, kanta berri batek ongi dion bezala. Baina bestelako etorkizun baten aurrez aurre gara. Ekintza gogoa eta giroa piztu bai dira.

Hala ere, zer dugu haurrentzako literaturaz? Berbizkunde mugimendu batentzat ez bai dira aski Ikastola Elkarte Batzak bere ardurapean E.G.B.-rako argitaratu dituen berrogetaka testu itzuliak, hauek irakaskintzarako hain beharrezkoak izanarren ere. Kili-kili elkarteak Bilbon bilduko dituen milaka haurrak, biltzen dituen eran, folklorekeri hutsean erortzeko arriskuak ditugu eta garrik gabeko keak bezala igaro, airean suntsituz, J. A. Retolaza euskaltzale zintzoak behar bezala bideratzen jakingo duenaren konfiantza osoa ez bagenu.

Ikastolak goraka doaz, sortuz geroztik hartu zuten abiadura bizkorrean. Nazio batean herritik sortu ditzakean ekintzarik miragarriena izan da gure ikastolena. Euskararen berbizkunderako ezin zitekean gauza hoberik asmatu, eta herriak bere eraginez erakutsi du bere hizkuntza jatorraren bizi nahia. Baina, hala ere, ikastolak diruaren aldetiko prolema handiak dituzte, hauek itotzeko diru iturriak itxitzea izan bait da agintarien taktika. Orain, Euskal Herriko parlamentari politikoek kontuan hartu beharko dute gure ikastolen egoera eta hauek Estaduagandik behar duten laguntza. Izan ere, ikastolak beren poltzikotik ordaindu beharrez aurkitzen diren gurasoek Estaduak jartzen dituen zergen bidez eskola publikoak ere ordaintzen dituzte. Eta egoera lotsagarri hau noizbait bukatu beharko du.

Aintzina, supazter xokoa zen ahozko literaturaren eskola. Gizon egingo zirenen amets beharrak hor asetzen zuten beren gogoa. Baina telebistak ito eta eten zuen arbasoengandik zetorkigun jatorrizko lokarria. Egia esan, telebista azaldu orduko ere aski agorturik ziren jatorrizko emaitzak. Urteak ez dira alperrik igarotzen eta modak ere izaten bai du bere egitekoa. Dena dela, telebistak eman dio supazter xokoari azken erremata.

Gure egunotan liburua dugu gordailu, liburua almazen, behar den garaian behar duguna eskainiaz. Eta libururik aski bazen ere, hauek ere aurpegi berriz plazaratu beharra izaten dute.

Egunotan eskuratu dut, Gero argitaldariak eskainia, «Irakur 5». Angel Lertxundi «Andu», Iosu Arrizabalaga eta Maria Pilar Martiartuk elkar lanean egina, Antton Olariagaren edergarriekin. Hauek aurkitu dute herriko almazen zaharra, gehigarri berriekin horniturik, era berriz plazaratzeko. Jokabide txalogarria benetan.

Hamazortzigarren mendean zabaldu zen alegien moda, Iriarte eta Samaniegoren eskutik. Mogeltarrak, J. M. Zabala, Iturriaga eta abar bultzatu zituen orduko moda haren alegiak idaztera, supazterretan ahoz aho kontatzen ziren ipuiak haintzat hartu gabe. Are gehiago, Bizenta Mogelek bere «Ipui onak» (1804) liburuaren hitzaurrean aitortzen duenez, mespresiagarriak eta baztertu beharrekoak ziren Euskal-Herriko sukaldeetan kontatzen ziren Peru eta Mariren ipuiak.

Otoi, honek ez du esan nahi ordurarte Euskal-Herrian alegiak ez zirenik, ez. Abereen elkarrizketazkoak, bukaeraz ikasbideko ondoriodun hoietakoak ere ba ziren, bai noski. Holakorik anitz jaso dute gero Azkue eta Barandiaranek.

«Ipui onak»-ren hirugarren argitalpenari (1963) egin nion hitzaurrean agertzen nuenez, Esopo greziarrak zabaldu zituen Europa aldean era hortako ipuiak. Esopo-ren alegien itzulpena zen Bizenta Mogelen liburu hura, baina haiek baino gehiago dira Euskal-Herrian bertan jasoak. Hemen herriagandik jasotako asko ez dira aurkitzen J. M. Zabalaren «Fábulas en dialecto vizcaíno»n, ez P. Iturriagaren «Ipuiak» liburuan, ez eta ere Arxu eta Goienetxerenetan, azken bi hauek La Fontaine-gan iturri jakina dutelarik. Idatzi zaharragoetan beren iturburua aurkitu nahi baldin badugu induen *Panxatantra* eta *Hitopadesa*-ra jo beharko genuke. Dena dela, ehundaka urteetan euskaldunek beren supazterretan kontatutako herri ipuiak direla aitortu behar.

R. M. Azkue eta batez ere J. M. Barandiaranen bildumetan herri ipuien harrobi ederra dugu. Barandiaranen harrobi hortatik bilduma polit bat gertatu zigun A. Irigaray adiskideak, itzulpenez eta irakaskintzari begira, Euskaltzaindiaren ardurapean egina, «Euskalerriko ipuiñak» (1957) izenez; eta Euskaltzaindiaren urre-eztaien garaian (1968), Azkueren lanetatik bilduma hautatu bat aurkeztu nuen «Aintziñako ipuiñak» deritzana.

Haurrak eta gaztetxoak irakurgai asko behar dute, eta egina-

halak egin beti labur gelditukо gara. 1975eko otsailaren 10ean eta martxoaren 17an, *Hoja del Lunes* honetan, zenbait argitasun eman nuen haur eta gaztetxoen literaturaz. Material bila dabilenak berriz, J. M. Torrealdayren *Euskal idazleak, gaur* deritzan liburuaren 572/626 orrialdeetan informaziorik aski badu. Bestalde, gure ipuien klasifikatzeaz eta berezitasunez, ikus Piarres Lafittek Euskaltzaindian irakurri zuen txostena «Euskera» aldizkarian argitaratua, XVIII. tomoaren 160/166 orrialdeetan, 1973ko zenbakia.

P. Lafittek dionez, gizonik gehienek mundu hontako biziari kirets-kino bat aurkitzen diote, eta nolazpait, gogoz bederen, ihes egin nahi diote ametsetarako munduetarat murgilduz. Erroan hau da bihar gizon izanen den haurraren gogoa ere, eta gogoa bete beharren arteko da literatura. Herritik bilduak lehenik eta bilketa horietatik hautatuak gero, gure *corpus* hornitzeko adibideak agertzen ditu bere txosten jakitun zein jakingarrian. Eta klasifikatze orduan, bere ustez honela emango omen lituzke: Lehenik, paganoak; bigarrenik, basa-giristinoak; hirugarrenik, basa-ixtoriak; laugarrenik, amets hutsezkoak; bostgarrenik, irri solasak. Ipuin sorreraz eta zabalkundez mintzatzen da azkenik eta euskal-ipuien zenbait itxuraren adierazpenak agertzen.

Hein batean eta haurrak erabiltzeko eran, honelako *corpus* bat osatzeko bideetan doha Gero argitardaria «Irakur» sailarekin. Bertan bada orotarik gure literatura jatorretik hartua, pagano, ixtorio, amets eta irrizkorik bata bestearen ondorean nahasirik, haurrik asper ez dadin. Sail hontako liburuok Gipuzkoako Ikastolen Elkarte Batzaren ardurapean datoz eta ezer eskatzekotan maizago argitaratzen ahalegintzea eskatuko genioke. Baina, holako ekintza bat bizkortzeko ere dirua behar; hor dago gakoa.

«Irakur 5»i buruz ez dut argitasun gehiago emanen. Haurrak dituztenek eta haur horiek euskaraz hezi nahi, irakurtzen eta idazten jakinaz, erosi. Horrela, era berean, argitalpen berriak bizkortzen lagunduko du.

Gogoan izan haur euskaldunak direla gure hizkuntzaren itxaropena.

• • •

En publicaciones de literatura infantil y juvenil se han realizado grandes progresos estos últimos años. La obra «Euskal idazleak, gaur» (Historia social de la lengua y literatura vascas) es buen exponente del movimiento literario que ha repercutido en toda la geografía y a todas las escalas del país para fortuna del vascuence. Las páginas 572/626 de la citada obra muestran una catalogación de obras contemporáneas donde una buena parte ocupan los libros destinados a los niños.

La literatura oral vasca, por otra parte, es un rico arsenal de toda clase de cuentos, mas varios escritores éuskaros del pasado siglo cultivaron la literatura infantil. En un trabajo muy poco conocido. P. Lafitte estudia el modo de clasificar este material, bien sea para analizar o bien para su difusión, en un informe presentado a la Academia y que vio la luz en el boletín «Euskera» tomo XVIII (1973).

Pero en la práctica, por el contenido antológico y su moderna y bien cuidada presentación, la colección «Irakur» de la editorial Gero, bajo los auspicios de la federación de ikastolas, muestra en su conjunto selecciones extraídas de escritores antiguos y modernos. Son selecciones muy variadas y expuestas con mucho gusto, que son la delicia atractiva de los niños, recomendados como textos de lectura. Pero yo diría aún más en favor de los cinco volúmenes de «Irakur», que incluso pueden servir para ejercicio de los adultos que quieran iniciarse en la lectura éuskara.

1977 - X - 3

EUSKAL-LITERATURA BERE BARNETIK IKERTUAZ

Edonongo literaturak bere nortasunean heldutasun batera iristen denean bere barnetikako kritika saioak ditu agergarririk berezienak. Euskarazko aldizkarietan, zenbait libururen parteetan eta bereziki liburuen hitzaurreetan, maiz agertu dira euskal-literaturari buruz barnetikako azterketak, baina liburu osoak

hortaz argitaratzea oso berria zaigu.

«Literatura testuak aztertzea modan jarri dela gaur leku guztietan esan genezake. Azken urteotan hainbat liburu argitaratu dira gai hortaz. Baina ez dut uste bat ere argitaratu denik euskaraz». Hala dio Mikel Zaratek argitara berri duen *Euskal Literatura* (Azterbidek, Aztergaiak, Azterketak) liburuaren sarreran. Baina liburu beraren bibliografia partea begiratzen badugu Azurmendiren *Zer dugu Orixeren kontra,* Begiarmenen *Sei idazle plazara,* elkar laneko *Xabier Lizardi* eta Sarasolaren *Txillardegi eta Saizarbitoriaren Nobelagintza* aipatzen dira behinik-pehin, maila bereko azterketak ez badira ere, ezin ukatu literatura azterketakoak ez direnik.

Egia sean, gure belaunaldi honetan era guzietako errebizioak gailentzen diren garaian literatura azterketak ere bere lekua izatea ezta batere harritzekoa, mendearen seme garenez gero, Ideiak eta balioak erroetaraino ikusmiratu nahi dira, eta Mitxelenak ongi zion bezala, kritika eta eraberritzea geuron kaltean izango badira ere, horiexen beharrean gaude.

Gure literatura bere barnetik erakutsiaz datozen liburu hoiek literaturagintzaren aro berri baten aurrean jartzen gaitu. Lanok, etorkizunean gidari izango ditugu, elkarri erakutsiaz maila hobe bateko egoera aurkitzera eramango gaituanez. Zeren, azken batean, aburuak markatuko dizkigute biderik zihurrenak.

Karlos Otegik, *Pertsonaia euskal nobelagintzan* deritzan liburuaren sarrean honako uste hau agertzen bai digu: «Baina, hauxe da arazoa. Euskarak baduela bere literatura propioa, eta geuk, inork izatekotan, behar dugula aurkitu, aztertu, kritikoki jakina, eta ezagutzera eman, norabidetu eta landu.»

Honako aitorpen honen ondotik, literaturaren saiaerazko liburu hauen hariaren berri soil soilik emango dut, barneragotik ezagutu nahi duen irakurlearen lagungarri. Hara hemen testu aztertzen agertu diren bost libururen berri:

Sei idazle plazara (1974) bi tomotan argitaratu zuen Jakin argitaldariak. Estrukturalismoaren teknika araberaz Mitxelena, Aresti, Larresoro, Azurmendi, Garate eta Ansola euskal izkribatzaileen ideologiazko azterketak agertzen dituzten P. Iztueta eta J. Apalategik «Begiarmen»en izenpean. 1975eko urriaren seian

Hoja del Lunes honetan egin nion kritika aski luze bat. Nere ustez, oinarrizko huts bat du obra honek, aldez aurretik baldintza estuegiak harturik hasia denez, baldintza horiek egiztatzeko garraiatzen ditu hainbeste material beste ikusmoldeetakoak bertan behera utziaz. Hala ere, langintzarako metodologia berri bat agertu zuen, lan ederrak burutzeko ahalmena idekiko zutena, eta neurri handi batean obra berak ere salatu genuena baino alde hobeak geehiago ditu. Ikerketarako urrats handi bat izan zen.

Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza (1975), Kriseluk argitaratua, biziki ona da. Gure belaunaldi hontan euskaraz idatzi diren eleberririk hoberenak aztertzen ditu, Tillardegi eta Saizarbitoriaren eleberrien analisi serioak eginaz, irakurlearentzat gidari izango direnak. Kritika ondo burutzeaz gainera irakurgai atsegina iduritu zitzaidan I. Sarasolaren liburu hau.

Zer dugu Orixeren kontra (1976), Jakinek argitaratua. Joxe Azurmendiren liburu hau, bere gehienak bezala, ez da lotzen holako teknika zehatz bati metodologiaren aldetik, baina bere ideien jario aspergaitzak filosofia mugetatik ariden saio sakona burutzen du. Orixekin, inoiz gehienok pasatu ginen behar zen neurritik harat eta Azurmendik arrazoiz botatzen digu aurpegira. Gazteluk ongi zion bezala «behar bada euskal idazle batek luze-zabalean eta kalidadean inoiz utzi duen larriena, handi-haundizka harturik». Egia esan, Orixe bere handitasunean onartzeak ez dakar kalterik, kalteak idolotzat hartzetik datorzke. Idolo bati ahoa zabalik begira egoteaz lo hartzeko arriskua duenez eta elkar lanean aritzeak dinamika pizgarria. Baina, gaur, zorionez, ez daukagu holako arriskurik, zeren goi mailetan ari diren idazleen artekoak anitz ditugunez.

Pertsonaia euskal nobelagintzan (1976) delako saiaera ederra Gerok argitaratua da. Karlos Otegi du egile, baina ulertzen ez duguna zera da, euskaratzaile hala zuzentzaile, zertan parte hartu duen Dionisio Amundarainek. Holako lan bat hain ondo burutzeko behar beharrezkoa zuen egileak euskaraz ondo jakin beharra, erabili dituen lanok euskaraz daudenez. Dena dela, bertako saiaeraren aburuak dira interesatzen zaizkigunak. Eleberriaren muina ondo ezagutzeko beharrezkoa zaigu bertan erabiltzen diren pertsonajeak ongi ezagutzea eta hontara garamaz liburuaren egi-

Contrapas

Heuſcara ialgui adi cãpora

Garacico herria
Benedica dadila
Heuſcarari emandio
Beharduyen thornuya.

Heuſcara
Ialgui adi plaçara

Berce gendec vſteçuten
Ecin ſcribaçayteyen
Oray dute phorogatu
Euganatu cirela.

Heuſcara
Ialgui adi mundura

Lengoagetan ohi inçan
Eſtimatze gutitan
Oray aldiz hic beharduc
Ohoria orotan.

Heuſcara
Habil mundu gucira

Berceac oroc içan dira
Bere goihen gradora
Oray hura iganenda
Bercę ororen gaynera.

Heuſcara

Baſcoac oroc preciatzẽ
Heuſcara ez iaquin harrẽ
Oroc iccaſſiren dute
Oray cerden heuſcara.

Heuſcara

Oray dano egon bahiz
Imprimitu bagueric
Hi engoitic ebiliren
Mundu gucietaric.

Heuſcara

Eceyn ere lengoageric
Ez franceſa ez berceric
Oray ezta eridеyten
Heuſcararen pareric.

Heuſcara
Ialgui adi dançara.

Euskaraz lehen liburu inprimatuaren (1545) azken orrialdeetan euskararen alde datorren «Kontrapas» aipatua

leak. Txomin Agirreren *Garoa,* Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua,* A. Lertxundiren *Ajea du Urturik* eta M. Ugalderen *Itsasoa ur-bazter luzea da* eleberrietako pertsonaietan oinarritzen da egilea, etxeko eta kanpoko anitz obrakin konparaketak eginaz.

Azkenik, *Euskal Literatura,* aurten Leopoldo Zugazak argitaratua. Mikel Zarateren liburu honen xedea zenbait idazkariren lanetan aurkitzen diren une ilunak, sinbolojiak, ideiak eta gainerako moldeak aztertzea da, nahiz hizlauzkoak edo nahiz hizneurtuzkoak. Txomin Agirre, Otsalar, J. Azurmendi, Lauaxeta, J. M. Lekuona, R. Bustintza, Gandiaga, Intxausti, Aresti, X. Garmendia eta Saizarbitoriaren zenbait lanetan oinarriturik literatura irakurketarako lagungarri izan nahi du. Idazle bakoitzaren ingurua eta iturriak ere adiarazten ditu. Humorea ere humore sendoa du, Ortega y Gasset eta Unamunok beren marfilezko dorretik gure hizkuntzaren ezerreza eta hiletak kontatu bazituzten ere, Lizardi eta Mikel Zaratek bertsoz kantatuko digute, handi mandirik gabe, gure hizkuntza apal honen gogo berria eta noranahikotasuna.

Obra hoiek erakusten digute lanaren jardunez zertarako garan eta zertarako gauza den euskarazko literatura bera.

Azken bi liburuen egitura eta beren bibliografia iturriak bide berri bat markatzen digute ikerketazko saioetan laguntzeko. Bost obrok gure belaunaldi hontako literatura balioen lekuko dira. Gure literaturaz arduratzen diren guziek irakurri beharrezkoak eta, behar bada, euskal alfabetatzeetan irakurgaitzat erabili beharrezkoak, zeren literatura erakutsiaz autoreak beren ilunbeetako agernahietara arte funtsez konprenitu ahal izateko erak ere agertzen bai dituzte. Eta horiek ezagutzeaz zernahitariko literaturak hobeto irentsitzeko bide baita.

* * *

Las revistas éuskaras de todos los tiempos han venido recogiendo normalmente en sus páginas las críticas literarias en torno a lo que se ha ido produciendo en vascuence, pero apenas se había prodigado la publicación de libros de ensayo enteramente dedicados a nalizar y criticar la propia literatura éuskara. Son

recientes las obras de ensayo que investiguen o interpreten nuestra literatura desde su contexto interno; lo cual indica un serio avance.

Este desarrollo deberán considerar necesariamente cuantos pretendan interpretar nuestra historia contemporánea con el resurgir del valor idiomático.

En el presente artículo doy a conocer a grandes rasgos el contenido general de cinco obras de ensayos literarios que vienen a ser cinco piezas fundamentales para introducir en el contenido interno de la literatura vasca actual.

J. Apalategui y P. Iztueta, tomando por base los métodos estructuralistas, llevaron a cabo una investigación sobre las ideologías de seis destacados escritores. I. Sarasola es autor de un ensayo comparativo de dos novelistas de vanguardia en las letras vascas, Txillardegui y Saizarbitoria. José Azurmendi nos presentó una revisión de la obra de Orixe. Carlos Otegui estudia los personajes de la novelística con referencias comparativas de más de sesenta novelas originales publicadas en vascuence en el transcurso de una centuria, que es tanto como decir toda la obra novelística de la literatura vasca, pero centrándose principalmente en *Garoa, Leturiaren egunkari ezkutua, Ajea du Urturik* e *Itsasoa ur bazter luzea da.* Y, por último, Mikel Zárate analiza textos de once escritores resaltando sus peculiaridades estilísticas e ideológicas.

Son estas obras, hoy por hoy, cinco títulos básicos para el conocimiento de la literatura contemporánea de expresión vasca. Y las mismas se deberían emplear como textos en las campañas de alfabetización para adultos.

1977 - IV - 11

GURE LITERATURA BERE BARRUTIK EZAGUTU BEHARRA

Asko dira, horremen, gure literaturako liburuak irakurri gabe iritziak emoten ari direnak, inongo literaturagatik egiterik ohi ez

den eran. Honako artikulu honek, salakuntzazkoa baino kritikak bideratze edo gidatzearen aldeko izatea nahiago du.

Antzerako gaia erabili nuen igazko apirilaren hamaikako artikulu hartan; baina, gure artean, gauzak behin eta berriz esan beharra dugu.

Egia esan, gure belaunaldi honetan era guztietako errebizio moduak gailentzen diran garaian, literatura azterketak ere heuren lekua izatea ezta harritzekoa, mende honen seme garanezkero. Ideiak eta balioak erroetaraino ikusmiratu nahi dira, eta Mitxelenak ondo zeritzan bezala kritika eta eraberritzea geuron kaltean izango badira ere, horretxen beharrean gaude.

Edonongo literaturak bere nortasunean heldutasun batera iristen denean bere barrutirako kritika saioak ditu agergarririk berezienak. Euskarazko aldizkarietan, zenbait libururen parteetan eta batez ere liburuen hitzaurreetan, sarri agertu dira euskalliteraturari buruzko barrutikako azterketak, baina liburu osoak hortaz argitaratzea oso berria dugu.

Idazle eta liburu produzio azterketak, egungo gizarte egoera ikertuz bere problematika osoari begira, hor dugu J. M. Torrealday-ren *Euskal idazleak, gaur* deritzan liburu mardula. Baina idazlanak beren barrutik eta hauek aztertzeko metodoak, arazo honetan oso kontuan hartu beharrezkoak honako liburu zerrenda eder hau, egileen alfabeta ordenaz. Gogoan har honako hauek:

Jose Azurmendiren *Zer dugu Orixe-ren kontra* (1976) eta *Zer dugu Orixe-ren alde* (1977).

Begiarmenen (P. Iztueta eta J. Apalategi) *Sei idazle plazara*, I-II, (1974).

Martin Etxeberriaren *Euskaldunen ipui harrigarriak* (1973)

A. Lertxundi, X. Lete eta A. Zelaietak alkarrekin egindako *Xabier Lizardi* (1974).

J. A. Mujikaren *Testuak aztertzen* (1978).

K. Otegiren *Pertsonaia euskal nobelagintzan* (1975).

I. Sarasolaren *Txillardegi eta Saizarbitoria nobelagintzan* (1975) eta M. Zarateren *Euskal Literatura*, I-II, (1977-1978).

Gure literatura bere barrutik erakutsiaz datozen liburuok, aro berri bat markatzen digute. Hemendik aurrerantzean gidari izan behar ditugu elkarri erakutsiaz maila hobe batera jasoko gaitue-

nez. Azken batean, aburuak markatuko digute biderik ziurrena.

Aipatu ditudan obrok erakusten digute lanaren ihardunez zertan garan eta zertarako ahalmenak ditugun letrak lantze kontuan.

Obrok gure belaunaldiko literaturaren balioen lekuko dira. Gure literaturaz arduratzen diran guztiak irakurri beharrezkoak eta, behar bada, euskal alfabetatzeetan irakurgaitzat erabili beharrezkoak. Literatura erakutsiaz autoreak heuren ilunbeetako agernahietara arte funtsez konprenitu ahal izateko erak ere agertzen dituenez. Eta hoiek ezagutzeaz zernahitariko literaturak hobeto iruntsitzeko bidea da.

Literatura baten, estiloa oso inportantea da eta alde hortatik ere aurrerapenik eginda estudio horietan nabarmen agertzen den bezala.

Noizik behinean agertzen diran topiko usteletatik ihes egin beharra daukagu. Euskarak izan leiken balioari baino gehiago begiratu behar diogu beronen nortasunari, eta inoiz ere ez ahaztu gure jatorriko kultur gaien emaitza bere bidez datorkigula, Europan herri asko dirala gure antzerako egoeran bere izatea hola dalako eta gure hizkuntzari eutsiaz irauntzean gordetzen dugula, europartasuna, unibertsaltasuna.

Euskararen edertasuna bere funtsionaltasunean dago, garbia, mordoiloa, aberatsa edo pobrea baino areago.

Inora eroango ez gaituen bideak ere laga beharrezkoak ditugu. Gauza ugari esana da gure hizkuntzaren inguruan, bai ohorez eta bai irainez. Baina herriaren nortasunari eutsi nahi diogunok jaramon gutiago egitea komeni zaigu. Hobeagoa edo txarragoaren gainetik, geurea dugu, eta geurea dugun partetik herri nortasunaren galga markatzen diguna.

Cervantes gizon argia zen. Inork ez du dudan ipintzen, eta bazekien hizkuntza bakoitzak zer balio zuen mintzatzen zen herriarentzat, eta horregatik esan zuen: «Homero no escribió en latín porque era griego; ni Virgilio escribió en griego porque era latino. En resolución: todos los poetas antiguos escribieron en la lengua que mamaron en la leche, y no fueron a buscar las extranjeras para declarar la alteza de sus conceptos, y siendo esto así, razón sería se extendiese esta costumbre por todas las naciones,

y que no se desestimase el poeta alemán porque escribe en su lengua, ni el castellano, ni aun el vizcaíno que escribe en la suya». (Quij. II, 16).

Cervantes-ek hau esan zuen garaian gaztelarak berak zituen eragozpenak orduko jakitunak latinez idazten zutelako, baina ia orain noraino heldu zaigun gaztelera landua. Guk ere, ezina, ekinaz egina.

Konstituzioaren legeak bigarren mailako itxi gaitu. Ez da Europarekin pentsaturik egina edo bestela ez gaitu espainakotzat hartu. Honegatik, aurrez aurre agertzen zaigun etapa berrian, froga berri bat gaindu beharra daukagu. Froga gogorra izango da gaur Euskal Herrian bizi diranen gogoetan euskararen alderako gogoa eta joera sartzen ez baditugu. Gainera, Hezkuntza Ministerioan elebitasunaren (bilinguismoaren) plangintzetarako ipiniak ziren pertsonak baztertu dituzte eta euskararen arerioak lehengo lekuetan daude.

Kolpe handiak hartzen ohituak gare. Oraingo hau beste bat gehiago.

Hala ere, autonomian gure esperantzak ipini beharra daukagu, eta autonomiaren bidez eskoletara, irratira, telebistara... euskara eroan beharra. Bide guztietatik, Euskal Herrian bizi diren guztieri euskera ikasteko aukerak eman. Hemendik zenbait urtera, balantzeak egiteko orduan, azken froga hau superatua ikus ahal izateko. Hala espero dut gure herri kementsuagandik.

* * *

Se están publicando con frecuencia artículos, tratados y ensayos escritos en castellano sobre la literatura vasca, que ayudan a difundir, cuando menos, la existencia de nuestra ignorada literatura, que nunca tuvo acceso a la escuela. Esta corriente actual, en términos generales, favorece al desarrollo del vascuence. Pero conviene advertir la necesidad de leer las propias obras a tratar, porque todo autor merece ser dignamente considerado para situar su obra en el lugar que le corresponde. Cosa que muy difícilmente logrará aquel que, atraído por la moda, quiere emitir su opinión sin haber leído las obras a criticar, valiéndose única-

mente de lo que otros han escrito o comentado.

La obra de Torrealday viene a ser un filón tentador de donde se puede extraer material de información general y de divulgación. No obstante, hemos de tener presente, que las investigaciones en torno al contenido de las obras se hallan en un estado muy avanzado con aportaciones de las metodologías modernas, en obras de ensayo escritas en vascuence.

Al tratar del producto literario, también conviene huir de los conceptos de valor puramente lingüístico, y sobre todo del factor comparativo de capacidad en lo puro, honrado u obsceno. La lengua, como tal lengua, tiene capacidad para lo divino y lo humano. El valor de una lengua está, sobre todo, en su funcionalidad como vehículo de comunicación. Por esto, las críticas es preferible que se hagan por dentro, aunque la divulgación interese a todos los niveles.

Presento en el artículo una relación de los principales ensayos contemporáneos.

1978 - XI - 6

UNIBERTSITATE ZERBITZUETARAKO EUSKAL IKASTETXEA

Euskarak, iragan dituen larrialdiak gora-behera, badu langile bizkor eta zintzorik aski, eta, hauei esker, etsipenak baztertuz itxaropenez begira genezake gure mintzaira honen etorkizuna. Hala bedi.

Sortu berria da UZEI deritzan elkartea: Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea. Luzarora begira euskarazko Unibertsitate baten alde lan egingo duena.

Elkarte edo Ikastetxe honen egitekoa ez da erdarazko Unibertsitatearen aurrez aurre jartzea, ezta gutiagorik ere. Euskal Herriko gizarte elebidunak erdarazkoa ere behar du, noski. Euskal Herriko Distritua, erdal Unibertsitateetako euskal lana eta abar, UZEItik kanpo geratzen dira.

UZEIk, bere asmoan, Unibertsital kultura euskaldundu nahi

du eta horretarako Instituzio gisa sortzen da, bere lantegi eta langile ordainduekin, ikasketa eta irakaskintza bat eskainiaz, idazlan eta ikerketak eginez, eta batez ere Unibertsitate baterako jende euskalduna edo euskaldundua eta goi-alfabetatua prestatuz.

Guziok dakigu, gure kulturaren arazo nagusiei politikatik eman beharko zaiela beren irtenbidea; baina, inondik ere, hainbat lanetarako gizonak eta tresnak beharko ditu politikak ere. Ez dago horiek gabe gauzak aurrera aterako dituen gobernu autonomikorik. Eta, jakinaren gain prestatu dute beren aurre-proiektua, UZEIren sorrera bururatu zaienei, lehen lehendik, hiru alorretan mugatzea gogoratu zitzaien: Goi-alfabetakuntza, Ikerkuntza eta Informakuntza.

Lehenik, goi-alfabetakuntzaren plangintza bat egiteko asmoa du, eta gero ikastaroak eratu. Honetarako, hiru sail aipatzen dituzte, posible bezala, Alfabetakuntzaren alorrean: a) linguistika, b) hizkera teknikoa, c) itzulpena. Goi-alfabetakuntza honek, pentsa litekeenez, euskaraz hitzegin, irakurri eta idazten dakienari goi-prestaketa bat eman nahiko lioke.

Ikerkuntza da bigarren alorra. Metodologi arazoetan gidatuz, eta euskal lanean lagunduz baitipat. Lehenengo eskema bezala, hiru sail emango lituzke hemen ere: a) ikerketarako harremanak, b) mintegiak, c) Ikaskuntza (metodologia eta abar).

Hirugarrenez, Informakuntzaren alorra, euskal goi-kulturaren lanabesak prestatzeko izango litzateke. Beronen barnean bi sail aipatzen dira: a) informabideak (liburutegia, Jakin-gordairua), eta b) argitalpenak (hiztegiak, ikas-liburuak, iker-liburuak, aldizkari berezituak). Informakuntzaren alorra, nolabait, lehendik dator: hiztegien plangintza bat egina zegoen «Jakin»en barnean, baina asmoa handitxoa zen argitaldari horrentzat, berak bakarrik bultzatzeko. Dakikezuenez, argitara emana dago «Natur Zientziak» deitua; bukatu samarturik omen «Fisika eta Kimika», eta atzetik datozenak bizkortu nahi dira orain UZEIren barruan, beronen eskuetara pasako baita hiztegi hauen plangintza osoa (politika, ekonomia, teologia, psikologia, historia, soziologia, midikuntza, eta abar).

Hau da lerrorik larrienetan UZEI osatzen dutenen asmoa: gizonak prestatu, lanabesak sortu.

Aurreproiektua «Jakin» kultur taldeak landu du; baina Euskal Herriarentzat erabat irekita bultzatu nahi du. Aldez aurretik esan beharra dago, kultur talderik indartsuenak ere ez dezake UZEIren antzeko Aurreproiektu bat bakarrik egintzetaratu. Gehientsuenon oniritzi eta lankidetzarekin egingo da, ala ez da inoiz egingo.

Orainarte, Aranzadi Natur Zientzia elkartekoek eta Elhuyar taldekoek ditu laguntzaile, Joseba Intxausti buru delarik, eta Euskaltzaindiak berak babesten du asmo eder hau.

Halabeharrez, instituzio pribatu bat bezala jaio bada ere, ahalik lasterren instituzio publikoa izatera iritsi beharko luke. Euskal Herri osoaren ordezkari politikoek erabaki beharko lukete UZEIrekin zer egin eta nola joka, nahiz eta edozein kultur instituziori legokiokeen autonomiaz hornitua izan.

Baina, argi gelditu bedi, UZEI ez dela Euskal Unibertsitatearen Plangintza bat. Gure gogoz geroagorako amesten dugun Unibertsitategintzarako dela esango genuke. Euskarazko Unibertsitaten eginkorra izan dadin, bada oraindik ibili beharreko biderik aski. Ikasleak eta irakasleak eta lanabesak egin gabe dauzkagu neurri handi batetan bederen, Euskal Unibertsitaterako.

Unibertsitate-aurreko Eskola bat bezala ikusten dugu UZEI, liburuak eta beste tresnak prestatzeko, lankideei heldutasunberri bat emateko eta euskarari berari ere bai gaitasun jantziago bat. Herri bezala, holako bide bat hartu gabe, luzarora noraezean galduko ginateke, eta honegatik dugu hain txalogarria «Jakin»goek sortarazi duten plangintza hau.

Arestian esan dudan bezala, berriz diot, ez dela Euskal Herriko erdal Unibertsitatearen kontra jarri nahi. Antitesi hori bera ere ez dago UZEIren berezko ikuspidean. Egin nahi den gauza bakarra zera da: etor litekeen euskarazko Unibertsitaterako euskara eta gizonak gai egin, eta lan hau profesionalki egin. Eta, asmo hau aurrera eramateko, badute zenbait diruetxeren laguntza. Baina, frutu ederrik jasoko bada, askoren laguntza behar. Zeren ez dute taldetxo baten lana egin nahi: benetan Unibertsitatera begira dauden taldeei lagundu nahi zaie. Une honetan, eratzaileen kezka ez dago; inondik ere, talde horiek asmoari zein erantzun emango diotenaren galderan. Hori ongi dakite. Kezka, beste non-

baitetik dator: gure dirudunek zenbatetaraino lagundu nahi eta ahal izango dute? Hor dago kezka. Izan ere, honelako instituzio baten eskea ikaragarria da. Diruaren arabera erantzun ahal izango da.

Orain ikusiko da, ia egia den euskaldunengatik hainbeste aldiz entzuna duguna: Hitzetan lander, eginetan eder.

* * *

En el presente artículo hago un resumen del ambicioso proyecto de UZEI (Centro Vasco de Estudios Universitarios), que, a través de un dossier de 54 páginas, viene a exponer sus planes de asesoramiento para ir equipándose con los necesarios elementos para el desarrollo de los estudios superiores en vascuence. Esto es, planificar, organizar y llevar a cabo un proyecto escalonado y coherente en función de una futura Universidad euskaldun

UZEI (Unibertsital Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea) pretende ser una Institución con uno o varios centros de estudio y enseñanza, de redacción e investigación; con personal propio adecuadamente capacitado, y profesionalmente consagrado a la Institución, con la triple finalidad de formar equipos euskaldunes de nivel universitario, elaborar los instrumentos técnicos necesarios, y promover la investigación en euskera y poner al alcance del público en general los progresos de la cultura superior en vascuence. Todo ello siempre de acuerdo con el nivel logrado en cada momento en la escalada general de la cultura éuskara.

El proyecto es elaborado por el grupo Jakin que desde 1956 tantos servicios ha prestado en elevar el nivel de estudios en vascuence, y al mismo se le unen la S.C.N. Aranzadi y el grupo Elhuyar, y cuenta con el patrocinio de la Real Academia de la Lengua Vasca y la promesa de algunos centros bancarios y cajas de ahorros para la necesaria ayuda económica. UZEI se ha instalado con sede propia en San Sebastián (Avda. de España, 35 bajo - CLP - Teléfono 41 39 08).

Joseba Inchausti, el hombre que tantos desvelos se ha tomado en la línea propuesta por UZEI es nombrado director de la institución.

El UZEI no es esa Universidad que se está reclamando en nuestros días, sino la Preuniversidad Vasca, euskaldun. Aun en una situación autonómica del País, el pueblo de Euskal Herria y su lengua habrán de seguir necesariamente una trayectoria similar o idéntica a la que se describe en el Anteproyecto presentado. Además, UZEI mira a todo el País Vasco y a cada una de sus entidades históricas. Proyectando a toda el área vasca, haciendo coincidir, de este modo, con muchas de las previsibles actuaciones culturales, económicas y políticas. La idea de UZEI se inserta de lleno en un futuro que presentimos todos inminente. Está limpiamente situado entre los objetivos no marginables del País; tendrá, creemos, todo el prestigio de una avanzada cultura inédita y absolutamente válida.

1977 - IX - 12

HERRIA ASTEKARIAREN LAROGETAHAMAR URTEBURUAN

Baionako Herria dugu Euskal-Herrian euskara hutsean egiten den aldizkaririk zaharrena, aurtengo uztailean bete ditu 90 urte. Asteroko honek, bere historian zehar anitz gora-behera izan ditu, baina euskal aldizkaririk zaharrena dugu, eta badu adinaren eta iraupenaren errespetua. Badu urteek eta ortzi-ekaitzak emana dioten esperientzia. Ez zaio beraz egoki haize zirimola txar bati kurubilkaturik jartzea, ez eta lehen ximixtak ikusi orduko zalapartan eta putinka hastea.

Bere hastapeneko izena Euskalduna zuen, Louis Etcheverryk sortzean, 1887an, eta hola iraun zuen Munduko azken gerrate orokorrera arte. 1937tik 1944ra bitartean, garai hortan zuzendari zen Xalbat Arotzarena aski nabarmendua gelditu zen alemanen alde eta astekariak orduan ezagutu zuen bere historiako beherakadarik handiena, eta berriz bere izen ona hartuko bazuen, zuzendaritza aldatzeaz, izena ere aldatu zioten. Ordutik dator Herria. Baina funtsean sorketaren ildotik datorrena.

Sortzaile izan zen L. Etcheverryk, egia esan, Frantsiako Erre-

publikak dena berdindu nahirik zekarren indar politikoaren aurkarako eratu zuen, zeren euskaldunek bazuten Anaitasuna, Berdintasuna eta Askatasuna predikatzen zetorren gobernu zentralista haren eskarmentua. Bertako nortasuna gordeaz libreago egiten zituzten Uztaritzeko Biltzarrak ukatu ez ezik debekatu zituzten, Errepublikaren alde iraultza egin zuten federalisteri lepoa moztu ondorean zentralistak burutu zirenean, Euskal-Herriaren nortasuna deusezteko. Iraultzaren garai hartako euskaldunen jokabidea eta batez ere Dominique Garatena, ikus Isidoro de Fagoagaren «Domingo Garat. El defensor del Biltzar» (E.V. Ekin. Buenos Aires, 1951), gure historiaz zerbait jakin nahi duten euskaldun guziek irakurri beharrezko liburua. Liburu hau Yon Etxaidek euskaratua, *Domiku Garat* tituluz Gero editorialak argitaratu du 1979. urtean.

Frantziako Errepublika Iraultzaileak, bestalde, esan beharrik ez dago Europa guzian feudalen kontra izan zuen arrakasta. Hala ere, alde guziak ez zituen onak, batez ere berak eskaintzen zuten baino libreago bizi ziren herri tipientzat.

Baina, Baionako Euskalduna aldizkaria sortzea, ez zen bakarrik herri baten nortasuna gordetzeagatik, baita ere erlijio auziagatik. Maiz, bata besteari loturik eskaini dira herri bati bere konzientziazko lotura eta indarra eman nahirik. Luzarora, honek ere, bere alde onak eta txarrak izaten ditu. Latin hizkuntzatik hain aparte dugun euskarak berakin daramazki erlijio zaharragoen arrastoak ez ezik jentil garaiko sineskerak ere, «euskaldun fededun» esana beti hain ongi eransterik ez duena.

Dena dela, orduko Euskaldunaren sortzaileak, euskara ez ezik, erlijioa ere presente zuten beren asmoetan. J. Hiriart-Urruty 1895. urtetik asterokoaren zuzendari egin zenez, politikaren sareetatik askatu nahi izan zuen eta hontaz zenbait auzi izan zituen asterokoaren jaben zen L. Etcheverryrekin. Tira-bira haien ondotik, zuzendaritzak bere eskutik zituenez idazleak, berriemaileak eta saltzaileak, era berean zetorzkien irakurleak eskura, eta 1904an «Euskaldun ona» deituz kaleratu zuen asteroko berritua. Eta, hiru urteren buruan, jabe zena hiltzeaz, lehengo izen zaharra bereganatu zuen.

1915ean hil zen Hiriart-Urruty. Nortasun handiko gizona eta

lehen euskaldun kazetaria. Ahalmen handiak zituen eta idazle bizkorra zen. Bere kazetaritza izkribuetatik, Jakin argitaldariak, bi liburu publikatuak ditu lan hautatuz hornituak, Piarres Lafitteren aintzin-solasez: «Mintzaira, aurpegia: Gizon!» (1971) eta «Zezenak Errepublikan» (1972).

Asteroko honek izan duen egokitasuna, garai bakoitzean egungo egitureri loturik jarraitzen jakitzea. Eta, beti, Euskal-Herriaren zerbitzuan. Eta hau, garbi ikusten da Mikel Atxagak abuztuaren 2ko Deia egunerokoan eskaini dion artikulu jakingarrian.

Domingo Soubelet zuzendari izan zen garaian (1930-37), Euskalduna astekariak 7 edo 8 mila ale kaleratzen zituen astero.

Euskalduna, Arotzamenaren zuzendaritzapean, esan dugun bezala, nahikoa nabarmendurik gelditu zen. Gerra bukatzeaz, alemanen alde egin zuten aldizkariak bahituak eta debekatuak izan ziren eta hauen artean Euskalduna izan zen holako eragozpenak izan zituena.

Izenak berak ere prestijio osoa galdu zuen, eta P. Lafitte izan zen Herria izena jarriaz jarraipena eman ziona. Lehenagoko pentsamoldeei loturik, liberaltasun osoarekin hasi zen berriz ere martxan, egungo premieri zintzoki loturik. Algeriako gerra haietan, nahiz Vietnamgoari buruz, beti aburu zorrotzak eta zintzoak agertu zituen, maiz Frantsiako gobernuaren gogoko ez ziren iritziak. Berdin jokatu zuen Franco-ren politika kritikatzen Hego-Euskal-Herritik Ifarraldera gazteak ihesik hasi zirenean. Alde hontako berrien sail bat sortu zuen eta honegatik, azken bizpahiru urtez, ez zen posible Herria hartzerik. Baionatik igortzen zuten, baina harpidedun ginenok ezin har. Hemengo postetan bahituak ziren. Harrigarriena, gobernuak berak espainolentzat jarritako Foru legeen kontra zijoan gauza zen. Nonbait, guri hori egiteaz, gu ez ginen espainolak edo bestela lege hauzleak «zaintzaile» behar zutenak dira, eta ondotxo dakigu agure zahar hura ez zela errudun bakarra. Baina, nik galdetuko nuke, ia legeak bete ez zituzten hoiek zertako jarraitu behar duten beren karguetan. Ofizio edo profesioa behar bezala betetzen ez dituztenak, estadu edo enpresa normal batean beren karguetatik galeraziak izaten dira. Gu noiz izango gara normalak?

Herria astekariak, orain, Emile Larre du zuzendari eta as-

tero 4 mila ale ateratzen ditu. Mugazemendik normal jasotzea posible izan balitz, askoz gehiago aterako zituen, zeren astero ekartzen bai du mundu zabaleko eta Euskal-Herri barneko zenbait berri jakingarri hemengo egunkarietan agertzen ez denetik.

Bestalde, euskaltzaleontzat ere premiagarria iduritzen zaigu holako har-eman hau, elkarren arteko euskara idatziak hobeto ezagutu eta elkarren artean hurbiltzeko. Gogoan izan, Herria 1968an hasi zela erabat hemengo grafiaz, guk berek aholkatu eta idazten duten H letra onartu genuenetik.

Iragan denbora geroaren argitzailetzat hartuz, ez da dudarik badela oraino zer egin. Aurrera ere fruitu onak ematen jarraituko du Herriak, zer egin dakielarik eta zelan egin erakutsiko digularik.

* * *

El pasado mes de julio cumplía 90 años el decano de la prensa éuskara, Herria. Este semanario, enteramente en vascuence, lo fundó Louis Etcheverry en 1887 con fines políticos, en oposición al gobierno de la República francesa. Pero al hacerse cargo de su dirección la persona de J. Hiriart-Urruty, renombrado en el mundo periodístico, después de muchos litigios internos consiguió darle una orientación apolítica. Aun así, en el transcurso del tiempo ha sufrido altibajos en su dirección, afectando incluso a cambios de nombre, pero en general fiel a la orientación dada por Hiriart-Urruty.

En el período de la última guerra mundial, bajo la dirección de Chalbat Arotçarena, se inclinó como partidaria del mariscal Petain, y al perder la guerra los alemanes este director fue juzgado por el Comité de Liberación. Entonces pasó la dirección a otras manos y le cambiaron hasta su nombre que era Euskalduna, por la impopularidad en que cayó. Arotçarena intentó oponerse a Herria, pero no tuvo éxito por la aludida impopularidad.

Herria ha sabido mantenerse dentro de una línea liberal, de libre y sincera crítica hasta contra el propio gobierno francés, como en los casos de Vietnam y de Argelia, y que con el tiempo

los resultados vinieron a darle la razón. Salvo en aquel período de la ocupación alemana. Sus informaciones siempre han gozado de ser justas e imparciales, y la fidelidad al servicio del hombre le ha honrado a través del tiempo. En el último período de la dictadura de Franco, por las informaciones que emitía de esta parte del país vasco, tuvo sus impedimentos y los suscritores no recibíamos el semanario.

El semanario, no hay lugar a dudas, ha sido uno de los puntales para el buen desarrollo del vascuence escrito y pionero del periodismo de esta lengua.

1977 - VIII - 22

«JAKIN» BERE ARLOAN

Jose Luis Ugarteburu Arrieta-ren oroitzapenez

Gerraondoko euskaltzaleon artean kultur eragilerik biziena izan genduen Jakin aldizkariaz gogoratzean, ezin bestekoa zait bere sortze inguruan euskararen iraupenez hainbeste lan egin zuen J. L. Ugarteburukin oroitzea. Euskararen alde ere isilpean lan egin beharra zen urte haiek ez bai dira hain nekez ahaztutzen. 1954an zortzi lagun ginen Eibarren multikopiaturiko orrietatik euskararen gramatika ikasten hasi ginenak, eta handik urtebetera eskuartean erabiltzen genuen gramatika hura, Umandik egina, Urkixo Mintegiaren babesean Itxaropenaren moldiztegian inprimatu genuen, arrisgu guziak geure lepora hartuaz. Behar bada, taldetxo hartatik formalitaterik gutien zuena ni neu nintzen, eta zortziron artetik zintzoena J. L. Ugarteburu. Bera izan genuen orduko ekintzetan gidarietako bat eta politikatik aparte euskararen alde egin genezakean langintza adiarazten ziguna. Jose Luis, iragan astean, uste gaberik eta bat batean hil da. (G. B.).

Bi aldizkarik zeramaten urte haietako gidaritza: lehen lehenik Guatemalako «Euzko-gogoa», eta Donostiako «Egan»ek. Ur-

te guti barru, herbestearen mugek irentsiko zuten lehenengoa; «Egan»ek, ostera, orduantxe hasi zuen bere emanik beteena.

Zortzi eibartarrotatik batzuk lehenengoko hartan eta Aita I. Berriatuak ateratzen zuen bizkaierazko «Anaitasuna»n egin genituen idazle biderako lehen urratsak. J. L. Ugarteburu berak, bere bi deiturekin egindako izenordez, «Ugarrieta» izenpean ondutako olerkiak argitaratu zituen Euzko-gogo-an. Baina, bera izan zen, batez ere, 1956an Jakin aldizkaria Arantzazun sortzean harpidegintzan lanik geien egin zuena eta aldizkari honen alde esperantzarik gehien jarri zuena. Lehen aldi hartan, gure herriko harpidudenik gehienak berak eginak ziren, eta Umandiren gramatikaren banaketan ere geien arduratu zen. 1968an hil zuten Jakin. Baina, orain berriz dugu eskuartean, eta lagun hilaren oroitzak naroa kultur aldizkariaren historiaz zerbait argitaratzera.

Jakin itzali zen azken parte hartan bertako laguntzaileetako bat zen J. M. Torrealday adiskidearen zuzendaritzapean argitaratzen da igazko urtetik. Hiru hilabeterokoa denez, bi urte hauetan zortzi ale argitaratu ditu. Jaso berri dugu Filosofo berriak ikertzen dituena. Jakin-ek, bere zenbaki bakoitzean lan monografikoren bat burutzen bai du, eta aurreko zazpiren artean honako gai hauek landu ditu: Euskal Unibertsitatea, Nazio ukatuak Europan, estatutoa, Euskal kanta berria, Ekologia Euskal Herrian, Nafarroa eta Abertzaletasuna eta hizkuntza Katalunian - Ikaskintza elebiduna Euskal Herrian.

Gai biziak, egungoak eta kaletar mailakoak. Ikasle eta ikasientzat batez ere. Euskaraz bere maila ulertzeko ez denak, lan monografiko hoietako itzulpenetik ikus dezake, hala da «Navarra desde Navarra», monografiko hoietako batetik aurten argitaratu duten liburua.

Bere historia eta asmoak berriz, aldi berriaren lehen zenbakiaren aintzin solasaren ildotik emango dut gaurko artikulu hontan.

Euskaltzaindiaren gerraondoko lehen Biltzarre irekia egin zenean irten zen plazara Jakin aldizkaria. Lagunarteko giro gozoa aurkitu zuen haur jaioberriak, 1956ko udazken hartan. Lehen aldi hartan 35 zenbaki atera zituen 1969-ra arte.

1960. urteak esanahirik handiena ukan zuen. Orduan nabarmendu bait zen belaunaldien arteko etena. 1959-1961eko urteetan gordinik agertu zitzaigun eztabaidan, Jakin-ek etorkizunaren alde jokatu zuen, egiteko bikain eta premiazko baten alde: euskara kaleratu eta kultura osoa —maila eta mueta orotako jakitekoetan— euskalduntzearen alde. Eginkizun hori oso argi ikusi zuen beti, eta, une bakoitzean, idazlan konkretuetan mamitu nahi izan zuen. Denboraren etorriari garaian garaiko erantzuna eman nahi izan zuen, eta halaxe egin ere, 1960. hartan.

1961eko urtarrilean inprentaratu zen, anartean polikopiatua azaltzen bai zen aldizkaritxoa. Baimen aldetik oztopoak izan zituen eta galerazi ere bai. Baina 1964an berriz argitaratu zen, lehen baino gartsuago eta txukunago. Eraberritua, komentuetxeetatik kanporako aldizkaria. Gizon eta aurpegi berriak ere agertu ziren, redakzioa ere beste giro baten zebillen. Donostian lekutu zen 1968rako. Jakin aldizkariaren urterik onenak ziren 1964tik 1969rainoko haiek. Eta, onenean zegoela, gobernarien erabakia: agertuak ziren idazlan batzuegatik ukatu egin zitzaion Jakin-i legearen babesa. Ez zegoen, beraz, aldizkaririk.

Azken triste hori gora-behera, beteriko lanean aipatu beharra dago Jakin-ek euskara batuaren alde egindako lana. Honen historiatxoan, ez da hau ohorerik ttipienetako. Bera izan zen 1964ko Baionako Erabakiak onartu eta betearazi zituen lehen aldizkaria.

1969an, lege aldetik izan zituen eragozpenegatik, bere zuzendaritza eta redakziokoak liburugintzari ekin zioten eta ekintza honetan ere agertu zuten frutu ederrik.

Baina, 1977an bere jatorrizko langintzari berriz heltzen dio: aldizkariari. Hogei urteren buruan plazaratzen da atzera. Bere zuzendaritzakoak berriz nahi zuten Jakin: izen bera, Euskal Herriarekiko atxekimendu eta egokitasun bera, ikuspegi ugariagoak, luma zailduak, gai biziagoak. Bide luzea egiteko asmoz abiatzen da. Hogei urtetako historiak frogatua utzi zuen, ez dutela lanaren eta burrukaren beldurrik. Hogeigarren urte honek, urte-muga baino gehiago, historia luzeagoaren epe berri baten hasiera markatuko duen uste osoa dugu.

Kultur aldizkaria da Jakin. Kulturaz, herri baten biziera, lana, sentiera, pentsaera, jakitatea, jokaera, sentikortasuna ulertzen

dugu. Ez du Jakin sail, eremu edo ikuspegi batek soilik bereizten. Sailak eta eremuak oro (soziologia, ekonomia, deretxoa, filosofia, erlijioa, zientzia, literatura, e.a.) erabiltzen ditu: eta ikuspegi desberdinetatik begiraturik erabiliko ere. Kultur —pentsamendu—, eta saio-aldizkari kritikoa izanen da Jakin.

Lan-tresna bat da, beraz, Jakin, euskal kultur eta politika ekintzaileentzat, Unibertsitateentzat, alfabetatzaileentzat, irakasleentzat, kultur-eragileentzat, kazetarientzat. Emango dituen azterketengatik, sintesiengatik, ikuspegiengatik eta duen seriotasunagatik, gaurkotasunagatik, orokortasunagatik, onuragarri dakioke euskal langintzan dabilen edozeini.

Euskal Herrian errotzen da Jakin, eta Euskal Herrirako. 1960az geroztik herri honek sortu eta bereganatu duen dinamika berriaren joerak eta ikuspegiak bezala ekarriak, haintzat eta ontzat emanik abiatzen da. Aurrera jarraitzeko asmotan abiatu ere. Bai. Euskal Herriko eta kultura unibertsaleko bide berriak, arazo biziak behin eta berriz tratatuko ditu. Euskal kultura, lehenbaitlehen kultura modernu bilaka dadin, eta kultura unibertsalak euskal kulturaren berezitasuna onar dezan.

Hoiek ziren, hain zuzen, gerraondoko euskaltzaleon asmo eta helburuak. Eta, hastapen hartatik hala etorri da urtez urteko langintza, batzuk eroriala bestek suzia hartuz.

* * *

Hoy dedico mi artículo sobre la revista cultural Jakin a la memoria del amigo José Luis Ugarteburu, uno de aquel puñado de promotores que reactivaron el movimiento literario del vascuence en época de posguerra y que acaba de fallecer en su villa natal de Eibar. El, entre otros, alentó y ayudó a Jakin en sus primeros años.

Jakin, cuando pasó por la prueba siempre difícil de la imprenta, consiguió su mayoría de edad. No era ya una revista adolescente. Hasta entonces, el público ávido de cultura vasca o cultura euskaldun tenía que someterse a la incertidumbre de recibir «Euzko-gogoa» desde Guatemala. Con Jakin se pretendía un esfuerzo semejante, pero desde el interior. Sin olvidar a la revista

literaria Egan de San Sebastián. Pero más aún, Jakin, continuaría la pauta iniciada por «Euzko-gogoa», que pretendía dotar al euskara de una amplia gama temática para ser el exponente de la vanguardia cultural vasca. Jakin, nacida en 1956, policopiada, e impresa desde 1961, en sucesivas ocasiones tuvo dificultades con la censura, hasta que en 1969 fue suspendida por orden gubernativa. El pasado año vuelve a renacer bajo la dirección de J. M. Torrealday, autor de la obra «Euskal idazleak, gaur - Historia social de la lengua y literatura vascas». Es trimestral y lleva ya 8 números publicados, aparte de los 35 que vieron la luz en su primera época.

La revista Jakin quiere ser un instrumento en la labor de investigación y promoción de la cultura vasca. Creemos que el pujante movimiento cultural vasco merece y necesita una revista en la que pueda expresarse con suficiente seriedad y dinámica. La actual dinámica del movimiento cultural vasco no puede expresarse únicamente a través del libro. Los años 60-70 han sido los años del «boom» del libro vasco cuya producción ha alcanzado las cotas máximas de su historia. El libro, exclusivamente, no puede exponer con plenitud la vitalidad de nuestra cultura. La revista nos permite con mucha mayor dinámica y con una enriquecedora interdisciplinaridad en su tratamiento de las materias. Jakin quiere ser una revista de cultura, de pensamiento y de ensayo.

Viene a cubrir un campo totalmente abandonado estos últimos años. Concretamente el campo que abarcaba «Euzko gogoa» o el propio Jakin de su primera época. Esta revista será para minorías, pero indispensable para los universitarios vascos cada vez más numerosos y, a la vez, cubre una misión importante para los propios escritores y profesores, de la gente interesada de una u otra forma en la problemática social, política y cultural del País Vasco, la gente abierta a las corrientes de ideas modernas. Y, naturalmente, los escritores de esta revista, en su mayoría, proceden asimismo de un ambiente cultural análogo. Ejerce una función social y cultural de primerísimo orden.

La actual redacción mantiene la fórmula del número monográfico, tras la consulta a gente relevante del País y el estudio de

revistas españolas y francesas de las mismas características. El cuerpo de cada número está compuesto por un tema central monográfico. Contando, además, para tema específico con asesores especialistas en la materia a tratar. Que ocupa aproximadamente la mitad de la paginación de cada número. El lector no euskaldun puede hacerse cargo de la importancia del contenido de estos trabajos monográficos y el nivel cultural de los mismos a través de la obra «Navarra desde Navarra», traducida y editada por Ediciones Vascas de un tema monográfico que anteriormente vio la luz en Jakin. En todos los números, a la parte monográfica le siguen a continuación unos artículos de actualidad. Artículos cortos y de mucha viveza, siempre con el mismo deseo de conectar con el momento histórico. Otro tratamiento más profundo y científico, tienen los artículos de la tercera rúbrica.

Jakin tiene hoy una tirada real de 3.000 ejemplares, de los que algo más de la mitad son suscritores. El 59,2 por ciento vive en Guipúzcoa, el 27 por ciento en Vizcaya, el 3,7 por ciento radica en el País Vasco continental, el 3,6 en Navarra peninsular, el 1,7 en Alava, correspondiendo el 4,8 por ciento restante a domiciliados fuera del País Vasco. Estos porcentajes coinciden prácticamente con las cifras que se atribuyen a los lectores del euskara en general, por regiones.

1978 - XII - 11

1976. URTEKO EUSKARAZKO LIBURUAK

Egun gutxi dela aurkeztu dute Donostian Cervantes-en «*Don Kixote Mantxakoa*»ren lehen partearen euskarazko itzulpena, Pedro Berrondok egina; Larrakoetxeak jarraitzen du berak aspalditik itzuliak zituen Shakespeare-n obrak argitaratzen, eta igazko urtean Zaitegik eskaini zigun Platon-en elkarrizketen lehen partea kontuan harturik, gerrate aurreko euskaltzaleen gogoa, klasikorik hoberenak euskaratzeaz, poliki poliki beteaz dijoala esango genuke.

Baina itzulpen kontuan izan dugu bestelako berririk ere, joan zaigun 1976ko urte honetan. Besteak beste, Salgariren *Morgan* eta *Sandokan* X. Mendigurenek itzuliak; Goscinny-ren *Asterix*, lau parte, J. M. Arrietak euskaratuak; Schiller-en *Gilen Tell* Jaxinto Setienek euskaratua, eta abar, haur eta gaztetxoentzat. Gainera, hauentzat, *Munduan zehar* deritzan enziklopedia (hamar tomok osatzen dutena) elkarlanean itzulia eta prestatua. Honez gainera, irakaskintzarako liburu asko argitaratu dituzte Santillana, Cinsa, Iker eta Gordailu argitaldariak.

Aurreko urtean baino liburu gutiago argitaratu da. Begirada batean badirudi zenbait aldizkari berri eta politika egoerak, bai idazle eta bai irakurleen atentzioa, beste alde batera eraman dutela, eta neurri batean hala dela esango genuke. Hala ere nahikoa aberats agertu zaigu 1976ko urte hau. Liburu bereziak argitaratu dira eta inoiz baino edizio eder gehiago. Guztira, hirurogoiren bat liburu izango dira. Zenbait aldizkaritan ikusi ditugu hauen berriak, baina baita ere liburura heltzen ez diren kuadernu eta liburuxkak barne direla.

Birargitaratzeen artean, Axularren *Gero*-k bere seigarren edizioa izan du, L. Villasantek prestaturik, erdarazko itzulpenez eta oharrez, eta J. M. Telleriaren edergarriz, oso apain agertua. Arestiren Obra guzien hastapenez, *Poemak* bi tomo handitan emanak. Baina birargitaratzeetan ere izan da edizio arrunt merkerik, hala ikusi du argia Orixeren *Euskaldunak - Los Vascos*-ek bere hirugarren argitaratzean, erdarazko itzulpen ta guzi. Bestalde, Jon Mirandaren poema guziak argitaratu ditu Kriseluk *Orhoituz* izenpean eta bere prosaz *Jon Mirande-ren Idazlan hautatuak* Gero argitaldariak.

Bertsolari liburuetan ere, aurreko urtean hartu zuen bide berari jarraitzen dio Auspoa Liburutegiak, bere liburua argitaratu berri joan zaigun Xalbador adiskidearen *Odolaren mintzoa*, eta Uztapideren hirugarren bat *Sasoia joanda gero* deritzana. Hala ere, Auspoak, bere liburu arruntetan ohi duen legez jarraitu du, *Ustu ezin zan ganbara* izenekoan Txirritaren zenbait bertso ta gertaera jasotzen dira. Eta, une honetan, ahaztu ezinekoa dugu duela hilabete hil zaigun Mikel Arozamenaren *Nere aldia*. Geroztik, herri literaturaren mailan hain lan goresgarria egin duen ar-

gitaldari honek amoriozko bertso bilduma bat argitaratu du.

Sortu diren obra berrietan, arestian adiarazi dugunez, bada bai gauza berezirik. Behar bada, denetatik lanik bereziena Arantzadi Elkarteko talde batek egin duen *Natur Zientziak. Hiztegia* izango da. Liburu hau, gaietan zatikaturik, enziklopedia hiztegi gisa dago, zientzia irakaskintzarako oso ongi egokitua, baita ere gure hizkuntzaren ahalmenen galgatzat. Jakin argitaldariak emana da, eta bide hontatik bere asmoak betetzen baditu, usteak uste, euskarak Unibertsitateko irakaskintza mailak hornitzeko aje guti izanen du.

Baina sorketazko literaturaren aldetik lanik ederrenak Kriseluk argitaratu ditu. Aurreko urtez badago ere, igaz zabaldu zuen L. Haranburu-Altunaren *Zera...* deritzan aleberria, eta oso ona iduritu zaigu; behar bada ez hainbeste R. Saizarbitoriaren *100 metro,* behar bada *Egunero hasten delako*-aren egileagandik zerbait gehiago espero genuelako izango da. Koldo Izagirre eta Luis Mari Mujikaren poema liburuak, *Itsaso ahantzia* eta *Hitzak ebakitzean,* biziki gustatu zaizkigu; eta Bernardo Atxagaren *Ziutateaz* (I eta II liburuak) deritzan irakurgaiaz zer esanik ere ez. Baita ere eleberri atsegina da Juan M. Irigoyenen *Oilarraren promesa.*

Urteko berakadarik nabarmenena saiaera liburuak izan dira. Eskerrak Joxe Azurmendiri, bere etengabeko ekintza arituz, *Iraultza sobietarra eta Literaturaren* ondotik *Zer dugu Orixeren kontra?* izeneko lan bizia eta premiagarria agertu digulako. Eta gogoan izatekoen artean dugu Jon Juaristiren *Euskararen ideologiak* (I) deritzan soziolinguistikazko azterketa.

Gaztetxoen literaturari begira, erromantiko kutsudun *Katalin Erauso* Iñaki Azkunek gertatua eta urtearen bukaeran euskal mitologiaz oinarritutako *Harkaitz, elurra ari zeneko haurra,* J. M. Arrietaren eleberria. Biok dira gaztetxoentzako bezalakoak.

Biografiak ere hor izan dute beren tokia, A. Zelaietaren *Gabriel Aresti* (I) eta A. M. Labayenen *Muñagorri* lekuko.

Reportaje mailan, Latxagak bere ekintzari jarraiki, *Jaka'ra oñez Naparroan zear,* eta Antxon Narbaizak *Goi mendietan zehar* mendizaletasunaren historia eta egintzarik berezienak adiaraziz, bai mundu zabalean eta bai Euskal Herrian, gaztetxoak ez ezik, irakurgai horietan adinekoak ere badute non bazka.

GVERO
BI PARTETAN
partitua eta berecia,

LEHENBICICOAN EMAITENDA, ADITCERA, cenbat calte eguiten duen, luçamendutan ibiltceac, eguitecoen gueroco utzteac.

Bigarrenean quidatcenda, eta aitcinatcen, luçamenduac vtciric, bere hala, bere eguin bidearì, lothu nahi çaicana.

Escritura saindutic, Eliçaco Doctor etaricecta liburu debocinozco etaric. Axular Saraco errotorac vildua,

Ne tardes conuerti ad Dominum, & ne differas de die in diem, Eccles. 5.

BORDELEN,
G. MILANGES Ertegueren Imprima çaillea baithan.
M. DC. XLIII.

Bestelako gai berezirik ere bada. Esate baterako, Junes Casenave-ren *Santa Grazi* pastorala alde batetik eta S. Onaindiaren *Euskal Literatura* (IV) bestetik. Eta, aurreko urtean egina baina igazkoan zabaldua, J. M. Satrustegik inkestabidez egin zuen ikerketaz *Euskaldunen seksu bideak* saiaera.

Berakada sumatu dugularik ere, ezta urte txarra izan 1976koa euskal liburugintzarako. Gainera, oraingo euskarazko produkzioak ez du lehenagoko haien era bateko trinkotasunik; orain era guzietako liburuak agertzen dira, bai adinari begiratzen badiogu eta baita bakoitzaren gustueri ere; ideieri buruz berriz, zer esanik ere ez, eskubitik ezkerrera bada hemen zer hauta. Eta mundu guzian bezala hemen ere, alde batekoak bakarrik irakurtzen dituztenak dira peligrosoak.

Gure gogoa, liburu guziak hemen agertzea izango zen, baina irakurleak ulertuko du artikulu batean holakorik ezin dela. Honegatik, sail bakoitzetik gomendagarrien iduritu zaizkigunak bakarrik aipatu ditugu.

* * *

Durante el año de 1976, la producción de libros en vascuence ha sido algo inferior a la de 1975. Aunque aún seguirán apareciendo libros fechados en ese año, pero hasta la fecha han salido a la luz unos sesenta títulos. Comprendiendo únicamente aquellos que sobrepasan las 48 páginas. Pues entre cuadernos y libritos de cuentos infantiles y juveniles quizás habría que sumar otro tanto.

En las traducciones destacan las obras de autores clásicos como Cervantes, Shakespeare, Platón y Schiller. De Salgari y Goscinny se han vertido obras más propias para los infantiles y juveniles. Entre las reediciones más importantes está el *Gero* de Axular (bilingüe), el poema *Euskaldunak* de Orixe (bilingüe), los dos primeros tomos de las *Obras completas* de Gabriel Aresti y que comprenden su obra poética (bilingüe), más la obra completa de Jon Mirande, en verso y prosa por separado, recopilada de diversas publicaciones.

En el género del bersolarismo hay que destacar las obras del

llorado Xalbador, *Odolaren mintzoa.* A la que le siguen *Sasoia joanda gero* de Uztapide, *Ustu ezin zan ganbara* de Txirrita, *Nere aldia* del malogrado M. Arozamena y la recopilación *Amodiozko penak bertso berrietan* por A. Zavala.

Entre las creaciones propias más interesantes descuella el diccionario enciclopédico *Natur Zientzia* debida a un grupo de especialistas de la Sociedad de Ciencias Naturales Aranzadi. Un diccionario dividido por materias y cada materia precedida por un extenso artículo sobre el tema.

Entre las creaciones literarias destacan en primer lugar las novelas de L. Haranburu-Altuna y de J. M. Irigoyen, una obra de narraciones en dos tomos de B. Atxaga y dos libros le poesía de K. Izagirre y L. M. Mugika.

La producción de libros de ensayo ha sido sensiblemente inferior al de otros años. J. Azurmendi sobre una crítica actualizada de la obra literaria de Orixe, J. Juaristi sobre las ideologías del vascuence a través de la historia y J. M. Satrústegui un ensayo de investigación sobre relaciones sexualees y los criterios a través del tiempo.

En obras para la juventud, además de los numerosos folletos, hemos de hacer una mención especial a la novela adaptada *Katalín Erauso* por I. Azkune, y la argumentada en la arqueología y mitología del país, *Harkaitz,* por J. M. Arrieta. Con todo, la obra extraordinaria ha constituido la enciclopedia traducida con adaptaciones, *Munduan zehar* que se compone de diez tomos y se debe a la labor de un equipo.

Además de las biografías de *Gabriel Aresti* y *Muñagorri* debo recordar los libros de reportaje, a Jaca a través de Navarra por Latxaga y a través de las altas montañas (historia, práctica y conquista de las montañas) por A. Narbaiza.

Una obra pastoral (teatro popular suletino) titulada *Santa Grazi* y el cuarto volumen de la historia de la literatura vasca por S. Onaindía, quizás completen la producción más considerable de 1976. En conjunto, una producción muy variada.

1977 - I - 17

1977. URTEKO EUSKARAZKO LIBURUAK

Iragan den urtea aurretikoak baino motelagoa izan da euskarazko liburugintzan. Agerian dago, politika ekintzak bizkortzeaz euskarazko literatura moteldu zaigula. 1969tik 1974ra bitartean, Euskalherri bertako arazoez eta bertan egosten zen ideologiaz, euskaraz, erdaraz baino liburu gehiago eta hobeak argitaratu ziren, baina azken urteotan ez da holakorik gertatu. Politikagintzat bizkortu direla, azkartasunaren beharrak eraginik edo, erdaraz idatziak gaina hartu dute. Bestalde, zenbait idazle, oso osoan politikagintzara sartu da, euskaragintza bigarren mailarako utziaz. Politika bide onetik badoa, daitakeena, denborarekin egoera hobeak ekartzea. Baina, euskara utzi gabe ezina ote zen?

Baita ere, esan beharra dago, beste idazle asko Deia eta Egin egunkarietan enpleatu dela, kazetaritzari emanik. Hau ere beharrezkoa zen eta luzarora begira frutu ederrik emango digu. Baina, oraingoz, liburugintzarako ahalmenak gutitu zaizkie. Euskal idazleak ogibidean jartzea ere bada zerbait eta zalantzarik gabe, txalogarria iduritzen zaigu bi egunkari hauen lana, txalogarriagoa oraindik bertan enpleatuak direnetatik aparte artikuluz kolaboratzen dutenen lanak ordainduko balituzkete. Baina, itxura denez, oraingoz ez dago holakorik. Horko profeziolizatzea bertan sartu direnak mugatzen dute. Erdarazko kazetak duten norma, «artículo publicado, artículo pagado» delakoaz noiz oroituko ote dira?

Dena dela, euskarazko liburuen produkzioa urritu zaigu. Aurtengo liburuak nekez helduko zaizkigu berrogetahamarrera. Baina, egia esan, azken urteetako kalitate mailari eutsi dio.

Urteko libururik bereziena eta bete betean euskal literaturaren azken urte hoietako mugimendua aztertzen duena, Joan Mari Torrealdayren «Euskal idazleak, gaur» - Historia social de la lengua y literatura vascas» delakoa da. Euskaraz eta erdaraz, gaur egungo mugimenduaren berriak euskaraz eta historian zehar nola etorri den erdaraz, bi liburuok batean bildurik. Euskara eta honen inguruko kultur mundua ezagutzeko eta ikertzeko harrobi paregabea dugun liburua.

Eleberririk guti izan dugu, baina hauen artean, Jon Larizen

«Elurtzan datzan zuhaitz enborra» orainarteko guti bezalakoa da. Gainera, psikoanalisiz lehen euskarazko eleberria noski.

Hitz-lauzko kontaeraz badira K. Izagirreren «Zergatik bat» eta G. Trintxerperen «Eskomunia ala Zoroastroren artalde!», era berriak urratuz datoztenak.

Poesiaz ere bada ezer berririk eta ezer atsegingarririk, bai poeta eta bai liburuz. M. Ertzilla poeta gazte eta berriak ongi ekin dio sail honi «Hitzik anitz idatzi dut» deritzan bilduma politarekin. Amaia Lasak bere bigarren emaitzaz «Hitz nahastuak» deitu liburua eskainiaz eta Iratzederrek hirugarrena «Fededunen arbasoa» delakoaz. Ertzilla, Lasa eta Iratzederrenak Leopoldo Zugazak argitaratu ditu honetarako sortu duen sail egoki batean. Patri Urkizuk ideia berriak kopla zaharretan, «Dorregilko kanta» izenez; B. Gandiagak «Uda batez Madrilen» deritzana, Espainiako hiri nagusian izan zituen esperientziaz horniturik. Eta, horien artean ezin ahantzi Salbatore Mitxelenaren «Idazlan guztiak» bildumaren lehen tomoa, «Unamuno ta abendats» saiaera bere barne duela. Poesia sailerako urte aberatsa benetan.

Antzerkian ere sortu zaigu zerbait berri, E. Arozena eta X. Leteren «Antzerkia. Deuseztik izatera» eta L. Haranburu Altunaren «Gernika». Baina aipagarria da Antonio Labayenek hainbeste aldizkari eta liburuxkatan sakabanaturik zituen antzerki lanak liburu mardul batean bildurik argitaratua.

Saiaerazko liburu ederrik ere agitaratu da. M. Zarateren «Euskal Literatura», M. Lekuonaren «Aozko Literatura», J. L. Davant-en «Aberri eta klase burruka euskal mugimenduan», G. Garateren «Maoren marxismoa: Maoismoa» eta Joxe Azurmendiren «Zer dugu Orixeren alde?» deitu liburuak. Gai eta kategoria desberdinekoak baldin badira ere, gure literaturaren aberasgarri datorzkigu, azken urteotan landu den saiaera goian utziz. Sail honetan bereziki sartzekoa ez bada ere, linguistika saiaeraren barne uztekoa da Txillardegiren «Oinarri bila».

Iker lanez burututakoegandik bere aipamena merezi du A. Arrindaren «Euskalerria eta arrantza»k, gai honen historiari dagokionez.

Zientzia gaietan, «Euskalerriko itsas abereak», Gipuzkoako Ozeanografia Elkarteak egina eta «Euskal baserriaren oraina eta

1977. urtean Gipuzkoako Aurrezki Kutxak argitaratutako liburuetarik bat

geroa», M. Etxezarretak burututako lana, Etxanok euskaratua.

«Etxahun-Iruri khantan» herri literaturaren nortasunezko galga ederra dugu bereziki zuberotar koblakariena beren doinu ta guzi. A. Zabalak bere aldetik «Afrika'ko gerra» (1859-1860) bertso bilduma ederra agertu digu historiarako jakingarri.

Obra zaharretarik, igaz Jakin-goek argitaratu zuten «Gero» bera, euskaraz eta erdaraz, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak birargitaratua.

Itzulpenen artean, Kardaberaz taldekoek burutu dute B. Larrakoetxeak itzuli zituen Shakespeare-ren antzerki lan guziak argitaratzea, bost liburutan bilduaz. Kasildo Alkortak, gaztetxoentzako literatura klasikotik, Herman Melville-ren «Moby Dick» eman digu.

Aipagarrien arteko, era orotako lanez, euskaraz eta erdaraz, Manuel Lekuonaren omenez Kardaberaz taldekoek argitaratu dituzten hiru liburuak ere ongi merezi dutenetakoak dira.

Gai berezien monografiarik ere ez zaigu falta izan; Gordailukoez gainera hor ditugu Geroren Kimu sailekoak ere.

Ezinezkoa da liburu guziak aipatzea eta gure eskuetara heldu direnetatik sail bakoitzeko aipagarrienak iduritu zaizkigunekin konformatu beharko gara. Baina, azkenik, X. Kintana eta L. M. Muxikaren Hiztegiak ere holako aipamen berezia merezi duten liburuak ditugula esan beharrez agertzen gara.

Gure kultur mundua hain handia ez delarik ere, aski zabala denez, bada hor zer irakurri. Eta, nork daki gure politikoek gure erakundeak jartzen badituzte zer nolako ekintzen aurrean agertuko garan. Behintzat, ez dezagun itxi esperantzaren leihorik, eta behar bada zerbait onik ere sartuko zaigu.

* * *

La producción de libros durante el año 1977 es sensiblemente inferior al de estos últimos años, sea porque algunos escritores euskaldunes hayan prestado más dedicación a las actividades políticas, o sea porque otros se hayan inmerso en los diarios bilingües Deia y Egin.

Sólo se han publicado unos cincuenta libros en euskara. Pero, sin embargo, se ha mantenido el nivel de calidad de los últimos años. Los libros de poesía y ensayo han alcanzado las cotas más altas. La producción de novelas ha sido muy baja en cantidad, pero la obra de Jon Lariz ha de ocupar un lugar entre los preferentes de este género en vascuence.

La obra más extraordinaria del año, es sin duda «Euskal idazleak, gaur - Historia social de la lengua y literatura vascas» de J. M. Torrealday. Obra voluminosa donde se integran dos textos; en vascuence se analiza el movimiento literario de los últimos años y en castellno presenta una historia general de la lengua y literatura en su contexto social.

Ha habido otras obras importantes en teatro moderno y en investigación, que vienen a engrosar el fondo cultural de nuestro idioma. Por otra parte no debemos olvidar la reedición del «Gero» (Después) de Axular con traducción al castellano y la finalización de los volúmenes traducidos de la obra teatral completa de

Shakespeare. Del mismo modo habría que destacar la obra «Etxahun-Iruri khantan».

Es de esperar y desear que el cultivo literario en vascuence no disminuya y que las nuevas directrices políticas presten el apoyo necesario a su incremento. No olvidemos que la iniciativa privada ha sido el único sostén del crecimiento en los años oscuros de la dictadura.

1978 - I - 9

ELEBITASUNA DELATA

Azken hilabete hontan bada bazterretan zer esanik eta baita zer ikusirik ere. Batez ere nafarren deira Euskal Herriko eskualde guzietatik etorri ziren hotsetatik eraginik. Asko eskatu da, guti lortzeko. Ni neu tristuraz bete ninduen, ikurrin bategatik hainbeste tira-bira eta alde bietatik hainbeste odol erori beharraren tristura. Dena dela, hor dago. Baina horrekin besterik ez ahantzi

1975eko abenduaren batean *Hoja del Lunes* honetan argitaratu nuen «Euskararentzat berri hobeak» zeritzan artikulu bat. Gaur ordea, urtebete igaro ondoren, bertan esandako guzia esango nuke berriz ere, zeren ordutik honerat hizkuntzaren alderako aurrerapen guti egin dugu. Euskaltzaindiaren nortasuna ofizialki onartzea, Donostiako «Normalean» euskal katedra sortzea eta zenbait ikastetxetan euskarazko irakaskintzak jartzetik aparte.

Elebitasunaren alderako, igaro dugun urte hortan, gehiago espero genuen. Berriz ere orduan esan genuenari helduko diogu: XX. mendeko Europan, lotsagarrizkoa dela tokiko hizkuntza natural batek ofizialtasunik ez izatea.

Baina ezta hori bakarrik, irakaskintzarako lege berrian leihoa iriki zen euskara irakasteko, eta urte betean ur asko igaro da zubipetik, baina legeak eskatzen duena bera ere ez da bete. Legea bideratzeko irakasleak beharko dira, baina euskara irakasteko ahalmena duenik bada Euskaltzaindiak zabaldu dituen tituludunetan eta hoiek onartzen ez badira ez dago ezer egiterik. Maisu

edo maistra faltaz hainbeste ikastetxetan daude titulurik gabeko laguntzaileak eta euskararekin holakorik ez da posible nonbait. Oztopoak jartzeko atxikia ederra. Jokaerak aldatzen ez baldin badira elebitasunean ere izango da holako oztoporik.

Bestalde, hizkuntzen ofizialkidetasunari beldurra dionik ere bada. Holakoak izan ziren Martín Villa gobernazioko ministro jaunaren hitzak ere, Iruñara etorri zenean: «Del euskera hay que dar la posibilidad de hacerlo llegar a todos, pero no imponerlo». Ideia oso ona da, egia oso handia. Baina ez du balio euskararen ofizialkidetasunari buruz zalantzan egoteko. Gaur, Euskal Herrian, eta batek badaki noiztik, gaztelera ofizialki behartua da euskara besterik egiten ez den herrietan ere. Inposizio hau arrazoizkoa ote da? Pedagogiari onik egiten ote dio?

Carlos III.a izan zen 1768ko ekainaren 23an *Real Cédula* baten bidez irakaskintza guzia «únicamente en lengua castellana» jarri zuena eta geroztik hemen gaude «imposición» horren azpian, eta estaduko gizon batek horrenbeste jakin behar luke. Guretzat behartua izan zen beste hizkuntza batean hezitze hori. Hontaz euskaldunok ez dugu zalantzarik, eta behartze horren agiriak ikusi nahi dituenak, argitaratu berri den «Fontes»en aurkituko ditu. «Fontes Lingvae Vasconvm» Nafarroako Foru Diputazioaren Institución «Príncipe de Viana»-ren linguistikazko aldizkari eder bat da eta bere 24. zenbakian (Año VIII, Septiembre-Diciembre, 1976) Justo Garateren lan zehatz bat dator, bere lanetan ohi duen ageri zehatzez, «El anillo escolar en la proscripción del euskera» izenez. Hor ikusten da gure hizkuntzaren zapalketa nolakoa izan den.

Dabilenak egiten ditu hutsak eta denbora eman beharko diogu Martín Villa jaunari berekikoetan bigarrenez pentsa dezan. Naturala den hizkuntzari eskubide naturala zor zaio, eta bere eskubidetasunean biziko bada etxe zokoa eztu aski, eskola, komunikabideak eta gainerakoak behar ditu. Erabakia hartzeko ahalmena duten guziek pentsatzeko denbora har dezatela; baina, arren!, euskarak presa du. Osagarriok laster behar ditu. Gogoan izan Euskal Herriko prolemak askoz ere larriagoak direla hizkuntza bizirik den tokietan, euskaldunak zapaldurik ikusten direlako.

Erabaki ziurrak ez dira hain zailak eta hain nekezak. Elebitasuna nola eraman ere badakigu. Ikastolen esperientzia luze eta nekezak hor daude lekuko. Ikasketak euskaraz eta euskara ikasketa, era bietan eginda saio ederrik, non eta noiz zelan behar den jakiteko. Bestalde, Unesco-k 1954an argitaratu zuen, gazteleraz (urtebete lehenago frantsezez) «El empleo de las lenguas vernáculas en la enseñanza» deritzan liburua, bere parterik gehienean elebitasuna nola eraman adiaraziz. Baina liburu hori, ez dakigu zergatik, Espainian ez zen zabaldu. Honez gainera, Europan bada naziorik aski ispilutzat zerbituko digunik, elebitasunaren gora-beherak nahikoa ondo erabakita.

Gai honen azterketak erabili nituen *Euskeraren inguruan* (1969) deritzan saiaeraren III eta IV kapituluetan; ulertu eza eta ulertu ezinagaitik irakurri eza ere elebitsunaren prolematika barnean sartzen dira. Nonbait, sakon eta zehatz ulertu nahi gaituztenek gure hizkuntza ikasi beharra dute; zeren, badirudi, gu berena ikasten ahaleginduarren, ez garala elkar ondo aditzen. Ia laster argitara izango den «liburu zuriak» argibide gehiago ematen duen.

Azkenik, esan beharrean naiz, gai hontaz ere, gure bertsolarien humorezko filosofiak arrazoi bidezko erantzun ederrak eman zituela lehengo igandean Donostiako Balda pelota lekuan, Lizasoren omenez gertatu zuten saioan.

* * *

Los últimos acontecimientos del país, entre otras cosas, han puesto al rojo vivo el asunto de la cooficialidad del vascuence. En un artículo que publiqué en estas mismas columnas con fecha del 1 de diciembre de 1975, auguré una nueva era para el porvenir del euskera y desde entonces, efectivamente, se ha progresado muchísimo. Pero aún falta lo esencial: el reconocimiento oficial en paridad con el castellano. ¿Y, qué menos se puede esperar en pro de una lengua natural del lugar, que por lo tanto, le asiste un derecho natural?

Las declaraciones hechas por el señor Ministro de la Gobernación, don Rodolfo Martín Villa, el día 14 de los corrientes, en Pam-

plona, no han sido nada constructivas en lo que se refiere al proceso hacia la normalización del derecho a la supervivencia de nuestro idioma. Por encima de todo, urge el afrontar la cooficialidad. No es válido argumentarse con temor «de imponerlo», cuando la imposición del castellano ha sido y es un hecho, desde Carlos III hasta nuestros días, incluso extremamente agudizado en las décadas cuarenta-cincuenta. Sus consecuencias están reflejadas en la política y los problemas son más graves en las zonas vascófonas, porque se han sentido más afectadas.

Qué interesante sería impartir las dos lenguas en la enseñanza. Que los vascoparlantes se instruieran en su lengua y se les enseñara el castellano, y los no vascoparlantes recibieran la instrucción en castellano y se les enseñara el vascuence básico. Nadie tendría por qué sentirse marginado y sería un paso decisivo a la convivencia. Incluso los de las zonas que ya no se habla vascuence tienen derecho a recuperar la lengua de sus padres o de sus abuelos para conectar con el mundo cultural de tradición éuskara, por lo menos si sus voluntades se prestan a ello. En definitiva, lo que con la cooficialidad se pide, en lo que respecta a la enseñanza, no es ni más ni menos que la aplicación de las normas emitidas por la Unesco en los años 1953-1954.

La represión del euskera en materia educativa está ampliamente expuesta en el último número de la revista especializada en estudios lingüísticos «Fontes Lingvae Vasconvm», número 24, que edita la Institución «Príncipe de Viana» de la Diputación Foral de Navarra. En la página 367 hallaremos una amplia aportación del Dr. Gárate bajo el título «El anillo escolar en la proscripción del euskera», con algunos documentos que dan pavor.

De todas formas, abrigamos una gran esperanza en la creencia de que en un plazo no muy dilatado se ha de superar este problema y la cooficialidad será realidad para bien de todos.

1977 - I - 24

KALE IZENAK EUSKARAZ

Euskaldun normal batek, Gipuzkoan behinikpehin, ondotxo daki «kale» hitza bera hiri edo herriagatik erabiltzen dela eta hiritarrentzat inoiz «kaletarra». Honegatik, egunotan entzun eta irakur duguna kontuan harturik, bi zentzuak hartu nahi ditugu artikuluaren izenburuarekin.

Euskaraz zertxobait dakienak, Euskal Herriko historiak irakurri baldin baditu, jakin behar luke hiribilduak (villas) sortzeaz sartu zirela kale izenak, agiriak erakusten digutenez.

Hitzak, herriak berak erabilkeraz sortzen eta finkatzen dituenez, herritarren iritziak beti dira jakingarriak. Inoiz iritzi okerrak ematen dituan herriari, entzun egin behar zaio, behin baino gehiagotan irizpide jakingarriak agertuko dituelako. Honetan ez dugu inolako zalantzarik. Baina talde edo Alderdi baten izenean hitz egin behar dutenek —Amara auzokoek bezala, esate baterako—, beharrezkoa dute gaia menderatzen duten kontseilariekin hitz egin ondorean beren aburuak agertzea, edo lehen lehenik kale izenak jarri dituztenekin hitz egitea, besteak lotsagarri utzi nahirik beren buruak lotsagarringo egin gabe.

Holako langintza bat leporatu behar duenak badaki zein iturritara jo behar duen. Historia eta hiztegiak horretarako dira. Honegatik, gaurkoan, askoren jakinbiderako baliagarri izan daitezken, hara hemen zenbait argibide:

Bide (camino), latineko «via»tik baldin badator ere, aspaldidanik euskarazko deituretan dago. Eneko Iturbideko, Nafarroan agertzen zaigu, Orden de San Juan de Jerusalen-go agirietan, XIII. mendean. Leizarragak eta Axularrek ere erabilia da, eta inork ez du izango orain euskaldundua ez den zalantzarik.

Galtzara (calzada), hau ere deituretan dugu, Galzagorta adibidez. Badakigu ekialdean «harpidea» eta honuntzago «Arbide» erabiltzen direla, baina hoiek inoiz harriak eramateko bideak dira eta ez harrizko bideak. Dena dela, Donostian bertan hor dugu Galtzaur (Galzaur), hemen diogunaren lekukotasunez, eta baita ere herri kantetan beste honako hau: «Elizatikan komenturaiño, egin digute galtzara...», Donostiako Orfeoiak inoiz kantatua.

Hiribide, uribide (avenida), Euskaltzaindiak langintza luze eta

ondo aztertuaren ondorean «Zortzi urte arteko Ikastola Hiztegia»an hola erabaki zuen. Ez dut esango ondo ala gaizko dagoen, baizik, hor dago; euskaltzain osoek aztertu eta onartua. Hala ere, behar bada Etorbide egohiagoa da eta zenbait herritan, berriki, hola jarria dute.

Kale, karrika (calle), «Zortzi urte arteko Ikastola Hiztegia»ren zerrendan ez badatoz ere, kale-hiztegi zerrenda buruan, 56garren orrialdean aurkituko ditugu. Bi hitzok (*karrika* eta *kale*) muga jakinak dituzte, batasun biderako biak onartuak baldin badira ere, guziok dakigu ekialdekoek «karrika» erabiltzen dutela eta mendebaldekoek «kale». Zein bata edo zein bestea, biak jatorrak dira. Donostian, 1897ko apirilaren 13an bertako Udaletxeak onartu zuen zerrendan beti «kale» agertzen da. Errenderiko hirian ere kaleak dira, baina Oihartzunen hasten da karrika eta Nafarroan eta Lapurdi aldean ere hola erabiltzen da: Karrikondo, Karrikart eta Karrikaburu deiturak ere sustrai hortatik datoz. Baina Landuchiok (1562) *kalea* dakar eta hola erabiltzen da. Batxiller Zaldibiak XVI. mendean jaso zuen bertsoak: «Mosiur Chanfarron jaun andia / Irun kalean daza illa» dio. Baina hau berau baino lehenagokoa dugu Arrasateko eresi hura, Garibaiak XV. mendekotzat jasoa:

«Giputz andraok artu ditu gaxtoto:
Iturriotz kalean andra Maria Baldako,
Arte kalean andra Oxanda Gabiolako,
Errebalean andra Milia Lasturko».

Horregatik, ongi aritu zen gure Iparragirre, «Ume eder bat ikusi nuen / Donostiako lakean» kantatu zuenean. Gaur oraindik ere, «ume ederrak» hor ikusten bai dira. Baina, zer diote gure Orixe irakurri dutenek? Orixe berak, gure izkribatzaile handiak, *Euskaldunak* poemaren «Estropadak» deritzan partean kale erabiltzen bai du. Beraz, donostiarrei nork uka beren hitz jator hori?

Parkea (parque), aipatu dudan ikastola hiztegi hortan horrela jasoa dator, euskaltzainak hautatua. *Pasaia* (pasaje) ere berdin. Eta hiztegi hoiek ez dira ez erabiltzeko. *Pasealekua, ibiltokia* (paseo) hitzak ere hor daude, hiztegi hortan. *Paseaitako lekua* jartzen

du Landuchiok (1562). *Parkea* inglesak ere erabiltzen baldin badute, eta aipatutako ikastola hiztegi horren 57. orrialdean hola agertzen zaigu.

Pasealekua aspalditik oso ezaguna dugu Gipuzkoako herri askotan. Eta, besterik ezagutzen ez bada, zergatik ez erabili? Gainera, Leizarragak dakar *paseatu.*

Plaza (plaza), hau ostera, alemanak ere erabiltzen duten hitza dugu. Euskarazko lehen liburu inprimatuan, 1545ean, Etzeparek, Kontrapas deritzan olerkian: «Heuskara /Ialgiadi plazara» garbi asko jarri zigun. Kanta zahar askotan ere aurkituko dugu, besteak beste, hain ezaguna zaigun «Ama begira zazu leihotik plazara» delakoan. Landuchio (1562), Leizarraga (1571), Axular (1643) eta Orixek (1950) ere hola erabiltzen dute (ikus «Pestaburu» deritzan lehen kapituluan). Euskaldun deituretan ere sartua dugu, Plaza, Plazabeitia, Plazaola (ikus L. Mitxelenaren *Apellidos vascos*). Donostian bertan, 1897ko kale izenen zerrenda hartan agertzen da, baina oraindik orain ere bada Donostian «Calle Plaza-buru» delako kale bat. Beraz, zein harritu behar da holako izena onartzeaz? Batzuk, jatortasunik gabeko *Enparantza* nahiagoko dute. Baina, hitz hau nork daki Arakistainek non eta nola jaso zuen? Beste inork ezin izan bai du plaza bezala egiztatu. Bestalde, Enparantza, beste ideia batekin ezagutzen da, eta nahastea ez baita euskararen onerako.

Plazatxo, xabalko (plazuela), aurrekoaren laburpen bezala agertzen zaizkigu «Zortzi urte arteko Ikastola Hiztegia»n, baina bietatik bat hautatzean, zer hoberik 1897an Donostian bertan onartua zen zerrendakoa baino?

Zehar-kale (travesía), donostiarrentzak berria izango da, baina Gipuzkoako mendebaldean eta Bizkaian oso ezaguna. Adibidez, Durango eta Markina hiribildu sortu zeneko kale izenen artean aurkitzen da «Ziar-kalia» oraindik ere horrela deritzana (ikus, J. J. Mugartegi, *La Villa de Marquina* liburuaren 8. orrialdea). Baita ere, hala dakar Plazido Mujikak *Diccionario Castellano-Vasco* delakoan, «calle transversal», *zear-kale.*

Zumardia (alameda). *Zumar,* «olmo» dela argi dago Azkueren hiztegian. Baina, baita ere, *Zumartxuri,* «álamo». Behar bada hutsen bat dago hemen, baina Larramendik bere *Diccionario Tri-*

lingüe (1745) delakoan, «Alameda», *zumarradia* dakar, eta «álamo», *ezkia zumarra*. Añibarrok, «*Alamo*», zumarra. Eta Orixeren *Euskaldunak* liburuko 609. bertsoan (estrofa), erdal itzulpendun edizioa hartzen baldin badugu, *Zumardi-antza*, «Como hilera de álamos» itzultzen du. Beraz, okerrik bada ere, Orixe bezalako maisu batek ere huts egin digu.

Beste batean adiaraziko dugu Donostiako kale izeneri buruzkoa, oraindik bukatu gabea dagoenez, zeren batek bakarrik egin bai du eta ez «cinco enquistado en ella» delako talde batek. Horregatik, baita ere sean beharra dugu, Euskaltzaindiak ez duela sortu inolazko zatiketarik, ezertariko proposamendurik egin ez denez gero.

Herrigintza batean guziok dugu eskubidea; egia da. Baina konforme ez daudenek esan dezatela ia iturri jatorragoak non aurkitu behar ditugun eta oso pozik eskertuko ditugu. Gainerako edozein ideia ere onartua izanen da.

Otoi, gure egitekoa itzultzea da, izenak aldatzeko eskubiderik gabe. Izenak jartzea Udaletxearen eginkizuna da.

Edozein hizkuntza normaletan bezala, erabiltzen diren hitzetan oinarritu gara. Gure literaturak bere historia du eta hiztegiak ere laguntzaile ditugu. Hitzen jatorria aztertzea linguistika sailekoa da. Plaza griegotik, bide latiñetik, Karrika erromantzetik eta kale behar bada arabetik (batzuen ustez euskarazko sustraiak baldin baditu ere), beste arlo bateko egintza da. Hitzok, orain, beste hizkuntzen haina gureak dira, zeren beste hizkuntzak ere bereganatuak dituzte, normala den bezala.

* * *

La terminología urbana en vascuence, probablemente surge unida a la creación de las villas según nos atestiguan los documentos históricos, y nada tiene de extraño que al igual que las lenguas circundantes se haya valido de préstamos. Algunos de estos términos han quedado incrustados en los apellidos; por ejemplo, *bide, galtzada* o *galzada, hiri* o *uri, karrika, plaza,* etc. Y no digamos en la literatura, cuando en las pocas pero sabrosas endechas que hemos heredado del alto medioevo, primicias de

nuestra literatura, encontramos repetidas veces *kale.*

Desde la misma Edad Media, el uso de estos vocablos ha tomado carta de naturaleza, tal como se demuestra documentalmente en el texto en vascuence. Que *plaza* venga del griego, que *bide* provenga del latín, *karrika* del romance, y *kale* tal vez del árabe, nos debe tener sin cuidado. No importa el origen de su procedencia. El vascuence, como cualquier otra lengua normal y culta de Europa, tiene derecho a los préstamos, debe usar estos términos vasquizados, y de hecho los utiliza. Nada hay de malo en ello. Es el proceso normal de toda lengua, y su ley de vida. Es más, en dichos préstamos y en otros derivados nos hemos de basar en la formación de otros términos más modernos, necesarios para expresar todos los conceptos urbanísticos de la sociedad actual. Si no somos conscientes de ello, hemos de contribuir al anquilosamiento de la lengua.

Si queremos una lengua viva, no nos valen los términos más o menos camuflados de vasquía. Es hora de enterrar los falsos purismos, si no queremos enterrar la propia lengua. *Enparantza,* por ejemplo, cuyo significado no se ha podido averiguar como correspondiente a *plaza,* y que, sin embargo, sabemos que responde a una cosa distinta, pretender utilizar como *plaza* sería como poner en circulación una moneda falsa. Y, *plaza,* es un término que aparece en el primer libro impreso en euskera, en 1545, y en otros autores antiguos y aun hoy sigue arraigado en el pueblo. Para un ejemplo, en el mismo San Sebastián existe una calle llamada *Plaza-buru.*

En la misma ciudad de San Sebastián, en la relación preparada para la rotulación de la Parte Vieja en 1897, todas las calles figuran *kale.* Dentro del idioma tiene el mismo derecho que *karrika,* también aceptado para la normativa unificada por la Academia, y que se utiliza en los dialectos orientales, pero no en San Sebastián. Tiene su origen en los romances, y de ahí que en catalán se conozca como «carrer» y hasta se use en castellano, derivado a «*carrera* de San Jerónimo», por ejemplo. Pero este discurrir entra dentro del campo de la lingüística, y en la nomenclatura callejera sólo se trata de adoptar la forma más idónea basada en la tradición y uso, puesto que toda la terminología ur-

banística tiene un origen extraño a través de préstamos.

En un próximo artículo trataremos concretamente de San Sebastián. Sirva el presente para que el buen lector comprenda que en esta materia, como en muchas otras, en primer lugar es preciso aclarar conceptos y luego recurrir a las fuentes más seguras, y sobre todo al propio uso que a dichos términos ha sabido dar el pueblo euskaldun. Sólo así contribuiremos a la reactivación del idioma que tantos impedimentos ha sufrido y sigue sufriendo desde los organismos oficiales.

1977 - III - 14

Oharra: Gai hau Euskaltzaindiko batzar batean aurkeztu nuen txosten batean sakonago landu nuen eta «Euskera» aldizkarian argitaratua dator. Ikus, «Hirietako izenez». Euskera, XXII (1977), 639-646 orrialdeetan. Han bertan agertzen da erabili nuen bibliografia osoa ere.

DONOSTIAREN PARTE ZAHARREKO KALE IZENAK

Donostian gaur parte zahartzat ezagutzen dena bera baino zaharragoa zen Antigua partea (Antigua, eta ez Antiguo), hemen bai du Gipuzkoako hiri nagusiak bere sorrera. Baina XIV. menderako orain Parte Zahartzat ezagutzen dena izan da garrantzitsuagoa eta handiagoa ere bai.

Bere kaleak onduen estudiatu zituena Serapio Mujika izan zen, *Las Calles de San Sebastián* deritzan liburuan adiarazten digun bezala. Liburu hau 1916. urtean argitaratu zuen eta 1965ean birargitaratua izan zen.

S. Mujikak bere lanerako erabili zituen agiri zaharrik oinarrizkoenak 1338 eta 1433 urteetako erreketetan, 1489 eta 1630 urteetako Ordenantzetan eta 1566ko errolkatik atereak izan ziren. Horiez gainera, Ugartemendiak 1813an urte bereko erreketaren ondorean jaso zuen planoa eta baita 1860 bertako etxe-

-bizitzak numeratuz egin zenarenean; bestalde, 1897ko apirilaren 13an euskaraz jartzeko onartu ziren izenak era ematen ditu. Eta orduan Donostiako Udaletxeak onartu zituenen argitasunak emango ditugu.

Ongi informatu gabeko askorentzat kale eta plaza hitzak hain gogozkoak ez badira ere, jatorrak eta Donostian hain bertakoak izan direla aitortu beharrean gaude. Euskal literaturan ere hala erabiliak dira eta Donostiaz idazteaz erabili dituztenen arteko ditugu Iparragirre Bilintx, Anabitarte, Orixe eta beste. Eta hoien itzala inork ezin lezake ukatu.

Agustín Anabitarte donostiar idazlea, 1932an Euskaltzaindiak Schuchardt zeritzan sariaz goretsi zuen *Donostia* izeneko irakurgaiagatik. Lan eder hau «Euskera», XIV (1933), aldizkarian publikatu zen eta bertatik liburu berezi bat ere eginaz. Euskaraz jator idatzia egoteaz gainera badu liburu honek bestelako dohainik ere bertako kondaira jakingarri asko jasotzeaz. Txistularien kale-jira adiaraztean honako pasarte hau dakar bertako kaleetaz: «Plaza Berritik asi ta Arrandegi, Esnategi, Ureta ta Eskotilla-kaleetan barrena bira osoa egiten zuten ostera PlazaBerrian sartzeko». Berri askoren artean bi kale ere ematen ditu S. Mujikak aipatzen ez dituenak, Parte zaharrari dagokionez, «Asto-kale» eta «Ureta-kale».

Honen bestez, irakurlea ohartuko da egiazko jatortasunez, eta euskarazko izenen hariari jarraituko diogu, batez ere 1897an Udaletxeak onartu zituenetan baliatuz:

Aingeru-kalea (Calle del Angel).

Apaiz-kalea (Calle de Fermín Calbetón, antes del Puyuelo). 1338ko erreketan eta 1489ko Ordenatzetan *Poyuelo* izenez agertzen da kale hau. Gaur ordea, bikotasunik gabe erabili nahi baldin bada *Fermín Calbetón kalea* izan beharko da, itzulpena hola delako. Baina Udaletxearen esku dago Apaiz kale deitu ala ez.

Arrandegi-kalea (Calle de la Pescadería).

Aza-kale-zarra (Calle de Embeltrán). 1566ko agirietan «Denbeltran». *Embeltrán* (Em Beltrán, Don Beltrán esan nahi du gaskoinez). Dunixi Azkuek, *Mi pueblo ayer* liburuan (1932garrengo edizioaren 22. orrialdean) *Ama-Birjiña-bea* deitzen dio. Orain, Enbeltran kalea edo Aza kale-zaharra izan Udaletxearen eskuetan

dago.

Bilinch-kalea (Calle de Vilinch). Oraingo ortografiaz Bilintx kalea hobeto dago, eta erdaraz ere Bilintx behar luke.

Brechako-Plazachoa (Plazueta de la Brecha). Grafia berrian Bretxako Plazatxoa behar luke. Baina gaur egun apenaz erabiltzen da, Udaletxeak (Gran Casino zenak) bere leku-izenez baizik.

Eskotilla-kalea (Calle de San Jerónimo). Erdaraz ere erabili izan zen «de las Escotillas» bezala. Eta, erdaraz, bikoiztasun hau ezinezkoa bazen, euskaraz ere, arrazoi beragatik, bata edo bestea hautatu beharra du.

Esnategi-kalea (Calle de Narrica). (Na-Rica = Doña Rica, Enriqueta da gaskoinez). 1464. urteko agirietan agertzen da *Esnategi*. Baina, bikoiztasun hau ere Kontsejuak erabaki beharko du.

Collado-kalea (Calle de los Esterlines). 1566ko agirian «Calle de los Esterlines», baina 1897an Collado kalea jarri zioten euskaraz, eta 1909an Esterlinestarren-kalea jartzea erabaki zuten. Hitz hau aintzinako «Anseáticos» edo «Esterlines»etatik dator, honegatik, *esterlings* ez famili deitura eta ez herri edo auzo izena ez denez, ezta baserria ere, —tarren atzizkirik gabe behar luke, Esterlin kalea, soilik.

Igentea-kalea (Calle de Igentea). 1566ko agirietan agertzen da. Baina euskaraz jartzean g-ren ordez j hobeto letorkio, Anabitartek jartzen duen bezala, Ijentea kalea.

Ikatz-kalea (Calle de Juan de Bilbao). Hemen ere berriz agertzen zaigu bikoiztasun hori; baina itzultzaileen egitekoa ez da Ikatz kalea eta Joan Bilbao kalearen artean hautapena egitea, erabaki hau hiriko agintariei dagokie.

Iñigo-kalea (Calle de Iñigo). XVI eta XVII. mendeetako agirietan agertzen da. Eneko kalea behar bada jatorragoa litzake, baina B. Iraola eta A. Anabitarte euskal idazleak Iñigo erabiltzen dutenez, dagoen bezala uztea hobe izango da.

Kale-nagusia (Calle Mayor). Agiri zaharretan erdaraz agertzen da, baina, zalantzarik gabe, herriak ahoz aintzinatik erabiliko zuen Kale Nagusia, hiri-bilduetan maiz agertzen den bezala, eta hala erabili zuen Bilintxek ere: «Iru errege datoz / Kale Nagusitik...».

Kayaurreko-kalia (Calle de Frente al Muelle). Orain uste dut Muelle soilik erabiltzen dela. Oraingo grafiaz Kaiaurreko kalea

behar luke. Baina, Kai edo Molleko etxeak ordea, Jarana izenez ezagunagoak dira.

Lasala-ren-Plazachoa (Plazuela de Lasala, antes de la «Aduana»). Orain Lasala plazatxoa hobe, 1853an hil zen Fermín de Lasala-ren oroiz jarria da.

Lorenzio-kalea edo *Asto-kale* (Calle de San Lorenzo). Agiri zaharretan «Lorencio» soilik aurkitzen da eta ez dakitu gero nondik sortu edo gehitu zitzaion santu izena. Aldatu behar den ala ez Udalètxekoek erabaki beharko dute. Herriak, kale hau, *Asto kale* izenez erabili du.

Peru-Juancho-kalea (Calle Nueva de Perujuancho). 1896an erabaki zen Nueva kendu eta Peru-Juancho soilik erabiltzea, baina hemen ere tipitzeko atzizki hori -txo grafiaz jarriaz.

Plaza-Berria (Plaza de la Constitución, antes «Nueva»). Orain Plaza de 18 de Julio denez, dagoenean uztea hobeto deritzagu; holako izenak euskarara itzultzerik ez bai du merezi. Baina, askoz hobe Plaza Berria (Plaza Nueva)-ra berriz aldatzea.

Plaza-Zarra (Plaza de la Alameda, antes «Vieja»). Hemen ez dugu aldatu beharraren eragozpenik, gaur ez bai da erabiltzen.

Ikaslekuetako-Plazachoa edo *Igera-Plazatxoa* (Plazuela de las Escuelas). Eskoletako plazatxoa hobeto zuen, baina oraindik hobetoago tokiaren izen zaharrari eusteaz *Igera Plazatxoa.* 1813ko erreketa baino lehen Calle de Atocha edo «de la Iguera» izenez ezagutzen zen. S. Mujikaren ustez «Higuera»tik etor zitekean, baina askoz zihurragoa iduritzen zaigu Igera, errota edo ura jasotzeko bonbatik etortzea. Hau egiztatzeko Donostian bertan dugu Igara ere, esan nahi berdina duena.

Portu-kalea (Calle del Puerto).

Putzu-kalea (Calle del Pozo). 1433ko erreketan aipatzen da «Pozo de las Herrerías». Baina gaur egun ez da erabiltzen.

San Bizente-kalea (Calle de San Vicente). 1566ko agirietan «la Calle Denbeltrán con la acera de San Vicente» aipatzen da. «San» baino lehenago «Done» erabili zen euskaraz, biak latinetik etorriarren; Donostia izen bera dugu lekuko, San Sebastián-en ordez. Baina Erdi Aroaren bukaeratik «San» erabiltzen da Donostian bertan eta donostiar euskal idazleak ere hola agertu digute, joan zen mendekoak behinikpehin. Baina, aitortu beharra dut, ekial-

dean ohitura jatorragoz gorde dela «Done». 1897an Udaletxeak holako izen guziak «San»-ekin jarri zituen.

San Juan-kale (Calle de San Juan). S. Mujikak dionez, agiri zaharretan «Calle de Maese Lope» ere agertzen omen da.

Santa Ana-kalea (Calle de Santa Ana). Orain ez da ezagutzen.

San Telmo-kalea (Calle del 31 de Agosto). Lehen lehenago «Calle de la Trinidad» zenez, baita ere posible litzake berriz hartzea, bestela hobeki da Abuztuaren 31ko kalea jartzea, 1813an izan zen erreketaren oroiz.

Zubigain-kalea (Calle del Campanario). *Kanpaitegi kalea* egokiago luke. Hola dio A. Anabitartek.

Zurriola-kalea (Calle de la Zurriola). Orain Zurriolako zubia ezagutzen da, baina izen honetako kalerik ez.

Hoiek dira 1897kotzat S. Mujikak agertzen dituen guziak. Euskarazkorik, bere aldetik, *Gaztelura-bideko-kalea* ere azaltzen du, baina nere ustez hobekiago da *Gaztelu-bide kalea* deitzea.

Dena dela, ezer berririk pentsatzean lehengo ohituraren araberaz behar du. Euskaltzaindiari itzulpena eskatu zitzaion. Izenak era batean jartzea, gazteleraz eta euskarazko itzulpenez, gazteleraz era batera eta euskarazkoan ohitura zaharrari jarraituz, edo era egokiagozkora itzultzea Udaletxearen eginkizuna da, zeren berak bakarrik bai du izenak hautatzeko edo aldatzeko eskubidea, legezkoa den bezala.

Ni neu historian zehar tradizioz etorri zaizkigun izeneri eustearen aldekoa naiz. Irikitzen diren kale berrietan ere, ahal delarik, toki izenez jarri behar dira. Jatortasuna gordeaz historia ikerketetarako lagungarri bai dira.

* * *

Las calles de San Sebastián disponen de una documentación bastante amplia gracias a la obra de Serapio Múgica, que se titula *Las Calles de San Sebastián* (1916. Segunda edición 1965). De la misma entresacamos y comentamos las de la Parte Vieja que figuran en castellano y vascuence, según acuerdo del Ayuntamiento donostiarra de 13 de abril de 1897.

Sin prejuicios de dualismos, tal vez sería interesante mante-

ner el nombre oficial actual en castellano y el tradicional o popular en vascuence. Lo cual es de la competencia del Ayuntamiento.

Particularmente somos de la opinión de mantener en todos los casos los nombres históricos y tradicionales. Los cambios, por lo general, sólo conducen a confundir y a desarraigar a los propios habitantes. Es más, hasta a la hora de abrir nuevas calles y plazas se deberían tomar en cuenta los topónimos del lugar para mantenerlos en los nombres de esas calles y esas plazas.

Las calles que figuran en el texto en vascuence no necesitan de explicación, detrás de cada nombre en vascuence, entre paréntesis, figura el nombre en castellano tal como consta en el nomenclator de 1897, y en las notas que siguen doy algunas aclaraciones históricas o propongo la forma más correcta en vascuence, a veces hago constar su uso en escritores éuskaros donostiarras. Y la norma tradicional debe servir de pauta para implantar los nombres en vascuence al resto de la ciudad.

1977 - III - 28

EUSKAL LIBURU ETA DISKEN AZOKA, DURANGON

Garai honetan euskaltzaleok ohituak gaude Durangoko azokan zer berri izango ote den urduritasunez itxaroten. Bertako Gerediaga Elkarteak sortu zuen 1966an euskal liburu eta diskaren azoka, euskal kulturaren zabalkundez. Naiz euskaraz eta naiz erdaraz, materiak zahar eta berri, egungo egunean salgai dagoenetik gehiena han agertzen da begien bistan, plazaratua, herriari begira.

Bertan salgai jartzen diren disken doinuak entzunaz, begiak adi, han ibiliko dira bertako stand-ak zehar, kulturaren egarri direnak, produzio berritik ia zer eskaintzen den eta literatura zaharretik ia zer birargitaratu den. Eta euskal literaturak hain bereziki kezkatzen gaituenok, naturala den bezala, euskarazkoeri

begiramen gehiago izaten diogu, hizkuntzaren etorkizunarekin zer ikusi gehiago duenezkero.

Urtean zehar euskal literatura hurbildik jarraitzen dugunontzat bada zer ikus eta zer eros.

Aurtengo azoka larunbatean ireki zen, Durangoko udaletxean Euskarari buruzko liburu zuria aurkeztuaz. Liburu hau, Euskaltzaindiaren ardurapean Siadecok antolatua da, elkar lanean egina, eta Lankide Aurrezkiaren diru laguntzaz burutua. Elkarte hoien izenean mintzatu ziren L. Villasante, J. J. Rodríguez eta A. Gorroñegoitia jaunak.

Aurten argitaratuetatik, horren mailara hurbiltzen da, euskara eta bere inguruko kulturari buruz, Joan M. Torrealdayren *Euskal idazleak, gaur - Historia social de la lengua y literatura vascas.*

Aurtengo eleberrietatik, orain arte salgai jarri direnen artean, Joan Larizen *Elurtzan datzan zuhaitz enborra* deritzana da, zalantzarik gabe, guzietan onenetakoa. Aspaldian argitaratu diren eleberrietatik hoberena bai noski.

Hizlaxozko kondairaz badira K. Izagirreren *Zergaitik bai* eta G. Trintxerperen *Eskomunia ala Zoroastroren artalde!*, bide berriak urratu nahi dituztenen arteko.

Poesiaren alorrean ere bada ezer berririk, bai poetaz eta bai liburuz. M. Ertzilla delakoak ederki ekin dio arlo honi *Hitzik anitz idatzi dut* deritzanakin. Bestalde, Amaia Lasa agertu zaigu bere bigarren emaitzaz *Hitz nahastuak* deitu liburuaz. Baina, P. Urkizuk *Dorregilko kanta* deritzan poema luzeaz ideia berriak dakarzki kopla zaharren moldez. Han bertan agertu da lehen aldiz B. Gandiagaren hirugarren liburua ere.

Saiaerazko liburu ederrik ere argitaratu da. M. Zarateren *Euskal Literatura,* G. Garateren *Maoren marxismoa: Maoismoa* eta J. Azurmendiren *Zer dugu Orizeren alde?* deitu liburuak. Hirurak zein baino zein hobeak, euskal literatura saiaeren aldetik maila on batean gordetzeko lagungarri direnak. Eta, saiaera da azken urte hauetan euskaraz onduen landu dena.

Antzerkian ez genuen aurkitu gauza berririk. Beraz zaharrak berri. Antonio Labayenek hainbeste aldizkaritan eta liburuxketan sakabanaturik zituen antzerkien bilduma osatu bat, liburu mar-

Anboto, Garaitik ikusia

dul batean.

Iker lanez burututakoetatik, A. Arrindaren *Euskalerria eta arrantza,* gai honen historia osatuz.

Zientzia gaietan, *Euskalerriko itsas abereak,* Gipuzkoako Ozeanografia Elkarteak egina eta Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak argitaratua. Baita ere, lan ederra da, M. Etxezarretaren *Euskal baserriaren oraina eta geroa,* Etxanok euskaratua.

Etxahun-Iruri khantan deitu liburua herri literaturaren nortasunezko galga ederra dugu, bereziki zuberotar koblakarien doinu xarmantez datorrenez. A. Zavalak ordea, *Afrika'ko gerra* (1859-1860) kronikazko bertso bilduma ederra agertu digu, bertsolari ahalmenen adiarazgarri eta historiarako jakingarri.

Obra zaharretatik, igaz Jakingoek argitaratu zuten *Gero* bera, euskaraz eta erdal itzulpenez, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak birargitaratua.

Itzulpen berezien arteko, gaztetxoentzako literatura klasiko-

tik, Herman Melville-ren *Moby Dick* eskaini digu Kaxildo Alkortak, berak euskaratua.

Gai berezien monografiarik ere ez da falta, Gordailukoez gainera hor ditugu Gerokoak ere, Gipuzkoako Ikastola Elkarte Batzak Lankide Aurrezkiaren laguntzaz argitaratu dituen eskola liburuak hutsuna ederra betetzera datoz. Elkar lanean eginak dira eta Irakur sailekoaz aparte asko gustatu zaigu *Gizartea 6 Historia* titulutzak daroana.

Baita ere, ahaztu ezinezkoak dira X. Kintana eta L. M. Mujikaren euskara-gaztelera hiztegiak.

Holako berri jakingarri asko aurkitu dugu Durangoko azokan.

Hala ere, nere ustez, gure herrian, politika ekintzak bizkortzeaz euskarazko literatura moteldu dela esango nuke; ez urritu, baizik moteldu. 1969. urte ingurutik hasi eta 1974.aren ingurura bitartean, euskal literaturak abiadura azkarragoa zekarren, bertako gizarte arazoez, euskaraz erdaraz baino liburu interesgarriagoak agertu ziren. Eta politika abiadura handiagoan sartzeaz, egungo gaietaz eta egungo arazoez, berriz gaztelerara jo du liburu gehiago eta hobeak argitaratzeak. Eta, hau, euskararentzat arriskugarri da.

Bestalde, zenbait euskal idazlea oso osoan politikara sartu da, euskaragintza bigarren mailarako utziaz. Politika bide onetik irtetzen baldin bada, baditeke denborarekin egoera hobeak ekartzea. Baina, euskara utzi gabe ezina ote zen?

Baita ere, beste idazle asko Deia eta Egin egunkarietara joaz kazetaritzari emanak dira. Hau ere beharrezkoa zen eta luzarora begira frutu ederrik emango duela iduritzen zaigu. Baina, oraingoz, liburugintzarako ahalmenak gutitu zaizkie. Baina, euskal idazleak ogibidean jartzea ere bada zerbait, eta, zalantzarik gabe, txalogarria da bi egunkari hauen lana.

Orain badira batak besteari, eta batez ere parlamentariei, kontuak eskatzen ari direnak ere. Nonbait, aski euskara ez omen. Ongi da kontuak eskatzea, baina lehen lehenik hobe dugu bakoitzak norberaren alorra jorratu, norberaren alderdi edo taldeei eskatuz.

* * *

Desde el sábado día 29 hasta mañana martes permanece la Feria del libro y disco vascos en Durango, que viene celebrándose desde 1966 bajo la organización de la Asociación Guerediaga. Diversos actos culturales tienen lugar durante la permanencia de dicha feria, desde asambleas anuales sobre diversos temas de la cultura vasca hasta las actuaciones de grupos folklóricos y cantantes modernos. Pero el interés mayor se centra principalmente en las novedades del libro vasco, tanto escrito en castellano como en vascuence, puesto que muchas casas editoras vienen a presentar en la misma las obras más importantes que hayan producido dentro del año.

En el texto en vascuence exponemos un perfil general con menciones a las obras más importantes en cada género literario. Probablemente, este año, el mayor interés se ha centrado en el *Libro blanco del euskara*, con cuya presentación se inauguró la Feria, con un acto que tuvo lugar en las salas del Ayuntamiento de Durango con breves exposiciones de Fr. L. Villasante, presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca, A. Gorroñogoitia, presidente de la Junta Rectora de la Caja Laboral Popular y J. J. Rodríguez, presidente de la Junta Rectora de Siadeco, S.C.I., entidades que han intervenido en la confección y financiación del estudio. Este libro blanco realizado por un equipo de especialistas, viene a ser el preámbulo de otro estudio general socio-lingüístico que se está finalizando y que abarca la totalidad de la geografía del país vasco. Estudio que servirá para conocer la situación real del problema lingüístico vasco y puede servir de base para tomar las medidas necesarias para solucionar. Dentro de breve plazo, dos ediciones paralelas, una en castellano y otra en vascuence, se pondrán a la venta en las principales librerías del país.

1977 - X - 31

LIBURU ZURIA

Ohi den bezala, asmoak azkarrago joaten dira ekintzak baino. Zortzi urte izango dira, doi doi, Euskal Herriko sozio-linguistikazko azterketa bat bururatu zitzaigula. Bururatu ez ezik, baita lehen plangintza bat eratu ere, lana aurrera eramateko asmoz. Gure kabuz amaika ate jo ere bai, ia nonbaitetik lortzen zen holako estudio batetarako diru laguntza. Baina, asmoak asmo. Garai haretan nekeza zen euskararen alderako zerbaitez laguntzak lortzea.

Duela hiru urte argi berri bat piztu zitzaigun eta hara hor aspaldiko asmoa martxan, eta laster burutzeko zorian.

Euskarak ezertarako balio duen ala ez, aintzinatik makinatxo bat aldiz eztabaidatutako auzia dugu. Era guzietako iritziak zeuden eta daude. Gainera, inoiz, mutur batetik besterakoak, bakoitzak bereari setati eutsiaz. Baita, baziren, bakoitzaren joeraz eta komenientziaz nahasten zituztenak ere, nork bere buruari zegokiona agertzeko. Baina, denen gainetik, prolema hor zegoen, hizkuntzaren hil edo biziak inoiz baino larriago jarria. Eta, baita ere, euskaltzale minoria hura egunetik egunera gehiagotuaz eta indartuaz. Euskararen kontra historian ezagutu den zapalketarik handieneko gizartearen seme ginenok, euskaldun eta euskaltzale aurkiturik, ez geunden bereala amor emateko, baina ez eta ere Euskaltzaindia bera, elkarte sorreratik bertatik hizkuntzaren ikerketa eta bizitzaren alderako asmatua zenez. Bere izatea hortarako zenezkero, Euskal Herrian publikoki zuritu beharreko auzia zuen hizkuntzaren bizi beharra eta eskubide osoekin bizi beharra batez ere. Honegatik, sozio-linguistikazko plangintza batean beharrezkotzat joten zuen hizkuntza hizkuntza den aldetik eta lekuko gizarteari loturik Liburu Zuria burutzea.

Liburu hau argitara berri da, bai euskaraz eta bai erdaraz, informazio gisa, espezialistek elkar lanean egina, bakoitzak bere arlotik ikusiaz arrazoibideak agertzeko, egia bera huts hutsik hain erlatiboa dugun mundu honetan. Euskarazko edizioak hasiera hasieran dion bezala: «Liburu bati Zuria, eskuharki, konfliktu baten aurrean jarrera aldi berean arrazoitua eta oldarkoia hartuz, hainbat dokumentuz osatua denean deritza». Hizkuntzaren arazo

larria konpontzeko hor dugu plazaraturik, Mitxelenak sarrerakoan ongi dion bezala: «Elkar lan hau urrats eragile dadin nahi eta uste dut, bide horretan barrena». Gutienik, aurrerantzean, alde edo kontrako arrazoiak azaldu behar dituenak bertara jo beharko du, hizkuntza arazoaren oinarri oinarrizko liburua denezkero.

Liburu hau, ondotik etorriko diren beste bien lehen partea da. Hamazazpi espezialistak egina, koordinaketa batzorde baten laguntzaz. Euskaltzaindiaren zuzendaritzapean Siadeko, S.C.I. enpresak gertatua, eta Lankide Aurrezki Kutxaren dirulaguntzaz burutua.

Zuzenki eskua hartu duten espezialisten arteko: M. Pagola, P. Agirrebalzategi, J. Intxausti, L. Villasante, J. M. Lekuona, K. Larrañaga, J. M. Barandiaran, J. M. Satrustegi, G. Monreal, M. Rica, J. Urrutia, J. M. Castells, J. A. Obieta Chalbaud, J. L. Alvarez Enparantza eta M. J. Azurmendi.

Ikuspegi linguistiko batekin hasten da, mintzaira eta bere helburua agertuaz. Hizkuntzaren antropologiak jarraitzen dio. Ondotik, era berean, ikuspegi politikoa; euskara eta euskal literatura, euskara etni baten gai eta kultura baten adierazgarri, euskarari eragin dioten faktore politiko administratiboak; hizkuntz problemaren tratamendua beste erresumetan, hizkuntza minoritari batzuren azterketa kritikoa eta bilinguismoari buruzko xehetasunak, era naro batean biltzen ditu, gaiak oro, bakoitza bere arloan. Sarrerakoa Mitxelenarena da, euskaren bide luze bezain malkarrak adiarazten dituena.

Holako lan batek beharrezkoa zuen elkarren loturazko orraztapena. Gai batzu elkar ikutzen zirenez, bi aldiz gauza bera ez jartzeko eta idazkera berari batasun bat emateko. Egile bakoitzari bere funtsa errespetatuaz eta bakoitzarekin harremanean, formazko kontu horien orraztapenok Martin Ugaldek eginak dira. Baita ere, bereak liburuaren aurkezpenezko hitzak, langintza honen biografia agertuz.

Ondotik etorriko den bigarren liburuak, hotz hotzean, euskararen egungo egoera agertuko du, Euskal Herri guzian herriz herri egin diren azterketetan oinarriturik. Eta, hirugarren batean emango dira egoera hortatik irtenez hizkuntzaren aldera jokatu

beharrezko bideak. Bi liburuok Siadeco-k gertatuak izango dira, Euskaltzaindiaren gidaritzapean.

Garai egokian datoz liburuok. Agertzen garen bidekurutzean behar beharrezkoak ditugu; zeren, gutienez, zergatik eta nora jo behar dugunez bide finkatuagoa markatuko digu.

* * *

El proyecto de un estudio socio-lingüístico del vascuence, elaborado en su primera fase por la Academia de la Lengua Vasca hace unos ocho años, nos llega por fin, mejorado y ampliado en un momento muy oportuno. Y, al proyecto general que está tocando a su fin, le precede «El Libro Blanco del Euskara», cuya presentación tuvo lugar durante la apertura de la Feria del Libro de Durango, el día 29 de octubre.

Mucho se había discutido, sobre la conveniencia o no, del empeño en los esfuerzos ímprobos para la supervivencia del vascuence. Motivo de grandes debates, a la vez, también de grandes abandonos. Donde, a decir verdad, también se implicaban las particulares conveniencias de posturas cómodas con argumentos autojustificantes por no afrontar con valentía el problema; cuando, por otra parte, una minoría cada vez más creciente iba tomando compromisos completamente opuestos, a veces hasta apasionados. Ante tales acontecimientos, le era de rigor a la Academia, tomar una posición razonada sobre el tema, sin estridencias aparatosas, pero que al mismo tiempo pudiera justificar su propia misión de investigación y tutela de la lengua, fines para los que fue creada. Le era conveniente aclarar, o cuando menos plantear a debate público, si su labor era necesaria o trataba de defender inútilmente una causa perdida. De estas premisas nació la feliz idea de elaborar un estudio socio-lingüístico, con una investigación general en el país y su análisis ulterior, para conocer a fondo la realidad del problema. Y como preámbulo de esta investigación que se está finalizando, se presenta «El Libro Blanco del Euskara», suscrito por dieciséis especialistas y una comisión coordinadora. Trabajo realizado bajo la dirección y supervisión de la Academia de la Lengua Vasca, elaborado por Siadeco, S.C.I.

y financiado por la Caja Laboral Popular. Libro que se pone a la venta en dos ediciones, en castellano y en vascuence, simultáneamente.

Una labor magistral por su contenido y presentación, que trata desde las diversas perspectivas socio-históricas el problema de la lengua vasca. Comienza con un estudio de la dimensión humana, cultural y política de una lengua en el contexto universal; para seguir sobre el euskara en concreto, su historia externa, su literatura oral y escrita; incidencias de los diversos factores sobre el euskara, económico-sociales, político-administrativos e institucionales; factores jurídico-legales que inciden en el proceso histórico; tratamiento al problema lingüístico en otros países, etc. Constituyen unas exposiciones básicas para afrontar le realidad del problema.

En lo sucesivo, le será necesario este libro a todo aquel que desee emitir juicios sobre el tema. Recordando la última frase de la presentación que lleva por título «El largo y difícil camino del euskara», podemos decir que la gran cuestión lingüística está planteada.

1977 - XI - 7

NOTA: Del estudio socio-lingüístico del Euskara se hizo una tirada limitada en hojas multicopiadas, que componen tres cuerpos en un total de doce tomos y una carpeta de mapas. El mismo abarca hasta 1975. Su resumen elaborado por Martín de Ugalde constituye la obra publicada bajo el título *Conflicto lingüístico en Esukadi* en edición castellana e *Hizkuntza borroka Euskal Herrian* en vascuence, publicados en 1979.

LIBURUZALEAK ETA IKER LANAK

Gizonaren historian, jakintzaren aldetik, garrantzi handia izan dute bibliotekak; liburuak bildu eta sailkatzeaz iker lanetarako

aukera eman bai zen. Ohitura hau aintzinako denboretan hasia zen baina Erdi-Aroan zabaldu zen Europako alde askotan. Zaletasun hau berandu heldu zen gure artera eta behar bada Oihenart eta Isasti izango ditugu, XVII. mendean, bibliografiazko lehen zerrendak bildu zituztenak.

Historian ezagutzen denez, Julio Zesar izan zen lehen liburutegi publikoaren asmoa izan zuena, baina bere asmo hau burutu baino lehen hil zuten. Baina asmoa ez zen hutsean gelditu eta Asinio Polión-ek eman zion hasiera 39. urtean. Eta Aintzina hartan Alejandria-koa izan zen liburutegirik handiena. Ba omen zituen 700.000 ale.

Erdi-Aroan monastegiak zituzten bibliotekarik aberatsenak. Baziren beren ekonomiaren lagungarri edo ikastaroen ordainez liburuak eskuizkribuz kopiatzera behartzen zituzten fraileak ere. Orduko kronikagileei zor diogu Aintzinako libururik gehienen salbamena.

Ricart de Bury, *Philobiblion*-en egilea izatez aparte liburu zaharren biltzaile borrokatua izan zen eta bere bizitzan zehar lortu zuen Biblioteka handi bat burutzea. XIV. mende hartan ezagutu zenik garrantzitsuena noski, eta Bury bera bizi zen artean Oxford-eko Unibertsitaterako eman zuen.

Ezta erraz neurtzekoa bere zaletasun hori, erraza ez den bezala ekintza horren bidez zientzieri eta letreri zer aurrerapen eman zion jakitea. Bera, ohartua zen nonbait jakin zaleei zer nolako tresneria eskaini zezakean, bai ikasketarako eta bai ikerketarako. Berari esker, gaur egun, Oxford-en aurkitzen da Aintzinako liburutegirik bereziena eta aberatsenetakoa.

Alemanian, Erreformaren garaian, monastegiak kentzean Unibertsitateetan Bibliotekak jarri ziren, Luterok Melanchton-en laguntzaz lan ederrik egin zuen hortaz.

Bestalde, J. Tritheim-ek XV. mendearen bukaeran eta C. Gesner-ek XVI.ean liburu katalogatzez lan handiak egin zituzten, sistematizatzeaz iker lanak erraztea zenez. Eta XVIII. mendean Theodor Besterman-ek jarri zituen bibliografia moderno baten metodozko oinarriak.

Alemanak gogor ekin zioten bibliotekagintzari, honek zuen garrantziaz ohartu zirenetik, eta 1699tik, Brandeburgo-ko aginta-

riek, bertan argitaratzen ziren liburuetatik bina ale eskualde hartako liburutegietara (biblioteketara) ematera behartzen zituzten. Ohitura hau, gaur bertan jarraitzen dute Bretainia Handian, bere lurraldeetako inprimategi guziak argitaratzen dituzten liburuetatik bina ale British Museum-era emanez.

Espainian bertan abantaila handiak izan ziren Valerius Andreas-en *Catalogus clarorum Hispaniae* (1607) eta batez ere Nicolás Antonio-ren *Bibliotheca Hispana* (1672), hogetahar mila libururen berri ematen zuena. Gainera, Euskal-Herrikoak ere jaso zituen.

Poliki poliki gure artean ere mugitu zen zaletasun hori, berandu bederen, Oihernart eta Isastiren ondoretik Larramendi, Aizkibel, Soraluze ta bestek egin zituzten liburu zerrendak. A. Allende de Salazar-en *Laurac-bat. Biblioteca del Bascófilo* izan zen ordea lehen lan serioa, 1887an burutua.

Harrigarria bada ere, herbesteko seme bat izango zen hontaz lanik osatuena egingo zuena. Baina ez hontaz bakarrik, gainerako zenbait iker lan ere bai, euskal kultur ikerketeri zientzia bidea emanez bertako edozein abertzale baino jatorrago agertuko zena. Irakurlea ohartuko da Julien Vinson-ekin ari naizela. Paristarra, 1843an sortua, anitz urtean gure artean bizi izan zena, euskara ikasi eta euskal literatura ikertuz eta literatura zaharra behar bezala baliatuz. Bere lan asko aldizkarietan sakabanaturik gelditu zitzaigun, baina baditu bi liburu gure kulturaren ezagutzarako oinarrizkoak direnak: *Le Folk-lore du Pays Basque*, 1883an argitaratua, herriaren ahozko literatura estudiatzen duena, eta bestea gaurko artikulu honen gaiari zuzen lotzen dena, literatura idatziaren katalogatzea, Euskal Herrian edo euskal gaiaz inprimatutako liburu guzien zerrenda. Jakina, bildu ahal izan zituen guziak, zeren geroztik banaka batzuk hor-hemen aurkitu bai dira, Vinson-en katalogu horretan ez daudenak. Liburu garrantzitsu hau *Essai d'une Bibliographie de la langue basque* (Paris, 1891), gure egunok arte eskuetan behar beharrezkotzat izan dute gure kulturaz ikerketak egin nahi izan dituzten guziek. Pare bat urte geroago G. de Sorarrainek egin zuen beste katalogazio bat, baina ezta J. Vinson-ena bezain zehatza.

J. Vinson-en lan horri esker, Julion Urkixok hor izan zituen

bere ikaspenak eta bere langintzen oinarriak. Hein batean, bere jarraitzaile zela esango genuke. Eta, Urkixo izan zen, oinarriz, gure egunotako iker lanak bideratu zituena, RIEV aldizkaria sortuaz eta gure herriaz ari ziren jakitun guziak bertara bilduaz lehenik eta Euskal-Ikaskuntza sortzeaz eta bere zuzendaritzaz hartu zuen arretaz. Gainera, liburuzale bikaina izaki, eta ahal izan zituen euskal liburu guziak biltzen ahalegindu zen bere bizitzaren zehar, bere osasuna ez ezik bere ondasunak ere hor emanaz. Horregatik, inork uste baino pobreago hil zen 1950ean. Bere ekintzak frankismoak nola ondatu zituen ikusi ondorean eta kasik inoregandik ohorerik jaso gabe. Eta, gure artean inork ohorezko merezimendurik badu, besteak beste, J. Vinson eta J. Urkixo dira, zalantzarik gabe.

Zirikiain Gaiztarro, J. Yrizar eta F. Arozena jaunek egin zuten bitartekotasunari esker, J. Urkixoren biblioteka osoa Gipuzkoako Diputazioak erosi zuen.

Egiazki, Ricart de Bury inglesak Erdi-Aroan egin zuen lan ederra, Julio Urkixok egin zuen guretzako, eta euskal iker lanak egin nahi dituztenetzat liburutegirik ederrena eta osatuena gelditzen zaigu Donostian.

Honenbestera heltzeaz, baita ere aipatu beharrezko iduritzen zaigu Jon Bilbaoren *Eusko-Bibliographia* handia, lehengo guziak baino osatuagoa, Auñamendi Argitaldaria gure egunotan bukatzen ari dena.

* * *

Los antiguos supieron de la importancia de las bibliotecas para el desarrollo de la cultura y para la investigación. Julio César fue el primero en proyectar la fundación de una biblioteca pública a la que todos tuvieran acceso durante determinadas horas del día; pero fue asesinado antes de ver realizado su propósito. Asinio Polión recogió esta iniciativa, poniéndola en práctica el año 39 de J.C., en que estableció la primera bliblioteca pública en el atrio del templo romano de la Libertad.

En la vida monástica del medioevo prestaron gran dedicación a las transcripciones manuscritas de los libros y fueron reuniendo

considerables bibliotecas. Un inglés, primer bibliofilo nato y autor de la obra *Philobiblion*, en la primera mitad del siglo XIV, fue Ricard de Bury, quien reunió miles de ejemplares y en vida donó a la Universidad de Oxford. En los siglos XVI y XVII se generalizó la formación de bibliotecas y la catalogación sistemática de las obras reunidas. Sobre todo en Alemania, al desaparecer los monasterios, durante la Reforma, y las blibliotecas pasaron a las Universidades.

En España han sido fundamentales las catalogaciones hechas en el siglo XVII por Valerius Andreas y Nicolás Antonio, donde también figuran obras éuskaras.

En nuestro país publicaron sendas relaciones Isasti, Oihenart, Larramendi, Aizkibel y otros. El primer catálogo sistemático fue obra de A. Allende de Salazar en 1887. E inmediatamente nos vinieron las obras de Julen Vinson, que formó el instrumento básico para toda investigación en el país. Obra continuada por Julio de Urquijo, fundador de RIEV, quien en torno a su revista agrupó a los investigadores de diversas materias y dio una orientación extrictamente científica a los estudios vascos. Pero, además, Urquijo fue nuestro Bury. El gastó su fortuna reuniendo una biblioteca de tema vasco, que hoy, gracias a las diligentes gestiones de Ciriquiain Gaiztarro, J. de Yrizar y F. Arocena, es propiedad de la Diputación de Guipúzcoa; quien con la Biblioteca Provincial es la poseedora del fondo más importante, a donde tienen que recurrir todos aquellos que deseen ahondar en materias del país, muy especialmente en su historia, en sus instituciones forales y en su lengua y literatura.

En este punto no debemos olvidar la exhaustiva catalogación bibliográfica de Jon Bilbao, cuya edición está llevando a efecto la Editorial Auñamendi de San Sebastián.

1978 - II - 20

NOTA: Entre 1960 y 1979 se han publicado los ocho volúmenes de *Eusko Bibliographia* de Jon Bilbao, con los que se completa esta obra magna, a la que seguirán apéndices quinquenales para mantener la actualización.

LEHENDAKARI EUSKALDUNA DELATA

Aurreko astean estabaidarik aski izan da Euskal-Herriko Kontseilu Nagusiko lehendakaria euskalduna behar duela izan, eta beste batzun ustez ez zen nahi ta nahiezkoa euskalduna izatea, edo euskara jakitea.

Nik ez dakit politikoen artean holako eztabaidak nola sortu diren ere. Gure herriko politikaz edo historiaz zerbait arduratu diren guziak dakite lehenagoko Autonomi Arautegietan ez zela holakorik eskatzen. 1931an Lizarrako aurre projektutik hasi eta 1936an lortu zenera arte, ez zen eskatzen lahendakaria nahi ta nahiez euskalduna izan behar zenik. Honegatik, orain ere ezin zen espero bestelakorik.

Abertzale baino lehen euskaltzale garenontzat, euskalduna izango zen gogozkoena. Katalanen artean, zer esanik ere ez, moral kontua izango zen katalanez jakitea. Baina gure egoera beztelakoa da eta euskaltzale garenok ere badakigu Euskal-Herrian lautik hirukoa baino gehiago dela euskararik ez dakiena, eta zentzuzkoa dela inor esijentzia hortara ez bortxatzea. Lehen ere, proporzioz euskaldun gehiago zen garai hartan holakorik eskatu ez bazen, orain arrazoi gutiago dugu hortara behartzeko.

Lehendakaria nahi ta nahiez euskalduna behar dela, kondizioz jarri nahi duten horiek, konturatu behar dira, Euskal-Herriko lautik hirukoa baino gehiago holako kargu bat hartzetik kondenatzen dugula, eta hori ezinezkoa dela. Herri batean kontribuzioa eta bere lana ematen dutenek, beste edozeinen haina eskubide dute, euskalduna izan edo ez izan. Gure egoera honetan, euskararen aldeko borondatea irabazi behar dugu, plangintza baten bidez luzarora begira euskara bera tokatzen zaion mailara jasoko badugu. Honegatik, lehendakaria, euskalduna izatea hobe bada ere, hobeago da euskararen alde zerbait egiteko gertu dagoena. Sinbologiak alde batera utzita pragmatikoak izan behar gara. Buru hotzez begiratu behar ditugu gure gauzak. Eta, euskarak, aspaldi sartu zen agonia hortatik irtengo badu, geroari begira, zentzuzko plangintzak behar ditu, gure herrian euskara erdararen mailara jasotzeko, behar den elebitasunera eramateko.

Gizon bakoitza bere inguruak egina da, eta euskaldun ez di-

renek ez dute errurik. Gure herriagan jarri zen politika txar batek eraman ditu horrea, eta guk egin behar dugu lan politika egokiago baten bidez euskaldun ez direnen semeak euskalduntzeko aukerak jarriaz. Bide luzea da, baina etsipenik gabe aurrera eramatekoa.

Euskal Ikaskuntzakoak argi eta garbi jokatu zuten Lizarrako Autonomi Arautegi haretan: Karguetarako ez zen nahi ta nahiezkoa euskalduna izatea, baina funtsionari publikoentzat preferentziazkoa ez ezik inoiz beharrezkoa, juezak, sekretarioak eta abar, euskaldunak beharko ziren, ez zekitenak ere urte batzutako epean euskara ikastera behartuaz. Gaur, gure egoera, ordukoa baino ahulagoa da, ikastola eta alfabetatze mugimendutik aparte, eta euskalduntzen joateko plangintza horiek ere epe luzeagoetara begira jarri beharko ditugu.

Dena dela, euskararen geroa da axola zaiguna, eta lehendakariak euskara jakin edo ez jakin, ez du hainbeste garrantzi. Bai ordea lehendakariak euskararen alderako izan dezaken borondatea. Edo, behinik behin, borondate hau konkistatu behar dugu.

Lehen Madrid-eko Gobernuari euskararen alderako eskariak egiten ibili baginen, oraingoan arrazoi gehiagoz eta indartsuago eskatu behar diogu Euskal Kontseilu Nagusiari. Gaur egun, behar bezalako plangintza serio baten aurrean ez lehendakariak eta ez kontseilariak ez dute ezetza ematerik. Gainera, orain jakin dugunez, Carlos Santamaría izango da Hezkuntza Kontseiluaren buru, eta denok dakigu gure kultur mundua eta gure hizkuntzaren prolematika guzia ezagutzen duen gizona dela. Honek, hezkuntza mailan behinik-pehin, bideak erraztuko dizkigu, batez ere euskaltzale guziok, bakoitzaren politika joerak bigarren mailarako utzirik, gure borondaterik hoberenakin laguntzen badiogu. Nere ustez, gizon hoberik ezin zen hautatu holako kargu baterako.

Nere ustez, ez bertan partaide naizelako, baina Euskaltzaindia da euskararen alderako programaketa bat egin behar duena, aspaldiko urteetatik euskararen alde lanik gehien egin duenez, eta legezkoa zen horrela izatea, hortarako sortua zelako. Plangintza sakon bat egin eta aurrera eramateko batzorde eragile bat izendatu, asmoak soilik paperean gelditu ez daitezen.

Plangintza horren barne beharko dute Ikastola Elkarte Batzeko zuzendaritzakoek, Alfabetatzekoek, Magisterio eskoletan euskara irakasle direnek, euskal kultur munduan euskararekin arduratuz lan egin dutenez eta batez ere Siadeko elkartean sozio-linguistikaz lan egin dutenek, hauek euskararen beharrak zientzia mailan estudiatu dituztenez.

Maisugintza, alfabetatze, euskalduntze, aministralgoan, komunikabideak eta abar, sail bakoitzean diren premiak edo beharrak zer diren eta zelan bideratu behar diren. Siadeco-k osatu digun sozio-linguistiko lanak badu materialik aski plangintza hau laster gertatzeko. Une honean dator Euskaltzaindiak aspalditik hain beharrezko ikusten zuen lan hau, gaur egungo egiazko egoera ezagutuaz geroari begira lan egiteko.

Epe luzera begira egin dezaken plangintza honek, lau bost bat urtetik behin berrikustea beharko du, ekintzarekin sortzen diren hutsak zuzentzeko, hobetzeko eta bizkortzeko. Nere ustez, euskara salbatuko bada, hogei urteren buruan, Euskal-Herriko gazteriaren erdiak euskaldundu behar ditugu. Honetarako eskolak egokitu behar dira, batez ere eskolak, hiru edo lau gizaldi barru nornahik euskara jakiteko ahalmena izatera bultzatuaz.

Gainera, euskararen ofizialkidetasuna zelan edo nondik nora behar den estudiatu beharra dago. Zeren, geografia guziari ezin diogu eman tratu berdina eta mugatzea nola eramango den ondo ikusi beharko da.

Esan bezala, plangintza guzi hau geroari begira jarri beharko genuke. Orain da une egokia. Ardurarik gehiena hezkuntzan jarri behar dugu. Askori gogortxoa idurituko zaie, baina euskaldun eskoletan gaztelera ikastera behartuak dauden bezala, legezko da erdaldun eskoletan ere euskara ikastera behartzea, elebitasuna gordetzen den herrietan behinik-pehin; eta, gainerako erresuma guzian asignaturatzat jarriaz, inglesa edo frantsesa irakasten den era berean. Gizarte berean biziko direnentzat, soziologiak eskatzen duen araura, beharrezkoa baita.

Elebitasunean, bilingue euskaldunok bakarrik izatea, gezurrezko elebitasuna da. Elebitasunak, euskaldunei erdara bezala, erdaldunei euskara irakastea eskatzen du. Eta, hau, bat batean lortu ezinezkoa da, baina bai plangintza on baten bidez epe luze-

ra begira. Eta, lehendakari batek hau onartzea euskaldun izatea baino premiazkoago da. Urtetan euskararekin arduratu garenok, honetan ez dugu batere zalantzarik. Euskarak geroari begirako ekintzak behar ditu, askoren artean arduratuaz eta aurrera eramanez. Ekin eta jarrai.

• • •

Días pasados se sacó a debate si era imprescindible o no que el Presidente del Consejo General Vasco debiera saber vascuence. Y era curioso observar cómo se enzarzaban, cual tirios y troyanos, en un asunto tan delicado como este. Pocos han reparado en los proyectos de los Estatutos de Autonomía, desde Estella, en 1931, hasta el logro de 1936. La mayoría tampoco se han fijado que en los citados Estatutos no se exige ser vascoparlantes para ocupar los cargos públicos, aunque sí se tuvo en cuenta la prioridad y en algunos casos hasta la exigencia para los funcionarios públicos.

En los medios políticos catalanes, por ejemplo, hubiera sido cuestión moral el requisito de saber catalán. Pero la situación de nuestra lengua, por desgracia, es bien distinta. Y tal exigencia se reduce a puro simbolismo. En mi opinión personal, no creo que en nuestras circunstancias se pueda exigir un presidente vascoparlante, cuando más de las tres cuartas partes del país no saben euskara, y nadie es culpable de ello, sino las consecuencias de mala política llevada por gobernantes antidemocráticos y del abandone de otros tiempos.

Lo que sí deberíamos exigir, y con mucha energía por cierto, es la puesta en marcha de un plan general para la recuperación del vascuence. Aquí es donde los gobernantes del Consejo General Vasco, por justicia, han de poner los medios necesarios para la recuperación del idioma que nos han arrancado discriminatoriamente desde el aparato estatal. El libro blanco del euskara arroja pruebas irrefutables sobre este intento de exterminio del vehículo cultural de un pueblo.

Por esto, para ocupar la presidencia, lo importante es un hombre de buena voluntad, que admita un plan que en justicia

nos corresponde, para que promueva el euskara: en la enseñanza, en la administración pública, en los medios de difusión, etc., con un programa gradual de recuperación, para que la lengua hasta ayer opromida cuente con las posibilidades de volver a ganar el terreno que le pertenece. Será un proceso largo, pero no imposible ni desalentador. Bastará que el presidente sea un buen político, al mismo tiempo consecuente, y que su equipo le responda. Para el vascuence lo importante es el futuro.

1978 - II - 27

EUSKARAREN BIZI NAHIA ETA BIZI BEHARRA
Gure hizkuntza autonomi-estatutoen aurrez aurre

Otsailaren 27an idatzi nuen artikuluak hots handia izan du euskerarekin arduratzen garenon artean. Alde edo kontra, era askotako aburuak ekarri ditu. Nere ustez denak izan dira ongarriak. Gure egoeraren errealitatea hain ongi ikustera heldu ez direnak edo errealitate mingots hau ikusterik nahi ez dutenek, maitasunaren maitasunez, maitasun itsuz beren maite kuttuna ito lezaketenek, hitz beroak eta eztabaida gogorrak erabilzeko gertu daude. Baina gure egoera buru hotzez begiratzen baldin badugu, Pascual Iturriagaren aburuz, orduan ohartuko gara «Berotasunak eta errabiak ez dutela beinere gauza iraunkorrik egiten».

Iraultzaile izenez hipokresia asko dago gure herrian. Honegatik, gure bizitzako urterik gehienauk euskararen etorkizunez larrituta bizi izan garenok utopiazko ametsekin aspaldi asperturik gaude eta aurrez aurre jartzen zaigun errealitateari begira jarriaz, zer eta nolako ahalmenen jabe garen aztertuz, behar diren bideak ideki.

Euskal Kontseilu Nagusiko lehendakariak euskalduna izan behar duen edo ez, autonomi-estatutoen konstituzioetan aztertzeaz hasi beharrezkoa da. Gogoz, nik ere nahiagoko nuke lehendakari euskalduna, baina konstituzio erak ez dute holakorik behartzen eta hori bazekiten politikaz ari zirenek. Baina, ekintza

egoki bati loturik lan egiten baldin badugu, gure hizkuntza behar duen mailara edo tokatzen zaion mailara jasotzeko, orduan bai izango dugu lehendakari euskaldunarekin pentsatzeko eta esijitzeko aukera. Etorri zaigun historiaren seme gara, eta inork ez du kulparik gure herrian euskaldun ez izatearena.

Dena dela, gure herriko Estatutoak euskarari buruzkoan zertan oinarritzen ziren ikus dezagun, eta hauek berritzean zer jokera hartu behar den proposatu. Gainerako guzia hutsean jardutzea da.

Euskal-Herriaren autonomia Arautegian, hizkuntzari buruzkoan, berrogei urteko diktaduraren zama astuna kontuan hartuko badugu, Errepublika garaiko Estatutoetan baino babes hobea beharko da. Orduan euskara indartsu zen eta ofizialkidetasunaren bidezko laguntza aski zuen euskarak. Gaur, ordea, diktaduraren zapalkuntza eta menpetasunaren ondorioz, ahuldua ez ezik hilzorian irten da, eta bizitza izan dezan maila egoki batera jasoko badugu, tratamendu berezia behar du.

Euskal-Ikaskuntzak 1931an aurkeztu zuena ez zen gaizki garai hartarako, baina hemengo Ahaldundegietatik igaro eta Madrid-eko Gorteetara eramateaz, handik eta hemendik, laburtu ez ezik murriztu zuten euskararen aldetik. Lizarrako lehenengo hartan, 16. artikuluan, garbi asko jartzen zuen «euskaldunen hizkuntza nazionala euskara da. Euskara ofizialtzat ezagutua, gaztelaniaren kondizio beretan izango da». Irakaskuntzan ordea, euskaldun erresumetan, euskaldun haurrei, irakaskuntza maila guzietan euskaraz irakatsi gaztelera asignaturatzat jarriaz, eta gaztelerazko eskoletan euskara irakatsiko zen asignaturatzat. Garai hartako egoerarentzat ez zen guti. Ez horixe. Gainera, Diputazio eta Udaletako funtzionarioei euskara ikastea behartu zitzaien.

Baina, 1932ko Estatutoetan, euskarak ez zuen hainbeste babes. Gestore probintzialek ikutu zuten Euskal-Ikaskuntzako projektu hura, eta, esan bezala, murriztuta irten zen. Lehenagoko nazional hizkuntza kontzeptu berak ere aldakuntzak izan zituen. Gipuzkoako Diputazioak argitaratu zituen projektu haietan, hara zer esaten zuen: «Euskalerritarren jatorrizko hizkuntza euskara da, eta hizkuntza honek izango du, erderak bezala, lege-indarra».

«Euskalerria eta Espainiako agintariek elkarren arteko harre-

manak eta elkarrekin izango dituen gora-behera guztietan, eta baita, Lege-berri horren eta haren artekoetan ere, erdera bakarrik erabili ahal izango da lege-indarrez».

«Euskalerrian bizi den edozein lagunek, euskal-elkarte barruan behintzat, Auzitegietan nahi jardupide arazodun batzarretan euskara erabiltzeko eskubide oso-osoa izango du».

«Euskalerriko Jaurpide arazodun eta Auzi arazoetako Batzak, berak berez hartu eta erabakiko dituen arazo eta auzi guztiak, erderaz eta euskaraz argitaratu edo adiaraziko dira, erabaki hoiek euskaraz egiten den lurraldeetan bete beharrak direnean».

«Euskaraz egiten den Euskalerriko lurraldeetako eskoletan, erdera eta euskara, biak erabiliko dira irakaskuntzak emateko eta irakaskuntzak emate hau nola zuzendu eta erabiliko den zehatz jakiteko, lurralde haiek menpeko diren Diputazioek esango dute zer egin beharko den».

Beraz, hemen ez da Lizarrako Estatutoaren zehaztasunik, euskaldun haurrei gaztelera asignaturatzat eta erdaldunei euskara. Hain oinarrizkoa izanik bere funtsean, hemen ikusten da nola erori zen arauen giharra.

Funtzionarioei buruzkoan beste honako hau jarriko zen: «Jaurpide arazodun eta Auzi arazoetako otseinak nahi eta nahi ez euskaldunak izan beharko dute; baina sortarau hau argitara ateratzen denean zeregin eta leku horretan lehendik lanean daudenek, ezingo dira ezergatik ere, beren ogibideetatik kanpora bialdu euskaraz jakin ezarren; eta beren ogibidezko eskubide guziak deduz gordeak izango dira».

Euskararen liburu zuria delakoak bere 3. zatiko 5. atalean aztertzen du gai hau, eta funtzionarioen eragina edo eskua agertzen da euskararen alderako babesak gutitze hortan. Baina, Errepublikaren konstituzio berak ere hala behartu zuen, gaztelerari preferentziak emanez. Garai hartako tira bira hoiek ongi ikertzen ditu Jose Manuel Castells-ek *El Estatuto Vasco* deritzan liburuan.

Berrogei urte igaro eta ura bere bidean. Euskaldunak ez ote du eskubiderik bere etxean?

Gaur, preferentziak, inork izatekotan, euskarak behar ditu. Preferentziak eta behar bezalako laguntzak. Autonomiaren arautegietan eta hezkuntza sailean, lege zehatzak eta plangintza ego-

kiak, euskarak behar duen tokia har dezan. Iragan urteetan gobernarien ukapenak izan baditu, orain babes berezia merezi du; ukatu zaien gizaldietakoei semeak euskalduntzen lagunduko duen babesa. Historiaren legez, euskarak ez du zorrik, baina bai hartzekorik.

Zeren, gure herriko historiak trantze pasarte hoien ondorioetan jarri gaituanez, euskaldun garenok eskubidezkoa dugu gure hizkuntzaren alde erabaki egokiak eskatzea; euskara bizi dadin hartu beharko diren erabakiak, indartsuak, legezkoak, eskubide osoaz euskararen gordetzea eta erabiltzea salbatuko duena, gure hizkuntza etorkizunean ere hizkuntza bizia izan dadin.

Azken batean, ez baita herririk hizkuntza gaberik.

* * *

El libro blanco del euskara, en el capítulo 5 de la tercera parte, páginas 449/460, analiza el idioma en la política estatuaria, sobre el tratamiento dado al vascuence en los diferentes Estatutos de Autonomía. La oficialidad del idioma, su aplicación en la enseñanza, la función pública y las disposiciones sobre documentos públicos. Desde aquel primer proyecto de 1931, elaborado por la Sociedad de Estudios Vascos, que se conoce por el Estatuto de Estella en razón al lugar de su presentación, hasta la aprobación de 1936, fue un memorable proceso debidamente estudiado en la obra *El Estatuto vasco* de J. M. Castells.

Las medidas adoptadas en el primer proyecto de Estatuto aprobado en Estella, en lo que concierne a la lengua vasca, son mucho más favorables que en las ulteriores modificadas de 1932, y que éstas serían las definitivas para la implantación de aquel Gobierno de Euskadi. Aun así, lo aprobado hubiera sido suficiente en el estado en que se hallaba el vascuence, pero a raíz de la guerra civil, la historia le ha sido adversa a nuestro pueblo y el euskara ha salido de las más perjudicadas. Los que decían que el euskara era «la joya lingüística de la hispanidad» y se autoproclamaban como los más patriotas, fueron los mismos que intentaron su exterminio.

Al reconsiderar en el preautonómico actual, es de esperar que

el idioma sea merecedor de un trato especial que favorezca a su recuperación. Y es sobre todo en la enseñanza, donde habría que seguir la normativa fijada en el primero de aquellos proyectos autonómicos, si bien en el derecho jurídico el ciudadano pueda elegir libremente cualquiera de las dos lenguas, incorporando traductores oficiales en aquellos juzgados, notarías y negociados donde los titulares no supiesen euskara.

Por otra parte, es muy importante el acceso a los medios de comunicación y difusión, más la aceleración de las campañas de alfabetización entre los vascoparlantes y disponer de los medios necesarios para la euskaldunización voluntaria de los adultos.

En nuestro caso, resolver el problema lingüístico es fundamental, pues ello supone salvar la identidad de nuestro pueblo.

1978 - III - 13

BAI, EUSKARARI!

Berriz ere esan dezagun Detxeparekin batean: «Euskaldun den gizon orok altxa beza burua». Historiak, berriz ere, une berezi bat eskaintzen bai digu, gure hizkuntza aurrera edo atzera egin lezakeana. Hilzoria geldiaraztea ez bai da aski, eta erabaki zehatzak hartu beharrean gaude aro berri honetan.

Diktadudaren zerbitzuan bizi izan direnek, luzapena eman nahi dute; gure kulturarekin inoiz arduratu ez diren politikariek, gaixoa enplastu epelekin sendatzeko arauak eskaintzen dituzte; erdel eremuak jabeturik bizi diren abertzaleentzat, itxura soilak betetzeko euskara aski da. Baina gure hizkuntza jatorra egungo bizitzaren mailetara jaso eta erabili nahi dugunontzat, hoien esanak, aginduak eta eskaintzat, ez dira aski. Eskubide natural baten jabe gara. Guk ez genduen hautatu gure sorterria eta euskaldun izatea, baina hala jaiotzearen eskubidea zor zaigu. Lege natural batek ematen digun eskubidea, eta ez gizon batzuk kanpotik jarri nahi digutena, ez eta ere kanpotikako horrek benderatu zituztenak orain guri ezarri nahi digutena, ez. Esukaldunok eta euskal-

dundu nahi dutenek, lege natural batek ematen digun eskubide osoa dugu gure hizkuntzaren zoriz. Hau onartzerik nahi ez dutenek, jakin bezate zikin eta legez kontra ari direla; eskubide natural baten aurka.

Egoera honetan, eta une berezi honetan, beharrezkoa zitzaigun erantzun zehatz bat ematea, eta zehatza bezain zihurra da Euskaltzaindiaren deihadarra: Bai, euskarari!

Gure hizkuntzak iraungo badu, biziko bada, gaur egungo beharretarako txukunduko bada, indarrez hots egin beharra dugu: bai ala ez. Beste hautapenik ez dugu. Zenbait txepelen epelkerietatik irtenaz, zehatz eta garbi joka dezagun.

Gaztelerak ez du problemarik eta ez du laguntza beharrik. Hala ere, hor ari dira euskaraz irakasteaz hura galzorian jarriko bagenu bezala. Behartzea ez omen da komeni, eta erdara ez ezik inglesa ere behartzen dituzte Euskal-Herriko hezkuntza mailetan. Gai honi buruzko gogoetaz ariko bagina, ez zitzaigun idurituko zentzuzkoa, baina bai gezurrezkoa. Txarragoa dena, arrazoi itxurazko gezurrezkoa.

Bai, euskarari!, eta aurrera! Hau da egungo egoerak eta bideak erakusten diguna.

Gizaldi hontan jaio garen euskaldunok zama handia dugunez, ausart erantzun beharra dugu. Euskaltzaindia, bere bete beharrez arduratsu bizi da eta bere kezkak herriari agertu nahi dizkio. Euskaltzaindiaren egitekoa izanik: euskararen gramatika legeak ikertu eta mamitzea, hizkuntza honen idazlangintzarako argibideak eta arauak ematea, hiztegia biltzea, bere erabilkera aintzinatzea, hizkuntzaren eskubideak zaintzea, gizarte maila guztietan gai bihurtzeko lan egitea, e.b. 1918an lan horietarako sortua, lau diputazioek onarturik.

Langintzok aurrera eramateko ez du inondikako laguntzarik. Esperantzazko hitz onak jasotzen ohitua dago; baina, bai, badaki, geroko hobearen begira, euskara hilzorira. Honegatik, laguntza behar du. Diru laguntza, bere asmotako lanak aurrera eramango baditu. Baina, era berean, herria bera kontzientziatu nahi du, euskararen egoeraz eta dituen premietaz.

Edonondikako dei eta eskariak hartzen dira Euskaltzaindian gure hizkuntzaren ikerketarako eta tesi gaietarako bibliografia

«Bai euskarari» kanpainako ikurra, Nestor Basterretxeak egina

eta agiriak eskatuz. Ahal dugun neurrian erantzuten zaie, gure ikertzaile eta jakitueni beren denbora baliagarria galeraziaz. Aspaldiko asmoa dugu, inoiz aukerarik baldin balitz ordenadore baten bidez honelako zerbitzuak ematea. Baina, asmo honek, material gareztia eta hontarako gizonak eskatzen ditu. Hala ere, Euskal-Herriko Unibertsitateak berak sortuko dituen beharrak kontuan izanik, fakultate bakoitzak bere ordenadorea edukitzea garestiago litzake, eta hizkuntzari buruzkoan Euskaltzaindiak jarri dezake bertako eta herbesteko guzien zerbitzurako.

Honek beronekin dakar toki edo etxe handiago baten beharra, artxibo, liburutegi eta abar, hobeto osatu ahal izateko. Irakasleak eta ikasleak hain beharrezko dituzten tresnak, hiztegi, gramatika, testugintza eta abar, hau ere Euskaltzaindiari dagokio. Baita ere, lehen lehenago bezala, herbestean linguistika ikastaroak egin ahal izateko bekak ere.

Guzti hori ez da guti, baina oraindik gehiago ere bada. Euskal

literaturako liburu hautagarrienak, klasiko eta obra zahar, hauek argitaratzea litzake beste lan bat. Euskaltzaindiak burutu beharrezkoa hau ere. Argitalpenok berez errentarik emango ez dutenak, baina bai gure literatura hobeto ezagutzeko aukera eta hizkuntzak berak lan hoiekin beharrezko duen prestutasuna.

Eskuartean bizkor behar dugun tresneria da hau. Gobernuari eta Diputazioei diru eskatzen jarraitzea, eremu soileak predikatzea bezalako da. Aspertuak gaude horien hitz goxoak entzuten. Behar bada autonomiak ekarriko digo laguntza hoberik. Hala espero dugu. Baina gu ezin gindezke egon geroari begira. Gero izan daitezken bide hobeak, orain markatu behar ditugu. Orain egiten dugunak, gerokoa bizkortuko du. Euskarak, biziko bada, presa du. Politika ekintzak berak baino presa gehiago. Eta, jakinarren ere, zenbait politika erak bide hobeak aukeratuko dizkugula, hala ere, ezin dugu itxaro. Garai hontan egiten dugunak askoz ere gehiago balio du, geroko norabideak hartzeko, bizibidearen helburuak lortzeko.

Luzapenetan, epelkarietan, eta azalezko itxuretan ari direnek, ezetza ematen ari zaizkigu. Honegatik, guk, har dezagun egiazko euskaltzaleen jarrera, esanaz: Bai, euskarari!

* * *

En estos momentos tan cruciales que atravesamos, en los que se pone en juego el porvenir de nuestro pueblo, su cultura y su lengua, la Real Academia de la Lengua Vasca asume las responsabilidades de los fines para los que fue creada por las cuatro Diputaciones, aprobada por el Decreto 573/1976, y, recientemente, por el propio Consejo General Vasco. Dichos fines constituyen: Investigar y formular las leyes gramaticales del idioma vasco; dar orientación y normas para el cultivo literario; laborar por la formación de un lenguaje literario unificado en léxico, pragmática y grafía; promover su uso y velar por los derechos de la lengua, a fin de que ésta pueda ser medio de expresión de la comunidad a todos los niveles; fomentar la celebración de concursos literarios didácticos; promover los estudios de filología y lingüística con la creación de cátedras de lengua y literatura

vasca, y expedir los oportunos títulos y certificados. Toda esta misión se le encomendó por las diputaciones vascas (naturalmente, Navarra inclusive) y el propio rey Juan Carlos I aprobó en el aludido Decreto.

Pero en estos momentos tan decisivos, para marcar un futuro esperanzador, la Real Academia de al Lengua Vasca - Euskaltzaindia, no dispone de los medios económicos que le son necesarios para el desarrollo de sus fines. El Consejo General Vasco, hoy por hoy, no dispone ni de medios ni de suficiente poder para esa ayuda, y en algún apartado de la administración central duermen los presupuestos de la entidad responsable del desarrollo de la lengua y literatura vascas. Las Diputaciones llevan ya muchos años desatendiendo las necesidades de la entidad, que siendo su gasto de mantenimiento doce millones de pesetas en el momento actual, sólo percibe de ellas la suma total de novecientas cincuenta mil. Como única esperanza para tratar de solucionar el problema que en estos momentos viene a ser urgente, son la iniciativa privada y el pueblo.

A la vez, la Real Academia de la Lengua Vasca, trata de concienciar al propio pueblo, que siempre le ha apoyado, y a la recíproca le ha ofrecido sus servicios. Aunque nos resulte lamentable el confesarlo, la ayuda popular y la de algunos centros privados siguen siendo, hoy por hoy, la única esperanza de Euskaltzaindia.

Hemos de trabajar para la reintegración del vascuence a la vida diaria del país en todas sus dimensiones y es de necesidad imperiosa disponer de modernas instalaciones, con ordenador inclusive, para la recepción y expedición a modo de banco de datos lingüísticos, para ofrecer el adecuado servicio a las Universidades y estudiosos de la lengua; formación de profesorado a todos los niveles; editar y promocionar las obras de clásicos y de interés general, para que nuestra literatura se difunda; preparar diccionarios especializados para las exigencias modernas; y, en consecuencia de todas estas actividades, disponer de locales adecuados para el trabajo. Todo lo que en una nación moderna la administración gubernamental se encarga de orientar y apoyar y aquí, aunque nos asista un derecho natural, se desentiende y se

desatiende. Luego, hay sobradas razones para clamar «Bai, euskarari!». Sí, al euskara.

1978 - V - 22

AHALDENA, ONAREN URRENGOA DA

Egungo egoerak, duela hamar urte esanak berritzera nakar. Euskaldunok maiz ari gara gure mintzairaz gutxi-etsirik, daukaguna baino ez daukaguna nahiago dugula edo. Eta horrelako usteak ez digute kalte gutxi egiten. Batasuna lortzeke dugu, eta norperana edo auzokoana sarri baztertzen dugu, edo ridikulizatzen dugu. Esate baterako, eurena gutxi-etsitze hau oso zabaldua dago eibartar euskaltzaleen artean, eta horri gaineratzen badiogu auzoak —batez ere urrutikoak, zeren urrutikoak bai dira gutxien dakitenek— guregatik esaten duten guztia, ez da harritzekoa euskaltzale ez diren eibartar euskaldunak beren mintzairaz lotsaturik erderara jotea.

Baina, hontan, auzoak ez direla txarrenak esan dut, eta inoiz edo gehienetan ez eta ere urrutiko euskaldunak, baizik euskararik ez dakitenek edo euskara motel baten jage direnek, maiz erdaraz eta gutxitan euskaraz mintzo direnek. Gutxitan eta esnedunakin edo basarritarren batekin arkitzen direnean bakarrik. Hoiek onenak ez badira ere, Euskal-Herriko erdaldunek ez dira hobeak, batez ere hauek, euskaraz jakin gabe beren buruak euskaltzale badituzte. Euskaraz euskaragatik ari geranok amaika holako aguantau behar dugu. Halajaina! Euskararik ez dakiten tolosarrak ere Eibarkoaren lepotik parrez ete berena hoberena delako harro-harro. Eta, Eibarko hizkera esaten dudanean, kasurako berdin da Ondarrukoa, Bemiokoa, Arratiakoa, Azkoitikoa edo Nafarroako Sakanakoa. Bizkaian Markiña, Gipuzkoan Tolosa edo Lapurdin Donibane Lohitzune-koan fama ona ez duten herri hizkera guztiak zaizkie ridikuluzkoak, zentzu gutxi eta euskara gutxiagoren jabe diren ahozabalei.

Gauza xeheak dira, jakina; baina gauza xehe hoiek amaika kal-

te egin digute eta egiten ari zaizkigu. Ikusi besterik ez dago azkenean Bilbon lehen aldiko «Anaitasuna» berari zer gertatu zitzaion. «Anaitasuna» Bizkaiko euskera jatorrean zetorren. Txukun egin nahirik, bizkaitar euskaldunek egiten duten baino askozaz garbiago, baina bizkaitarrek ondo ulertu ziteken eraren nehurritik irtetzeke. Baina, betikoa: euskaraz mintzaten ez ziren euskeltzaleak, erdara ongi dakitenez, erdararekin zer ikusia zuten hitz asko bilatzen omen zituzten eta, jakiña!, hori ezinezkoa zen gure mintzaira orbangabearen azaletiko itxuren prestijiorako. Eta, orduan zer gertatu zen? Ba, hau: euskara zabaltzeko dirua ez dela problema, esaten duten hoietakoak (nonbait, diru asko erabiltzen dutenek eta beren ardurarik handiena non enpleatu asmatzea zaien hoietakoak), diru laguntza ukatu zioten. Eta, ito eta kitto. Agur! «Anaitasuna». Euskararen itxuragaitik, anaitasunik ez eta etsaitasuna bai.

Alde batetik, prestijiozko euskara batu bat ez izatearen kontuak dira hauek, zeren euskararen batasuna egiten den egunetik (eta lehenengoz euskara idatziaren batasuna behar) seriozki hasiko gara gure literatura hobeto eta gehiago lantzen eta hornitzen. Landuak eta hornidurak ematen dio hizkuntzari behar duen itzala; behar duen «tornuia».

Bitartean, iñosokeria ugari. Herri hizkerak konponketa dute; euskal alfabetatze kanpainetatik ongi ikusi den gauza da. Baina euskara galdu den tokietan, konponketak, askoz ere nekazagoak izango zaizkigu.

Euskal Herrian zehar, nongoa naizen galdetu didatenean eta eibartarra esan, amaika aldiz entzun ditut asto-beltzarenak, gure euskaragaitik. Gainera, «alkatia kabezan banda minuzipalakin, eta pueblua masan...» eta horrelako erretolikak. Eibarren esaten ez direnak eta bertako euskararekin esan ezin ditezkeanak gure bizkarrera erantsiaz. Eibarren euskara zaindu dutenek oso ongi konprenditzen dute giputz euskara eta lapurdikoa ere euskerarik ez dakiten gipuzkoarrek baino hobeto, jakina; eta bizkaiera gatik zer esanik ere ez. Nik ez baizik Altube berak esana da eibartarren aditza os-osorik Frai Bartolome idazle handiak erabiltzen zuen ber-bera dela. Guk ondo dakigu, gure euskara. Elgoibar eta Plaentziakoarekin baino hurrago dagoala Markiña-Etxebarrikoakin.

Baita Durango aldekoarengandik baino ere.

Honekin agertu nahi dut, gure euskara mordoiloak baduela konponketa, mordoilo irauntzen duen artean. Galtzen denean, joana-joan.

Bizkaiko euskara ez dakiten giputzak, beren erakoa ez den guztia txartzat hartzen ere badakite, eta euskararik ez dakiten bizkaitarrak, Bilbo aldekoak bereziki: «Eibartarra, kaballua, bentania, trigua maduratzeko...». Baina, lehen ere esan dut gure lepora datorzkigun asko ta asko guk esan ezinak direla: «madurau», nekez daki eibartar euskaldun batek, batez ere zaharrak, eta era berean gutxi gora-behera «trigua». Errazago entzungo da eibartar gaztetxo euskaraz ez dakitenen artean: «gustoko», «txanda», «mutxikin», «okaran», «bezero», «biotzerre», eta abar, hoietariko asko erderaz zelan esan ez dakitelako.

Honela dira gure gauzak. Aspaldikoa da hau, eta batasunezko euskara bat lortzen ez dugun artean iraungo duena. Hara zer zion Mogel-ek bere *Konfesio ta komunioko sakramentuen gañean Erakusteak* zeritzan liburuaren hitzaurrean (1800-ean argitaratu zen liburu hau); liburua gipuzkeraz dago eta geroagorako bizkaieraz jartzea agintzen zueanean, hau zion: «Liburu berau ipintzea uste det Bizkaiko euskeraz ere. Ez dakitenak uste dute Bizkai guzian esaten dala: *Ené, ara toroa plazaan manzania jaaten.* Bilbotarren erdi erdera erdi euskera daukate Bizkai guziko euskeratzat. Ez da ordea ala. Eztitsuagoak dira giputzen itzak; baina itzen euskaratasun, garbitasun, ta euskera legeen aldetik, ez dio ezer zor Bizkaikoak».

Nork esan, «toroa manzania jaaten» ikusi zutenen ondorengoak, eurak orain hori esateko ere gauza ez direlarik, besteen lepotik parre eta adar-joteak, edo hobeagoa ez den garbikeriak eskatzea?

Problema hauen erabagi bakarra, euskararen batasuna da. Batasuna nahi ez duena, problema hoiei indarra ematen ari da. Eta, euskaran erdalkutsurik ez duten hitzak nahi dituenak, har beza esperantoa. Berdin baita, baldin euskerak ehundaka urteetatik bere dituenak, atzo norbaitek laboratorioan asmatu dituenen tru-

ke eman behar badira.

* * *

Los inconvenientes de una lengua sin una unificación o estandarización en el uso escrito, trae consigo muchísimos inconvenientes para el escritor euskaldun. La discrepancia de opiniones, a veces, para muchos que no hablan vascuence, consiste una postura cómoda para eludir su aprendizaje, y la diversidad de opiniones, desde los modismos, deslices, lapsus y faltas cometidas en el uso, a veces sirven de arma arrojadiza hasta para los que no saben euskera, con tal de discrepar o herir a otra persona que no coincide en sus gustos, ideas o credos.

Hace unos días recordaba Amatiño en un buen artículo de Deia, que el vascuence hablado apenas suscitaba polémicas, pero la misma lengua hablada puesta en letras de molde ocasionaba a veces duros debates de escaso fundamento.

Este proceso continuará mientras el vascuence no logre la unificación escrita como toda lengua culta, mientras las publicaciones no cuenten con correctores con la misma normativa, mientras la lengua no se enseñe con normalidad en la escuela.

Es preciso decir también, que la lengua hablada en su forma popular, generalmente suele ser correcta en su estructura, a pesar de las deformaciones por contracciones y fonetismos. Estas convendría evitar. Y la adulteración del léxico, por lo general, no es más que la apariencia externa. Los vocablos sirven de préstamo y a un idioma le pueden hacer más daño los neologismos que las palabras de origen extraño. Vaya mi artículo de hoy, con unos cuantos ejemplos, a reconsiderar los criterios que hace algunos años publiqué en la revista *Egan* y que los considero de actualidad.

En nuestra situación, más vale cualquier variedad dialectal, hoy por hoy, pero sobre todo si se aplica tras las orientaciones recibidas en las campañas de alfabetización, cuyos resultados son por todos reconocidos como positivos para aplicar el euskera hablado al escrito, de modo que a partir de cada variedad se enriquezca la lengua común.

Avancemos sin olvidar que la lengua es un vehículo de comunicación, y como tal, el escritor ha de dar un contenido temático en el uso.

1978 - VII - 24

EUSKALTZAINDIAREN VIII. BILTZARRA

Irakurleak egunkarietatik jakingo duenez, Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra L. Elizalde-ren omenez egin da Bergaran, bere sorterrian, jaioturtearen ehungarrena betetzean, bergarar hau duela hirurogei urte Esukaltzaindiaren sortzaileetako bat izan zenez. Eta bost egunen buruan batzarrean erabili den gai bakarra euskara idatziaren batasunezkoa. Euskara idatziaren batasuna egitea berea bai du Euskaltzaindiak, beste bete behar batzuen artean hortarakotz sortu zelako.

Iraillaren 4an, astelehenez hasi ziren hitzaldiak, arratsaldeko 5etan, agurrez eta Biltzarrerako gai eta arauen xehetasunak agertuz, eta 5etik 8ra bitartean ikerketa hitzaldiak, bi zatitan banaturik; a) Arantzazuko Batzarrak duela hamar urte gomendatu erabilkerak izan duen harrera aztertuko zuen sozio-estadistikazkoa; eta, b) Linguistika sailekoa, bakoitzak bere espezialitate edo jakitatearen arabera eman zitzaion gai berezia aztertuko zuena.

Honako hauek ziren hizlari: Martin Ugalde, Joan Mari Torrealday, Xabier Mendiguren, Andoni Sagarna, Mikel Zarate, Jean Haritschelhar (Euskalerriaren iparraldekoen izenean), Ibon Sarasola, Luis Mari Mujika, Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi», Patxi Altuna, Alfonso Irigoyen, Koldo Mitxelena eta Eustasio Etxezarreta.

Hitzaldi horiez gainera, anitz txosten irakurri zen euskararen batasunari buruz.

Hitzaldi guziak ez ziren maila zerekoak, gai guziak ere ez ziren bezala. Gai batzuk, lehendik landuagoak datozelako eta beste batzuk berez batasungarriago direlako; beste batzuk ordea, naturala den bezala, pundu zalantzazkoagoak edo oraindik aski es-

tudiatu gabeak. Era berean, gai batzuk besteak baino eztabaidagarriagoak bihurtu ziren. Hala delarik, batzuk batasun bidea aisago ebaki ba zuten ere, bestek saiaera jakingarririk azaldu zuten. Azken batean, euskara idatziak hain beharrezko duen bide hori sasiz garbitzeko eta aurrera aintzinatzeko argiago ikus dezagun.

Euskara idatziaren batasuna behar beharrezkoa dugu, munduko hizkuntzarik gehienekin egin duten bezala. Gu ez gaude batasun bidetik joan nahi ez dutenen kontra. Bakoitzak bere bidea hautatzeko eskubide osoa du. Euskaltzaindiak bide bat ebaki eta gomendatzen du, bere egitekoetarik bat hori denez. Eta, munduan beste inork Akademiak edo Estatuak egin ez duen bezain era demokratikoan azaldu ere, nahi duen guztiak bere arrazoiak azaltzeko eran, aldez aurretik hortarako deiak egin zituenez. Hamar urteren buruan ez da beste alternatibarik sortu. Batzuk herri euskara aipatu dute, baina kontrako bezala hori diona, hutsean ari da. Batuak edo baturantzekoak ez baitu ezer lehendik herriarena ez denik. Geu gara herri, eta euskaldun herri ororena hartzen du oinarri, ez xoko soil batekoa. Bestalde, idazlerik gehienen joera kontuan eduki da, zeren hauek markatzen bai dute euskara idatziaren batasun bidea.

Arrazoiak anitz dira, baina sarrerako hitzaldian Mitxelenak esan ziguna gogoan har eta ez ahantzi: «Guztiok elkarganaturik, iritziak iritzi, eta maite omen dugun hizkuntzari begira, ahulak ahula indar dezake. Eta ahulen multzoak, bata bestearen arrimuan, gogor egin diezaieke indartsuagoei. Batez ere, Eusko-Ikaskuntzaren sortzaileek gogoan zutena guk ere gogoan hartzen badugu: *Txikiak andia benzi leidi, asmuz ta jakitez*».

Estadistika beharrezko zen, neurri handi batean honek markatzen bai du idazleen joera nagusia, eta hala aztertu zen 1967-1977 urteetako testu masa. Hemendik ikusi zen % 61,3-koak Arantzazuko gomendioak jarraitzen dituela eta gainerakoak elkarregandik sakabanaturik ari direla. Egia esan, batasunaren iritziak denak ez dituzte jarraitzen hain hertsi, baina bide hortatik kanporakoen joera desberdinagoa eta sakabanatuagoa dela nabarmen azaltzen zaigu.

Hainbeste esamez eman duen H letraren erabilkeraz, era asko-

tatik ikusitako xehetasunak eman ziren, baina testu masa horren arabera, % 62-koa idatzi da H-kin.

Estadistika duda-mudaz jarri zutenek ere agertu ziren. Baina, oinarri gabeko salakuntza, zehatz, hutsa non den agertzen ez duena. Erabili behar ziren hitz batean huts agin zen, hitza oker hautaturik, baina hau H-ren kaldean izan zen, zeren beste hitz batek H gehiago emanen bai zuen.

Hizkuntza saileko hitzaldiak erakutsi zigutena, zera izan zen, hizkuntza zenbat eta sakonago ezagutu, ustez txikiak iruditzen zaizkigun gauzak zer prolema sortzen duten. Arantzazuko Batzar hartatik geroz gende ikasiagoa agertu zaigu. Elkarrizketetan bihotz asko ere erakutsi zen, baina dakitenek bihotzaz gainetik burua jarriaz. Han, bihotzik inori ez zitzaigun falta; jakinduria bai. Eta, biak lotu ezik ez dugu ezer egiterik.

Azkenean, hara agertu ginen euskaltzain osoak bildu ginen; L. Villasante, J. Haritschelhar, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigaray, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre, E. Knörr, F. Krutwig, L. Mitxelena, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zabala. Bestalde, X. Diharce «Iratzeder», P. Larzabal eta J. M. Lojendiok beren ezin etorria adiaraziaz, bozetarako poderioak agertu zituzten, bost egunen buruan izan ziren hitzaldi, txosten eta elkarrizketak kontuan haturik, estudio zehatzagoak eginala arauak finkatzen joatea, Batzarreko lan guziak «Euskera»-ren ale batean argitaratzea eta oraingoz herriaren aurrean adierazpenezko agiria irakurtzea erabaki zen.

Arratsaldeko bostetarako programatua zen Biltzarraren amaia. U.N.E.D. ikastetxeko elizan izango zenez, neuk ere erosi nuen arkupeetan salgai zen *Manual devotionezcoa* eta mahaiburuan jartzeaz, nerekiko gogoetaz ari nintzelarik, han-hemen begiratuz, hara zer irakurtzen nuen 131.orrialdearen hondarrean:

Gratia eguiguçu othoi, munduaren Iabea,
Çordun leguez complitceco gueure eguin bidea.
Desohora ezgaitçaten hartu tugun carguec,
Ceren hotztu gaituzqueten vntcico trauailluec.
Bañan guehien den leguez gure eguin bidea,
Iauna, othoi eredura iguçu verthtutea.

Eta, hara hemen euskaltzain osoek aho batez onartua:

Euskaltzaindiak bere VIII. Biltzarraren ondoan adierazpen hau agertzen du:

1.—Biltzarrerako egin diren azterketei esker, garbi ikusi du duela hamar urte Arantzazun eskainitako batasun asmoa eta arauek izan duten baietza eta eragina.

2.—Hori horrela delarik, orduan hartu zen bidetik, euskararen batasun lanak aztertzea, sakontzea eta aintzinatzea nahi du.

3.—H letrari buruz iparraldeko zazpi euskaltzainen lana baliozko iritzirik, oinarritzat hartzen du. Horretarako hainbat lasterren argitasun zehatzagoak emango ditu.

4.—Bustiduren grafia alde batetik, deklinabidea eta erakusleen formak, bestetik, aski ikertuak daudelakotz, erabakiak hartzeko premia ikusten du.

5.—Euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz.

6.—Gure irakaskuntzaren behar gorriaz jabeturik, «Ministerio de Educación y Ciencia» eta «Ministère de l'Education» direlakoei eskaria zuzenduko die: Irakasle prestakuntza-eskoletan biderik zabalenak eman ditzaten, beharrezko baita:

a) Edozein sailetan, eta maila guztietan ikasten ari dena euskaraz irakasteko gai bihur dadin eta

b) Euskal Herriko eskola horietan guzietan sor dadin Filologia Euskal saila.

7.—Batasunerako bidean ari diren Erakunde eta Elkarte guztiekin premiazko harremanak indartzeko nahia aditzera ematen du.

Bergaran, 1978ko irailaren 8an.

Hau zen guztia eta ez zen guti. Eta, hau ikusirik, han zen plaentziar batek esan zidan, euskaltzainok gizon «atxeginak» ginela.

* * *

La semana pasada ha tenido lugar el VIII Congreso de la Real Academia de la Lengua Vasca, en la villa de Vergara y en

homenaje póstumo a Luis de Elizalde, uno de los fundadores de dicha institución, con motivo del centenario de su nacimiento. El tema desarrollado durante las jornadas de cinco días ha sido el de la unificación del vascuence escrito.

Se analizó la respuesta de los escritores con un estudio estadístico, en su praxis, sobre la normativa emitida en el congreso de Aránzazu; hubo ponencias técnico-lingüísticas sobre diversos aspectos de la lengua, se leyeron numerosas comunicaciones; y, por último, reunidos en privado los académicos numerarios deliberaron sobre el desarrollo del tema y, por unanimidad, acordaron redactar un informe para ser leído en público en el acto de clausura.

En líneas generales, a la vista de los resultados de los diez últimos años y los estudios presentados al Congreso, se reafirma la línea tomada durante aquel Congreso de Aránzazu, y proseguir en los trabajos de unificación siguiendo la pauta adoptada entonces. Considerando valioso el trabajo presentado por siete académicos del Norte del país en torno a la utilización de la H, se tomará de base y se difundirán como norma de precisión. La grafía de las palatalizaciones, las formas de los demostrativos y de la declinación han sido suficientemente investigados y se ve la necesidad de tomar decisiones sobre esas materias. Los dialectos y las formas literarias de las diversas zonas se consideran para seguir estudiando y a su vez desarrollando, conservando sus subestructuras y la ortografía de la unificación. Conscientes de los problemas de la lengua se acuerda dirigir peticiones a los Ministerios de Educación de los Estados español y francés, en solicitud de plenas facilidades para introducción del vascuence en los centros de enseñanza y poner los medios necesarios para la preparación del profesorado en las escuelas de Magisterio y creando cátedras de Filología vasca. Y, por último, procurar estrechar más los lazos entre esta Academia y las diversas entidades que trabajan por la unificación de la lengua.

Hubo 277 participantes en el Congreso. De ellos, 14 eran académicos de número, 33 correspondientes y 2 miembros de honor. Los asistentes pudieron obtener los textos de todas las ponencias; hubo un servicio que xerocopiaron 42.000 folios. Y los pe-

riodistas presentes en las reuniones fueron doce.

Todas las críticas, naturalmente, no han sido favorables. Pero en ningún país del mundo nos consta que se haya llevado la decisión sobre la unificación de la lengua como en esta ocasión ha hecho Euskaltzaindia.

1978 - IX - 11

H LETRAREN ARAZOA GIPUZKOARREN ARTEAN

Batzuen H letraganako gorrotoa, beste batzuri konpreni ezina zaigu. Ulertu ezin hau, ez bakarrik ortografia betidanik aldakorra delako, baizik gainerako letrak bezala latinaren bidez hartua dugulako eta euskarazko lehen izkribuetan presente dugulako. Euskara idazten hasi zenetik, H «madarikatua» hor dago.

Euskalki batzuetan ahoskatzen dute, beste batzuetan ez; baina, badira kontsonantez aldatuz: *agoa, bigar, bixotza* eta antzerako hitzetan, inoiz fonetismoak badira ere; hor dira Nafarroan *gan, gemen, gura...; kan, kemen kura...* baina hau ere arrazoibide kaxkarra litzake, Mendebalean *z* eta *ts* ez dituzte edo ez ditugu ahoskatzen, baina ez zaigu iduritzen hauek kentzea, naiz eta hiztegian H bera baino gehiagotan konsultatu behar badugu ere. Nere asmoa ezta eztabaida hoietan sartzea. Bakoitzak hauta dezala zer komeni zaion, bere uste edo gustoen arabera, eta libertate osoarekin jokatu. Nik gaur hemen agertu nahi dudana, zera da, H letra gipuzkoar idazle artean inoiz erabilia izan dela, eta hontarako lekukotasunak jarri nahi nituzke. Jakina da Landuchio-ren hiztegian (1562. urtekoa) atxeak agertzen direla, Nafar-Akitako hillarrietan ere bai; baina garai ilun haietara jo gabe, natorren gure idazle ezagunagoetara. Eta XVIII. mendean gure literaturaren pizkundea Hego Euskalerrrira ekarri zutenen artekoak ditugu Larramendi, Mendiburu, Kardaberaz eta Ubillos. Hauetatik, bat ez beste guztiak agertu ziren atxezale.

Kardaberazek, K gorrotatzen zuen garai hartan. Ez zuen K letra onartzen. Baina H bera ere ez zitzaion gogoko. Guti batzu-

tan erabili bazuen ere, ez zuen ikusten H-ren premiarik, alperrikakoa zeritzalako. Hala ere, Aita Asteteren «Christauaren doctrina» euskaraz ematean, H-kin eman zuen. Liburu hau L. J. Riesgo-ren moldiztegian argitaratu zen, Donostian bertan hamazortzigarren mendearen lehen partean. Urterik gabe azaldu zen, baina inprimategi honek 1752tik 1802ra arte iraun zuen, oso oker ez banago.

Manuel Larramendik, «Diccionario Trilingüe»ren hitzaurreko XXXVIII. atalean H-ren erabilkeraren alderako arrazoiak agertzen ditu. Horrez gainera, ikus 1745ean argitaratu zen hiztegi honetan *vocablo* hitza bera. Gomendio hau jarraitu zuten nonbait Mendiburuk eta Ubillosek, eta gipuzkoarrak izanik ere, atxez idatzi zituzten beren izkribuak. Mendibururen «Otoitz-gaiak», 1760garren urtean Iruñan argitaratuak, Tolosako E. Lopez-ek birargitaratu zituen 1904an, baina H guztiak kenduta.

Hemeretzigarren mendeko giputz idazleak apenaz erabili zuten H letrarik, guti batzuk baizik. Hala ere, Jose Manterolak lehen aldiko «*Cancionero Vasco*» hartan (1877), II. tomoaren 35. orrialdean agertzen denez, *itz* eta *hitz* bi erak jotzen ditu gipuzkoartzat, H-kin eta H gabe.

Tomás Eleizalde, Bergarako San Pedro-ko apaizak 1878an argitara eman zuen «Cristauaren gordairua» deritzan liburua ere atxeaz dago. Gregorio Arruek ordea bereizgarritzat erabiltzen zuen. Honen itzulpen lanetako euskara oso egokia eta txukuna iduritzen zaigu. Eta, adibidetzat Juan Jose Mogelek bizkaieraz egin zuen «Baserritar jaquitunaren echeco escolia», honek 1816an emana, G. Arruek 1878an gipuzkeraz agertu zuen Tolosako B. Gurrutxagaren moldiztegian, eta egileak atxerik gabe emana, Arruek gipuzkeraz H ta guzi jarri zuen. Bere hitzaurre laburrean hala aurkituko ditugu *hill* eta *hitz*, eta liburuaren barna ere erregela bera jarraitu zuen. G. Arrue bera izan zen Félix Sardá y Salvani-ren «El liberalismo es pecado» itzuli zuen (1887), «Liberalen dotriña pecatu da» izenez. Hau bai barregarria, liberalen kontra H-kin idatziaz. Hark nonbait etzituen ikusten H letrak zituen perilak, zeren orain, batzuentzat, gorriena omen da. Sineskaitza da setati batzuen tiki-mikietatik noraino eraman diren H-ren usteak.

Gure mendean ostera, hemeretzigarren mendean baino uga-

S. Mendibururen oroitarria Oihartzunen

riago erabili dute H letra Arantzazuko Biltzarra baino lehen ere. Orixek berak «Barne-Muinetan» (1934) deritzan liburuan eta Euzko-gogoa aldizkarian. Gerragatik herbesteratutako zenbaitek, Ipar Euskal-Herriko influentziaz kutsaturik edo. Gernika eta Euzko-gogoa aldizkarietan ez ezik, Donostiako Egan-en ere nabari da eta lekukotasun batzuk jarriko ditut: 1956-ko Egan aldizkariak aztertzen baditugu, Gabriel Aresti, Aingeru Irigaray (honek aspalditik jarraitu duen bidea izan da), Antonio Maria Labayen eta beste.

Ez ahaztu Yon Etxaidek 1955ean argitaratu zuen «Joanak-joan» eta 1958ko «Amasei seme Euskalerriko» H-kin idatzi zituela. Antonio Labayen-ek, besteak beste, «Domenjon de Andia, Gipuzkoa'ko erregea», 1965ean Zarautzen argitaratua. Gero H espantagarriaren aurka atera zen liburu batean, H tximistadunak baserria eratsiz azalean zuela, han esaten zen argazki da guzi inoiz H-rik erabili ez zuen euskaltzainetako bat zela. Amaika ge-

zur erabili da, alde batetik eta bestetik. Bortxakeriak erabili direla esaten dutenek ere badira. Hala izanen da, zeren elkar-lanean egin behar genuen lan batean, H-rik ez erabiltzea edo bestela parterik ez hartzera behartu ninduten ni neu. Bestalderakorik ere izan da. Bai horixe. Baina, batzuk, Arantzazuko gomendiora arte erabili ez genuenetakoak gara. Eta, gainera, lehendik erabiltzen zutenen kontrarik egin gabeak eta gero ere ez erabiltzen ez dutenei.

Hainbeste alperrikako eztabaidaren gainetik, hamar urteren buruan H letraren erabilkerazko lehen saioa Bergarako Biltzarraren aurrean aztertu du Euskaltzaindiak. Agertzen denez, Arantzazun begi onez ikusia, idazlerik gehienak erabiltzearen aldekoak dira. Bestalde, erraz ikus daitake, erabilkerak deseztatu duela H-ren zailtasuna. Erabili ez dutenek zailtasuna hartzen bai dute arrazoitzat, baina erabili ezik nola dakite hori?

Egiazko abertzaleak Zazpiak-bat nahi du, eta hau besteei ere amor emanaz egiten da, demokraziaz nahi baldin bada. Eta amor ematea zer den jakin nahi duenak azken Herria astekaria irakur dezala, irailaren 14-koa (1463, zenbakia), beste zenbait gauzaren artean hara zen dion bertan Bergarako Biltzarrari buruz: «Hirugarren eguna izan da oroz gainetik H letraren eguna. Iparraldeko Zazpi euskalzainek apailatu zuten saila, P. Lafitte eta J. Haritschelhar-en gain utziz lanaren presentatzea».

«Batasunaren onetan iparrekoek on-hartu zuten *x* letra *ch*-en orde; eta kontsonanten ondoko *h* kendu ere. Hegokoek zertako ez lezakete *h* on-har, hoiek ere beren aldetik? Denek badakite española irakurtzen, nahiz mintzaire hori *h*-ez emokatua den: aski dute ez ahoskatzea euskaraz, erdaraz egiten duten bezala. Bertzenaz ere 200 hitzen afera da, bertzeak hoien ganikakoak baitira; eta *h* ez da lehen edo bigarren silaban baizik gertatzen hitz xinpletan. Ez dugu uste aditzale guziak gure ganatu ditugula aldi huntan ere. Baina ez etsi!».

Guztion artean egin dezagun egiazko Zazpiak-bat. Ez elkar zapalduz, bai elkar onartuz. Beharrezkoa zaigu bat egitea. Batasunean dago indarra.

* * *

Ha sido incomprensible la aptitud agresiva y alarmante de algunos antihaches en periódicos donostiarras en vísperas y los días que duró el Congreso de la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia en Vergara. Y tal vez esas posturas adoptadas a priori les ha condiconado a tergiversar los resultados del congreso a la hora de analizar fríamente y con objetividad.

Del propio congreso y de los siete puntos del comunicado de Vergara me ocupé en estas mismas columnas el día 11 de los corrientes. Del balance del referido congreso informaron con claridad meridiana la mayoría de los periodistas, los trabajos presentados y los coloquios mantenidos serán publicados en un número extraordinario para no dar lugar a dudas; pero de entre los trabajos periodísticos que han resumido el contenido del congreso cabe destacar el escueto y preciso artículo de Martín de Ugalde en Deia del día 19.

Nadie puede negar el alto valor científico de las ponencias del congreso y su efectividad hacia la normalización del vascuence escrito.

El punto polémico se centró en el uso de la H, que hoy es utilizada por la mayoría de los escritores y que para algunos opositores se considera como algo extraño y dañino que se ha incorporado al vascuence en época reciente. Pero la verdad es que se trata de una letra que está presente desde el mismo momento que el idioma vasco aparece en forma escrita, como nos atestiguan las lápidas aquitanas de Navarra, el cartulario de San Millán y el primer libro impreso en vascuence. Además, se pronuncia en algunos dialectos y se considera como elemento unificador en el conjunto «Zazpiak-bat» que late hasta en los propios opositores. Pero no es mi intención el polemizar sobre el tema, H sí o H no. Lo único que pretendo es informar de su presencia entre los escritores guipuzcoanos desde antes de las recomendaciones de Euskaltzaindia en 1968.

De los cuatro escritores importantes de Guipúzcoa en el siglo XVIII, tres la utilizaron normalmente en sus escritos, y que son Larramendi, Mendiburu y Ubillos, a excepción de Cardaveraz que no consideraba necesaria, pero que sin embargo llegó a utilizarla en alguna de sus obras. Pero, conviene decir, que Carda-

veraz era enemigo del uso de la letra K.

De entre los escritores del siglo pasado, muy pocos guipuzcoanos utilizaron la H. Sin embargo, encontraremos en los escritos de Gregorio Arrúe, Tomás Eleizalde y algunos más. Pero en nuestra época, además del propio Orixe en algunas de sus poesías, bastantes escritores actuales adoptaron esta lerta, probablemente por una intercomunicación mayor entre los propios vascos a través de un aumento de los medios de comunicación y por personas exiliadas en el país vasco de Francia. El hecho es, que desde antes de las decisiones recomendatorias de la Academia en el Congreso de Aránzazu (1968) los escritores jóvenes la aceptaron casi en su mayoría en 1964, y aun mucho antes otros no tan jóvenes guipuzcoanos, como se puede comprobar en la revista literaria Egan de 1956, y que detallo en el texto euskérico.

La ortografía, ante todo, ha de ser convencional, y en un lenguaje común que se nutre de los dialectos, conviene respetar una letra que unos pronuncian y consideran imprescindible, y que para otros no es nada difícil su uso, como se ha podido comprobar en la práctica. En total, son 200 vocablos con H los que se solicitan conservar para el vascuence unificado. Ved a este respecto el semanario Herria del día 14 en su primera plana. Pero ante todo, que quede bien claro, que los escritores guipuzcoanos han empleado en otros tiempos y que en el congreso de Vergara se trataron cosas mucho más importantes que la ortografía.

1978 - IX - 25

VI
OROITZAPENEZ
En recuerdo

Fr. JUAN MATEO ZABALAREN BIGARREN EHUNURTEURRENA

Larunbatean ospatu zen Bilbon Aita Juan Mateo Zabalaren bigarren ehunurteurrena, bertako hiriko bibliotekan Euskaltzaindiaren ekimenez.

Bazen ordua gure kultura gizonak ere, beste edonongoak bezala, omenez goraipatzeko eta jendeari ezagutarazteko. Villasante jaunaren agurrezko hitzen ondorean A. Agustin Biain eta A. Lino Akesolo mintzatu ziren Juan Mateo Zabala zenaren bizitzaz eta euskal idazle bezala egin zituen lanetaz. Azkenik, Alfonso Irigoyen mintzatu zen Bilbo eta euskara gaiari buruz.

Izan ere, Juan Mateo Zabala bilbotarra zen, Bilbon jaioa 1777-ko irailaren 21ean. Bilboko frantziskotarretan egin zituen latin eta gainerako eliz-ikasketak, lehen aldiz, eta Gaztelerrian Teologia. Bilbon bertan Filosofia irakasle izendatu zuten 1804an eta egiteko hontan jarraitu zuen 1808an Napoleón-ek fraideak beren komentuetatik jaurti arte. Orduan, noraezean ibili zen, toki batetik bestera.

Paulo Astarloaren *Apología de la lengua bascongada* obrak piztu zion euskaltzaletasuna. Honek eta Aiñibarrorekin adiskide mina izateak, noski. Sorterriminak ekarri zuen Euskal-Herrira eta 1815. urtetik 1840an hil arte, Zarauzko misiolari komentuan bizi izan zen. Gainera, bertako nagusi izan zen 1826tik 1829 bitartean lehenengo eta 1839tik aurrera gero.

Aita Zabala 1840ko otsailaren 6an hil zen eta handik denbora guti barru Gipuzkoako buruzagi arrotzaren aginduz Zarauzko fraideak sakabanatu behar izan ziren, eta A. Zabalaren lanik gehienak argitaratu gabe zeudenez, hauek barreiatuak izan ziren. Baina gehientsuenak han-hemenka bildu ahal izan ziren, eta denborarekin argitaratu ere bai.

Bizkaiko aditzari buruz egin zuen saiaera ederra dugu «El verba regular vascongado», 1848an Donostiako Baroja inprimategian argitaratu zen Gipuzkoako probintziaren ardurapean, Iztueta eta Iturriagari iritzia eskatu ondorean. Eta bizkaiera ez ezik ordurarte beste euskalkietan eginak ziren gramatikalarien lanak ere ezagutzen zituen. Gure aditzaren nortasunez, gramatikalari

guziak bezala, harriturik aurkitu zen; narotasunez beteriko aditz-jokoen aberastasunak liluraturik utzi zuen. Liburu hau, nonbait, hil aurretik inprimategirako gerturik zuen, baina ezbeharrez hor gelditu zen zortzi urteko atzerapenez. Hala ere, gainerako lanak atzerapen handiagoa izan zuten, gure zoritxarrerako.

Bere bigarren liburua L. L. Bonoparte printzeak argitaratu zuen 1856an. Bibliografiaz ari zen eta «Noticia de las obras bascongadas que han salido a luz después de las que cuenta el P. Larramendi» zeraman izenez. Egile izenik gabe argitaratu zen, baina Aita Ruiz de Larrinagaren ikerketeri esker, gaur egun badakigu A. Zabalaren lana zela. Allende-Salazar bibliografoak zinuenez, Aita Zabalaren lan hau, euskal-literatur bildumetan onena eta osoena zen, geroztikoei ezer kendu gabe, eta J. Vinson anitz baliatu zen lan honekin.

Bere hirugarren liburua, «Fábulas en dialecto vizcaíno», bizkaierazko alegiak, Azkue zenak idoro zituen Paris-ko Bibliotheque Nationale-an eta J. Urkixori eman zizkion honek RIEV-en argitaratzeko (RIEV, 1907). Baina bilduma hortako guziak ez ziren bereak, Zabala ber berak ere hala zionez. Bertako 23 alegi zituen bereak, 11 J. A. Mogelenak, 1 Bizenta Mogelena eta beste bat Salaberrirena.

Bere alegietatik baditeke guziak berak sortuak ez izatea, baizik herbesteetakoetatik euskaratuak eta tarteka direla dirudi, baina bai bazekien hemengo kutsua emateaz eta euskaldun alegilarien artean toki berezia merezi du.

Argitaratu gabe ezagutzen diren esku-izkribuen arteko konjugazioeri buruzko estudio bat eta sermoi-liburu baten zati bat.

Garai hartako euskalari eta euskaltzale askokin izan zituen har-eman estuak. Hauen arteko ziren Lécluse eta J. P. Ulibarri.

Bere lan sakabanatu hoiek, era hortara gelditzen direnean gertatzen den bezala, betiko galtzeko zorian zeuden. Baina Zabalaren pertsonalitatea handia izaki, eta berak ongi esana zuen bezala, «Egin-alak ta ezin-egiñak emon ezkero» derrigorrezkoa zen langintza hura loratu beharra eta ilunpetik historiara irtena euskal-kulturaren onerako. Eta ezagutarazte hau, batez ere I. Ruiz de Larrinaga, J. Eguzkitza, K. Etxegarai eta besteri zor diogu. Azken urteotan, beren euskarazko bilduma eta lan orokorre-

tan xehetasunik aski emana dute Y. Etxaide, S. Onaindia eta M. Zaratek. Eta erdaraz idatzitako historietan L. Mitxelena, L. Villasante eta B. Estornés Lasa jaunek. Zerbait gehiago jakin nahi duenak beren lanetara jo beharko du.

• • •

El pasado sábado tuvo lugar en la Biblioteca Municipal de Bilbao el homenaje a Fr. Juan Mateo de Zabala, con motivo del segundo centenario de su nacimiento. Este franciscano euskaró-logo había nacido en Bilbao el 21 de septiembre de 1777. Hizo sus primeros estudios en el convento de San Francisco de la capital vizcaína e ingresó en el noviciado de la misma Orden. Sus estudios de Arte y Teología los hizo en Castilla. La «Apología» de Astarloa despertó en él su interés por el vascuence y a lo largo de su vida, sin dejar de cumplir con el apostolado, se dedicó plenamente al estudio de la lengua euskara con aportaciones sobre el verbo del dialecto vizcaíno, sobre compilaciones bibliográficas, componiendo fábulas y escribiendo sermones.

En 1804, en su villa natal de Bilbao, fue nombrado Lector de Filosofía. Durante la guerra de la Independencia sufrió la exclaustración de Napoleón Bonaparte y vivió parte de esta exclaustración en el Colegio de Misioneros de Herbón (Galicia). Pero desde 1815 hasta su fallecimiento en 1840 residió en el convento de Zarauz, siendo dos veces guardián o superior.

Ninguna de sus obras fue publicada en vida. A su fallecimiento tenía preparado para imprenta «El Verbo Regular Vascongado del dialecto vizcaíno» que fue publicado en 1848. La obra bibliográfica «Noticia de la obras bascongadas...» dio a la luz el príncipe L. L. Bonaparte. Las fábulas fueron halladas por Azkue en la Bibliotheque Nationale de París y entregó a J. de Urquijo para publicar en RIEV. Finalmente, en la revista «Euskera» de la Academia de la Lengua Vasca vio la luz el trabajo titulado: «103 Conjugaciones del presente perfecto de indicativo o Muestra de los 206 presentes indicativo que da al bascuence don Pedro de Astarloa».

El R. P. Villasante, en su «Historia de la Literatura Vasca»,

dice del P. Zabala que «se nos revela enseguida como un intelectual frío y sesudo, que todo lo analiza con exactitud matemática, que busca la expresión clara y sopesada, evita toda gala y todo brillo de estilo, se ciñe al método positivo de observación y rehúye toda polémica».

1977 - IX - 26

AGUSTIN PASCUAL ITURRIAGA (1778-1851)

Bihar bertan beteko dira berrehun urte Agustin Pascual Iturriaga Ernanin jaio zenetik. Apaiz eta irakasle, bere sorterrian ikastetxe bat eraiki zuen eta bizitzaren parterik gehiena han eman zuen maisu.

Ez zen edonolako maisua, heziketak ongi ezagutzen zituen, eta laster konturatu zen euskaldun haurrentzat zein nekegarri zen gaztelera hutsean ikasi beharra. Eta orduan eman zion irakaskintzarako metodo berria egiteari, euskaraz eta erdarazko jolasak idasten haurrei gauzak irakasteko, eta, baita ere, hoien osagarri, garai hartan berriz modara etorria zen literatura motaz liburu bat ere, alegiak.

Bere bizitza ta laneri buruz J. Manterola, K. Etxegaray, G. Mujika, A. Zugasti, Y. Etxaide eta Fr. J. I. Lasa jaunek eman dizkigute berririk gehienak. Aurrerakoia zen bere ideetan, pedagogiaren aldetik behinikpehin, eta holako batek, oraindik orain ere eragozpenak izaten baditu, zer ez zuen izango Iturriagak. Fausto Arozenak aurkitu zuen agiri batean, gero *Brumas de nuestra historia* liburuan argitaratuko zuenez, enziklopedistatzat ez ezik Voltaire zaletzat ere jo zuten. Baina hala ere, ez eliz agintarien aurrean eta ez probintziakoen aurrean, bere ospe onik ez zuen galdu. Politikaz independiente bazen ere, liberalak lagun zituen eta lehen kartisten gerratearen azken partean Frantsia aldera jo beharra izan zuen. Han, Arkangoitzeko markes jaunak Milafrangan zuen Larralde gazteluan tokia eman zion eta bertan igaro zituen herbesteko urte haiek, 1839tik 1840ra bitartean. Eta bertan

berritu zituen ipuien atal batzuk eta etxe hartan idatzi zituen *Jolasak*.

Eragozpenok gora behera, bere herria eta herri erakundeak maite zituen eta hauen alderako ideiak garbi agertu zituen «Gipuzkoarrak» deitu bertsoetan.

Iztuetarekin oso adiskide zen. J. Garmendiaren *Obras inéditas de Iztuena* deritzan liburuak jasoak ditu elkarren artean izan zituzten gutunak. Han ageri denez, ipui batzuk Iztuetak euskaratu zizkion eta beste batzueri orrastapena eman. Gainera, badirudi, Izuetak 1826an *Soñu gogoangarrien* liburuan argitaratu zuen San Inazioren martxari, doinu hutsik agertu zuenez, Iturriagak berak egin ziola euskarazko letra, lehen erdaraz soilik kantatzen zelako.

Euskaldun haurrei eskoletan lehenbizikoz euskara behar bezala irakastea, gero gaztelera hobeto erakutsi ahal izateko, Luis Astigarragak erabili zuen ideia izan zen, *Diccionario manual* (1825) hartan. Baina asmoa hobeto eta indartsuago Pascual Iturriagak erabili zuen. Iturriaga, ohartua zen euskaldun haurrentzat zein nekegarria zen gazteleraz jakin gabe hizkuntza honetan ikasi beharra, eta hori beste gabe aski sufrikario izanik, horrez gainera eraztunezko zigor haiek zein gogorrak eta basatiak ziren. Eta, hortik ekin zion pedagogia berritzeari, euskaldun haurretzat bereziki *Arte de aprender a hablar la lengua castellana* (1841) metodoa argitaratuaz, eta ondotik *Jolasak* (1842), euskaraz eta erdarazko elkarrizketak, era berean gauzak ikasi ahal izateko. Azkenik, horien osagarri, eta bigarrenaren urte berean argitaratua, *Ipuiak*, garaian modan zeuden alegiz hornitua, irakurgai politik falta ez zedin.

Jolasak eta *Ipuiak* liburuen azken argitalpenak Auspoa Liburutegiak eman zituen 1963 eta 1967an.

Hoiek ziren ernaniar jatorraren asmoak, bere bertso batean ezarri zuen bezala:

Nere Euskal-Erriko
gazteri ederra,
ez det uste derala
egin lan alferrea,

ipuiak ifintzean
gure zortzikoan,
kantatzeko, nai bada,
arturik gogoan.
Badirade latiñez,
badira erderaz;
ez al ditugu bear
guk ere euskeraz?

Ipuien eskaintzazko bertso honek gidatzen zuen bere gogoa. Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu. Iturriagaren aburu horiek ezagutu ondorean, pentsa genezake horien araberaz markatuko zuela irakaskintzarako helburua ere.

1830. urteko ekainean Arrasaten izan ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak eta han erabaki zen Diputazioan industria, merkatalgoa eta euskara indartzeko batzorde berezi bat sortzea. Hortarako, gertatu zuen «Memoria» zehatz bat, oso interes handikoa, Fr. J. I. Lasak R.S.V. Amigos del Pais-ko Boletinean argitaratu (XXI, 1965 185 orr.), eta ezagutzea merezi duena.

Aurkeztu zuen plangintza hartan, Iturriagak ederki zion: zer axola zaigu gure hizkuntza laudorioz betea, handitasunetan harrotua, euskaldunak euskaraz irakurtzen eta idazten ikasi behar ez badu? Euskara eskoletan irakatsi behar zela, eta euskaldunak euskararen bidez edo hau ondo ikasi ondorean ikasi behar zuela gaztelera ere. Gai hontaz ematen ditu aski xehetasun, gaur ere oraindik ikasi beharrezkoak. Bakarrik, gertatzen dena, gauzak alderantziz jarri direla, eta orain, era berean euskara irakatsi beharra dagoela. Euskara denez gure nortasunaren oinarri. Ez baita herririk hizkuntzarik gabe.

Jokaera aldetik berriz, baita ere badugu Iturriagagandik egunotan zer ikasi. Berak zionez, «Berotasun eta errabiak ez dute beiñere gauza iraunkorrik egiten». Baita ere, hala esango zuen, «Esperantzak gizona bizi du, ken bekio esperantza eta da kriaturik kupigarriena».

* * *

Mañana se cumple el segundo centenario del nacimiento de

Agustín Pascual Iturriaga, que nació y murió en Hernani. Iturriaga se dedicó a la instrucción y formación de la juventud de su villa natal. Para aquellos tiempos era un adelantado en los métodos pedagógicos, y como toda persona de ideas avanzadas, Iturriaga tuvo sus detractores que le tacharon de enciclopedista y volteriano.

Fundó y dirigió un importante centro de enseñanza en Hernani, con alumnos de toda la provincia e incluso de Navarra. Escribió el método Arte de aprender a hablar la lengua castellana para uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa; *Jolasak* Diálagos vasco-castellanos para las escuelas; e, *Ipuiak,* Fábulas y otras composiciones en verso vascongado. Era íntimo amigo de Iztueta, y éste colaboró en la traducción y correcciones de algunas fábulas.

A las Juntas Generales de Guipúzcoa, celebradas en Mondragón en junio de 1830, Iturriaga presentó una «Memoria» para la implantación de la enseñanza del vascuence en las escuelas públicas. Pero el plan se vio malogrado a raiz de la primera de las guerras carlistas.

1978 - I - 30

Oharra: Gai hontaz, ikus, «Agustín Pascual Iturriaga, euskararen eraikitzailea». *Euskera, XXIII* (1978), 135-144 orr.

PIERRE BROUSSAIN ZENAREN OMENEZ

Mugazemendiko Euskal-Herrian kultur asteak itzaliz doazen neurri berean ari dira mugazandian piztuaz. Hala dirudi. Hemengo ekintzak politikara jo dute eta hangoak hortarako aski ahalmen ez dutelarik hor ari dira herria iratzartu nahirik eginahalezko ekintza horietan. Baina bai han eta bai hemen, arlo handia landu beharra dugu gogozko uztaroa izango badugu.

Ikastolaren alde eta euskal giroa indartzeko, iragan ostiralez

hasi zen Hazparnen bigarren kultur-astea. Hitzaldi, kantaldi, dantzaldi, antzerki eta abar, bertsolari saioak arte, bada han zer ikus, zer entzun eta zer ikas. Eta azken egunez Pierre Broussain zenari eskaintzen zaion omenaldiz burutuko da kultur-astea. Egun hontan, apirilaren 16an, goizeko bederatzi t'erdietan hermezarekin hasiko da Broussain euskaltzain zenaren omenezko jaialdia. Meza hontan P. Larzabal jaunarengan izanen da predikua, baina apezak ez du izanen azken hitza, zeren ondotik izanen ditu hauzapenak. Meza ondoren, Herriko Etxean Hazparneko hauzapezak ongi-etorrizko hitzak eta Euskaltzainburuak agurrezkoak; Larramendi, hauzapez-ordeak «Broussain herri gizon» bezala agertuko du bere hitzaldian, eta J. Haritschelhar euskaltzainburu-orde eta Baigorriko hauzapezak «Broussain, euskaldun eta euskaltzale».

Horiek izanen dire eguneko hitzaldiak, baina bada besterik ere. Egun hortan, Euskaltzaindiak, Martin Ugalde eta Iñaki Larrañaga jaunen ardurapean, «Euskararen liburu zuria» eta «Euskararen Sozio-linguistiko estudioa»ren aurkezpena eginen du mugazanditik lehen aldiz.

Bukatzeko, anaiarteko bazkaria izanen da. Giroa alaitzeko, bertsolaririk ez omen da faltatuko.

Askoren galdea izanen da, Broussain nor ote zen? Behar bada zurea ere bai, irakurle. Gure herriak beti izan ditu euskaltzale kartsuak eta hauetako bat zen Pierre Broussain zena ere. Hazparnen bertan sortu zen 1869ko uztailaren hiruan. Larresoron osatu zituen lehen ikastaroak, gero Akizen (Dax) jarraitzeko eta azkenik «Tivoli» zeritzan Bordeleko Aita Jesuiten ikastetxean. Gero, Parisera joan zen eta han sendakintza ikasi zuen. Ikasketak bukatzeaz sorterrira itzuli zen eta bertako mediku ez ezik hauzapez hautatua izan zen. Hamalau urtez bete zuen herriko agintaritza eta 1919an, Euskaltzaindia sortzeaz, euskaltzain izendatu zutenez, ekintza berri honi hobeto erantzuteko utzi zuen Hazparneko alkatetza; baina, hala ere, herritarrei laguntzeko, «kontseilari-geien» gelditu nahi izan zuen. Baina ez zuen asko iraun ekintza berri hoietan. 1920. urteko apirilaren azken egunean hil zen, Orthez hirian. Heriotza biharamunean, Baionako «Eskualdun»ean adiskide batek zionez: «Maite zuen Euskal-herria bere mendi zelai eta itsasoarekin, bainan bereziki maite zuen bere mintzaira xoraga-

rriagatik».

Hizlari bikaina omen zen. Ezagutu zutenek nekez ahantziko omen zituzten bere mintzaldiak. Euskaraz guti idatzi zuen, euskararen alde hainbeste lan eder egin bazuen ere. Hala ere, bere garaiko aldizkarietan zerbait utzi zuen. Azkue zenari egin zizkion gutunetan ohartzen gara bizkaiera ere ongi ikasia zuela eta gutun horietako batzuk euskalki honetan egin zituela. 1901erako Euskal Akademia bat sortzeaz kezkaturik agertu zitzaigun eta gutun hauetako batzuk Azkue zenaren gorazarrez 1957an argitaratu zen «Euskera» aldizkari bereziaren partean datoz. Beraz, Euskaltzaindiaren sorrera lanetan parte hartu zuenetako bat zen. Sortze ondoren, Euskaltzaindiko batzarrak, berari eta A. Campión-i eskatu zien euskararen batasunari buruzko txostena gertatzea. Hil zenean langintza honetan ari zen, eta elkar lanean burutu zutena, batzarrean irakurri zen eta 1922. urteko «Euskera» aldizkarian argitaraturik dago.

Campion eta Broussain jaunek aurkeztu zuten «Informe a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera» (*Euskera*, III, 1922, 4-17 orr.) zeritzan txosten harek haserre gogorrak sortu zituen eta ondoko urteetan apenaz izan zuen inork gai hori aurrera eramateko gogo askorik.

Euskalki bat oinarritzat hartu eta besteekin osaturik bat egitearen alde agertu ziren. Gipuzkera eta lapurtera jartzen zituzten eredu, literaturarik indartsuena bi hauen inguruan zenez. Baina, hor gelditu ziren, asmoak asmo.

Hala ere, euskara batuaren gai hontan, mintzairaz zerbait zekitenek eta dakitenek, handik edo hemendik, beti bide berdintsuetara jo izan dute. Horrelako iritziak agertu zituen Luis Eleizalde bergararrak 1918an Oinatiko batzarretan, eta aburu hoietatik hurbil zebilen Azkue «Gipuzkera osotua» eskaini zuenean. Gure egunotan ere, teoriaz behinik pehin, oinarri beretik joan dela esango nuke. Are gehiago, lehengoen irakaskintzez baliaturik, euskara bera sakonago ezaguturik, eta linguistikaren teknikak hobeto benderaturik. Baina, ez hori bakarrik, baizik, baita ere, inoiz baino idazle gehiago den garaian. Eta, azken batean, idazleek eman dezaketen erantzuna baita nagusi hizkuntza idatziaren baitan.

Aurtengo irailean, Arantzazuko batzarretatik hamar urte burutzen direlarik, orduan eman ziren arauak, alde edo kontra, izan duten harrera aztertuko da, eta aurrerantzean zer jokabide hartu; birrikustearen ondorean gomendiozko arau berriak emateko. Zuhur, baina borondate onez eta buru hotzez jokatu beharra izanen da. Azken batean, euskaltzale guzion ahaleginak euskararen bizitzaren alde izanen baitira.

* * *

Cuando las semanas culturales van menguando a esta parte del país vasco, allende la frontera están recobrando nueva vida. Hasparren vive estos días las interesantes jornadas de la semana cultural vasca, con participación de renombrados conferenciantes, cantantes, danzaris, cuadros artísticos, para culminar el próximo domingo con un homenaje póstumo a Pierre Broussain (1869-1920), que durante muchos años fue médico y alcalde de Hasparren.

El día 16 de abril, entre otros actos, intervendrán el teniente de alcalde de aquel pueblo labortano, señor Larramendi, que disertará sobre el Broussain hombre público, y el señor Haritschelar, sobre la personalidad de Broussain como vascófilo.

Pierre Broussain trabajó desde 1901 en la creación de la Academia de la Lengua Vasca, y ésta recién creada le nombró miembro de número de la misma. Y a petición de la corporación elaboró, con la colaboración de Arturo Campión, un informe para la unificación del euskara, que su inesperado fallecimiento y el desfavorable ambiente de la época impidieron llevar adelante el proyecto. Ardua tarea la de nuestros días, porque no tuvo continuidad en aquel entonces. Siendo ésta una de las funciones para la que fue creada la Academia, estos últimos años se ha trabajado intensamente sobre el tema, y el presente año, al cumplir los diez años desde el congreso de Aránzazu, se someterá a revisión toda la normativa recomendada para trazar el camino a seguir en el futuro. El nuevo congreso tendrá lugar en Vergara, el próximo mes de septiembre, en la villa natal de Luis de Eleizalde (1873-1923), académico que contribuyó en pro de la unificación

en aquel memorable congreso de Oñate en 1918. Las teorías básicas de Broussain, Campión y Eleizalde fueron similares y en ellas se fundó Azkue al proponer su «Gipuzkera osotua», y a las que siguen básicamente las normativas emitidas por Euskaltzaindia desde 1968.

1978 - IV - 10

PIARRES LHANDEREN MENDEURRENEAN

Hil honen 10ean ospatu zen Zalgizen (Zuberoa) Piarres Lhande zenaren mendeurrena. Zuberoako toki polit hartan bildu ziren euskaltzain guti batzuk eta mugazandiko euskaltzale andana eder bat.

Piarres Lhande josulaguna, izatez ez zen Zuberoan jaioa, bere deitura ere ez zen Lhande, baina orrela erabili beharrean gaude bere nortasunaren adigarri.

Pierre Basagaitz zen bere izen deituraz, baina aitonaren izenordea zuen Allende eta hemendik zetorkion izen eta guraso izenordeak elkartzeaz, Pierre Lhande. Sortzez berriz, Baionan sortua zen 1877ko uztailaren 9an. Zortzi urte doi doi zituelarik hil zitzaion bere aita, eta orduan aldatu zen ama, bere haurrekin, Zalgizeko Apphatia deitu guraso zaharren etxera. Hemen jarraitu zituen bere lehen eskolak eta laster joan zen Mauleko San Frantzes kolejiora bigarren mailako ikasketak osatzera. 1893an Baionako Mintegi Nagusian sartu zen Filosofia estudiatzeko, eta handik bi urtera hasi zen poesiagintzan. Lehen hastapen hoiek frantsesez ziren, eta garai hontan Schola Cantorum-en sortzaile zen Charles Bordes jaunarekin har-eman probetxugarriak izan zituen. Garai berean hasi zen kazetaritzan ere «Patriote des Pyrénées» zeritzan aldizkarian Petit Pierre eta Nadi-Preherel izenordez.

1898an Baionako Infanterian sartu zen soldaduzka egitera, baina osasun makalekoa zenez, libre utzi zuten. Bertatik Seminariora itzuli zen, baina poesiara gehiegi emana zelako eta oso guti Teologiara, Baionako Mintegi Nagusi hartatik bota egin zuten.

1900. urtean Rodez-ko jesuitetara sartu zen eta josulagunekin Beljikaratu zen. 1903an Holandara igaro zen, zenbait aldizkaritan kolaboratzen jarraitzen zuen eta orduan lehen aldikoz igorri zuen lan bat Euskalduna asterokora. Bi urte geroago Cádiz ondoko Santa Maria Portuko kolejioan frantsez irakasle jarri zen. Eta bi urtera Beljikako Enghien mintegi nagusira bidalia izan zen.

1908an *Autour d'un foyer basque* agertu zuenetik gogotik ekin zion euskal gaieri. Garai berean joan zen RIEV-en «L'Emigration basque» delako lana argitaratzen, 1910ean liburu bezala azalduko zuena. Lan hau, 1971an Auñamendi argitaldariak gaztelerara itzulia emana du.

Hogeta hamahiru urtekin egin zen apez eta handik laster heldu zen, 1910-ean Hondarribira lehenik eta Ernanira gero, irakasle bezala. Baina ez zen toki batean luzaro egoteko gizona eta 1913-an predikari ibili zen Bruselasen eta Parisen. Urte berean, Ohiartzungo euskal jaietan «Gure orma zaharra» izeneko predikua egin zuen.

1918an, Euskaltzaindia sortzean, Azkue, Campión, Eleizalde eta Urkixo izendatu ziren lehen aldian, Akademia eratu zezaten, lankide gehiago hautatuaz. Hamabi euskaltzainek osatzea pentsatu zuten eta honetarako 1919.ean hautatu zirenen arteko dugu Piarres Lhande, eta beroni eman zitzaion *Euskera* aldizkaria argitaratzearen zuzendaritza ardura. Une haretan Frantziako Tolosan eta Gipuzkoako Ernanin zituen bizilekuak.

Bere burua abertzale agertzen zuen eta 1921ean *Notre Soeur latine, l'Espagne* deritzan liburua argitaratzean, Madrideko gobernadoreak Espainiatik bidali zuen.

Pio Barojaren zenbait obrari kritika zorrotzak egin zizkion. Parisko auzo galduetan misionari ibili zen, irratiz han bertan kristautasunaren alde kanpainak ere eginaz. 1930ean Hego-Ameriketatik, Madagaskar-dik eta India-tik predikari bezala ibilaldia egin zuen. 1934an buruko odol-ixurtzea izan zuen eta honek aski ahuldurik utzi zuen. Pabera erretiratu zen eta handik aurrera lanik urri eman zuen.

Bere azken urteak Zuberoako Atharratzen eman zituen, eta hainbeste maite zuen Zuberoa honetan aurkitu zuen heriotzak, 1957ko apirilaren 17an.

Gilen Epherre sartu zen haren ordez Euskaltzaindian, eta bere sarrera hitzaldia Lhanderen bizitzaz eta lanetaz egin zuen. Ongi zion bezala, «Aita Lhande eta Zuberoua bat beitirade, orain eta aspaldiko ourthetan, orai eta agian! sekulakotz». (Ikus, Euskera aldizkaria, 1960. urtekoa bere 5/19 orrialdeetan.)

Era askotako lanak idatzi zituen. Euskalerriari buruzko zenbait liburu ere bai, españolez eta frantsezez. Eta euskaraz idatzi zituen beste honoko hauek: *Kurutchet Apeza,* 1917an; *Agirre, irakurgaikiña* 1920an «Itzaldiak» liburuxkan; *Yolanda* eleberria 1921ean; *Dictionaire Basque-français* delako hiztegi mardula 1926an. Hoiei gaineratu behar dizkiogu beste anitz artikulu eta hitzaldi, euskaraz emanak.

Piarres Lhande zenak, bere azken lana ere, Zuberoaganako maitasunak bultzaturik, bertako seme berezi baten bizitzari eskaini zion. Hala da Jean Larrasketekin elkar lanean egin zuen *Le poète Pierre Topet dit Etchahun (1786-1862) et ses oeuvres* deritzana, Eskualtzaleen-Biltzarrak 1946an Baionan argitaratua.

* * *

El pasado día 10 se conmemoró en el encantador pueblecito suletino de Sauguis (Zalgize) el centenario del escritor Pierre Lhande. Dicha conmemoración corrió a cargo del mencionado municipio del país vasco de Francia, la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia y Eskualtzaleen Biltzarra.

Aunque el Padre Lhande era nacido en Bayona, desde la edad de ocho años hasta iniciar los estudios superiores vivió en la mansión materna Apphatia de Zalgíze, e hizo los estudios de segunda enseñanza en Mauleón. A los 16 años ingresó en el Seminario Mayor de Bayona. Entre 1895 y 1896 publicó sus primeras poesías en francés.

Durante su servicio militar, en 1898, se le encomendó dar clases a los reclutas vascos que ignoraban el francés. Se le considera inapto físicamente y del cuartel vuelve al seminario, de donde sería expulsado por su excesivo celo a la poesía y poca aplicación a la Teología. Pero en 1900 consigue ingresar en el noviciado de los Jesuitas de Rodez y se expatría con la Compañía

a Bélgica. Ausente de su tierra es donde va concienciándose por la lengua materna y desde Holanda, en 1903, envía su primera colaboración al semanario «Euskalduna», y en 1908 aparece su primer libro, «Autour d'un foyer basque». Se ordena sacerdote a los 33 años, en 1910, y este mismo año termina la publicación de su obra «L'emigration basque», que fue viendo la luz en RIEV y que recientemente ha publicado la Editorial Auñamendi, vertido al castellano. Su primero obra en vascuence, *Kurutchet Apeza*, se publicó en 1917.

Al estructurar las bases de la recién fundada Academia de la Lengua Vasca, en 1919, fue nombrado miembro numerario y director de la revista «Euskera», cuya publicación comenzaría desde 1920.

Escribió varias novelas románticas, de entre las mismas *Yolanda* en euskera guipuzcoano. E hizo unas críticas muy severas a algunas novelas de Pío Baroja, en RIEV. En 1921, el Gobernador de Madrid le expulsa de España tildándole de nacionalista vasco a raíz de la aparición de su libro «Notre Soeur latine, l'Espagne».

La aportación más interesante a la cultura vasca constituye su «Dictionaire Basque-français», publicado en 1926.

De temperamento inquieto y viajero infatigable, en 1934 se retiró a Pau a consecuencia de un derrame cerebral.

Su última aportación fue el estudio de la vida y obra del gran poeta suletino Pierre Topet «Etxahun», llevada a cabo en colaboración con Abbé Jean Larrasquet, en 1946.

Los últimos días de su vida transcurrieron en su retiro del hospital de Saint-Antoine de Tardets (Atharrátze) de su tan querrida Zuberoa, donde falleció en 1957, a los 80 años de edad.

1977 - VII - 18

K. ENBEITA «URRETXINDORRA»

Gure «Urretxindorra»ren sortze ehunurteburua dugu datorren ostiralez eta gure oroitzapena eskaini nahi dugu bere sorterria-

ren alde hainbeste egin zuenegatik.

Bere herriarekin burua bat eginik, sustrai jatorretik hartzen zituen bertsoz loratuko zituen gaiak; egunean egunekoa kantatuz, herri baten sentipenak olerkiz bihurtuz. Oraintsu «Deia» egunkarian A. Zubikaray adiskideak ongi esan zigunez: «Bertsolari samurrak ezagutu dodaz. Bertsolari jakintsu ta argiak. Baiña Enbeita lez azia artu eta erein; asmo bat iruntsi ta zabaldu; egi bat ziurtatu ta aldeztu eta norberari zer pentsa emon dautsana bestien pentsagarri ipinten alegindu eta jakin dabenak, zenbat?».

Gauzona, beti urri. Ez zuen alperrik «Urretxindorra» izenordezko.

Gaurtik hasi eta datorren igandera arte, Bizkaiko Muxikan, zenbait hitzaldi eta jaialdi antolatuko dira Kepa Enbeita «Urretxindorra»ren omenez. (1).

«Urretxindorra», besteak beste, garai bateko abertzale mugimenduaren seme eta lekuko ez ezik eragile azkarra izan zen. Eta eragilerik gehienak bezala, baita ere uste eta ekintzen berritzaile. Hontan, bertsolaritza sagardotegietatik atera eta herriko plaza eta saloietara eramatea zor diogu. Herriaren balioak bere errotik jaso zituen, maila sotilago batera eramateko. Bere obra bildua, A. Santi Onaindiari zor diogu, *Gure Urretxindorra* izenez 1971an Buenos Aires-ko Ekin argitaldariak emana. Obra ederra benetan garai hartako giro eta K. Enbeitaren obra azagutzeko. Alderdi bati erantsirik aberriaren alde oso osorik eskaini zen gizona, gaur egun ezinezkoa genuen alderdi soil baten gorazarrez ospatzea, herri osoak baizik. Bere gogoa zenez:

Egizko maitasunak
sortzen dau batasuna,
batasunak indarra,
indarrak osasuna.

Muxikako Areatza auzoko Usparitxa-Jauregi baserrian jaio zen, eta gaztetxo ezagutu zuen euskaldun izatearen zigorra. Erdaraz jakin gabe hontaz eskolatu beharra, hala zen Euskalerrietako ezbeharra. Eskolak haurrarentzat izan beharrean, haurra eskolarentzat. Euskaraz mintzatzeagatik maisu erdaldunak eraztun

salatzailez zigortu zuen batean, eraztun hori elizako teilatura bota eta gehiago ez omen zen eskolara joan.

Behar bada orduan iratzartu zitzaion euskaraganako mina, eta geroztik herria izan zuen eskola. Lehen lehenik nekazaritzan eta otzaragintzan aritu zen. Berezko argitasunaren garra zeraman bere barnean eta inguruko gertakarien oharle eta berekiko gogoetaz herri jakintzaz hornitu zen, basoko haize libre eta gardenak bilduaz eta aberri askatasunaren deira, herriz herri eta kalez kale, bere apostolutza eskainiko zuen. Bere hotsa Euskal-Herritik harat abiatuko zen eta Leopoldo Lugones poeta arjentinarrak ere agurrezko bertsoak eskainiko zizkion.

Ideiak txukun adiarazten zekien gizona. Plaza gizona, zoian lekuan zoiala, herria atzetik eroango zuena. Bere itzala hain izan zen handia, Eibarko «Casa del Pueblo»ko sozialistek ere bertan hitzaldi bat ematera gomitatu zuten. 1922an Eibarren egin zitzaion omenaldian, aberkoia izanik ere, ez bai zion inork ukorik egin, eta zer izan zitekean, omenaldiaren ondorenez, abertzale ez ziren sozialistak kezkatu, haintzat hartu, entzule bihurtu eta gutienik ere euskaldun garra iratzartu. Hori du «Urretxindorrak» bere arrakastaren adiarazgarri.

Euskaltzaletasunean, ideiak argi eta garbi zituen:

Itzak bakarrik indarge dira
Egipenak ziñaldari,
Nor zelako dan bere egipenak
Erakusten dabe argi.
Euskaldun batek Euskalerrian
Bera erderaz ba-dabil,
Alperrik esan «soy vascongado»,
Erdeldun utsa da ori.

Ikasi daigun erdera, prantzez,
Naiz ingelesan elia;
Ikaste ori ontzat daukagu,
Baña lenengo geuria.
Izkuntza danak gurgarri dira,
Autortu nai dot egia;

Kepa Enbeita «Urretxindorra», Karlos Elgezuaren obra

Geuretzat, baña, gurgarriena
Euskera maitagarria.

Bestalde, euskaldunon batasuna aho mihian zeraman, behin eta berriz anaitasunerako deiaz. Holako bertsorik anitz da bere bilduma hortan:

Anaiak gara laburditarrak,
Zuberotar ta nabarrak;
Anaiak, baita, gipuzkoarrak,
Arabar ta bizkaitarrak.

Guztion ama Euskadi da-ta,
Gu bere seme bakarrak:
Mugak kenduta, jarri daigu ba
Aberri oso bakar bat.

Hemendik ikus garai haietako kezkak gaurko ber-berak zirela. Herri bat bere nortasunaren alderako abiadan ezagutzeko interesgarriak ditugu «Urretxindorra»ren bertsoak. Umorez eta zentzu onez eman zituen, bizi nahiak eraginezko borrokan. Orduan ere fariseo itzalik ez zen falta eta Nafarroa gugandik bereizteagatik ere bertso ederrik osatu zuen:

Nabarra maite-maite, geure anai zarra!
Zer dala-ta gugandik aldenduten zara?...

Eta 1933an hautezkundez Juan Olazabal-i eskainitako bertso zirikalariak erakusten digute Kepa Enbeitaren umore kementsua, estatutoaren alde baiezkoa tinko agertuz.

Bere bizitzako lagunik handienak, bere anaia Imanol —bertsolaria hau ere—, Jon Arrospide sendagilea eta Kirikiño idazlea izan zituen; bai, lagunik handienak bere gogozko ekintzetan, zeren adiskideak, adiskideak guziak zituen «Urretxindorrak».

1942an hil zen, bere zortzi semeak inguratu ezinik. Batzuk herbesteraturik eta besteak presondegian, larria izan zen gizon zintzo haren heriotza. Izan ere, larriak ziren urte haiek bera bezalako jeltzale burrukatu batentzat. Hala ere, urteak iraganez, bere haziak frutu onik eman du. Bere seme Balendin izan zuen bersolaritzan jarraitzaile, eta hau, gaur Muxikako eskola deritzanaren sortzaile, biloba Abel eta Jon, Balendin beraren semeak, eta Jon Lopategi eta Deunoro Sagarduy jarraitzailerik bizkorrenen arteko.

«Urretxindorra»k, bere idazlanik gehienak «Euzkadi» aldizkarian agertu zituen, bertsoak ez ezik baita zenbait ipui eta alegi ere. Lanok bere balioa dute gure literaturarako, eta entzutea dugunez, oraingo omenaldi honekin batean lan guzien bilduma berri bat egitekotan omen dira. Hala bedi, ospe handiko gizonaren ohorez.

* * *

A lo largo de la presente semana tendrán lugar en el pueblecito vizcaíno de Múgica, diversas conferencias con mesas redondas

donde intervendrán personalidades de las letras éuskaras para ensalzar la figura del poeta Kepa Enbeita «Urretxindorra», con motivo del centenario de su nacimiento. Y, como colofón, para el día 9 se han programado interesantes actos folklóricos (1).

En las intervenciones se estudiará al bardo Enbeita como transmisor de la naturaleza humana vasca, las influencias históricas entre 1878 y 1942, como testimosio de la época, el bersolarismo antes y después de K. Enbeita, su aportación a las melodías populares, etc.

Su obra repercutió sobre todo en la esfera política. Fue portavoz del abertzalismo y propagador del vascuence, desde aquella primera actuación con motivo de las fiestas éuskaras de Durango, a la edad de 19 años. Fue él quien sacó al bersolarismo, hasta entonces marginado a las sidrerías, a la plaza pública y a los salones, elevando las esencias populares para revalorizar frente al mal entendido cultismo. Un hombre abierto, honrado y respetado por todos.

Poeta popular que normalmente escribía los versos después de improvisados, y los daba a la publicidad, normalmente a través de la revista «Euzkadi». Su obra fecunda está recogida en una antología titulada *Gure Urretxindorra* por S. Onaindía y editada por Ekin en Buenos Aires, en 1971, y según noticias, con motivo del centenario se pretende publicar una obra completa que puede constituir una valiosa aportación a nuestra literatura.

(1) Azken orduan urrirako atzeratu ziren hitzaldi eta jaialdiak. El homenaje con conferencias y festival, fue aplazado a octubre.

1978 - IX - 4

EUGENIUSZ FRANKOWSKI ETA EUSKAL ETNOGRAFIA

Gure mende honen hasieratik datorkigu etnografia lanen bizkortze eta hobetzea eta inoiz uste izan nuen hain zientifikoki hasi zen Telesforo Arantzadik bere lehen harremanak, zientzia hone-

Bizkai-Gipuzkoetako lurrontzizko baxerak. Vasijas de barro de Vizcaya y Guipúzcoa

tan, Eugeniusz Frankowski zenagandik edo ez ote zituen; baina egun batez J. M. Barandiaranek eman zizkidan argitasunak besterik zioten. T. Aranzadik Frankowski-rekiko harremanak, honek Penintsulan 1917-20 urteetan egin zituen ikerketetatik omen zituen.

Iragan uztailean Barsobia-ra (Warszawa) heldu nintzenean, E. Frankowski-ren berri jakiteko eta Jan Braun irakaslea ezagutzeko gogo bizia neraman. Zer poza eraman nuen Kultur Ministerioan Plastika Arteen buru den J. Przewozny jaunari Frankowski-z galdetu eta bere irakasle izan zela erantzun zidanean. Gure elkarrizketak atseginagoak izateko ezingo nuen aurkitu hura baino bide hoberik. Izan ere, gure herrian etnografiaz eta etnologiaz arduratu garenon artean nork ez ditugu ezagutzen Frankowski-ren lanak? Eugenio Frankowski-k, Eusko-Ikaskuntza sortu zelarik honen deiari ongi erantzun zion eta 1919an etnologiazko ikastaroa eman zuen Bilbon, hitzaldiak, bata zen metodologiaz-

koa eta bestea zen sineskera usarioen sistematizatzeaz. Hitzaldiok Eusko-Ikaskuntzak bi liburuzkatan argitaratu zituen eta gure egunokarte oinarrizkotzat erabili ditugu, T. Aranzadi, J. M. Barandiaran eta J. Caro Barojaren lan eta erakustekin batean.

Polonian ,Euskadi Margolaritzan 78 erakusketaren aurkezpena egiteko Bytom-era ostera egin genuen J. Elua, J. L. Goenaga eta hirurok, eta berriz Barsobia-ra itzultzean, hemengo Unibertsitatean ezagutu genituen Jan Kieniewicz eta Jan Braun, Katedra Iberystyki-ko irakasleak. Lehenak oso ongi zekien gaztelera eta bigarrenak, gazteleraz gainera, euskara ere bai, lapurtar jatorrez. Duela hiru urte ireki omen zuten Katedra hau, lehenik gaztelera eta Espainiako kultur orokorra irakasteko. Katedra Iberystyki delako hori haziaz, bi urte daroate katalana erakusten eta igaz hasi ziren euskararekin. Hau, Braun jaunak daroa, indoeuropear ez diren hizkuntzen irakasle denez eta euskara oso ongi ikasia duenez. Pozik aurkitu genuen lehen ikastaroaren ondorioz. Oraindik ez dute aski material esku artean, liburutegia aberastu beharra dute. Orain arte, gramatikaz eta autore ezagun baten lanekin baliatzen dira eta euskarazko ikastaroan J. Barbier-en poesiak eta ipuiak erabili dituzte irakurgai eta aztergai.

Biblioteka tipi hartan, euskarazko liburu guti batzuen artean, Azkueren hitzegia zuten, *Diccionario Vasco-Español-Francés* (1905-6). Baina, hara zer ustekabe eraman nuen hiztegiaren bi tomoak Eugenio Frankowski-renak izan zirela ikusteaz. Jan Braun-ekin gelditu nintzen bera Frankowski zenaren hezkuntzazko fitxa igortzeko eta nik bertara honen bibliografia. Euskal-Herriagatik hainbeste egin zuenaren memoria ona hemen izan dezagun eta ondoko belaunaldietan elkarrekiko harremanetan jarraitzeko asmoz.

Eugeniusz Frankowski Barsobia-tik ekialdera dagoen Siedlce hirian sortu zen 1884. urteko irailaren 21ean. Uste dut Cracovia-ko Unibertsitatean egingo zituela bere ikasketak, zeren hemen bertako Antropologia Mintegian laguntzaile zela etorri bai zen Euskal-Herrira eta lehen fruitutzat dugu «Exploraciones etnográficas en las Provincias Vascongadas y Navarra», 1917an argitaratua. Honen ondotik etorriko ziren gero Penintsulako lan handi haiek, «Hórreos y palfitos de la Península Ibérica» (1918) eta «Estelas



Hic jacet cui nomen erat Iohan Gil - Erdi-aroko hilarria Urraul-goiko Aietxun (Nafarroa). Lehen ere bi aldiz argitaratua dut marrazki hau, baina nik ez dakit zergatik, bietan oker jarri zen bertako testua. - Estela discoídea medieval de Aiechu de Urraul alto (Navarra). Anteriormente en dos ocasiones que se ha publicado este dibujo y, por razones nada fáciles de explicar, en ambas se hizo mal la transcripción del texto

discoideas de la Península Ibérica» (1920). Eta, behar bada lan horiek zituen doktoradutzarako. Arkeologia eta Antropologiaz Doktor titulatu zen 1921. urtean Cracovia-ko Unibertsitatetik.

Arestian esan bezala, 1919ko abenduaren 13 eta 20an ikastaro eraz eman zituen bi hitzaldi Bilbon, Eusko-Ikaskuntzak deituta eta elkargo honek bi liburuxkatan argitaratu zituen: «Sistematización de los ritos usados en las ceremonias populares» eta «Los métodos de la etnología» deritzatenak, 1920. urtean argitaratuak. Jakintza honetan Graebner eta W. Schmidt alemanak eta S. Poniatowski polakoak jarritako metodologiak erabili zituen onarritzat eta hemen bertan etnologiazko eskola bat sortzeko lagungarri izan ziren. Handik urte betera hasiko baizen J. M. Barandiaran «Anuario de Eusko-Folklore» argitaratzen.

Barsobiako Unibertsitatean etnografia eta etnologiako habilitazioa eman zioten 1922an. 1926-an Poznania-ko (Poznan) Unibertsitatean Etnografiako Katedran irakasle sartu zen.

1930ean Bergaran herri arteari buruzko biltzarrak eratu zituen Eusko-Ikaskuntzak eta han eman zuen hitzaldi jakingarri bat, «Cuestiones generales acerca del arte popular vasco» titulupean, 1934 biltzar hartako bilduman argitaratuko zena, 3/17 orr. Garai hartarako, Poznaniako irakasle izateaz gainera Barsobia-ko Etnografia Museoko zuzendaria zen. Etnografiaz zuen jakintza sakon eta zalabalagatik, gaur oraindik ere oinarrizkotzat joten dugu Bergaran eman zuen hitzaldu hura, gure herritar arteak estudiatzeko.

Badu beste lan bat ere, guk dakigunez, Euskal-Herriko etnografiaz Poloian bertan argitaratu zuen liburu batean. Liburu honen izenburua: «Regjony Hiszpanji» (Poznan, 1933).

Gerratetik apenaz izan dugu bere berririk, baina J. Braun-i esker jakin dut 1957an «Professor emeritus» izendatua izan zela eta Poznanian bertan hil zela 1962ko otsailaren 8an. Bere alarguna, Dr. Maria Frankowska, gai berean irakasle zena, oraindik bizi da Poznan delako hiri hartan.

Lehenago, F. Mendozak Euskalerriaren alden (1921) eta P. Garmendiak RIEV-en (1933) eman zituzten Eugeniusz Frankowski-ri buruzko zenbait berri, baina hauek osatzea merezi zuen gure etnologia eta etnografia ikerketarako hainbeste jakintza eskaini zigun jaun honen oroiz eta ohorez.

* * *

Las investigaciones en el campo de la Etnografía y Etnología vasca, con rigor científico, se remontan al comienzo del presente siglo, siendo el principal promotor Telesforo de Aranzadi. Pero tampoco debemos olvidarnos de las aportaciones del polaco Eugeniusz Frankowski (1884-1962) cuyas primeras investigaciones en la Península coincidieron circunstancialmente con el nacimiento y puesta en marcha de la Sociedad de Estudios Vascos.

A la sazón, Frankowski era ayudante del Instituto Antropológico de la Universidad de Cracovia —donde se doctoró en arqueología y antropología, en 1921—, y realizó aquellos magníficos trabajos sobre hórreos, palafitos y estelas discoideas de la Península Ibérica, y fue requerido por Eusko-Ikaskuntza, Socie-



Erronkariko kutxa, 1818. urtekoa

dad de Estudios Vascos, para dar conferencias en Bilbao, en diciembre de 1919, sobre sistematización de los ritos usados en las ceremonias populares y sobre los métodos de la etnología. Conferencias que meses más tarde pronunciaría en el Ateneo de Madrid. Con las mismas introdujo los sistemas y métodos de trabajo que se venían empleando en la Europa central.

Frankowski, durante los últimos años de su vida, ejerció de profesor de etnografía en la Universidad de Poznan (Poznania) y de director del Museo Etnográfico de Varsovia. Al V Congreso de Estudios Vascos, celebrado en 1930, aportó otra interesante conferencia sobre cuestiones generales acerca del arte popular vasco, cuyo contenido aun hoy no tiene desperdicio alguno. Y, en 1933, dio a la luz en Poznan su obra «Regjony Hiszpanji».

El pasado mes de julio, con ocasión de un viaje a Polonia, visité la Cátedra Iberística que funciona en la Universidad de Varsovia, donde se imparten las enseñanzas de las lenguas y culturas

castellana, catalana y vasca. Entre otras sorpresas, vi que utilizaban el Diccionario de Azkue que perteneció a E. Frankowski, y por el profesor Jan Braun, que habla correctamente el vascuence, supe de su fallecimiento en 1962.

Sirvan estas líneas para recordar al finado investigador que con alto honor debe figurar entre los pioneros de los estudios etnográficos y etnológicos vascos.

1978 - X - 2

I. LOPEZ-MENDIZABALEN EMAITZA

Otsailaren 27an, bere sorterrian hil zaigu I. López-Mendizabal jauna. Gizon gurgarria, euskal kulturagintzan gurgarririk bada. Ixaka López-Mendizabal, larogetahamazortzi urtera hurbildu zelarik joan zaigu. Tolosan jaioa zen, 1879garren urteko apirilaren 11an. Ikerlari, idazle, eta euskal irakasle mailan lan ugari egina zen. Gerrara arte izan zuen inprimategiaren zuzendaritzan ere ez guti; baina, behar bada, bere bizitzako lanik probetxugariena, praktikoena, irakaskintzarako testugintzan eman zuen. Lan handiagoetarako ikasia bazen ere, euskaltzale kementsua zenez, beste inor baino lehen ohartu zen heziketarako liburu beharrez eta lan xehe eta praktiko hoiei gogotik heldu zion. Honegatik, lehen aldiko ikastolak, gerra aurrekoak ez ezik baita gerra ostekoak ere, hasierako materiala izan zuten bere emaitza horri esker.

Mendizabaldarren inprimategia hemeretzigarren mendearen lehen partean hasia zen, 1826tik aurkitzen ditugu bere berriak. Mendearen azkenaldera Eusebio López izan zen (Ixakaren aita) inprimategiaren jarraitzaile. Beraz, Ixaka bere haurtzarotik bizi izan zen liburu arteko giroan. Lehen ikastaroak Tolosan bertan bete zituen eta handik Deustuko Unibertsitatera joan zen Filosofia eta Letrak ikastera, eta 1897an Salamanca-n esaminatu zen. Ikasle azkarra zen nonbait eta Filosofia eta Letrak bukatu ondorean Madrid-eko Unibertsitatera joan zen Legeak ikastera. Deretxoko Fakultade hartan bukatu zuen karrera, 1900ean. Gainera,

Madrid-eko Unibertsitate hontan hartu zituen doktor tituluak ere, 1899an Filosofia eta Letretakoa eta 1903an Deretxokoa. Bere tesiak hauek izan ziren: «Cantabria. La guerra cantábrica y el País Vasco en tiempo de Augusto», 80 orrialdeko lana, eta «Fueros de Guipúzcoa».

Euskaltzaindia sortzean, 1919an, bere laguntzaile izendatua izan zen, eta 1957tik euskaltzain ohorezko izendapena zuen. Baita ere, Instituto Americano de Estudios Vascos-eko laguntzaile eta Herri-Lagunak Elkarteko bazkide (R.S.V.A.P.-ekoa).

Euskal kulturako zein aldizkaritan idatzi duen baino errazago genuke non idatzi ez duen aipatzea. Gure mende hontan oso aldizkari guti izanen bai dira Ixakak, euskaraz edo erdaraz, bere zenbait lan argitara ez dituenak. Adibidez, ikus Jon Bilbaoren *Eusko-Bibliographia*-ren V. tomoko 215-16 orrialdeak, eta bertatik ohartuko gara Ixakaren etengabeko langintzaz.

Hala ere ongi deritzagu bere libururik aipagarrienak hautatzea, nere *Escritores euskéricos* (1968) liburuan jaso nituenak behinikpehin.

Euskarazko liburuak, haurren irakaskintzarako prestatu zituenak, honako hauek dira: *Aita Santu Amargarren Pio'ren dotriña laburra* (1907), *Zenbakiztia edo Aritmetika* (1913), *Umearen laguna* (1920) eta irakurgai hontatik atera zuen irakurtzen ikasteko *Martin Txilibitu* (1931) deritzan liburuxka, *Nekazaritza* (1929), *Seaska-Abestia* (1932) eta *Erleak, beren bizitza eta oiturak* (1933). Liburu guziok Tolosako bere inprimategian argitaratu zituen eta geroztik ere, gehienok, zenbait aldiz argitaratuak izan dira.

Baita ere, Tolosako inprimategian atera zituen, euskara ikasteko metodo hauek: *Manual de conversación castellano-euskera* (1908) eta *¿Quiere Vd. hablar en euskera?* (1932). Gainera, bigarren hau, M. Mendizkoren laguntzaz frantzezera itzulia ere argitaratu zuen, *Voulez-vous parler le basque?* (Donibane-Lohizun, 1938). Bestalde, Bilbon, *El Euskera. El idioma vasco* (1915). Hitzaldia eta Tolosako bere etxean *Diccionario vasco-castellano, castellano-vasco* (1916), geroztik hainbeste aldiz argitaratuko zena eta gure egunotan zerbait gehitua oraindik salgai aurkituko duguna.



Ixaka López-Mendizabal

Anaiarteko gudu madarikatuak bere inprimategia deseginik eta bere burua herbesteraturik ikusi zuenean ere, kementsu jarraitu zuen euskal ikerketan eta euskararen alderako lanetan. Hainbeste aldizkaritan argitaratu zituen lanak ditugu lekuko. Baina ez aldizkarietan bakarrik, liburugintzan ere jarraitu zuen. Deserritua izan zen garaiko lanak ditugu honako hauek: *La Lengua Vasca* (Buenos Aires, 1943) eta *Gramática vasca abreviada* (Buenos Aires, 1954). Baita ere, hitzaldien separatak, Argentinako hiri nagusi horretan eman zituen hitzaldienak.

Hizkuntzatik aparteko lanak ere argitaratu zituen Buenos Aires-ko Ekin argitaldarian, *Breve Historia del País Vasco* (1945) eta *El País Vasco. Descripción general* (1946).

Guzi hoien ondotik eta urte askoko lana burutuaz, 1958an argitaratu zuen Buenos Aires-ko argitaldari hortan *Etimologías de apellidos vascos*, 25.000 deituraren esan nahiaz, 800 orrialdeko liburua osatzen duena.

Emaitza eder hau burutu zuen Ixaka, zahar eta itsutua etorri zen bere aberrira, bere lur maite honetan ehortzi nahi zuelako. Beste ordainik ez zuen espero. Goian bego, gure lankide kartsua.

* * *

El pasado día 27 de febrero falleció en Tolosa, su villa natal, próximo a cumplir los 98 años, don Isaac López-Mendizábal, miembro de honor de la Real Academia de la Lengua Vasca y correspondiente del Instituto Americano de Estudios Vascos.

Fue un brillante estudiante que para los veinticuatro años poseía títulos de doctorado en Filosofía y Letras y Derecho, con tesis sobre la guerra cantábrica y sobre fueros de Guipúzcoa. Sin embargo, no siguió la investigación, tal como se hacía esperar, sino que se dedicó a la confección de libros sencillos y prácticos para la enseñanza y divulgación de la cultura vasca. Algunos libros de lectura, como *Umearen laguna* y *Xabiertxo* han sido hasta nuestros días los textos básicos de lectura.

Autor de ocho libros en vascuence y una decena en castellano sobre el idioma vasco y otros temas históricos culturales sobre el país. Pero, además, cuenta con muchísimas aportaciones en revistas especializadas.

Heredero de la imprenta Mendizábal que databa por lo menos desde comienzos del siglo pasado. En dicha casa se imprimieron importantes obras, tales como las *Averiguaciones de las Antigüedades de Cantabria* de Henao (segunda edición) y *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa* de P. Gorosábel y numerosas obras en vascuence. En las guerras carlistas varias veces había sido allanada dicha imprenta y en la última contienda civil fue destrozada totalmente. Y el llorado Isaac sufrió un largo exilio en Argentina, de donde volvió viejo y ciego.

El funeral de «corpore insepulto», que se celebró en Tolosa el pasado lunes, constituyó una gran manifestación de duelo.

1977 - III - 7

SALBATORE MITXELENA, ABERRI MINAK ERAGINDAKO POETA

Zein ederra dan
olerkaritza
bihotzak min duanean!

Aitortu zuen Salbatore Mitxelena zenak bere poema batean. Zerk mintzen zuen? Sukarrezko kristau fedeak eta aberriak mintzen zuela esango genuke.

Bere poemak epikoak dira gehienbat, baina lirikaz ongi jantegintzara eramateko. Gudu izigarri baten ondorea eta bere herriaren galzoriak eskaini zizkion gaiak, baina baita ere fedez larri-mindurik aurkitzeak.

Bere poemak ekipoak dira gehienbat, baina lirikaz ongi jantzirik. Bertso egituretan berriz euskal kanta zaharren eta bertsolaritzaren estiloak erabili zituen, baina baita ere bertso librea, ritmoz hornitua.

Gerrak haustutako zaborretatik nekeza zitzaion lirika berri bat sortzea. Inguruan aurkitu zuen egoera latzak minberaturik eta gogoa jaso nahirik eta jaso ezinezko poesietan abiatu zen. Errealismu latz batek bihotz mindurik eta ideal bati begira. Ideal hau, fedea eta Euskal-Herria. Eta, hemendik, garai hartan ezin zen atera oinazezkoa ez zenik.

Baina, oinazezko egunok, bere gogorako, bazuten gorde-leku bat: Arantzazuko Amaren itzalpea.

Hortatik sortu ziren «Arantzazu, euskal poema» (1949) liburutik hasi eta «Ama-Semeak Arantzazuko kondairan» eta «20 Kanta Arantzatzuko».

Arantzazu abarotzat hartze hau, L. Villasantek dionez, Montserrateko Virolairen bertso hura ezagutu gabe izan behar zuen:

Amb vostre nom comença nostra historia,
i es Montserrat el nostre Sinaí.

Zure izenarekin hasten da gure historia, eta Montserrat da gure Sinaí. Arantzazuko kondairen poemok izan bai ziren Salba-

tore zenaren lehen lanak, lehen aberriminak. Sufrikario baten aterpe Arantzazu zelarik. «Euskal-Fedea, beratan, bidazti, aldapa-gora, nora datorren jakiteke». Bere ikuspegitik eta bere gaztaro hartan hala ikusten zuen:

Zuk zer dezu, Arantzazu!,
ames-kabi, erti-leku?...
Euskalerria oso-osorik
kantari dijoakizu.

Aztertzekoa litzake orduko giroa, Salbatore zenak hala ikusi zuena; herri baten hil nahieza. Zapaldurik ere bizitzaz iraun nahirik, baina izu eta ezin aurrerapiderik aurkitu, eta ezin honek bultzatu zuen (hala deritzat) herria bera Arantzazura bebes bila. Ahalmenik ez zutenek ere zerbait nahi; nahi baina ezin. Aldi ilun hura ezagutu zuen gure poetak, bere obrak hala jasoa duenez. Honegatik aitortu zuen: «honako poema hau ez dala iñorena, ez nerea. Baizik Herriarena!».

Bere garaiko gizonarentzat kantatzen duen poetak, betiko gizonarentzat kantatzen du. Giza esistentzia ez baita belaunaldi soil batena, baizik trazendentziarena, ororena, betikoa eta toki guzietakoa.

Honegatik, lan ederra egin digute bere obra guzia bi liburutan jaso dutenek. Lehen tomoa datorren ostiralean aurkeztekotan dira, Donostian bertan. Aste oroz, frantziskotarrek eratuko dituzten kultur ekintzaren artean, gaur arratsaldeko 7retan izango da lehen mahai-ingurua eta etzi bigarrena, Salbatore Mitxelena pertsona eta idazle bezala adiaraziz. Behar beharrezkoa genuen hau, zeren aspaldi ezkutuegi gelditua zen euskal literaturarentzat hain garrantzitsua den autore hau, batez ere gerraondoko lehen ekintzaren eragile eta egilerik aipagarriena zenez gero.

Aldi haretan, gude poeta hau, ohartua zen transizioko poemagintzaz ari zela, bilaketa aldia zela. Honegatik beronegatik hartu zuen herritar estiloa, bertsolari nahiz koblakari eskola zaharretatikoa, lokarturik zegoen herriaren iratzartzeko hain beharrezkoa. Hala ikusi bai zuen «Herri bat guruzbidean», nahi eta ezi-

narekin borrokan. Urte ilunak haiek, aterpe edo babes leku bat nahirik eta herria izuaren isilean. Dena zen eremu, eta eremuaren erditik Salbatoreren oihartzuna jaiki zen: «Aberriak min dit». Beretzat, «Euskalerria lehenago, barruko edozein alderdi baino». Gaur ere oraindik zer lezio ederra gure ikasbiderako.

Sentipen hoiegatik hartu zuen Unamunoren esaldi hura «Gurutz biderako»: «Un *miserere* cantado en común por una muchedumbre azotada del destino vale tanto como una filosofía». Bizitzaren sentipen trajikotik hartua dela ohartuko gara.

1954. urtean Eibarren Mixio bat eman zuen E. Agirretxekin batean. Ohiturarik ez zuen asko han izan zen San Andresko parrokian. Asis-koak berak ere ez dakit eibartar gehiago bildu ahal izango zuen, baina bai badakit han zen pizti bat ez zuela baretu, eta han joan zen Donostiako agintariengana salatari. Geroztik apenaz uzten zuten baketan eta asperturik joan zen Ameriketara mixiolari.

Bihotza hemen zuen batentzat ez zen aukerarik hoberena:

Lur ezaguna utzirik
banoazu iraduz.
Zurekin bat eginda
nik atseden, Jesus!

Herbesteratzean argitaratu zituen «Euzko-gogoa»n «Gurutz bidean» eta «Bizi nahi» (1955) poemak, lehenago idatziak nonbait, Bizkaiko guduaren poema epikoak, biziak, eta biziak haina minak. Poema bizkorra eta eraginkorra. Gure artean egin den epikarik gailenenetako bat. Orduan ez zen zabalkundea eratzeko biderik. Ez zen ahal. Eta bere poemaren mensajeak etzuen izan hedakunderik, beste olerkari guti batzuen baitan baizik. Baina, Arantzazun han utzi zuen eskola: bere lagun Alustiza «Aztiri», bere ikasle ziren B. Gandiaga eta A. Bilbao. Horrela, Joxe Azurmendira arte kate bat luzatuaz, eta beren frutuak poeta berri askoren emaitzetan. Salbatore gabe oso nekez edo hain aberats izango ez zena, noski.

«*Unamuno ta abendats*» (1958), saiaera liburua, bere azken lana, aurretikoekin lotura gabekoa itxuraz, baina funtsean honek

ere zer ikusi handia du, bere barne prolematikaren eboluzioa aurkitzen delarik. Lan hau, lehen aldiz, bertsoz idatzia zuen, bertso librez gehiena, eta argitaratze orduan, zenbaiten eskariz, hitz-lauz jarri zuen, irakurgai errazagotzat. Zaitegin eskutik ezagutu nuen bertsozko hura, «Unamuno ta gu» zeritzana, eta unkigarriagoa iduritu zitzaidan. Bere taxura «Unamuno ta abendats»en azken orrietan aurkitu genezake.

1970ean Jakin sortak elkar-lanean egindako liburu bat eskaini zigun, Salbatore Mitxelenaren bizitza eta lanak estudiatzen zituena, baina bere lan batzuk oraindik argitaratu gabeak zeuden eta beste batzuk aldizkarietan sakabanaturik. Poeta ezagutzeko, honegatik genduen hain premiagarria lan guzien bilduma hau. Are gehiago, poeta bera aldi berezi baten seme eta adiarazle zen aldetik.

Zarautzen sortua zen, 1919an. Arantzazu, Forua eta Oliten egin zituen ikasketak. 1954. urtearen azkenaldera joan zen Ameriketara eta handik Suiza-ra 1962an eta hiru urte barru hil zen La Chaux-de-Fonds hirian 46 urte zituela.

Herriari herritar eskolatik hain bikain kantatzen jakin zuen poeta bihotz mindua, egoera latzean, etsi ezinez, atsekabeturik joan zitzaidun. «Aberriak min dit». Eta, maitasunez sufritu eragin zion herritik urruti, arrotzen lur hotzetan aurkitu zuen heriotzak. Gure literaturan ongi merezia du ohorezko lekua.

Urretxindor kantaria
baso-basoan gordia
gau eta egun ospatzen da ari
maiteño ta habia.

* * *

La presente semana tendrán lugar en San Sebastián varios actos conmemorativos de los 50 años de los Franciscanos en San Sebastián, con manifestaciones de cultura, arte y fe, y que se prolongarán durante la semana siguiente.

Dentro de dicho programa, para hoy y pasado mañana, en las salas de la Caja de Ahorros Provincial, se han anunciado

mesas redondas sobre la vida y obra de aquel gran poeta Salbatore Michelena, con la intervención de destacados músicos y escritores; y el día 18, viernes, se hará la presentación del primer tomo de las obras completas del poeta. Todos los actos tendrán lugar a las 7 de la tarde.

Salbatore Michelena nació en Zarauz el año 1919. Ingresó en la orden franciscana, para cursar estudios en Aránzazu, Forua y Olite. En diciembre de 1954 marchó de misionero a América y en 1962 pasó a Suiza, donde fallecería en 1965 a la edad de 46 años.

Es uno de los exponentes más altos de la literatura de la posguerra. Cuando el euskara no tenía cobijo ni en la escuela, ni en la prensa, ni apenas eco en la calle, Salbatore cultivó en la poesía y ensayo, logrando una labor titánica de autodidacta, para elevar a un instrumento dotado de modernidad y forjar el eslabón indispensable de la continuidad. «Arantzazu, euskal poema» (1949), «Ama-semeak Arantzazuko Kondairan» (1951), «20 kanta Arantzazuko» (1954) «Arraun ta amets» (1955), «Unamuno ta Abendats» (1958), y los poemas «Aberriak min dit», «Herri bat guruz bidean», «Confixus» que fragmentariamente vieron la luz en la revista cultural «Euzko-gogoa» (1955).

Las letras vascas están en deuda con S. Michelena. El viene a ser como el grito desgarrado de un Pueblo que se siente morir, pero que no se resigna a desaparecer. Y pretende inyectar un hálito de vida nueva en el alma vasca, recogiendo en su obra las aspiraciones de este pueblo que quiere vivir y vivir esperanzado.

1977 - XI - 14

RODOLFO BOZAS-URRUTIA

Hil honen 12an hil zen Madrid-en Rodolfo Bozas-Urrutia jauna. Aspalditik biziarenak joa zen eta poliki poliki eraman du gaitz honek hobira.

Ez da hain erraza gizon honen nortasuna lerro labur batzuen

bidez adiaraztea, ez horixe. Idazle, musikari, historiagile. Bere bizitzan lan horietarako izan zuen aukera laburrean hainbeste lan eder eskaini ziguna, Euskaltzaindiaren laguntzaile zen eta Madrid-eko Ateneo-an euskal sailaren zuzendaria, eta hiri nagusi hortako Santa María de la Cabeza-ko organista.

Rodolfo Donostian sortu zen 1913ko azaroaren 19an. Bere aita Ebaristo Donostiako «El País Vasco»ren sortzaileetakoa eta zuzendari izana zen. Astigarragan igaro zituen bere haurtzaroko urteak, baina gaztetxoa zelarik Uruguay-ra aldatu zen bere gurasoekin. Ameriketan euskara galdu zuen. Espainiako azken gerratean errepublikaren alde jokatu nahirik etorri zen Kataluiñara eta Barcelonan bertan, hogetahamar urtekin hasi zen euskaraz ikasten. Hemen bertan, ahal zuen eran ikastetik Euskal-Herriko estudianteen irakasle izatera heldu zen. Geroztiko urteetan lanik anitz egina da euskaraz eta erdaraz. Garai haretan kantari eta musikari bizi izan zen.

Ateneo-ko sarrerazko hitzaldi hartan agerrarazi nituen R. Bozas-Urrutiaren lanak eta doahinak. Ikus «Euskera» aldizkarian (XX, 1975, 521-524 orrialdeetan). Aurkezpen hartatik hiru urte igaro dira, baina bere eritasuna gora-behera, ez dira izan Bozas--Urrutiarentzat geldirik egotekoak; ez. Ez zen antzua eta ez zuen egonean egoterik. Eta, hobira hurbildu arte, ahalmenak suntsitu arte, lan eta lan aritu izan zen. Harrigarria zen gaitzarekin borrokan aritu zelarik ere lanerako zuen gogoa.

Izugarrizkoa zen biziarenakin eri zen artean ere zer nolako kemena agertzen zuen. 1971an idatzi zidan gutun batean hau esaten zidan: «abuztuan operatu ninduten, neguan eta hospitalean irabazitakoaren erdia gelduxea nuen-eta; badirudi ebakuntza horren ondorioak ez direla hain txarrak. Baina, betikoa: zulo bat itsutu orduko, hara beste bat ondoan... ahoan badira bazterrak ugari, gaitza goxoki kokatzekoak! Eta hantxe ari da, ari da eten gabe... Hori bai, guk arpegia eman diogu, hura bezain setatsua naiz eta. Sendabide baten pean nago orain; japondarrek asmatutako bat, heien artean arrakasta handia duena (Bleomicina: goguan har zazu izen hau). Oinazeak aienatu dira jadanik. Eia suerte apur bat dugun «zulotxo» honekin, eta gero gerokoak. «Zulo berriari —Bleomicina ezarri, ta ondo ezpadoa—, sartu bisturi».

Geroztik zazpi urteren buruan eritasunarekin borrokan eta eten gabeko langintzan aritu izan zen.

Bai euskaraz eta bai gazteleraz, gure kultur adizkaririk gehienetan kolaboratu du, historiaz, literaturaz, bibliografiaz eta abar. «Hegatsez» deritzan bilduman argitaratu genuen Gamelua eta «Lur eta gizon, Euskal Herria»n eman zuen Euskal-kirolak, hein batean, gure gizon honen ahalmenen neurria markatzen digute, euskarara itzuli zituen hainbeste lanekin batean.

Gainera, 1970ean, euskarazko lehen eleberriaren ehunurte betetzean, obra honen ohorez eta oroimenez, J. B. Daskonagerreren *Atheka gaitzeko oihartzunak* deritzana, gaztelerara itzulia, euskarazkoa bera, hitzaurrez eta oharrez argitaratu zuen. Ondorean, bere aita Ebaristoren *Andanzas y mudanzas de mi pueblo*, Errenderiaren kondairaz eta ipuin zaharrez egina zena, euskaraturik eta oharrez historia aberasturik jarri zuen, eta bi hizkuntzazko argitalpenez 1976an argitaratu zen.

Bozas-Urrutia langile bizkorra izaki. Baina, behar bada, eritasunez etsipendurik zenbait asmo eta lan azkar ateratzeari eman zion. «Francisco Amoros y el antiguo juego de pelota», berrehun orrialdetik gorako lana, liburu aski mardula osatzen duena, R.S.B Amigos del País-ko Boletinean bi zatitan argitaratu zuen. Baina 1974an lan hau burutu zuenerako beste arlo handiago batean sartua zen. Pilotari buruz ikerketan ari zen, bere lan hori eta Luis Bombín-en *Historia, ciencia y código del juego de pelota* (1946) liburuan oinarriturik eta egile honen laguntzarekin, *El gran libro de la Pelota* burutu zuen. Eta, ez nolanahiko liburua: 2 tomo, 27 x 20 zm. neurriz, 1478 eta 1519 orrialde dituztenak.

El gran libro de la Pelota delako lan handi honen bi tomoak 1976an argitaratuak dira. Mundu guziko pilotarien berriak dakarzki, agiri zaharrez eta argazkiz ongi orniturik. Baina, horrez gainera, R. Bozas-Urrutiaren euskal historia eta euskal literaturazko jakintzari esker, horrelako lan bat inoiz ez bezala argitaratu zen, pilotari buruz euskal literaturak bere barnetik eman dituen berriak jasoaz. Ez hori bakarrik. Baita ere, holako lan orokor batean, lehen aldiz jasotzen da gure herriko historian pilotari buruz orain arte aurkitua den agiri idatzirik zaharrenaren berri. Hau da, lehen tomoaren 536. orrialdean datorrena: Nafarroako

erregeak 1331. urtean Iruñan pilotarako frontoia konpontzeko egin zuen ordainketaren berria. Bestalde, liburu horietan, pilotariak ez ezik, frontoiak eta era askotako joku klaseak agertzeaz gainera, joku mota bakoitzaren arautegiak ere bildurik argitaratzen ditu.

Munduak hain urri ematen dituen langileetariko bat genuen Rodolfo Bozas-Urrutia.

X. Kintana eta J. Tobarren artean egin zuten «Euskaldun berriekin euskaraz» deritzan bilduman jaso gabea da. Baina ekintza polit honi jarraitzerik nahi badute, nolabait bete beharrezkoa izanen dute Bozas-Urrutiarekin gelditzen zaigun hutsunea. Hutsune hau ez da bakarrik bildumazko liburu horrentzat, baizik euskal kulturarentzat.

Langile bikain bat galdu dugu. Ateneo-ak ere igarri zion, gizona bere eritasunean beheraka etorri zen neurrian joan bai zen elkartearen ekintza bera ere moteltzen. Bai, euskal kulturak langile bikain bat eta guk adiskide on bat galdu dugu.

* * *

El día 12 de los corrientes falleció en Madrid a los 64 años de edad el escritor y músico vasco Rodolfo Bozas-Urrutia, que había desempeñado hasta hace poco el cargo de director del Aula Vasca del Ateneo madrileño. Era organista titular de Santa María de la Cabeza de Madrid. Miembro correspondiente de la Real Academia de la Lengua Vasca, que se distinguió como publicista, traductor e historiador. En vascuence y castellano colaboró en distintas publicaciones culturales del país. Tradujo al castellano la primera novela que se escribió en vascuence, «Atheka gaitzeko oihartzunak» de J. B. Dasconaguerre al cumplir el centenario de su publicación, en 1970. En dos partes, publicó en el Boletín de la R.S.V. de los Amigos del País su obra «Francisco Amorós y el antiguo juego de pelota» (1974). Y en 1976 publicó con traducción al vascuence y notas la obra de su padre Evaristo, «Andanzas y mudanzas de mi pueblo». Y, con la colaboración de Luis Bombín, el mismo año de 1976, publicó en dos volumino-

sos tomos «El gran libro de la Pelota», tras ardua labor de muchos años.

1978 - I - 23

M. AROZAMENA BERTSOLARIA

Berriz ere bertsolaritza dolupean dugu. Iragan den abenduan Mikel Arozamena hil da.

Mikel Arozamena Larralde, Lesakan jaioa zen, 1930. urteko abuztuaren azken egunean. Hala aitortuko zigun ber berak «Nere jaioterria» izeneko bertso politetan:

Izenez deitzen zaio Lesaka
esan nai nuen erria,
dana mendiaz inguraturik
ortxe daukagu jarria;
bertan jaiua dan batentzako
ikustia pozgarria,
nik ere ortxe ikusi nuen
lendabiziko argia.

Berak zazpi urte zituenerako etorri zen familia Gipuzkoako Astigarragara eta geroztik hemen bizi zen. Gazterik hasi zen bertsoetan, Astigarrigako sagardotegietan, eta aspaldiko urteetan hor ari zen plazarik plaza eta saloirik saloi. Ofizioa ondo zekien bertsolaria zen.

Arozamena ez zen bertso zorrotz hoiek egiten zituena, ezta ziri-bertso askorik ere, baina bai bere patxara lasaiarekin ondo atontzen zekiena, azalbideak txukun adiaraziaz.

Gipuzkoan biziarren, Nafarroara begira zuen bere gogoa eta bertako txapelketetan partaide izaten zen. 1962an Nafarroako bertsolarien txapeldun izatera heldu zen. Egun hartan, azken bertsua, bukaeratzat eman zioten pundu behartu batekin osatu beharra izan zuen eta bai ongi biribildu ere:

Danok, jakiña, euskera auxe
zintzo maitatzen detela;
ta biotzez laguntza emateko
lotsarik ez daukatela;
saia zaitezte biotz-biotzez
merezi duen bezela,
euskaldunaren izen ederra
borratuko da bestela.

Urrengo urtean ere, Narbarte zenarekin estu agertu bazen ere, txapeldun irten zen Iruñan eratu zen txapelketa hartan. Eta, nafar zintzoen gisara agertu zen agurrezko bertsoan, bere ideia eta maitasuna argi ta garbi erakutsiaz:

Goizian jeiki Iruñaldera,
lendabiziko jokera,
maitetasuna izango zala
ematen nion tankera;
len larrugorrin bizittu eta
gaur badaukagu jazkera
piskana piskan indartutzeko
ikasi gendun izkera;
danon artean maita ditzagun
Foruak eta Euskera.

Alde hortatik baikorra zen, 1965eko Urte Berri egunez Donostian egin zen txapelketa orokorrean jarri zien lehen punduaren erantzun hartan ere ongi ikusten denez. Hara pundu behartua eta bere erantzuna:

Gure lan bakarra da
euskerari eustea,
tristia genduke oi
beraiño jextea,
oraindikan arkitzen da
gogor da gaztea,
denborakin baleike
goraiño irixtea.

Nahikoa meritu bazuen Mikel Arozamenak eta iragan den urte honen (1976) maiatzaren 23an berebiziko omenaldia eskaini zion bera jaio zen Lesakako herriak. Omenaldi honetarako, Auspoa Liburutegiak bertso bildumazko liburu polita argitaratu zion, *Nere aldia* izenez.

Esan dugun bezala, ez zuen eginen bertso zorrotz hoietakorik, baina liburuan ikus genezakeanez, ofizioa ondo betetzen zekien bertsolari horietakoa genuen. Bertso bete beteak dira bereak, Gipuzkoan biziaren, Nafarroara begira zuen bere gogoa eta beteak baina betegarririk gabekoak. Gertarizko hizkeraz, bertsolari kontatzailea batez ere, adiarazpenezko bertsoak. Liburu horren lehen partean bere memoriak agertzen ditu. Aspertu gabe eta lasai kontatu ere, bertsoz bertso, pasarteak zehatz adiaraziaz eta ederto horniturik.

Bere adiskide Narbarte zenari eskainiak oso onak dira. Izan ere, ingurukoen odolak beti ere zerbait gehiago lotzen du, hala ere gogozko gauzetan elkarganakoak baldin badira:

Ni bezalaxe jaiotzetikan
zu ere ziñan naparra.

Nere aldia deritzan liburu honetan, bertso bikainak dira «Txan txangorria»renak eta baita Osaba Migeli eskainiak ere.

Hain gazte joate honek atsekabe handia zabaldu du bertsozaleen artean. Une honetan, ber berak Narbarte zenari kantatutako haiekin oroitzen gara:

Batek eztaki mundu onetan
zenbat ordu dun berekin,
al dan artian saiatu bear
borondate onarekin;
zuk ere etzendun oker aundirik
ta lasai egon orrekin,
gu're ezkera luzaroko ta
laister gara alkarrekin.

* * *

El año que hemos acabado, el 1976, ha sido luctuoso para los aficionados al bersolarismo, por el repentino fallecimiento de dos figuras de primera línea, primero Xalbador y luego Arozamena.

Miguel Arozamena, natural de Lesaca pero residente en Guipúzcoa desde su mocedad, ha fallecido a la temprana edad de 46 años. El día de Nochebuena se celebró su funeral en la parroquia de Hernani, constituyendo una impresionante manifestación de duelo.

Este bersolari, sin ser extraordinario, era un hombre que sabía su oficio, que dominaba la técnica y sabía cumplir bien en sus intervenciones. En 1962 se proclamó campeón de Navarra y desde esas fechas había recorrido las plazas y salones del país con admiración popular. Como todo buen bersolari era querido por todos. El pasado mayo, su pueblo natal de Lesaca le rindió un merecido homenaje y la editorial Auspoa le publicó un libro antológico bajo el título *Nere aldia*. En esta obra canta las memorias de su juventud y a los seres más queridos. Destacan sobremanera las dedicadas a Andrés de Narvarte, bersolari de Goizueta, malogrado en su juventud. Es lírico en lo narrativo. Diríamos que narrar en verso era su especialidad. Sus versos al «Txantxangorria» (al petirrojo) y a su tío Miguel son de un bersolari de buen cuño.

Desde hace ya muchísimos años estaba empleado en Iberduero como conductor y sabía de los riesgos diarios de la profesión, como dejó narrado en el citado libro, *Nere aldia*. Pero el destino le ha llevado por otro conducto en plena madurez. Que en paz descanse el bueno de Miguel.

1977 - I - 3

SANTI ARIZMENDIREN OROIZ

Eguneroko rutinatik kanpora jardun diren gizonek, herri bakoitzari bere jatortasun bereziak eman izan dizkiete; eta ekintza berezien artean, garai bateko Eibarren, irakurtzeko zaletasuna

ere bazen. Ez eguneroko egunkariak soilik irakurtzekoa, baizik egunero libururen bati zatika arituz. Harrigarria bada ere, zaharren artean holako zaletasuna duten asko aurkitu ditut, baina nere adineko edo gazteagoen artean urri.

Gauza bat da irakurtzen jakitea eta beste bat irakurtzeko ohitura izatea, egunkari eta aldizkariak soilik irakurtzea edo egunero libururen baten parteari ekitaldi baten saiatzea bezala. Egunkari eta aldizkarietatik aparte eskuartean libururen bat eramaten zuenetakoa genuen Santi Arizmendiarrieta, oraindik egun guti dela 74 urtekin hil dena. Bere oroitzak ongi merezi du artikulu bat.

Santik aita Bariñakoa zuen eta oraindik hil berria den Jose Maria Arizmendiarrieta Arrasateko kooperatibagintzan aritu zenaren lengusua zen. Eta Santi bera ere Eibarko lehen koperatibagintzan bere esperientziak izan zituenetakoa genuen.

Eibarko sozialista zaharra, utopiazko garai haietakoa. Baina orduan utopia ziren anitz gauza egi bihurtzera etorri dira, beste batzuk baztertu beharrezkoak bilakatu diren neurrian.

Santik hamahiru urtekin utzi zituen eskolak, edo egia esan, inoiz ez zuen utzi eskolarik, zeren bere bizitza guzian aritu bai zen zerbait ikasten, egunero libururen bat eskuartean izaten duten guziak bezala.

Bere idealetako bat Esperanto hizkuntza berria zen. Doktor Zamenoff-ek sortu zuen mundukoak oro beste hizkuntza guzien gainetik ulertu ahal izateko asmoz. Antonio de la Torre izan zen gure mende honen lehen partean Eibarren esperanto hizkuntza irakatsi zuena eta Santi Arizmendi, haren ikasleen artetik aurreratuena noski eta ondoko urteetan Eibarren eskola sortuko zuena. Santiren ustez, herri bakoitzak berea eta esperantoa behar zituen; guziak ulertu ahal izateaz bat, bakoitzarena errespetatzeko erarik egokiena iduritzen zitzaionez. Eta, eskoletan, tokian tokikoa eta esperantoa (edo honen ordez bere gisakoren bat) erakusten zen egunetik gizarteak egoera hobeago bat ezagutuko zuela.

Eibarko sozialista zaharren asmo eta gogoetan sartzen zen uste hori ere, baina utopia bihurtu zen sozialismoa jarri zen nazio haietan eskoletara eraman ez zuten egunetik. Orduan, asko-

rentzat, baztertua gelditu zen, baina Santirentzat arrazoizko jarrerak ziren baliozkoak eta bere idealekin jarraitu zuen. Eta, Eibarko txoko honetatik munduko erresuma askotakoekin zituen gutunezko har-emanak.

Sozialismo idealetan Toribio Etxebarria izan zuen bere maisu maitea eta hau Caracas-en desherritua zen garai hartan elkarrekin maiz izkribatzen ziren. Normalki gazteleraz, inoiz esperantoz eta urrengo euskaraz ere bai. Ordurako, Toribio, nonbait Eibarko aditz laguntzailea eta hiztegia gertatzen ari zen (gero Euskaltzaindiaren «Euskera» aldizkarian argitaratuko ziren lan horiek) eta Santiren politikazko eta historiazko galdeei esker, Toribio beste langintza batera ere sartu zen. Langintza honen lehen frutua *La experiencia socialista en España, vista desde mi pueblo* izan zen, 1966an México-n argitaratua. Liburuaren sarreratzat 1958ko maiatzaren lehen egunean Santiri idatzi zion gutuna du, bukaeratzat urte bereko azaroan, liburua burutzean, idatzi ziona dakarren bezala. Saiaera ederra benetan. Bere kopia bat Prietok ezagutu zuen eta berari buruz egin zion gutun batekin amaitzen da liburua.

Horrekin bateratsu, izakerari buruzko saio bat ere idatzi zuen, *Metafísica a Urcola* izenekoa, lehenago gudatean galdu zuen saiaera baten oroitzetan oinarritzen dena, baina Santik gai hortaz egiten zizkion galderen gogoz berritua. Eta, Toribio, kristau fededuna zenez eta Biblia bere libururik maitagarriena, laster burutuko zuen, Ebanjelioetan oinarriturik, *El Hijo del Hombre* deritzana. Alde hontatik Santi hotzagoa zen, argitaratu gabe utzi duen liburu batean ikus genezakean bezala.

Eibarko sozialismoaren sorreraz edo garai haietako giroari buruz ere galdera asko egin zizkion Toribiori, eta neurri handi batean horrek bultzatu zuen *Viaje por el país de los recuerdos*, egilea bera hil dorean 1968ko urrian argitaratuko zena. Eta, Eibar ko gure mende honen lehen partea onduen jasotzen duen kronika dugu. Eta, azkenik, *Tres ensayos*, gudako oroitzaz idatzitakoa ere Santi berak bultzaturik egin zuen.

Baina Santiren gauzarik bereziena, gerrako oroitzaz utzi duen liburua da. Argitaratu gabea. Bertan azaltzen ditu Santik bere ideiak, pentsaerak eta jokaerak. Bai bereak eta bai bere ingu-

ruan ezagutu dituenenak. Gerra denbora guzian, egunkari eraz, izkribatu zituen gertatuak eta jasotzen zituen berririk aipagarrienak, eta eskutitz haiek garbira mekanografiatzetik laster aurkitu du heriotzak.

Azken gerrateko oroitzapenezko liburu bat baino gehiago irakurri ditut, baina holako politik guti. Liburuaren hasieran uste nuen, Eibarko eta Bizkaiko gerrate guziaren inguruan egileak izan zituen gora beherak izango nituela pasarterik hunkigarrienak eta hondorengo guzia, behar bada, aspergarri egingo zitzaidala, baina, bai zera...; Santoña-n presondegian sartu zutenetik Teruel aldean «trabajadorietan» bukatu artekoa askoz ere hunkigarriago gertatu zitzaidan. Eskutik kendu gabe, bi egunetan, liburu guzia irentsi arte.

Bere idazkera, literatura aldetik, ezta hain jantzia; baina bai adierazpenak gramatika legez ondo eta argi beteak. Eta, idazkeraren apaltasunagatik, hain zuzen horregatik da hunkigarriago. Idatzita dagoen era apal eta zintzoa, handikeririk eta heroetasunik gabekoa, eguneroko errealitatera egi indartsuagoz lotzen bait da.

Ausardia falta zitzaion gizona; miseriak, mesprezioak eta sufritzak harat honat erabili zuen gizonaren oroitzak dira. Beti, etorkizunaren aurrez aurre etsipendurik, baina kalamidaderik handienak iragan ondorean, txarragorik izan ezenaren pozez adoretsu bihurtzen zena. Tarteka marteka hizkirimiri anitz jasotzen du eta hoiek dira bere liburuaren pizgarri.

Holako esan zahar, esan zuhur eta bere garaiko sozialistak gizatasunaren eredugarri erabiltzen zituzten esaldi batzuk, behin eta berriz aipatuko ditu liburuan zehar; inoiz, badirudi, bera ere konturatzeke irtenak, lehen ere aipatu ez balu bezala (horretarako, oroi liburuaren hasieran esaten duela memoriaz ahula zela), eta berak uste gabean giza moralaren entsegu eder bat burutzen du oinarrizko esaldi hoiekin eta bere aburu zintzoekin. Liburu honi bai aukeran datorkiola Walt Whitman-ek ziona, liburu hau ikutzen duenak gizona ikutzen duela.

Agur eta ohore hainbeste irakaspen eskaini zenigun Santi adiskidea; zure oroitzapena gurekin izango da bizi garen arte guzian.

* * *

Una cosa es saber leer y muy otra el disponer de una disciplina o hábito de leer. Así como difiere bastante el leer únicamente la prensa diaria y alguna que otra revistita y el disponer siempre de algún libro que leer. Para muchos resultará sorprendente, pero el hábito de leer libros, en Eibar, ha sido mucho mayor en personas de edad que entre las de migeneración. La prueba está en los libros escritos por personas nacidas en el filo del siglo: P. Sarasqueta, P. R. Galdós, P. Larrañaga, T. Echevarría, Fernández Etxebarria, A. Iturrioz, etc., todos ellos autores de más de una obra, siendo de una generación que Eibar rondaba los 12.000 habitantes. A esa generación pertenecía el recién fallecido Santiago Arizmendiarrieta (Santi Arizmendi), primo carnal de aquel promotor de cooperativas de Mondragón, don Jesús María, que falleció hace pocos meses. Santi, a su vez, fue en su mocedad uno de los pioneros del cooperativismo eibarrés, promocionado por el centro obrero socialista de la localidad armera, del que Toribio Echevarría fue uno de los principales líderes.

Santi Arizmendi tiene en su haber el mérito de mantener con entereza, la amistad leal y sincera, a través de una estrecha correspondencia con el exiliado Toribio en aquellos momentos tan comprometedores, y que a Toribio le supo llevar las noticias y el aliento de su choco querido, hasta el extremo de impulsarle a escribir sus memorias y su pensamiento, como queda testimoniado en la introducción y epílogo de su primer libro, titulado *La experiencia socialista en España, vista desde mi pueblo.*

Por otra parte, Santi, estuvo muy dedicado a la enseñanza y práctica del Esperanto a lo largo de su vida y mantenía relaciones epistolares con personas de diversos países. Siendo militante del Partido Socialista y no practicar la religión, por sus aficiones musicales y como segundo tenor del antiguo orfeón eibarrés, nunca tuvo inconveniente en cantar misas dirigidas por aquel gran maestro Juanito Guisasola, del que Toribio con razón dijo en una de sus obras: «En ésa su bondad natural residía el secreto de hacer concurrir a sus sesiones corales a tantos elementos dispares y políticamente heterogéneos», que no cabe elogia mayor para el maestro Guisasola.

Santi ha dejado sus memorias de la guerra, inéditas. Están escritas con la sincera humildad que le caracterizaba. Sin protagonismos heróicos, va describiendo las experiencias vividas y observadas desde su cargo en la intendencia, la cárcel y el batallón de trabajadores. Muchas veces humillado, pero nunca ofendido, en una exposición íntima sobre las penalidades sufridas por un hombre de paz en la guerra; que mantiene sobre todo su ideal socialista sin ningún rencor a los del bando contrario y siendo muy justo en las actitudes y sucesos de diversa índole de ambas partes. La obra, narrada con humildad, está salpicada de anécdotas curiosas, a veces de mucho humor. A lo largo de la obra aflora un fondo humanístico envidiable, cuando repite sucesivamente, sin pretenderlo, unos pocos principios básicos, que parecen hasta elementales, pero que al autor le sirvieron para sobrellevar con ánimo el peso de las adversidades, penalidades y sufrimientos, y que constituyen una buena lección de moral. Obra muy digna de ser publicada, de la que he sido un afortunado lector, de estas memorias de tan honorable señor y viejo amigo, que en paz descanse.

1977 - V - 30

JOSE MARIA DONOSTY. OROITZAPENEZKO LERROAK

Zer gutiago, hamazortzi urteren buruan asteroko honetan ehundakak artikuluak idatzi dituen gizonari oroitzapenezko lerro batzuk eskaintzea baino? Jose Maria Donosty 1959tik zetorren artikuluak argitaratzen, zahartzaroko ajeak ezagutzeke, ekintzari ukorik egin gabe eta burua argi nabari zuela.

Donostiar jator hau hiri honetan jaio zen 1887. urtean. Donostian bertan eta Madrid-en estudiatu ondorean Lyon-era joan zen, baina gaixoaldi batek herriminez ekarri zuen bere sorterrira. Gazterik agertu zuen kazetaritzarako zaletasuna eta 1905an «Pueblo Vasco»n hasi zen Jose Maria Donosty izenordez idazten. Bere bataio izen-deiturak Leonardo Fernández Elizegi zituen. Idazle bezala luma bizkorra eta dotorea zuen eta laster egin zen ospe

handiaren jabe. Pikabeak egin zuen Gipuzkoako albun hartan, J. M. Donosty oraindik gazte zela, han aipatzen zen garaiko idazlerik hoberenen artean eta horrek asko esan nahi du bere izen onaren alde.

Larogetahamar laster betetzekoa zegoela hil da donostiar idazlea, azken ordurarte lanean arituaz. Ez zuen aski izan bere garaiko ekintzaz eta giroz idaztea. Honez gainera Donostiako historiaz anitz ikerketa eginak zituen eta Euskal-Herriaren historia ere ezaguna zuen. 1964an Donostia hiriko kronista ofizial izendatu zuten eta aurtengo udazkenean, Donostiaren alde eginak dituen lanen ohorez, «Encomienda de la Ciudad», baina ordurako erretiratua zen eta gomendua hartzearen atzerapena eskatu zuen. Irailaren azken partean hil da Jose Maria Donosty.

Milakak artikuluak idatzi zituen bere bizitzaren zehar, «Pueblo Vasco» hartatik hasi eta «La Voz de España» eta HOJA DEL LUNES honetan bukatu arte. Azken honetan «Un donostiarra» izenez agertzen zituen bere lanak. Zenbait liburu ere argitaratuak zituen, baina batez ere bere artikuluetan eman du lanik gehien. Ez dago dudarik lan hautatuen, edo hobeto esan, artikulu hautatuen bilduma on bat zor zaiola gutien gutienez, bere idazlanen adiarazpen on bat emango duena.

Nik neuk, bere artikulu asko irakurriaren, bera pertsonalki ez nuen ezagutzen. Euskaraz ba omen zekin eta hala aditzera ematen dute bere artikulu batzuk. Baina beti erdaraz idazten zuen. Bere garaiko eta giroko semea izaki. Ongi da bakoitzak berari dagokionean idaztea, batez ere Donostyk bezala zer esan duenean, pentsaerak eta sentierak gogoz adiarazteko edo agiri zahar edo historian aurkitzen duena agertzeko. Bideak ezin dira beti beti norperak aukeratu, inguruak eta garaiak ere jokatzen du egiteko honetan eta ez dago inor zertan behartu. Gizon heldua ez baita eskola haurra. Eta eskolatik erdaraz hezi ginuztenok, behar bada, gogo bereziak bultzatzen gaitu jatorrizko hizkuntzara itzuliaz hontatik aritzera. Euskal idazleak inoiz sartu dira erdaraz bakarrik idazten duten euskaldunen kontra, hauen jokabidea onartu ezinez. Ez zait ongi iduritzen. Ongi iduritzen ez zaidan bezala erdaraz besterik idazten ez dutenek gure alorrean zer ongi eta zer gaizki, epaile bezala jartzea. Holakorik maiz gertatu da, eta ez

beti asmo onez.

J. M. Donosty apenaz sartzen zen hontaz. Behin edo beste, bere txokoko euskararen alde agertu zen, euskara batua edo baturantzazkoa zalantzaz begiratuz eta, baita ere, hizkuntza arrunta mordoillotzat hartuaz, edo berak igarri gabe garbikerietara joaz. Dena dela, beste erdal idazle askok baino errespetu gehiagorekin begiratzen zituen gure gauzak. Eta ez diot hau hildako bategatik gehienetan ongi esan ohi delako, ez. Donostyk nere ustez merezimendurik izan ez balu, ez nion aipamenik egingo. Bestelako iritziak ekarri naute lerro hauek idaztera, eta bere ohorez esan beharra dut euskal kultura eta euskal literaturari buruz idatzi zituen artikuluetarik zenbait gordeak ditudala. Orain burura datorkidana, 1948ko apirilaren 27an «La Voz de España»n Barkoxeko Etxahuni buruz idatzi zuen artikulu polit hura, «Echahun, el bardo maldito», P. Lhande eta J. Larrasketek bi urte lehenago poeta honi buruz argitaratu zuten liburuaren barnean gordea adibidez.

Bere giroko seme, Espainiako 98ko gizaldiak ikutua zen, Baroja, Salaberria, Grandmontagne, Azorin, Mourlane-Michelena eta abar zituen gogoko eta hoien ifarrorratzak markatu zionetik abiatu zen. Irakurle onaren ondorenez, jakintza naroz jabetua zen eta idazkera erraz bezain apaina zuen.

Ideien aldetik aski independientea izan zen. Errepublika garaian UGTkoa izan zen eta karguak edukitzera ere heldu zen. Gerratean berriz inspektore tekniko bezala ibili zen. Hoiegatik presondegian egona zen eta gerraondoko urteak latzak izan zituen

Donostiaren zabaltze eta eraikitze berriak ezagutu zituen eta bere artikuluetan xehetasunez kontatuak ditu orduko gora-beherak. Hala ere, pena zuen alderdi zaharreko harresia botatzeaz. Hainbeste maite zuen hiriaren historia eta artea adiaraziko zuen guzia zaintzearen aldeko zen. Orain, bera galtzeaz, Gipuzkoako hiriburuak, bertako arte balioak historiaren arrazoiz zaintzeko ahaleginak egingo dituen lumarik onenetakoa galdu du.

* * *

Con el fallecimiento de José María Donosty, San Sebastián ha

perdido a uno de sus mejores defensores —por no decir el mejor— de los valores históricos y artísticos de la ciudad. Cronista oficial de San Sebastián desde 1964 y recientemente galardonado con la Encomienda de la Ciudad.

Había nacido en el mismo San Sebastián el año 1887 y estaba en el umbral de cumplir los noventa. Su verdadero nombre era Leonardo Fernández Elícegui. Usó su seudónimo de José María Donosty desde que comenzó a colaborar en 1905 en el «Pueblo Vasco». Desde los años cuarenta venía usando ese mismo nombre en «La Voz de España», donde era colaborador asiduo. Pero, en cambio, en los artículos en estas páginas de la HOJA DEL LUNES, donde colaboraba desde 1959, firmaba «Un donostiarra».

Reconocido por todos como escritor de elegante corte literario, desde los tiempos en que Picabea presentó aquel Album de Guipúzcoa. Pero a la vez era un gran conocedor de San Sebastián y su historia, como testimonia el título al que se hizo acreedor.

Era autor de varios libros, pero sino lo mejor, la mayoría de sus trabajos están dispersos en miles de artículos periodísticos. Siendo los mismos de gran interés, sobre todo para San Sebastián, merece la preparación de una antología.

1977 - X - 10

NOTA: Con recopilaciones de sus escritos se han publicado tres libros: *Marinos guipuzcoanos*, Madrid, 1968; *San Sebastián y Guipúzcoa*, León, 1968 (que ha tenido varias ediciones); *Temas, pueblos y paisajes de Guipúzcoa*, San Sebastián, 1969. Por lo que se lee en la cubierta del último libro tenía preparados un segundo volumen del primero y la obra titulada *Vascongados ilustres de los siglos XIX y XX*, más otras obras en preparación.

VII
OROTARIK
Varios

JOSE MIEL BARANDIARAN

Gure artean inork merezimendurik baldin badu, ondo merezia zuen J. M. Barandiaran jaunak. Iragan otsailean Donostiako EUTG-en egin zitzaion omenaldia eta joan den larunbatean *Doctor honoris causa* izendatu du Euskal-Herriko Unibertsitateak.

Aspaldiko asmoa nuen Barandiaran jaunari buruz orri hauetan zerbait idaztea, baina ez nuen gauza erraza ikusten nola eta zenbat idatzi, zeren behar bada liburu bat idaztea errezagoa da artikulu bat baino; baina bere iloba Luis-ek egin zuen lan hau, eta igaztik biografia naroa dugu Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones delakoak argitaratu zuen «José Miguel de Barandiarán, patriarca de la cultura vasca» deritzana.

Hirurogei urte badira ikerketaz kezkatu zela eta urte hauetan eten gabe ari dela. Treguharri eta haitzuloetako azternategietatik hasita ohitura zahar eta ahozko literatura bilketak arte, lan handia burutu du bizitzaren zehar. La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxeak publikatutako *Obras completas*-en hamaika tomoak lekuko.

T. Aranzadi eta E. Eguren izan zituen hasierako lankide. Azkoitiko «zalduntxo»-ei bezala leporatu zitzaien «Trío troglodita» burlazko gaitzizena eta beren buruak jakitun ustean zituztenen arbuioak jaso zituzten. Baina gaur biziko balira egintzaren agiriegatik isilaraziak izango ziren. Ustezko «jakitun» haienik ez da ezer gelditu eta ez ere gelditukо, baina Aranzadi, Barandiaran eta Egurenen ekintzak gure arbasoen mundua zer eta nolakoa zen erakutsi digute, nondik eta nora goazenaren argigarri. Beren laneri esker, ezagutza baten jabe gara.

Gainera, Barandiaranen eten gabeko ekintza honek arkeologi eta etnografi eskola sortu du. Jarraitzailerik badu disziplina hoietan, eta Euskal-Herriak badu bere sustraiak ezagutzeko aukerarik.

Orain jaso duen ohorezko izendapen hau guziok ahobatez onartua izan da.

Ikertzaile oparotsua. Bere eskuz ikutu ditu lehen gizonen gauzak, hasiera beretik zientzia berrien aurrerapenez, etorri diren teknikak erarik egokienean bereganatuz, eta beti, idoropenak eta

hauek beharturik sortutako teoriak elkar loturik sintesis batean agertuz. Aurrerapenak ukatu gabe egunean egungoari jarraitu dio, neurriz eta jakintzaz bere iritziak agertzeko. Zeren, batez ere, Barandiaran pentsatzaile handietako bat da, izatearen ikusmenik zabalenetik begiratuaz bere irizpideak agertuko dituena. Hala erakutsi digu bere lanetan. Azken aldiz *Cultura vasca* deritzan liburuaren sarreran, euskal etniaren maiztasuna eta euskal gizatasunari buruz ari delarik. Izan ere, «ez gara gure baitan, beste baten baitan baino», euskaldunak une larrietan agertu duen bezala.

Jose Migel, bere apaizgoaren eginkizunetatik aparteko une libreak betetzearren hasi zen zientziak ikasten; gero, bizitzan zehar, bata utzi gabe besteotara gehiago emana izan bada ere.

Gizonak, bere jakintzarik gehiena, mendez mende aurkitu denari edo asmatuak direneri zor dio, eta lehena hobeto ezagutzea norbera hobeto ezagutzea da. Eta hau, era berean, gerokoaren lagungarri. Honegatik, alde hontatik badugu zer ikasi. Gaur, gehienak, mundu artifizial batean bizi dira, gizonaren eta naturalezaren artean makina sartu delarik, izate beraren balioak alderantziz, munduan inoiz baino bakartiago agertzeko. Izatearen helburuak ezagutzen ez baditugu, ahalegindu gaitezan ezagutzera. Noraezak asetzen ez bagaitu, bilaketak gogoa beteko digu. Azken batean, zer da balio duenik? Bitartean, beintzat, ekintza gogoak eroango gaitu naturak markatu zigun jomugetaruntz. Baina, oroi, helburuak hainako ezagugarriak direla gizonaren sorrerazko gaiak. Denborak pasatuko dira, modak ere bai, baina gizonak bere izateaz galdetu beharra izango du, eta galde horiei erantzun nahia. Historia aurretik berez dakarren zioa baita.

Gure zorionik berezienak, bere lan ugarian bidez hainbeste erakutsi digun Jose Migel Barandiaran jaunari, euskal kulturaren oinarriak sendotuaz, gure lehenaren argitzeaz batean, bizitza beraren eskutuak ikertuz eta argituz ahalegindu den gizonari. Ongi merezia zuen izendapen hori.

• • •

El pasado sábado recibió don José Miguel de Barandiarán el

título de «Doctor honoris causa» de la Universidad Vasca.

Entre nosotros no es necesario explicar quién es José Miguel de Barandiarán. Sesenta años de investigación pesan sobre este hombre grande hasta en su modestia. Su biografía, obra de su sobrino Luis y publicada por la Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, le titula patriarca de la cultura vasca. Sus *Obras completas,* recientemente publicadas por la Gran Enciclopedia Vasca, suman hasta once voluminosos tomos. Su dedicación a la arqueología y etnografía han sido intensas a lo largo de su vida.

Hombre preocupado con el origen y el destino del ser humano. Investigador que con sus propias manos ha palpado los objetos de nuestros antepasados, que desde los propios inicios supo adoptar y conllevar los avances que las técnicas científicas vinieron ofreciendo a las investigaciones arqueológicas, y que al propio tiempo ha mostrado su gran capacidad de síntesis a la luz de los resultados de los descubrimientos y las diversas teorías que se han ido emitiendo por expertos especialistas en la materia. Ha evolucionado siguiendo día a día los aconteceres que ha ido deparando el progreso. El siempre ha logrado conjugar y sintetizar con cautela, prudencia y sabiduría. Porque en el fondo, Barandiarán es un gran pensador. Un pensador que contempla y describe nuestra existencia oteando un amplio panorama que viene a abarcar desde la prehistoria hasta nuestros días. En la presentación de la obra *Cultura vasca,* de varios autores y dada a la luz por la editora Erein, Barandiarán trata sobre constante en la etnia vasca y los aspectos del humanismo vasco, y constituye la prueba más reciente de esta capacidad suya para la síntesis al que nos referimos.

Vaya nuestra enhorabuena al gran maestro de la cultura vasca.

1978 - IV - 17

NORBERT TAUER-ekin

Euskaltzalerik gehienon artean ez dugu Norbert Tauer aurkeztu beharrik. Aspaldidenik, Tauer, gure herriaren zoriz kezkaturik bizi da eta euskararen egoera eta euskal literatura hurbildik jarraitzen ditu. Batez ere, berakin gutunezko harremana dugunok ongi dakigu jaun honek duen euskaltzaletasunaren berri. Inoiz herbesteko euskaltzaleen artean eredutzat jarri izan dugu eta ez da oraingo asmoa bere pertsonalitatea orrialde hauetara ekartzekoa, horixe bai ezetz.

Tauer-ek euskaldun askokin izandu gutunezko harremana, eta 1955etik 1962ra bitartean Buenos Aires-ko «Euskaltzaleak» euskarazko gutunezko norgehiagokaz eratu zituen sariketen irabazle izan zen. Liburutxo bat ere bada, *Bere idazkiak* deritzana, gutun hautatuen bildumaz egina. Nik dakidanez, euskal literaturan lehen inprimatu zen gutunezko liburua, zeren bere ondorean argitaratu bai ziren S. Onaindiarena eta J. P. Ulibarrirena, azken hau joan zen mendearen lehen partekoa izanarren.

Txekoslobakiako Pilzen-Pilsen-en sortu zen Norbert Tauer. Ekainaren 6an beteko ditu larogei urte. Egun hortan, beretzat oroitzapenen bat izan dezagun geure buruak euskaltzale edo abertzale sentitzen dugunok, baina baita ere kristau jatorrok otoitz egin anitz urtez bizi dadin. Gizon zintzo bati zer ederragorik, adinean sartua delarik, maitasun gogoa agertzea baino? Eta Norbert Tauer maitagarria da, inor maitagarririk baldin bada. Uste hortakoa nintzen hainbeste urtean izan dudan harremanen erakuspenez, baina ez dut aski hitz on asmatzeko ahalmenik pertsonalki ezagutu ondorean.

X. Kintana eta J. Tobarrek gertatu zuten *Euskaldun berriekin euskaraz* deitu liburua Norbert Tauer-ekin hasten da, nonbait, orain bizi diren euskaldun berri edo euskara adinean ikasi zuenetakoa denez. Merezi du liburu hortan Tauer ber-berak esaten dituenak ezagutzea. Hemen oraindik zalantza duten askorentzat jakingarria bai da. Euskal-Herriak dituen berezitasunak txoratu zutela dio, eta honek bultzaturik hasi zela Campión-en gramatikaz euskara ikasten. «Euskara, munduko hizkuntza guztien artean ederrena ta bere egituragatik harrigarriena da», bere iritziz.

1928-rako agertu zen bere euskarazko artikulu bat Donostiako «Argia» zeritzan aldizkarian. Geroztik, gutunak ez ezik, beste anitz artikulu idatzi izan ditu eta baita zenbait olerki ondu ere. Hauetako batzuk «Olerti» izeneko aldizkarian argitaratu ziren. Bernardo eta Idoia Estornéstarrak «Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco» (Cuerpo B) delakoaren *Literatura*-ren III. tomoaren, 593/596 orrialdeetan aurkituko ditugu hitz-lauz idatzi duenaren agerpen batzuk. Han bertan dator txekoz gure hizkuntza, literaturaz eta kulturaz idatzi duenari buruzkoa ere. Bere lanari esker, gaur, Txekoslobakian ezaguna da gure herria eta bere kultura. Nornahik daki hizkuntza berezi baten jabe garela ere. Praga-ko Odeon inprimategiak argitaratu zuen «*Slovník spisovatelú*» lanean, Europako mendebaldeko hizkuntzen literaturari buruz, han argitaratu zuen, 1968an, Espainia eta Portugal-koeri buruzko tomo bat ere. Katalan ete galegoaz gainera, euskal literaturaren historia ere agertu zuen, Norbert Tauer egile zela. Urte berean, Madrid-eko «Cuadernos para el diálogo» aldizkariak, hain liberal edo ezkertiar izanarren, Penintsulako literatureri buruzko zenbaki berezi bat egin zuen, baina euskarazkorik ez zen agertu. Nonbait, ezagutu ere ez. Holako jokabideen ondoriozkoa zaigu, ezagutzen ez dena maitatu ezina. Eta, Espainiako Unibertsitateetan Filosofía y Letras estudiatu duten euskaldunek ere ez dute izan euskaraz literatura bat dugunaren berririk. Ez dakit literatura bat ondo esana dagoen ere, zeren «bat» hori demostragarri jarri nahi duten ikasientzat ez noski. Hizkuntza bat dagoen lekuan, beti bai dago literatura bat; herri literatura bederen, herriaren nortasuna ezagutzeko baliozkoena dena. Hizkuntza, edonongo hizkuntza, literatura baten jabe baita; eta arrazoi beragatik, hizkuntza, edonongo delarik, kultura berezi baten jabe da. Ukatu ezinezko arrazoia dugu hau. Eta edozein herri normaletako eskoletan erakusten da bertako kultura eta bertako hizkuntza. Gurean horrela ez bada, sar gaitezan anormalitate horren arrazoiak aztertuko dituen gogoetetan; eta bertatik ohartuko gara gure herrian anaitasunezko maitasunean bizi ahal izateko zama astuna jarri zaigun.

Borondate oneko gizonak izan balira munduaren gidara, ez genuen izango holako zama astunik. Norbert Tauer bezalako gi-

Juan Elua, Norbert Tauer eta Juan San Martín, Praga-n 1978ko maiatzean

zonak izan bagenitu gobernarien artean, gure herriak ez ezik, bereak ere beste burubide bat eramango zuen. Gure herria, bere hizkuntzaren bidez, ezagutzea lortu zuen eta, hangoak ezagutu zezaten, bertakoei adiaraziz ezagutaraztera eman zuen. Honegatik, han aurkitu nituen gure herriaren kultura hemengo askok baino gehiago ezagutzen zutenek ere. Hauean artean, baita euskara ikasten ari den bat ere, Karel Keller. Eta, honek esan zidan, nekez ohartuko garela euskaldunok Tauer-ek zenbat maite gaituen

Ekainaren 6an larogei urte betetzean, ondo merezia du euskaltzaleon agurrezko txarteltxo bat eta hala kunplitu nahi duenarentzat hara hemen bere helbidea: Norbert Tauer. Vinohradská, 126. - CS - 130 00 Praga 3. Era berean, lerro hauen bidez, bijoaz gure zorionik kartsuenak adiskide maiteari.

Bere Txekoslobakiako eta Euskal-Herriko oroitzapenez beterik aurkitzen da. Bere zaletasunik handiena euskarazko liburuak dira eta biblioteka aberats baten jabe da. Baina ez hori bakarrik.

Tauer-ek Euskal-Herriko artisten lanak ere baditu, eta beharrezko ditu bere oroitzapenetarako eta bere gogoaren lagungarri. Gainera, berakin harremana izan duten euskaltzale guzien gutunezko karpetak gordetzen ditu, Julio Urkixo eta R. M. Azkue-gandik hasi ta gure egunok artekoetaraino.

* * *

El euskarólogo Norbert Tauer, con quien mantengo relación epistolar desde hace muchos años, el próximo día 6 de junio cumplirá los ochenta años, y es de esperar que reciba felicitaciones de muchos vascos. El no necesita de presentación entre los vascófilos de nuestra generación. Es autor de varias obras en checo sobre la lengua y cultura vascas. Conoce a la perfección nuestra lengua y él hizo la traducción simultánea del discurso inaugural en vascuence de Euskadi en la Pintura 78, que me correspondió disertar en representación del C.G.V., durante la apertura de esta exposición antológica organizada entre la Galería Arteta de Bilbao y Art Centrum de Praga, en esta capital.

Norbert Tauer es un señor que lee casi todo lo que se publica en vascuence y sigue día a día los acontecimientos de nuestro pueblo. Es poseedor de una rica biblioteca de tema vasco y de un archivo bien ordenado con la correspondencia mantenida con vascos desde los tiempos de Julio de Urquijo y R. M. de Azkue hasta nuestros días. Pero, además, ha escrito en vascuence en muchas de nuestras revistas, y en los momentos difíciles para el desarrollo de nuestra cultura, él siempre nos alentó en favor de la defensa del euskara con juicios muy comedidos.

Desde estas columnas reciba el agradecimiento de las atenciones de que fuimos objeto durante nuestra estancia en la capital checa y nuestra más cordial felicitación al cumplir sus ochenta años.

1978 - V - 29

N. TAUER-I GALDEZKA

Joan zen asteko artikuluan aditzera eman genduenez, bihar beteko ditu Norbert Tauer-ek larogei urte. Txekoslobakiako euskaltzale zintzo honek, zalantzarik gabe, hemengo askoren zorion txartelak jasoko ditu. Hola deritzagu, duela hogei urtetik berrehunen bat euskaldunekin gutunezko harremana izan bai du.

Igazko urtean zenbait galdera egin nizkion Tauer euskaltzaleari eta orduan gutunez bete nuena orain pertsonalki osatu dut. Ezinezkoa zait hemen dena agertzea, baina bai zerbait funtsezkorik irakurlearen adigarri.

Aurrekoan esaten genuen, 1928-rako hasi zela hemengo «Argia» aldizkarian euskaraz idazten. Hola dakar Kintana eta Tobarren «Euskaldun berriekin euskaraz» deritzan liburuak. Baina, zerbait lehentxoago, 1926 edo 1927. urtean, uste du, euskaldunen batekin gutunezko harremanen eskarizko deia eginaz argitaratu zuela lehen lehena «Argia»n. Dena dela, 1926-35. urteetan, «Argia» ez ezik «Euzkadi» eta «Jaungoiko-zale» aldizkarietan argitaratu zituen zenbait artikulu. Damu da haiek gorde eza. Baina, orain, 1945etik argitaratutako artikuluen bilduma bat prestatzen ari da. Liburu batean argitaratzea ez litzake gauza txarra izango. Gerraondoko gizaldi berrikoak, gure euskaltzaletasunean inori ezer zor baldin badiogu, besteak beste, Jokin Zaitegirekin batean Norbert Tauer-i zor diogu batik-bat. Eta hau esateaz, Zaitegik bere «Euzko-gogoa»ko atarikoen bidez agertu zizkigun aburuak eta Tauer-ek «Azkatasuna» (1946 - X - 15) aldizkarian euskaldun gazteei egin zion deia ditut gogoan.

Tauer-ek, orduan, mende bat dela txeko hizkuntzak izan zuen egoera agertzen zigun; gurea bezala hilzorian zegoala, baina gizaldi berri baten ekintza kartsuak berbiztu eta indartu zuela eta egun literatura gihartsu baten jabe zela, bertako idazleen lanak mundu guziko hizkuntzetara itzultzen zirelarik. «Helburu hontara —hots, euskara salbatzena— iristeko euskaldun guztiek, batean bildurik, lan egin behar dute. Euskararen salbamendua lortu nahi baduzue, beste biderik ez daukazue»; zion bere lan hartan. Gainera, erarik bizienean aitortu zigun: «Neure adiskide maite maiteak, ez ezazue ahantz, euskararik gabe ez da Euskal Herri-

rik izango». Hare gehiago, 1946ko artikulu hartan esango zigun: «Helburu hontara heltzeko beharrezkoa da euskara bakarra eratzea. Eta euskara hau oinarria izango da euskararen ezagutzea euskaldunen artean zabaltzeko».

Nere galderen erantzunez, berberak gogoratuarazi zidan «Euzko-gogoa»n 1951. urtean argitaratu zuen artikulu hura (7-8 zenbakian). Artikulu hau euskal literaturari buruzkoa zen. Garai hartako egoera latza salatzen zuen eta gure jokabidea nondik eraman behar genuen adiarazi, eta euskarak hizkuntza bezala hedatzeko dituen ahalmenak erakutsiaz, berriz ere euskararen batasunera dei egingo zigun.

Handik urte batzuetara, 1959an Mexicoko «Euzko-Deya»n (226 zenbakian) egin zigun beste dei garrantzitsu bat. Euskararen eguna ospatze soilez ez konformatzeko deia zekarren, euskara egunoroko bizitza harremanetan erabiltzea eskatuz eta azken aldian egina zen aurrerapena erakutsiz, esanez: «Azken gerraren ondoko urteetan euskararen egoera ilun iluna zen. Euskararen arerio ankerrek euskara errotik ezeztatu nahi izan dute. Euskarazko liburu eta aldizkariak argitatzen ezezik, baita euskaraz hitz egiten ere eragotzi dute. Horrela eta guztiz ere euskaltzale sutsuek ez dute utzi, eragozpen handiak garaitu behar izan duten arren, beren herritarren artean euskararenganako sua bizia gordetzen. Lan merezigarri honek emeki emeki fruitu ederrak ekartzen zituen. Orain, lan porrokatu horri eskerrak euskaltzaletasunaren gar iraungiezinak zabaltzen dira Euskal Herriko bazter guztietara, euskaldun askoren bihotzak berotuz». Honelakoak izan dira urteak zehar Tauer-ek eman dizkigun kontseiluak.

Bere aspaldiko euskaltzaletasuna bere artikuluak zehar adiaraztetik aparte, bestelako erantzunik ere jaso zuten nere galdera haiek. Eta honetara joango naiz zuzenki. Hara hemen galderantzun batzuk:

— *Hizkuntzaz aparte zer aurkitu duzu gure herri hontan berezigarririk?*

—Hizkuntzaz aparte jakingarriak aurkitzen ditut euskarazko kantak eta Folkloriko ipuinak.

—*Euskaraz irakurri dituzun liburuetatik zeintzuk izan zaizkitzu atseginenak?*

—Euskaraz irakurtzen ditudan liburuetatik atseginenak iduritzen zaizkit Euskal Herriko bizitza eta euskal ohiturak pintatzen dituztenak.

—*Biblioteka aberatsaren jabe zara, batez ere euskarazko liburuz. Zenbat dituzu?*

—«Euzko-gogoa» aldizkarian Euskal literaturari buruz argitaratu nuen artikulu hartan agertzen nuen bezala, euskararenganako neure maitasuna sortu zenetik euskal literaturaz interesatzen naiz eta euskarazko liburu argitaratu berriak ahal ditudan guziak ditut. Lehen zuzen zuzenean erosiaz, baina oraingo denboretan ez zait erraz euskarazko liburuak herbestean erostea, hemendik kanpora dirua bialtzea haizu ez daleko. Baina, neure adiskideei eskerrak, hauen laguntzarekin, azken urteetan argitaratu diren geientsuenak eskuratu ahal izan ditut. Honegatik, neure etxean, euskal liburutegi eder eta aberats bat daukat. Azken urteetan argitara emandako liburuak ez-ezik, baita ere liburu zaharrak, eta hauen artean batzuk egungo egunean txit bakanak direnak. Adibidez aipatuko dizkitzut: «Origen de la lengua Bascongada» izena duen liburu bat, Jon Perotxegik egina, 1760; Chouriok euskarara itzulitako Jesu-Christoren Imitaciones, 1720; eta Larramendiren lanen lehen edizioak, adibidez. Bestalde, euskarazko aldizkaririk gehienak jasotzen ditut, Zeruko Argia, Anaitasuna, Herria, Otoizlari, Gure Herria, Egan, Euskera, Newsletter, Aránzazu. Liburuak, Kuliska sorta, Auñamendi, Ekin eta Auspoa sailetan argitaratzen direnik gehienak hartzen ditut.

—*Bihar edo etzi nori uzteko asmoa duzu?*

—Egia esan, oraindik ez dakit zer egingo dudan liburutegi honekin.

—*Itxaropenez, euskara eta euskal literatura nola ikusten dituzu?*

—Oraingo egoerari begira, euskara eta euskal literaturaren geroa, esperantzagarriak ikusten ditut.

—*Euskara idatziaren batasunari zer deritzazu?*

—Neure iritziz, euskararen batasuna behar beharrezkoa da euskal literaturaren bizitzarako.

Hauek dira lurrez gugandik urruti baina bihotzez hain hurbil bizi denaren iritzi eta opariak. Nikolas Alzola adiskideak, Euskal

Herriko mendi bati edo Tauer izena jartzea eskatzen du euskaltzale kartsu honen oroitzapenez. Euskal Herriko mendi guziak dituzte beren izenak eta, nere iritziz, ez litzake gauza erraza izango izen berri bat errotzea, baina bai merezi luke mendirik handienetako batean, Aizkorrin edo, oroitarri bat araikitzea. Honen beste merezia du guretzat eredugarrizko euskaltzalea den honek.

• • •

El pasado año formulé preguntas por carta al distinguido euskarólogo checo Norbert Tauer, sobre sus inicios en el aprendizaje del vascuence, sus principales artículos en euskara, sus temas preferidos en nuestra literatura, sobre algunas particularidades de la interesante biblioteca que ha conseguido reunir y el destino y sobre el porvenir de nuestra lengua, etc. Ahora he podido completar con un diálogo llevado personalmente y en este artículo de hoy, describo los puntos más importantes de todo lo tratado, cuyo resumen me resulta muy difícil, porque a su vez viene a ser un resumen el propio artículo.

De entre sus artículos que se puedan relacionar con mis preguntas, me recordó los que publicó en las revistas «Azkatasuna», «Euzko-gogoa» y «Euzko-Deya» en los años 1946, 1951 y 1959, respectivamente, en torno a una llamada de concienciación a los jóvenes vascos para responsabilizarse con el problema de la lengua, sobre el desarrollo de nuestra literatura y las óptimas posibilidades que nos ofrece nuestro idioma, y sobre el renacimiento del euskara. El nos marcó algunos ejemplos a seguir, valiéndose de las experiencias vividas con la lengua checa que hace un siglo estuvo a punto de extinguirse, y hoy se habla en toda la nación y sus escritores son traducidos a todas las lenguas del mundo. El, distanciado territorialmente, pero muy próximo cordialmente, nos emitió importantes consejos a la generación vasca de postguerra para resposabilizarnos, y creo que fue el primero en ponernos muy claro que con la pérdida de la lengua perderíamos nuestra identidad y caducaríamos como pueblo.

Hombre de fe con obras, que nos alentó y orientó en los trances difíciles de postguerra y por cuyos méritos la Real Aca-

demia de la Legua Vasca le nombró miembro de honor, es merecedor de un reconocimieto por parte de todo el pueblo vasco y habría que pensar en erigirle algún monolito que perpetúa la memoria de este hombre ejemplar, o se le tuviera en cuenta a la hora de dar nuevos nombres a calles y plazas de nuestros municipios.

1978 - VI - 5

PIARRES LAFITTE POLIGRAFOA

Hara denboraren buruan nola datozen gauzak. 1901eko irailaren 16an euskaldunen biltzar orokor bat izan zen Hendaian, euskararen batasunez eta euskaldunen elkartasunez zenbait erabaki hartu nahirik. Denak ez ziren ados, batez ere ifar eta hegoaldekoen ideiak aski bereziak aurkitu ziren. Baina, gogo baikorrak kementsu zirenez, mugazandikoak behinikpehin, maiztasunez biltzarrak egitea erabaki zuten, eta urtebetegarrenera, lehengo ifartar 31 euskaltzalez gainera beste 84 lagun gehitu ziren eta guzien artean sortu zuten Eskualtzale Biltzarra deitu elkartea. Laguntza giro hortatik, gizonak elkar lanera bultzatuz, euskararen alderako ekintzari abiadura indartsuagoa eman zion elkarte honek.

Asmo hoiek sortu ziren urte berean jaio zen Piarres Lafitte euskal poligrafo handia Lapurdiko Luhoson. Eskualtzale Biltzarraren sortzaileek gutien uste izango zutena da, beren lehen bilera hura baino hilabete batzuk lehenago etorri zela mundura elkarte beraren eragile eta jakitunik handienetako bat. Baina oraingoak bai, jakin dute P. Lafitte-ren nortasunez eta merezimenduz. Honegatik, herenegun, Baigorriko Herriko-Etxean Eskualtzale Biltzarrak urteroko bilera berezia izan zuen eta bereziki P. Lafitte jaunaren omenez izan ere.

Hamarretako meza nagusian J. Hiriart-Urruty bikario jeneral eta euskaltzainak ideki zuen eguneko gaiari zegokiona, bere predikuan Lafitte jaunaren kristautasuna eta euskaltzaletasuna eta

bizitzan zehar eginak dituen lanak goretsiz. Gero. Herriko Etxean, J. Haritschelhar jaunak hauzapez den aldetik biltzarkideak eta Lafitte bera agurtuaz eta gorazarrearen berri emanaz irekiko zuen populuari begira eginen zioten omenaldia, mintzaldi labur batekin jarraituaz. Miltzaldi honen guna, Lafitte hizkuntzalari eta idazle bezala agertuz. Ondotik Emile Larre jaunak jarraituko zion, beste hitzaldi labur batez Lafitte kazetalari bezala agertuaz. L. Villasante euskaltzainburu jaunak, Lafitte euskaltzain gaiaz, nolako emaitzak izan ditugun adiaraziaz. Eta, azkenik. Eskualtzale Biltzarraren buru den aldetik, M. Labegerie jaunak Lafitte euskaltzale eta abertzale gaiaz beste anitz berri emanen zituen gure poligrafoaren bizitzan hain guti ezagunak.

Baina, hor ez zen bukatzen omenaldi guzia. «Herriarena» trinkete berrian, bere obraren ondasunak ere egun herriarenak diren gizon honen ohoretan, herritar bazkaria izan genuen eta ez zen falta izan bertsulari, kantari eta hizlari bikainik.

P. Lafitte jauna haurtzaroan umezurtz gelditu zen eta zuberotar osaben etxera hartu zuten. Hamaika urtekin Belokera eraman zuten ikasketak egitera eta handik Baionako apeztegira. Baina apaiz egitearekin bakarrik ez ziren bukatu, bere ikastaroak, ez; 1928an Letren lizentziatura hartu zuen, eta urte horren inguruan hasi zen euskaraz idazten. Saint Pierre irakasleak konpreniarazi zion euskararen beharra eta euskal kulturaren ezagutza zein garantzizkoak ziren, apaizgoaren bukaeretan ari zela. Saint Pierre zenak antz eman zion Lafitteren izakerari, behintzat, toki onean jarri zuen gure herriak beharrezko zituen frutuak ernetzeko hazia.

Liburu eta liburuxka, hogetahamarrera hurbilduko dira bere izenez eta izenordez argitaratu dituenen artean. Herriarentzako gauza errazak anitz, herrixearekin beti arduratsu izan denez, baina baita lan sakonik ere idatzia du. Bere ikerketak eta saiaerak, hizkuntzaren alorrean, euskal linguistikaz estudiatu nahi duten guzientzat ezagutu beharrezkoak dira. Gramatika, hiztegia, eta hizkuntzaren eta literaturaren historiaz anitz lan sakon emanak ditu.

Baina ikerketez gainera literatura ere landru du, ipuiak, antzerkiak, poesiak eta abar.

Eta, eragile bezala, zer esan? 1934an Aintzina zeritzan aldizkaria sortu zuen, abertzaletasunaren zabalkunderako. Bestalde, hogetahamahiru «Almanaka» atereak ditu. 1944an Herria euskaldun aldizkaria sortu zuen lehenagoko Euskalduna-ren jarraipenez eta gure egunotan astero 5.000 ale plazaratzen dituena. Bere akintza hau Euskal-Herriaren egoeraz jabeturik dator, bere barnetik maiz etsipentsu agertuarren, garaiko egoerak eskatzen duenaren araura bere lanak eskainiaz eta besteak lanera bultzatuaz. Egunean egungoari helduaz eta egunean egungoa eskainiaz, herrikulturaren iraupenez eta zabalkundez eten gabeko lanean.

1924an egin zen apez, 1961etik Baionako katedraleko kalonjea dugu, baina berrogetakak urteak daramazki Uztaritzeko apeztegi tipian irakasle. Han du bere euskal liburutegi aberatsa eta han burutu ditu bere barne gogoz sortu zitzaizkion lanak.

1949an, Euskaltzaindiak gerraondoko ekintzak berriztatzean, laguntzaile izendatu zuen eta 1952.etik euskaltzain oso dugu. Euskera aldizkarian argitaratuak dira Euskaltzaindiko batzarretara aurkeztu dituen txostenak. Guziak bildurik liburu ederra egiteko haina lan: hizkuntzaren egituraz, hiztegiaz, literaturaz, eta abar. Denak dira jakingarriak. Bera inoiz ez da sartuko, edo hobeto esan, inoiz ez da eroriko bizantinokerizko auzietan; adibidez, h bai edo h ez. Nahiago izandu irakaspen praktikoak eman, denboraren balioaz dakienez, zeren deborakorik ez zuela galtzeko, hala erakusten digute bere lan ugariak, ugari bezin onak, naiz jakintza mailan eta naiz herrikoi mailan.

Saint Pierre zenaren irakaspenetatik hasi eta gaur arte, aspaldi euskal-mendian begiztatu zuen mizpirondoaren hazitze eta burutzearen sinboloz ohorezko du egun euskaldun makila, 1932an Piarres Ithurralde izenordez argitaratu zuen kanta liburuxkan datorren bertsu politak dion bezala:

Begiztatua nuen aspaldi mendian
Mizpir ondo xuxen bat sasien erdian.
Handitzerat utzi dut eta harrekila
Aurten egin dut nere... eskualdun makila.

* * *

El pasado sábado, día 22, tuvo lugar en Saint-Etienne-de-Baïgorry un homenaje popular al polígrafo reverendo Pierre Lafitte. Aunque el homenajeado era nacido en Louhossoa (Labourd), su padre era natural de Baigorri. Dicho homenaje estaba organizado por Eskualtzale Biltzarra. Dio comienzo con una misa concelebrada, con un sermón por el vicario general de la Diócesis de Bayona, el reverendo J. Hiriart-Urruty, quien ensalzó la vida y obra de P. Lafitte. Y, a continuación, en las salas del Ayuntamiento, el Sr. J. Haritschelhar, alcalde del municipio y vicepresidente de la Real Academia de la Lengua Vasca, tras un saludo de bienvenida a los asistentes, disertó sobre Lafitte como lingüista y escritor. Acto seguido tomó la palabra E. Larre, director del semanario Herria, quien hizo una exposición del homenajeado por su vertiente de periodista. L. Villasante, presidente de Euskaltzaindia, trató del hombre académico y su aportación a los estudios en la Academia. M. Labeguerye, presidente de la entidad Eskualtzale Biltzarra, disertó sobre el aspecto humano, vascófilo y patriota P. Lafitte. Para finalizar hubo comida de hermandad y en la sobremesa actuaron bertsolaris y cantantes.

Es imposible resumir en un artículo la vida y obra de este intelectual de gran talla. Nacido en 1901. Sacerdote y licenciado en Letras. Profesor en el Seminario de Ustaritz la mayor parte de su vida y canónigo honorario de la catedral de Bayona. En 1934 fundó la revista político-cultural «Aitzina», y en 1944 el semanario «Herria», como continuación de «Euskalduna». Llegó tarde a ingresar en la Academia de la Lengua Vasca, si juzgáramos por los méritos alcanzados mucho antes del año 1949, fecha en que se le nombró miembro correspondiente. Desde 1952 viene siendo miembro de número activo en Euskaltzaindia, y los informes que va presentando con cierta asiduidad son el exponente de un hombre bien formado y bien informado en torno a las estructuras de la lengua, su literatura, su historia, etc. Un nato investigador, que a la vez a seguido cultivando temas populares en sus artículos periodísticos y en otros campos literarios, como son el teatro, la poesía, cuentos, etc.

Entre libros y folletos lleva publicados una treintena de títulos, aparte de sus miles de trabajos desparramados por las pu-

blicaciones del país. Su *Grammaire Basque* (1962), por ejemplo, es un libro imprescindible para cuantos quieran introducirse en el conocimiento estructural del vascuence. Y de entre sus mubajos, es la persona que más ha contribuido en la composición del atlas lingüístico del país vasco de Francia, en colaboración con Jacques Allières.

1977 - X - 24

JOKIN ZAITEGIREN KEMENA (I)

«Bai euskarari» jarrera hartu zutenen artean eredugarria dugu Jokin Zaitegi mondragoar jatorra. Euskararen alde bere bizitza guzia eskaini zutenen artean ez da izango beste gizon bat Zaitegik haina eman duenik. Gizon kementsua, ekintza handi eta luzeak aurrera eramateko dohainez betea, bere osasuna eta ondasuna euskararen alde eman dituena. Batere zalantzarik gabe egin nezake aitorpen hau.

Izan ere, gure gizaldi hontan euskararen alde lan egiteko beharrezkoa zen kementsua izatea eta kementsurik aski ezagutu dugu gure inguruan. Baina hoien artean ere bakana eta eredugarria dugu Jokin Zaitegi eta Plazaolatarra. Beronek lan asko egin badu ere, beste asko lanbidean jartzeaz egin zuena ez zen izan ekintza tipiagoa; ez horixe!

Historiako ilunaldietan argi bila dabilenak berakin izaten ditu arriskuak, eta holako urte ilunak ezagutu zituen gure gizon honek. Arriskuari aurpegia emanaz, eginahalak egin, euskara bizi dadin, eten gabeko borrokari helduaz aritu zen, ekin eta eragin. Hau bezalako beste bat ez dut ezagutu. Berakin zorretan nintzen, zorretan bere ekintza kartsua lerro hauen bidez gure herriari adiarazteaz eta zorretan nere barne-gogoan egiazko euskaltzaletasuna iratzartu zuelako. Nere ideietan abertzaletasunaren lehen urratsak pizten zirelarik, nerekin nuen euskararen alderako joera ere, baina beste inork ez nindun bultzatu Zaitegik Euzko-gogoaren atarikoetatitk agertu zituen arrazoiak haina. Orduan uler-

tu nuen euskararik gabe ez zela Euskal-Herririk.

Gaurko gazteen artean, behar bada, ezagunagoa izango da aintzinako klasikoen itzultzaile bezala, Sopokel, Euripide eta Platon-en lanak euskaraz jarri dituelako. Baina hau ez da izan bere lan bakarra. Olerkari mailan, 1934. urtean Euskaltzaleak Zarautzen eratu zuten sariketaren irabazle izan zen «Tori nire edontzia» zeritzan poemarekin. Eta orduan eskaini zuen edontzitik nork ez dugu edan? Bere edontzia herriari eta euskarari eskainitako poema zenez, ondorioz, eten gabeko eskaitzaz jarraitu bai du. Bere poemak oso landuak dira, txukun eginak, kultur maileta gora doazenak. Aintzinako klasikoak hartu zituen eredu eta haien arabera landu. Landutakoen emaitzaz, 1946an argitaratu zuen Mexico-n *Goldaketan* deritzan liburua. Han bertan biltzen du arestian aipatutako olerkia, Zarautzen saritua. Eta, han bertan argitaratzen du beste poema epiko luze xamar bat gure jatorriaren adiarazgarri, «Eusko-artzaiarena». Bere adibidez, berrogeigarren bertsoa har dezagun:

Gure aitonen aitak
ez ditugu iñongo,
euskal-erriko baizik.
Gu ezkera iñoizko.
Izkeratzat euskera
dugu sekulako:
Euskadik euskalduna
du bere kabiko.

Hara hor inoiz erabilitako ideiak bertsoz taxutuak. 1934an Marneffe-n ikasle zen artean herriminez eginak. Ikastaroak bukatuta Ameriketara joan zen. Han, Guatemala-ko San Karlos ikastetxe nagusian Greziako klasikoen irakaskintzak eman zituen, eta han zaletu zen nonbait Platon eta besteen lanekin. Gero, urtean zehar, eten gabe, haren elkarrizketak itzultzen aritu da. Hiru liburu argitaratuak ditu. Bere patrikatik argitalpenok ordainduaz gainera. Platon-en lanen hiru liburu hoiez gainera, esan bezala, Sopokel eta Euripiderenak.

Baina, bestelako ekintzarik ere izan zuen. Gure historian beste

inori ez bezalako kultur aldizkari bat sortzea bururatu zitzaion. Kultur aldizkari bat euskara hutsean, non eta Guatemala-ko puntan. Guatemalan, ber-berak Lizeo Landibar sortu ondoren, 1950-ean, euskara lurperatuen zegoen garai hartan, itxaropenok behea jota genituen garaian, hara non sortu zen izartxo bat, itzalean argi egitera zetorrena: «EUZKO-GOGOA». Hura bai zela, BAI EUSKARARI.

Adore handia behar zen garai hartan eta toki hartan holako aldizkari bati lotzeko; lotu, ekin eta jarrai. Gero, hamar urteren buruan nabarmena izan zen bere lana. Berekiko gogoetan zer egosten zen, hasiera hartan argitaratu zuen olerki batek adiaraziko digu:

Bi bide aurki nitun oianaren urbil:
bidazti bakarra ni, biak ezin ibil.

Ibilgabeagoan egin nun indarra:
nire bizitzan ori dut alde bakarra.

Gizona bere bakardadeko burutapenetan ari zen. Bide berriak urratu nahi zituen, zeru-minez eta aberri-minez. Honela aritu zitzaigun «Negu-miñean» deritzan olerkian:

Neguminpean dugu Aberri osoa,
gogorik ez urritu euskaldun zintzoa!
Liliz, txoriz ta zituz beterik geroa,
badatorke euskaldun zintzoen aroa.

Etsipenik gabe, ekintza alorrari helduaz; horrela aritu zen urte latz haietan. Amaika neke menperatu beharra izan zuen aldizkaria aurrera eramateko.

Hemen, orduan, euskaraz idaztea konpromisoa zen. Gerra aurreko idazle asko herbesteraturik ziren eta haiek idazten zuten gehien bat. Hemen bizi zirenek beldurrez isilik. Baina gizaldi berri bat loratu zen aldizkariaren inguruan. Gerraondoko lehen idazle berriak, euskararen egarriz edo Zaitegi bezala, euskararen gogoz. Harrera ona izan zuten, eta Zaitegiren partetik nahikoa

pasientzia ere beharko zen eta bazen hainbeste pertsona desberdin bere aldizkarian bildu zuelarik. Hirugarren urtean (1952); Krutwig, Gorostiaga, Jautarkol, Gandiaga (Orbelaun izenordez), J. Garate (Eneko Mitxelena izenordez). Ondorengoan Iratzeder, Bordari eta Kerexeta. 1954an Aresti eta beste batzuk.

Tristea zen gure orduko egoera. Herri sakabanatuetan, euskaltzale guti batzuk ari ginen, soil soilik, hizkuntzaren alde zerbait egin nahirik. Gogotsua behar zen izan ilunpe hartatik euskararen alde zerbait egiterik nahi baldin bazen. Euskaltzale guti haien lehen aldiz gidatzaile agertuko zitzaigun izarra «Euzko-gogoa» izan zen. Bere zuzendaria, poeta ameslari bat, euskaragatik inork ezer emango ez zuen garai hartan, Euskal-Herriko eremuan oihuka hasi zena. Euskal-Herri Euskal-Harri, Arestik berak baino lehenago oihukatu zuen. «Argin zarra»ren poemaren oihartzunak iratzarri zuen orduko gogoa. Hauek ziren olerkariaren profesiak:

Erriko arrobian
ari nauzu argin,
eten gabe diardut
gau ta egun, ekin!
nekeak leporatuz
biotz-eskuak min,
nere amets ederra
egi biur dedin.

Oraingo euskaldunek
ezin dute uler
zoritxarrez damurik
nere lanen ezer.
Geroko olerkariek
adituko laister
eta alegin gorriok
iritziko eder.

Eskuko daitenean
Euskal-Aberria,

artu, olerkariok,
nik landu arria:
Andragoi-burutzean
beti ezarria,
nere zain-odoletan
gorritu-pitxia.

1952ko abenduan egindako olerkia duzu, irakurle. Holakoak ziren «Euzko-gogoa»ko oihartzunak. Urrengo batean azalduko ditugu atarikoetan zuzendari hark esanak. 1959an bere ondasunak aitu artean jardun zen aldizkaria argitaratzen. Gure hizkuntzan inoiz ezagutu ez zen bezalako aldikaria, era askotako kultur gaiak bilduaz. Lehen aldian Guatemalan, 1955era arte, eta bigarren aldian Miarritzen, 1956tik 1959ra arte. Diru gabe itzuli zen Ameriketara. Bere kemena ez zen nolanahikoa, eta hiru urte barru agertu zen «Berriz ere goldaketan», Sisifok bezala, eroritako harria berriz zutituaz, lan eta lan, jo ta ke.

* * *

El hombre más entregado a la causa del idioma vasco, probablemente de toda la historia, ha sido Joaquín Zaitegui, de Mondragón, quien obtuvo el primer premio de poesía de «Euskaltzaleak», en Zarauz, en 1934, con el poema «Tori nire edontzia».

Zaitegui, especialista de la literatura clásica de la antigüedad, es traductor de las obras de Platón, Sófocles y Eurípides. Su laboriosidad no tiene parangón, y su entrega a la causa del vascuence, tampoco. Por los años treinta, después de acabar sus estudios eclesiásticos en Marneffe, dejó la Orden Jesuita y marchó de misionero a Guatemala, y en la Universidad de San Carlos fue profesor de los clásicos griegos. Tras fundar el Liceo Landíbar en la capital guatemalteca, en 1950, fundó la revista cultural «Euzko-gogoa», enteramente en vascuence y abordando temas que hasta entonces no se habían escrito en euskara. Aquella revista, y por aquellos años, cuando todo parecía muerto para el idioma vasco, fue el clamor para un nuevo renacimiento. Agrupó en sus páginas a la mayoría de los escritores en el exilio,

a algunos pocos del interior de nuestro país y en ella hicimos nuestra aparición los de la generación de postguerra.

Si la revista era importante, no era menos importante el hombre que la guiaba. En editoriales que encabezaban cada número y en muchas poesías del que dirigía, nos venía el mensaje y el aliento en aquellos años tan difíciles. En1956, Zaitegui trasladó la redacción de su revista a Biarritz, para atender mejor, y continuó su publicación hasta agotar sus ahorros particulares, y en 1959 tuvo que volver a América, donde, a pesar de los desánimos, continuó con las traducciones de Platón y publicó su segundo libro de poesías. Estas poesías son de corte clásico, donde la lírica y épica se funden hacia un concepto moderno. Y es él quien toma el símbolo de piedra vasca, antes que Gabriel Aresti, para labrarla y pulirla. Toda su preocupación estuvo orientada a la remodernización y revitalización del vascuence, a cuya causa entregó todo su ser.

1978 - VI - 19

JOKIN ZATEGIREN KEMENA (II)

Euskaldun erara itzetan laburra,
goldean ari naizu lenago bezala:
otadi-okuntzak labakitu-ala
ereingiro daiten arbasoen lurra.

Hamalaudun oparotsu baten bidez eman zion Zaitegik *Berriz ere Goldaketan* olerkigintzari jarraipena, ekaizpean bizi ondorean ere, bere barne-gogotik laño beltzik igaro ez balitz bezala. Aberri-mina zuen eragile. Liburu honetan, Miarritzen 1961era arte osatu zituen olerkieri urte bete geroago Guatemala-n gehitutakoak ezarri zizkion. Bere kemenaren adigarri, hor dator euskal-ikurriñari eskainitako epika, larogetasei bertsoz hornitua.

Goldaketan (1946) eta *Berriz ere Goldaketan* (1962) dira olerki bildumen izenak. Berak egin itzulpenetatik aipagarrineak: Long-

fellow-en *Evangeline* (1945), *Bidalien Egiñak* (1955), *Sopokel'en Antzerkiak* (1946 eta 1958), Euripide-ren *Medeia* (1963), baina batez ere Platon-en elkarrizketak. Guzietan goretsigarriena azken hau. Atarikotzat atera zuen lehen tomoaz aparte beste hiru liburu dira orainarte argitaratuak eta hauetan sartzen dira: *Platon-eneko atarian* (1962), sarrera gisa; *Platon I* (1975), Oturuntza, Protagora, Menon; *Platon II* (1977), Gorgia; eta *Platon III* (1978), Eutifron, Sokrate-ren apologia. Hirugarren tomo hau argitara berria da, eta esan beharrean naiz Arrasateko herriaren laguntzari esker ikusi duela argia.

Jokin Zaitegi, esana dugun bezala, Mondradoen jaioa da. Hil honen 26an beteko ditu 72 urte.

Bere gaiak Unibertsitaterako euskarak beharrezko dituen tresnak, herri xehearentzat hain ulerterrezak ez izanarren, bere ekintza eredugarri honegatik, bere sorterriaren begiramena irabazi du. Hala dirudi, eta txalogarria deritzagu arrasatearren jokabide honi.

Holako lanak egiteko gizonak urri dira edonon ere, eta holako lanak beharrezkoak izaki euskara Ikastetxe Nagusietara eramango badugu, eta eraman beharra dugu euskarak luzaroan iraungo baldin badu. Iraupen honi begira dago gure herriaren izan edo ez izana.

«Euzko-gogoa» argitaratzen hasi zenean, Unibertsitate mailak zituen gogoan: 1954ko lehen alearen «Ataurrekoa»n hara zer zion: «Gizon ikasiak euskerarenganatu nai ditugu. Ortarako oraindik landu-gabe zeuden gure alorretan ildo berriak urratzen asiak gera. Euskaldun euskerak egin gaitu, beraz, euskera gabeko Euskadi'rik eztugu opa».

Honegatik, Eusko Ikaskuntzaren Batzarra bera ere salatuko zuen, beren lanak, batzarrak, agiriak eta abar erdaraz egiten zituztelako: «Nola liteke Eusko-Ikaskuntza-Batzarrak antzu gertatzea? Itz gutxitan azalduko dizuegu gure erantzuna. Batzarre orietan, maizenik, gure izatearen erro ta gogo dan euskera, lotsagarriro baztertu oi izan dutelako. Eusko-filologiaz, euskal-edestiaz, euskal-folkloreaz, gure erriaren agerkari guztietaz ekin diete, bañan beti erderaz. Euskerak ez du iñoiz ere batzarre orietan bere arpegi ederra erakutsi; alderantziz, noragabe eta eskale ibi-

li izan da iakitun erdel-zaleen artean zapuztua ta baztertua». Hola aitortu zigun «Euzko-gogoa»-ren atariko batean (ikus, 1954ko 3-4 zenbakian).

Zaitegiren gogoa zen «Asmoz ta jakintzaz»ko lema, baina euskaraz. Honegatik, behin eta berriz errepikatu zigun euskararen alde kementsu agertzea. Atariko berean zion: «Erotuta gaudela esango dute zenbait iakitun erdel-iarioek. Bai, euskerarekin zoratuta gaude, ta euskerak beste euskotar guztiei burutik eragiten ez dieneño galdurik gaude. Ikusi dugu zuen gurbiltasunak, zuen zuhurtziak noraiño eraman dituen gure aberri-izkera eta gure erria. Aski zuurtasunik eta betorkigu euskal-eroaldi betea, gure izkera ederraren oiartzunez, Euskadi'ko muga urrutienak ere beteko dituen euskal zoro-aldia».

Garai haretan, holako hitzez, bere kemenetik gure gogoa iratzartu zuen. Geroago eta zihurrago geuden euskararen zuzpertzetik sortuko genuela gure herriaren berpizkundea.

Zaitegik behin eta berriz esana, ez zen hutsean erori. Gizaldi berrikoentzat ari zen eta hortik zetorren belaunaldi berri bat, idazle eta ikastola sortzaile aurrenengo zirela. Bere ideiak tinkoak ziren eta bere hitzak garbiak bezain argiak. 1955. urteko lehen zenbakiaren atarikoan, hara zen zion: «Ez du inork zertan arritu gure erriaren osagailurik egiazkoena EUSKERA dala badiñogu. Euskerak iraun zun bitartean gure erriak ere erri iraun zun, gogo ta lurraren iabe. Euskeraren ondamendiak aldiz, erriarena ere ekarri digu euskal-gogoarenakin batera. Etzitekean bestela izan ere, izkera baita erriaren arima ta izkera galduz gero erriarenak ere egin du».

Zenbat ziren garai hartan euskaragatik edo euskararen alde zerbait egiteko? Abertzaleen artean bertan ere, zenbat ziren beren haurrei euskaraz egiteko? Gaur besterik da. Egia handia hau ere. Baina, kontuz, eta ez ahaztu orain hemen jasotzen ditudan orduko esanak. Ez ahaztu eta eutsi irakaspen eder hoiei, oraindik ere bide luzea dugunezkero.

* * *

Zaitegui fue un hombre incomprendido por su empeño en

llevar adelante la ardua empresa que suponía el publicar una revista cultural enteramente en vascuence. Apenas recibió ayuda y comprensión en el mantenimiento y prácticamente se enfrentó en solitario para sacar «Euzko-gogoa» desde 1950 hasta 1959. Al agotársele sus ahorros volvió a Guatemala, donde rehizo su vida para continuar con las traducciones de los clásicos y editar su segundo libro de poesía.

Entre los vascos exiliados o residentes en el extranjero, acostumbrados a desarrollar temas vascos en castellano, no era tarea fácil conseguir ayuda para las publicaciones en vascuence. Ha sido un mal general en nuestra propia historia el ensalzar las virtudes del idioma patrio hasta sublimar como un fenómeno sobrenatural, sin tener en cuenta que la función principal de toda lengua es utilizarla como vehículo de comunicación. Pero, Zaitegui, fiel a nuestro idioma, ha sido un hombre de la fe con obras. Sabedor que para nada sirve cantar las excelencias de la lengua milenaria en otro idioma. Esta fue la lección que nos dio desde la revista por él creada y dirigida.

Por esto, su mayor preocupación ha sido la de preparar los materiales necesarios para las enseñanzas superiores, como principal medida para elevar y ennoblecer la lengua. El, por su dominio del griego, se entregó con preferencia a las traducciones de autores de la literatura antigua. Aparte de una obra de Longfellow ha traducido los Hechos de los Apóstoles, *Medeia* de Eurípides, las tragedias de Sófocles y los Diálogos de Platón, del que lleva publicados un estudio de introducción más tres tomos. El último, *Platón III*, acaba de publicarse gracias a la ayuda popular recibida en Mondragón, villa natal de Zaitegui, y corresponde a las partes de Eutrifón y la apología de Sócrates. Anteriormente, en los dos primeros tomos, vieron la luz el Banquete, Protágoras, Menón y Gorgias.

Joaquín Zaitegui, el próximo día 26 cumplirá 72 años y su única ilusión es la de ver publicadas las obras de Platón, a cuya traducción ha dedicado muchos años de su vida.

1978 - VII - 3

MATTIN BERTSOLARIA

Ekainean omenaldia eskaini zitzaion bere sorterrian Mattin bertsolariari. Mattin, bertsolarien historian betiko itsatsita gelduko zaigun izena da, eta ongi merezia zuen omenaldi hori. Tamalez, hauteskundeak zirelata erdi txoraturik ibili garen garaian izan zen eta honegatik ez zuen izan behar hainako hotsa.

«Herria» astekariaren 1401 zenbakiaren orrialdeetatik ikusi dugunez, behar hainbat jende ez bazen ere, erakunde aldetik ongi muntatua izan zen: hermezarekin hasi eta bertsolariekin bukatzeko. Han ziren hiru Enbeitak, Ezponda, Lizaso, Alkat, Xanpun, Mendiburu, Lazkano, Mixel Aire (Xalbador zenaren semea), Gorrotxategi, Azpillaga eta beste. Baina eguna ez zen ongi hautatua eta jendez urri izan zen jaialdia.

Mattin Treku Ahetzen sortu zen 1916ko urriaren hamaikagarrenean. 17 urterako plazaratu zen bertsolari bezala eta gaur ez da euskaldunik Mattin ezagutzen ez duenik. Egia esan, gipuzkoarrek 1971ko urtarrilean eskaini zioten berebiziko omenaldia, Donostian bertan. Hala ere, orduan Manuel Lasartek esan zionarekin gaude:

iñortxok ere ez dizu egingo
merezi baiño gehiago.

Eta hala gertatu da bost urteren ondotik, merezi zuen hainako omenaldirik ez egitean. Honegatik, gaurkoan, bere oroitzaren zordun gatoz.

Mattinek, bertsolaritzan duen berezitasuna bere humore bizia da. Gogoko izan bai du jendea alai ipintzea. Donostiako omenaldiaren garai hartan Auspoa Liburutegiak argitaratu zion *Ahal dena* deritzan liburuan ere bere humorezko etorria nabari da. Adibide baterako, liburuaren 137/138 orrialdeetan dakarrena jasoko dugu. Juan Mari Lekuonak honako gai hau jarri zion, Mattinek Donostian moda-denda bat jarri zuela, *boutique* esaten dioten hoietakoa eta hortaz hiru bertso osatu beharra zuen. Gai egokia humore zale batentzako:

Modaren esplikatzen
behar dut nik hasi, (bis)
gazte maiteak, hori
behazue ikusi;
oraiko moda hori
ezpaita itsusi,
modan emanak ditut
arrop'eta guzi;
gaztiek orai modan
bihar dute bizi!

Moda gustagarri da
gazte horietan, (bis)
dendarat heldu zaizkit
denak lorietan;
pintur'urdiña eman
behar begietan,
eta luzetasuna
bada ilietan;
neska gehienak berriz
ezpain gorrietan.

Gaztien gostukoa da
beti moda berri, (bis)
moda segitzen dut nik
berdin arropari;
pulitagoa dela
neri zaut iduri,
aski duzue beiratzea
neska gaztieri:
zoiñen pulitak diran
ixterrak ageri!

Holako gaiak ditu Mattinek gogoko. Gainera, plazaratzen den bakoitzean *clown* edo bufoi bezala agertu nahi du. Baina inork ez dezala pentsa arlote buruarin horietakoa denik, ez. Zentzu handia du Mattinek, eta hala behar ere bera den bezalakotik bes-

teak humorez jartzen ahalegintzen delarik; jendea pozez ikustea bai du gogoko. Baina bere sentipenak hain ongi ezagutzera heldu zen Xalbador adiskide minak bazekin nondit hartu behar zuen. Añorgako suieta batean Aranaldek hiru bertso eskatu zizkion, Paris-en zuen semeari eskainiak. Bere hiru bertsoak politak baziren ere, ondotik Xalbadorrek eskaini zizkionak ez ziren gutiago, han bertan Mattin negarrez jartzeraino. Hoiek ezagutu nahi dituenak ikus beza *Odolaren mintzoa,* Xalbadorren liburua, 163/169 orrialdeetan.

Esan dugunez, hamazazpi urtekin hasi zen bertsolari. Jakingarria da zerk eraman zuen horretara. Sarako jaietara joan zelarik, bertsolari bat bakarra agertu zen hango plazan, Luhusoko Larralde, Panpale esaten ziotena. Bakarrik ari zen, esanez orduko gazteak ez zutela bertsotarako joerarik; nahiago zutela ostatura joan eta mozkortuaz han egon; ez zirela lehengoak bezalako gazteak... Hori entzutean lagunak behartu zuten Mattin, jakinaren gain horretarako dohainak zituela. Lagunak eraman zuten eta Panpaleren ondoan jarri mahain baten gainean. Eta, hantxe, nahi ta nahi ez, hasi egin behar. Geroztik ez da Euskal-Herrietan plazarik Mattinen abotsa entzun ez denik.

Urte askoan Xalbadorrekin eskuz esku aritu izan zen. Uste zen, Ifarreko Euskal-Herri hartan bertsolariak aitu zirela, baina Mattin eta Xalbadorren ekintzari esker, bertsolari berrien loratze baten aurrez aurre gaudela esan genezake. Hala ere, Mattinek urtetako lagunik minena falta du. Baxenabarretik Lapurdira inoiz dei egin zionaren laguntza:

Agur eta ohore, Ahetzeko Mattin!
Hea non bizi ziren nahi nuke jakin;
ez gira aspaldian egon elgarrekin;
egun gogoa zeraut zure alderat jin;
hurbilago bazintut banuke atsegin.

Punta batetik bestera, bertso gogoak eraginik mugitzen ziren haietaz zer esan? Mattinek berak Xalbadorren hainago gogoa zuen ahalik maizen elkarren artean bertso saioak egiteko, eta adiskidea gaixoturik jarri zenean, entzutekoa zen Mattinen otoitz

erako dei hura:

Medikua, arroit zaite
Xalbador operatzean:
zonbat gauza eder dagon
gizon horren bihotzean;
gau eta egun ariko naiz ni
horrendako otoitzean,
gero ere kanta dezadan
lagun horren sahetsean.

Eta gure bertsolari goretsia heriotzak eraman zuenean inor ez zen aurkitu Mattin baino bakartiago.

Guk ere, «Agur eta ohore, Ahetzeko Mattin!», bertsolari jator aipagarrienetan toki berezia merezi duzun horri.

* * *

Durante el mes de junio el bersolari Mattin ha recibido un merecido homenaje popular en la vecina Lapurdi. Coincidiendo con las fechas de las elecciones, a los vascos de esta parte del Pirineo se nos ha pasado sin pena ni gloria, cuando en otro momento hubiera recibido el agasajo de miles de seguidores de esta modalidad de literatura oral a la que tan aficionados somos la mayoría de los vascófonos.

Los que siguieron fieles al homenaje fueron los propios bersolaris vizcaínos, guipuzcoanos y navarros, que actuaron con otros del país vasco de Francia en una jornada inolvidable.

El conocido Martín Trecu «Mattin» comenzó su carrera de bertsolari con actuaciones públicas desde una vez que a sus dieciséis años se vio en apuros en las fiesta de Sare, cuando sus amigos le empujaron a formar pareja con el único que había subido al estrado, el viejo «Panpale». Desde entonces, Mattin, que el presente año cumple sus 61 años, ha actuado ininterrumpidamente en las plazas y salones de todo el País Vasco, siendo la mayor parte de su vida la pareja inseparable del inolvidable Xalbador.

Mattin (Sara, 1960)

Para Mattin, que es un gran humorista, el bersolari es para divertir al público, y por esto las más de las veces aparece como un bufón; pero, sin embargo, en numerosas ocasiones ha dado muestras de componer versos sentimentales, como se puede comprobar en su libro *Ahal dena*, que la colección Auspoa publicó en 1971.

Muchos guipuzcoanos recordarán de sus actuaciones en esta provincia al Mattin que compuso aquellas tres graciosas estrofas de pie forzado, como el propietario de un *boutique* en San Sebastián, pero a la vez al Mattin que derramó sus lágrimas en la plaza de Añorga al verse obligado a dedicar tres estrofas a su propio hijo ausente del hogar donde viera la luz. Estas últimas se recogen en el libro *Odolaren mintzoa*, de Xalbador, seguidas de otras que le dedicó su malogrado amigo.

Las constantes actuaciones de esta pareja, Xalbador y Mattin, han despertado tanto interés entre los aficionados que en pocos

años han surgido numerosos seguidores, allí donde se creía que con ambos acababa la cantera de bersolaris.

1977 - VII - 4

ETXAHUN-IRURI KHANTAN

Mugia muga dela, argi dago. Duela berrogei urte R. Plandé jaunak «Pyrénées» aldizkarian, jakitun mailan ez ezik zientifikoki agertu bazuen ere, Pirineoa ez zela muga naturala; denboraren buruan politikazko mugak geroago eta gehiago bereizten gaitu Euskal-Herriaren ifarraldeko anai euskaldunengandik. Zorigaiztoko muga herri bat modu horretan zatitzen duena.

Mugak berakin dituen ondorioegatik, Ifar Euskal-Herrian hain arrakasta handia izan duen Etxaun-Irurikoren omenaldiak hots guti izan bai du Hegoalde honetan.

Uztailaren 24an, «Atharratzen Besta eta zer besta! Berrehun eta berrogei'ta hamar dantzari eta phastualkari zaharrek laidatuk die Etchahoun», zion Mauleko «Le Miroir de la Soule» deritzan hamabosterokoak 531. zenbakiaren lehen planan, eta uztailaren 28ko «Herria» asterokak, plana bat eskaintzen zion omenaldi horri, baina hemendikaldean apenaz izan du entzute handirik.

Bere ohorez 250 dantzari eta pasturalkari bildu zituen jaun hori nor dugu? Gure artean ez hain aski ezagutua, gure buruen kalterako.

Iruriko Etxahun, bere izen-deituraz Pierre Bordaçarre, 1908an sortua, anitz kanta eta zortzi pasturalen egilea dugu, eta eskola zaharreko koblakaria. Hauek dira berak gertatutako pasturalak: *Etxahun-Barkoxe* (1954), *Matalaz* (1955), *Berterretx* (1956), *Santxo Azkarra* (1965), *Le comte de Treville* (1966), *Txikito Kanbo* (1967), *Pette Beretter* (1972) eta *Iparragirre.*

Gure alde hontan hain entzuna den «Agur Zuberoa» delako kantaren egilea da Etxahun-Iruri. Zuberotarra izatez, beste Etxhaun hura bezala, mende baten ondorean euskaldunon zorirako etorria. Ez doa lehengo Etxahunen ildo beretik, poeta be-

zala ere ez da maila berekoa, honegatik, Barkoxekoari eskaini zion pasturalean zintzoki aitortuko zuen:

Gure zazpi probintzietako
Euskal Herrik'ederrena
Bihotzak dio zira Xibero
Arauz beitzütüt maitena
Zure mendi ibar ederrak
Zure Mari-Maidalena
Eta horien ororen gaiñetik
Barkoxen Etxahun zena.

Uhure arren Barkoxerat
Egün jin den mündiari
Jinik delakoz orhitzapenez
Gure koblakari zena
Haren pareko orano nihur
Nihune ez da ageri
Esker mila erranen deiziegü
Eta lüzaz osagarri.

«Xiberutarra kantari» esan ohi da, eta Zuberoak historian zehar izan duen nortasun indarra eta kemena nabari dira Etxahun-Irurikoaren lanetan. Anitz urteko emaitzaren eskergarri eskaini zaion omenaldi hau ongi merezia zuen.

Makhila, txülüla, tabala, Xiberuko inganiuak, hala dion Jakes Larrondo xiberutar prestuak argitaratu duen liburu ederrean. Larrondo delako jaun hau kezkati eta arduratsu ari da Zuberoako folklorea biltzen, eta lan hauen arteko dugu «*Etxahun-Iruri khantan*» deritzan liburu argitara berria, Jakes Larrondok bere lepotik egina. Liburu honek, P. Bordaçarre Etxahun-Irurikoren kantarik aipagarrienak biltzen ditu. Oso apain prestaturiko liburu honek, bere 21 x 15 zentimetru neurriz, 276 orrialde ditu. 95 kantaren doinu pentagramak ere agertzen ditu. Paper onez eta 25 argazkirekin jantzia dator. Pabeko inprimategi batean txukun egina Etxahun-Irurikoren omenaldirako.

Liburu estimagarria benetan, herri literaturaren giharretik

irtena den hau. Madaleine Jauregiberri euskaltzain ohorezkoaren aintzin-solas labur bat daroa, eta fidelki azalduko digu koblakariaren apaltasuna: «Kabalen onduan, phertika bizkarrian edo makhila eskian, khorpitza txüt pensamentükan, bardin koblakan, zankhuak eta enthelegia ber denboran ebil-eraztez, hola zütügü maite, faizurik gabe, laborari sinple düzün gano amiagarria izanagatik».

Zuberoako doinu ederrez mozkortuko gaituen liburua dugu, eta folklore bikain honetatik edaten baldin badugu, guk ere esan geneza Madaleinek bezala, «Azkar bizi bedi haiñ eijerki khantatü düzü mündüko xokhorik eijerrenian: XIBERUA».

Liburuko lehen kanta «Agur Xiberua» dugu, Hego Euskal-Herrian aspaldi danik zabaldua, baina hemen kantatzen dena baino hobeto ikasi beharrezkoa.

Egileak, Zuberoaz ez ezik Euskal-Herri guziaganako maitasuna agertzen digu bere obran, honako errepika hau daramanak agertzen digun bezala:

Jeik'hadi Eüskadi eta mintza hadi
Ozenki gure gazteriari
Behardiela bethi fidelki kunserbi
Gure usantxa zahar horik.

Esukal-Herria oro ezagutzen dutenetakoa denez, orotariko laudorioak eskaintzen ditu egileak, bere denboran Donostiari bezala, adibidez:

Hendaia eta Iruñen gaintik
ikhustera Donostia
ta ber denboran besarkatzera
hanko anaie maitiak.

Liburuaren azken partean frantsezezko zenbait poesia ere agertzen ditu, baina gure ustez ez dira euskarazkoen mailakoak. Koklokaria bere giroaren mugetatik irtetzen delarik, ez da ber bera. Bere alorretatik landa, eroriago aurkitzen dugu. Hemen ere argi ikusten dugu mugak gizona nola ahultzen duen, zehin lurre-

ko mugak hala hizkuntzaren mugak.

«Ene azken bersetak» deritzatenak dira euskarazkoen bukaeran, eta zein hunkigarriak diren, bere azken agurtzat agertu nahi dituen horiek:

Khantore horik huntü dititxüt lür lanaren inganio
Sasuen gisa batian trixte bestian oro boztario
Denbora heñ bat lüze ükhen düt horien ororen medioz
Bena nik uste beharko dit erran laster güzier adio.

.....

Horik exkentzen dereitziet bat begiratüz goguan
Entrada gisa Khanta dezadan Josefateko sohuan.

Bai. Koblakaria joanen da, baina holako gogoa agertzen den artean Zuberoako nortasun txarmengarriak iratzarturik iraunen du. Esan dezaten gerokoek ere:

Ez gal gure odol berua
Bizi dadin gure Xiberua.

* * *

A esta parte del país apenas tuvo eco el gran homenaje tributado a Etxahun-Iruri (Pierre Bordaçarre) en Tardets (Soule), el día 24 de julio pasado, al que le dedicaron sendas columnas Herria, Sud Ouest y Le Miroir de la Soule. En aquel grandioso acto se reunieron hasta 250 danzantes en honor al más popular de los trovadores souletinos en la actualidad.

Pierre Bordaçarre es autor de ocho pastorales (teatro popular souletino) y de numerosas canciones de todo género, festivas, patrióticas, amorosas, conmemorativas, etc. Con motivo de dicho homenaje Jacques Larrondo que tantos desvelos se ha tomado en las recopilaciones folklóricas de Zuberoa, publicó y presentó una obra voluminosa, «Etxahun-Iruri khantan», que constituye el cancionero selecto del homenajeado. La obra lleva

una breve presentación de la renombrada souletina Madaleine Jaureguiberry. Etxahun-Iruri que es autor de la tan difundida canción popular «Agur Xiberua», empieza la obra con ésta y otras dedicadas al país vasco, para continuar con las mejores canciones compuestas en sus obras pastorales, a las que seguirán las amorosas, de las vivencias de Zuberoa, festivas, conmemorativas, etc. Y al final de la obra algunas canciones en francés. Lleva, además, abundantes ilustraciones y hasta 95 melodías en pentagrama. En definitiva, una obra que ha de quedar en la historia como fiel reflejo de la tradición de «koblakaris» o trovadores souletinos, esencia de una tradición medieval del que Etxahun -Iruri es el representante más importante de nuestros días.

1977 - VIII - 29

ZUBEROA GAINDI

«Orhiko xoriak Orhin du laketzen», hala dio Zuberoako esan zaharrak, eta ezta harritzekoa ziberotarrei beren lurraldea laket izatea; ez bai du Euskal-Herri guziak Zuberoan pareko den tokirik, lurrez ez ezik herriz eta herritarrez. Hala ere, Zuberoa hustutzen ari da. Barkoxeko Etxahun zenak Ofizialenak deitu khantorian esanak iraunen bai du oraindik orain ere:

Oi laborari gaxua,
Hihaurek jaten arthua;
Ogi eta ardu geñhatzen auherren asetzekua,
Halere haiñ haie maite nula artzañak otsua.

Koblakariaren mende bat geroztik ere egoera berak iraunen du eta xiberotarrek ez dute beren herrian bizibiderik. Etxez kanpotik behar diren osagarriak oso nekezak dira lortzen; eta Zuberoak behar dituen erremedioak París-ko gobernuaren esku daude.

Aspaldi delarik, Zuberoara osteraren bat egin gabe urterik igarotzen ez bazait ere, aurtengo udaran bi egun t'erdi eman dituk Zuberoan, oroitza zaharrak berrituaz eta egungo egoeraz jabetuaz. Pirineoetatik itzultzean, Oloron-dik sartu nintzen Pettarra haranera. Oloron-go erromanikoaren arte aberatsa ikusiagatik, hala ere, bikaina iduritu zitzaidan Ospitale-piako San Bladi. Izan ere hain da berezia erromes ospitalaren eliza erromaniko hau, griego gurutzazko zoladura eta sabai-uztaiak zortzi puntazko izarra osatzen dutela, Nafarroako Torres del Rio-koaren erara. Bere tipian ere badu bizantino arkitekturaren joera.

Ospitale-piatik aisa ginen Maulen, Zuberoako hiriburuan. Baina, Zuberoak, Pettarra baino atseginagoa du Basaburua eta harat abiatu ginen, baina ez lehenago Arballa handiko Gotañen geldiune bat egin gabe. Bertako elizak, Zuberoako beste anitzek bezala, dorre hirukoitza du. Hauetako gehienak Pizkunde garaian eraikiak dira eta teilatuak ere, bertako etxeak bezala, gailur zutinez eginak dituzte, Pirineoak barna aurkitzen diren bezala, elurrak errazago erortzeko eginak.

Gero, Zalgize igaroaz, Irurin sartzen gare Basaburuako Ibai-exker eskualdean. Barkoxetik igarotzean lehengo Etxahunekin gogoratzen garen bezala, Irurin ere Etxahun koblakaria (Piarres Bordaçarre) datorkigu oroiminera. Eta, Atharratzera heltzeaz, abuztuaren 26an, ostiralez, azokarekin aurkitu ginen. Euria gora-behera, jendetza handia bildu zen salerosketaren inguruan eta egun euskara da nagusi. Gu ere, jendartean nahasirik, entzumena eta ikusmena adi, harat-hunat genbiltzan. Plazako liburu-denda batean euskarazko sail bat ageri zen eta hara nondik izan nuen *Etxahun-Iruri Khantan* liburu ederra erosteko aukera. Txomin Peillen idazlea ere egun han zela jakin genuen baina ez ginen elkar ikusi.

Xuberotar euskalkiaren doinua goxoa iduritzen zaigu. Ongi ulertzeko inoiz ez dugu izan eragozpenik, poliki mintzatzeko ohitura dutenez, konpreniarazitzeko eraz jardutzen dira. Gure eleagatik laster esaten ziguten: «manesa zira», baina ez arrotz. Non-nahiko euskalduna anaitzat hartzeko herri jatorra dugu Zuberoa.

Urteak dira xuberotarren artean holako egunak igaro nituela, eta iraganaren oroitza datorkit bihotzaren alaigarri.



Gotáñeko eliza (Zuberoa)

Urrengo egunean, Athereitik Lígi barna, Santa-Engraziko Kakuetara heldu ginen. Inguru haiek ikusiaz, gure Unaik esaten zidan: Gipuzkoako parterik politenen bezalakoa edo politagoa da Zuberoa guzia. Hala da izan ere. Baina bertako jende atsegina lurraldea baino estimagarriago da. Non-nahi duzu adiskide bat laguntzeko gertu, eta arratseko azken orenetan amestu eżinezko kanta hunkigarriak entzuten dira edonon. Tristuraminez kutsaturik gehienetan, baina hala ere, nork lezakean hoien abotsez eta sentipenez barneminak haizetara ager.

Ibar-exker garaian Kakuetako haitzartea ibili ginen, euria ziharduenarren, ibaia zehar, bidetxihurrez eta zubitxoak igaroaz, mendarte mehar haiek inoiz baino politagoak iduritu zaizkida, euria gora-behera, eta urak irtetzen duten haitzuloraino heldu ginen. Ur hauek Ernazko lepoan dagoen leza batetik lurpeko eremuetan aurkitzen den ibaiarenak dira. San Martingo Harriko leza edo Lepineaux leza (aurkitu zuenaren deituraz) bezala ezagu-

nagoa da. Duela hamazazpi urte zortzi egunez ibili ginen leza horren barrutik Verna deritzan tokira arte. Orduko neurketetatik iriki zen Santa-Engaraziko Harphidiatik tunela eta egunen batean turismorako eran jarriko den ustea dugu, zeren hain ederra eta haindia bai da harpearen Verna delako parajea.

Eguna bukatzeaz, Santa-Engrazia bisitatu ondorean, Montoritik zehar ginen, Aretatik (Biarno) Arlasen hegietatik Ernazko lepotik Belaguara eta hemendik Izabara (Erronkari) jetsitzeko.

Urrengo egun batean Orhiko gailurrera heldu ginen :«Arranoak bortietan gora dabiltza hegaletan...» kanta gure ezpainetan genuela. Gaur oraindik, oroitzapenok berritzean, hartuko nuke ofizioa Iratirat unai, baina... Zuberoatik hain urruti bizi beharraren damuan.

Euskal-Herrian ez da mendirik Orhik bezain bista ederrak dituenik. Ekialdera Pirineoko mendi katea, lehen partean Auñamendi eta Hiru Errege Mahaia direla; hegoaldera, Saraitzutik behera Nafarroako lurralde zabalak ageri dira; mendebaldera Iratiko ohianak eta Atlantika aldera eten gabeko mendi tipien kate luzea; ifarrera, azpikaldean eta hurbil, Larrañe, baserri txuriak mendi maldetan dituelarik, Bereterretxen khantoriaren oroitza dakarkigun Andozeko ibar luzea, Atharratze, Zuberoa oro, Garaziko Behorlegitik Biarnoko Aramitze aldera, gibelean Frantsiako zelai zabala agiri dela. Hain bakarti eta zut egotetik du Orhik ikuspegien aukera hau, Pirineoko mendebaldetik bimila metroko mendietan lehena. Orhi eta Zuberoa, elkar txarmengarriago egiten duten parajeak dira.

Edozein euskaldlunentzat interesgarria da Zuberoarekin harremana. Euskaldunok elkartzen gaituen sustraien erroak modako politikarien uste arinak baino sakonagoak dira. Eta hau berau ondo konprenitzeko ere, euskaldunok, guk geuk, gure herri eta herritarrak hobeto ezagutu beharra dugu. Hontaz eskolatik ez bai ziguten ezer erakutsi.

Orotarik baztertua eta ahantzia, hala dugu Zuberoa:

Mertxikaren loriaren ederra
Barnean du hezurra gogorra.

Maitatu dut izanen ez dudana
Horrek baitaut bihotzean pena.

Eta behar bada halako saminduraz sentitzen zaitut ene barnean hain zorabiagarri zeran Zuberoa.

* * *

Durante las vacaciones estivales por el Pirineo central, tras recorrer los valles de Bigorre y Bearne, me interné en Zuberoa (Soule).

Estos últimos años había acudido a Soule por algunos compromisos académicos, para pasar encerrados en alguna jornada lingüística o literaria, y me iban quedando lejos las vivencias de los tiempos en que con cierta frecuencia recorrí valles, pueblos y montes suletinos, de los que por muchas razones guardo los mejores recuerdos para esta tierra, por su paisaje y paisanaje, la más encantadora de Vasconia. Este año, aunque sólo fuera por dos días, he vuelto a revivir con emoción en compañía de mis dos hijos.

Aun después de visitar la preciosa iglesia románica de Santa María de Olorón, con su portada monumental, la rusticidad del Hospital de San Blas me pareció encantadora, por su originalidad arquitectónica de planta en cruz griega y bóveda estrellada. En Tardets coincidimos con el día de mercado, donde aún predomina la lengua éuskara, y nos mezclamos entre los feriantes que al observar la diferencia dialectal nos acojen con cordialidad considerándonos «maneses» (labortanos o bajo-navarros), no vasco-españoles. Al remontar al alto Soule, a pesar de lo lluvioso del día, recorrimos la garganta de Kakueta hasta la resurgencia del río procedente de la gruta de la Piedra de San Martín, donde me tocó vivir algunas aventuras espeleológicas durante aquellas famosas exploraciones.

Santa Engracia, con su parroquia románica y los caseríos diseminados por las vertientes del valle, es otro punto interesante para el visitante, sobre todo si éste se expresa en vasccence, lazo espiritual que tanto nos hermana sin consideración a la frontera.

Dudé sobre la ruta de retorno. Es muy bonito Licq y Larrau por el collado de Orhi, pero esta vez opté por Montory a cruzar al valle de Baretous para dirigirnos desde Arette al valle de Roncal.

A los pocos días, un último impulso de contemplar Zuberoa me llevó a ascender al Pico de Orhi. Era un día soleado de horizontes nítidos. Pues Orhi se eleva sobre Larrau (Larrañe) dominando toda la región de Soule (Zuberoa) y con extraordinarias vistas sobre Navarra y la cordillera Pirenaica. No tiene nada de extraño que por este lugar de belleza infinita exista en Zuberoa el viejo dicho que: el pájaro de Orhi quiere a Orhi.

Zuberoa, por esa belleza sin par de su paisaje y la cordialidad de sus habitantes, es una región incomparable de Vasconia. Que piensen como quieran los políticos de turno, pero si nos internamos en la vida popular, está bien a las claras, que son tan profundas las raíces que nos unen a los euskaldunes, que las mismas se escapan a toda teoría pretenciosa. No hay duda que es una lección a aprender.

1977 - IX - 19

SAGARDOA

Urriaren 27an eman zen 1978. urteko Andima Ibiñagabeitia deritzan saiaketa sariaren berri. Aurtengoa Jose Uriak eraman du, *Sagardogintza Euskal Herrian* azter-lanarekin. Bigarren saria, Akustikaz, Iñaki Azkunek eraman zuen.

Jakitun ginen aspalditik zetorrela Jose Uria Irastorza tolosarra sagardogintzaren ikerketaz eta honegatik pentsatu nuen lan horren frutu zela sari hura; baina, bai zera, ordurako beste lan handiago bat burutua zuen eta Gerediaga Elkarteak Durangoko Azokan eratzen duen liburu sarien artean bereziena aurkitu genuen Donostiako Aurrezki Kutxak atera berri duen «Sagardoa» deritzana. Liburu apaina, bai azalez eta bai mamiz. Han aurkeztu zirenen artean behinik-pehin.

Irakurleak konturatuak egonen dira, nere artikulu hauetako gai asko galde-erantzunezkoak direla. Zenbait irakurlek eskatzen bai dizkidate halako edo holako gaiez informatzea nahi dutela edo komeni dela. Arrazoi honegatik bete izan ditut zenbait artikulu jendeak nahi zuenari ihardetsiz. Eta holako lanez jabetzen naizelarik, ez zait beti hain erraza izaten berri bilketarako iturririk jatorrenetara heltzea, hontan ahaleginak eginarren ere. Dena dela, gogoz betetzen dut euskal kulturaz edo historiaz herriko irakurleak jakin gura duenaz idaztea.

Betekizun hoietakoa zen, adibidez, «Sagarra eta sagardoa noiztik?» zeritzana (ikus, *Gogoz* liburuaren 120/24 orrialdeetan, eta «Egan»-en eman nuen lan luzeagoa). Baina nik orduan eman nituen berriak uskeriak ziren Jose Uriak argitaratu duen liburu honen aurrean.

Sagarrondoak badu gure historiarekin ikustekorik. Aintzina zenbait herritako hamarrenak ordaintzeko sagarra eta sagardoa erabiltzen zirenez, sagarrondoaren ondasunak estimu handikoak ziren. Gaur egun, pinudi ustelok jan dute gure baso jatorra. Haritz, pago ta gaztainarekin bateratsu doa sagarrondoa. Hala ere, oraindik orain, urte garai honetan sagarra dugu bertako fruturik ederrena. Aurtengo udazken honetan egualdi ona sobera dugu, baina bestelakorik ez. Honegatik gutitan bideratzen zaigu aurten baino hobeto gure herriko esaera zahar hura: «Hau da egualdixa, sagardaua egiteko, dolaria bageunka; sagarrik ez eze». Hala bai da, gauza bat eduki eta bestea falta: «txerrikumea errialian eta errialik ez».

Sagastien lehen aipamena, 1014. urtean, Ernaniko lurraldeak Leireko Monasterira eskaintzeaz agertzen dena da. XII eta XIII. mendeetako esku-izkribuetan maiz aurkitzen dira sagastiak holako eskaintza edo donazioetan. J. Uriak berri eta xehetasun asko ematen ditu. Garai hartan, Atlantika itsasaldera urak ematen dituzten lurraldeetan oso hedatuak zeuden sagastiak.

Geroko urteetatik dakigunez, sagardogintzarako eta frutu osasungarritzat ez ezik, sendagarritzat ere hartua zen sagar errea. Tolosako hirian Miraballesko jaunari hezueria sendatzeko eskaintzen zioten 1619an, liburuaren 74. orrialdean ikus dezakegunez; baina, batez ere, XV. mendeko eresietan haurra egiten zuen ema-

kumezko erdituarentzat eskaintzen zen. Andre Milia Lasturko haurgintzan hil zelarik, hala zion bere aizpak:

Zer ete da andra erdiaren zauria?
Sagar errea, eta ardao gorria.
Ala baña, kontrarioa da Milia:
Azpian lur otza gañean arria.

Agiri ugarirekin batean produkzio ta salmentan berri ere ematen digu. Aymeric Picaud erromesagandik hasita gainerako arrotzak historian zehar eman dituzten berriak ere jasoak ditu. Eta, nola ez, gure foruetan sagardoa nola azaltzen den legepean jarririk.

Toki-izen eta deituretan sagarrondoaren berriak, sagarra eta sagardoa kanta zahar, bertso berri eta olerkietan, denetarik bildu du lehen partean. Puntu batean, gure literaturaren historiaz huts egite bat du, Oihenart hemeretzigarreneko Artolatarren epokara ekarriz. Zeren, Oihenarte 1592an sortu eta 1675ean hil bai zen.

Ondoren sagarra bera frutu den aldetik ikertzen du. Lan teknikoa du bigarren parte hau eta hogetahamabi sagar mota kolorezko argazkiz eta bakoitzaren adierazpenez dakarzki. Teknikoki adierazten du sagardogintza ere, xehetzeko makinatik tolareetara, sagar biltzetik upeletara arte, sotoak eta sagardotegiak aurkeztera arte. Sagastiak zaintzeaz eta hauek onuraz, sagarrondoak bere sustraietatik erneaz hosto, lora ernalketa eta frutua heldu arte behar dutenez: berritzeak, txertaketak eta gainerako ardura guziak zehatz mahatz azaltzen ditu liburuaren egileak.

Azkenean biliografia aberatsa ematen digu, eta, bukaeraz, gaztelaniazko eta frantsezezko labur pena, gai guzia zertaz den adiaraziko diguna.

Urte askoren langintza arduratsuz burututako liburua ederra horrela betea dago, hitzaurrean eskaini bezala, egilearen asmoa frutu bihurturik: «Gaurko Euskal Herria, aurrerapenean murgilduta doa, —esango digu—, eta, honelako zerbait behar duela, uste dugu. Behar du, noski, asmaketa modernu eta konplikatuak gidaritzen jakitea. Baina, ohitura zaharrak nolakoak ziren ez ahaz-



Esteban Garibairen esku-izkribua Andre Milia Lasturkoren kantaz

tea ere, behar du. Bata eta bestea, biak, behar ditugu.

«Aurreraka, arrasto berria irikitzen ari garenean, noizean behin, atzea begiratuaz. Atzean utzi ziguten arrastoa —gure arbasoek egindakoa, alegia— zuzena dela ahaztu gabe. Garbia.

«Ezagutu eta ikas ditzagun bai, gaurko makina eta teknika aurreratuenak. Baina jakin dezagun, esate baterako, sagardo berri bat patxadan destatzen.

«Orduan bai, lortuko genukeela euskaldunok, gaurko munduak gizonari esijitzen dion tenplea. Herri baten nortasuna lortzeko —Euskal Herriaren nortasuna—, hain beharrezkoa den tenplea».

Oroi bertsolarien garai bateko unibertsitateak sagardotegiak izan zirela, sagardoa dastatuz eta bertsoz jolastuz ibiltzen ziren garaietan, egilearen herritarra genduen Ramon Artola gogoangarriak kantatutako Sagardoaren grazia deritzan bertsoetatik dasta gai hontaz aritzen garen bakoitzean:

Bedeinkaua izan dedilla
sagardoaren graziya,
bai eta ere kupira gabe
edaten duen guziya;
edari onek gizon askori
ematen dio biziya,
au edan gabe egotia da
neretzat penitentziya.

* * *

Primero el premio Andima Ibiñagabeitia de 1978 por un ensayo estudio sobre la sidra en el país y luego el de la Asociación Guerediaga en la Feria del Libro de Durango para el libro *Sagardoa* (La sidra) a un mismo autor, motivan el presente artículo.

A los lectores que me siguen con cierta asiduidad no se les oculta que muchos de mis artículos obedecen a temas solicitados por los propios lectores, y que aunque procure sintetizar al máximo, que no siempre me es muy fácil el logro de una visión completa del tema desarrollado. La dificultad, a veces, es el dar con

las fuentes más fidedignas de las materias a tratar. No obstante, para mí constituye una gran satisfacción el poder orientar o centrar en lo básico de los temas.

Siguiendo esta norma escribí sobre los orígenes de la manzana y la elaboración de la sidra en nuestro país, en estas mismas columnas, en enero de 1975. Hoy, por el doble galardón obtenido por el autor, el tolosarra José Uría, en torno a este tema y basándome en el hermoso libro *Sagardoa* que se acaba de publicar, reconsidero el tema para ampliar información y rendir mi reconocimiento al autor de la obra, por ella en sí y por los largos desvelos al fente de la revista montañera «Pyrenaica» primero y de la literaria «Egan» después.

Se trata de un libro amplio, de impresión impecable, editado por la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, bajo el título *Sagardoa.* En cuatro partes trata de la manzana y de la sidra en el País Vasco. En primer lugar, tocante a la historia, comenta antiguos y modernos documentos, noticias de viajes, legislaciones forales, consideraciones literarias, etc. Para seguir con descripciones técnicas del fruto de la manzana, la elaboración de la sidra y el tratamiento o cuidados que requieren los manzanales. Todo ello está basado en estudios de muchos años y experiencias propias del autor, y llega rasta la comercialización. Este es un libro que hace reconsiderar la explotación de este fruto para la economía del sector agrario, tan abandonado estos últimos años. La obra, toda ella escrita en vascuence, lleva numerosas ilustraciones con 32 variedades de manzanas con sus fichas correspondientes, y al final de la misma resúmenes de la obra, en castellano y en francés.

1978 - XI - 20

EUSKAL IZENAK AUZITAN

Euskal izenak amaika gora-behera izan dituzte historian zehar, batean modagatik, bestean politikagatik eta urrengo le-

geegatik.

1938an lege gogorrak hasi ziren Espainian, eta gaztelera ez zen guztia desegin nahi zen, Euskarari buruzko liburu zuriaren hirugarren parteko laugarren atalean jasotzen diren agiriak lekuko.

Laster beteko da urtea errejistro zibileko arautegiaren 54. atala aldatzearen erabakia argitaratu zenetik, 1977ko urtarrilaren 8ko B.O.-ean emana. Eta, gaur egun, sineskaitza iduritzen zaigu izeneri buruz holako debekurik izan zitekeanik ere. Harrigarria benetan, pertsona izeneri buruz horrenbeste auzi izan dugula gogoratzea. Erregek lege berria eman zuen eta auzi guziak berehalakoan baretu ziren, guzion onerako.

Izenen irekitasuna eta ugaritasuna, ondo pentsaturik, administrazioaren hoberako da, zeren deitura berdin eta berdintsuetako pertsonak bereizgarriago egiten laguntzen bai du. Euskaltzaindiaren eskariz J. M. Satrustegik gertatu zuen *Euskal izendegia* (Iruña, 1977) liburuxkan bada zer hauta, euskal izen jator edo herriak ohituraz erabilia edo onartu dituenetatik, herri joera jatorreri irekia, gure arbasoen emaitza den kondairatik, literatur, mitologia zein santutegitik jasoak.

Espainian bertan, bisigotikoak erabilitako izenak urritzen joan dira eta Biblia eta santutegikoak garaian garaizko modak jarraituaz ibili dira. Esate baterako, gure gursoentzat haurraren jaiotza eguneko santu izena jartzea zen normalena, lehen lehenago ez zen hori begiratzen eta herri bakoitzean bertako patroi edo santu aipaturen batena jartzea zen ohiturazkoena eta hamazazpi eta hamazortzigarren mendeetan, pertsona askori, beren izen deituretatik antz ematen zaie zein herritakoak diren. Juan Karlos Gerrak 1918an Oinatin egin ziren biltzarretan zionez, Jose izena, adibidez, apenaz erabiltzen zela hamazortzigarren mendera arte, baina geroztik izenik ugariena genuela. Erdi-aroan eta Pizkunde garaian ordea, mitologia, abere, gaitzizen eta ogibidezko ofizioetatik hartuak maiz erabiltzen ziren, baina hemeritzigarrenean dena santu izen bihurtzen da.

Garaiko modari jarraiturik eta bere politika ekintzeri loturik, 1897an jarri zituen Sabino Aranak santu izenak euskaraz, geroago L. Eleizaldek (1910) zerbait ikuturik argitaratuko zuen *Deun-*

-ixendegi euzkotarra. Asmorik onenarekin egina, zalantzarik gabe. Baina aberria maitatzeaz gainera tradizio zaharrak gordetzearen aldekoak garenontzat Joannategiren *Sainduen bizitzea* (1890 eta 1900) bi tomotan argitaratuan jatorrago gordetzen dira euskal izenak. Gainera, Sabino Aranak gizonezko eta emakumezko izenetan bukaeraz -a eta -e (ar eta emeren hasierako letratik hartuak) ez dira era jatorrak, zentzunezkoak ez ziren bezala Astarloaren teoria haiek, Sabinok oinarritzat hartuak. Bestalde, Sabino, historian zehar izenak aztertu ez zituelako edo bere katolikotasunaren eraginagatik bultzaturik, santu izenez soilik arduratu zen, bestelakorik ez balitz bezala. Baina, historiari berea zor diogu eta lehen erabiliak on zaizkigu gure herriaren berpizkundera begira.

Berrogei urtez, frankismoaren garai luze bezain ilunean, emakumezkoen izenetan bakarrik izan genuen euskarazkoak jartzeko aukera, Euskal-Herriko Andra Marien leku-izeneri esker. Pilar edo Lourdes bezala, hemengo Ama-Birjinen toki-izenak ipintzeko eragozpenik ez bai zen, aurretik Mari eramanez. Toki izen hoiek, deituren antzera, lurrari edo lurrak duenari (edo zuenari) loturik daude, harri, ur, landare eta abar. Eta, hauetako asko oso itxusiak baziren ere, jendeak gogoz hartzen zituen. Baina mutilen izenak jartzea zen eragozpena.

Historiaren anekdotetarako gelditzen zaizkigu milakak gertaerak mutil izenen arloan. Nik neuk ere bizi izan nuen anekdota politik. Gaur anekdota direnak baina bere garaian estuasun larriak igaro eraginak.

Hamahiru urte igaro dira nere semeari izen historiko bat jarri nionetik; nahikoa historia izan zuen izen historikoa: Unai. Nafarroan XII-XIV mendeak barna aski erabilia eta oraindik 1880-an Luzaiden erabilia, Satrustegik aurkitu zuenez. Baina, hala ere, eragotzi nahi zuten, tradizioa galdu zuen aitzakiaz. Holako gauzetan lege intrepretatzaileak izan ditugu beti; eta noizbait, Unai, tradiziozkoa izan bazen ere, orain galdua zuela tradizio hori eta ezin zitekeala ipini. Herrietako juezak inspetoreen bildurrez ziren eta hauek goragoko agintariena. Azken batean, betiko kate luzea zen, gorengo mailan gizon ilun batek eskutik zeramana. Gure Unai ganako lehen eragozpenak, gure emazteak semea bere

pasaportean jartzea eskatu zuenean sortu zen, eta ondorean juezak familiko liburutik kendu nahiaz. Hortik ikus daiteke nondikako aginduak izaten ziren.

Bigarren haurra izan nuenerako, gai hauetaz asko ikasia nintzen. Donostiako klinika batean etorri zen mundura eta, nik, historiazale naizen honek, berriz ere iturri zaharretara joan behar bigarrengoa ere mutila sortu zenez. Donostian bertan erregistratzea pentsatu nuen, bertako errejistrokoak ezagutzen ez nindutenez, behar bada lortuko nuen usteaz. Oier, esan nienean, hura harridura! Ia euskarazkoa zen, galdetu zidaten. Nik, ezetz, ezta pentsatu ere. Nork, eta nik, euskarazko izena nere seme bati! Nere deiturari eta nere emaztea Madrid-ekoa zela ikusteari esker, horregatik lortu nuen Leireko agirietan XII. mendean aurkitzen den Oier jartzea.

Ordurako, Euskaltzaindiak, Ondarruko errejistrora Igor ez zela euskalduna zertifikatu beharra izan zuen, izen hau ontzat hartuko bazuten. Beraz, jakitun nintzen, eragozpen guziak edo prolemak izen euskalduna izatetik zetoztela, zeren gainerakoan edozein eta edonongoak onartzen bai zituzten. Eibarren bertan, garai hartan, Soraya ere bai, emakumezko hura modan jarri zelako. Baina euskarazkoak... et, et!

Gogoratzen naiz Tolosako erregistroan nola atzera bota zuten Eneko, esanez izatekotan ere nafarra izango zela baina ez zuela gipuzkoartasunik. Lekutan zegoen 1185eko «Eneko de Orriz dominante et in Ypuzcoa» (S. García Larragueta, *El gran priorado de Navarra de la Orden de San Juan de Jerusalén*, II, p. 60, Doc. 54), bestelako dominanterik genuen; alajaiña! Eta, horregatik burutu nuen bildumazko lan hura, Gipuzkoako Eneko izeneri zegokiona eta Amigos del País-ko Boletiñean argitaratua (Boletin R.S.V.A.P., XXIX, 1973, 365 orr.).

Errejistroko arautegiaren 54. artikulu hura, asmo politikoarekin egina zen, baina ez zuen kontuan hartu santutegi eta Bibliatik aparteko izenak ere bazirela, historian, literaturan eta mitolojian erabiliak, eta euskaldunak ere bagenituela holako izenak gure jatorrizko kulturan. Legeak, hor, zulo bat utzia zuen eta gure ekintza zen zulo hori handitzea. Hortatik, lege-gizon batzuk defenditzera prestatu zirenean (honetarako ere, garai haretan,

ausarta behar zen izan), auzia irabazia zen. Enekoren gipuzkoartasunik eza, luzapen bat izan zitekean, baina epe baten barnean garaitu ahal izatekoa. Era berean jardun ziren trabak eta luzapenak jartzen; adibidez: Unai izenari buruz Gipuzkoako Diputaziora agiriak eskatu, Diputaziotik agiriak bidali eta Eibarko juezaren eskuetara ez heltzen? Holako amaika gertakizun harrigarri bazen tartean. Baina ordurako, esan dugunez, izenen auzia garaiturik zegoen. Hala ere, ahalegin guziekin setati eutsi zuten. Baina Juan Carlos errege Estaduaren buru egin ondorean, 1976ko otsailaren 20an Gobernua Barcelona-n bildu zenean erabaki zuen erresuma guzietako izenak onartzea, eta horrela zekarren 1977ko urtarri 1aren 8ko Boletin Ofizialean. Honekin, euskal izenen auzia historiako kapitulu berri batean sartzen da.

Orain, euskal izenak aukeratu nahi dituenak, Euskaltzaindiari *Euskal izendegia* eskatu besterik ez dauka.

* * *

Los nombres del santoral, germanos y latinos en su mayoría, cada lengua ha venido usando a su manera, es decir, ajustados a sus reglas fonéticas y ortográficas. En vascuence se han utilizado las formas populares, algunas incrustadas en los apellidos, y cuyas formas castizas las encontraremos en el autor Joannateguy y no en el santoral que tradujo Sabino Arana que no tuvo la mínima consideración con la tradición histórica, ni se ajustó a rigor científico. De todas las maneras, en su nomenclator de nombres pudo haber intencionalidad política, pero no tanto como en aquella orden del 18 de mayo de 1938, que consideraba intromisión y prohibía tan torpemente, atentando con tal regla contra toda una comunidad de pueblo.

La ley quedó rectificada con la intervención del propio rey Juan Carlos I, al presidir aquel Consejo de Ministros en Barcelona, el día 20 de febrero de 1976; con ulterior aprobación por las Cortes de la Ley 17/1977 sobre reforma del artículo 54 del Registro Civil, el día 4 de enero de este año, y autoriza la utilización de nombres regionales excluidos por la legislación anterior. El texto fue publicado en el «B. O. del Estado» del 8 de enero

de 1977.

Por esta norma pasaron al mundo de lo anecdótico los pleitos entablados en torno a los nombres vascos. Estos pleitos surgían normalmente con los nombres históricos a los cuales no afectaba la ley, pero que la administración se resistía a admitirlos. En muchos casos los motivos de la no admisión eran hasta ridículos, Eneko por su falta de guipuzcoaneidad, Unai porque ya dejó de ser nombre tradicional, etc.; la cuestión era obstaculizar. Pero, por otra parte, no había impedimentos para cualquier nombre exótico. Hubo casos por los que la Academia tuvo que certificar que no era nombre vasco, para que admitieran en los registros.

Aquellos conceptos tan estrechos como absurdos han quedado atrás, y el *Euskal izendegia* (Nomenclátor onomástico vasco) preparado por J. M. Satrústegui por encargo de la Real Academia de la Lengua Vasca, y que hoy constituye la edición oficial de la misma, se ofrece abierto a las expresiones más genuinas del pueblo, lo mismo que a las formas históricas, literarias, mitológicas y tradicionales que componen el legado cultural de nuestros antepasados. La edición ha sido financiada por el Banco la Vasconia y los interesados pueden solicitar a Euskaltzaindia, que distribuye gratuitamente.

1977 - XII - 12

GOGOETA BATZUK

Neure buruaz hitz egitea ez zait gogoko, baina guziok bezala norberaren burutik hitz egiten dudanez, neurri handi batean hor aurkituko ditugu nahasian norbere buruan egositakoak eta inguruko edo irakurgaien bidez urrunagoko mundu zabaletik hartuak. Era berean, gaur egungo bizitzatik edo aintzinagokoak utzi digutenetik. Guretako inoren baitan ez baitago gizartea zeharo aldatzerik, ez eta ere bertatik guztiz apartaturik bizitzerik. Heziketa beharrezkoa du gizonak lehengoen jakintzaz eta espe-

rientziaz baliatzeko. Bizitzeko ez dugu beste erarik.

Heziketak, etxean, bizi garen inguruan, herrian, eskoletan, irakurriz, ikusiz, entzunez hornitzen ditugu. Honegatik, inguru bakoitzak eta herri bakoitzak bere berezitasunak ditu kultur gaietan. Telesforo Aranzadik hain ongi esan zuen bezala, euskaldunok ez ginela gauza harrigarri bat Europaren mendebaldean. Hala ere, euskaldunok, bestek behartutako hezkuntzaz jabetuak gara aspaldi denik eta aski nahastuak ditugu kultur usteak ere. Honegatik, gaur, nere buruaz eta nere burutikakoaz hitz egin beharrean natzaizu, irakurle.

Apirilaren hogetabian aurkeztu nuen liburua, *Gogoz* deritzana, gure herriko gauzak azalduaz. Izatez, *Hoja del Lunes* honetan argitaratutako bilduma hautatua da. Eta irakurleak ongi dakienez, erabiltzen ditudan gaiak euskal kulturaren inguruan biltzen dira. Gure kulturaren zabalkundez eginak daude. Gauza errazak, baina gure herriko eskoletan irakasten ez direnak.

Eskergarri eta eskertu beharrezkoa dut joan zen astean, asteroko hontan, nere adiskide eta lankide dudan Santiago Aizarnak eskaini didana. Benetan eskergarria, zeren laudorio atseginagorik nekez jaso nezakeanez. Bere barne gogoz langintza bati loturik dabilenarentzat, zer gauza hoberik gogozko borondate ona erakustea baino?

Hala ere, esanak esan, pundu bat garbi utzi nahi nuke: kultura berez zer den adiarazteko asmorik ez dudala izan. Baizik, gure jatorrizko kultur edo hezikeraz oinarriturik, beste gabe, egungoari eta biharkoari begira jarriaz abiatu, jokaera honegatik behinik-pehin Orixe zenak ongi agertu zuen bezala: «*Geroak esan beza: / "Erri bat izan zan" / edo-ta ats emaiogun / ontan iraun dezan*».

Kultur mugak oso zabalak dira, herri batek berekiko hezikeraz eta beragandik sortzen duenetik, herriak elkarri ematen diotenera arte. Kultura, gizon eta herrien harremanez indartzen eta hobetzen baita. Honegatik, T. Aranzadiren esana gogoan harturik, gu ez gara Europako mendebalde hontan gauza harrigarri bat, baina bai bagara gauza berezi bat, eta berezitasun hontan ezer harrigarririk baldin bada, hizkuntza dugu aski harrigarria. Eta hizkuntza batek berez du bere inguruan kultur berezia, komuni-

kabide baten hesparrua denez. Eta gizon ikasien literatura idatzian gauza handirik ez baldin badugu ere, ahozko herri literatura eder baten jabe izan gara. Hau egiztatuko duen materialak hor ditugu lekuko R. M. Azkue, J. M. Barandiaran, A. Zabala eta beste anitzen bildumetan eta beren barne egiturak nahikoa ondo estudiatu zituen M. Lekuonak. Baina hizkuntza beraren sustraiak eurak ere nahikoa harrigarri dira, eta bere egiturak erakusten digunez ezinezkoa izango zen holako hizkuntza baten jabe den herriak bere kulturarik ez izatea.

Horrez gainera, kontuan izaten baldin badugu ahozko literaturari loturik dabiltzala kantak eta hauen eta dantzen bidez musika bera, hara hor bertan non irikitzen den kultur era zabalagoa hizkuntza oinarri dela.

Hori bai, ageri idatziak urri ditugu, Europako mendebaldean erromatarrek latinaren bidez zabaldu zuten idaztea. Honegatik, latinetikako erromantzeak lehenago hasi ziren idazten. Erdi-aroaren goi parterako frantsezek, katalanek eta gailegoek bereziki, literatura aski aberatsa zuten eta hauen ondotik hasi zen gaztelera, Aragoian egiten zen erromantzearen ondotik. Baina, oroi sajoiek Pizkunde garaira arte ezer guti zutela eta eslavia aldekoek apenaz hasi zirela hamazortzigarren mendeko argien garaira arte. Alde hontatik, esan beharrean gaude, euskaldun ikasien literatura mugimendua mugazandiko Euskal-Herrian hasi zela Pizkunde garaian eta mugazemendikoa argien mende hortan, Europan zehar latin hizkuntzetatik apartekoak bezalatsu. Honegatik, berandu idazten haste honek ez du ezer harritzekorik. Gainera, gaztelera mintzatzen zen lekuetan bertan ere oso berandura arte erabili bai da latina agiri ofizialetan. Baina, denen gainez, jatorrizko herri literaturaren ageriak eta uzta hor daude.

Foruak ere hor ditugu, edo hor genituen, behar bada hizkuntzaren eta honek bere inguru dituen adiarazpenen ondorean gure herriak izan duen gauzarik bereziena Padilla eta Maldonado-k egin nahi zuten iraultza baino lehenagotikako herriaren eskubideak. Eta, Cadiz-ko Konstituzioa egitean, hain espainiar abertzale ziren haiek, bertako demokraziaren alde urratsak eman behar zituztenean, gure foruak hartu eta Espainia guzian hedatu beharrean inglesen «Habeas Corpus» hartu zuten, hain librea ez ze-

nez, herriak hobeto benderatzeko edo nonbait. Gero, hori aski zenez, kendu zituzten foruak, anai arteko gudu zital baten ondorean, eta geroztik ez du bakerik ezagutu gure herriak. Lehengo libertate haiek murriztuta gelditu ziren, baina gure herriak, ehundaka urteetan bere legez gobernatzean, bere idiosinkrazia berezia lortua zuen eta ezin zen bat etorri agintaritza despotikoekin eta honegatik ezin du lortu bere barneko bakerik.

Beraz, herri zanpatua gara eta besteen politikapean herbesteko hezikeraz hasi nahi gaituzte. Guk ordea, gure herriaren nortasunez jabeturik garenok, ez dugu amor ematerik gure herriko eskoletan gure jatorrizko kulturarik irakasten ez den artean. Honegatik, funtsean, nere liburua ezer izatekotan, herri bati bere jatorrizko kultur hezieran laguntzeko da. Eta laguntza hau ere, neronek gogozko ditudan gaiak eta neronen ahalmenak mugaturik.

Baita ere, esan beharra dut, *Hoja del Lunes* honetan lanean hasteko kondizio batzuk onartu nituela, ahal delarik, eztabaidarik ekarriko ez zuten euskal kultur gaiak erabiltzeko. Izan ere, eztabaida eta izkanbiletatik urrunduz egin nezakean langintza maiteago dut, eta bada zer esan eta zer landu Euskal-Herriari buruz haserre sesiorik sortu gabe.

Oraindik esatekorik asko dugu eta aurrera jarraituko dugu. Hala ere ohartzen naiz eta jabetua naiz kultura ez dela egiten dudan parte hau bakarrik, ez eta ere Euskal-Herriak, beste gabe, ez duela biltzen kultura guzia eta besteengandik hartu dezakegun guzia ere on zaigula. Otoi! on zaigu besteegandik ikastea, baina ez geurea uztea. On zaigun bezala beste hizkuntzak ikastea, baina geurea utzi gabe.

* * *

Agradezco al amigo S. Aizarna las amables líneas que me dedicó en el número anterior de esta *Hoja del Lunes* (del 24-4-78) con motivo de la presentación de mi libro *Gogoz* (Cosas de nuestro país), publicado por la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, y que no es más que una selección de artículos que vieron la luz en las presentes columnas.

Motivo éste para dedicar algunas reflexiones sobre mi colaboración semanal y que en torno a la misma he orientado el texto éuskaro de hoy.

Consideró conveniente aclarar al respecto que, los temas que vengo desarrollando no pretenden abarcar todo el mundo cultural de nuestro pueblo, ni mucho menos. Como queda explicado en la presentación del libro, discurren en torno a la cultura vasca, principalmente la tradicional, y como es muy natural, dedicándoles mayor espacio a aquellos temas de mi propia afición. Pues la cultura es todo esto y algo más: algo que se está gestando diariamente y a la vez es un préstamo entre los pueblos. Por algo dijo T. de Aranzadi: el país vasco no es ningún cuerpo extraño en el occidente de Europa. Este país, como todos, tiene peculiaridades propias, caracterizadas principalmente en torno a su original lengua. Lo injusto de nuestro caso es que ni su lengua ni sus peculiaridades culturales no se enseñan en las escuelas. Y mientras se siga con esta actitud a lo vasco, su lengua y su cultura están condenadas a muerte. Y lo peor del caso es que nadie se va a beneficiar con su extinción y Europa ha de perder una parte de su ser. Y yo volveré a preguntarme: ¿cuándo acabará esa política tan erróneamente seguida contra nuestro pueblo?

Por mi parte, seguiré la misma línea en defensa de la cultura oprimida, bajo el precepto de, dar luz, para que el pueblo encuentre su camino.

1978 - V - 1

VIII
UMOREZ
De Humor

IRAKURLE BATEKIN GATZ-OZPINDUZKO ALKARRIZKETAN

—Hi, Juaito; lehengunekua, zoragarria.

—Zer lehenguneko?

—Euskerazko literaturan aurkitzen dan pikardiazkoarena. Ederra iduritu jatan. Hola bihar jok, seriotasunez gehiegi larritu barik. Ze, ez dagok bizimodua zertan mingostu, berez be nahikoa mingotsa danez. Baiña urrengo batian neuk be kontatuko deuadaz hiri Petra ta Mariarenak.

—Petra ta Maria?

—Bai. Ez dakit ala?

Petra ta Maria,
andra bi badira,
haren familia
ezta askoz hobia.
Eibarren gazteria
ondatzen doia.

—Iñoiz entzun izan juat, holako zerbait.

—Bai? Holako zerbait bakarrik? Ba, urrenguan kantatuko deuadaz. Eibarren be pikardiazkoak badirala demostratzeko.

—Orduan, «Maitasunetik lizuntasunera» zeritzan artikulua gustatu jan?

—Bai horixe! Izan be, euskeraz, bertsolariak aparte, hainbeste sotanadun ibili dok ezkribitzen eze, nork pentsatuko juan ba holakorik bilatuko zanik? Literaturak, eztiaz gainera, holako gatz eta ozpin saltsa barik, jai jaukak!

—Hi, baina, jakik Etxepare bera be abadia zala.

—Bai, baiña jatorra.

—...?

—Bai, jatorra; musian musua emongo leukiana, eta ez beti dotrinia nundik sartuko dabillena. Eta, hik ondo dakik euskeraz dotrina gehiegi ezkribitu dala, bestelakoaren ondoan.

—Bueno, bueno! Baina bestelakorik be bajaukagu.

—Baiña xinplekeria gehiegi.

—...?

—Hara; neuk esango deuat; euskal literaturarekin badakik zer gertatu dan?

—Zer?

—Ondo bizitzen ikasteko liburuak ezkribidu biharrian, sotanadun jente horrek, «Ondo hiltzen ikasteko liburua»k pillaka. Nor zuan aintziñako zuberotarra, «Ontsa hiltzeko bidia» ezkribidu ebana?

—Tartas.

—Tartas? Ederra postria! Nekez bizi ondorean, ondo hiltzen ikasteko bidia. Baina, nik badakik zer esaten dodan?

—Zer?

—Ontza hiltzeko bidia, Eibarko eskopetia. Ze, bizitza petral honetako ontsa eta basoko ontza, daroiagun bizimodua daroiagula, bardin txamarrak diralako.

—Hori dok filosofia.

—Ez, zera..., hiria dok oillo-sopia.

—Hik esaten dituk esatekoak. Tira, tira!

—Zer tira ta zer bultza. Gehiago be esango najeukek.

—Oindiñok be gehiago?

—Bai. Hara, Euskal literaturarekin pasatu dana badakik zer dan? Aberastu biharrez, aberasteko nobelak bihar zirala, eta gaizki konprenditu; eta nobelak ezkribitu biharrian, nobenak ezkribitu zirala.

—Ixo, ixo! Gehitxo dok hori. Dana dala, nobenak, demoniokeriekin amaitzen lagunduko juen.

—Horixe falta genduan bakarrik! Oin hi be hasiari demoniñoekin sinisten duala esanez.

—Dana dala, hi bertsolari zalia haizenez eta Txirritarekin bat etorri; gogoratu adi berakin.

—Txirrita: ha bai aparta, zabalez eta zentzunez, gizon patxarazkoa.

—Harena dok ba:

Albaiteruen salan
demoniño hartatn
demoniñozko estropozu bat
egin nuen bertan,

demoniñuak hemen,
demoniñuak han,
demoniñuak non nahi
gorputzaren bueltan,
demoniñuak sasoi zeukaten
demoniñuetan.

Eta ez deritxok albaiteruan sala, bere milla demoniñokerirekin, Euskal-Herri guztira zabaldua dala?

—Iño!; ointxe esan deustak esatekoa. Banajoiak hire ondotik, holako mozorroren batekin kutsatu baino lehen.

* * *

Entre las características del humor placentino y eibarrés entra el juego de palabras y tergiversaciones de las mismas en el diálogo, y así me resultó días pasados, en el transcurso de un diálogo abierto entablado con un lector asiduo, en torno a mi último artículo sobre la picaresca de nuestra literatura.

Según su irónica manera de analizar las cosas, sostenía que en euskera se han escrito excesivos libros con consejos sobre la preparación para aprender a morir bien, cuando se preferían consejos guías para aprender a vivir mejor. Y, hasta para enriquecer nuestra literatura, debido a alguna mala interpretación, en lugar de escribir novelas se habían escrito novenas. En todo caso, ahora va tomando un giro más favorable y popular con temas también populares. No le gustó lo edificante que resultaban aquellos consejos del bien morir ahuyentando los demonios del alma, y ante tal argumento y al escuchar la famosa estrofa del popularísimo Chirrita, reaccionó para salir huyendo, antes de ser contagiado por ese endemoniado y apestante virus, como alma que se lleva el demonio.

1977 - V - 2

NAHI EZ DUGUNA FALTA DENEAN

Plaentzian eta Eibarren, lanari, beharra (biharra) deritzaio; zeren bizitzeko beharrezkoa ez balitz inork ez luke egingo.

Bi herriok beren historian oso langileak izan badira ere, hauetan ere, beste edonun bezala, inork ez du nahi lana egiterik; baina, beharra... Orain, krisis garaian gaudelarik, inork nahi ez zuena ere falta zaigu. Ez da gauza goxoa nahi ez dena ere falta izatea.

Baina herri hauetan falta ez dena, zera da, humorezko filosofía berezia. Lehengo esaldiak oroituz eta egungo gertaldietatik berrituz, bada oraindik ere zirikadetarako ahalmenik.

Gure egunotako doinuz holakoak entzuten dira:

—Biharrakin (lanarekin) gaizki gabillaz —zion plaentziar batek besteari. Eta bestearen erantzuna:

—Ba, gu; egin ezinik.

—Ez dok izango! Kasik guztiak dabillaz gaizki eta zuek egin ezinik?

—Bai ba;egin ezinik, ez daukagulako.

—Biharrik eza, baltza dok.

—Biharrik ezak ez najok bildurtzen; txarragoa dok dirurik eza.

—Hori ez dok ezer. Ni oraindik txartuago nagok.

—Txarrago? Dirurik eza baino txarragorik ezer ba ete dagok?

—Bai.

—Zer?

—Zorrak.

Baina honentzat ere, gure filosofian bada erremediorik. Askok Urkin enterratuaz ordaintzen dituzte, larrialdieri aurpegia emanaz mundu honetan bardintzera heltzen ez badira. Gainera, zintzoena izan leike zorduna. Honegatik, Toribio Etxebarriak honako esaldi hau agertzen digu *Ibiltarixanak* liburu bikainaren 185. orrialdean: «Munduko ondrauak, zorrak, zaharrak badira ahaztu! eta barriak diranean, itxaro zahartu arte».

Plaentziako biajante batek, Gabonetako loterian, milla pezeta jokatu zituan numero batera, lagun bati esanaz: «Gorduak urtetzen bajostak milloi mordukoa izango dok eta nik orduan barre egingo jotsat krisisari».

—Ta...? Nora joango haiz bizitzera? Alikantera, Kanariasera, Balenziara...?

—Ni, Eibarrera.

—Eibarrera?

—Bai. Ze, Eibarren beti dabik hego-haizia.

Autubatzailliak pizteko ere oso onak izaten dira krisis garaiak. Elkarren berri jakin nahiez irrikitzen ibiltzen direnik aski izaten da. Baina, zaharrak berri, autubatzaillien amorragarri. Lanaren gora-beherazko galdez Plaentziako ugazaba batenga joan zan bati hara nolako erantzuna eman zion:

—Esportatzen hasiak gaituk.

—Zer?

—Txirtxil (kirker) kaiolak eta tronpak.

—Kontxo, kontxo! Orduan, dibisaz kobratuko dozue, ez dok?

—Ez. Trukean, perrejilla toneladaka eta hiru puntako txorizuak.

Krisis hoiek berekin dituzten estuasun eta larrialdiak. Euskarazko esaera zaharra da, «Mikaela ta Peru bitxi; haserre diranean, diru gutxi».

Bakoitza bere zoroak darabi; baina mundua eta mundukoak, diruak.

—Zer, Kalisto? Ez daukak aurpegi onik. Ondoez itxura daukak.

—Ez, ez nabik ondo. Oraintxe natok medikuagandik.

—Da? igarri deuk?

—Ia bai.

—Ia...?

—Bai; hamar duro najeukazen eta zortzi kendu jeustaz.

Langile «Konbenioak» direla ta, goi eta behekoei komeni zaiena ezin erabakirik zebiltzan. Bizitzako beharrak guzientzat berdinak izanik ere goikoak eta behekoak ezin berdindurik. Beste ezer ez dutenak, humorea edukitzea ez da gutxi. Eta humorea behar ere legezko eskubideen alde oihuka jardutzeko. «Berdintasunaren alde. Gora behekoak! Behera goikoak!».

Behin, kaiñoi fabrikan konpondu eziña zebilen eta nagusi eta langileen artean «Delegado de trabajo» agertu zen, gertakizunen agiria jaso nahirik. Baina «delegado»aren aurrean ere aztabaidak sortu ziren. Eta, biharginen aldetik joan zen Arostegi delako batek, bere beroaldian:

—Zuek jauntxuok, jota garbitu egingo zaitugu!

—Ipini hori be agirian —esan zion nagusietako batek delegadoari.

Baina, Arostegik, esanez damutu gabe, laster asko erantzun zuen:

—Bai, baina jaboiakin.

Izan ere, Plaentzian ez dira zikin zaleak. Horregatik batek esaten zuen, bera oso «alabatua» zela. Bai horixe, zortzi alabaren jabe zenez.

Turkuan semeak esan zidanez, gu eibartarrok beti plaentziarren inbidiaz bizi ginela, Plaentzian plaentziarrak maioria diralako, eta Eibarren eibartarrak gutxien.

Bai. Gure mundu hau galdua da. Orain gogoratzen naiz meza nagusi ostean izan zen elkarrizketaz. Amerikanoak «Apolo» zeritzan koetea ilargiruntz bidali zutela eta itzuliko ote zen zalantzaz:

—Joan bai, joan egin dituk, baina kostako zaiek berriz lurrera itzultzea.

—Zergatik? Orain arteko koete guziak ondo etorri bai dituk.

—Oraingoan kostako zaielako mundua billatzea. Zeren, apaizak sermoian esan duenez, mundu hau galduta omen zegok.

* * *

El sentido del humor constituye una virtud nata, en algunos individuos más desarrollado que en otros. Pero hay lugares que son más propensos que otros. En el medio ambiente de los mismos se percibe que los habitantes están más predispuestos para el humor, incluso se llega a establecer como un ejercicio recreativo. Así viene a ser en Placencia y en Eibar. Y no digamos lo que ocurre entre los vecinos de ambos pueblos cuando entablan sus conversaciones. Entonces, entre bromas y veras, a menudo se pierde hasta la noción de la seriedad. Puyazo va y puyazo viene, así se entienden mutuamente un eibarrés y un placentino. Una de las pruebas más evidentes del sentido del humor es, por jemplo, saber bromear hasta en situaciones adversas. Es decir, hasta en los momentos en que el propio humorista se halla arrastrado por las dificultades de la vida. Como prueba de ello, en el texto euskérico recojo unos cuantos chascarrillos, la mayoría muy recientes, que fueron creados y difundidos en ambos pueblos en torno a esta crisis económica que padece la industria metalúrgica.

En mis libros *Zirikadak* (1960) y *Eztenkadak* (1965) recogí una buena muestra de nuestra picaresca y socarronería, para dejar bien plantado este humor tan nuestro. Placencia, más que Eibar, es un arsenal de humor, y no de armas. Y le hubiera venido mejor el nombre de «Placencia del Humor». Seguro que hasta Vargas, el Hidalgo de Soraluce hubiera aceptado, porque de otro modo resultaría menos veraz el descubrimiento de América por Colón, según Vargas placentino y ni qué decir, dotado de buen humor.

He aquí otra muestra en vascuence, recogida un poco al azar, durante este período de crisis. Desde aquel que del trabajo tan poco deseado, pero necesario para ganar el sustento, dijo: «Quién hubiera creído que nos había de faltar hasta lo que no queríamos»; de ahí hasta la preocupación del que medita sobre la suerte de los astronatutas del Apolo, que no podrán dar con la tierra, porque este mundo está ya perdido, según declaró el cura en su sermón.

1977 - II - 21

LETRA GOZOAK DORREPEKO ASTO JANARI

Gu haurrak ginenean esaten zenez, eskoletan astabelarriak jartzen zitzaizkien alperkeriaz ikasterik nahi ez zutenei eta heziketan atzeraturik zebiltenei. Eskolak ikasteko, ez dut uste pedagogiazko sistema onena izango zenik; gu behintzat, izutzen ginen egunen batean norbere buru gainean astoaren belarri handiak ikusiko ote genituenez. Ez zen gutiagorako.

Anaitasuna aldizkariaren azken orrian bada «Urrezko astabelarriak» deritzan sail bat. X. Kintana eta konpañiak hara eramaten dituzte euskalgaiztoz edo izkribakeraz astakerizkoak argitaratzen dituzten lan eta egileak. Baina, urrezkoak izateagatik edo, jendeak ez dio lotsarik, eta astakeriak hor-hemen eta non-nahi jarraitzen dute. Eta, inoiz, nork ez ote dugu bertarako haina meritu irabazten?

Karmel aldizkarian ordea, gauzak goxoagoak dira. Karmel-goek, astakeriak «Letra gozoak» deritzan sailera eramaten dituztenez; 1975eko laugarren zenbakia lekuko.

Dena dela, euskal literaturagintzan bada non dibertitu. Bai horixe!

Astakume gozoari letra gozoak, hara zertan diren. Uz dezaiogun Dorrepeko bertsolariari bere erara kontatzen. Baina aldez aurretik, zera agertu behar dugu, Dorrepe Eibarko bazkune bat dela, jan-edanak, jolasak eta erara datorrenean datorrena lagun artean alai igarotzeko asmatua eta egina. Holako beste elkarte batzuk baino zoriontsuagoa, noski, zeren bere bertsolari kronikagile bat ere badu Dorrepek: Segundo Iturralde adiskidea. Berberak hola adiaraziko digu:

Badakizute elkarte orrek
«Dorrepe» duala izena,
ta esan bezela neu're
ango bazkide naizena,

Bestelako berezitasunik ere badu Urkuzuko Dorrepe delako honek:

Baztartxo bat politagorik
ez da izango ludian,
egia da ta ni ez nago
au esan beldurrian,
ta bi sukaldari berdingabeak
gure Bizkai ta Julian
ara esan beren izenak
iñor bazegon dudian.

Egia esan, ni ez naiz sarri joan Dorrepera, baina bertan eman ditudan ordu atsegin haiek laburrak izan badira ere ez zaizkida berealakoan ahaztuko. Eta, irakurleok, Bizkai sukaldaria zein bikaina den gero jakingo duzute. Orain, entzun edo irakur Dorrepeko bertsolariak agertzen digun humorezko toki osasuntsua:

Gure arteko gauzak esaten
ez dago zertan lotsatu,
ta ez nuke nai erdibidean
gelditu edo lo artu,
neu umore txarreko junda
antxe egiten naiz gozatu,
juen Dorrepera nai dunak
bere gorputza osatu.

Euren arteko gauzak esateko lotsarik ez dutenez, bertan egin zuten astakume jana ere zergatik ez agertu? Horretarako dute Segundo bertsolari; eta hain gozoa zegoen astakume erriari buruzko bertsoak ezin zuten aurkitu Karmel aldizkariaren «Letra gozoak» saila baino toki egokiagorik (ikus, Karmel, 4-1975, 32 orr.).

Asto jana dala ta eztala
nua zerbait esatera,
apari artako kontuak
emen nai ditut atera,
kerten asko bildu giñan
asto koxkor bat jatera,

neuk sekula ez det ikusi
ainbeste asto batera.

Lau illabete zituala astoak
Bizkai zebillen esanez,
baiña geitxuago zeuzkan
geroztik entzun dedanez,
guk azkenian astoa're jan
geu aundiagoak geranez,
aiñ pozikan bizi zan ura
amari esnea edanez.

Eta zintzo aitortuko zuen:

gu kupira gabe saya giñan
bai gizon ta emakumeak;
oraintxe erruki ditut nik
inguruko astakumeak.

Gainera, astoaren biografia ere egiten zigun. Hara bere xehetasunak:

Egi-Zarre baserrian jaiota
Egi-Zarre bertan azia,
astotxo ark bazeukan
inork ez bezelako grazia,
txiki-txikitatikan brinko
eta arrantza eiten ikasia,
eman zitzaion errematia
etzeukan ark merezia.

Azkenean, hara hemen, letra gozoetan, haragi samur eta gozoagoaren berri:

Apari artan gu danok
gogotik giñaden zaildu,

izan ere hainbeste jatun
Dorrepen giñan bildu,
bere aragi eta ezurrak
danak genduzen maspildu,
orduan arrantzaz asitakoak
oraindik ez dira ixildu.

Izan ere aiñ zegoan goxoa
ta aiñ zegoen samurre,
oraindik askok esaten dute
jango nuke nik gaur're,
danok gorri-gorri eginda
orduan ez giñan asarre,
urrena ere beste bat ekarri
Jose Luis Egi-Zarre.

Hau hola delarik, asto salerosketan ibiltzen diren ijitoek ez ezik, astoen jabe direnak ere jakin bezate beren ekonomia bideak eraberritzeko.

Baina, belarriekin zer egin ote zuten? Ia urrengo batean Segundok bertsoz kontatzen digun belarriak eraman zuten burubidea.

* * *

En más de una ocasión hemos comentado que en la literatura vasca se puede encontrar de todo, desde los aspectos puramente espirituales hasta las poesías y narraciones más obscenas, pasando por toda clase de inquietudes sociales, aunque unos temas se hayan desarrollado más que otros.

En nuestros días, quizás el humorismo se cultive menos que en otros tiempos. Aún así, no estamos exentos de ello. Incluso se encuentran otros aspectos divertidos. Por ejemplo, la revista Anaitasuna cuenta con una sección donde se reparten orejas de burro, para la crítica humorística de barbarismos en euskara. Pero la revista Karmel recoge en su sección de «las dulces letras» toda clase de curiosidades y entre las mismas vieron la luz los

populares versos humorísticos de Segundo, destinados a la descripción de una suculenta cena en la sociedad recreativa Dorrepe de Eibar, donde se despacharon nada menos que un borrico asado.

Lo que no dice el bersolari cronista es el paradero de las orejas. No creo que se les hubiera ocurrido enviar a la Sociedad Protectora de Animales, porque buena falta hacían en estos lares.

1977 - VI - 13

UMORE BELTZETIK

Heriotza bera gai harturik hizkirikiriak sortzea, umorea bera gorengo mailetan mugatzea deritzat. Eta gailur horretara eramana zuten Deba arruaren behe parteko euskaldunek, Plaentzia bera buru dela. Bestela, non ausartu dira holako kantak haurrei erakustera?

Txingili txingili maña,
bihar Santa Maiña,
etzi Domunusantu
gure umia zuluan sartu.
Aita dolorez,
ama negarrez,
abadiak kantuan,
errialen pozez.

Honela hezitako mutikoak holako jarrera heriotzaren aurrez aurre. Eibarren diotenez, Plaentzian igaltzero bat aldamiñotik jausi ta bertan behera ziplo gorputz gelditu zenean. Adinekoak ez ausartzen emazteari alargundu zen berri ematen eta pintxetzat zebilen mutikoa bidali zuten ahalik leunen kontuz esan ziezaion. Etxeko atea jo eta alargundu berriak irten orduko, esan omen zion:

—Zu, andra; zure gizonari txamarra erori zaio aldaminotik

behera.

—Tira tira, txamarra erori zaiola ta beste gabe hator neri aditzen ematera?

—Bai, baina, soinean zeroian.

Hala ere, Eibarren ba omen zen obretako kontratista azkarragorik. Plaentziarrak ez dute alperrik esaten: «Eibarko txitia, oillo». Lanean ari zirela, arrisguko eginkizunik agertzen baldin bazen, langileen artean hasten omen zen galdezka: «Mutillak, zuen artean ba al zegok inor balio ez duenik?».

Balioaren neurrian gora behera daude gauzak. Parametroak non eta nola jarriren gora beheran, noski. Eibarko langileak beharginak direnez, beharrak sortzen ohituak nonbait; bestela ez baita erraz lanean dihardutenei beren balioaz galdetzea. Plaentziar haiek erretirua hartu ondorean ere estimu handiagoan zuten bere bizia. Bai horixe! Plentziako agura zahartxo batzuk, kanposantu ondoko bidetxiurretik paseadan zijoaztela, Bronkiuetatik jota zebilena hasi omen zen eztulka, «eju» eta «eju»! Adiskideak, errukiturik:

—Hori duk eztula daukana.

Baina, eztuldunak, kanposantura begira erantzun zion:

—Hor daudenek hartuko lukete.

Ez ba inguru hontako zaharrak ere heriotzari lotsa asko diotelako.

Ba zen Eibarren Notxe gaitzizendun apaiz bat, herriko gorri guztiak lagun zituena. Heriotza inguruan familikoen artean baldin bazen, Notxe abadia hartzen zuten bitarteko. Honen alde ona, zera zen, apaiz bezala ez ezik lagun bezala ere agertu zezakeala. Behin, holako batean, etsipena harturik hilzorian zegoen baten gelara sartu zen. Geixoak, ikusi orduko:

—Zer, Notxe? San Pedrorentzako errekaduren batekin hator ala?

Hala ere, uste guziak ez dira berdinak, ezta lasaitasunaren neurriak ere.

Hara, behin, adiskide gaixotua bizitatzera joan zen batena:

—Zer diok, Patxi?

—Iño, ez nahi nukean bezain ongi.

—Ba, ez hago hain gaizki ere. Bi ankak ohean dituk behintzat.

—Zer? Bi ankak ohean?

—Bai. Zeren don Nikanor hire medikuak esan didanez, anka bata kanposantuan daukala ta...

Baina ez gero pentsa mediku guzien izakera berdina denik. Bada bestelakorik ere. Ondoko bi gertaerok ditugu lekuko:

Sartu zen geixo bat medikuaren gelan. Goitik hasi ta behera errekonozitu du; eta, esaten dio:

—Aspaldi al zabiz geixorik?

—Bai jauna, ta mediku askokin ibilia naiz gainera. Batzuengandik etsipena ere jasoa dut; baina nik oraindik bizi nahi nuke.

—Asko erretzen al duzu?

—Ez jauna, nere bizi guzien ez dut erre.

—Eta, edan?

—Edan ere ez.

—Zuk, behar bada, gehiegi jango duzu.

—Ez ba, beti izan naiz jatun txikia.

—Jokuan berandura arte egon eta erretiro txarrak izango dituzu.

—Ez ba, jauna, egundo ez naiz izan jokalaria eta beti goizago oheratzen naiz.

—Bueno; ta... emakumeekin ibiltzen al zara?

—Ez, ez dut holako bizio txarrik.

Orduan, medikuak, harirturik.

—Arraioa! Orduan, zuk, ezer ez egitekotan, zertarako nahi duzu bizi?

Bizitzerik merezi ez dutenentzat ere, denborak erabagitzen ditu gauzak, herioak denok neurri berdinez hartzen gaituenez.

On Mateo Mujika jauna Gasteizko apezpiku zela, pastoral bi-

zita eginaz joan omen zen egun batean Debara. Holakoetan, badakizute ba, batari eta besteari hartaz edo hontaz galderak egin behar. Garai hartan Martin Aranburu bergararra omen zen Debako mediku. Beasaingo batekin topo egitea, ah zer nolako kalamatrakak. On Mateo beasaindarra izaki, eta herriko medikuari ere zerbait galdetu beharrez, hara zer galdetu zion:

—Jende asko hiltzen al da herri hontan?

Aranbururen erantzuna:

—Hemen danak; batzuk lehenago eta beste batzuk geroago.

Hauek dira inguru hauetako umore agiriak. Bertako giroaren berri ez dakienarentzat, behar bada, gogortxoak. Umore larria, umore beltza. Baina, hau hola delarik, ulerkaitz zaionari, Orbe zenaren bertsoz adiaraziko diot:

Eibarrek entzute txarra
dauka kanpuan
gezurrari balioa
emateien lekuan,
federik ez degula esateute
behar den moduan,
gurekin konforme eztauana
hobe billa joan,
akordauko da txarrauekin
tratatutakoan.

Honegatik, jaunak, ez bildurtu. Garean gareana legez.

Elgetako kanposantuko pareta konpontzen ari ziren batzuei, bertako herritar batek esan zien:

—Alperrik ari zerate.

—Zer ba?

—Zer ba, diozute gainera? Hor barruan daudenak irtetzerik ez dutelako, eta kanpuan gaudenok sartzerik nahi ez dugulako.

Beste behin, ezkonduz geroztik bizimodu eztitsurik ezagutu ez zuen senar alargunduak, honako hitzak jarri zituen emaztearen

hobi edo sepultura gainean: «Hor zaude, andra, bion bakerako».

Beste batek ordea, gauza bat nahi zuen jakin, non hil behar zen. Zertako? Haraxe ez joateko.

Eta, Urliak:

—Zuen guzia utzi zion ospitalari.

—Zenbat?

—Zortzi seme.

Entiarruak klaseetan egiten ziranekoa dugu beste hau. Aita hilzorian eta semeak eztabaidaka, primerakoa, segundakoa ala terzerako entiarrua egin aitari. Semeetatik zekenenak:

—Tira, zer pentsatzen bizi zara? Aitari primerako entiarrua egitea bururatuko zaizue? Nahikoa duk terzerakoa ere.

Baina, hilzorian zegoan aitak piztu alditxo bat izan zuen eta semeen eztabaida entzunaz.

—Mutillak, ekarri nere abarketak eta neu joango nauk kanposantura.

* * *

Tal vez residan en el humor negro las esencias más selectas de todo lo que se entiende por humorístico, sobre todo cuando las chanzas y burlas alcanzan las cotas más altas de la propia sátira y los interlocutores saben llevarse en un asunto tan serio y luctuoso como es la muerte.

Por esto, un placentino o un eibarrés dirán que lo edificante no estriba en saber morir bien, sino en saber vivir bien. La muerte únicamente es problema para los vivos, sobre todo si hay testamento por medio.

Las anécdotas del presente texto constituyen en buena medida el modelo de humor negro de la cuenca baja del Deva guipuzcoano. A los habitantes de otras zonas les resulta difícil distinguir cuando se habla en serio entre un eibarrés y un placentino. Y, entre de veras y de bromas, ellos irán contando sus historias y sus historietas. Aquí únicamente se recoge una pequeña mues-

tra, desde el chaval que va a participar a la esposa del accidente de su marido a quien acaba de caérsele la chaqueta desde el andamio, y lo peor del caso es que la llevaba puesta; hasta el epitafio a su esposa, donde reza: «Aquí yaces para la paz de ambos»; al del moribundo que ve entrar al cura con el viático y le pregunta si le trae algún recado para San Pedro, con el que se tendrá que ver muy pronto; o de aquel otro moribundo que, ante la discusión de sus hijos por no gastar en un entierro de cierta categoría, solicita sus alpargatas para irse caminando por su cuenta hasta el cementerio. Son muestras ejemplares del grado de humor negro de esta zona guipuzcoana.

1978 - VIII - 28

USTEAK

Usteak uste diranez, lehen lehenengotik aurrea hartzea hobe.

Bein batian, eibartar bati esan zion apez batek:

—Zuen federik eza ezin diat konprenitu.

—Ez, e? Gure fedea ezin duzu konprenitu eta zelan konprenitu zezake modazale batek Antiguako Amari debozioa izatea?

Ustea erdi ustela bada ere, hor gelditzen zaigu beste erdia.

Xabier Iraeta plaentziarra Oñatin prozesiñua ikusten zegoala, gorputz erdiko imajina bat andan zeroiela konturatu zenean, batbatean eta barru-barrutik irten zitzaion:

—Zer santu klase dok hori... Erdia bakarrik?

Hori entzun zuen oñatiar batek erantzun omen zion:

—Zer xaukak ba gerritik gorakua bakarrik izateak?

—Hola neu be izango nintzakek santua, gerritik beherakorik gabe.

Zer ikusi, ha ikasi. Plaentzian mutikoak ere oso azkarrak dira beren usteak argi ta garbi azaltzeko. Hoietako mutiko bat, konfesatzeko, apezaren aurrean belaunikatu zenean; abadearen itauna:

—Ondo konfesatzeko zenbat gauza behar dira?

—Bi.

—Bi? Ia zertzuk diren.

—Abadia ta pekatuak.

Ez omen da obisporik lehenago apez izan gaberik, eta plaentziarrentzat ere, zelako lapiko halako tapa. Plaentziako abadiak, behin, ona ta txarraren filosofia adierazi behar zuenean, liburuak irakurtzearen usteak azalduaz, argitasun honekin hitz egin omen zuen:

—Txoriburu askok diñue, liburu onak eta txarrak, danak irakurri behar direla. Baiña, nik esango neuskie: onak eta txarrak danak irakurri behar badira, Perretxikuak be, onak eta txarrak, danak jan deixezela!

Umore beltzetik kanpora ere, inoiz, beltzak gertatzen dira Plaentzian. Behin, Domun-santu egunez, apaizak pulpitotik honako dei hau egin omen zuen:

—Gaur, Domun-eguna da, eta txinuendako «koletia» egin behar dugu.

Baina ez uste izan inor txino bezala arrapatzerik.

Parrokiarako organu berria egiteko etxerik etxe diru biltzen ziharduten batean. Diru batzaileetako batek Katu-baltzanean atea jo du, eta:

—Organu barria egiteko diru eske nator.

Baina gure agura hau elizan lehen filetan egoten ez zirenen

artekoa izanarren ere, errespetu guziarekin, honako erantzun hau eman zion:

—Hara, gorantziak parroko jaunarentzat eta esaiozu, gu, lehen go zaharrakin oso konforme gaudela.

Guraso bat apaiz jaunagana joan zen kontseju eske. Apenaz zen diru truk induljentziekin konformatzen ziren hoietakoa, baina ezta ere, ez zen, kontseju bila lehen aldiz joaten zena:

—Gure alabaren erretiru txarrentzat erremedioren bat eman behar didazu. Badakizu ba oraingo gazteak zelakoak diren... bart ere ordubietan etxeratu da eta...

—Ba..., zuk kontseju onak eman, dituan arriskoak ondo erakutsi eta asko errezatu.

—Bai, horretan dihardut, baina hala ere bildurrez naiz.

—Ez zazula bildurrik izan. Zuk zeure ustez ondo hezia ba duzu, konfiantza izan. Oraingo gazteekin gogorrean baino hobe da onean. Kontseju onak eman eta gainerakoa Jaikoaren esku utzi. Zu, trankil.

—Trankil? Trankil bai Jainkoak ankarteko gauzak etxean laga ahal izatekoak egin balitu.

Beste behin, lagun artean ari ziren, amerikanoak ilargiruntz bialdu zuten «Apolo» zeritzan kohetea zela ta, elkarri usteak agertzen. Beretako batek zion:

—Joan bai, joan egin dituk, baina kostako zaiek berriz lurrera itzultzea.

—Zer ba? Orain artekoak ondo etorri dituk, eta nere ustez oraingoak ere ez ditek izango eragozpenik.

—Bai, baina oraingo mundua berriz aurkituko ote ditek?

—Zer ba...?

—Ba; apezak sermoian esan duenez, mundu hau galdua omen zegok.

* * *

En el dialogar humorístico de nuestra zona vasca, cuenca baja

del Deva, se emplea muchísimo el trueque de conceptos para invertir o revertir el sentido propio de los asuntos. De esta forma, al clérigo que no comprendía la falta de fe de un eibarrés, éste le responde que también resulta incomprensible que un seguidor de la moda tuviera devoción por Nuestra Señora de la Antigua.

Se recuerda al placentino que contemplaba la procesión de Oñate y advirtiendo que las imágenes eran de medio cuerpo, y ante las mismas espetó: «Eliminando el cuerpo de cintura para abajo, cualquiera puede ser santo».

Aquel chaval que se presenta a confesarse y a quien el cura le pregunta si sabe qué hace falta para cumplir bien con tal requisito, el mozalbete le responde: —«sacerdote y pecados».

El cura que durante su predicación sobre el bien y el mal acusa a las malas lecturas que atentan a la moral y, a la hora de aportar ejemplos, dice que si se han de leer toda clase de libros, sin distinción entre buenos y malos, por la misma razón, los que defienden tal postura, también deberían comer las setas malas y buenas sin distinción alguna.

El mismo, durante el Domund, pide que se haga «coleta» (colecta) para los chinos.

El escéptico eibarrés que, respetuosamente, supo dar la negativa al encargado de recaudar fondos para el nuevo órgano parroquial: «Mis saludos para el Sr. párroco y tenga la bondad de decirle que nosotros estamos muy conformes con el viejo órgano»

El padre que recurre alarmado al sacerdote porque su hija se retira muy tarde por las noches, y el cura que le recomienda paciencia, buenos consejos y muchos rezos. Es decir, no preocuparse tanto y confiar en Dios. El padre, no conforme con ello, argumentó: «No sería preocupante si el Señor hubiera hecho los penitales desmontables para poder retenerlos en casa».

Un buen día, un grupo de jubilados dialogaba en torno al cohete «Apolo» que acababan de lanzar al espacio los americanos. El más socarrón de ellos dudaba mucho en el éxito del retorno. Opinaba que les costaría encontrar de nuevo la Tierra, pues según manifestó el señor párroco en su sermón del domingo, este mundo está perdido.

1978 - XI - 13

EDICIONES

de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren

ARGITARAPENAK

«GUIPUZCOA» BILDUMA

1—GUIPUZCOA. Antonio Epelde, Serapio Múgica, Jesús Elósegui, José Miguel Barandiarán, Fausto Arocena, José de Arteche, Ignacio Pérez-Arregui, José Ignacio Tellechea, Luis Michelena, Antonio Zavala, Luis Villasante, Miguel Pelay Orozco, Manuel de Lecuona, Javier Bello Portu, Ignacio Barriola, Jesús María de Arozamena, José María Busca Isusi. (Agorturik)

2—ASI ES LA CAJA. (Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren entrepresa liburua).

3—GIZA-BIZIA. DICCIONARIO ANATOMICO BILINGUE. Carlos Goena, S.J.

4—ORIGEN Y EVOLUCION DE LA PINTURA VASCA. EUSKAL PINTURAREN SORRERA ETA EBOLUZIOA. Juan María Alvarez Emparanza.

5—GUIA SENTIMENTAL DEL BIDASOA. Leonardo Urteaga.

6—INSTITUTO ONCOLOGICO DE LA CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA.

7—AGIRIAK. EUSKAL POETAK ETA ARTISTAK G. ARESTI-REN OMENEZ.

8—PINTURA VASCA CONTEMPORANEA. Juan M. Alvarez Emparanza.

9—UN DIA DE SAN MARCIAL. Felipe Iguíñiz.

10—ANTROPOLOGIA Y RELIGION EN EL PUEBLO VASCO. Emeterio Sorazu.

11—DONDE EL VERANEO NACE. José J. Arjona.

12—OPERA OMNIA-ANTXIETA. Juan de Anchieta.

13—SAN SEBASTIAN EN DIBUJOS DE ELADIO JIMENO.

«ECONOMIA» BILDUMA

1—LA FUNCION DE LOS MODERNOS MEDIOS DE PAGO. Alberto Martínez Aramberri.

2—CUENTA CORRIENTE BANCARIA Y CLAUSULA «SIN GASTOS». José María de Eizaguirre.

3—LA FUNCION DE PERSONAL EN UNA ECONOMIA SOCIAL DE MERCADO. XIII Jornadas de Estudio de la Asociación Española de Dirección de Personal.

«DOCUMENTO» BILDUMA

1—LA FORALIDAD GUIPUZCOANA. Antonio Cillán Apalategui (Bigarren argitarapena).
2—LA PARROQUIA DE SAN PEDRO DE LASARTE. Manuel de Lecuona (Agorturik).
3—GUIPUZCOA EN LA EDAD ANTIGUA. PREHISTORIA Y ROMANIZACION. Ignacio Barandiarán. (Bigarren argitarapena)
4—CASERIOS DE GUIPUZCOA. Iñaki Linazasoro. (Bigarren argitarapena)
5—AZCOITIA, CUNA DE PELOTARIS. Jesús María Beristain.
6—MONDRAGON: SUS CALLES. José Letona Arrieta.
7—GLOSAS EUSKARAS. José Luis Banús y Aguirre.
8—LA ATENCION A LA PARALISIS CEREBRAL EN GUIPUZCOA. Centro de Estudios Socioeconómicos Gaur. Asociación Guipuzcoana de Ayuda a la Parálisis Cerebral, Aspace.
9—DE ETNOGRAFIA VASCA: EL CASERIO-RITOS FUNEBRES-GALERA DEL BOYERO-LAS FERRERIAS. Juan Garmendia Larrañaga.
10—RONCESVALLES EN GUIPUZCOA (Hiru zatitan). José María Mutiloa Poza.
11—ESNE ETA HARAGI SORTZEAREN AZTERKETA GIPUZKOAKO BASERRIETAN. Lurgintza.
12—ESTUDIO DE LA PRODUCCION DE LECHE Y CARNE EN CASERIOS DE GUIPUZCOA. Lurgintza.
13—PARTIENDO DE GUIPUZCOA. Iñaki Linazasoro.
14—ORIO EN EL REMO. 75 AÑOS DE HISTORIA. Luis Azcue Aldaz.
15—HISTORIAS DE GUIPUZCOA. José Berruezo.
16—GOGOZ, GURE HERRIKO GAUZAK. COSAS DE NUESTRO PAIS. Juan San Martín.
17—KURTZEBARRI. José Letona-Juan Leibar.
18—CORAL SANTA CECILIA. Javier María Sada.
19—JAN EDANAK. Antonio Arrúe.
20—CATALOGO DEL ANTIGUO ARCHIVO MUSICAL DEL SANTUARIO DE ARANZAZU. Jon Bagüés.
21—CASAS SOLARES DE GUIPUZCOA. Roque Aldabaldetrecu.
22—ARBOLES EN GUIPUZCOA. Gregorio Fisac y Javier Hdez. Aina.
23—TOLOSA'K BERE KULTURAGILEEI OMENALDIA.
24—GREMIOS, OFICIOS Y COFRADIAS EN EL PAIS VASCO. Juan Garmendia Larrañaga.
25—FERRERIAS EN LEGAZPI. Ignacio Arbide y otros.
26—HISTORIA Y GUIA DE TOLOSA. Iñaki Linazasoro.
27—EL PROBLEMA VASCO Y SU PROFUNDA RAIZ POLITICO-CULTURAL. Martín de Ugalde.
28—BIDEZ, GURE HERRIKO GAUZAK. COSAS DE NUESTRO PAIS. Juan San Martín.

«JAKIN» BILDUMA

1—AVIRANETA O LA VIDA DE UN CONSPIRADOR. Pío Baroja. (Agorturik).
2—TERRANOVA. Javier de Aramburu.
3—LOS GATOS. Ramón Zulaica.
4—LOPE DE AGUIRRE, TRAIDOR. José de Arteche.

5—BIOZKADAK. Luis Jáuregui «Jautarkol».
6—CUATRO PASOS POR LA INDIA. Albino Mallo.
7—CIUDADANOS/GUIPUZCOA. Robert Pastor.
8—IPUINAK. Gabriel Aresti.
9—JOANAK JOAN. Yon Etxaide Itharte.

«ANTZERTI» BILDUMA

1—MUÑAGORRI. Antonio María Labayen.

«PREMIOS LITERARIOS CIUDAD DE IRUN» BILDUMA
«IPUIAK» SAILA. (Euskal ipuiak).

1—JA ZAHARRA, JA ZAHARRAREN, JO ETA NI. José Ignacio Zubizarreta Múgica eta Francisco Sagarzazu Badiola. (Saria: 30.000 pezeta). / KARAKOL PRESOA. Luis Haranburu Altuna. / MIRMIÑO. Nicolás Alday Eizaguirre. / BUZTAN-TXURI. Mikel Goenaga Mendizábal. / JONTXU'REN AZKENENGO ITXASORATZEA. José María Etxaburu.

«OLERKIAK» SAILA. (EUSKAL POEMAGINTZA).

1—GAUEAN OIHU. Joan Ignacio Goikoetxea «Gaztelu». (1970 saria: 40.000 pezeta).
2—BIZIAREN ERROETAN. Joan Inazio Goikoetxea «Gaztelu». (1971 saria: 50.000 pezeta).
3—BIZITZAKO URRATSETAN. Martín Iturbe Balda. (1972 saria: 50.000 pezeta).
4—ASEKAITZ. Martín Iturbe Balda. (1973 saria: 60.000 pezeta). / MAITEÑO. Xabier Azurmendi. (1973 amaitzaile).
5—HUTSATIK ESPARANTZARA. Juan María Irigoyen. (1974 saria: 75.000 pezeta) / HERIOTZAREN ETA BIZITZAREN MUGETAKO ENE HITZAK. Iñaki Zubizarreta. (Amaitzaile).
6—HIGIDURA BERDEZ. Mikel Zárate Lejarraga. (1976 saria: 125.000 pezeta).
7—KONDAIRAREN IHAUTERIAN. José Angel Irigaray. (1977 saria: 125.000 pezeta).
8— HERBESTEAN Paulo Iztueta. (1978 saria: 125.000 pezeta).
9— ZURUBI LUZEA Pedro Martín Zabaleta. (1979 saria: 125.000 pezeta).

«POESIA» SAILA (GAZTELERAZKO POEMAGINTZA)

1—TRUENOS Y FLAUTAS EN UN TEMPLO. Antonio Colinas. (1970 saria: 40.000 pezeta).
2—LARGO REGRESO A ITACA Y OTROS POEMAS. Jorge G. Aranguren. (1971 saria: 50.000 pezeta).
3—LOS ARRIATES. Manuel Ríos Ruiz. (1972 saria: 50.000 pezeta).
4—RETRATO RESPIRABLE EN UN DESVAN. Angel García López. (1973 saria: 60.000 pezeta). / CEREMONIAL. José Ledesma Criado. (Amaitzaile).
5—EL AIRE SOMBRIO. Alfonso López Gradolí. (1974 saria: 75.000

pezeta). / EMBRIAGUEZ SIN DIA. Francisco Toledano. (Amaitzaile).

6—PALABRA EN PENA. José Carlos Gallardo. (1975 saria: 100.000 pezeta).

7—LOS TRESCIENTOS ESCALONES. Francisca Aguirre. (1976 saria: 125.000 pezeta).

8—POSESO EN LAYLA. Mahmud Sobh. (1977 saria: 125.000 pezeta).

9—ESCRITO EN EL SUR. Manuel Alvarez Ortega. (1978 saria: 125.000 pezeta).

10—ACUMULADA NUMEROSA HERRUMBRE. Alfredo Buxán. (1979 saria: 125.000 pezeta).

«ELABERRIA» SAILA (EUSKAL ELABERRIA)

1—ESKU LEUNA. Gotzon Gárate. (1977 saria: 250.000 pezeta).

2—ABUZTUAREN 15EKO BAZKALONDOAN. Joxe Agustin Arrieta. (1978 saria: 250.000 pezeta).

«NOVELA» SAILA. (GAZTELERAZKO ELABERRIA).

1—EN LA MUERTE DE SANTA CRUZ JARAMILLO. Luis José Sánchez Cuñat. 1970 saria: 75.000 pezeta).

2—LAS DIMENSIONES DEL CUERPO HUMANO. José María Mendiola. (1971 saria: 100.000 pezeta).

3—LA OTRA VERTIENTE. Gregorio Gallego García. (1972 saria: 125.000 pezeta). (Bigarren argitarapena).

4—TRISTE CANTA EL BUHO. Carlos Murciano. (1973 saria: 125.000 pezeta).

5—CUANDO VIVE LA ILUSION. Manuel Linares. (1974 saria: 125.000 pezeta).

6—EN LA JAULA. José María Alvarez Cruz. (1975 saria: 200.000 pezeta).

7—LA OSCURIDAD SOMOS NOSOTROS. Elena Santiago. (1976 saria: 250.000 pezeta).

8—PARA NO SE QUIEN. Francisco Sagarzazu. (1977 saria: 250.000 pezeta).

9—EL SEÑUELO. J. Ramón Gómez Nazábal. (1978 saria: 250.000 pezeta).

10—LA DERROTA DEL CHIVO. Leopoldo O'Shanahan. (1979 saria: 250.000 pezeta).

«SAIAKERA» SAILA. (EUSKAL SAIAKERA).

1—MIRANDE ETA KRISTAUTASUNA. Joxe Azurmendi Otaegui. (1977 saria: 200.000 pezeta).

«ENSAYO» SAILA. (GAZTELERAZKO SAIAKERA).

1—COLLAGE NUM. 1. Ricardo Ugarte de Zubiarrain. (1970 saria: 50.000 pezeta).

2—BREVE ESTUDIO DE LA NOVELA ESPAÑOLA (1938-1969). Mercedes Sáenz Alonso. (1971 saria: 75.000 pezeta).

3—CINCO ESCRITORES PERIODISTAS. José Acosta Montoro. (1972 saria: 75.000 pezeta).
4—ALGUNOS TOPICOS ESPAÑOLES Y OTRAS DENUNCIAS. José Antonio Alvarez Osés. (1973 saria: 100.000 pezeta).
5—PARTIDOS POLITICOS ECLESIALES. José Luis de Orella y Unzué. (1975 saria: 200.000 pezeta).
6—LA CRISIS DE GUIPUZCOA. José María Mutiloa Poza. (1976 saria: 200.000 pezeta).
7—HACIA UNA NUEVA CONFIGURACION DEL ESPACIO POLITICO. Juan José Ruiz Rico. (1977 saria: 200.000 pezeta).
8—COLONIZACION POLITICA DEL CATOLICISMO. Francisco Rodríguez de Coro. (1978 saria: 200.000 pezeta).
9—GUIPUZCOA EN LA DEMOCRACIA REVOLUCIONARIA 1868-1876. Francisco Rodríguez de Coro. (1979 saria: 200.000 pezeta).

«MANUALES» BILDUMA

1—SETAS - PERRETXIKOAK. Iñaki Linazasoro.
2—JUAN IGNACIO DE IZTUETA. Javier de Aramburu.
3—LAS DANZAS DEL CORPUS DE OÑATE. Ignacio Zumalde.
4—LOS AMIGOS DEL PAIS - HERRI LAGUNAK. Juan Ignacio de Uría.
5—E L ALARDE DE FUENTERRABIA. Javier de Aramburu.
6—IPARRAGUIRRE. Iñaki Linazasoro.
7—CANCIONES DE FLAUTA (1.ª PARTE). Mercedes Iglesias y Alicia Martín.
8—CANCIONES DE FLAUTA (2.ª PARTE). Mercedes Iglesias y Alicia Martín.
9—EL ARTE DE GUIPUZCOA AL ALCANCE DE LOS NIÑOS. GIPUZKOAKO ARTEA HAURREN ADIMENAREN ESKU. M.ª Asunción Arrázola.
10—SALBATORE MITXELENA. Karmelo Iturria.
11—MARIPOSAS DE GUIPUZCOA-GIPUZKOAKO TXIMELETAK. Carlos Gómez de Aizpurua.

«OBRAS SOCIALES» BILDUMA

1—CARTILLA PECUARIA DEL GANADO VACUNO (1947).
2—PROTECCION AL CASERIO (1950).
3—LUCHA CONTRA EL CANCER. 50 AÑOS DE MORTALIDAD Y MORBILIDAD CANCEROSA ESPAÑOLA (1954).
4—PROBLEMAS DE CANCEROLOGIA ACTUAL (1960).
5—INDICE BIBLIOGRAFICO DE PUBLICACIONES BELENISTAS Y TEMAS AFINES (1967).

HAURRENTZAT ALBUMAK

1—ESCUDOS DE LA PROVINCIA DE GUIPUZCOA. José Luis Zubiaurre.
2—MONTES Y RIOS DE GUIPUZCOA. (Agorturik).
3—ALBUM DE ARTESANIA VASCA. Juan Garmendia Larrañaga. (Agorturik).
4—PERSONAJES GUIPUZCOANOS (I SERIE). Javier de Aramburu.
5—PERSONAJES GUIPUZCOANOS (II SERIE). Javier de Aramburu.

6—ARBOLES DE GUIPUZCOA. GURE HERRIKO ZUHAITZAK. Javier Hernández y Gregorio Fisac.
7—GIPUZKOAKO OROITARRIAK-MONUMENTOS DE GUIPUZCOA. Luis Pedro Peña Santiago.
8—GIPUZKOAKO PREHISTORIA-PREHISTORIA DE GUIPUZCOA. Jesús Altuna.

«AUDIOBISUAL» BILDUMA

1— ARTE EN GUIPUZCOA - DIAPOSITIVAS COMENTADAS
GIPUZKOAKO ARTEA - DIAPOSITIBAK ADIERAZPENEKIN
M. Asunción Arrázola.
1.1. La Prehistoria en Guipúzcoa-Prehistoria Gipuzkoan (1).
1.2. Roma en Irún-Erroma Irunen.
1.3. Prerrománico y Románico en Guipúzcoa-Prerromaniko eta Erromanikoa Gipuzkoan (1).
1.4. El Románico en Guipúzcoa-Erromanikoa Gipuzkoan (2).
1.5. El Gótico en Guipúzcoa-Gotikoa Gipuzkoan (1).
1.6. El Gótico y el Mudéjar en Guipúzcoa-Gotikoa eta Mudejarra Gipuzkoan (2).
1.7. El Renacimiento en Guipúzcoa-Errenazimendua Gipuzkoan (1).
1.8. La Universidad de Oñate-Renacimiento - Oinatiko Unibertsitatea--Errenazimendua (2).
1.9. La escultura del Renacimiento en Guipúzcoa-Errenazimenduko eskultura Gipuzkoan (3).
1.10. El Barroco en Guipúzcoa-Arquitectura - Barrokoa Gipuzkoan-Arkiturgintza (1).
1.11. El Barroco en Guipúzcoa-Escultura - Barrokoa Gipuzkoan-Eskulturgintza (2).
1.12. El Neoclasicismo y la Restauración en Guipúzcoa - Neoklasikoa eta Berriztapena Gipuzkoan.
1.13. El Siglo XX en Guipúzcoa - XX mendeko artea Gipuzkoan (1).

LEHEN LANAK

— LO QUE ES Y LO QUE HA HECHO LA CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA EN LOS 25 PRIMEROS AÑOS DE SU VIDA (1921). Agorturik).
— CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA: SU ORIGEN, SUS GARANTIAS, SU EXTENSION, SUS SERVICIOS (1936). (Agorturik).
— CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA (1945). (Agorturik)
— EL AHORRO INFANTIL EN GUIPUZCOA (1946). (Agorturik).
— LA CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA EN SUS PRIMEROS 50 AÑOS (1946). (Agorturik).
— LAS SUCURSALES DE LA CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA (1949). (Agorturik).

ZABALPEN LIBURUXKAK

1—EDUCACION EN CALCULADORAS PARA PROFESORES DE ENSEÑANZA MEDIA.

2—TEORIA Y PRACTICA BELENISTA (INTRODUCCION). Juan Pérez-Cuadrado, Pbro.
3—BREVIARIO POETICO DE LA NAVIDAD. Juan José Pérez Ormazábal.
4—LA NAVIDAD EN LA FILATELIA. Norberto Chiapuso.
5—CONFERENCIAS ACTO ENTREGA TITULOS MASTER (1974).
6—COMO CONSTRUIREIS VUESTRO BELEN PORTATIL. Juan Pérez-Cuadrado, Pbro.
7—EDUCACION Y EXPRESION INFANTIL. HAUR EZKUNDEA ETA EXPRESIO-BIDEA. Educadores de Villarreal y Zumárraga.
8—FIGURAS DE NACIMIENTO. María Dolores Enríquez Arranz.
9—ALEGRIA DE ORIA. MONOGRAFIA DE FRANCISCO XAVIER DE IRIARTE (1786). José Garmendia Arruebarrena.
10—EN AQUEL TIEMPO. Emilio Itúrbide Orduña.
11—LA PINTURA EN LOS BELENES. José Galán de Francisco.
12—BELEN, LUZ DEL MUNDO. David Gonzalo Maeso.
13—COMO SE HACEN LOS CHRISTMAS. Juan Pérez-Cuadrado, Pbro.
14—HISTORIA BREVE DEL BELEN. Juan Gurruchaga Saint Supery.
15—HIJOS ILUSTRES DE SEGURA. Juan Bautista de Ayerbe.
16—ITURRIAGA. Mujikako Gregorio.
17—75 ANIVERSARIO DE LA ESCUELA DE SAN JOSE. Javier M.ª Sada.
18—LA GIMNASIA. José Errasti.
19—EL MEJOR POEMA PASTORIL DE LOPE. Juan José Pérez Ormazábal.
20—ZUMARRAGA-EL TEMPLO PARROQUIAL DE ANDRA MARI DE LA ASUNCION. Iñaki Linazasoro.
21—BELENES DE PAPEL. Rafael Fúster López.

BESTE ARGITARAPENA

1—PALACIO PROVINCIAL - EXCMA. DIPUTACION DE GUIPUZCOA.
2—GUIA DE LA ASOCIACIONO DE LICENCIADOS DE CIENCIAS EMPRESARIALES.
3—GIPUZKOAKO DANTZAK. DANZAS DE GUIPUZCOA (PARTITU-MUSICALES). Juan Ignacio de Iztueta.
4—SOMOS GUIPUZCOANOS. Félix Elejalde. (4gn argitarapena)
5—GIPUZKOARRAK GERA. Félix Elejalde. (2 gn argitarapena)
6—GUIA TURISTICA DE GUIPUZCOA. María Isabel Ormazábal Azurmendi.
7—CATALOGO DE LEPIDOPTEROS. Carlos Gómez de Aizpurua.
8—VIEJAS RECETAS DE NUESTROS CASERIOS. José Castillo.
9—COSAS. ANECDOTARIO DE EUSKALERRIA. Rafael Castellano de la Puente.
10—26.° CURSO INTERNACIONAL DE CRIMINOLOGIA. DELINCUENCIA E INADAPTACION JUVENIL.
11—SUTONDOAN. Rafael Castellano de la Puente.
12—LUR BERRI BILLA. Nemesio Echániz.

DISKAK

1—CORO EASO, San Sebastián.
2—CORO AMETSA, Irún.

3—CORAL ANDRA MARI, Rentería.
4—OCHOTE ERTIZKA, San Sebastián.

MAPAK

1—PLANO DE IRUN Y FUENTERRABIA (1973).
2—MAPA DE GUIPUZCOA (1974).

BIBLIOTECA UNIVERSITARIA

«DOCUMENTO» BILDUMA

1 — La Foralidad Guipuzcoana
2 — La Parroquia de San Pedro de Lasarte
3 — Guipúzcoa en la Edad Antigua. Prehistoria y Romanización
4 — Caseríos de Guipúzcoa
5 — Azcoitia, cuna de pelotaris
6 — Mondragón: sus calles
7 — Glosas eúskaras
8 — La atención a la parálisis cerebral en Guipúzcoa
9 — De etnografía vasca: El caserío-Ritos fúnebres-Galera del boyero-Las ferrerías
10 — Roncesvalles en Guipúzcoa
11 — Esne eta haragi sortzearen azterketa Gipuzkoako baserrietan
12 — Estudio de la producción de leche y carne en caseríos de Guipúzcoa
13 — Partiendo de Guipúzcoa
14 — Orio en el remo. 75 años de historia
16 — Gogoz-Gure herriko gauzak-Cosas de nuestro país
17 — Kurtzebarri
18 — Coral Santa Cecilia
19 — Jan edanak
20 — Catálogo del antiguo archivo musical del Santuario de Aránzazu
21 — Casas solares de Guipúzcoa
22 — Arboles en Guipúzcoa
23 — Tolosa'k bere kulturagileei omenaldia
24 — Gremios, Oficios y Cofradías en el País Vasco
25 — Ferrerías en Legazpi
26 — Historia y guía de Tolosa
27 — El problema fundamental de la cultura vasca
28 — Bidez-Gure herriko gauzak-Cosas de nuestro país

Colección "Documento"

EDICIONES
DE LA CAJA
DE AHORROS
PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA